Moneta-Teoria Berrirantz

[redacted]

[redacted]

Moneta-teoria berrirantz

Joseba Felix Tobar-Arbulu

Udako **Euskal Unibertsitatea**
Bilbo, 1999

© Joseba Felix Tobar-Arbulu
© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-8438-001-7
Lege-gordailua: SS-1051-99

Inprimategia: ANTZA, Lasarte Oria
Azaleko diseinua: Iñigo Ordozgoiti

Banatzaileak: UEU. Concha Jenerala 25, 4. BILBO telf. 94-4217145
e-mail: bulegoa@ueu.org www.ueu.org

Zabaltzen: Portuetxe, 88 DONOSTIA

Gilles Deleuze-ren
oroitzapenean,
Bernard Schmitt
maisuari

"On ne peut penser l'État qu'en rapport avec son au-delà, le marché mondial unique, et avec ses en-deçà les minorités, les devenirs, les 'gens'. C'est l'argent qui règne au-delà, c'est lui qui communique, et ce qui nous manque actuellement, ce n'est certainement pas une critique du marxisme, c'est une théorie moderne de l'argent qui serait aussi bonne que celle de Marx et la prolongerait (les banquiers seraient plus aptes à en fournir les éléments que les économistes, bien que l'économiste Bernard Schmitt ait avancé dans ce domaine). Et en-deçà, ce sont les devenirs qui échappent au contrôle, les minorités qui ne cessent de ressusciter et de tenir tête."

Gilles Deleuze, *Signes et événements*

Aurkibidea

1. SARRERA 7

2. DIRUAREN GARRANTZIA 13

3. ANALISI EKONOMIKOAREN HISTORIAREN ZIRRIBORROA 21

4. DENBORAREN KONTZEPZIO KUANTIKOA 57

5. PRODUKZIOAREN TEORIA MONETARIO BERRIA 67

6. BANKUGINTZA. MONETA ETA KREDITUA BANKU-JARDUERAN 87

7. ANALISI EKONOMIKO BERRIA ETA KEYNES-EN IRAKASPENAK 143

8. EKONOMIA NAZIONALA. INFLAZIO ETA LANGABEZIAREN ETIOLOGIA 159

9. INTERESAREN ARAZOA 205

10. NAZIOARTEKO MONETAREN JAULKIPENA: EUROA ETA BANCORRA 221

11. KANPO-ZORRA: NAZIOARTEKO ORDAINKETEN PATOLOGIA . . 259

12. NAZIO MONETARIOAREN SUBIRANOTASUNA 285

13. KANPO-ZORRA ETA SUBIRANOTASUN MONETARIOA 307

14. EUSKAL HERRIAREN SUBIRANOTASUN MONETARIOA 329

15. HITZATZEA 339

16. ERANSKINAK 343

17. BIBLIOGRAFIA 365

1. Sarrera

"*The difficulty lies, not in the new ideas, but in escaping from the old ones, which ramify, for those brought up as most of us have been, into every corner of our minds*."

John Maynard Keynes, *The General Theory*

Ekonomia politiko klasikoak ongi definitu zuen zientzia ekonomikoaren eginkizuna: produkzioaren legeak, nazioetako 'elkartruke-balioen' banaketarenak eta nazioartekoarenak aurkitzea. Kasurako, ezin dakioke eska ekonomi zientziari ekonomia nazionalaren zenbait sektoreren etorkizuna aurrikustea, hots, asmatzea, hori sasizientziari baitagokio edo, agian, sorginkeriari. Kapitalaren patologiek, (besteak beste, langabezia, inflazioa eta nazioarteko desordena monetarioa, azken honen ondorioa kanpo-zorra izanik), arazo latz horiek, laster izanen dituzte beren soluzioak, analisi ekonomikoa benetan zientzia bihurtuko denean.

Lan txiki hau zenbait urtetako ikerketaren emaitza apala besterik ez da. Hemen agertzen diren ideia nagusiak Bernard Schmitt ekonomialariarenak dira. Schmitt bide berritik abiatu da, ekonomialari klasikoen (Adam Smith, David Ricardo, Karl Marx), neoklasikoen (Léon Walras, bereziki) eta modernoen (John Maynard Keynes, batez ere) ideiak kontuan edukirik.

Schmitt, diru nominala (*currency*) eta diru erreala (*money*) bereiziz, ekonomialari ortodoxo gehienengandik aldenduz, 'erosteko ahalmena' zehazten aritu da. Elkartruke/produkzio bikotea arakatzen saiatu da pentsamendu ekonomikoaren tradizio desberdinetan. Teorialari klasikoen arabera, produkzioa elkartrukea baino lehenago dago determinaturik; marginalistek produkzioa elkartrukearen bidez analizatzen dute; eta Keynes-en iritziz, elkartruke guztiek produkzioak inplikatzen dituzte eta bi fenomenoen artean integrazio osoa dago.

Ekonomi zientzia zientzia aplikatua da, zeina errealitateari atxiki behar zaion. Natur zientzietan ez bezala, analisi ekonomikoetan metodo *induktiboa* errealitatean agertzen diren zenbait gertakarirekin hasten da, beherala ez jarraitzeko gehiagorik Hume-ren irakaspenei, eta soilik *logiko* bihurtzeko, barneko koherentziaren irizpideak garrantzi handiko edukiarekin. Beste aldetik, ekonomi zientzia positiboa eta normatiboa da, patologiaren kontrako erremedioak teorian bertan agertzen baitira: arauak edo normak analisiaren garapen logikoak berak ematen ditu.

Monetaren 'ibilgailu' kontzepzioa eta partida biko kontularitzaren printzipioa dira ikuspegi moderno eta berri honen abiapuntuak. Schmitt-en teoria makroekonomikoaren arabera, eskaintza osoa eta eskari osoa bat eta bera dira. Hortaz, Keynes-en teoria analizatuz, Say-ren ekuazioa beste modu batez agertu du gure ekonomialariak. Ondorio modura, Keynes-en irakaspen erraldoiak aintzakotzat harturik, 'nazio monetarioa' birdefinituz, moneta-teoria berria sortu du, ezagutzen dugun teoriarik emankorrenetariko bat hain zuzen ere, zeina Europako nazioarteko monetari ('euro' delakoari) eta munduko nazioarteko monetari ere ('bancor' edo izan daitekeenari) aplika dakiekeen.

1.1. MAKROEKONOMIA

Magnitude ekonomikoak termino makroekonomikoetan uler daitezke soilik. Magnitude horiek ez dira lortzen agregazioaren bidez; beraiek *multzoak* dira, zentzu matematikoan. Produktu (eta zerbitzu) bakoitza, nahiz eta 'txikia' izan, multzo bat da; gizaki bakoitzaren produktua makroekonomikoa da, produktu bakoitza sormen *neto* baten emaitza baita, berorren deuseztapena geroxeago gauzatzen delarik, produktuak monetan babesa hartu eta gero. Honela, produktu bakoitzak gizartearen ondasuna gehitzen du, bere osotasunean.

Produktua multzoa da, bera zatiezin eta zatiezinezko osotasun bezala agertzen delarik. Ekonomia nazionaleko alokairuen jaulkipenak produktu eta zerbitzu guztiak definitzen ditu; alokairu-unitate bakoitza jadanik multzo elementala da, non produktuak forma hartzen duen.

Makroekonomia guztia zehazki eraiki daiteke alokairuen emisioa dela bide, eta alokairuak, ikusiko denez, positiboak (produkzio-faktoreen merkatuetan), negatiboak (ondasun-merkatuan) eta bietakoak, positibo eta negatiboak, (finantza-merkatuan) izan daitezke.

1.2. MAKROEKONOMIA 'KUANTIKOA'

Schmitt-ek 'produkzioaren teoria kuantikoa' proposatu du, zeina beste ekonomialari guztien teorietatik desberdintzen den, eta fenomeno errealen eta fenomeno monetarioen arteko dikotomia gainditzen duen.

Laburbilduz, honelaxe idatz daitezke Schmitt-en emaitzak:

(i) Makroekonomia erabat loturik dago moneta-teoriarekin.
(ii) Keynes-en irakaspenek diru nominalaren eta diru errealaren bereizketarantz jotzen dute.
(iii) Berriki jaulkitako dirua nominal hutsa da. Ez du ezelako salgaien gaineko erosteko ahalmenik.
(iv) Berriki jaulkitako dirua produkzio-faktoreei (langileei) banatzen zaienean, diru erreal bihurtzen da. Azken errentadunei diruaz (eta ez ondasunez) ordain-

duriko faktore guztiek, ekoitziriko ondasun eta zerbitzuak erosteko ahalmen zehatza ematen die.

(v) Azkenik, inbertsio-erosketetan eta kontsumo-ondasunetan diru erreala gastatzen denean, bere erosteko ahalmen guztia galtzen du diruak, nominal huts bilakatuz berriro ere.

(vi) Nominal/erreal/nominal zikloak diru guztiak aurresuposatzen ditu, baita sortu ez den dirua ere.

(vii) Bankuek diru nominala jaulkitzeko boterea daukaten arren, soilik enpresek —hots, langileek— sortzen dute diru erreala.

(viii) Mozkinak eroslearengandik saltzailearengana transferitua den erosteko ahalmen ez-gastatutik datoz.

(ix) Diru-errentak soilik behin gasta ditzakete beren azken jabeek; behin gastaturik, erabat deuseztaturik gelditzen dira.

(x) Produkzio berri bakoitzak erosteko ahalmen berria jaulkitzen du. Hauxe da faktore produktugileek errenta determinatzen dutelako azken esanahia. Ez dago loturarik epe jarraietan sorturiko errenten artean. Errentek erosketak induzitzen dituzte, baina erosketek ez dute errenta berririk induzitzen.

Diru nominalaren eta diru errealaren arteko bereizketa garrantzitsua da oso Keynes-en iraultza ulertu ahal izateko. Faktore-ordainketak fondo nominalari dagozkio eta erosketak diru errealak soilik finantzatzen ditu. Keynes-ek jadanik 1930ean erakutsi zuen ezen inflazioaren kausa inbertsioetan mozkinen eraldaketa-prozesuari eragiten dion desfuntzionaltasuna zela. Inflazioa ekonomia *errealaren* desoreka da. Beraz, moneta egonkorra eratzea ilusio hutsa da, moneta horretan inflazioak iraunen baitu neurtuta.

1.3. NAZIO MONETARIOA

Edozein nazio bereizi egin behar da bere egoiliarrengandik. Izen bera daukaten moneta nazioanalak elkartruke *absolutu* batek lotzen ditu. Elkartruke absolutuaren bidez gauzatzen diren transakzio guztiek multzo berezia osatzen dute, 'nazio monetarioa' deitzen dena. Nazio monetarioen muga logikoa elkartruke absolutuak eraikitako muga da.

Egungo nazioarteko sasisistema monetarioan transakzioak elkartruke absolutuaren menpe ez daudenez, ondorioa dramatikoa da oso: nazio monetarioek ezin dute beren kanpo-zorra bete, barneko 'substantziaren galera' izugarrien bidez ez bada.

Nazio monetario baten barruan banku-moneta nazional guztiak erabat trukagarriak dira. Beraz, izendapen desberdineko bi monetak ez dute betetzen irizpide eta berezitasun hori. Kasu, formalki ezinezkoa da Frantziako liberak desagertzea Espainiako pezetaren eran agertzeko. Izen ezberdineko bi monetaren elkartrukea *erlatiboa* da, hau da, trukearen bi terminoek iraun egiten dute eragiketa egin eta gero ere.

Bi elkartruke-sistemen bereizketak —absolutua eta erlatiboa— nazio monetarioaren definizio logikora darama. Hortaz, esate baterako, Frantzia oso mugatua du bere monetak; beste era batera esanda, liberaren definizioak Frantziaren definizioa inplikatzen du, Frantzia beste edozein multzotatik erabat disjunktua izanik.

Ondorioz hauxe esan daiteke, alegia, nazio-multzo baten elementua dela nazio horren moneta konkretuaz elkartruke absolutuan bere transakzio ekonomikoak egiteko baliatzen den edozein eragile. Hortaz, edozein monetak moneta berbera bihurtzeko eragiketa konkretuak definitzen duenez, eragiketa hori 'egoiliar nazionalari' dagokio, edozein delarik eragile horren nazio-politikoa.

Elkartruke erlatiboen existentziak banku zentralen aniztasuna dakar. Nazio monetario bakoitza banku zentral konkretuari dagokio. Banku zentral bakoitzak 'izendapen' soil bakarra kontrolatzen du, berak emititzen duen monetak nazioa bera izendatuz.

Gaur egungo nazioarteko sasisistema monetarioa elkartruke erlatiboetan oinarritzen da. Ondorioz, ikusiko den bezala, kaos monetarioak eta kanpo-zorren arazoak agertzen dira, bi nazio desberdinen arteko transakzioak bi moneta ezberdinen bidez gauzatzen direlako, bi moneta horiek bata bestearekiko bateraezinak izanik. Nazioarteko ordainketek barneko bizioa daramate, zorpeko diren herrialdeen kalterako.

Aipatu bezala, makroekonomia da gure gaia, bertan alokairuen emisioak aparteko garrantzia daukala. Beste aldetik, makroekonomia 'kuantikoaz' baliatuko gara Keynes-en iraultza zientifikoa ulertu eta gainditu ahal izateko. Hola, nazio monetario desberdinak bereiziz, nazio monetario bakoitzaren barneko ekonomiaz, eta bertan agertzen den kapitalaren patologiaz (inflazioaz eta langabeziaz) eta nazioarteko ordainketen desfuntzionaltasunaz ere arituko gara, bai eta Euskal Herria nazio monetario bilakatzeko eman behar diren urratsez ere.

Bukatzeko, eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Enrike Galarza nafar ekonomialariari, bera izan baita Schmitt-en lanak arakatzeko laguntza estimagarria eman didana.

Aparteko aipamena egin nahi nioke Bernard Schmitt-i: beraren lanek zerikusi handia daukate egungo ekonomiaren funtzionamendua ulertu ahal izateko. Beste aldetik, Schmitt-en lanetara eraman ninduen Gilles Deleuze gogoratuz, Bernard maixuari dedikaturik dago lana, frantses ekonomialaria baita hemen agertzen diren ideia nagusien azken iturri fidela. Hortaz, liburuttoa *Schmitt for beginners* balitz bezalakoa irakur daiteke.

Europar eta mundu-mailako arazo monetarioek izugarrizko garrantzia daukatenean, adituek gehienetan fokapen pragmatiko eta antzua bultzatzen duten bitar-

tean, garaia da bankugintzaren printzipioak eta berauen erabilpena nazio eta nazioarteko mailan beren horretan hartzeko.

Izan bedi lan hau helburu horretarako saio xumea.

Donejurgin,
1993ko Done Jurgi egunetik 1997ko Done Jurgi egunera

Ad Majoren Vasconum Libertatem

2. Diruaren garrantzia

> "*The great wheel of circulation is altogether different from the goods which are circulated by means of it. The revenue of the society consists altogether in those goods, and not in the wheel which circulates them.*"
>
> A. Smith, *The Wealth of Nations*

Zer da dirua? Galdera horri hamaika erantzun eman zaio. Tradizionalki, dirua —materiala edo ez-materiala— ondasun konkretu batekin edo eta aktibo netoarekin berdindu da. Dirua ez-materiala denetik, bankukoa denetik, dirua eta erosteko ahalmena ezin lot daitezke inolako ondasunarekin edo gordailuarekin. Beharrezkoa da, ikusiko den legez, dirua eta *output* korrontea integratzea.

Kontua hauxe da, alegia, gaur egun diruaren teoria kuantitatiboa dela nagusi eta berori ongi erroturik dagoela. Kasurako, Friedman-en iritziz (1953,1956; Gordon 1974), nazioartean monetek 'flotatu' egiten dute, lehen bereziki dolarraren inguruan eta orain zenbait monetaren biran (dolar, yen, marko, eta suitzar frankoaren inguruan batez ere). Flotazio orokor horren helburua Friedman-en printzipioak aplikatzea da; hots, honela lorturiko truke malguen bidez, herrialde bakoitzak bere egonkortasun monetarioa lor dezan bere irizpideen arabera, bere erroreak direla kausa, dauzkan auzokideei ondorioak ez jasanarazteko. Jakina denez, Chicagoko eskolakoek proposaturikoak ez ditu lortu bere helburuak. Aitzitik, desegonkortasun monetarioa gero eta handiago eta maizago agertu da.

Davidson-ek (1978) idatzi duen moduan, *«Berrogei eta hamarreko hamarkadarako sintesi neoklasiko 'keynestar' aldakorra hain finkaturik zegoen literatura makroekonomiko ortodoxoan ezen ekonomialari zenbait ohartzen hasi baitziren diruaren teoria keynestartzat hedatua izan zena sektore errealari buruzko Keynes-en ikuspegiaren beraren okertzea zela. Ohar horiek praktikoki ez zuten inolako oihartzunik.»*

Davidson-ekin batera uste dugu, erabat gaizki ulerturiko Keynes-en mezua oraindik berraurkitu izan behar dela bere jatorrizkotasunean. Bernard Schmitt irakaslea da berraurkikuntza horretarako lehen urratsak eman dituen bakarrenetariko bat (Schmitt 1960,1966,1971,1972).

Dirua oso garrantzitsua da *output* errealaren era ekonomikoa dirutan soilik agertzen deneko mundu honetan. "*Dirua, hortaz, ez da ezer hutsik, teoriak albora*

dezakeen zerbait. Dirurik gabe produkzioa bat-bateko kontsumoa izanen litzateke, eta zientzia ekonomikoak ez luke edukiko inolako objekturik. Dirua ez da materia, ondasunek huts ez den luzapenean hartzen duten era eta denboran produktuetarako existentziaren modu pentsagarri bakarra baizik" (Schmitt 1986, 126 or.).

Hortaz, lan honetan teoria kuantitatibotik at dagoen beste moneta-teoria bat proposatuko dugu, 1950eko hamarkadatik Schmitt-ek jorratutako ildotik. Gure eginkizuna ekonomialari horren lan garrantzitsuak aipatzea eta komentatzea izanen da; beraren teoriaz baliatuz, Euskal Herrirako irtenbide monetarioa proposatuko dugu Europa barnean, Maastrichteko akordioetatik at eraikitzeko dagoen herri eta nazio berrien Europan.

2.1. SMITH, RICARDO, MARX, WALRAS, KEYNES

Smith, Ricardo, Marx, Walras eta Keynes-ek garaturiko zenbait moneta-kontzeptuk birbalioztatzeak zientzia ekonomikoaren 'guraso fundatzaileen' interpretazioa ukitzen du. Kontua ez da jatorrizko testuen exegesia egitea —exegesiak ez baitauka ezelako interes zientifikorik—, ekonomiaren funtzionamendua bera gehiago eta sakonago ulertzen saiatzea baizik. Trinkotasun logikoa eta babes enpirikoaren froga egiaztatu behar ditu proposatuko den teoria berriak.

Adam Smith-en hitzak, «*(...) zirkulazioaren gurpil handia erabat desberdina da berorren bidez zirkulatzen diren ondasunetatik. Gizartearen errenta ondasun horiek osatzen dute, eta ez beraiek zirkularazten dituen gurpilak*» (1985, 385 or.), ondorio honetara iristen dira: «*Dirua, beraz, zirkulazioaren gurpil handiak, merkaritzarako erreminta handiak (...) ez du parte hartzen bera dagokion gizartearen errentan*». Smithek aberastasuna bankuen monetaren bidez artifizialki gehitzea ezinezkoa zela aldarrikatu zuen, dirua ibilgailua, 'zirkulazioaren gurpil handia', izanik.

Ricardo-k, balioaren aldaezinezko neurriaren bila abiatuz eta bankuko monetari bere garrantzia emanez, inflazioaren lehen azterketari ekin zion.

Smith-en eta Ricardo-ren ondotik, dirua erabat ez-metaliko den baliorik gabeko ibilgailutzat kontsidera daiteke. Dirua ezin identifika daiteke bera loturik dagoe-neko ondasunarekin, berau urrea, papera edo pultsu elektrikoa izanik.

Bere zenbait lanetan, Marx oso hurbil ibili zen balio eta diruaren definizio ez-dimentsionaletik, *Grundrisse* delakoan batez ere. Beraren 'baliokide orokorra' etsenplurik onena da, balio-substantzia kontzeptutik at aske izan daitekeen analisiaren ahalegina azaltzeko. Baliokide orokortzat hartuta, dirua bera ez da inolako ondasuna, edozein ondasun adierazteko era baizik. Hala ere, eta bere eginahalak egin arren, Marxek ez zuen lortu balio-teoria berria eraikitzea, zeinak Ricardo-ren arazoa ebatziko lukeen. Bereziki, lan-indarren heterogenotasunaren eta plusbalioaren mo-

netizazioaren kontuei ez zien ezelako soluzio zuzenik eman (Schmitt eta Cencini 1976, 1977).

Walras baino lehenago, neurketa ekonomikoa dimentsionala zela uste zen. Teoriak ondasun ekonomikoetarako dimentsio axiologiko baten existentzia suposatzen zuen, zeina lan-indarraren ondorioz eraikia baitzen. Izan ere, uste zen ezen ondasunek lana zeukatela, berorren neurketa izanik objektuen lan-dimentsioaren balio numerikoa. Walras-ek objektuen balio numerikoaren kontzeptzioa sortu zuen, objektuen dimentsio ekonomikoa ukatuz. Horren arabera, produktuak materia edo energia dira, eta produktuen balioa, dimentsio gabeko zenbakiek dimentsio fisiko hutsak dauzkaten ondasunekiko lotura zuzena da.

Walras-en intuizioa apartekoa zen, baina beste urrats bat behar zuen argudioak. Egia da ondasunen balioa beren adierazpen numerikoa besterik ez dela, kontabilitate nazionalean erregistratzen den bezala. Walras *numéraire* delakoan —numerarioan alegia— oinarritzen zen; eta, numerarioaren beraren terminotan, numerarioaren prezioa 1 zenbakia zela erabaki zuen. Hau ez da logikoa, zeren numerario-unitatearen prezioa, numerarioaren terminotan, ez baita 1 zenbakia, numerario-unitatea baizik. Hortaz, ekonomia walrasiarrak, are gehiago, teoria neoklasiko guztiak, neurketako unitatea du faltan.

Keynes-ek aldarrikatu zuen, neurketa ekonomikorako egiazko unitatea ez zela dimentsiorik gabeko zenbakia, alokairu-emisioaren eragiketan neurketako unitate bilakatzen den zenbakia baizik, zeren alokairu monetarioen ordainketan produktu fisikoak bere era monetarioa hartzen baitu. Neurketa-unitatea *alokairu-unitatea* da —balioaren azken neurria alokairuak dira—, zeren alokairu monetarioek eraren eta substantziaren baliokidetza definitzen baitute, hau da, produktuaren eta alokairutan ordaindutako moneta-unitateen kopuruaren baliokidetza. Alde batetik, dirua kontu-unitatea (numerarioa) da, eta, bestetik, pagu-unitatea (numerarioak ondasunak eta zerbitzuak erosteko ahalmena positiboa edukirik).

Keynes-en errenta-sormenaren eta errenta-gastuaren arteko *identitate* ospetsua garrantzi handikoa da. Azkenik ikusiko da, ezen diruak bere erosteko ahalmena eskuratzen duela, langileei, soldatapekoei, ordaintzen zaien unean bertan.

Kontua honako hau da, alegia, Keynes-en pentsamendu sakona oraingoz bere onarpen osoa itxaroten ari dela, emankor izan dadin eta eman ditzakeen fruituak ugariak eta onerako izan daitezen. Schmitt erabiliko dugu bide berri hori urratzeko.

Argi dago Keynes-en lan askok ez dutela babesten hemen emanen den interpretazioa; ikus, dena den, Friboulet (1985a,b;1988) eta Bradley, Friboulet eta Gnos (1996). Gure helburua ez da, esan bezala, exegesisa egitea. Keynes-en aparteko intuizioak maisuki analizatu eta garatu ditu Schmitt-ek (1984a; 1985a,b; 1986; 1987a; 1996). Azpimarratzekoak dira, diruaren definizio berria sortzen ahalegin-

tzeko, Keynes-en beraren zenbait baieztapen. Arazoa, beste aldetik, honetan datza, hots, ea Schmitten bidetik gero eta sakonagora ote goazen, ea gero eta ulergarriago ote den ekonomiaren funtzionamendua.

2.2. MARX-EZ HARANTZAGOKO MARX BERRIA

Deleuze-ren iritziz (1988), Estatua baino harantzagoan, dirua da nagusi; bera da komunikatzen duena eta falta zaiguna. Hau ez da marxismoaren kritika, diruaren teoria modernoa baizik, Marx-en teoriak berak baino sakonago eta berriago izan beharko duena.

Deleuz-ek zioenez, ez zitzaion batere interesatzen inolako filosofia politikorik kapitalismoan eta berorren garapenean zentraturik ez legokeenik. Marx-engan gehien interesatzen zitzaiona, bere mugak etengabe berrezartzen dituen sistema inmanentetzat kapitalismoaren analisia burutzea zen, muga horiek beti eskala handiago batean agertzen direlarik, zeren muga kapitala bera baita.

Esan bezala, une honetan falta zaiguna, gaurko kapitalismo-motak egiten duena ulertzeko moneta-teoria egokia da. Marxista askotxo neoklasizismoari lotu zaion bitartean, beste batzuk oraingoz produkzio-moduari lotzen zaizkio, nolabaiteko produkzio 'sozialista' proposatzeko asmoz. Hasieratik bertatik dator errakuntza.

Marxen analisian, alta, moneta ez zen merkantziei gehitu ahal zitzaien kategoria osagarriren bat, alderantziz baizik, hots, merkantzia horiek existitzeko baldintza bera (Schmitt eta Cencini 1976,1977). Marx-en analisiak zuzenduz, eta, monetari buruz Smith, Ricardo, Walras eta Keynes-en aportazioak kontuan edukiz, Bernard Schmitt bere bizitza osoan aritu izan da, 1950eko hamarkadatik, egoki izan daitekeen moneta-teoria berria plazaratu nahiz. Schmitt da une honetan teoria ekonomikoan monetaren arazoa sartu duen bakarrenetariko bat. Chicagoko eskolakoek ez bezala, Schmitt-ek analisi aristotelikoa egin du moneta-era eta moneta-fondoa bereiziz, produktua monetan integratzeko asmoz.

Adam Smith, David Ricardo, Karl Marx, Léon Walras eta John Maynard Keynes-en ildotik, inflazioa eta langabezia aztertzeari ekin dio Schmitt-ek, bai eta nazioarteko desordena eta kanpo-zorra aztertzeari ere. Beraren emaitzak beste teoria ekonomiko mota batera garamatza; are gehiago, ekonomi teorian egon daitekeen haustura epistemologikoaren aurrean gaudela esatera ausartuko nintzateke. Marx-ek egin zuen antzera, kapitalismoa kapitalaren funtzionamendu patologikoaren bidez ikertuz eta salatuz, Schmitt dukegu gaur egungo ikertzailerik interesgarrienetakoa.

Schmitt-ekin batera, marxista ez, baina marxiar[1] izaten segitzen dugu, nolabait smithtar, ricardoar, walrasiar eta keynestar izaten segitzen dugun antzera.

Frantsesek egiten duten antzera marxiar (*marxien*) eta marxista (*marxiste*) bereizten ditugu. Horrela, Marx-ek bere buruaz esan zuena, «*Ni ez naiz marxista*» delakoa, bereganatzen dugu.

2.3. MARX-EN ETA KEYNES-EN ILDOTIK

Schmitt-en iritziz, arazo monetarioak Marxen eraikuntza teorikoaren gune zentrala betetzen du, alegia, moneta ez da analisi marxiarrean kategoria osagarria, zeina merkantziei gehitu zaien, alderantziz baizik, hots, merkantziak existitzeko baldintza.

Balioa definitzean, marxista batzuk (eta Marxek berak ere zenbait testutan) balioa elkartrukeak determinatzen duela diote. Beste aldetik, definizio hori ez dago urrun balio *erlatiboaren* definizio neoklasikotik.

Interpretazio marxiarraren arabera, alta, bi merkantziaren arteko elkartrukea balio *absolutuen* bidez gauzatzen da. Hau da, merkantzia baten balio-kantitatea neurtzen duena ez da trukea, alderantziz baizik: merkantziaren balio-kantitateak bere trukearen harremanak zuzentzen ditu. Analisi marxiarraren oinarrizko puntu hori ahantzirik, Marx-en zenbait dizipuluk uste izan dute ezen balioaren sormena moneta-eraren determinaziotik banatu beharko dela, honela balioaren analisi klasikoa prezioen analisi neoklasikoarekin ados egon dadin. Zoritxarrez, joera horrek bidea ireki dio Marx-en obraren interpretazio neoklasikoari, aldi berean monetaren beraren definizioa ukatu duelarik.

Beraz, balio-eraren determinazioa elkartrukeari lotzea zuzena izanen balitz, zuzena izanen litzateke baieztatzea ezen merkantzia baten balioaren adierazpen monetarioa berorren balio erlatiboaren determinazioarekin bat datorrela. Produktu-merkatuko trukea lan-merkatuko truketik banaturik dagoenez, oreka orokorreko sistema neoklasikoa eraikitzeko ezelako oztoporik ez dagoela ematen du, eta berari kontrajartzen zaionik ezer ez dagoela. Ondorioz, monetak ez dauka inolako loturarik balio absolutuarekin.

Halaz ere, balio absolutuaren lehentasun logikoa azpimarratuz, Marx-ek argi eta garbi baztertzen du produktu-merkatuari eginkizun erabakiorra ematea. Honela, Marx-ez geroztik, balioak elkartrukea erregulatzen du, eta ez elkartrukeak balioa. Balioak erabat determinaturik egon behar du, *merkatuaren mekanismotik kanpo*. Honela, Schmitt-ekin batera esanen dugu ezen:

(i) Merkantzia bakoitzak erabil-balioa eta truke-balioa dauzkala;
(ii) balioa dela ondasun bat merkantzia, hots, produktu sozial bilakatzen duena;
(iii) balioa, produktuaren eta lanaren artean ezartzen den baliokidetza-harremanak determinatzen duela;
(iv) ondasun heterogenoak beren balioaren oinarrian konpara daitezkeela.

Aurreko puntuetatik, ondorioz, hauxe ateratzen da:

(v) Balioa definitzen duen baliokidetza-harremana produktuen merkatuko trukearekiko independentea da.

Hau da, balioa merkantziarekiko erlazioan besterik ez da existitzen, merkantzia balioarekiko erlazioan soilik existitzen den antzera. Hauxe da, hain zuzen ere, produktua ⇔ lana baliokidetzaren erlazioaren esanahia.

Merkantzia bakoitzari trukea baino lehen balioa badagokio, egiazkoa da, halaber, balio hori berori adieraz daitekeela beste edozein merkantziaren erabil--balioa kontuan eduki gabe. Beste hitzetan esanda, beharrezkoa da balio-era determinaturik izatea, merkantziak baliokidetza-erlazioan sartu baino lehen. Produktumerkatuan balioa trukea baino lehenagokoa dela jakinik, logikoki, berorren adierazpenak edo erak truke horrekiko independente izan behar du. Alegia, balioa produktuaren eta lanaren artean ezartzen den erlazio sozialak definitzen duela emanik, balio-era erlazio berberetik besterik ezin da ondorioztatu, hots, balioa eta balioaren era erabat loturik daudela: biek objektu soil eta bakar bat besterik ez dute definitzen.

Moneta balio-era bat izanik, eta produktuaren eta lanaren arteko baliokidetza erlazio huts-tzat balioaren era definiturik, beharrezko al da induzitzea moneta logikoki berorren substratu materialetik independentea dela? Erantzuna baiezkoa da, dudarik gabe.

Marx-ek, bere balio-teoria zehaztu nahirik, lanaren neurketa kronologikoa baztertu zuen, 'baliokidetza orokorra' definituz. Honela, baliokidetza sartu zuen, balioarekin batera, produkzio-prozesuan. Ez dago monetarik Marx-engan, ondasunik ez badago; eta alderantziz ere ez, baliokide orokorra baita, definizioz, balioaren era edo adierazpena. Izan ere, moneta da lanari irizpide soziala ematen diona. Moneta da alokairuen bidez ondasunak neurtzen dituena. Integratzea, hortaz, zenbakien (numerarioa alegia) eta ondasunen arteko lotura egitea da, zeina produkzio-prozesuaren emaitza den (Schmitt 1966,1984a,1996).

Laburbilduz, monetak (hots, baliokide orokorra) produktuaren neurketa soziala bermatzen du, zeren alokairuak lan indibiduala lan sozial bihurtzen baitu. Ondo-rioak, besteak beste, hauexek dira: lanaren eta lan-indarraren bereizketa alboratzea, mozkinaren adierazpen berria eta produktuaren neurketan kapital tinkoaren amortizazioa kontuan ez edukitzea (Schmitt 1984a).

Beraz, alokairuen neurketa baliokide orokorraren analisi marxiarretik dator. Marx-ez geroztik, baliokide orokorrak balioaren adierazpen numerikoa errepresentatzen du.

Ildo horretatik eta Keynes-en lanei interpretazio berria emanez (Schmitt 1966,1984a) ikus daiteke ezen moneta ez dela kategoria osagarria, merkantziari gehitua, merkantzia hori existitzeko baldintza baizik. Merkantzien agertzea ahalbidetzen duen prozesu historikoak une berean bere era monetarioa definitzen du.

Monetaren agerpen orokorra produkzio-modu kapitalistaren garapenarekin bat dator. Produkzio-prozesuak determinatuak izanik, balioak merkantzia definitzen du, eta beronek une berean bestea definitzen du. Beste era batera esanda, balioa eta merkantzia hain loturik daude, non biek elkar definitzen baitute. Honela, produktua merkantzia bat da balioa daukalako edo, eta gauza bera dena, produktuaren existentzia merkantziatzat bere balioaren existentziak definitzen du. Edo, balioa bere existentzia sozialaren erak definitzen du, balioa definitzen duen prozesu berberak era edo forma ematen duelarik.

Marx-en zenbait testu arakatuz, (*Grundrisse* delakoa, batez ere), Schmitt eta beraren dizipuluak (Schmitt (ed.) 1985) demostratzen ahalegindu dira moneta ez dela bigarren mailako arazoa, zeinaren ikerketa banku-teknikaz aditu direnei baitagokie, baizik eta moneta dela edozein teoria ekonomikoren muina bera. Izan ere, Schmitt-ekin batera esan daiteke ezen eskariaren eta eskaintzaren baliokidetza, moneta objektutzat duen legea dela (Schmitt 1966, 1984a).

Marx-en eta Schmitt-en artean zenbait berdintasun badaude ere —adibidez, biek produkzioan integratu nahi dute moneta—, badaude, egon, desberdintasun batzuk ere. Marx-ek moneta integrazioaren beraren definizio legaletik zetorrela zioen artean, Schmitt-en teorian, integrazioa produkzio-faktoreek lortua da.

Beste aldetik, Schmitt-en analisian alokairuek errenta nazional osoa errepresentatzen dute, produktu nazionalaren osotasuna, berez, alokairu nominalei dagokielarik. Marx-en aburuz, alokairuek errenta nazionalaren zati bat besterik ez dute adierazten.

Gainera, ondasunen jabegoari dagokionez, Marx-en aburuz ondasunen jabea enpresa da, eta enpresak produkzio-faktoreei ordaintzen die. Schmitt-en ustez, aldiz, ondasunak enpresetan gordailaturik daude, enpresak ‘kontsigna’ edo gordeleku balira bezala. Enpresa ez da ondasunen jabea, produkzio-faktoreak baizik, alokairu nominal osoak produkzio nazional guztia erosteko ahalmena baitauka. Ezberdinta-sun horrek kontabilitatea kontuan hartuko duten beste ondorioetara eramanen gaitu, geroxeago ikusiko den bezala.

3. Analisi ekonomikoaren historiaren zirriborroa

3.1. MAKROEKONOMIA MODERNOA

Pentsamenduaren historiari buruzko estudioen helburu garrantzitsuenetarikoa norberak har dezakeen irakaskuntzaren ikuspuntu kritikoa eduki ahal izatea da, hots, norbera prestatzea. Ikuspuntu kritiko hori ez da, tamalez, askotan agertzen zientzia ekonomikoaren garapenaren historian.

Analisi makroekonomikoaren oinarriak fisiokratenganaino eta Adam Smith-enganaino iristen dira. Makroekonomia zientzia ekonomikoaren legeez arduratzen da, zeintzuk XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendean ekonomia politikoan agertu baitziren.

Beste aldetik, zientzia ekonomiko makroanalisia eta mikroanalisia deritzen arloetan banatzeko joera ez da behin-betikoa. Analisi makroekonomikoaren oinarriak mikroekonomikoak balira, oraingoz zenbait ekonomialarik esaten duten antzera, mikroanalisiak diziplina honen arlo guztia inguratuko luke; alderantziz, mikroanalisia makroanalisiaren emaitzetan oinarritzen bada, uste dugun moduan, orduan esan behar da, makroekonomia zientzia honen arlo bateratua dela. Baieztapen hori mamitzeko, Schmitt-en lanez baliatuko gara.

Agian ekonomiaren garapena hobeto uler daiteke azkenetik hasita. Nola irits daiteke John Maynard Keynes-en teoriaz kanpo egon litekeen beste teoria batera? Teleologiaren antzeko zerbaiten aurrean gaudela esan daiteke. Beraz, ekonomialari historikoen intuizio handiak beharbada hobeki ulertuko genituzke, gaur egungo teoriaren lerro nagusietatik abiatuko bagina.

3.2. ANALISI MAKROEKONOMIKO MODERNOAREN IRAKASPEN BEREZIAK: eskaintza osoaren eta eskari osoaren baliokidetza

Ekonomiaren legeak ulertu ahal izateko, beharrezkoa da berehalako gertakarien behaketatik abstraitzea. Legeen bitxitasunaren lehen etsenplua eskari eta eskaintza osoen identitatea edo baliokidetza da. Identidatea are 'bitxiago' bilakatuko da, eskari eta eskaintza indibidualen mailan agertuko denean. Orduan ulertuko dugu analisi makroekonomikoa ez dagokiela magnitude agregatuei. Izan ere, ekonomi zientzia ez da testuliburuek nonahi aldarrikatzen duten agregatuen zientzia.

Itxura guztien arabera, ekonomia 'nazionalak' (Banku Zentralaren ingurukoak, alegia) bi 'indar' desberdinen ondorioak jasaten ditu, Alfred Marshall ekonomialari ingelesak aipatu zituen eskariaren eta eskaintzaren indarrak: alde batetik, enpresek produktua eskaintzen dute (ondasunetan eta zerbitzuetan); beste aldetik, familiek eta enpresek produktua eskatzen dute. Honela, eskaintza eta eskaria neur daitezke beren artean: orekara iristen badira, herrialdearen ekonomia bera orekaturik dago. Eskaintza eskaria baino handiago denean, ekonomia nazionala 'deflazioan' dago; alderantziz, 'inflazioan' dago eskaria eskaintzaren mailara murrizteko egokitzeak gai ez denean.

Eskaintzaren eta eskariaren egokitzapenek, oreka eta desorekek, alta, ez daukate inolako existentzia errealik. Baina, ez al da egia, edozein produktutarako, eskaintzaileak eta eskatzaileak lehian aritzen direla? Zergatik ez da gauza bera gertatuko ekonomia osoan, eskari guztiak eta eskaintza guztiak 'osoturik' daudelarik? Ekonomialariek ez daukate aipatzen duten errealitateaz ezelako frogarik; suposatu egiten dute.

Ekonomia nazionalak ezin du ezagutu, identikoki eskaria ez den ezein eskaintza, ezta inolako eskaria, identikoki eskaintza ez denik ere: bi 'indar' horiek errealitate bakar baten bi aldeak dira. Baliokidetza horren aurkikuntza Keynes-i dagokio, nahiz eta hori lehenagotik ezaguna izan, beste modu batean, askoz inperfektuagoan, Say-ren —XIX. mendeko frantses ekonomialaria— identitatea izenaz.

Zer esan nahi du Keynes-en *identitateak*? Hitzez hitz, hauxe da: edozein produktutarako eta edozein alditan, ezinezkoa da produktua eskaintzerik, produktua eskatzen ez bada, ezta eskatzerik ere, eskaintzen ez bada, elkarren kontrako bi indarrak zehazki 'ko-extensibo' izanik, produktu nazionalari dagokionez.

Testuliburuetan, aldiz, produktua eskaintza independentearen objektua izan dadin nahi izaten da, hau da, eskaintza baino handiagoa edo tikiagoa izatea; edo eskaintzaren ainakoa izatea.

Zein ote da, bada, Keynes-en identitatearen esanahi ezkutua? Produktua jadanik bere titularren eskuartean dagoela esan nahi du, bera erosia izan baino lehenago ere; izan ere, produktua enpresetan gordeta eta 'prozesutan' utzirik balego, eskaintzaileen multzoaren eskuartean legoke, errenta monetarioak eskatzaile potentzialek edukiko lituzketen bitartean: baldintza horietan, eskaria 'huts edo purua' izanen litzateke, eta gauza bera eskaria bere aldetik, ulertuz ezen, eskaintza eskaintzaileak eskatzen ez duen produktuaren gainean praktikatzen dela, eta paraleloki, eskaria eskatzaileak eskaintzen ez duen produktuaren gainean deklaratzen dela.

Hala ere, errealitatea sakonagoa eta era berean sinpleagoa da: errenten titularren —familia eta enpresa— hartzekora iritsi baino lehen, *produktu nazionala era monetarioan gorderik dago jadanik.*

Hortaz, eskaria eta eskaintzaren baliokidetza lege bat da, zeinaren objektua *moneta* den (Schmitt 1984a).

3.3. MONETAREN KONTZEPZIOA

Analisi makroekonomikoaren historian, monetari buruzko bi kontzepzio desberdin aurkeztu dira soilik:

(i) Moneta ondasun errealetatik banandurik dagoen ondasun modura,
(ii) (oraindik saldurik ez dauden) produktuen zenbaki-era edo era numerario modura.

Lehen kontzepzioaren arabera, eskaintza eta eskaria bi indar desberdin dira, hots, dikotomikoak. Izan ere, moneta *per se* 'aktiboa' baldin bada, aktibo errealei parekatzen zaie, nahiz eta produktua errenta monetarioen titularrei ez dagokien, produktua erosteko ahalmenari baizik. Erosteko ahalmena erabili ez den bitartean, produktua ez dago oraingoz eskaturik: eskainia da soilik. Simetrikoki, produktua errenten titularrek soilik eskatua da, beraiek produktua erosteko ahalmena besterik ez baitaukate, eta ez produktua bera.

Keynes-en legea ulertu nahi bada, monetaren bigarren kontzepziora iragan beharra dago (Schmitt 1984a): moneta zenbakiera edo produktu nazionalaren matrizea izanik, argi dago ezen errenten titularrek jadanik produktua daukatela produkzioaren monetizazioaren bidez berek eskuratu duten monetan. Beraz, beharrezkoa da 'produkzio-gastu makroekonomikoen' pagua errenta monetarioen jaulkitze bezala adieraztea, hots, bankuek sortutako 'moneta hutsa' 'moneta bete' bihurtze modura esplikatzea: jaulkitako errentak ordainketan banaturiko monetan gorderiko produktuak definitzen ditu.

Eskaintza eta eskariaren baliokidetzak moneta-eraren eta berak daukan produktuaren identitatea esan nahi du.

Moneta, produktu arruntekiko ondasun independentea balitz, orduan, eskaintza —produktu arrunta definitzen duena hain zuzen— une konkretu batean nazioak duen 'masa monetariotik' independentea litzateke; horrela, eskaintza eskariarekiko independentea izanen litzateke, edozein eskari agenteek daukaten monetaren arabera erabiliko litzatekeelarik.

Schmitt-en iritziz, Keynes-en teoriak baieztatzen du ezen moneta epealdi bakoitzeko produktu berria daukan era edo eredua baino ez dela, azken erosketek produktua 'desbahiturik' utziko duten aldiunera arte, non monetak, berehala, existitzen lagako duen. Hortaz, moneta *saski* ez-materiala da, 'matrize elemental askoren' bilduma, non epealdi bakoitzean, produktu nazionala gorderik dagoen, azken erosketek saskia bere edukirik husten duten aldiunera arte —berehala, saskia bera existitzen lagatzen delarik—.

Saskiaren eta beronen edukiaren koexistentziak errenta monetarioa definitzen du, batera magnitude nominala (bere eran, *currency*) eta erreala (bere edukian, *money*) dena. Errentak eskaria definitzen du; errenta saski elementalen unitateen —kasurako, espainiar Estatuan zentimoak— kopurua da, errenta-titularrek jadanik gordetako produktuaren neurri zehatza, zeren produktua alokairu, mozkin, interes, dibidendo eta errentatan eraturiko monetan edukita baitago. Errenta berberak eskaintza definitzen du, zeren oraingoz saldurik ez dagoen produktuaren osotasuna errentatan jaulkiriko monetan edukirik baitago.

Egia da, moneta-eran, produktu-fondoaren integrazio-teoria modernoa dela eta nahikoa 'sofistikatua', gainean. Esan al daiteke, uste dugun bezalaxe, teoria hori ekonomia politikoaren iturrian dagoela, bai eta beronen garapenean zehar ere, gutxienez beraren erna-muinetan? Izan ere, bera baieztatzen lagako digun ondoko irizpidea esatera goaz: monetan gertatzen den produktu arruntaren integrazioak, itxuraz, errenta nazionalaren oso definizio estua behartzen du; berorren definizioan alokairuak —zuzenak eta sozialak— sartzen dira soilik. Izan ere, Keynes-ek irakasten duenez, batez ere *General Theory* (1936) delakoan, alokairu monetarioaren unitatea da edozein magnitude ekonomikoren neurri-unitatea. Ez-alokairuzko errentak ere, bereziki mozkinak, alokairuen unitatetan dira neurtuak. Uler bedi: neurriaren printzipio unitario honek *errenta nazionalaren batasuna* inplikatzen du, *zeina soilik alokairuek osatzen duten*.

Baina, baldintza horietan, nola adieraz daiteke ez-alokairuzko errentaren existentzia, hots, mozkin, errenta, dibidendo eta interesena?

Galdera hori garrantzitsu da oso, eta bilatzen ari garen irizpidea emango digun, zeinaren bidez edozein teoria ekonomikotan (historian nahiko urrun joanda ere, are XVIII. mendearen bigarren erdiko fisiokratenganaino) monetaren eta produktuaren ez-dikotomia ezarri ahal dugun.

Nola azal daiteke nazioan errentaren kategoria desberdinen produkzioa, produkzio-egintza berez jarduera sinplea bada? Emandako soluzioak moneta inplikatzen du: produktu soziala monetan —materiala edo bankukoa— gorderik ez balego, produkzioak ez lituzke errenten kategoria batzuk sortzen lagako. Honelaxe orokor daiteke zientzia ekonomikoaren garapen historikoan zehar aurki daitekeen irizpidea:

Zientzia ekonomikoaren garapenaren aro guztietan, errenten pluraltasunaren existentzia monetan produktu-integrazioaren teoriarekin dago lotuta, hau da, eskaintza eta eskariaren identitatearekin.

Laburbilduz,

(1) Ez dago dudarik ekonomia nazionalak kategoria desberdineko errentak dauzkala, hala nola alokairuak eta mozkinak. Errenta soziala, epealdi bakoitzean,

gizarte osoaren aberastasuna da, ustez netoa dena: gaur egunean errenta netoa makroekonomikoa dela esaten da. Baina, zein da aberastasun horren iturria? Pentsamendu ekonomikoaren historia osoan teoria bakar bat dago, —Léon Walras-ek eraikia—, non errentaren iturria plurala den. Schmitt-ek salbuespen hori erreala baino gehiago itxurazkoa dela frogatu du.

Fisiokratengan, ekonomialari klasiko ingelesengan eta John Maynard Keynes-engan ere, aberastasun sozialaren iturria bat eta bakarra da. Zientzia ekonomikoaren arazo handia, errenta sozialaren iturri-batasuna produktu neto nola bilakatzen den adieraztea da. Hots, banaketan produkzioaren eraldaketa nola gauzatzen den adieraztea. Ezein soluzio ez litzateke ulergarri izanen, baldin eta monetak eta produktuak errealitate bakarra eta berbera osatuko ez balute.

(2) Monetak epealdi bakoitzean —edozein banaketaren aurretik joaten den produkzioaren epean hain zuzen ere— produktu berriaren osotasuna hartzen du. Produktua zuzenean naturan agertuko balitz, gizartea 'kapa sozial' desberdinen artean banatzeko ez-gai izanen litzateke. Monetan gertatzen den produktuaren integrazioa, hortaz, produkzio 'unidimentsionaletik' banaketa pluralera pasatzeko, baldintza beharrez-koa da, *sine qua non* motakoa.

3.4. FISIOKRATEN TEORIA EKONOMIKOA. ERRENTA SOZIAL DESBERDINEN ADIERAZPENA MONETAN, PRODUKTUAREN INTEGRAZIO MODURA

Analisi makroekonomikoaren oinarriak Fisiokratenganaino iristen dira. Analisi fisiokratikoa, gizartean zehar zirkulazioan dagoen moneta osoaren kopuruan gertatzen den produktu netoaren osotasunaren hasierako integrazioaren printzipioan datza. Bitan bananduko dugu analisia:

(i) zirkulazioan dagoen monetan produktu netoaren hasierako integrazioa; eta
(ii) produktu netoaren hurrengo banaketa errentatan, alokairutan eta interesetan.

3.4.1. Zirkulazioan dagoen monetan gertatzen den produktu netoaren hasierako integrazioa

Tableau économique hirupolar edo piramidalaren bidez garatzen da argudioa: piramidearen puntan lurjabeak daude; oinarrian bi klase daude aurrez aurre, nekazariak (edo nekazarien klasea) eta industria sortuberriko eta artisautzako enplegatuak (klase antzua).

Hitz moderno bat erabiltzeko, lurjabeek jaulkiriko azken erosketetan produktu netoa erabat monetarizaturik dagoela esan daiteke; esate baterako baldin eta, urte konkretu batean, jabeek beste bi klaseekiko 2 mila milioi unitate monetario jaulkitzen badituzte, definizioz, produktu soziala 2 mila milioi unitate monetario baliokoa da (edo balio du). Oso garrantzitsu da baliokidetza horren izaera ulertzea.

Azken erosketetan jaulkiriko 2 mila milioi unitate monetarioek produktu netoa neurtzen dute integrazioz.

Erraz ulertzen da zirkuitu fisiokratikoan monetak inolako barne-baliorik ez izatea; bi mila milioiak batera jaulkia eta berrartua den kopurua da: hain zuzen ere produktua monetaren mugimenduak definitzen duen zirkuluan (joan-etorri horretan) dago itxirik. Beraz, absurdua litzateke galdetzea ea 2 mila milioi unitate monetarioek benetan produktu netoak daukan balioa bera dutenentz: lurjabeek 2 barik 3 mila milioi gastatuko balute, produktu netoak 2 gabe 3 mila milioi balioko luke. Beste era batera esanda, monetak, edozein materiaz egina izanik ere, kanpo-balio hutsa du, epealdiko produktu netoaren erosketarako lurjabeen gastu monetarioen kopuruak determinatua.

Ikus dezagun zehaztasun handiagoz produktu fisiokratikoaren integrazioa monetan. Berori bi puntutan eginen dugu: (a) erosketa-ahalmen monetarioa ez da epealdi bakoitzeko produktuaren erosketan lurjabeen moneta-injekzioa baino lehenago egoten; (b) produktu netoa erosteko ahalmenak ez du konstante irauten bere ekitaldian: epealdi bakoitzean (urtero) berritu behar izaten da.

3.4. 1.a. *Moneten erosketa-ahalmena produktu netoaren ordainketan sorturikoa da.*

Azalezko analisiaren bidez, fisiokratak 'kuantitatibistak' lirateke; hau da, monetaren eta berorren erosketa-ahalmenaren batasuna edo nahasketa suposatuko lukete. Errealitatean, fisiokraten argudioa zirkuitua definitzen duen *Tableau économique* delakoan dago proposaturik: lurjabeek gastaturiko moneta da lurjabeen irabazi monetarioaren definizioa; bestela esanda, jabeek beren errentak sortzen dituzte moneta erabiliz, gastatuz. Baldin eta, urte konkretu bateko produktu netoaren erosketarako jabeek 2 mila milioi moneta-unitate gastatzen badituzte, beren errenta monetario netoa, epe horretarako, 2 mila milioi moneta-unitatekoa da; jabeen gastuak errenta desberdinak sortzen ditu, gastua baita errenten baldintza nahikoa eta beharrezkoa. Ikusten denez, nahiz eta orain dela bi mende formulatua izan, analisi hori harrigarriro modernoa da: gastuek berek sortzen dituzte errentak. Hortik ondorioztatzen da ezen, eratzen denean, lurjabeen errenta definizioz jadanik gastaturik dagoela.

3.4.1.b. *Monetaren erosketa-ahalmenak ez du bere gastuak baino gehiago irauten.*

Teorialariak monetaren erosketa-ahalmena monetatik beretik bereizezinezkoa dela erabakiko balu, onartuko luke ezen, ondorioz, 2 mila milioi unitate monetarioren gastuak denboran zehar erosketa-ahalmena helaraziko lukeela; honela x bider erabili ahalko litzateke, 10 bider 10 urtetan kasurako. Lehen urteko produktu netoaren erosketak gastatua, bigarren urteko produktu netoaren erosketarako erosketa-ahalmena bera egonen litzateke prest, eta honela mugagabeki. Fisiokratek ez zuten errekurrentzia hori onartzen; haien ustez, erosketa-ahalmena

birkreaturik zegoen, zerotik, produkzio epe bakoitzean. Erosketa-ahalmen mota batek denboran irauten badu, kapital metatuan da eta ez errentak errentaren inertziaz —zirkuituaren kontzepzioak ukatzen duena— denboran irauteko ahalmenik edukiko lukeelako. Epealdi bakoitzean monetaren 'balioa' piezak (esku-diruak metalikoak zirelako) lurraren produktu berriarekiko berraurkitzeak determinatzen du. Produktua faltan botako balitz, erosketa-ahalmenik gabe egongo litzateke moneta, eta soilik bere pisu hila osatzen duen metalaren 'berezko' balioa edukiko luke.

Fisiokraten teoria modernoa dela ikusi dugu. Dena den, gehiegi litzateke, berak arazo monetarioei erantzun guztiak ematen dizkiela ondorioztatzea; are gehiago, arazo nagusia soluziorik gabe gelditzen da.

Formula dezagun arazoa: zein da lurjabeek gastatu beharko luketen moneta-unitateen kopurua determinatzen duen legea, epealdi konkretu batean produktu netoa zehazki garbitzearren? Denbora luzea pasatuko da ekonomialari batek erantzun argia proposatu baino lehen: Keynes izango zen 'eskari osoaren' printzipioarekin erantzuna emanen zuena. Nola aurpegira dakieke fisiokratei hain zailtasun handia erantzun gabe uztea? Desmeriturik eduki ezik, gure arbaso handiek, aldiz, monetan gertatzen den produktuaren integrazio-printzipio zehatzak topatu dituzte. Printzipio horiek barik, ezinezkoa da esplikatzea nola banatzen den errenta, iturri bakarretik sortua, nazioaren kapa sozial desberdin batzuetan.

3.4. 2. Produktu netoaren banaketa errentatan, alokairutan eta interesetan

Injustua da doktrina fisiokratikoa gutxiestea esanez ezen soilik Natura dela berak kontsumitzen duena baino gehiago produzitzeko gai dena. Ideia laua da, zeren ideiak balio erantsien produkzioa substantzia edo materien produkzioarekin nahasten baitu; baldintza horietan, soilik lurrak dauka errendimendu positiboa; hots, berak gizonari gehiago ematen dio, gizonak lehengaitan, kapitaletan —gaur egun inbertsiotan esanen genuke— eta lanetan dedikatzen diona baino. Baina, ongi pentsatuz gero, produkzioa zentzu materialetan ulertzen bada, Natura bera ere ez da gai produktu netorik hornitzeko; eta produkzioa materiala ez bada, zergatik produzituko luke lurrak soilik?

Fisiokraten irakaspena sakona da beste arrazoi batengatik: sinplekeria da errenta nazionalaren osotasuna lurretik datorrela adierazi nahi izatea, baina zentzuzko da azaltzea errentak iturri soil bat duela eta ez plurala. 'Produkzio-faktorearen' batasunak adierazia, doktrina hori bizirik dago oraingoz: mendeak zeharkatu ditu, Smith, Ricardo eta Marx-engan zehar. Lurrari esleitua, errenta nazionala berehala gizonaren lanari atxiki zitzaion; bi kasuetan irakaspena funtsean bera da: errenta sozialak (edo 'makroekonomikoak') iturri bakarra dauka.

Prezeski, errenta 'fondo' bakarretik sortzen dela onarturik dagoenez, teorialariak gizartearen kapa edo klaseen arteko banaketa ulertzeko esperantza eduki

dezake. Lehen begiradan, esan berri duguna paradoxikoa da: errenta iturri desberdinetatik sortuko balitz, ezin al lezake iturri bakoitzak konturik eman errenta nazionalaren kategoria ezberdinez? Honela, lanak langileen errenta produzitzen duela imajina liteke; kapitalak, aurrezkien errenta; eta lurrak, lurjabeen errenta. Banaketa produkzioaren barruan agertuko litzateke. Nolanahi dela, esperantza, laster desagertzen da: errentak iturri desberdinetatik sortuko balira, ez lirateke beren artean neurgarriak izango. Adieraz dezagun arruntki: pastelaren dimentsioa ez litzateke ezaguna izanen. Honela, produkzioa ere ez-determinaturik egonen litzateke. Beraz, ona da teoria produktuaren 'kausa bakarraren' ideian oinarritzea: produkzioa determinaturik egonez gero, bigarren arazoari egin dakioke aurre, alegia, emaniko produktuaren banaketa kudeatzen duten legeen aurkikuntzari.

Teorialariari harrigarri zaio formalizazio fisiokratikoa arrakasta lortzeko zorian ibili izana; lurjabeek zirkuituan jaulkiriko monetan produktuaren integrazioaren argudioan, Quesnay *hiru* errenta desberdinen existentzia argitzera iritsi zen: errentak, amortizazioak eta alokairuak.

Errentak. Berorien adierazpena berehalakoa da; lurra jabegoa izanik, beraren produktua lurjabeen klaseari dagokio; ezaguna da, lurrak soilik ematen duela produktu netoa; hortik errentek *errenta nazionala agortzen dutela* ondorioztatzen da. Baina orduan, nola uler daiteke gizartearen beste klaseen errentaren existentzia?

Amortizazioak. Teoriarik modernoenean ere, errenta gordina errenta netotik bereizirik dago, bien arteko diferentzia (kapitalaren) amortizazioa izanik. Nahiz eta errentek produktu netoa erabat absorbitu, litekeena da beste errenta batzuk topatzea, beraiek amortizazioan sartzen direla onarturik. Baina, nola horni ditzakete amortizazioek gizartearen klase oso batetarako errenta kontsumigarriak?

Saia gaitezen fisiokraten argudioari jarraikitzen, gure ustez, nahikoa sutila baita.

Amortizazioa kontsumo produktiboa da, hau da, kitatua (birprodukzioa) izango den balio baten galera (kontsumoa); kontsumoa eta birprodukzioa gizona inplikatu barik kapitaletik kapitalera hedatzen diren jarduerak baldin badira, amortizazioak ez dio ezelako errentarik ematen gizarteari. Alderantziz, amortizazioari dagokion kontsumoa, gizonak bere pertsonaren bitartez (bere gorputzaren bidez, edozein modutan) pasaraziz lortzen badu, orduan amortizazioak errenta bat hornitzen dio, zeina gordina izan arren, erreala ere baden.

Demagun nekazaritza klasearen etsenplua. Lurrak elikatu eta erein izan behar du: honela, beraren emankortasuna produzitu eta birproduzitu egiten da; helburu honekin kontsumituriko ondasunek, nabarmenki, ez dute inor elikatzen. Hala ere, nekazariek, eta beraien familiek, elikaturik eta mantendurik izan behar dute: kasu honetan, kontsumituriko ondasunek nekazaritzan enplegatzen diren gizonen errenta

positiboak definitzen dituzte. Nekazaritza-klasearen kontsumoa amortizazioak definitzen duen edozein neurritan, errentei eransten zaien errenta batean —gordina izanez— analizatzen da amortizazioa.

Alokairuak. Nekazaritza-klasearen alokairuen formazioaren esplikazioa ezagutzen dugu jadanik; eraldaketa-industria txikiko eta artisautzako enplegatuen alokairuak determinatzea falta zaigu, hots, 'klase antzu'arenak.

Zergatik da hirugarren klase hori, ustez, antzua? Arrazoia logikoa da: lurrak besterik ez duenez balioa eman, hortik ondorioztatzen da ezen produkzio industriala —non aktiboa industria soilik den, hau da, giza-lana— batera magnitude positiboa eta negatiboa dela, eta gizonak materia gordina besterik ezin duela tratatu, Naturaren produktuaren kontserbazio-prozesu batean.

Hala eta guztiz ere, gizonek 'kontsumitu' egiten dute, lehengaien eraldaketa-jardueretan enplegaturik daudenak ere; beharrezkoa da beraiek alokairu positiboa eduki dezaten. Hementxe sortzen da aparteko arazo kontzeptuala: manufakturako langileek produzitu barik kontsumitzen badute, haiek ez dira antzuak, zentzu propioan, kaltegarriak baizik. Zergatik eusten diote fisiokratek langileen klasea, soilik antzu delako baieztapenari? Doktrina etorkizun handienari lotzen zaion printzipioari dagokiolako: klasea antzua da, berak *materialki kontsumitzen duena balioan ordezten duelako.* Beste era batera esanda, gizonaren industriak ez du soilik materia gordina produktu akabatu bilakatzen, berak langileen klaseak kontsumitzen duen materia balioan ere eraldatzen du.

Demagun etsenplu bat: okinek 10 kg ogi ekoizteko, 10 kg irin prestatzen dute; berek beren produktutik %20 kontsumitzen dute; orduan, beste klaseek 8 kg ogi besterik ezin dute erosi. Okinen kontsumoa galera netoa balitz, ogian eraldaturiko irinak balio (monetario) gutxiagotua (%20tan) edukiko luke eta okinek gizarteari produktu netoaren zatia kenduko liokete. Teoria fisiokratikoak printzipio bezala ezartzen du ezen, okinak elikatzen dituen ogian kontsumitzen den irinak bere balioa helarazten duela ogi 'merkatalduen' ogietan oraingoz erabilgarri den irinera: geratzen diren 8 kilo irinek lehengo 10 kilo irinek zuten balio berbera dute.

Tableau économique delakoaren fluxuei zehazki jarraituz, azkenik, lurjabeek gastaturiko monetan integratutako produktu ez-diferentziatuan *hiru* errenta desberdin ateratzera iristen gara —errentak, amortizazioak eta alokairuak—. Badirudi teoria ongi eraikita dagoela, klase antzuaren alokairuei dagokiena izan ezik.


Saia gaitezen ongi arrazonatzen: manufakturetan enplegaturiko langileek balioa sortzeko gaitasuna badute, hori da materia *gizonaren lanak* eta ez Naturaren lanak *balioztatzen duelako* da. Baina kontsekuente izan behar da: lurraren produktuak ere balio gabekoak dira, beraiek nekazarien lanari dagozkion heinean izan ezik. Klase antzuaren alokairuek ekonomialariei hain arazo handia ezarri diete,

non beraiek ezin alboratu baitute, berek emandako erantzunean, ekonomialari ingeles klasikoen etorrera prestatzea: 'lan-balioak' laster 'lur-balioa' ordezkatuko du.


Ikus dezagun berriro zirkuitu fisiokratikoaren teoria bere murrizketa batean, errenta nazionalaren laugarren kategoriaren determinazioa ekarriz, hots, *interesak*. Lehengo hiru errenten adierazpena formalki zuzena izango balitz ere, oraingoz zirkuitua gaizki egonen litzateke, interesak ez bailirateke bertan integraturik egonen.

Adieraz dezagun *Tableau économique* delakoa, ondoko zifren arabera eraikiz:

(a) lurjabeek kontsideratu urtean jaulkiriko azken erosketen totala: 2 mila milioi unitate monetario;
(b) nekazarien klasea eta klase antzuaren artean buruturiko erosketen totala: 1 mila milioi alde batetik eta bestetik;
(c) jabeen klasearen erosketen totala nekazariekiko: 1 mila milioi;
(d) jabeen klasearen erosketen totala klase antzuarekiko: 1 mila milioi;
(e) klase antzuak 'kapitalista finantzarioei' ordaindutato interesen totala: 100 milioi.



Aurkezturiko zirkuitua (*Tableau* delakoari dagokiona berau) logikoki zuzena balitz, lurjabeek gastatutako monetaren kopurua automatikoki berreratzen lagako lukete:



Alderantziz, zirkuitua ezin badaiteke 'itxita' egon (beste era batera esanda, bera osaturik ez badago, zeren itxita ez dagoen zirkuitua ez baita benetan zirkuitua), doktrinan ilogismo ezabatzaileren bat sartu da. Analistaren borondade ona edozein delarik ere, ezin du baztertu adierazpena akatsetan egotea: interesetan kapitalista finantzarioen klaseari ordainduriko 100 milioiek zirkuitutiko *ihesa* definitzen dute. Lehen epe batean uste daiteke ihesa erreparagarri dela; izan ere, kapitalistek interesak gastatzen dituzte nekazariei eta langile manufakturatzaileei

ondasunak erosteko: 100 milioiek 'berrintegratzen' dute zirkuitu nagusia eta, honela, lurjabeei emandako totala osatzen dute, 2 mila milioiko mailara iritsiz. Baina argudioari jarraitu behar zaio: kapitalisteei emandako moneta ez da berrisurtzen produktu baliokidea deskontatu gabe; deskontu hori ez da inolaz ere erreparagarri: halabeharrez ondorioztatzen da, produktu netoa kapitalista finantzarioen erosteko ahalmenaren jarduerek gutxitzen dutela. Gaur egunean errenta nazionala deitzen dugun kapitalisten zatia kontuan hartu denetik, ikus daiteke ezen produktua lurjabeen kontuak moneta bihur dezakeen produktua ez dela 2 mila milioiko baliokidea, 2 mila milioi ken 100 milioikoa baizik.

Teoriaren batek barruko inkoherentzia jasatzen duen unetik, egia da bera zahartu eta desagertu besterik ezin dela egin. Fisiokraten teoria ezin zitekeen betiko izan, hain zuzen ere, aipatu berri dugun arrazoia dela-eta: *Tableau* delakoaren zirkuituak ilogismo 'ez-inguragarria' dauka, lehenago esan den moduan.

3.5. NAZIO-ABERASTASUNAREN DOKTRINA

Smith-en (1723-1790) liburu handia, *The Wealth of Nations,* 1776tik dator.

Nazioen Aberastasuna delako liburu hori ekonomi estudioen ikerketa handienetariko bat da: gure gaurko ezein ezaguera ez da lan horrekiko erabat originala.

Ikus dezagun lan hori, bada, lehen aipatutako irizpideari jarraikiz:

(1) Smith-ek monetan produktu sozialaren integrazioaren printzipioa proposatzen du;
(2) Smith-ek integrazioa kausa bakar bati atxikitzen dio, alegia, giza-lanari;
(3) Errenta iturri bakarra izan arren, Smith hiru errenta desberdinen formazioa adieraztera iristen da: alokairuak, errentak eta mozkinak.

Printzipio smitharren lerro nagusia adieraziz gero, galdetuko dugu ea beraren barneko logika estakurugabea den ala ez; horrela ez dela ikusiko dugu; benetan, teoriak oraingoz inkontsekuentzia gogorra jasaten du, sistema fisiokratikoa biziatzen duen ilogismoaren antzeko bat.

3.5.1. Produktuaren integrazioa monetan, Smith-en obran

Autoreak espreski dio erosketa-ahalmenaren lehen era ez dagokiola monetari, giza-lanari baizik. Beraz, pertsona batek beste bati zenbat eta lan handiagoa eginarazten badio, hainbat eta aberatsago izanen da. Honela, demagun enpresa batek 10 orduko 10 egunetan 10 langileri lan eraginez lortutako 'alokairu-fondoa' daukala: langile baten 1000 lanordu modura zifra daitekeen erosketa-ahalmenekoa da enpresa.

Nola eratzen da erosketa-ahalmena? Smith-en ustez, erantzuna aldatu egiten da gizartea oraingoz 'egoera primitiboan' egotearen ala lurrak eta kapitalak bereganatzearen arabera.

Gizartearen 'egoera primitiboan', erosketa-ahalmena lanaren ondorioa da soilik: 1000 lanordu derrigortzeko ahalmena edukitzeko, beharrezkoa da norberak 1000 ordutan lan egitea eta produktua aurreztea; orduandanik, etorkizuneko edozein epeal-ditarako, beraren produktua enplegatzen diren langileen produktu berriarekin truka daiteke.

Dena konplexuago bilakatzen da gizartearen 'egoera garatuan': izan ere, beste baten lana edukitzea ez da enplegatzailearen lan soilaren ondorioa, zeren enplegatzaileak beste bi iturritatik bere aberastasuna lor baitezake, errentetan edo mozkinetan atereaz. Ondoriozta al daiteke baldintza horietan kanal ezberdin batzuen bitartez produktua monetan integraturik dagoela, edo errentan eraldaturik?

Garrantzitsua da arazo hori kontuan edukitzea. Gehinetan gertatzen den moduan, erantzun zuzena sofistikatua da, erantzun sinplea —'zentzu onak' diktatua— laua den bitartean. Has gaitezen, bada, errakuntzatik.

Printzipio erratua: Errenta nazionalak bere iturria hiru 'fondo' desberdinetan hartzen du, hau da, giza-lanean, lurraren produkzioan eta kapitalaren errendimenduan.


Erabil ditzagun sinbolo marxiarrak: *v* alokairuetarako, *pl* mozkinetarako, *r* errentetarako. Smith-en interpretazio errazaren arabera, errenta nazionala honelaxe definitzen da:

$v + pl + r$.

Beraz, lana, jatorrian, nazioaren aberastasunaren zati bat besterik ez litzateke izanen; mozkinak (*pl*) eta errentak (*r*) alokairuei (*v*) erantsi behar zaizkio errenta nazionalaren adierazpenean.

Adieraz dezagun errentaren iturri hirukoitza eta berorren ondorioa.

Errenta nazionalaren iturri hirukoitza



'Kausa' hirukoiza izanik, errenta nazionala hiru klase sozial desberdinei atxikitzen zaie —alokatu, kapitalista eta errentadunei—, beraien ekarpenaren proportzio zehatzean.

Asebetegarri badirudi ere, eman dugun adierazpena kaxkarra da oso.

Printzipio zuzena. Lehendabizi, klase bakoitzak errentaren eraketarako bere ordainketaren arabera laguntzen duen informazioa tautologikoa da: berak ez du ezelako informaziorik ematen. Baina are grabeagoa da honako hau: aberastasun soziala neurtu ahal izateko, neurri-unitatea eduki behar da, halabeharrez. Arazoa da, errenta nazionala adierazteko neurri bat behar dela: neurri *bakarra*; zeren errenta hiru iturri desberdinetatik etortzen dela onartuko balitz, adierazte hori ezinezkoa izango bailitzateke. Alokatuek, kapitalistek eta errentadunek, guztiek, errenta dibidiezinaren 'zati proportzionala' lortzen dute; 'banaketazko zatiak' determinatzeko, produktua bere osotasunean ezagutu behar da, edozein banaketa-mota burutu baino lehenago. Eta produktuaren iturriak desberdinak badira, banaketa jadanik eginik dago banatzeko objektua eduki baino lehen.

Smith pentsalari handia izan zen; hortaz, berak ez zukeen inoiz batzuk beste bihurtzeko laburtezinezko diren kausa desberdinei balioa atxikitzeko errakuntza elementalik eginen. Gainera, badago Smith-engan produktuaren batasunaren froga esplizitua; bera 'Zirkulazio Gurpil Handia' delakoan zegoen, monetaren eginkizunaren definizio smitharrean hain zuzen ere. 'Esku-diruan' —metaliko zein bankukoa izan— dagoen produktua monetaren zirkuitua da. Smith-ek dioenez, monetak produktu korrontearen balioan moneta bera ez dagoneko lege baten bidez zirkulatzen du: produktu soziala neurtzeko, beharrezkoa da beraren arabera gizartean moneta 'biratzen' deneko printzipioa topatzea; printzipio hori bakarra besterik ezin da izan, zeren berak produktua monetan edo zirkulazio monetarioan integratzeko efektu soila besterik ez baitauka. Printzipio hori Smith-ek argi izendatzen du: giza-lanaren printzipioa da.

3.5.2. Smith-en obran, produktua monetan integratzeko printzipio bakarra giza-lana da

Garrantzitsua da, gizartearen bi egoeren desberdintasunari —primitiboa eta garatua— dagokion esanahi hertsia besterik ez atxikitzea. Edozein gizartetan, produktu fisikoei neurri monetarioa emateko, soilik giza-lana da gai. Enpresa batek bere asoziatuen lanetik atera ez duen kapitala badauka ere (aurreko epealdietan berak lorturiko mozkinetik, kasu), ez dauka aberastasun neurgarririk, alegia 'ganbio-baliorik', baldin eta bere langileen lana derrigortzeko ahalmena ez badu. Hortaz, egokia da kontsideratzea ez errentaren iturria (alokairuak, errentak edo mozkinak) beraren eragina baizik: produktuaren neurria da, bere baldintza beharrezko eta nahikoarekin, haren titularrari populazio aktiboak titularraren mozkinerako lan eragiteko posibletasuna ematen diona. Gizartearen hiru klaseen arteko lanaren produktuaren banaketaren adierazpena *lan derrigortuaren* nozioan kokatzen du Smith-ek.

3.5.3. Smith-engan, produktu nazionalaren banaketa hirukoitzaren printzipioa lan derrigortuaren nozioan oinarritzen da

Etsenplu batek hobeki ulertzen utziko du Smith-en teoria. Har ditzagun berriro, soluzio okerra adierazteko erabilitako zifrak:

(i) alokairu-ondasunen produkzioa: 10 unitate alokairu
(ii) mozkin-ondasunen produkzioa: 5 unitate alokairu
(iii) errenta-ondasunen produkzioa: 5 unitate alokairu

Adieraz ditzagun hiru puntu horiek. Produktu nazionala ez dagokiola langileen klaseari soilik ulertzen da; kapitalistek eta errentadunek beren zatia daukate. Hala ere, mozkina eta errenta *alokairuetara laburgarri* dira, zeren errenta horien titularrei itzultzen zaizkien ondasunen produkzioa lan derrigortuaren menpe baitago: mozkinek eta errentek langileei lan eragiteko ahalmena daukate mozkin-ondasunen eta errenta-ondasunen produkziorako, produkziotik langileei alokairu-ondasunak erretiratuz. Gizarteak bere egoera primitiboan iraungo balu, alokairuek errenta nazionala ahituko lukete, eta langileek beti beren buruak besterik ez lituzkete enplegatuko.

Lurrak eta kapitala eskuratzen direnetik, ez-alokairuzko errentek alokatuen produktuan kosk egiteko gaitasuna dute, errenta-ondasunak eta mozkin-ondasunak desbideratzearren; ez dio axola produktuaren batasunaren printzipioak bere horretan segitzea: kapitalistek eta errentadunek produktu nazionalaren zati bat erosteko ahalmena ez daukate, mozkinek eta errentek *(bir)saltzeko behartuak ez dituzten* ondasunen produkziorako *alokairuak gordailatzeko* ahalmena ematen dietelako ez bada, zeren, beren errentak produktu bihurtuz, behin betiko erosi baitituzte.

Horren arabera, errenta nazionalaren iturri hirukoitzaren ideia utzi dugu, eta beraren ordez alokairuaren iturri hirukoitza ezarri:

(a) Produktuan, beren zatiaren neurri zehatzaren arabera, langileek *beren buruei* ordaintzen diete. Pentsa dezagun: enpresek beren enplegatuei ez diete ordaintzen, baldin eta alokairuen emisioaren jardueran beraiek beren produktuak erosten ez badituzte; alderantziz, langileek produktua bereganatzen badute, enpresek ez diete ordaintzen, baina beren lanaren fruitua eskuratzen dute: hortaz, beren lanak ordaintzen die. Alokairu *errealen* ordainketarako, ez da behar ezelako ‘alokairuen fondorik’; era monetarioan beren produktua jasoz, alokatuei beren lanak ordaintzen die, eta ez enpresek.

(b) Mozkinen gastuan emitituriko alokairu *nominalen* zatiak enpresek erositako langileen produktuaren frakzio baliokidea esan nahi du; honela —ohar gaitezen ongi, garrantzitsu baita oso—, mozkinek alokairuen fondoa osatzen dute. Enpresek —eta ez langileek berek— ordainduak izatean, langileek beren produktua


galtzen dute enpresen onerako; orduan, beraien alokairuak nominal hutsak dira; ez daukate ezelako erosketa-ahalmenik, produktuak ihes egiten baitie.

(c) Errenta-ondasunen produkzioari dagokionez, adierazpena antzekoa da, argi eta garbi. Alokairu-ondasunak eta mozkin-ondasunak bezala, errenta-ondasunak langileek, eta soilik berek, ekoizten dituzte; hala ere, errenta-ondasunen produkziorako eskuraturiko alokairuak edozein produktutako hutsak dira, zeren errenten gastua dela-eta, alokairuen emisioak alokairuei errenta-ondasunak erosteko ahalmena kentzen baitie.

Laburbilduz, alokairu nominalak errealak dira, alokairuen fondo (edo kapital) nulu batetik alokairuen ordainketaren neurri zehatzaren arabera. Ez-alokairuzko errentak langileen ordainketan jaulkitzen diren aldiunetik, jasotako alokairuak nominal hutsak dira: beraien erosketa-ahalmena hutsa da.


Smith-en teoria sakona hobeki ulertuko dugu hiru eskemaren laguntzaz. Alokairuen emisioa adierazten dute guztiek: lehenak alokairu-ondasunen produkziorako; bigarrenak mozkin-ondasunen produkziorako; eta hirugarrenak errenta--ondasunen produkziorako.

I. eskema
Alokairuen emisioa
alokairu-ondasunen produkziorako



Hemen zirkuitua ahal denik eta sinpleena da: jasotako alokairuak nominalak eta errealak dira batera, hau da, haien gastuak langileei berauen monetazko ordainke-taren neurri zehatza ematen die.


II. eskema
Alokairuen emisioa
mozkin-ondasunen produkziorako



Zirkuitua konplexuago da, zeren langileek, mozkin-ondasunak eta alokairu-ondasunak ekoizten dituztenez, *jadanik enpresei salduriko* mozkin-ondasunak erosteko inolako ahalmenik ez baitaukate. Izan ere, mozkin-ondasunak mozkinen titularren jabetza dira, 5 unitate alokairu horiek enpresen aldez aurretiko kapital monetarioan hartuak diren unetik. Mozkin-ondasunen produkzioan irabaziak, ordainketak edozein erosketa-ahalmenik gabekoak dira: nominal hutsak dira.

Adierazpena berbera da hirugarren kasuan:

III. eskema
Alokairuen emisioa
errenta-ondasunen produkziorako



Berriro, langileek alokairu nominal positiboa, (5 unitate moneta), jasotzen dute, baina alokairu erreal nulua, zeren beraiek ekoitziriko ondasunak errentadunen onurako jaulkirik baitaude jadanik, alokairuak jasoak izan diren unean bertan.


Orain arte esandakoaren oinarrizko informazioa honelaxe laburbil daiteke: ez soilik produktu nazionala produkzio-faktore bakar baten emaitza da, giza-lanarena alegia, baizik eta alokairu monetarioak errenta nazionalaren adierazpen osoa dira. Emandako etsenpluan, produktu osoa alokairuaren 20 unitatek neurtua da; honela ez-alokairuzko ondasunak ere alokairutan neurturik daude. Lehen erabilitako sinboloak berrartuz, errenta nazionalaren definizio logikoa *v* delakoak soilik ematen du, eta ez $v + pl + r$ delako baturak. *Pl* eta *r* ere alokairuak dira, hots, alokairu nominal hutsak, *v* delakoa, denbora berean, alokairu nominala eta errala den bitartean.

Analisia ez dago bukaturik, bistan denez, zirkuitua alokairu-ondasunen inguruan soilik baitago itxirik. Nola amaitzen da mozkin-ondasunen eta errenta-ondasunen inguruan? Erantzuna argia eta sinplea da: langileak, mozkin-ondasunak eta errenta-ondasunak ekoitziz, lehian daude ondasun horiek erosteko alokairu-ondasunak ekoizten dituzten langileekin. Honela, gizartearen bi egoeren bereizketa, argi geratzen da:

(i) ‘Egoera primitiboan’, alokairu-ondasunak ekoizten dituzten langileek ez dute inorekin beren produktua banatzen;
(ii) ‘egoera garatuan’, ondasun guztien produkziorako (alokairuzko eta ez-alokairuzko ondasunak) enplegaturiko langileek beren alokairu nominalen osotasuna erabiltzen dute alokairu-ondasun soilak erosteko;

(iii) baina, gizartearen egoera primitiboa zein garatua izanik ere, konstante hau ageri da: produktua, edozein delarik ere, ez-alokairuzko ondasunak zein alokairu-ondasunak, ekonomiaren sektore guztietako populazio aktiboaren osotasunak irabazitako alokairu nominalek soilik da neurtua.

Adieraz dezagun zirkuitu smith-arra beraren osotasunean:



Zirkuitua 'kiribildurik' dago, zeren mozkin-ondasunak eta errenta-ondasunak langileek erosiak baitira, ez-alokairuzko errenten titularren konturako: alokatuek produktua beren konturako erosten dutenean, beraien alokairuak errealak dira; bestela, nominal hutsak dira. Lurrak eskuratu eta gero, eta kapital finkoen eraketa burutu ondoren, enpresek langileei berauen produktuaren zati bat saltzea lortzen dute, beraien produktu totalaren prezioan; ez-alokairuzko errentak eratzen direneko arrazoia da hau. Zentzu batetan, mozkinak eta errentak produkzio-kostuak dira: beharrezkoa da aurrezkia (kapital finkoa etortzen deneko fondoa) eta lurra (kapital finantzario inbertitua bera ere errepresentatzen duena) sariztatzea. Ekonomia garatuan, langileek ezin dezakete beren produktu *osoa* jaso: alokairu-ondasunak erosiz, era berean ordaintzen dute, zeharkako ezarpenaren antzeko baten bidez, enpresei mozkinetan eta errentetan kapitalista finantzarioei konpentsatzeko kostatzen zaiena.

3.6. DAVID RICARDO-REN PRINTZIPIOAK

Zientzia ekonomikoaren arloan David Ricardo (1772-1823) filosofiaren arloan Baruch Spinoza izandakoaren antzekoa da (Schmitt 1985c). **Ekonomia Politikoaren eta Tasa-zioaren Printzipioak** —*On the Principles of Political Economy and Taxation*— izeneko obra hilezinaren autorea da. Adam Smith-en dizipulurik argiena izan zen, Karl Marx Ricardo-ren dizipulurik argiena izanen den bezalaxe.

Smith baino askoz legitimoagoki, Ricardo-ri makroekonomiaren lege handi guztien aurkikuntza eslei dakioke; berak, edozein zientziatan gizaki gutxi gai diren moduan, zehaztasunez adierazi zituen lege horiek.

Honelako maisuak merezi duena ezin labur daiteke hitz bitan. Dena den, zenbait aipamen eginen dugu.

Hiru zatitan banatuko dugu analisia:

(1) David Ricardo, fisiokratak eta Adam Smith bezala, monetan produktua integratzen duen teorialaria da; baina Ricardo bere aitzindariak baino harantzago joan zen: bankuko monetaren erabileraren garapenaren aldekoa zen, nahiz eta horretan erabat originala ez izan; bankuko bi jardueraren bereiztearen estudioa garrantzitsua da: sormen monetarioaren eta bitartekaritza finantzarioaren azterketa.
Ricardo monetaren neutraltasunaren irizpide zientifikoa aurkeztu zuen lehen autorea da.
(2) Errentaren teoriaren 'asmatzailea' ez bada ere, Ricardo-k teoria horren behin-betiko formalizazioa proposatu zuen.
(3) Azkenik, banaketaren teoria smitharra maila askoz sakonagora eramanez, Ricardo-k arrakasta lortu zuen, prezioen eta balioen identitateari eustea lortuz, azken erosketan produktuaren hirurenketa (tripartizioa) egon arren.

Ikus ditzagun hiru puntu horiek; ondorioz ikusiko dugu, Ricardo-k berak ere ezin duela babestu teoria barruko inkoherentziatik, zeina beraren denboran eskuragarri ziren tresna analitikoek ezin baitzuten argitu; alabaina, azpimarratu behar da, hil aurretik, Ricardo bere teoria zeharkatzen duen arrailaduraz erabat jakitun zela. (Soilik jakintsurik handienak eta apalenak dira beren mugaz jakitun.)

3.6. 1. Produktu nazionalak ezin du era edo ibilgailu egokiago eta zentzuzkoagorik topatu banku-moneta baino

Arrazona dezagun Ricardo-rekin, etapa batzuetan.

(i) Herrialdean zirkulazioan dagoen moneta, materiala edo bankukoa da. Bi kasuen arteko diferentzia azalekoago da erreala baino areago. Izan ere, banku-monetak 'barne'-balioa dauka, legeak urrearekin (edo zilarrarekin) lotzen baitu. Moneta urre fisikoa (urrezko metalea esaten dena) edo urre fiduziarioa (urre legala) izanik ere, ondorioa berbera da oinarrian: barneko merkatu desberdinetan eta, era berean, nazioarteko salerosketetan edo transakzioetan zirkulatzen duena urrea da.
(ii) Urre-monetak balio propioa edo barnekoa ere badauka, osatzen duen urrea fisikoa edo fiduziarioa delarik ere. Hortaz, ez da egia, inflazio-egoeran banku-monetak moneta materialak baino gehiago eskaintzen duela esatea.
(iii) Ricardo-k inflazioari definiziorik modernoena eman zion: moneta-unitatearen gaixotasuna da, monetak daukan produktuarekiko harremanean.
Erabil dezagun (ii) puntuko irakaspena: ez dio ezerk banku-moneta —moneta materiala baino gehiago— gaixotasunari predestinatzen; alderantziz, banku-

-monetak moneta materialak bezainbeste produktu eduki dezake. Baina banku-moneta errazagoa da 'kudeatzeko'.

(iv) Monetak gaixotasunera jotzen badu, kolpe bakar batez gertatzen da, eta ez gradualki edo graduka. Gaur egun ere, ekonomialari askok uste dute inflazioa 'dinamikan' azaltzen dela, hots, denboraren iragatearekin. Eskainitako ondasunen aurrez aurre azalduko litzakete moneta; eskatzaileen eta eskaintzaileen artean gertatuko litzateke eztabaida; ondorioz, prezioak aldatuko lirateke; prezioen gorakadak inflazio positiboa adieraziko luke.

Ricardo-k ongi erakutsi zuen ezen, baldin eta merkatuetan dagoen monetak bere balio osoa badauka, eskaintzen eta eskarien arteko ezein egokitzek ezin gutxitu dezakeela, ondorio gisa, monetaren balioa. Horrela, bietarik bat: edo inflazioak gutxitzen du bera produktuen merkatuetara iritsi baino lehen, edo inflazioak ez du inoiz moneta gutxituko.

(v) Monetari bere erosketa-ahalmenaren zati bat kentzen bazaio, gutxipena bat-batean besterik ezin da gertatu, unitate monetarioen sortzean bertan.

Demagun, kasurako, moneta-unitatea (materiala) gramo bat urrek osaturik dagoela, 900/1000 purutasunekin. Inflazioa nulua da, baldin eta era honetan definituriko monetan integraturiko produktuak, monetak duen balio bera badu; urrezko metalaren produkzioak, beraz, zehazki ekoitzitako urrezko gramo bakoitzeko gramo bat urre berdintzen duten gastuak batera eramaten ditu. Inflazioa positiboa da monetan edukitako urrea, edo monetaren proportzioa urretan, fisikoki edo legalki, moneta definitzen duen urrezko masara iristen ez denetik; honela gerta daiteke, legeak moneta-unitate baten eta urre-gramo baten baliokidetza ezartzen duenean: inflazioa dago produzioak moneta-unitatean urre-gramo bat baino gutiago den balioko ondasuna gordailatzen duenetik. Moneta-unitateak urrezko gramo-erdia besterik ez badauka, urrezko monetak bere balioaren erdia galdu du. Esan dezagun behingoz, galera bat-batekoa besterik ezin dela izan: logikoki ezinezkoa da, produktuen merkatuko salerosketetan sartzen den unean sendo izatea, eta gero trukeen arabera desegitea.

(vi) Zergatik nahiago da bankuko moneta, moneta metalikoa baino? Arrazoirik argiena honako hau da, Adam Smith-ek jadanik adierazitakoa, alegia, moneta, bere 'barne'-balioa edozein delarik ere, salerosketetan 'biratu' egiten dela, kontuan edukiz, epealdi bakoitzean, behin eta berriz berak *ibilgailu modura daramatzan* ekoitziriko ondasunak eta zerbitzuak mailegatzen dituela; horrela, moneta 'ibilgailu'-tresna dela esaten da. Monetaren beraren balioa, bere materiaren balioa alegia, zirkulazioan dabilen pisu hila besterik ez da. 'Moneta trinkoa' edo materiala tara bati konpara dakioke: ibilgailuaren pisu hila da. Beraz, zentzuzkoa da balio nulua daukan ez-materialezko moneta erabiltzea. Bankuko bileteek ez daukate inolako balio propiorik; hala ere, zirkulazioan urreak edo zilarrak egiten duten zerbitzu berbera osatzen dute.

(vii) Bankuko moneta, moneta materiala baino hobea dela hautatzeko bigarren argudioak beste paragrafo batean garatzea merezi du.

Smith-ek ez zuen aipatu eta, beste aldetik, aparteko oihartzun modernoa dauka: Nola ziurta dakioke urre-monetari bere balioaren edo bere erosketa-ahalmenaren iraupena?

Erantzun baino lehen, defini dezagun galdera horrek berekin dakarrena:

(a) Moneta era edo forma da, epealdi bakoitzeko produktua 'baitarama', ibilgailu modura.

(b) Moneta urrezkoa denean, argi dago era monetarioa balio propioa daukan substantzia dela.

(c) Urre-moneta, hortaz, alde bitan da balioa: alegia, beraren eran, eta berak produktuak dauzkan heinean ere.

(d) Itzul gaitezen metalaren eraldatzean moneta esku-dirutan lortzen deneko aldiune zehatzera. 'Txanpontzearen' unea da, berau jaunaren pribilegioa izanik. Demagun 'jaurgo-eskubideak', txanpontzearen epean deskontatzeko zerga, piezen 'aurpegi-balioaren' erdia berdintzen duela. Orduan, piezaren edukia, urretan, (jaunak) nahi duen edukiaren erdia besterik ez da. "*Pieza honek gramo bat urre balio du*" delako baieztapena 'jaulkitzaile'aren hitza da. Nola jar dudatan? Ezinezkoa da: ondorioz onartzen da legearen bidez, —edo botere exekutiboaren bitartez—, pieza efektiboki urre-gramo baten baliokidea dela, nahiz eta *fisikoki* berak gramo-erdia besterik ez eduki. Diferentzia, fiskoaren irabazi netoa da.

Tentaturik egon daiteke, jaurgo-eskubidea desbideratze inflazionistari asimilatzera. Hori errakuntza izango litzateke. Izan ere, piezak beren aurpegi-balio edo balio nominalaren arabera jaulkiak dira zirkulazioan, eta ez beren balio fisikoaren proportzioaren arabera. Zirkulazioa jaurgo-eskubidearen egintzaren 'gainezkoa' ez dela ondorioztatzen da: gobernu-autoritateak bakoitzari zenbat eta balio handiagoa eman, hainbat eta txikiagoa da zirkulatzen ari diren piezen kopurua.

(e) Orain, moneta metalikoa erabiltzen duen ekonomian, inflazioaren definizio zuzenera irits gaitezke. Lehendabizi, 'ibilgailu'aren balioa neurtzen da edo, beste era batera esanda, era monetarioarena: neurri horrek jaurgo-eskubidea hartzen du kontuan. Emandako etsenpluan piezak gramo bat urre, eta ez soilik gramo-erdia, balio du. Gero, monetan edukitako, edo berak eramandako, produktuaren balioa neurtzen da. Neurri biak konparatu ahal izateko, urrezko metalaren ondasun eramanen artean hautatzen da. Legeak definituriko era monetarioa urrea baldin bada, eta monetak eramandako urreak titulu bererako pisu bera baldin badauka, moneta 'orekaturik' dago eta ekonomian ez dago ez inflaziorik ez deflaziorik. Alderantziz, urrezko monetak —errenta-titularrengana enpresetatik berak daraman produktuaren artean— bere definizio legalean sartzen den urrea baino urre gutxiago badauka, orduan ekonomiak inflazio positiboa jasaten du. Deflazioaren definizioa alderantzizkoa da, argi dagoenez.

Eman dezagun etsenplu bat inflazioaren kasuan. Demagun, produkzio-kostuen kalkuluaren ondoren, 10 pieza urre, berriki produzituriko 9 gramo urreren baliokoa dela; pieza bakoitzak urrezko gramo-erdi batez eginda dago; hala ere, pieza bakoitza urrezko gramo baten baliokidea da, legeak honelaxe erabaki baitu. Etsenpluan, urre monetarioaren 10 gramok (berriki ekoitziriko) 9 gramo erreal erosteko ahalmena dute: ekonomia nazionalak jasaten duen desbideratze inflazionista %10 berdintzen dueneko froga da. Produktuaren era monetarioak 10 balio du, berak daukan produktuak 9 besterik balio ez duen bitartean: produktu korrontearekiko, moneta %10ean dago gainbalioztaturik.

(f) Inflazioa Smith-ek baino era zientifikoagoan definitzeko meritua du Ricardo-k; gainera, era interesgarriagoa ere bada. Inflazioari emateko erremedio posiblea formulatu duen lehen ekonomialaria da; hobeto oraindik, ekonomiak desoreka nola albora dezakeen adierazi du Ricardo-k. Agian, 'errezeta' partzialki ezaguna zen moneta materialaren aldetik, baina bankuko monetari dagokionez ez zen batere ezaguna.

(g) Nola bazter daiteke inflazioa, moneta materiala zirkulatzen ari deneko ekonomian? Beharrezko da esku-diruen barne 'bihurgarritasuna' ezartzea.

Hemen kontu handiz ibili behar da: trukeen bidez lorturiko egokitzapenek ez dute segitzen irizpide kuantitatibista hutsa. Pentsamendu ricardotarra sutilago da. Ulertzeko, era monetarioa *saski* bezala errepresenta daiteke, non produkzio--korronteak, ondasun eta zerbitzuak sartzen dituen, enpresei eta familiei salmenta egin baino lehen. Barne-bihurgarritasuna onartzen ez duen ordainketen erregimenean, saskia egiteko erabilitako urrea ezin eralda daiteke saskian dagoen produktu bihurtuz, ezta alderantziz ere. Baina bihurgarritasuna indarrean dagoen unetik, produktua "bere era monetarioan (zeina handiegi —inflazio— bilakatzen den) flotatzen" hasten bada, eragileek saskiaren zati soberakina saskiaren produktu modura eraldatzeko gogoa daukate.

Itzul gaitezen lehen proposaturiko etsenplura. Saskiak 10 balio du, beraren edukiak 9 besterik balio ez duen bitartean: saskiaren titularrek 1/10eko proportzioan bere 'hustea' lortzen dute; orain, saskiak 9 balio du eta beraren edukiak ere 9 (beraz, inflazioa deuseztaturik dago). Saski-eratik 'askaturik', produktuak saskiaren edukitik ere erretiraturik dago, beraren titularrak baitira azken jabeak.

(h) Barne-bihurgarritasuna bankuei oso garestia kosta dakiekeen neurria da. Argudioa honelakoxea da: urrezko moneta (definizio legalak banku-moneta urretan eraldatua) gehiegizko kantitatean jaulki dutenak bankuak dira; beraz, inflazioaren erantzunkizuna bankuei dagokie; logikoa da salerosketen kostuak beraienak direla, urrea prezio gogorretan (10) erosiz eta prezio ahuletan (9) salduz. Arriskua izugarria da oso: honela, bihurgarritasuna maiz eten egin da urre--patroiaren historian, Ricardo-ren denboran etena izan zen moduan. Arrisku hori ezabatzeko, Ricardo-k beste metodo bat proposatu zuen inflazioa deuseztatzearren; eta, honetan, beraren teoria hain sakona da, non bere gaurkotasuna gordetzen baitu.

(i) Monetaren orekaren bermea era monetarioaren eta berorren edukiaren arteko egokitzapenean bilatzera mugatu barik, Ricardo-k bigarren bidea proposatu zuen, izatez erabilia izan ez zena. Izan ere, berak azpimarratu zuen, bankuek bi

jarduera erabat desberdinak dituztela, gaur egun guk bitartekaritza *monetarioa* eta *finantza*-bitartekaritza deitzen ditugunak.

Bitartekaritza monetarioa banku-monetaren jarduera sortzailea da; alderantziz, finantza-bitartekaritza jadanik existitzen den moneta baten hasierako mailegu-emaileengandik azken mailegarienganako ibilbidea da.

Ricardo-k ohar jeniala egin zuen: ezinezkoa da bankuek moneta gehiegi sortzea, sormen monetarioan finantza-bitartekaritzako jarduerak nahasten uzten ez dituzten heinean. Irizpidea logika perfektuarena da: bankuek, berek hartu ez dituzten fondoak mailegatzen badituzte, berek sortzen dituztelako da; bankuek beren jarduera finantzarioetan dirua sortzen badute, 'airezko' maileguak ematen dituztelako da.

Demagun bankuek gordailuan 9 moneta-unitate hartu dituztela; 9 moneta-unitate mailegatzen baldin badituzte, ez dute beren funtzioan abusatzen. Baina 10 moneta-unitate mailegatzen badituzte, azken mailegariek 10 moneta-unitate *nominal* hartzen dituzte, baina soilik 9 moneta-unitate *erreal*. Monetaren orekak inplikatzen du ezein bankuk ez dezala laga jarduera finantzarioan moneta sortzen. Erregela zentzu onekoa da; imajina dezagun 9 euritakoren gordailuagatik jendartean 10 txartel jaulkitzen utziko duen euritako-gordelekua; oso argi dago, euritakoen jabeak kaltetuak izanen direla, bakoitzak euritako baten 9 hamarren besterik ezin eramanez. Inflazioak baliabide ez-merezia eman dio enkargatuari; hau da, hamar-garren txartelaren emisioaren eraren menpe dago, inork inoiz gorde ez duen eta, hala ere, enkargatuak pertsona bati mailegatzen ausartzen den euritakoaren 9 hamarrena.

3.6.2. Errenta alokairuetan eta mozkinetan deskontatzen da

Arazoa gainetik ikus dezakegu, errentaren teoria rikardotarrak mozkinaren teoria keynestarraren antz handia baitu.

Garrantzitzua da *transferentziako* errenten izaera ulertzea.

Printzipioak azaldu ondoren, alokairuak eta mozkinak errenta nazionalaren osagarri dira; ez dago, hortaz, lekurik hirugarren errentarako; hala ere, errentak badaude, egon, positiboki. Paradoxa agertzen da, errenta-gastu guztietan bi zati bereizten direnetik: alde batetik, gastua gastaturiko errentaren deuseztapena da; gainontzean, beste eragile baten mozkinari egindako errentaren transferentzia da gastua.

Honela, errentadunek industriatik ateratzen dituzte beren errenta guztiak, mozkin eta alokairuen titularrek beren aberastasunaren zati bat helarazten baitiete; beraz, produktuen merkatuan sakrifizioa egiten dute, nekazaritza-ondasunen erosketan.

Dirudienez, ondorioa hauxe da: merkantzien prezioa balioa baino handiagoa da, prezioak transferentziak edukitzen baititu, balioa alokairuen eta mozkinen batuketa den bitartean.

Egiaz, Ricardo prezioen batuketaren eta balioen batuketaren berdintasuna aldarrikatzera iritsi zen.

3.6.3. Azken erosketan (eginiko) produktuaren hirurenketa (tripartizioa) bateragarria da prezio/balio identitatearekin

Hemen ere, nahikoa da esentziala dena ulertzea. Aipatu besterik ez dugu egingo ezen teoria keynestarra teoria ricardotarraren antzekoa dela, paraleloki prezioen eta balioen baliokidetzan oinarritzen baita, transferentziako errentek positiboak izaten segitzen duten egoeran.

Lurrak, gutxiago edo gehiago, emankorrak dira; lurrik eskergabeenak ez dio ezelako errentarik ematen bere jabeari; lurrik eskuzabalenak, aldiz, errentarik garaiena ematen dio.

Teoria lur emankorrik minimoan oinarritzen da, non alokairuen eta mozkinen osagarritasuna baieztatzen den. Esentzialki, prezioen eta balioen identitatea egiaztatu egiten da.

Prezioek balioekiko duten desbideraketa, lurren emankortasun-gradua areagotzen den heinean baino ez da progresiboki agertzen; orduan, prezioa balioa baino handiago bada ere, baliokidetza *merkatuetako prezioen unitateak* berrezartzen du: prezioek lur emankorrik minimoei dagozkien produkzio-kostuak berdintzen dituzte; honek esan nahi du, prezioak, balioak zehazki berdintzen dituztenak direla nonahi.

3.7. KARL MARX-EN KAPITALA

Karl Marx-en (1818-1883) lanaren hiru aspektu garrantzitsu ukituko dugu:

(1) Fisiokratak, Smith eta Ricardo bezalaxe, Marx ere monetan produktua integratzen duen teorialaria da;
(2) batez ere, Marx ekonomia nazionalaren eta kapitalismoaren patologiari buruzko teorialaria da;
(3) Marx-en teoriaren muga logikoak bi puntu esentziali dagozkio: ‘produktuaren gauzatzeari’ eta ‘balioa prezioan eraldatzeari’.

3.7.1. Marx, monetan produktua integratzen duen teorialaria

Kapitalean, bere obra nagusian, Marx-ek balio-teoria eraiki zuen.

Haren arabera, ez du ematen, lehendabizi, balioa monetaren menpekoa denik; alderantziz da: moneta balioan oinarritzen da. Izan ere, moneta beste batzuen artean hautatutako ondasuna da, 'baliokide orokorraren' funtzioa erabiltzeko; balioa ondasunen atributua ez balitz, monetak eta ondasun errealek ez luteke edukiko trukeetan hurbiltzeko gai izanen litzatekeen inolako dimentsio komunik.

Beraz, balioaren definizioan beharrezkoa da moneta, zeren, beraren ausentzian, ondasun errealek benetan ganbio-balioa edukiko bailukete, baina ondasun desberdinen balioa ez litzateke lerrokatuko klase bakarrean eta berean; gainera, balioen 'baliokidetza-klaseak' topatu beharko bailirateke, ezinezkoa den eginkizuna berau.

Monetak, material edo bankukoa izanik, bere produkzio-kostuari dagokion balioa darama, bera produzitzeko eta birproduzitzeko sozialki beharrezkoa den giza-lanera laburgarria izanik. Moneta ez-materialaren balioa Ricardo-rengan bezala definitzen da, definizio legal baten efektuaren bidez, alegia.

Monetak beste ondasunen multzoa kontrastatzen duenetik, 'baliokide orokorreko' funtzioa betetzen du. Analisia pixka bat harago eraman daiteke: monetak, lehendabizi ondasunen multzoaren elementuen artean egonik, ez du gehiagorik parte izaten bere funtzioak moneta bera batera kapitalari eta familiei erretiratzen dienetik. Horrela, moneta 'ez-ondasun' bilakatzen da, zeinaren balio propioak trukeetan berak aurre ematen dieneko kontsumo-ondasunen eta kapital-ondasunen balioa neurtzeko eta desplazatzeko besterik ez duen balio.

Ikusten da ezen, Marx-en ustez, moneta, lehendabizi ondasuna izanik —zeinaren balioa ez baitago ondasun errealen menpe (zeintzuen, orduan, bera ere parte den)— bere baliokide orokorreko funtzioak ondasun errealen baliorako 'kontrapisurako' gauza izateko helburu bakarra deneko balio bilakatzen du. Zentzu honetan, Marx-en teoria axiologikoa integrazioaren erabilpen perfektua da: monetak berak desplazatzen dituen edo ibilgailu gisa 'daramatzan' ondasunen balioa besterik ez du: Monetaren balio propioa ezabaturik balego bezala geldituko litzatekeela ematen du, epealdi bakoitzean berriki ekoitziriko ondasunen balioari lekua uzteko, eta produkziotik kontsumora bideratzeko balio duela.

Integrazioa egina denetik (ez aldez aurretik, edozein kasutan), *kapital aldakorra* defini daiteke, hots, kapitalistek bereganaturiko eta 'alokairuen fondotan' osaturiko monetaren kopurua. Moneta, zeinaren masak kapital aldakorra definitzen duen, beste aldetik beste edozein monetaren moduan, ondasun erreal hertsiki *baliokideen* kontra besterik ezin da trukatu: berau integrazioaren teoriaren ondorio zuzena da. Ondasun errealen balioa eta monetaren balioa errealitate bakar eta berbera ez balira, baliokideen arteko trukearen printzipioa 'metafisikoa' izanen litzateke, hots, demostraezinezkoa litzateke. Alderantziz, monetaren balioa ondasun errealen balioaren integrazioa besterik ez dela onartzen denetik, moneta/produktu identitatearen printzipioaren alboraezinezko ondorioa da baliokideen arteko trukea.

Marx-ek ekonomia politikoa zientifikoa ez dela azpimarratzen du, baldin eta kapitalisten eta langileen arteko 'truke desberdinera' eramaten badu. Langileek beren 'lan-indarra' saltzen dute; honela eginez, monetaren ordez trukatzen dute. Produkzioari loturiko monetak produktu errealaren balioa besterik ez duenez, logikoki, ezinezkoa da jasotako alokairuak lagatutako lan-indarrarekiko hertsiki baliokidea ez izatea.

Teoria 'burges' batek adierazi nahi luke langileek gastatutako lan-indarraren kontra-balio *partziala* besterik ez luteteela jasoko kapitalistengandik; baina Marx-en iritziz, hori faltsua eta ez-zientifikoa da. Izatez, jasotako alokairuak definizioaz gastaturiko lan-indarra berdintzen du; bestela balitz, ekonomia ez litzateke izanen zientzia baten objektua, anarkian arituko liratekeen indar basatien arloa baizik.

Analisi marxiarrari kasu egiten bazaio, baliokideen arteko trukeak ez-alokairuzko errentako eraketarik kontrajartzen ez duela ulertuko da.

Hortaz, balioa soilik giza-lanari atxikiaraziz, nola ez litzateke izango alokairua produktu nazional osoarekiko koextensiboa, alokairuen eraketa baliokideen arteko trukea izanik?

Erantzunak egiazko balentria intelektuala suposatzen du. Zehatza da esatea alokairuak langileek emandako objektuarekiko baliokide direla; hala ere, lana bera ez da transakzio edo eragiketaren objektua, zeina lan-indarrari besterik ez dagokion; lana alienaezina da eta bera objektu salgarri balitz, gizarte ekonomikoak esklabutasunean funtzionatuko luke. Kapitalismoa, aldiz, langileak kapitalistari saltzen dion objektuaren balio zehatzaren arabera langilea ordaindua deneko sistema ekonomikoa da; gainera, objektu hori zuzenki zehaztea beharrezkoa da: jarduera produktiboa da, langileak enpresari bere zerbitzuak nolabait 'alokatuz'.

Dena da orduan argi: lan-indarra produktua da. Beste edozein produktu bezalaxe, produzitzeko gastaturiko lanetik ateratzen du bere balioa lan-indarrak; honela, lan-indarra lanaren produktuen bat besterik ez izanik —eta ez produktuen batura totala—, alokairuen ordainketak produktu sozialaren zati bat besterik ez die ematen langileei, prezeski lan-indarraren produkzio eta birprodukzioaren kostua definitzen duen frakzioa.

Bere bizitzaren amaierara ailegaturik, Marx-ek lan-indarraren 'asmaketa', dudarik gabe, bere originaltasunik handiena izan dela esan zuen. Egia da kontzeptu hori ez zela ordurarte sortu; halaber, egiazkoa da garai modernoak arte, lan-indarraren kontzeptua, jabegoz, Marx-i eta bere eskolari dagokiela.

Orain ongi ulertzen da, zergatik hitz egiten zuen Marx-ek kapital *aldakorraz* alokairuen fondoen arazoari buruz mintzatzean: alokairuak fondo horietan harturik daude; gero, kapitala produktu osoaren jabe bihurtzen da, langileek beren lan-inda-

rraren baliokidea besterik jasotzen ez duten artean: diferentziak *plusbalioa* definitzen du. Alokairuen eraketan eskainitako kapitala benetan aldakorra da, bera prozesuan —edo Marx-ek esanen zukeen moduan 'auzian'— 'handitu' egiten baita.

Langileak beren produktu osoaren (hots, errenta nazionalaren totaltasunaren) jabe bihurtuko balira, ekonomia ez litzateke inoiz egonen patologian. Baina kapitalak langileak 'hurrupatu' egiten ditu, produktuaren plusbalio osoa kentzen baitie, baliokideen arteko trukean, langileen eta berorien familien beharrezko kontsumotik (hots, lan-indarraren balio 'zientifikoa') harago. Kapitalismoaren patologia guztiak honela desbahitutako plusbalioan du 'oinarria'.

3.7. 2. Marx, kapitalismoaren teorialaria, hots, kapitalaren patologiarena

Populazio aktiboaren 'pobretasunaren' legeak karakterizatzen du 'produkzio-modu kapitalistaren' (terminologia marxistan) desfuntzionaltasun garrantzitsua. Pobretasuna erlatiboa edo absolutua da.

Lot gakizkion pobretasun erlatiboari. Baldin eta praktikan egiaztatzen bada, orduan kapitalismoa kondenaturik dago —zenbait bazterretan oraingoz oso hedaturik dagoen ustea—.

Pobretasun erlatiboaren legea lanaren eta lan-indarraren bereizketaren ondorio zuzena da. Epealdi bakoitzean, gaur egun inbertsioa deitzen dugunak ematen du *kapital konstantearen* metaketa; plusbalioak inbertsio horiek elikatzen ditu. Ekonomia nazionala gero eta gehiago dago horniturik mota guztietako makinez: honela produktibitate *fisikoa* etengabe handitzen da; gero eta lan gutxiago erabili beharra dago, lan-indarraren produkzio eta birprodukzioaren baldintza fisiologiko eta soziologikoak ekoizteko. Hemendik, konstatatzen da kapitalak produktu arruntetik 'apartatu' behar duen produktu nazionalaren zatia denboraz gutxituz doala: pobretasuna frogaturik dago. Erlatiboa da langileek beti ongitasun berbera daukateneko zentzuan; baina kapitalari gero eta gutxiago kostatzen zaio ongitasun konstante hori ekoizteko; beraz, kapitalak bereganatzen duen produktu berriaren zatia gero eta handiagoa da.

Diagnostikoa konplikatu egiten da plusbalioaren eraginaz galdetzen bada; berak kapital konstantearen metapen jarraiak elikatzen ditu; baina, halabeharrez, kapital konstanteak 'gainmetatua' izan eta gehiagorik ezelako 'errentagarritasunik' lortuko ez dueneko mementua iritsiko da. Horixe da krisi orokorra: langileek 'alokairu-ondasunak' besterik ezin dituzte erosi, errenta nazionalaren zati eskasa; kapitala plusbalio osoaz aberasten da, baina ez daki gehiagorik zer egin. Langileek enplegaturik segitu nahiko lukete, beren beharrizanak ase izatetik urrun baitira. Kapitalak ezin ditu beraiek gehiago enplegatu, zeren plusbalioa makinetan halako metapen-maila iritsi baita, non inbertsio berriek ezin duten ezelako errentagarritasunik ekarri, langileek kapital konstante gainmetatuaren produktua garbitzeko beharrezko erosketa-ahalmena ez duten bitartean.

Marx-en ustez, kapitalismoaren muga ikusten da; baina denbora berean analisi marxiarraren muga ere ikusten da. Langileek erosketa-ahalmenik ez badaukate, izan al dezake Marx-ek berak, bere teorian, lan sozialaren produktua garbitzeko nahikoa erosketa-ahalmenik, ekonomia nazionala krisian ez dagoenean ere? Erantzuna negatiboa da.

3.7.3. Marx-en teoriaren muga zientifikoak

Teoria klasikoak errenta-mota guztiak produkzio-esferan determinatzen zirela frogatu nahi zuen. Ezinezkoa zen. Ricardo-k oztopoa aurreikusi zuen. Alokairuek produkzio nazionala estaliko balute ere, beste errenta-kategoria bat behar zen adierazi, *interesena* alegia. Izan ere, alboraezinezkoa da produktuaren agertzetik eta berorren azken salmenta arte denbora igarotzea. Hortaz, denbora-kapitalari ordaindu behar zaio. Zein merkatutan eratzen dira interesak?

Ager daitezke produkzio-esferan? Ezinezkoa da, interesak produktua jadanik gordailaturik dagoeneko denbora dela kausa sortzen baitira, alegia, 'produkzio--errentak' eratu eta gero. Beraz, interesak soilik familiek ordain ditzakete, beren errenten gastuan. Hau da, interesa zirkulazio-esferan sortzen den errenta da.

Marx-ek plusbalioaren kontzeptuan ezkutatu zuen arazoa. Beraren ustez, produkzio-esferak ez ditu soilik alokairuak sortzen, plusbalioa ere baizik, zeinaren interesak berari dagozkion. Zailtasuna, hala ere, ez da gainditu. Beste era batera agertzen da. Plusbalioa soilik lan-indarrak sor dezake, hots, 'kapital aldakorrak'. Baina interesak kapital osoaren ordainketak dira, beraren 'kapital konstantearen' aldea barne. Beraz, kapital aldakorrak produkzio-esferan sorturiko plusbalioa banatzeko helburua du zirkulazio-esferak kapital osoan. Arazoaren 'soluzio' horrek sakonago den beste arazo bat sorrarazten du: produkzioan definitua izanik, produktuen neurketa zirkulazioan 'aldatuko' litzateke, zirkulazio berez neutroa izanik, orain balioaren sortzailea edo deuzestatzailea izanen litzateke ondasunen arabera.

Sir John Stuart-ek (XVIII. mendean) zioenez, mozkinak prezioetan sortzen dituena zirkulazioa da, mozkinak balioak (produkzioan definituak) baino handiagoak izanik. Gaur egun badakigu horrela dela, Schmitt-i esker, baina honako barne--kontraesan hau gainditu behar da: nola dira prezioak balioak baino handiagoak, baldin eta balioak —produkzioak sorturiko errentak— prezioen elikadura bakarra badira? (Schmitt-en emisio-teoriak soluzioa eman dio galdera honi, 'hirugarren aukeraren baztertze-printzipioa' alboratuz, geroxeago ikusiko dugun bezalaxe.)

Stuart-en adierazpena alboratuz, mozkinak produkzio-esferari lotu zizkion Marx-ek: plusbalioak lanak sorturiko errentak dira, alokairuak bezalaxe. Baina Stuart-i eginiko kritika bera Marx-i ere egin dakioke.

Logikoki ezinezkoa da enpresek beren buruen kontra mozkina ateratzea. Kapitalistek langileei ordaintzen diete, baina ez beren buruei. Beraz, Stuart-ek aurkitu zuen oztopo berbera daukagu: produkzio-prozesuan alokairuak soilik sortzen dira monetan. Mozkinaren eraketa alokairuen gastuari dagokio. *Malgré* Marx, alokairu--ondasunen prezioa berauen balioa baino handiagoa da. Analisi kuantikoak, geroago ikusiko den bezala, kontrako baieztapenen baterakuntza ahalbidetzen du, baterakuntza horretan termino-kontraesanik izan gabe:

(i) Mozkin monetarioak zirkulazioan sortzen dira.
(ii) Errenta guztiak, mozkin monetarioak barne, produkzioan sortzen dira.

Soluzioa bi esferetan gertatzen diren gertakizunen *aldiberekotasunean* datza. Errenta guztien eraketa eta gastua mugimendu soil bat osatzen duten bi mugimenduk sortzen dute, bi 'emisio-erdik' emisio bakarra osatuz.

Honela, denbora *kronologikoan*, prezioak balioak baino handiagoak dira, ez--alokairuzko errenten eraketaren neurrian. Baina denbora *kuantikoan* (Schmitt 1984a), prezioak balioak berdintzen dituzte, ez-alokairuzko edozein errenta alokairuen ordainketaren eragiketa berean bat-batean deuseztatzean.

Bigarren emisio-erdian *atzelikadura* dela bide esplikatzen da arazoa (itzuliko gara hori guztia adierazteko).

Beste aldetik, Marx-ek ez zuen inoiz ebatzi ondoko arazo bikoitza (Schmitt eta Cencini 1976,1977):

(a) Produktuaren gauzatzea, alde batetik, eta
(b) balioa prezioan eraldatzea, edo plusbalioarena mozkinetan, bestetik.

Jakina denez, Marx-ek bi sektoretan banatu zuen ekonomia. Baina plusbalioa ez da sortzen bi sektoreetan eta, lehen esan bezala, plusbalioa ez zaie alokairuei gehitzen.

Alokairu-ondasunen, —inbertsio-ondasunen edo kapital-ondasunen, amortizazio-ondasunen, 'errenta'-ondasunen, 'interes'-ondasunen eta 'dibidendo'-ondasunen—, produkzioak alokairu *beteak* emititzen ditu, mozkin-ondasunen produkzioa alokairu *hutsen* emisioa den bitartean.

Alokairu-ondasunen sektorean, produkzioa v_1 da eta ez $v_1 + pl_1$; mozkin--ondasunen sektorean, produkzioa pl_2 da eta ez $v_2 + pl_1$.

Baldintza horietan, *Kapital* izeneko liburuan proposaturiko 'birprodukzioeskemak' oker daude. Bi sektoreen produktua ezin idatz daiteke

$v_1 + pl_1$ eta $v_2 + pl_2$ eran,

$v_1 + pl_2$ eran baizik.

Epealdi bakoitzeko produktu nazionala $v_1 + pl_2$ da eta ez $(v_1 + pl_{1)} + (v_2 + pl_2)$.

Beranduago, hemen aurkezturiko soluzioa Keynes-ek proposatu zuen (Friboulet 1988).

Bigarren kapituluan aipatu dugun bezala, Schmitt-en ustez alokairuek errenta nazional osoa bereganatzen dutenez, eta ondasunak enpresetan gordailaturik daudenez —'kontsignan' baleude bezala—, produkzio-moduen jabego sozialak ez du inolako eraginik, berez, langabeziari eta inflazioari aurre egiteko. Horretarako, beste neurri batzuk behar dira, 8. kapituluan ikusiko den bezala.

3.8. LÉON WALRAS-EN EKONOMIA PURUA

Schumpeter-en iritziz, zientzia ekonomikoan Léon Walras (1834-1910) fisikan Newton izandakoa bada ere, laburki besterik ez dugu beraren obra aipatuko. Walras-ek *Eléments d'économie politique pure* izeneko lana idatzi zuen, bertan oreka orokorraren teoria sortuz. Teoria horren lerro nagusiak hauexek dira:

(a) Ondasun errealek merkatuan eskaini eta eskatuak dira oso berezia den ondasun baten arabera: *numerario*aren arabera, prezeski;

(b) ondasunen artean aukeratua izatean, numerarioa zenbaki huts, edo, gaur egun esaten den moduan, dimentsio gabeko zenbaki bilakatzen da;

(c) merkatuan presente dagoen ondasun erreal bakoitzaren eta numerarioaren arteko harremana elkartrukearen jarduerak edo ekuazioak sortzen du;

(d) azkenik, ondasun eta zerbitzu errealen merkatuan determinaturiko prezioak zerbitzu produktugilean ezartzen dira;

(e) ondorioz, oreka orokorra ondasunen merkatuan eta aldi berean ondasun horien zerbitzu produktugileen merkatuan konstataturiko gastuen zirkuitua da.

Hortaz, Walras-en analisia monetan produktua integratzen duen teoriaren aplikazio berria da, hots, numerarioaren adierazpen konkretua.

3.8.1. ***Numéraire*** *(numerarioa)*

Izenak berak adierazten duenez, numerarioa zenbakia da. Argi dago zenbakiak ez direla beren artean trukatzen, ezta ondasunen kontra ere; hortaz, numerario walrasiarra Marx-en baliokide orokorra da. (Marx-ek, bere bizitzaren azken urteetan, ondasun salgarrien 'izendatzaile komunaren' zenbakizko natura aurkitu zuen.)

Baina numerarioa baliokide orokorra izanik, nola da posible, hala ere, bera ondasunen ordez trukatzea?

Walras-ek emandako adierazpena hurbil dago analisi marxiarretik: beste ondasunen baliokidea ondasuna da, zenbakitan eraldatua.

Zein ote da eskuragarri diren ondasunen artean zoriz hautatuko ondasuna zenbakitan eraldatzen duen jarduera? Trukea da. Baina truke jeneraldua da, eskainitako ondasun guztiak, orekan, aldi berean eskaturik egonik daudela: baldintza horietan, ondasun bat zirkularki erabil daitekeela imajina daiteke, eragile bakoitzaren sal-erosketetan besterik balio ez izateko. Ondasun horrek objektu bitartekari baten funtzioa ordezkatzen du, eragile bakoitzak lagatzen baitu berarengana berehala itzultzeko; beraren izaeran, objektu 'zirkulatzailea' zenbaki hutsa da, merkatuan parte hartzen duen edozein eragilek erosia baita luze gabe saldua izateko.

3.8.2. Numerarioa, merkantzia eta zenbakia da biak batera

Analisi walrasiarrean, ezinezkoa da numerarioa lehendabizi merkantzia ez izatea; izan ere, numerarioa trukeetan desbahitua da eta ondasunek (edo merkantziek) soilik definitzen dituzte trukeen baldintzak. Beste merkantzia baten ordez lagaturik legokeen merkantzia bat trukeko jarduera batean presente egonen litzateke; jarduera numerarioan egina izan dadin, beharrezkoa da edonon merkantzia beraren ordez lagaturik egotea: oreka orokorrean baldintza ordezkaturik egoten da, edozein eskarik eragile berberaren eskaintza bera definituz eta merkantzia berbera transakzio guztietan katalizatzaile modura presente egonik, salmenten eta erosketen artean tartekatuz.

Walras-en teoria ez da ongi ulertzen, baldin eta produzitzen den unean, aukeraturiko merkantzia numerario bihurtzen dela konprenitzen ez bada; horretarako, beharrezkoa da gordetako merkantziaren trukea merkantzia beraren ordez ulertzea. Demagun honela n ondasun daudela merkatuaren aurrean; edozein numerarioren ausentzian, merkantzia batean merkantzien prezioak ($n - 1$) zenbakiak dira; baina prezio bat gehi daiteke —alegia, erreferentziako merkantziaren prezioa merkantzian bertan—: horixe da numerarioa definitzen duen prezioa. Beste era batera esanda, suposatzen da ezen erreferentziako balio duen merkantzia, oreka orokorraren trukeetan, beraren kontra trukaturik dagoela: erreferentziako merkantzian (hots, merkantzian bertan) beraren prezioa $\underline{1}$ zenbaki hutsa da. Horrez geroztik, beste merkantzien prezioak dimentsio gabeko zenbakien sistema aritmetikoan ere badaude adierazirik.

3.8.3. Numerarioa ez da agertzen erreferentziako merkantziaren trukean, truke orokorraren barnean duen berarekiko harremanean ez bada

Beraren ordez merkantzia baten trukea ulertzen denetik, uste daiteke helmugara ailegatu garela: ez al da orduan numerarioa definitu?

Benetan ez da erabat definitu, zeren ez bailuke balioko ezertarako edozein ondasun hartzeak honako hau dekretatzeko, alegia, bera dimentsio gabeko 1 zenbakiari asimilagarria zaiola, era arbitrarioz onartzen denetik bera beraren kontra trukatzen dela: izan ere, ez da mugitu eta merkantzia izaten segitzen du, zenbaki bihurtu barik. Analisia zehatza izateko, suposatu beharra dago, numerarioa truke guztien barnean definiturik dagoela, zeintzuek, ekonomiaren merkatu guztietan aldi berean gauzatuz, eskaintza guztien eta eskari guztien oreka segurtatzen baitute indibidualki harturiko eragile guztien kasuan; baldintza oso berezi horietan, ondasun bera eragile guztiek beren salmenten eta erosketen artean objektu bitartekari modura erabiltzen badute, egia da ondasun hori berorren kontra lagaturik dagoela eta numerario modura definitua dela.

3.8.4. Numerarioaren teoria, monetan produktua integratzen duen teoriaren aplikazio modernoa da

Saia gaitezen aurreko irakaspenak batzen. Truke orokortuan, ondasunak batzuk besteen ordez dira trukatuak, eragileen artean; aldiune berean, bereizten da erabilera partikularra den ondasun baten ‘zirkulazioa’, salmenten eta erosketen artean tartekatzen baita; gainera, numerarioaren tartekatzea produkzio-ekonomian ere baieztaturik dago, non berak zerbitzu produktugileen merkatuko salerosketen eta produktuen merkatuko salerosketen arteko baliokidetza lortu arteko ‘orekatzea’ esan nahi duen: hortaz, erosketen eta salmenten artean hartua, numerarioa adierazpen nominala edo trukatuko produktuen era da.

Honela, ba, Walras-en teoria modernoa da oso eta ‘iraultza keynestarra’ iragartzen du.

3.9. IRAULTZA KEYNESTARRA. KEYNES-EZ GEROZTIKO MONETAREN TEORIA UNITARIOA

Keynes (1883-1946) monetan produktua integratzen duen teorialari handia da; beraren pentsamenduaren zenbait puntu ukituko dugu. Hala ere, teoria keynestarra makroekonomia moderno osora hedatzen da; bera eboluzioan dago, Keynes baino harago.

Aipa ditzagun bi puntu hauek:

(a) Eskaintza eta eskariaren identitatea.
(b) Altxorgintza guztien beharrezko baliogabetasuna.

Keynes-en emaitzen artean, kontuan hartzekoa da moneta-arazoa (1930, *A Treatise on Money*). Monetaren arazoa ez da bigarren mailako kontua, adituek-edo ikertu beharko luketeena, edozein teoria ekonomiko modernok argitu beharko duen arazo sakona baizik.

3.9.1. Eskaintza eta eskariaren arteko identitatea

Hemen "*analisi makroekonomiko modernoaren irakaspen bereziak*" aurkitzen ditugu.

Definizioz, errenta nazionala (*E*) kontsumoen (*K*) eta inbertsioen (*I*) arteko batura da: $E = K + I$

Errenta era horretan definitzen da eskaintzaren ikuspegitik.

Zein ote da beraren definizioa eskariaren ikuspegitik? Hauxe da: $E = K + A$, (*K*) kontsumoa eta (*A*) aurrezkia izanik.

Argi dago errenta berbera dela bi 'ekuazioetan'; edozein errenta kontsumitua (*K*) edo aurreztua (*A*) da. Hortik ondorioztatzen da, dagoen edozein errenta eskaintzatik datorrela eta eskarian deuseztatzen dela. Izan ere, aurrezkia tituluen eskaria da, eta tituluak eskatzeak tituluen saltzaileen konturako produktuak eskatzea esan nahi du. Hortaz, ezinezkoa da eskaintzaren eta eskariaren artean ezein bereizketa topatzea.

Eskari osoaren eta eskaintza osoaren *identitatea* gogor samarra izanen da zenbait jenderen ustez. Izan ere, ez al du esaten 'zentzu onak' guretariko bakoitzak eskaini barik eskatzen duela eta eskatu barik eskaintzen duela, norberak atxikitzen dizkion jardueren arabera? Hala ere, zientzia 'zentzu ona' baino harago doa: lehen esan dugun bezala, ekonomia monetarioan edozein eskari eskatzailearen eskaintza da, zeinak bere 'moneta errealean' gordetzen duen produktua jokoan jartzen baitu. Simetrikoki, edozein eskaintza eskaintzailearen eskaria da; izan ere, produktu bat eskaintzeak ez du esan nahi moneta bat eskatzea (kasu horretan eskaintza netoa litzateke), errenta monetarioen objektua den produktua eskatzea baizik.

Beste aldetik, froga dezagun lan-indarra dela produkzio faktore bakarra.

Keynes-en arabera (1930, 121. or,), gizartearen irabaziak edo diru-errenta bitan bana daitezke: "*(1) kontsumo-ondasun eta inbertsio-ondasunen produkzioak* ***irabazitako*** *aldea, eta (2) kontsumo-ondasunetan eta aurrezkietan* ***gastaturiko*** *aldea*."

Irabaztea eta gastatzea errealitate bakar baten bi aurpegiak dira. Schmitt-ek frogatu duenez (1971,1972), ez dago inolako lotura funtzionalik errenta jarraien artean. Beraz, errenta bakoitzak bera izaten jarraitzen duenez, kontsumo- eta inbertsio-ondasunen azken gastuak eta beren produkzio-kostu guztiak beti dira baliokide.

Bere *Treatise* delakoan, Keynes-ek identifikatu egin zituen errenta eta produkzio-kostua (1930, 111or.). Gizartearen irabaziak produkzio-faktoreei ordaindu zaienak definitzen ditu edo, alternatiboki, beraien produktua erosteko gastatu denak.

Zeintzuk dira produkzio-faktore horiek? Teoria neoklasikoak lan-indarrarekin batera kapitala eta lurra ere hartzen ditu produkzio-faktoretzat, nahiz eta logikoki esplikaezina den nola izan daitezkeen produktuak (kapitala eta lurra produktuak besterik ez dira) beren balioen iturri.

Keynes-en ustez (1973, XIII. libk., 454. or.), "*... dena da lan-indarrak* ***ekoitzia*** *(...) Hobe da lan-indarra, enpresarien zerbitzu pertsonalak eta bere laguntzaileak barne noski, produkzio-faktore soiltzat hartzea ...*"

Lan-indarra produkzio-faktore bakarra izanik, beraren kostuen ordainketaren bidez determina daiteke errenta. Soldatak dira lan-indarraren, soldatapekoen, kostua. Beraz, errenta kontsumo- eta inbertsio-ondasunen produkziorako ordaindutako alokairu guztien baturak definitzen du: hortaz, alokairu-unitateak dira, izan ere, balioaren azken neurria.

Alde batetik, alokairuen ordainketa, eta, bestetik, outputaren azken erosketa dira errentaren definizio baliokideak. Keynes-en irakaspenik garrantzitsunenetariko bat, errenta produkzioaren emaitza dela esatean datza.

Keynes-ek, honela, Jean-Baptiste Say-ren pentsamendua garbitu zuen: eskariek eta eskaintzek moneta gainditzen dute eta edozein jardueratan ondasun errealei besterik ez dagozkie.

Ekonomialari gehienen harridurarako, eskaintza eta eskariaren identitatearen ondorio zuzena hauxe da, hots, edozein altxorgintza nulua dela.

3.9.2 Altxorgintza nulua edo baliogabea da, halabeharrez

Banku-monetaren bidez argudiatzen denetik, nahiko erraza da edozein altxorgintzaren baliogabetasun logikoa ezartzea. (Ohar gaitezen altxorgintza nulua izango litzatekeela errentak moneta materialez osaturik balira ere; baina banku-monetaren kasuan, arazoa argiago da.)

Eragile bati banku-moneta batez ordaindu zaion unetik aurrera, etortzen deneko bankuan harturiko moneta ezarri besterik ezin du egin; are gehiago, ezarpen hori *berehalakoa* da: hau da, ez dago ezelako denbora-bereizketarik edo luzapenik errentaren hartzearen aldiunetik bere deuseztapenaren aldiunera. Izan ere, jaulki dueneko bankuan ezarririko edozein errenta deuseztua da, bankuak bere kontra zor bat gordetzen baitu (Schmitt 1984a).

Horrela frogaturik daude puntu hauek:

(i) Altxortutako errenta hartua da eta ez gastatua;
(ii) harturiko edozein errenta bat-batean gordea da;
(iii) errenta baten edozein ezarpenek gastua balio du;
(iv) *ergo:* edozein errenta bat-batean gastatua da;
(v) ondorioz: edozein eragileren altxorgintza halabeharrez da nulua.

Norberak, banku-monetan altxorgintzarik txikiena eratzeko ez-gai izango dela ulertzera iritsiko deneko egunean, pentsamendu modernoaren muina ukituko da. Bereziki, ez da egongo gehiagorik tentaturik garrantzi nimiñorik ere emateko, errenten titularren jarrerari krisiaren garapena (langabezia) iratxikitzen dioten teoriei.

Keynes-ek behin-betiko mozkinaren teoriari ireki dio bidea; horrek kapitalismoaren izaera sakona ulertzen uzten du. Bideari jarraikiz, Schmitt-en ildotik (Schmitt 1984a) inflazio eta langabeziaren arazoak beren sakontasunean ulertzera irits gaitezke.

3.9.3. Mozkina: transferentziako errenta prezioen eta balioen identitateari dagokion betekizun osoan,

Ricardo-rekiko aurrerapena handia da oso: errenta ez dute gehiagorik mozkinek eta alokairuek osatu, alokairuek soilik baizik; beste aldetik, mozkinek ez-alokairuzkoak diren errenta guztiak osatzen dituzte, hau da, errenta, interesak, dibidendoak eta mozkinak zentzu hertsian.

Mozkinaren teoria keynestarra abstrakzioko ahalegin batez besterik ezin da ulertu.

Eman ditzagun argudioaren lerro nagusiak (Schmitt 1984a; berriro itzuliko gara arazo honetara).

Gastuak kontrako signo algebraikoak dira, produkzio-faktoreen merkatuari dagozkion ala produktuen merkatuari dagozkion arabera.

Produkzio-faktoreen merkatuan, gastuak negatiboak dira, errenta sortzen baitute.

Produktuen merkatuan, gastuak positiboak dira, errenta deusteztatzen baitute.

(Zeinuak alderantziz jar daitezke, beren arteko konkrakotasuna gordez gero).

Arrazoitu dezagun, beraz.

Gure gizarte kapitalistetan, produkzio-faktoreen merkatuan edozein gastu erabat negatiboa da eta, gainera, partzialki positiboa; gastu positiboaren presentzia gastu negatiboan mozkinaren neurri zehatza da (ez-alokairuzko errenta zatiezina).

Treatise on Money liburuan Keynes-ek bereiztu egin zituen mozkin *normala* eta *inflazio-mozkina.* Mozkin normala dibidendoen, interesen eta errenten zatia da. Soilik alokairu bereganatuen zati ez-banatuak sortzen du inflazioa. Baina benetako mozkin inflaziogilea produkzio dualak sortzen du, '*widow's cruse*' ospetsua egiaztatzen duena: mozkinaren eraketa berorren gastuaren eragiketan gauzatzen da.

Ikusiko dugunez, beharrezkoa da ekonomia osoa bi sektoretan bereiztea. Lehen sektoreak alokairuak emititzen ditu eragiketa neto batean. Bigarrenak, berak emititzen dituen alokairuak bat-batean berrartzen ditu, alokairuen tituludunei edukirik gabeko alokairu nominalak luzatzen zaizkielarik.

Keynes-en analisia sakona da eta arrakastatsua izanen zatekeen baldin eta aipaturiko bi motetako mozkinen arteko lotura ezagutu balu. Izan ere, ez-banatutako mozkin normalak kapital finkoa definitzen duela erakusten du analisiak (batera magnitude erreala eta nominala). Kapital finkoaren amortizazioak produkzio duala sorrarazten du, alegia, bigarren sektorearen produkzioa. Eta edukirik gabeko alokairuak inflazio eta langabeziaren adierazpen sakonak dira, aurrerago ikusiko den bezala.

3.10. BI ESKOLA DESBERDIN

Analisi ekonomikoaren historian zehar, teorialariak erakusten saiatu dira monetaren eta produktuaren arteko harremana edukia/era bereizketa aristotelikoari dagokiola. Teoria gutxi aritu dira moneta eta produktuaren dikotomiaz. Garrantzitsua den bakarra 'kuantitatibismoa' da, gaur egun Chicagoko Eskolakoek errepresentatzen dutena. Hala ere, teoria kuantitatibo modernoa magnitude nominaletan magnitude errealen 'integraziotik' hurbil dago oso.

Gaurko teoria kuantitatiboaren eta irakaspen keynestarren arteko oinarrizko desberdintasuna, ondasun errealak (produktu eta tituluak) banku-monetari lotzen dizkion jardueraren analisian datza:

(i) Friedman (1953,1956; Gordon 1974) eta berorren eskolakoen ustez, ekonomiaren merkatu guztietako transakzioen eragiketa da integrazioa;
(ii) Keynes-en iritziz, produkzio-faktoreen merkatu soilean egindako emaitza da integrazioa.

Elkarren kontra jotzen duten jarrera horietatik datozen ondorioak garrantzi handikoak dira. Honela, kuantitatibisten aburuz, monetaren erosketa-ahalmena ondasun-merkatuak alda dezake.

Hala ere, biak ados daude oinarrizko puntu batean: monetaren erosketa-ahalmena kanpokoa da, hau da, monetak eta produktuak errealitate bakarra osatzen duteneko kontzepzioa (Schmitt 1984a), zeinak egunen batean (agian laster) moneta europarra sortzen lagako duen (Schmitt 1988a; Schmitt eta Cencini 1992).

Kapitulu honen helburua hauxe besterik ez da izan, alegia, produktua monetizaturik agertzen denetik edozein eskaintzak eskaria berdintzen duela, eta alderantziz; hain zuzen ere, testuliburuetan azaltzen den irakaspenaren kontra. Nahikoa gogorra dateke baieztapen hori ekonomialari gehienen iritziz. Alta, Schmitt-en ustez, analisi ekonomiko modernoan, baieztapen horrek oinarri izan beharko luke.

Gaurko ekonomialari gehienek sostengatzen dituzten usteek ez dut, inolaz ere argitu pairatzen dugun aurpegi biko munstroa: *stagflazioa*. Alderantziz, iluntasun teorikoan mugitzen da ekonomi zientzia akademikoa, eta ondorioak ez dira batere neutroak, jasangaitzak baizik. Hasiko ote gara inoiz oinarri zuzenetik teoria modernoa eraikitzen, moneta kontuan hartuko duena, alegia?

4. Denboraren kontzepzio kuantikoa

"*The Time present and time past Are both perhaps present in time future And time future contained in time past*."

T. S. Elliot, *Four Quartets*

4.1. DENBORAREN ARAZOA

Ekonomiaren ohiko teoriek ez dute era egokian erabili denbora. Bereziki, zenbait baieztapen erabat desegokiak dira, hala nola, errenta edota produkzioa denboraren funtzioak direla bioen baieztapena.

Produkzioa eta produktua dira funtsezko gaiak ekonomian. Gaur egungo ikuspegi nagusiaren arabera (Arrow eta Debreu 1954), produkzioa eta produktua desberdinak dira. Lehena, denbora jarraian aritzen da, eta denborarekiko funtzioa da; produktua, emaitza denez, pixkanaka doa ekoiztuz eta gauzatuz. Azkenean, produkzioa bukatzen denean, produktua osaturik dago. Horren neurria 'unitate fisiko homogeneo batez' adierazten dute ekonomialariek.

Schmitt-en iritziz, produkzioa eta produktua ez dira fisikoak. Are gehiago, produkzioa ez da gauzatzen jarraiko denboran; alderantziz zatiezinezko denboran definitzen da.

Zatiezinezko denbora edo denbora 'kuantikoa' kontuan hartzeak ekonomi zientziaren oinarriak aldetzen ditu erabat, ohiko teoriak baliogabeko bihurtuz.

Infinituki zatigarri den denboran planteaturiko produkzioa fikziozkoa da. Produkzioa denbora eraldatzen duen jarduera baino ez da. Beste aldetik, produktu monetarioa ez da nahasi behar produktu fisikoarekin. Produkzioa bukatu arte, ez da produktu monetariorik egoten.

Gastuak, monetarioak direnak bereziki, denbora kuantikoan ere gauzatzen dira. Gastuen bat-batekotasunak zatiezinezko denbora positiboarekin dago lotuta: denbora-kuantuarekin. Horrela Schmitt-ek (1984a) emisioen teoria eraiki du, zeinaren arabera, ekonomian, edozein gastu produkzio den, eta edozein produkzio gastu. Beraz, ekonomia nazionala eragiketa bakarrean oinarritzen da: produkzioan; edo, gauza bera dena, gastuan.

Errentaren sormena *emisio* bat da, baita errentaren azken gastua ere, berari dagokion produkzioaren kopuru eta denbora dimentsio berekoa, baina aurkako zeinukoa. Hortaz, eskari osoaren eta eskaintza osoaren identitatea analisi kuantikoak baieztatzen du. (Lanean zehar frogatuko da —ikus 7. kapituluan— Keynes-en *identitateak* denbora kuantikoari dagozkiola logikoki.)

Emisioa da objektu baten bat-batekotasuneko sormena eta deuseztapena. Emisio batek adierazten du produkzioaren eta produktuaren bat-batekotasuna.

Gertakari kuantikoa bat-bateko sormen (edo deuseztapen) bat da, zeinaren emaitza multzo modura, emana den osotasun gisa. Hortaz, gertakari kuantikoaren denbora-dimentsioa ere kuantikoa da, alegia, zatiezinezko denbora-tarte finitua.

Egia da, ikusiko den legez, produkzioaren motako gertakari batek jarraiko denboran hedatzen den emaitza ematen duela, baina horrek ez du inplikatzen inolako funtzio-erlaziorik produkzioaren eta denbora jarrai edo ez-jarraiaren artean.

4.1. 1. Produkzioa eta denbora

Ikuspuntu fisiko batetik zuzena da esatea produkzioa ez dela sormena, denboraren funtzioa baizik.


Ikuspuntu ekonomikotik, produkzioa emisio bat da, sormena, denborazko tarteak bat-batean kuantizatzen dituen bat-bateko gertakaria.

Produkzioak denbora ‘kuantizatzen’ du, produktua sortuz. Beraz, produktua denbora ‘kuantizatua’ da, hots, produktuaren neurria produkzio-denboraren epealdia da. Argi dagoenez, neurri hori desberdina da produktuen arabera, eta ez die inolako homogenotasunik ematen produktuei. Horretarako, beste neurri bat behar da, *numerarioa* hain zuzen.

Ekonomia nazionalean produktua denbora kuantizatuan eta, aldiune berean, numerarioan eratzen da. Produktua denbora *eta* zenbakia da, bi dimentsioak alternatiboak izanik.

Produkzioak numerario-produktua sortzen du, moneta produkzio-prozesuan integratua delako. Moneta, numerarioaren existentziarako *sine qua non* motako baldintza da. Numerario-produktua produktua da monetan, moneta-produktua alegia.

Produkzioa konstantea da edozein epealditan, bertan produkzio-ekintza bakarra sortzen baita. Produkzioa *jauzia* da: jauzi soil batez epealdi osoari dagokio. Honela, produkzioa ardatz bertikaleko puntu soil batek errepresentatzen du, ardatz horizontalean (denbora-ardatza) segmentu bati dagokiona:



Produkzioa epealdi osorako gertakari soil baten ekintza da. Horrela, ekintza berezi hori definitzerakoan, Schmitt-ek (1982,1984a) fenomeno 'kuantikoa' deitu du. Denboran kokatzen bada ere, produkzioa ez da denboraren funtzio, agertzen den aldiune berean desagertzen baita, denbora-kuantuaren osorako bat-batean definitua izanez.

Produkzioak espazio bat sortzen du, produktu-espazioa, berau produkzioaren emaitza izanik. Produkzioa eragiketa da eta produktua emaitza.

Produkzioaren analisi logikoak ekonomi zientzian dauden ohiko teorietatik at garamatza (Schmitt 1984a, Cencini 1984). Produkzioak denbora kuantizatu duenez, denbora jarraiaren tarte bati bat-batean eragiten dio. Beraz, produkzioaren lehen ondorioa denbora-kuantu baten definizioa da. Produktua ez da denboran kokatzen: izatez, denbora *da*. Produktuaren dimentsiorik garrantzitsuena, hortaz, denbora kuantizatua da.

4.1.2. Denbora kuantikoa eta denbora erreala

Denbora 'kuantikoa' zatiezinezko epealdi finituari –erreferentzia legez harturik– dagokion denbora errealaren tartea da. Denbora kuantikoa, beraz, zatiezinezkoa da eta bat-batean dago emanik.

Erreferentzi epealdi konkretu baterako, tarte finitu horri dagokion kuantua emisio baten bat-bateko emaitza da, eta ez denbora jarraiaren eta berari legokiokeen aldagaiaren arteko funtzio-erlazioa.

Honela, denbora kuantikoa denbora errealeko kuantu bati dagozkion aldagaien bat-bateko emisioak definitzen du. Kasurako, errentaren emisioak denboraren puntu konkretu batean gauzatzen den eragiketa da, zeina, hala ere, produkzio--prozesuak hartu duen denbora errealarekin loturik dagoen. Denbora-tarte hori denbora errealaren zati positibo eta finitua da, osotasun modura bat-batean emana.


Ikus dezagun denbora kuantikoaren eta denbora jarraiaren arteko erlazioa.

Denbora kuantikoa ez da denboraren beste kategoria gehigarri bat. Denbora kuantikoa eta denbora kronologikoa, biak, denbora errealez eginak dira. Epealdi--unitate gisa eguna hartzen badugu, nahiz eta biak denbora erreal berberari dagozkion, termino kronologikoan eguna orduen, minutuen, segundoen eta abarren segidako jarraipena den bitartean, denbora kuantikoan eguna zatiezinezko denboraren parte finitua da. Denbora kronologikoa eta denbora kuantikoa ez dira denbora errealaren bi mota desberdin, denbora erreal bereko bi estatu ezberdin baizik.

4.1.3. Produktua denbora-kuantua da

Analisi 'kuantikoaren' arabera, produkzioa ekintza da lehendabizi, bera da produktua neurtzen duena. Produktua denbora-kuantu bat besterik ez da, eta beraren neurria denbora kuantizatuarena da.

Beste aldetik, 'produkzio-faktoreak' definitzerakoan, —ohiko teorian lana, kapitala eta lurra direnak—, logikoki, ekintza produktibo bakarra denbora kuantizatzen duena da. Beraz, ekintza hori gauzatzen duen bakarra gizakia da: gizakiaren 'emisioa' edo 'proiekzioa'. Produkzioak kuantizatu egiten du denbora jarraia, bera (gizakiaren) proiektu baten gauzatzea baita.



Demagun produkzioak t_0 aldiunean daukala bere hasiera eta t_n aldiunean bere bukaera. t_0,t_n tartean produkzioa nulua da: epealdiaren *multzoan* soilik da positiboa. Jarraiki, iragaten dena, epealdian martxan dagoen lana da, '*work in progress*' delakoa.

Produkzio berri bakoitzak *zerotik* hasi behar du epealdi bakoitzean. Produkzioa t_n aldiunean bat-batekoa da eta (t_0,t_n) tartera hedatzen da. t_n aldiunean produkzio osoa sortzen da, produkzioa soilik bukaturik existitzen baita.

Produkzioa soilik bere amaieran sortzen da, denbora jarraian etengabeko ahalegina egonda: horrela proiektua eta gauzatzea bateratu egiten dira. Ekonomiak ekoitzi egiten du, gizakiak bertan bere 'proiektuak' gauzatzen dituelako.

4.1.4. Lanak denbora kuantizatzen du. Produkzioak ez du lan-denbora kuantizatzen

Klasikoak ez zeuden hain erraturik produktua denbora gorpuztua –'*embodied time*'– zela esan zutenean; gaur egun denbora 'kuantizatua' esaten diogu. Lanak denbora kuantizatzen du eta, beraz, lana bera ez dago kuantizaturik.


Lana bere emaitzan proiektatzean, produktuak lan-dimentsio bat daukala suposatzen da, denbora-dimentsioa soilik daukanean. Horrela, Ricardo eta Marx irteerarik gabeko bidean aurkitu ziren: produktuan edukirik, lanak neurri komuna izan behar zuen, ondasun desberdinen gainetik.

Nahi eta *i* eta *j* produktuak denbora kuantizatu berekoak izan, logikak ez du uzten esaten bi produktuak berdinak edo elkarrekin trukagarriak direnik. Denboraren kuantizazioa ez da neurketa-eragiketa bat; produktua sortzen du, ez beraren neurria. Zenbakiekiko baliokidetza-erlazioak dauzkatenean soilik neur daitezke produktuak.

Numerarioaren teoriak neurketa-espazioa edukitzea ahalbidetzen du. Produkzio nazionala mugimendu zenbagarria da, denbora eta zenbakiak kuantizatzen baititu batera.

4.1.5. Ekonomian, produktu nazionala denbora kuantizatuan eta, batera, numerarioan eratzen da

(a) Produktua numerario soil baten bidez izan daiteke definitua, denboratik at.



Ardatz bertikalean produkzioa adierazten da, neurketa-eskala batekin. Numerarioa da eskala hori.

Produkzio eta denboraren erlazioa puntu/segmentuarena da. Produktuak bi dimentsio dauzka, baldin eta soilik baldin produkzioa mugimendu bikoitza bada.

Epealdi bakoitzeko produktua numerario batek adieraz dezake, denbora--dimentsioa proportzionaltasun-faktore batera murrizten baita, 1 zenbakira, hain zuzen.

Honela, emisioen teorian denbora asimilatzen zaio zenbaki oso eta positiboen multzoari.

Zein ote da numerarioaren natura? Numerarioak moneta identifikatzen du.

(b) Produkzioak numerario-produktua sortzen du, moneta produkzio-prozeuan sartzen baita.

Numerario-produktua 'produkzio alokatuaren' emaitza da.

Produktuaren definizioak, soldata edo alokairu unitatetan, ondasuna (edo zerbitzua) bat-batean determinaturik dagoela esan nahi du izate monetario modura; eta ez alokairuen kontrapartida fisiko modura.

'Produkzio-faktoreen irabazi' gisa definiturik (Keynes 1930,1936), errentak produkzioaren kostu sozialak onartzen ditu.

Ezinezkoa da gizakiak, edozein truketatik at egonda, bere produktua numerariotan eralda dezakeela uste izatea; denbora kuantizatu hutsa lortuko du soil-soilik. Produktuaren numerario-dimentsioa, produkzioaren ekintza bera bikoitza bada soilik ager daiteke; beste era batera esanda, numerario-produktua lortzeko, beharrezkoa da langileak 'birritan' ekoitz dezan, lehendabizi entrepresarako (non produktua bere denbora-dimentsioan gordailatua den) eta gero bere buruarentzat (produktua zenbaki-dimentsioan). Soilik era honetan uzten du alokairu-sistemak produktua (indibiduala eta nazionala) bere numerario-dimentsioan sortzen.


4.2. GASTUAK ETA DENBORA

Produkzioa bezalaxe, gastuak —bereziki monetarioak— denbora kuantikoan definitzen dira.

4.2.1. Gastua ez da fluxua denbora jarraian

Gastuen jarraipenak ez du denbora jarraian ezelako fluxurik definitzen. Gastu soila ere ez da fluxua.

(a)



Gastua epealdiaren zatiezinezko multzorakoa da. Gastua gertakari soil eta bakarra da, nahiz eta epealdi osoari dagokion. Iraute positiboari dagokion bat-bateko magnitudea da. Gastua ez da jarraiko mugimendua, gertaera 'puntuala' baizik, hots, iraute nulukoa. Honela, kasurako, hilabeteko alokairuaren ordaintzea gastua da, hilabetearen bukaeran gauzatzen dena, zeinaren efikazia bat-batean hilabetearen hasieran hasten den. Alokairua inolako kasuan etengabeki ordain ezin daitekeenez, halabeharrez eta soilik behin batean egiten da.

(b) Gastuen serie bat ez da ezelako fluxua.

Edozein gastu mugimendua da, eta beraren inertzia denboran hain mugatua da, non bera deuseztatu egiten baita gastua gauzatzen den aldiune berean. Beraz, gastu guztiak 'lehenak' dira, inolako gastua ez da aurreko gastu baten jarraipenik denboran.

(c) Denboran gastuen kateatzeak ez du ezelako dinamikarik sortzen.

Keynes-en multiplikatzailea koefiziente konstantea da, 1 zenbakia alegia. Gastua, gastatze-ekintza, ez da berez berritzen: epealdi baten gastuak ezin dira igorri hurrengo epealdi batera, non epealdi berri horren gastuak agertuko diren soilik.

Agenteek gastu berri bat gauzatzen badute, berori berria da: inolaz ere da aurreko gastu baten kopia edo 'iraupena'. Epealdi bakoitzean edozein gastu epealdi horren eragiketa 'bizia' da, eta ez aurreko eragiketaren luzapena.

Edozein gastu bat-batekoa da, eta, hala ere, iraupen positiboan dago kokaturik.

Nola eman denbora-dimentsioa bat-bateko gastu-eraketari? Gastua efektiboa da bere ordainketaren eta korrelatiboa den zorraren topaketaren aldiunean bertan. Analisi kuantikoak soluzio zuzena ematen du.

Edozein gastu bere erreferentzi epealdiarekin erlazionatzen da bat-batean, zeina, beraz, denbora-kuantua —zatiezinezko osotasuna— den. Gastu nazionalak bi ardatzen bidez errepresentatzen badira, batak denboraren garapena (denbora jarraian) adierazi behar du, eta besteak numerarioa. Gastu monetarioak numerariotan neurtzen dira. Edozein tarte jarraitan, gastu bat dago soilik —epealdiarekin erlazionaturik dauden bat-bateko gastu guztien suma—.

Produkzioan bezalaxe, denbora-kuantua kuantu unitario bihur dezakegu, 1 zenbakia berdintzen duena. Horretarako, nahikoa da tarte jarraia zati berdinetan zatitzea; honela, gastuak beren artean konparatzen dira numerario-dimentsioaren arabera. Beraz, logikoki eta matematikoki, ezinezkoa da jarraipeneko gastuak elkarrekin konparatzea.


Produkzioa eta gastuak denboran buruturiko desplazamenduak dira. Gastuek espazio bat sortzen dute. Gertakari hauek produktu-espazioa eta zenbaki-espazioa sortzen dituzte. Espazioan desplazamenduak formalki nuluak izanik, produkzioa eta gastuak denboran soilik dira desplazamenduak: gertakari horien denbora-dimentsioa tarte jarraia kuantizatzen duenak definitzen du. Etsenpluan, hilabeteroko alokairuaren ordainketak hilabete osoa bereganatzen du, zatiezinezko osotasun gisa, gastu monetarioa —alokairuaren eratzea— erreferentzi hilabetearen tarte osorako baita efikaza bat-batean.

4.3. PRODUKZIOAK ETA GASTUAK GERTAKARI BAKARRA OSATZEN DUTE: EMISIOA

Edozein produkzio gastua da eta edozein gastu produkzioa. Ekonomian gerkatariek ez dute inolako auzotasun-erlaziorik gordetzen. Erabat determina daitezke, magnitude positibo eta negatibo berdinen bat-bateko sormenaren bidez. Edozein produktu eta, identikoki, edozein gastu emisioa da, objektu berberaren sormen/deuseztapen bat, produktua eta gastaturiko kopurua. Edozein gastuk produktua sortzen du eta edozein produkzio gastua da.


Denbora kuantikoa kontzeptu esanguratsu bihurtzen du emisioen teoriak. Ekonomian, produkzioa egiazko emisioa dela froga daiteke. Beraz, produkzioaren definizio ekonomikoa denbora-kuantu bati dagokion bat-bateko gertakaria da.

Eguna luzapen konkretu baten segmentuak errepresentatzen badu, hau da,




egun horretako produkzioa bat-bateko gertakaria da, alokairuen ordainketa denbora-dimentsioaren segmentu berberak errepresentatua izanik. Alokairuak ordainduak diren aldiune berean, egun horretako denbora-dimentsioa zatiezinezko bihurtzen da.

Suposa dezagun alokairuen ordainketa egunaren bukaeran egiten dela. Produkzioa egun osoaren eta puntu horren bat-bateko erlazio modura errepresenta dezakegu.



Zer esanik ez, egia da eguna 24 ordu, 1440 minutu edo 86400 segundokoa dela. Beraz, produkzioa emititu eta gero, zatitu egin daiteke edozein zenbaki positibotan (24, 1440, 86400 edo beste edozeinetan). Produkzio horren zatiketa, alta, ez da nahasi behar errenta-determinazioaren prozesuarekin.

Bestalde, analisi kuantikoak errenta deuseztapenaren eragiketa baieztatzen du. Errentaren azken gastua emisioa da, eta, hortaz, zatiezinezko denbora-tarte finitua definitzen du. Gainera, 5. kapituluan ikusiko den legez, sormena eta deusezapena errenta berberari loturik egonik, bigarren emisio horrek lehen emisioak definitzen duen denbora-kuantu berbera definitzen du. Azkenik, errenta denbora kronologikoaren edozein aldiunetan gasta daiteke. Garrantzitsua dena hauxe da, alegia, gastatua denean egun bati *atzerantz* lotuta dagoela.



Bi emisioek tarte-unitate berbera definitzen dutenez, denbora kuantikoan *aldiberekoak* dira. Egia da kronologikoki alokairuen ordainketa eta errentaren azken gastua ez direla bat. Bistakoa da hori. Baina denbora kuantikoan, emisio bakoitzak identitate bat definitzen du. Egun bateko produkzioaren deuseztapena beraren sormenaren bera da, biek denbora-kuantu bera definitzen baitute. Alderantziz, sormenak eta deuseztapenak denboraren 'zati' bera definitzen dute, biak objektu berberaren —errenta— definizio bizkiak baitira.

Denbora kuantikoaren berezitasun hori ez da gertatzen denbora kronologikoan. Bi gertakari jarrai ez dira inoiz aldiberekoak denbora kronologikoan. Emisioa eta denbora kuantikoa loturik daude Schmitt-en teoria makroekonomiko berrian.

Teoria kuantikoaren arabera, produkzioa eta produktua —produktu monetarioa alegia— ez dira denboraren menpekoak. Denbora eraldatzen du produkzioak, produktua kuantizaturiko denbora besterik ez izanik. Denbora kronologikoan biek iraupen nulua daukate. Ekonomi zientziari dagokion denbora ez da denbora kronologikoa, denbora kuantikoa baizik. Are gehiago, ekonomian, norberaren lana zein lanorduak berdinak nahiz desberdinak izan, produktuan kuantizatutako denbora-dimentsioa ez da egokia produktu desberdinak neurtzeko. Horretarako, Walras-en *numerario* kontzeptua erabiliko da, emisioa eta emisio monetarioa lotuz.

Emisioen teoria makroekonomiaren arlo osora hedatzen da, Schmitt-en lanetan —bibliografian aipatuak— ikus daitekeenez.

5. Produkzioaren teoria monetario berria

"*Those who can, do science; those who can't prattle about its methodology.*"

P. A. Samuelson, *My Life Philosophy*

Schmitt ekonomialariaren eskola frantziar-suitzarraren mezu nagusiaren arabera, dirua eta errenta ez dira bi gauza ezberdin. Dirua ez da ondasuna, eta beraren balioa ezin dakieke lot beraren balizko ondasun antzeko propietateekin. Dirua outputaren izaera ekonomikoaren adierazpidea da, ez izaera fisikoarena. Dirua outputaren ordez trukatzean, 'objektu' bat eta bakarraren bi era aldatzen dira.

Schmitt-en eskolan, alde batetik, lan-indarraren diruaren irabazi estandarri buruzko Keynes-en zorroztasuna (*Treatise on Money* delakoan) eta, bestetik, beraren alokairu-unitatearen usadioa (*General Theory* delakoan) daude integraturik diruaren teorian modu berrian.

Logikoki produkzioaren ohiko teoria ez dago ados gastuaren definizio ekonomikoarekin. Bereziki, gastuaren eta beronen bat-bateko emaitzaren baliokidetzak produkzioaren analisi berrirantz jotzen du. Errenta nazionala definitzen duen gastuaren bat-batekotasuna denboraren epe positibo eta zatiezinarekin dago loturik. Produzkioa sormen-prozesua dela esan daiteke, eta ez aldaketa fisikoaren prozesua soilik.

Schmitt-ek garaturiko emisioen teoriak makroekonomiarako fokapen berria dakar. Errenta ez da gehiagorik hartzen denboran zehar gauzatzen den gastuen isurdura modura, etengabe berrituz doan sormen-prozesuaren emaitza modura baizik. Denboraren epealdi finituari dagokion produkzioaren bat-bateko neurria da errenta. Produkzio berria gauzatzen den bakoitzean, beraren neurria bere bat-bateko kostuaren ordainketa monetarioak ematen du. Ordainketa hori emisio-mota bat da, non dirua eta produkzioa errealitate bat eta bakarra diren, hau da, errenta. Schmitt-ek bere emisioen teoria gauzatu du (ikus bibliografia), non produkzioa errenta-emisio positiboa ('sormena') den, eta azken erosketa, emisio negatiboa ('deuseztapena'). Beste era batera esanda, alokairuen ordainketak sortzen du erabat berria den errenta, zeina osoro deuseztatzen duen bere gastuak.

Keynes-en ustez, alokairuen ordainketak errentaren *sormena* definitzen du, alokairuak produkzio-kostuari baitagozkio. Beraiek ordaindu eta gero, alokairuek

errenta positiboa definitzen dute. Alokairuen ordainketaren bidez, langileek inork galdu ez duen errenta lortzen dute, output berria definitzen duena.

Ikusiko den bezala, alokairuen ordainketaren bitartez, diru nominala diru erreal bilakatzen da. Banku-dirua, positiboki eta negatiboki emititua, berehala aktibo neto bilakatzen da, lan-indarraren ordainketa dela bide. Dirua eta lan-indarra dira Keynes-en teoria ekonomikoaren giltzarriak.

5.1. EMISIOEN TEORIA

Produkzioaren kontzeptua beti izan da eztabaidagarria. Gutxienez bi definizio desberdin proposatu dira ekonomi zientziaren hasieratik.

Lehen definizioaren arabera, produkzioa eraldaketaren prozesu fisikoa da esentzialki. Energiaren kontserbazioaren printzipioak dioenez, produkzioa prozesu modura ikusi da, zeinaren outputa eta inputa baliokideak diren (edo outputa pixka bat txikiagoa, prozesuan zehar gastatu dena kontuan hartzen bada). Produkzioaren emaitza kolore, forma, dimentsio eta abarretako aldaketa da. Dena den, outputa inputaren baliokidea da, fisikoki. Eraldaketa soila da aldaketa eta ez sormena, fisikaren arabera ez baita ezer sortzen, ezta deusezten ere, dena eraldatzen baizik. Produkzioa ikusteko modu fisiko horren ondorioz, kapitala, lurra eta lan-indarra ondasun eta zerbitzu bihurtzen direneko prozesuaren emaitzatzat hartu da errenta, normalki. Dudarik gabe, ikuspuntu fisikotik zuzena da produkzioa sormena ez dela esatea; energiari dagokionez, jendeak ez du ezer sortzen, ezta deusezten ere. Hala ere, printzipio fisiko hori ez da egokia produkzioaren adierazpena emateko.

Ekonomikoki produkzioa bat-bateko gertakaria da, zeinak bat-batean denboraren tarteak 'kuantizatzen' dituen (Schmitt 1984a). Ikuspuntu ekonomikotik produkzioa emisioa da, sormena. Sormen kontzeptu hori ez dagokio, noski, materiari edo energiari. Bat-batean sortua edo produzitua dena ez da gauza fisikoa, merkantzien era ekonomiko soila baizik. Era horri diruak aurreratzen dio iraupena. Honela, produkzioaren definizioak diruaren 'bitartekaritza' behar du. Beste era batera esanda, produkzio-emisioa gastu monetarioak definitzen du.

Oroit gaitezen ezen, Keynes-en arabera (1930), errenta "*produkzio-faktoreen izabaziak*" dela. Keynes-en analisia era monetarioan dago adierazita, non dirua ez den ondasun fisikoei arbitrarioki dagokien zenbakia soilik, produkzioaren adierazpen soziala eta definizioa baizik. Keynes-en errentaren definizioa ez dagokio objektu fisikoari. Bere *Treatise*-tik, produkzioa "*komunitatearen irabazien edo diru errentaren*" ikuspuntutik hartu behar dela azpimarratzen du.

Produkzioaren kontzeptu fisikoa eta ekonomikoa ez dira funtsean kontrajarriak. Outputak egokiro analiza daitezke bi ikuspuntuetatik, horiek produkzioaren emaitza fisikoa eta ekonomikoa errepresentatzen baitituzte. Hala ere, bi emaitza

horiek esentzialki ezberdinak dira. Produktu fisiko hutsa eraldaketa-prozesuaren emaitza da, produktu espezifikoki ekonomikoa sormen-ekintzaren ondorioa den bitartean.

Produktuen (eta zerbitzuen) heterogeneotasun fisikoak ez du permititzen produkzioa era fisikoan adierazia izatea: neurketaren unitate homogenoa topatzeko ezintasun logikoa, gaindiezinezko oztopoa da. Keynes-ek idatzi duenez (1936, 38 or.), "*Merkantzien eta zerbitzuen komunitatea konplexu ez-homogenoa da, zeina ezin den neurtu*."

Produkzioaren definizio monetarioa ez da definizio soila, beharrizan teorikoa baizik. Produkzioaren kostu sozialaren gastuari dagokion ordainketa 'kuantua' da, emisioa alegia (Schmitt 1984a), beraren produkzioa bezalakoxea. Orain, adierazi behar dena hauxe da, alegia, bi emisio horiek, gastua eta produkzioa, nola sartzen diren *identitate*-erlazioan. Bestela esanda, diruaren gastuaren eta produkzioaren arteko erlazioa arakatu behar da, errentaren emisioa produkzioaren definizio bakarra dela frogatzeko, eta, horrexegatik, errenta produktua *dela* egiaztatzeko, eta ez, ekonomialari askok uste duten moduan, produktuaren kontrapartida.

5.2. KREDITUA ETA DIRUAREN EMISIOA

Schmitt-i jarraituz, diruaren sormena –hau da bankuak bat-bateko zorretan jartzea– produkzioarekin alokairuen ordainketaren bidez lotuta dagoela erakutsiko dugu. Ondokoa suposatzen da: lehenik, dirua ezin da zuzenki integratu ondasun-merkatuan eta, bigarrenez, lan-indarra produkzio-faktore bakarra da. Bi hipotesi horien justifikazioa, klasikoei jarraituz eta Keynes-ekin batera, Schmitt-en analisian (1966,1984a,1985b) topa daiteke; ikus, halaber, Bradley, Friboulet eta Gnos (1996), Friboulet (1985a,b;1988), Cencini (1985), Descamps eta Sadigh (1985), eta Gnos eta Rasera (1985).

Lan-indarrari dagokionez, analisiak produkzio-faktoreko beste kategoria batzuen existentziarik permititzen ez duela froga daiteke. Dirua eta produktuak integratzea posibletasun logikoari dagokionez, bata bestearen ordez eraldatuz, ohiko analisiak erronka horri inoiz aurre egin ez diola konturatuko gara. Dikotomia ebatzi gabeko arazoa da, dirua ondasunen merkatuan integratzen ahalegintzen baldin bagara.

Impasse hori gainditzeko, Schmitt-en analisiaz baliatuko gara. Kontsidera dezagun diruaren sormena. Emiso hori positiboa da, baldin eta jendeak berari bankuak eskaintzen dion zorpeko paraden abantaila hartzen badu soilik. Bere zorpekoan libratuz, *A* bezeroak *B* bere korrespontsalari ordain diezaioke, eta bankuaren, *A*-ren eta *B*-ren arteko erlazio triangeluar hori da diruaren sormena definitzen duena. Schmitt-en 'fokapen kuantikoak' (1984a) frogatzen du, sormen hori ez dela kreditu--eragiketa, ez baitu bankuaren mailegu positiborik definitzen. Finantza-bitartekari

modura funtzionatzen ez badu, bankuak bere berezoren bati kreditu positibo berria ahalbidetu diezaioke, baldin eta bankuak berorri dirua maileguz ematen badio, beste edozein bezerorengandik dirua jaso barik. Eragiketa horren onuraduna, (*A*), titulu baten saltzailea izan daiteke, eta bankuak berarekiko zorra izanen du. Dena den, bankuak *B*-ri ordainduz *A*-ren izenean dirua sortzen duenean, bitartekari huts gisa aritzen da. Beraren aktiboari eta pasiboari kopuru berbera gehitzen zaie, ez du ezelako krediturik sortzen dirua sortuz.

Schmitt-en hitzez (1984a, 41 or,), "*Triangelua imajinatzen badugu, bankua beraren goiko erpinean dagoela ikus dezakegu, eta sormena, agian, oinarriko bi erpinen kreditutzat defini daitekeela; baina, bankurako, goiko erpinaren eta oinarriaren arteko erlazioak (bankuaren eta ekonomiaren artekoa) ez du definitzen ez kreditu netorik ezta zor netorik ere. Alderantziz, goiko erpina bitartekari monetario soila da, mugimendu berean, kopuru berbera banku-kontuaren zorraren aldean eta kredituaren aldean sartzen baita. Beraz, ilogikoa litzateke diruaren sormena bankuaren kreditu-eragiketarekin identifikatzea: bankuak sortzen duenean, ez du ezer mailegatzen*."

Banku-dirua bankuek ekonomiari eskaintzen dioten zorraren bat-bateko ezaguera da, "*jasotako balioetarako edo promesen kontra*" (Keynes 1930, 21 or.). Orain, "*bi kasuotan bankuak gordailua sortzen du, bankuak berak soilik baimendu baitezake bere liburuetan gordailuaren sormena, berezoari eskudiruzkoa ateratzeko edo beraren eskaria beste batengana transferitzeko eskubidea emanez*" (ibidem).

Zorrozki mintzatuz, dirua ez da inoiz bankutik irteten. *B*-ren ordainketa bankuak egiten du (*A*-ren partez) kontabilitateko erregistro bikoitz soilaren bidez. Bankuak bete behar dituen arauak *partida biko* printzipio bakarrak determinatzen ditu, zeinaren arabera bankuaren aktibo bakoitzak baliokide den pasiboa aurrez-aurre eduki behar duen, eta *alderantziz*. Beraz, dirua gordailatu egiten da bera sortzen den aldiune berean.

Dirua ez da denboraren funtzio. Aipatutako analisi ekonomikoaren ikuspuntutik, transakzio monetarioa gauzatu ahal izateko behar den denbora fisikoa erabat baztergarria da diru-zirkulazioaren abiadura determinatzeko. Ekonomikoki, ordainketa *B* kreditatua den aldiune berean soilik da efektiboa. Aldiune hori baino lehenago, ordainketa aurresana da soilik; geroxeago, iraganari dagokio.

Agente ekonomiko batek, *A* delakoak, berarekin aritzen den *B* pertsonari (beraren korrespontsalari) ordain diezaioke, baldin eta soilik baldin lehenak errenta positiboa badauka, bere kabuz lortua edo beste agente batek berari maileguz emana. Halabeharrez errenta banku-gordailutzat eratua denez, *B*-ri egindako ordainketak *A*-ren gordailua *B*-ren kontura transferitzea dakar. Teknikoki, eragiketa horrek minutu batzuk, zenbait segundo edo segundoaren frakzioa iraun dezake, baina,

ekonomikoki, ordainketa transferentzia gauzatua denean soilik da positiboa, eta *B* delakoa lehen *A*-k edukitako gordailuaren jabea da. Arazoa logikari dagokio eta ez teknologiari, eta ikuspuntu logikotik, ordainketak bat-batean gauzatzen diren gertakariak dira.

Dirua bankuek *aktibo/pasiko* eran emititzen dute, eta horrela eskainia da ekonomiari, zirkulatzeko medio legez. Ibilgailu huts horren sormena, ekonomiak behar duen aina bider gauza daiteke, dirua sortuz bankuek ez baitute ezelako ondasun kopururik gehitzen (ez kapital-eran ezta errenta-eran ere).

Gertakarien segida logikoa honelakoa da:

(i) Dirua bankuak sortzen du ibilgailu soil modura;
(ii) ibilgailua ekonomiak erabiltzen du, eragiketa monetarioak gauzatu ahal izateko; eta
(iii) dirua, bera sortzen duen bankuak berak deuseztatzen du.

Orain, kronologikoki, gertakari hauek *aldiberekoak* dira: dirua sortua, erabilia eta deuseztatua da aldiune berean.

Schmitt-ek (1984a, 82 or.) idazten duen moduan, "*Banku batek bere bezeroren bati kreditua irekitzen dionean, eragiketa hori oraindik birtuala da ('kreditu-bidea' deitzen dena definitzen du) eta honela izaten segitzen du, harik eta berezoak bankuari bere korrespontsalari ordaintzeko eskatzen dion arte. Hala ere, une horretan kreditu-diruak ordainduaren ondarera 'jotzen' du, argiak argitzen duen objektua jotzen duen antzera. Ez-material izanik, banku-diruak luzapenik gabe eta halabeharrez gordailatua da bera jaulkitzen duen bankuan bertan. Beraren onuradunarengana iristen den diru guztia, banku jaulkitzailera itzultzen da bat-batean eta berehala, hau da, berehala da deuseztatua*."

Eragiketa monetarioak ordainketak besterik ez dira, eta ordainketak ez dira denboraren funtzio, bat-batekoak baizik. "*Ezinezkoa da B-ri A-k egindako ordainketa gauzatzea A zordundua eta B kreditatua izan baino lehenago. Bi eragiketa desberdin (transakzio bakarraren bi aspektu) horien aldiberekotasuna diruaren espazio-lekualdaketaren ideiari kontrajartzen zaio definitiboki. Dirua B-rengana iristen baldin bada, A-rengandik irteten den aldiune berean (A, B) distantziak ez du inolako espaziorik definitzen, puntu bat baizik. Alderantziz, bi eragileak nahasten ez badira, horrek esan nahi du, diruak ez duela zirkulatzen beraien artean, bestela ezin bailiteke B-rengana irits A uzten duen aldiunean*" (Schmitt 1984a, 247 or.)

Diruaren 'zirkulazioa' kontzeptu zaharkitua da, zeinak espazioan lekualdaketa fisikoa gogorarazten duen. Izatez, diruak ez du zirkulatzen (bat-batean ez bada); zirkulazioa deitzen dena efektiboki *emisioa* dela esan nahi du horrek.

Dirurik existituko ez balitz, B ez litzateke ordaindua izanen. Alderantziz, B ordaindua baldin bada —beraren kontua kreditatuz— bankuak transakzio hori izateko 'ibilgailua' sortu duelako da. Hala ere, ibilgailua berehala *B*-ren kreditu eta *A*-ren zor modura da sortua. Horrela, dirua bat-batean gordailatua da eta ibilgailu legez deuseztatua, *B*-ren gordailuaren sormena eta *A*-ren gordailuaren deuseztapena definitzen dituen kontabilitateko aztarna utziz.

5.3. ERRENTA ETA DENBORA

Ikusiko dugunez, diruak, bankuak aktibo/pasibo eran jaulkia, output korrontearen gaineko erosteko ahalmen positibo lor dezake. Errentaren emisioa Schmitt-ek deitzen duen 'denbora kuantikoan' gertatzen den aurpegi biko prozesu modura arakatuko dugu. Izan ere, errenta output eta diruaren elkartzearen bidez *sortua* da, eta output hori berori erosteko gastatu den unean bertan *deuseztua*. Biak, sormena eta deuseztapena —bat-bateko gertakari monetarioak—, bankuen balantze-orrietan erregistratzen dira. Biak produkzio berari lotuak izanik, denbora-tarte berbera definitzen dute (zeina produkzio-tarteari dagokion). Transakzio ekonomikoak denbora *kuantizatzen* duten bat-bateko gertakariak direla esan daiteke.

Diruak izaera bikoitza dauka. Bankuek zorraren bat-bateko ezaguera modura jaulkia izanik, dirua ezin da inoiz 'ordaindua' izan, berehala beraren hasierako puntura itzulita egon gabe. Bat-bateko fluxu horretan, dirua output errealarekin lotzen da. Errentaren sormena eta errentaren deuseztapena dira errentaren emisioa ezaugarritzen duten bi uneak, eta bat-bateko bi gertakari horiek definitzen duten zatiezinezko tarteari denbora 'kuantikoa' dei diezaiokegu. Truke *absolutuaren* bitartez, dirua produktuarekin elkartzen da, eta truke-mota horrek definitzen du errentaren sormena.

5.3.1. Errentaren sormena

Has gaitezen diruaren emisioarekin. Dirua aktibo *eta* pasibo eran jaulkia delako, eta ez aktibo neto modura, bankuek ezin dute berez erosteko ahalmen positiborik sortu. Dena den, egia da diruaren emisioa zentzuduna dela baldin eta soilik baldin bera erregistro bikoan bukatzen bada, zeinaren bi parteek ezin duten elkar deuseztatu.

Keynes-en arabera (1930, 121 or.), "*transakzio ekonomikoak nolabaiteko zentzua ateratzeko gai diren azken puntuak, giza ahalegina eta giza kontsumoa dira soilik*". Beraz, agerikoa da lan-indarraren ordainketa dela errenta-sormenaren teorian zeregin zentrala jokatzen duena. Ekonomi zientzia klasikoaren arotik ezaguna, lan-indarra ez da inolako ondasuna, ondasun guztien iturria baizik. Dirua alokairuen ordainketaren bidez elkartzen da produktu fisikoarekin, eta output hori, prezioa bereganatuz, errentaren objektu ekonomiko bilakatzen da.

Aipatutako analisia birformulatzen badugu, orain *A* delakoa enpresa izango da, *B* delakoa beraren langileak eta bankuak *B*-ri egindako ordainketa alokairuen ordainketa da, berau enpresaren izenean eginda.


Ongi ulertu behar dena hauxe da, alegia, alokairuen ordainketaren bidez, langileek *L* errenta irabazten dutela, zeina ez duen enpresak E galdua. L-k irabazitako errenta ez du inork galdu; hortaz, alokairuen ordainketak errentaren benetako sormena definitzen du. Errenta lehendabizikoz eratzeko bideak frogatzen du hori, eta erregistro-liburuko diruaren analisiak baieztatzen. E-k bere alokairuak ordainduta dauzka bankuaren bidez, zeinak eragiketa horretarako beharrezko dirua bere balantze-orrian sortzen duen soilik; L pasibo aldean ezartzen da eta E aktibo aldean. Erregistro bikoitz horrek diruaren sormen positiboa definitzen du —E-ren bere zorpeko medioen erabiltzea— baina ez errenta-gasturik, zeina lehen aldiz hemen agertzen den, eta L-ren aktibo netotzat ezartzen den. Enpresa eta langileen arteko transakzioari begiratzen bazaio, ondorioztatu behar da, alokairuen ordainketak ez duela definitzen L-ren outputaren E-ren erosketa, eta enpresa eta langileen arteko truke-mota ezin dela izan erlatiboa; izan ere, truke *absolutua* da.

B-ren lanaren bitartez, langileek output fisikoa sortzen dute, zeinak beraien errentaren edukia definitzen duen. Hortaz, dirua eta outputa ez dira elkartrukatzen bi izate autonomo legez. Bata bestearen objektua izanik, biek *identitate* logikoa eratzen dute, beren arteko trukea truke *absolutuko* kategoriei dagokielarik. Truke absolutua truke berezia da, objektu konkretuaren eta berberaren artean gauzatzen da; diru-errenta, bera trukatzen deneko outputaren definizio ekonomikoa da.

"*Alokairuen ordainketa emisioa da; langileek* ***beren outputa*** *dirutan bereganatzen dutela esan nahi du horrek. Baliokidetza definitzeaz gain, transakzio horrek identitatea ere definitzen du: langile bakoitzak diru-kopurua jasotzen du, zeinak, alokairuen ordainketaren bidez gauzatua delako, langile horren berorren output erreala identifikatzen duen. Transakzio beraren barnean enpresak objektua bera eman eta bereganatzen du; izan ere, horrek, frogatzen du trukea absolutua dela*." (Schmitt 1984a, 347 or.).

Alokairuen ordainketaren bitartez, dirua *identitatearen* bidez elkartzen da outputarekin, erarik hertsienean. Alokairuak ez zaizkie langileei ematen outputaren truke. Alderantziz, langileek beren outputa hartzen dute, nahiz eta diru-forman hartu. Beste era batera esanda, outputa literalki dirutan *aldatzen* da eta horrela L beraren osotasunaren jabe da. Diruaren eta outputaren *identitateak* baieztatzen du produktu fisikoa soilik enpresan gordea dela; ekonomikoki L-ri dagokio, bera lortzeko langileak baitira beharrezko den erosteko ahalmenaren lehen —nahiz eta ez halabeharrez azken— jabeak izan.

‘Analisi kuantikoak’ erakusten duenez, mozkinak, dibidendoak, interesak eta zeharkako errenta-mota guztiak (pentsioak, kenkariak, etab.) alokairuetatik dira atereak; beraz, ez dago ezelako kontraesanik esatean, alde batetik, alokairuek output osoa definitzen dutela eta, bestetik, output horren parte bat enpresek, akziodunek eta bestek erosten dutela azkenean.



Alokairuen ordainketa transakzio monetarioa denez, eta dirua bat-batean soilik existitzen denez, L-k irabazitako errenta halabeharrez banku-gordailu modura da eratua (1. gezia). Are gehiago, L-k jabeturiko aktibo netoa E-ren zorrak orekatzen duenez, berehala da bistako L-ren gordailua, izatez, enpresari maileguz ematen zaiola (2. gezia). Beste aldetik, 3. geziaren esanahia hauxe da: literalki, enpresak bere langileei hauek maileguz ematen dioten errenta ematen die. Beraz, langileek beren buruari ordaintzen diote, E-ren bitartez; horrek esan nahi du errenta L-k sortzen duela eta ez E-k edo bankuak. Irudian dagoen zirkuitua bat-batekoa da. Hala ere, diruarekin gertatzen ez den bezala, errenta ez da deuseztatua bera sortua den aldiune kronologikoan bertan. Denbora kronologikoaren aldiune konkretuan sortua, alokairuak geroago dira gastatuak; hori dela eta, errentaren zirkuitu osoa bi gertakariekiko adierazi behar da. Hori egiteko, errentaren sormenaren eta deuseztapenaren arteko diferentzia kronologikoa lotu behar da. Ikusiko den legez, *denbora kuantikoaren* bidez gauzatzen da lotze hori.

Hortaz, errenta ez da denboraren funtzio, bat-batekoa baita: diru-kopuru modura da sortua.

Diru-alokairuak dira errentaren definizio numerikoa. Alta, errenta ez da soilik numerikoa. Eduki erreala dauka, alokairuak outputarekin duen loturak determinatua. Diruaren bidez, ondasun eta zerbitzu heterogeneoak multzo bereko elementu homogeneo bihurtzen dira. Produkzioa da output fisikoa diru bilakatzen duen eragiketa eta, beraz, bistakoa da produkzioa alokairuen ordainketak definituriko bat-bateko gertakaria dela. Output korrontea alokairuen eduki erreala denez, outputa (bat-batean) multzo modura emititzen dela ikus daiteke, nahiz eta inputaren eraldaketa fisikoaren prozesua denbora-tarte finituan gauzatu.

Errenta-sormena outputaren produkzioa da. Hortaz, errenta-sormenak denbora-tarte bat definitzen du, output fisikoaren ‘produkzio-epealdiari’ dagokiona. Ekonomikoki, produkzioa bat-bateko gertakaria da (alokairuen ordainketak definitua); fisikoki, denbora jarraian gauzatzen den prozesua da.

Schmitt-ek dioenez (1984a), produkzioa *denbora-emisioa* da. Honela, denbora epe finitu eta dibidiezina *kuantu* legez da emititua, alokairuak ordainduak diren aldiunean bertan.

Alokairuen ordainketa transakzio monetarioa da eta, bat-batean gauzatzen da; emaitza output korrontea definitzen duen errenta positiboa da. Errenta eta outputa gauza bera eta bakarra direnez, errenta-emisioa output-emisioa da eta, beraz, berari erabat loturik dagoen denbora-epearena. Beste era batera esanda, output korronteak osotasun dibidiezinezkotzat harturiko denbora-dimentsioa dauka, beraren 'produkzio-epealdiaren' baliokidea dena. Outputa ez da inolako dimentsio estandarretan neurtua: dirua unitate numeriko hutsa da eta alokairuak dirutan (monetatan alegia) dira ordainduak. Outputaren denbora-dimentsioa ez da, hortaz, dimentsio fisikoa. Produktu bakoitzari loturiko denbora-kuantua numerikoki da definitua, alokairu--unitatetan; alokairuek produktua eta beronen denbora kuantikoa definitzen dituztela esan nahi du horrek.

Outputa denbora-kuantua da, zeina alokairuen ordainketaren bidez den emititua. Beraz, outputa errenta bezalaxe da sortua, denbora-aldiune konkretu batean. Zer gertatzen zaio, bada, errenta horri, sortua den aldiunetik ekoitzitako ondasun eta zerbitzuak erosteko azkenik gastatua den aldiunera arte? Errenta--sormenak definituriko zirkuituak berehala egon behar du osatuta, existituko bada. Errentaren bat-bateko zirkulazio horrek *kapital* kontzeptura garamatza.

5.3.2. Errenta, kapital eta denbora

Esan bezala, errenta langileek sortua da, berehala banku-sisteman gordailatua izateko. Gordailu hau ez dagokio L-ren jarrerari; bankuek enpresen izenean gauzatzen duten alokairuen ordainketaren beharrezko bat-bateko emaitza da. Erregistro-liburuko diruaren izaerari dagokio banku jaulkitzailera berehala itzultzea, eta errenta-diruaren izaerari dagokio bankuaren balantze-orrian gordailu gisa erregistratzea. Langileak gordailu baten jabe izatearen gertaerak, beren errenta *aurreztu* dutela esan nahi du. Hori honela delako froga, E-ri errenta hori aldiberean mailegatzea da, gero banku-sistemaren bidez azkenik L-ri zordunduko zaiolarik. Bankuaren kontuan, L-ren kredituak E-ren zorra orekatzen du; langileen errenta, honela, automatikoki mailegatzen zaio E enpresari.

Alokairuen ordainketa dela bide sortua, errenta berehala L-k aurreztua da jarraian ondasunen merkatuan gastatua izateko. Bi gertakari horien artean dagoen denbora-tarte osoan errenta banku-gordailua da, aurrezki positiboa. Baina aurrezkia kapitalaren lehen era da. Horrela, errenta, sortua den aldiune berean *kapital* bilakatzen da, eta honelaxe irauten du harik eta berak outputa erosketarako bere jatorrizko era berreskuratu arte. "*Nahiz eta errentaren sormena inolako kreditueragiketa ez izan, errenta giza lanetik datorrelako eta ez bankuen jardueratik, errentak maileguz emateko prest daude eratuak diren aldiune berean. Errenta--sormena ez da kreditua; aitzitik, berriki sorturiko errenta kredituaren objektu*

bihurtzen da. Errentak eratzen diren unean bertan, beren jabeen bidez maileguz emanak dira, harik eta definitiboki gastatuak diren arte. Horrek esan nahi du, errentak bat-batean ***aurrezki*** *bilakatzen direla, eta identikoki* ***kapital*** *bihurtzen direla*" (Schmitt 1984a, 158 or.).

Errentaren sormena E-ren diru negatiboaren eta L-ren diru positiboaren aldibereko sormenak adieraz dezake. Kapitala errenta bat-bateko bilakatzeak L-k edukitako diru positiboa E-ri berehalako maileguz ematea inplikatzen du. Ondorioz, E-ren diru negatiboa zor batek ordezten du, eta L-ren diru positiboa bankuaren kontra langileen eskaria definitzen duen titulu edo balore batek. Mementuz E-ren diru negatiboan gordailatua zen outputaren jabea orain L da, zeharka —titulu moduan, enpresak bankuari zor baitio, eta azken horrek L-ri—. Beraien gordailu negatiboetatik aske, stockak, beraz, kapitalaren eite erreala dira, eite finantzarioa beraien banku-gordailuekiko langileen kreditua den bitartean. Azkenik, berriki sorturiko edozein errentaren berehalako eta beharrezko gordailuak errenta hori titulu edo balore bilakatzen du bat-batean, zeinak beraren objektutzat stocketan dagoen outputa daukan, hau da, errenta hori kapital bihurtzen da, zeina-ren bizitzadenbora alokairuen ordainketaren bidez sorturiko banku-gordailuen existentzia--tartearen menpe dagoen. Hemen bankuen zeregina determinatzailea da, L-ren aurrezkiak beste agente ekonomikoei maileguz emanez (stocketan dagoen outputa erosteko gastatzen dituztenak), bankuek errenta hura kapital modura daukaten tartea murrizten baitute. "*Errenta-tituludunek aurrezturiko errenta maile-guz emanez, bankuek stocken salmenta azeleratzen dute, eta horrela eginez, gizar-tearen denbora-kapitala murriztera eta are deuseztatzera jotzen dute*" (Schmitt 1984a, 162 or.).

Langileek (edo beste agenteek, zeintzuei bankuak gordailaturiko errenta maileguz eman dien) beren aurrezkiak gastatu dituzten bezain laster, kapitala bat--batean errenta birbilakatzen da eta definitiboki deuseztatua izaten da.

5.3.3. Errentaren deuseztapena

Keynes-ek *Treatise on Money* liburuan idatzi zuenez, "*Giza lana eta giza kontsumoa dira azken kausak, zeintzuetatik soilik transakzio ekonomikoak gai diren zentzua eduki ahal izateko; beste gastu guztiek produktugileen ahaleginarekiko eta kontsumitzaileen gastuekiko soilik bereganatzen dute garrantzia, goiz edo berandu, beraien arteko erlazioa dela-eta*" (1930, 120-121 orr.).

Keynes-en argudioa argia da. Giza lana beharrezko baldintza da errentaren sormenerako. Alokairuen ordainketa lan-indarraren ordainketa delako, transakzio horrek adierazpen ekonomiko berezia lortzen du. Beste aldetik, errenta outputaren erosketan gastatua izateko da; beraz, errenta transakzio horrek defini dezake, alokairuen ordainketan definitzen duen bezala. Hortaz, kontsumoa errentaren azken gastu gisa ikusten da, eta lan-indarraren ordainketa beraren sormen gisa.

Diru-balioaren determinaziorako giltza-elementutzat lan-indarra eta kontsumoa soilik harturik, Keynes-ek inplizituki adierazi zuen, errentaren osotasuna output korrontearen erosketan gastatzen zela. Horrek esan nahi du, aurrezkiak (kapital eran) "*erosteko ahalmenaren denborazko egoitza*" direla soilik, eta beraiek, laster edo berandu, ondasun-merkatuan gastatuak izanen direla azkenik. Beraz, errenta erabat 'kontsumitua' izatera dago zuzenduta; inbertsio-ondasunen arteko outputaren banaketak ez du aldatzen beraien erosketak errentaren gastuan duen inplikazioa; zentzu honetan interpretatu behar da hemen 'kontsumo' hitza.

Keynes-en errentaren banaketa bikoitzetik —"*(1) kontsumo-ondasunek eta inbertsio-ondasunek* ***irabazitako*** *aldeak, eta (2) kontsumo-ondasunetan eta aurrezkietan* ***gastaturiko*** *aldeak*" (Keynes, 1930, 121 or.)— beste informazio garrantzitsu bat atera dezakegu, hots, errentaren gastuak bere deuseztapena dakarrela.

Argudioa honelakoxea da: suposa dezagun errenta bere kontsumoaren bidez birproduzitzen dela. Kasu honetan, bistakoa da errenta berbera gasta litekeela zenbait aldiz sozialki 'kontsumitua' izan barik. Baina, orduan, errepikaturiko alokairuen ordainketak ematen duen neurriarekin. Errenta "*kontsumo-ondasunen eta inbertsio-ondasunen produzioak i****rabazitakoak***" definitzen badu eta, baliokideki, "*kontsumo-ondasunetan eta aurrezkietan* ***gastatu-takoak***", errentaren gastuak *bat eta bakarra* izan behar du halabeharrez. Hortaz, Keynes-ek aldarrikaturiko giza ahalegin eta giza kontsumoen lehentasunak, produkzioaren bidez sortua dena kontsumoaren bitartez deuseztatua izan behar dela inplikatzen du.

5.3.3.1. Errentaren deuseztapena truke absolutu bezala

Truke absolutua transakzio berezia da, non objektu konkretua objektu berberaren kontra trukatzen den. Horrelako transakzioaren lehen etsenplua alokairuen ordainketa da, non output korrontea literalki dirutan *aldatzen* den, eraldatu alegia. Horrela, dirua outputaren ordez agertzen deneko eta output fisikoa diruaren eduki bilakatzen deneko gertakari modura definitzen da produkzioa.

Truke absolutuaren bigarren etsenplua lehenaren guztiz alderantzizkoa da, dirua output fisikoa aldatua izanez (eraldatua berriz) gastatua den bezain laster. Izan ere, errenta-tituludunek beren aktiboak gastatzen dituztenean, outputaren era monetarioa ematen dute era fisikoaren trukean; beraiek produktua (diru eran) ematen dute eta produktu berbera eskuratzen dute (objektu fisiko eran).

Outputaren erosketa truke absolutua delako froga, transakzio horrek errentaren deuseztapena definitzen duen gertaerak ematen du. Diruaren eta outputaren arteko trukea erlatiboa balitz, orduan objektu bi horien lekualdaketa ere erlatiboa izanen litzateke, diruak outputaren lekua hartuz eta *alderantziz*. Izatez, errentaren gastua ez da bi objektu desberdinen arteko trukea. Errenta, dirua outputarekin

elkartzen den heinean existitzen da soilik, ez da izate autonomo moduan existitzen, zeinaren balioa elkartze horretatik kanpo emana izanen litzatekeen. Erregistro--liburuko diruaren analisiak argi erakusten duen bezala, bankuek soilik dirua jaulki dezakete, batera positiboa eta negatiboa dena. Diru nominal horretatik errentara igarotzeak produkzioaren eskusartzea inplikatzen du. Alokairuen ordainketaren bidez, output korrontea mementuz diru negatiboan ostatzen da, eta honek L-k irabazitako diru positiboari errenta-statusa ematen dio. E-ren gordailu negatiboa betez, outputak errentaren bat-bateko sormena eragiten du. Oso argi dago, beraz, E-ren zorra output korronteak orekatzen duen heinean soilik existitzen dela errenta.

Aipatutakoa egia da, baita output korrontea kapitalaren eite erreala denean ere; hau da, bera stock eran existitzen denean. Kasu honetan E-ren zorrak ez du gehiagorik diru negatiboa definitzen, eta L-ren kredituak kapital positiboaren existentzia adierazten du. Hala ere, errenta oraingoz nolabait presente dago, nahiz eta soilik aurrezki moduan, hau da, *denbora-kapital* eran.

Orain, errenta outputaren azken erosketan gastatzen denean, L-ren diru positiboa E-ren diru negatiboarekin elkartzen da, eta biek elkar deuseztatzen dute. L-k lehen zeukan aktibo positiboa orain E-k dauka, eta honek beraren bat-bateko deuseztapena dakar, E baliokide den pasibo baten jabe baita. Mementu berean output korrontea askatu egiten da definitiboki bere lotzaile monetariotik eta L-k bereganatzen du objektu fisiko soil moduan.


Alokairuen ordainketaren bitartez, dirua eta outputa elkartu egiten dira eta errentaren azken gastua dela bide, banatu. Lehen transakzioak errenta positiboaren sormena definitzen du; bigarrenak, bere deuseztapena. Outputaren ikuspuntutik arakaturik, horrek esan nahi du, outputa diruarekin elkartzean ondasunek eta zerbitzuek status ekonomikoa lortzen dutela, gero, bere lehen dimentsioa berreskuratzeko, ondasun-merkatuan salduak direnean halabeharrez galtzen dutelarik. Hortaz, errentaren sormena eta beraren deuseztapena elkarren kontrako bi zeinuko truke absolutu dira. Lehenak, truke absolutu positiboa dei daitekeenak, output korronteaaren aldaketa diru-errentan definitzen du; bigarrenak —truke absolutu negatiboak—, aldiz, errentaren aldaketa output fisikoan definitzen du.

5.3.3.2. Errentaren deuseztapenaren 'zirkuitua'

Beste edozein transakzio monetario bezalaxe, errentaren deuseztapena bat-bateko gertakaria da, balantze-orrian bankuaren erregistro-irteera batek definitua. t_1 aldiunean, beren errenta gastatuz, langileek (edo berauen ordezkariek) beren banku-gordailuak ematen dituzte, hortik aurrera enpresek dauzkatenak.

	Bankua	
	Aktiboa	Pasiboa
t_1	Langileak x	Enpresak x

Transakzio horrek, bankuaren bidez, 'ibilgailuzko' diruaren emisioa inplikatzen du. Badakigu, ekonomiak transakzio bat gauzatzen duen bakoitzean bankuek dirua sortzen dutela, eta bere zeregina betetzen duenean beraiek deuseztatzen dutela. Beraz, output fisikoaren erosketak diruaren zirkulazioa inplikatzen du:




1. irudia

Bankuek jaulkia, dirua bat-batean bere hasiera puntura itzultzen da eta, bihurketa honetan, errenta zirkularazten du langileengandik enpresetara.

Bera sortu den aldiune beretik errenta kapital bihurtzen dela gogoratu behar da. t_0 aldiunean bankuan gordailatua, kapital moduan irauten du, ondasunen merkatuan definitiboki gastatua izan arte. Honela, (t_0, t_1) tartean erosteko ahalmen positiboa aurreztua da eta langileek kapitala eskuratzen dute, balore edo tituluaren eran (bankuaren kontrako erreklamazioa, zeinaren objektua aurrezturiko errenta den).

Errenta-titulujabeek beren aktibo monetarioak gastatzen dituztenean, beren gordailuak gutxiagotu egiten dituzte. Errentaren gastuaren zirkuitua, bankutik —non aurrezkiak gordailaturik dauden— langileengana eta berauengandik enpresetara doa. Baina hori zirkuituaren erdia besterik ez da. Errentak enpresetatik bankura itzuli behar du; bestela mugimendua ez litzateke zirkularra izanen. Azken mugimen-du hau inolako luzapenik gabe gauzatzen da, liburu-sarreraren izaerari baitagokio dirua kontabilitate-harreman eran soilik existitzea.



2. irudia

2. irudi horretan 3. geziak langileek gastaturiko eta enpresek irabazitako errentaren bat-bateko gordailua errepresentatzen du. Errenta, langileek beren banku-gordailutik da aterea —1. gezia—, eta enpresetatik output erosteko beraiek erabilia —2. gezia— banku sisteman da bat-batean gordailatua.

Bi zirkuituak —diruarena (1. irudia) eta errentarena (2. irudia)— bat-batekoak dira. Berriro errepikatu behar da: bat-bateko gertakariak dira, transakzio monetarioaren izasera dela kausa. Enpresek irabazitako bat-bateko gordailua ere diruaren liburu-sarreraren izaerari dagokio. Horrela, bere bat-batekotasunaren eta 'gordailuen artean' errentaren zirkulazioa gauzatzen dutenean, E-ren banku-gordailua gehitzen dute, eta horrela egiten dute, kapital eran edukitako beren gordailuak gutxiagotuz. Horrek esan nahi du, gastatua bezain laster, errenta bat-batean enpresak jabeturiko aktibo bihurtzen dela, banku-gordailu eran.

Esan nahi al du horrek, beren outputa salduz enpresak kapitalaren jabeak direla? Ez al da egia, izatez, enpresek errenta irabazten dutela, zeinak, bat-batean aurreztua denez (gordailu moduan irabazita delako), beren kapital monetarioa definitzen duen? Horri erantzuteko, errentaren zirkuitu osoa analizatu behar da, zeinaren alokairuaren ordainketa eta outputaren erosketa bi osagarri diren.

5.3.3.3. Errentaren zirkuitua bere osotasunean

Demagun langileek beren errenta t_1 aldiunean gastatzen dutela. Horrela, t_1 aldiunean enpresak kreditatuak dira gordailu positiboarekin eta langileak baliokide den gordailu negatiboarekin. Enpresak bankuaren balantze-orrian pasiboan sartzen dira eta langileak aktiboan. Hala ere, t_0 aldiunean (alokairu-ondainketa) langileak eta enpresak sartu dira kontrako aldeetan, horrela L-ren eta E-ren bi kontabilitate-kontuak definitiboki kitatuak izanik:

	Bankua			
	Aktiboa		Pasiboa	
t_0	E	x	L	x
t_1	L	x	E	x

Outputa erabat saldua da eta geratzen dena objektu fisikoen (ondasunak eta zerbitzuak) multzoa da, 'erabil-balio' moduan 'kontsumi' daitekeena. Bere azken erosketaren bidez deuseztatua, errenta ezin daiteke birpiztu, berriro sortu ez bada; baina horretarako produkzio berria eta prozesu erabat berriaren hasiera gauzatu behar dira.

Alokairuen ordainketak sortzen du errenta, eta bere azken erosketaren bidez da deuseztatua; hauxe da Keynes-ek hasitako iraultza analitikoaren irakaspenik garrantzitsuena. Izan ere, errenta 'produkzio-faktoreen irabazien' moduan definitzen dela kontsideratzen badugu (Keynes 1930, 111 or.), eta "*errenta = outputaren balioa = kontsumoa + inbertsioa*" (Keynes 1936, 63 or.) dela, berehala argi dago ezen outputaren azken erosketako gastua, (K + I), halabeharrez produkzio-kostua estaltzeko gastaturiko suma bera dela (K' + I'). Nahikoa da gehitzea lan-indarra dela produkzioaren azken faktorea (Keynes 1930, 120 or; 1936, 213-214 orr.), ondoko ondoriora iristeko: (K + I), alokairuen ordainketan, eta (K' + I')

logikoki berdinak direla, (K' + I') kontsumo- eta inbertsio-ondasunetako kostu totala izanik, eta (K + I) kontsumo eta inbertsio-ondasunetan egindako azken gastua.

Behin dirua banku-sisteman bat-bateko zor eran jaulkitzen dela onartuz, Keynes-en identitatea (K + I = K' + I') errentaren sormenaren eta deuseztapenaren kontzeptuetara igarotzea urrats erraza da.

Errepika dezagun: dirua eta kreditua bi kontzeptu desberdin dira, zeintzuen nahasketa teorikoa gaur egun ekonomi zientziaren eta mundu errealearen artean dagoen leizearen kausarik garrantzitsuena den. Bereizketa hori onartzen denean, argi dago lehendabizi errenta sortu behar dela, gero kreditu-objektu bilakatzeko. Behin output errealarekin lotu eta gero, dirua aktibo neto bihurtzen da, eta honelaxe da aurreztua eta kapitalean eraldatua. Kapitala beranduago errenta birbilakatzen eta gastatzen denean, diruaren eta outputaren arteko lotura definitiboki hasten da. Aldiune horretan bertan errenta ez da gehiago existitzen eta produktuak ondasun fisikoen (eta zerbitzuen) multzo bilakatzen da.

Outputaren erosketaren bidez errenta definitiboki deuseztatua denez, nola izan daitezke enpresak kapital positiboaren jabe? Noski, horrek enpresak errenta positiboaren jabe direla esan nahi du; zer esan daiteke orduan deuseztapenaz? Erantzuna honako hau da: enpresek mozkin positiboa irabaz dezakete, baldin eta soilik baldin langileek beraiei beren errentaren parteren bat igortzen badiete (Schmitt 1984a). Horrek esan nahi du, enpresek langileen lekua har dezaketela errenta-tituludun gisa. Outputa alde batetik langileek eta beste aldetik enpresek erosiko dute, baina azken emaitza ez da esentzialki eraldatua izanen: kasu bakoitzean outputaren azken erosketak outputaren produkzioaren kostuari dagokion errentaren deuseztapena induzituko du.

Beste aldetik, denbora kronologikoko aldiune ezberdinetan gauzatzen diren errentaren sormenak eta deuseztapenak inplikatzen al dute errentaren zirkuituak luzapen aldakorreko denbora-iraupena daukanik? Erantzuna banku-sisteman gertatzen den errentaren bat-bateko gordailuak ematen du. Izan ere, banku-gordailu eran irabazia izanik, errenta kapital bihurtzen da berehala. Hortaz, denbora kronologikoan irauten duena eta orainaldiaren eta etorkizunaren arteko zubia egiten duena ez da errenta, kapitala baizik. Errentak bere gastua edo bere gordailua baino gehiago irauten ez duenez, errentaren zirkuitua, logikoki, bat-batekoa dela pentsatzera beharturik gaude. Nola elkar daiteke errenta-zirkuituaren bat-batekotasuna diferentzia kronologiko horrekin?

5.3.3.4. Errentaren deuseztapena eta denbora kuantikoa

Alokairuen ordainketan bezala, outputaren azken erosketan ere transakzio monetarioa da produktuen —ondasunak eta zerbitzuak— multzo konkretua definitzen duena. Beraz, gertakari batek denborazko tarte bat (produkzio-epealdiari

dagokiona) definitzen du bat-batean. Horrek esan nahi du, denborazko tarte hori denboraren kuantu modura emititzen dela. Alokairuen ordainketak eta outputaren azken erosketak denbora-dimentsio berbera daukate, 'denbora kuantiko' berbera definitzen baitute (Schmitt 1984a). Gertakari horiek 'denbora kuantikoan' aldiberekoak direla esan nahi du horrek, nahiz eta denbora kronologikoan aldiune ezberdinetan gauzatuak izan.

Segida logikoa honelakoxea da:

(i) Alokairuen ordainketak errenta sortzen du (t_0 aldiunea) eta berehala kapital bihurtzen da;
(ii) errenta ondasun-merkatuan deusezten da, bere azken gastua dela bide (t_1 aldiunea);
(iii) alokairuen ordainketak eta errentaren deuseztapenak denbora-dimentsio bera definituz, (ii) aldaketa *atzerantz* (i) aldaketarekin batera gauzatzen da.

Nahiz eta outputaren erosketa errentaren sormenari jarraitu, berak *atzeranzko* efektua dauka lehen transakzioaren gain. Horrela, alokairuen ordainketa eta beraien azken gastua eragiketa bat bakarraren eite positiboa eta negatiboa dira. Beraien batasun 'kuantikoak' errentaren zirkuitua definitzen du eta definitiboki beraren aldiunekotasuna argitu.

Schmitt-ek idazten duen moduan (1984a, 463-464 orr.), "*Analisiak errazki argi dezake errentaren izaera, izan ere, berori bat-batean existitzen baita soilik.* ***Ebazpenaren giltza errenta-gastuak atzeranzko efektua edukitzean datza: errenta-sormenaren aldiunera itzultzen da****. Froga erraz samarra da. Ezagutzen dugu, izan ere, gastuak denbora-dimentsio finitua daukaten bat-bateko gertakariak direla. Horrek esan nahi du, errenta konkretu baten gastuak denbora jarraiko zati konkretua kuantizatzen duela. Zein da zati hori? Oso zehazki ezagutzen da: errenta-****sormenak*** *kuantizaturiko zati bera. Atzerantz ez da soilik ebazpen ona, beharrezkoa baizik, errentaren 'gastu-kontsumoa' eta errentaren 'produkzio-sormena' berdinak baitira (nahiz eta aurkako zeinukoak izan): bi gertakarien denbora-dimentsioa zehazki* ***denboraren kuantu berbera*** *da*."

'Denbora kuantikoaren' existentzia transakzio monetarioen izaera bikoitzetik dator, transakzio horiek denbora-dimentsio finituko bat-bateko gertakari izanik. Denbora-tarte berbera definitzen duten transakzioek denbora-dimentsio berbera daukate eta, hortaz, aldiberekoak dira 'denbora kuantikoan'. Hauxe da, izan ere, errenta-sormenaren eta errenta-deuseztapenaren kasua. Diruaren eta outputaren elkartzearen bidez sortua, errenta deuseztu egiten da output horren berorren erosketaren bitartez; eta 'denbora kuantikoak' erakusten duenez, transakzio biak hain erlazionaturik daude, non atzerantz egitean biak bat etortzen baitira. Hortaz, ez du inolako zentzurik errenta jarraiak lot ditzakeen funtziozko lotura bilatzen segitzeak.

Inflazioa, langabezia, truke-ganbioen fluktuazio erratikoak, kapitalaren ihesa eta kanpoko zorrak dira gure ekonomia monetarioen oraingo funtzionamendua ezaugarritzen duten desoreken etsenplu oso ezagunak. Gertakari patologiko horien garrantziak erakusten du, alde batetik, diruak jokatzen duen zeregin zentrala, eta, bestetik, diru horren egiazko izaerari buruz oraingoz dugun ezagutza eskasa.

Emisioen teoria ikuspuntu berria da makroekonomiarako, non mundu erreal eta mundu finantzarioaren arteko dikotomia gainditua gelditzen den azkenik. Zorpeko (‘*overdraft*’) diren medioen erabilera, ekonomia osoak determinatzen du, ez bankuek. Gure ekonomietan bankuek partzialki beren zorpekoen erabilera eragin dezakete interes-tasa dela bide; hori horrela gertatzen da, diru-sormena oraingoz ongi ulertzen ez dugulako. Izan ere, banku-dirua, diru-sormenean, maileguz eman daiteke, ia zero baliokoa den interes-tasarekin. Beste gauza bat da, oso bestelakoa, errenta-gordailuen interes positiboa. Kasu horretan, bankuaren departamentu finantzarioak erabat bananduta egon behar du sormen- edo jaulkipen-departamentutik, Schmitt-ek (1984a) erakutsi duenez.

Bernard Schmitt-ek plazaraturiko fokapen kuantikoak jadanik frogatu du, ekonomiaren egoera logikoa definitzeko behar den teoria eraikitzeko urrats emankorra dela. Izan ere, ‘emisio monetarioa’ eta ‘denbora kuantikoa’ motako kontzeptuek diru-analisi berriranzko bidea ireki dute, berorien aplikazioak urrun iritsiz (Schmitt 1975a,b;1977a,b;1984c;1988a,c; Schmitt eta Cencini 1991,1992).

5.4. LABURBILDUZ

Teoria post-keynesiarra ez da gai izan errentak eta nazioarteko kapitalak analizatzeko, oraingoz monetaren izaera gaizki ulertua delako, nahiz eta izaera horren garrantzia erabatekoa izan (Davidson 1978).


Adam Smith-ekin hasi diren eta David Ricardo-rekin segitzen duten ikerketen ondoren, emisioak leku garrantzitsua dauka teoria ekonomikoan. Bernard Schmitt-en (1966) definizioak (“*edozein moneta-ordainketa alokairu-emisioa da*”) monetaren bi eiteren (nominal eta erreal) batasun logikoa suposatzen du. Alde batetik, bankuek ordainketa guztiei loturiko *zenbakiak* besterik ez dituzte jaulkitzen, eta bestetik, giza lanak periodikoki monetan ezartzen du produktu erreala.

Edozein banku-ordainketa emisio nominala da, eta soilik monetatan egindako alokairuen ordainketak elkartzen ditu ondasunak zenbakiekin, gizartean kreditu *netoak* (‘denbora-kapitala’, Schmitt-en hitzetan) agertzea ahalbidetuz.


Gaur egun herrialde guztietan bankuak dira moneta-emisioan aritzen direnak. Alokairuen ordainketak moneta eta ondasunen arteko baliokidetza ezartzen du produkzio-ekonomiaren funtzionamenduan; edozein alokairu-formatan —moneta nazionalean—, herrialde bakoitzean monetan integraturik dagoen produktua forma horren objektua da.

Banku-monetak alokairuak neurtzen ditu. Denbora-tarte bakoitzeko alokairuek beren jardueran ateratako produktu korrontea dute objektutzat. Banku-kontabilitateak bankukoak ez diren eragileen arteko moneta-ordainketak erregistratzen ditu, hots, aktibo monetarioak. Enpresen gainean emititua, ordainketa-moneta berehala kargatzen zaie alokairuen abonurako. Banku-monetatan ordainduriko alokairuak, beren aldetik, ordainketa bakoitzean zordunduak eta kreditatuak izaten dira, bankuko gordailua finantza-merkatuan ezarririko errenta izanik. Bankuaren bitartez egindako ordainketan aritzen den edozein eragileren kreditu/zorrari lotuta, moneta ibilgailua da. Adam Smith-en 'zirkulazioaren gurpil handiaren' printzipioa da hori. Smith-en arabera, moneta-ondasunen zirkulazio-tresna da. Ondasun-merkatuetako ordainketa guztiak, zuzenki edo finantza-merkatuaren bidez bankuek azken erosleengana egindakoak, jadanik produkzioan eraturiko errenten berremisioak dira. Monetatan eratuak, errenta horiek gastuak hornitzen dituzte.


(i) *Monetaren eta errentaren sormena* (t aldiunean)



(ii) *Finantza-transmisioa (x-ren y partearena)* (t_1 aldiunean)



(iii) *Monetaren edo errentaren deuseztapena* (t_2 aldiunean)



Lehen eragiketan (t aldiunean) sorturiko errenta, tituludunen multzora iristen da, produkzio-faktoreak azpimultzoa izanik.

($t_{1)}$ aldiunean, sorturiko *x* unitateko errentatik *y* unitate maileguz ematen dizkiete tituludunek mailegariei, kontsumorako edo inbertsiorako.

Azkenean, (t_2) aldiunean, sorturiko *x* unitateko errentaren deuseztapena gertatzen da, azken erosketak jatorrizko errentaren tituludunek ordaintzen dituzte (x – y unitate) eta gainerakoa (*y* unitate) mailegariek.

Hirugarren eragiketak gordailuak deuseztatzen ditu.

Geratzen den bakarra, mailegu-emaileek mailegarienganako daukaten mailegu-eskubidea da; hortaz, bankua *finantza*-bitartekari hutsa da, mailegarien zorrak bankuak 'zeharkatzen' baititu, mailegu-emailea seinalatuz: bankua transmisio-eragilea baino ez da. Geroago, kredituaren bukaera-aldiunean, bankuak aurkako norantzan egingo du transmisioa, hots, mailegariengandik mailegu-emaileengana.

Honela, emisio kontzeptua Adam Smith-en moneta-doktrinan sartzen da, interpretazio berria bereganatuz. Bankuek moneta sortzen dute, eragiketa teknikoaren bidez, produkzio nazional osoaren faktoreen merkatuaren gaineko 'monetizazioaz'. Banku-moneta ibilgailu-moneta da, alegia, enpresek ordaindutako eragile bakoitzaren banku-kontuetako kreditu-zorra.

5.5. TEORIA KUANTIKOAREN SIPNOSIA

(i) Lana da balioaren sortzailea eta, beraz, ez da ez substantzia ez ondasuna.
(ii) Lan-indarra da produkzio-faktore bakarra (soldatapekoa, zentzu zabalean).
(iii) Produkzioa balioaren (produktuaren forma soziala) sormena da.
(iv) Produkzio-kostuak lanaren kostu monetarioak determinatzen ditu.
(v) Ondasunen eta zerbitzuen prezioak beren produkzio-kostuek definitzen dituzte.
(vi) Prezioak alokairuek definitzen dituzte.
(vii) Moneta ez dagokio ondasunen multzoari, produktu osoarekiko identifikazioaren bidez ez bada.
(viii) Sistema ekonomikoa esentzialki monetarioa da eta prezio absolutuen determinazioan oinarritzen da.

Teoria kuantiko berriak produkzioa emisio modura definitzen du, emisio horren objektua substantzia berria ez izanik, forma bat baizik. Definizio berri horrek prezio absolutuak ditu ondorio, produktu eta lanaren baliokidetza kuantikoak ondasun eta zerbitzu bakoitzari dagokion erlazioa ezartzen baitio. Baliokidetza hori egiaztatzen duen prozesuaren izaera, *monetarioa* da: alokairuen ordainketa da, lanak sorturiko produktua unitate numeriko soilekin identifikatzen duena (eta ez ezelako substantzia-balio mitikoarekin).

6. Bankugintza
Moneta eta kreditua banku-jardueran

"*In some way or other (...) the actions of the banks have to be consistent with both the total and the composition of the country's production of goods and services. Just how this consistency is achieved must be the most fundamental question on which an analysis of the banking system should throw light*."

R. S. Sayers, *Modern Banking*

Has gaitezen gertakari batekin: partida biko kontabilitatearen existentzia. Izan ere, banku-dirua esplikatzeko, hortik hasi behar da. Adierazi beharreko lehen puntua, bankuen kontabilitate bikoitz horren eta diruaren emisioaren arteko harremana da. Analisi horretatik diruaren denbora-dimentsioa, hau da, diruaren eta denboraren arteko lotura agertuko da.

Ekonomia modernoan banku-diruaren emisioa bat-bateko zor/hartzekodun —aktibo/pasibo— bikote baten bidez gauzatzen da. Schmitt-ek diruaren 'zirkuituaren' bat-batekotasunean oinarritzen du bere analisia (1984a). Horrek errenta eta dirua loturik nola dauden esplikatzen lagunduko digu.

Cencini-k dioenez (1988, 75 or.), gure ekonomietan bankuek partzialki beren zorpekoen (= *overdrafts*) erabilerari eragin diezaiokete interes-tasaren bidez, baina hori soilik justifika dezake diruaren sormenari buruzko ezaguera txar batek, diru--sormena finantza-krediturekin parekatuz eta nahasiz. Errealitatean, emisioa ia kosturik gabekoa izanik, banku-dirua mailega daiteke ia zero baliokoa den interes--tasan. Beste aldetik, interes positiboak kargatuak eta ordainduak izan behar dira errenta-gordailuekiko soilik; hortaz, ikusiko den bezala, bankuen departamentu finantzarioak eta departamentu jaulkitzaileak banandurik egon behar dute.

6.1. KONTU (EDO PARTIDA) BIKO KONTABILITATEA

Partida biko kontabilitatea anotazio bikoitzari dagokio, hau da, kontugarri den edozein eragiketaren bi aldeak —kausa eta ondorioa— batera erregistratzeari.

Fray Luca Pacioli zenak 1494an sistematizaturiko printzipioak hauexek dira:

(i) Ez dago zordunik hartzekodunik gabe; eta alderantziz. Ez dago partidarik kontrapartidarik barik.
(ii) Jasotzen duenak zor egiten du eta ematen duenak kreditatu egiten du.
(iii) Kontu zordun bati (edo batzuei), kopuru berberaren kontu hartzekodun bat (edo batzuk) dago(z)kio/e.
(iv) Une guztietan, zor aldean anotaturiko kopuruak, hartzeko aldean idazpen berbera izan behar du.

6.2. SORTZE MONETARIOAREN OHIKO KONTZEPZIOA: "MONETA BANKU-KREDITUAREN BIDEZ EMITITZEN DA"

Jaso dugun dotrinaren lerro nagusia hauxe da: bankuek dirua sortzeko ahalmena dute kredituaren bidez.

Har dezagun edozein banku. Berak bere bezeroren bati kreditua ematen dio; eragiketa egiten denetik bezeroak diru-kopurua erabil dezake, adosturiko epe-mugan bankuari atzera itzultzeko baldintzapean, aldez aurretik determinaturiko datan edo ez.

Errepresenta ditzagun kontabilitate-idazpenak:

Bankua			
Aktiboa		Pasiboa	
bezeroari emandako kreditua	*x*	berezoari exijitzen zaion zorra	*x*

Emandako adierazpenaren arabera, bankuek *ex nihilo* sor dezakete dirua, beraiek adosten dituzten kredituek ekonomian *benetako* diru-kopurua sorrerazten baitute; beraz, 'zirkulazioak' banku jaulkitzaileak mailegatutako dirua berrartu eta ezabatuko duen aldiunera arte iraungo du. Hortaz, bankuek aparteko boterea izango lukete, moneta sortzeko ahalmen ia teologikoa bailuketen, monetak hiru ezaugarri dituelarik: balio patroia, ordainketa-erreminta eta erreserba-unitatea.

Ekonomi testuliburu gehienek oraintsu arte irakatsi dutenez, botere sortzailea herrialde bakoitzeko Banku Zentralari dagokio; hori dela eta, berori 'jaulkipen'-edo 'emisio-institutua' deitzen da.

Hala ere, moneta kredituaren bidez sortzen bada, bera banku 'arruntek' edo 'bigarrendarrek' ere ('gordailukoak' deituak) sortu behar dute. Hori dela kausa, teorialariek gero eta gehiago bi banku-monetaren existentzia onartzen dute orokorrean:

(i) Moneta zentrala, edo 'fiduziarioa' ere deritzona;
(ii) moneta bigarrendarra, 'izkribuzkoa' deritzona.

Argi dago definizio erabat nominalak besterik ez direla, edozein moneta fiduzario izkribuzkoa baita (Banku Zentralaren kontuetan *idazpen egina*), eta edozein izkribuzko moneta, fiduzioarioa (bera *konfidantzazko* moneta da, banku-moneta baita eta ez materiala).

6.3. MONETAREN SORTZEA BANKU-KREDITUAREN BIDEZ: TEORIA KUANTITATIBISTAREN KONTZEPZIOA

Banku-moneta kredituaren bidez sortzen deneko kontzepzioa, *monetaren teoria kuantitatiboa* defendatzen duen pentsamendu-eskolari dagokio. Nahiz eta berak 'guraso fundatzaileen' dotrinan zenbait erro izan —'kuantitatibismoa'— XX. mendean agertu da, zientzia ekonomikoaren funtsezko garapenetik at: teoria kuantitatiboa ez da ez klasikoa, ez neoklasikoa, ezta keynestarra ere.

Kuantitatibismoaren muina moneta-unitateak aktibo netoak direlako kontzepzio laua da, beraiek 'materia edo energiazko pilotatxoak' balira bezala. Horrela, bankuek *aktibo monetarioak* —ezerezetik, hots, *ex nihilo*— sortuko lituzkete, beste entrepresek *aktibo errealak* —produzituriko ondasun eta zerbitzuak— emanez. Elkarren artean konfrontaturik, pilotatxo monetarioak eta pilotatxo errealak elkartrukatuko lirateke beren artean: hortaz, edozein moneta-transakzio aurkako norantzatan doazen bi fluxuk osatuko lukete, moneta erosleengandik saltzaileengana joanez, eta ondasun errealak saltzaileengandik erosleengana.

Ez dugu gehiagorik arrazoituko balizko baldintzei buruz; baina suposa dezagun benetan egia dela bankuek ezerezean materia edo energiazko partikulak edukitzen dituztela, ekonomietan 'injektatzeko' helburuarekin.

'Pilotatxo errealak' lehengaietatik ekoitziak dira: baliabide naturaletatik dira 'sortuak', gizakiak eraldatuak. Absurdua litzateke ondasun errealak ezerezetik sorraraziak direla uste izatea.

'Pilotatxo monetarioak' kuriosak dira oso, are gehiago, miragarriak: bankuek *ex nihilo* sorrarazteko ahalmen bitxia daukate. Baina behin sortu eta gero, moneta-unitateek materia indiferentziatuko unitateak definitzen dituzte nolabait erosketa eta salmenta guztietan, ekoitzitako produktuei *kontrapisua* egiteko balio baitute.

Bankuak gehiegizko masa monetarioaren iturria baldin badira, ekonomiaren merkatuen multzoan egiaztatzen da unitate monetario gehiegik ondasun erreal gutxi 'erosten' dituztela; monetaren soberakina ezin berrar daiteke, prezioen maila orokorra gehituz ez bada: horixe da inflazioa.

Bankuei inposaturiko jaulkipenaren kontroleko zentzuzko politikak soilik babes dezake ekonomia nazionala monetaren sormen superoparoetatik, batez ere Banku Zentralak banku bigarrendarrei inposatutakoak.

Banku-moneta kredituaren bitartez sortzen deneko kontzepzioa ez da asebetegarria. Akats nagusia du: ilogikoa da. Jarraian, gaur egungo sormen monetarioaren kontzepzioaren kritika formala egiten saiatuko gara.

6.4. BANKU-MONETA KREDITUAREN BIDEZ SORTZEN DENEKO KONTZEPZIOAREN KRITIKA LOGIKOA

6.4.1. Bere sortzeko aldiunean, edozein moneta bere banku jaulkitzailean gordailatzen da

Demagun *A* bankuak *x* moneta-unitate sortzen dituela *t* aldiunean, kredituaren bidez.

Oso argi dago ezen moneta, metal preziatuen bidez —urre edo zilarra adibidez— definiturik balego, inork, eta bereziki inolako bankuk ezin izango zukeen mailegatu inolako moneta-kopururik, aldez aurretik berori irabazita edo maileguan harturik ez balu. Esku-diruak urrezko edo zilarrezkoak direnean, argi dago kreditua monetaren sortzailea delako ustea ustela dela.

Baina, jasotako teoriaren arabera, moneta metalikoaren kasuan ez bezala, banku-moneta sortua izan daiteke kredituaren bidez: moneta sortu egiten da bankuek adosturiko kredituetan eta, are gehiago, ez dago beste biderik moneta sortu ahal izateko.

Egin daitekeen lehen galdera garrantzitsua da oso: zein lekutan dago, zehazki, sorturiko moneta? Are zehazkiago, behin sortua, monetak ‘zirkula’ dezakeela uste da; baina, zirkulatu baino lehen, nonbait sortu behar da: non dago moneta beraren sortze-aldiunean, hots, *t* aldiunean?

Erantzun logikoa, tautologikoa dena, hauxe besterik ezin da izan: edozein banku-moneta bera jaulkitzen duen bankuan sortzen da. Hola, beraren sortze--aldiunean, edozein moneta, *a*, *A* bankuan dago kokaturik.

Moneta materiala balitz, banku mailegu-emailetik ‘irtengo’ litzateke; eta hori ezin izango luke egin, aldez aurretik bertan ‘sartua’ izan ez balitz: banku-kreditua, edozein kreditu bezalaxe, ez litzateke gai izanen bere objektua, eragiketan *transmititua* dena, sorrarazteko.

Orokorki, banku-moneta beste logika baten menpe dago, banku jaulkitzailetik iraunkorki ‘irteten’ ez delako. Egia da, esan duguna frogatu behar dela. Bankuaren moneta, *a*, *A* bankuaren barruan sortu, eta bertan gelditu behar dela esatea, agian, hitz-joko soila da.

Izan ere, banku-moneta bankuetan eratzen da eta ez beste inon. Froga dezagun:

t aldiunean, *A* bankuak *x* moneta-unitate ematen dizkio maileguz *X* bezeroari; hori egiteko, berak *sortu* egiten ditu *x* moneta-unitate. Hortaz, galdera: *t* aldiunean, non aurkitzen dira *x* moneta-unitateak, *A* bankuan ala *X* bezeroarengan?

Demagun *x* moneta-unitateak bezeroak dauzkala, bere etxean, bere kutxan, edo bere poltsikoan. Zein da honela 'edukitako' monetaren deskribapen zehatza? Bankukoa da eta ez materiala. Banku-monetako *x* unitate edukitzeak bankuan kopuru horretako kontu korronte hartzekoduna edukitzea esan nahi du. Hola, bere izaerak berak inplikatzen du ezen, *beraren sortzetik, banku-moneta bere banku jaulkitzailean aurkitzen dela gordailutan*.

Ingelesezko esaera batek dioenez, "*loans make deposits*", alegia, "*maileguek gordailuak sortzen dituzte*". *A* bankuak *X* bezeroari kreditua adosten dion *t* aldiunean, helburu horretarako diren *x* moneta-unitateak *A* bankuan gordailatuak dira, *X* bezeroaren konturako.

Ondorioztatu behar da, beraren sortzearen *t* aldiunean, *x* moneta-unitateak *A* bankuan daudela, hots, 'banku jaulkitzalean', eta ez bezero onuradunaren ondarean edo hartzekoan.

Hala ere, bistakoa da, kreditua adosturik egonik, *X* bezeroak *t* aldiunetik *x* moneta-unitateak beretzat sortuak dituela: *berak bankuan dauzka eta ez bere etxean*.


Banku-monetaren bat-bateko bankuko gordailuaren erregelak, dirudienez, salbuespena dauka, Banku Zentraletik jaulkitako moneta 'fiduziarioaren' piezetan.

Izatez, salbuespena agerikoa besterik ez da. Hein handi batetan, Banku Zentralak jaulkiriko moneta bera ere izkribuzko moneta hutsa da; berak 'ohiko' bileteak jaulkitzen ditu; baina banku-bileteak *gordailuko ziurtagiriak* dira: hortaz, beraiek emisio-Institutuko kontuetan gordailatutako moneta ez-materialaren *zeinu materialak* dira.

Beraz, aparteko informazioa daukagu: *sortze-aldiunean, moneta bere banku jaulkitzailean dago gordailaturik.*

6.4.2. Sortze monetarioa uhin-eragiketa da

Garrantzitsua da ohar tautologikoa egitea: monetan egindako gordailuaren edozein eraketa-mugimendu gordelariarenganako gordetzailearen fluxua da. Banku-monetari aplikatuko zaio printzipio hori: *t* aldiunean, *X* eragileak *A* bankuari *x* moneta-unitate *ekartzen* dizkio. Hortaz, egiazkoa da *t* aldiunean sorturiko *x* moneta-unitateak, *t* aldiunean *A* bankuan daudela. Honela 'uhin-higidura' dei dakiokeen mugimendura iristen da:



(M. U. = moneta-unitatea)

A bankutik A bankurako bat-bateko mugimendu bera, batera, X-rengan x moneta-unitateko sortzea eta sorturiko x moneta-unitateko X-ren gordailua da.

'Uhinaren' existentzia bere bi osagaik frogatzen dute:

(i) 'Norabide' bat, *A* bankuak *X*-rengan *x* moneta-unitateko sortzea da;
(ii) bestea, *X*-k *A* bankuan sorturiko *x* moneta-unitateko gordailuaren ezartzea da.

Uhinaren 'bi norabide horien' existentzia *bat-batekoa* da, zeren *X*-k moneta hartzen duen aldiunetik eta jatorrizko bankuan moneta ezartzen duen aldiunera tarte ez-nulua pasatuko dela pentsaezinezkoa baita; luzapena positiboa balitz, moneta ez litzateke egonen bankuan *t* aldiunetik, zeren horrek, lehen adierazi dugun bezala, banku-monetaren definizioa bera ukatuko bailuke.

Labur dezagun: sorturiko moneta hartzen duen edozein pertsonak berehala jatorrizko bankuan gordailatzen du. Edozein ordainketa monetario uhin-mugimendua da, ateratako edozein moneta berehala onuradun berriak 'birgordailatua' izanez. Izan ere, arau berberak balio du guztientzat, bai sorturiko edozein monetaren jarraiko edukitzaileentzat, zein beraren lehendabiziko jabeentzat: banku-moneta jendartean jasoa den unetik, jendeak moneta sortu duen bankuan gordailatzen du. Jendeak gordeko lukeen banku-moneta, bankuekiko loturarik gabe, kontradizio hutsa izanen litzateke: izatez, jendartean edozein moneta positibok banku jaulkitzaileen gaineko jendearen kreditua definitzen du.

Honela ondoko baieztapen interesgarrira iristen da: bi monetak, materiala eta bankukoa, antzekoak dira.

6.4.3. Moneta materiala eta banku-moneta, funtsean, izaera berekoak dira

Bi moneten —materiala eta bankukoa— bereizketa, ematen duena baino azalekoagoa da.

Ezein moneta material ezin daiteke irten banku batetik, aldez aurretik bertara sartu ez bada.

Frogatu dugunez, ezein bankuk ezin du moneta sortu uhin-eragiketetan ez bada, jaulkitako unitateak berehala, luzapenik gabe, beraiek irten direneko bankuek gordailutan berrartuak izanez. Eta ezein moneta bankutik ezin daiteke

hartua izan, bat-bateko mugimendu berean bertara itzuli barik. Beste era batera esanda, formalki ezinezkoa da moneta ez-materiala bere banku jaulkitzailetik *irtetea,* berehala bertan *sartu* barik.

Monetaren irteeren eta sarreren beharrezko baliokidetza edo berdintasuna bi kasuetan baieztatzen da, hau da, moneta materiala zein bankukoa den kasuetan.

Badago, dudarik gabe, baztergarri ez den diferentzia: moneta materiala ezin da sartu eta irten mugimendu berean, dagokion bankua 'gardentasun' hutsa bailitzateke. Izan ere, urrea edo zilarra aldez aurretik beren geroko maileguak egingo dituzten bankuek irabaziak dira, edo maileguz hartuak. Banku-monetari dagokionez, irteera 'hasierakoa' edo 'bat-batekoa' da; zentzu honetan, moneta sortzearen emaitza da. Hala ere, miraria berehala deusezten da, moneta bere iturrian bertan agertzen baita, bera 'isuri' den aldiunetik beretik. Hau da, eragiketak nolabait *atzerantz* elikatzen du bere burua, gordailatutako moneta jaulkitako monetaren bat-bateko elikadura izanik.

Hitz batez, banku-emisioak bat-bateko 'sortze/deusezte' bat definitzen du, sorturiko moneta berehala berrarturiko monetaren gainean 'aldez aurretik eratua' izanik eta gero jaulkitzaileak deuseztua.

Ikus dezagun *A* bankuaren '*T* diagrama' *X* bezeroarengan *t* aldiunean *x* moneta-unitateko sortzea dela-eta, interesgarria baita oso.

6.4.4. T diagrama

A bankuaren T diagramak adierazten du ezen, x moneta-unitate jaulkiz, bankuak batera positiboa eta negatiboa den mailegua ematen duela; hortaz, X bezeroari hertsiki nulua den kreditua ematen diola.

Errepresenta ditzagun banku jaulkitzailearen kontabilitate bikoitzean ('*T*' delakoan) sortze monetarioari dagozkion idazpenak:

Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
X bezeroarengandik jasotako moneta	*x*	*X* bezeroarengana jaulkitako moneta	*x*

Itzulpen soilaz, honako hau lortzen da:

Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
X bezeroak mailegatutako moneta	*x*	*X* bezeroak maileguz harturiko moneta	*x*

Hortaz, ondoko ondorio garrantzitsura iristen da: banku-monetaren izaera dela-eta, *pentsaezinezkoa* da (logika onean) bankuak moneta kopururen bat sortu ahal izatea *bat-batean berak maileguz ematen dieneko bezeroei berei maileguz hartu gabe*.

Behin betiko baztertu beharra dago, moneta ez-materiala, mailegu unilateralek elikatzeko erabilgarri izanik, bankuetan berezko sortzapenaren bidez sortzen delako kontzepzio xumea (eta ez-koherentea), bezero mailegu-hartzaileen aurrean banku jaulkitzaileek mailegu netoak egingo balituzte bezala.

Bankuak ez dira gai, jendeari maileguz ematearren, beren eragiketa sortzailearen emaitza berenganatzeko. Inperatibo formala dela kausa —edozein lege moral, juridiko, ekonomiko edo politiko baino sendoagoa da berori— beren maileguetan bat-batean bankuek jendeak berei 'itzultzean' maileguz ematen dizkien moneta-unitate soilak sorrarazten dituzte.

Baldintza horietan, gauza bera da esatea, kredituaren bidezko sortze monetarioa, izatez, 'mailegu-emate/mailegu-hartze' bat dela, eta ez bankuek adosturiko mailegu netoa; edo 'sortze/deusezte' bat dela, eta ez monetaren sortze netoa.

Hurrengo urratsak ondoko galderen erantzunaren bilatzea izan behar du:

(i) Nola bilakatzen da sortze monetarioa sortze neto?
(ii) Nola bilakatzen da kreditua sortze neto, monetaren sortzean?

6.4.5. Sortze monetarioa sortze neto nola bilakatzen den

Argi dago kreditua sortze neto bilakatzen dela, sortze monetarioaren onuradunak berak jasotako moneta *maileguz ematen* lagatzen dueneko aldiunean. Izan ere, kasu horretan *A* bankuak *x* moneta-unitate maileguz ematen dizkio *X* bezeroari, zeinak ez dion ezer (gehiagorik) bankuari maileguz ematen: orduan, kreditua netoa da *X*-rentzat, *x* moneta-unitateko kopuruan.

Honela, ba, galdera soila da oso: zein eragiketa zehatzen bidez uzten dio *X* bezeroak *A* banku jaulkitzaileari beronek sorturiko *x* moneta-unitateak maileguz ematen?

Lehengo soluzio-saialdia honelakoa litzateke: *sorturiko moneta banku jaulkitzailetik kendua da eta, hala ere, jendartean aurkitzen da*. Baina badakigu hori ezinezkoa dela; izan ere, edozein banku-moneta bankuan egoten da, 'aterea' edo 'kendua' izan den aldiune berean: ezinezkoa da, hortaz, banku-moneta jendartean egotea, bankuan gordea ez bada.

Soluzio zuzena hauxe da: *X*-rengan kreditua netoa izateko, ez da beharrezkoa sorturiko moneta banku jaulkitzailetik *objektiboki* aterea izatea; nahikoa da

subjektiboki X bezeroak aterea izatea. Baldintza hori *X bezeroak Y bere hartzekodunei ordaintzen dienetik* betetzen da.

Idatz ditzagun eragiketak hasierako 'mailegu-emate/mailegu-hartzetik' mailegu netoraino.

Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
1. (t) *X*-ri mailegaturiko moneta	*x*	*X*-k mailegatutako moneta	*x*
2. (t+) *X*-ri mailegaturiko moneta	*x*	*X*-k mailegaturiko moneta	*–x*
1. eta 2. eragiketen saldoa:			
X-ri mailegaturiko moneta	*x*	*X*-k mailegaturiko moneta	0

t aldiunean, 1. eragiketa *A* bankuak *X* bezeroarengan *x* moneta-unitateko sortzea da; orain arte, sortze monetarioa *konpentsatua* da eta ez *netoa*, bezero onuraduna batera jaulkitako monetaren *mailegu-emailea* eta *mailegu-hartzailea* baita.

Baina *t*+ geroko aldiunean, 2. eragiketan, *X*-k bere gordailua ateratzen du eta gastatu egiten du.

1. eta 2. eragiketen emaitza unibokoa da: *t* aldiunean mailegu-hartzaile bihurtua, *X* bezeroak honela *irauten du t*+ aldiunean *neto* bilakatzen den kredituaren epemugara arte. Kreditua neto bihurtzen da *t*+ aldiunean, aldiune horretan *X* bezeroak berarengan sorturiko moneta bankuari maileguz ematen uzten baitu.

Hala ere, argudioa ez da bere helmugara iritsi, *X*-k gastaturiko moneta jendearen hartzekoan egoten baita banku jaulkitzailean gordailu gisan: *t*+ aldiunean, ezarlea identitatez aldatzen da, baina *A* bankuak sorturiko *x* moneta-uniteteek bertan gordailatuta segitzen dute, *Y*-ren kontuan, zeinak *X* ordezkatu duen.

Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
X-ri mailegaturiko moneta	x	*Y*-k mailegaturiko moneta	x

Helburura heldu gara: *t*+ aldiunean sortze monetarioa sortze neto bihurtu da, *banku-bitartekaritza* bilakatu baita.

6.4.6. Edozein sortze monetario sortze neto bilakatzen da banku-bitartekaritza bihurtzen den aldiunean

t aldiunean *A* bankuak *X* bezeroarengan sorturiko moneta *X* eragileak berak maileguz emana eta maileguz hartua da: hortaz, sortze monetarioa nulua da oraingoz.

t+ aldiunean, *X*-rengan sorturiko *x* moneta-unitateak berak gastatzen ditu eta *Y*-rengana ailegatzen dira; orduan baieztatzen da *X* mailegu-hartzaile eta *Y* mailegu-emailearen arteko bereizketa. Sortze monetarioak bere zentzu osoa *t*+ aldiunean hartzen du, jaulkipenaren *X* lehen onuradunak *Y* bere hartzekodunei ordaintzeko berriki sorturiko moneta erabiltzen duenean.

Honela, 1. eta 2. eragiketek sortze monetario soil eta bakarra osatzen dute: beraiek, *t* edo *t*+ aldiunean, *mugimendu berean* emanak dira. Eragiketa soil eta bakar batean (sortze monetario positiboaren definizio zuzena) bankuak *X*-rengan moneta jaulkitzen du eta *Y*-renganako ordainketa; sortzea netoa da *X*-ren konturako *Y*-ren ordainketan, zeren sortzeak, banku jaulkitzailearen aurrean, mailegu-emaile eta mailegu-hartzaile *desberdinen* presentzia baitakar.

Sortze monetarioa eragiketa positiboa da, berak jendearengandik *datorren* kreditu-eragiketan banku jaulkitzaileari esku harrarazten baitio, bankuaren aurrean dauden mailegu-emailearen eta mailegu-hartzailearen arteko *bitartekaritza besterik ez baita bankua*.

Laburpena:

'Sortze monetarioaren misterioaren' soluzio positiboa den sortze-bitartekaritzaren analisira itzuli baino lehen, laburbil dezagun esandakoa.

Jasoriko teoriaren arabera, edozein gordailu-bankuk, edozein Banku Zentralek bezalaxe, bere bezeroei maileguz emateko moneta-kopuru bat sorrarazteko ahalmena du bere hartzekoan: hauxe da kuantitatibismoaren dotrina nagusia, *banku-moneta*ri dagokionez, mende bat baino pixka bat gehiagoko bizitza duena.

Arazoa banku-monetaren izaeratik dator, ez baitago inolako aldiunerik zeinari buruz esan daitekeen banku-moneta bat positiboki existitzen dela, beraren jatorrizko bankuan gordailatua izan gabe. Baina gordailua osatzen duen edozein eragiketa, *mailegua* da. Maileguz emaniko moneta jasotzen duen aldiunean, mailegu-hartzailea berbera da, beraz, mailegu-emailea, nahiz eta soilik bi poloren artean kokatuta egon —banku jaulkitzailea eta bezeroa— sortze monetarioa *efektu gabekoa* da: *nulua*.

Sortze monetarioa positibo bilakatzen da, ezarlea mailegu-hartzailea ez denean, hau da, jaulkiriko monetaren lehen onuradunak bere ordainketetan bere burua *bestelakotzen* duenean.

Hortaz, banku-monetaren ohiko kontzepzioa sakonki errebisatu beharra dago: ez da banku-emisiotik sortuko litzatekeen aktiboa, enpresa 'arruntak' ekoizten dituzten beste aktiboak, errealak, konfrontatuko lituzkeena. Edozein banku-moneta bankuetan etengabeki gordailaturik egonez, bere sortzetik azken deuseztapenera arte, bankuak ez dira gai berek maileguz hartuko ez lituzketen monetak maileguz emateko. Ondorioa hauxe da: bankuek adosturiko kredituek moneta sortzen dute, zeinaren erosteko ahalmenak bere iturria bankuan ez daukan, osoki jendartean baizik; zehazkiago esanda, banku-kontu korronteetan egoera kreditu-emaile netoa daukate eta moneta ez-materialetan ordainduriko eragileen artean. Bankuak ez lirateke erosteko ahalmen positiboaren jaulkitzaileak izango, baldin eta beraiek ez balira bortxatuak izanen, jendeak sortzen duen moneta guztia jendeari bat-batean maileguz hartzera, izatez izaten diren moduan. Edozein *sortze* monetario *banku-bitartekaritza* dela ondorioztatzen da hortik.

Ikus dezagun gaur egungo teoriak eta errealitatea bereizten dituen lerroa.


6.4.7. Gaurko teoriak eta errealitatearen egia

Azter dezagun berriro sortze monetarioaren arazoa.

Kontua hauxe da: eman al dezakete maileguz bankuek, jendeak beraiei maileguz eman ez dien moneta?

Baietz dirudi, banku-kredituen bi mota baitago, bankuek, berek maileguz ematen duten moneta (aldez aurretik) maileguz hartu izanaren ala hartu ez izanaren arabera.

Lehen kasua: bankuek, berek maileguz ematen duten moneta maileguz hartu dute.



Bigarren kasua: bankuek maileguz hartu ez duten moneta maileguz ematen dute.



(i) Lehen kasuan, sortze monetarioa nulua da, jendeari maileguz emaniko moneta jendearengandik baitator.
(ii) Bigarren kasua, aldiz, edozein sortze monetarioren adierazpena da, jaulkiriko moneta ez baitator jendearengandik.

(i) eta (ii) proposizioak *teoria guztiekin* daude ados: inork ez ditu dudatan jartzen.

Hala ere, horiek zuzenki interpretatzen jakin behar dugu.


(ii) proposizioaren arabera, bankuek jendeari jendeak beraiei maileguz ematen ez diena maileguz emateko ahalmen arraroa dutelako ustea izan liteke. Baina orduan, zer dela-eta ari dira bankuak, etengabe, jendearen diruaren bila? Zer dela-eta ari dira beren maileguak *elikatzen* saiatzen, baldin eta beren kredituak batbatean jaulki baditzakete, jendartean dagoen ezein iturrik elikatzen ez dituenak?

Jarrai gakizkion (ii) proposizioa analizatzeari. Ez al du 'kreditu sortzailearen' ideia bultzatzen? Bankariak benetako magoak izanen lirateke: ezerezean aritzean, moneta ona isuriko lukete jendartera! Are hobeki: (ii) proposizioan jaulkiriko kredituen objektua *nulua* da definizioz; hori horrela izanik ere, jendeak moneta *positiboa* jasoko luke bankuetatik emitituriko kredituen bidez. Bankuek maileguz *zero* ematen dute —moneta sortzean, bankuek jendartean ez baitute deduzitzen jendeari maileguz emaniko moneta, bestela sortzea nulua bailitzateke— eta jendeak, dena den, moneta-unitateko kopuru *positiboa* lortzen du.

Argi dago (ii) proposizioak interpretazio egokiagoa eskatzen duela. Birformula ditzagun bi proposizioak:

(a) Monetaren transmisioaren kasuan, bankuek jendeari iritsarazten diote jendeak bankuetan *aldez aurretik* gordailatutako moneta guztia edo horren parte bat.

(b) Moneta sortzearen kasuan, jendeak bat-batean banku jaulkitzaileetan jaulkitako moneta guztia gordailatzen du: kasu honetan gordailua sortze monetarioaren *jarraipena* da —logikoki, ez kronologikoki— eta ez berorren *aurrekoa*.



Sortze monetarioa elikadura nuluan dago oinarriturik, bankuek jaulkipenean aldez aurretik jendartean ateratako inolako monetarik ez dute mugiarazten, bestela eragiketa ez bailitzateke sortzailea izanen, bitartekaria baizik.

Horrek ez du debekatzen moneta sortzeko fluxua 'irteera' hutsa ez izatea, moneta banku jaulkitzaileetatik jendartera joanez; mugimendu berberak jarraitzen du banku jaulkitzaileetako monetaren 'sarreran' —berdina eta aldiberekoa—, jendeak berarengan sorturiko edozein moneta berehala gordailatzen baitu.

Garrantzi handiko puntu horretan teorialariak oker ibili dira gaur arte: berriki sorturiko monetak jendearen aldez aurretiko gordailuetan bere iturria eduki ezin zuelako ustea ontzat emanez, teorialariek gaizki inferitu dute, sortze monetarioa fluxua dela, inolako *aldibereko* birfluxuari ez dagokiona. Sortuz, bankuek fluxu *netoa* jaulkiko lukete, horri dagokion birfluxua denboran igorria izanez, kredituaren epe-mugara.

Emisio monetarioan jendearen aurreko banku jaulkitzaileen mailegu-emateaeren eta mailegu-hartzearen *aldiberekotasunak* oinarrizko irakaspena dakar, teoria kuantitatiboa edo 'monetarista' birrintzen duena: *inongo moneta-sortze ez dator bankuek berek adosturiko kredituetatik*.

6.4.8. Edozein sortze monetario banku-bitartekaritza da


Emisio monetarioaren analisiak bi baieztapen jarri du bere lekuan:

(i) Banku-moneta *kreditu-eragiketan* eratzen da;
(ii) hala ere, moneta sortzean kreditua *ez dute banku jaulkitzaileek irekitzen*.

> Soilik bigarren baieztapena da jatorrizkoa; are gehiago, *bitxia* da. Dena den, ongi frogatuta dago; gogora dezagun beraren zio zehatza: jendartera iristen den aldiunean, moneta bere iturrira itzultzen da, banku jaulkitzailearen aurrean jendearen gordailu hartzekoduna osatzearren. Hortik induzitzen da, banku jaulkitzaileek *kreditu nuluak* baino ez dituztela irekitzen.

Zein da, orduan, moneta sortzean kredituaren iturri zehatza? Erantzuna nabaria da: erakutsiko dugun bezala, bankuan 'mailegu-emate/mailegu-hartze' bat izanik, sortze monetarioa ez da efektiboa jendartean, moneta jaulkiaren mailegu-emailea eta mailegu-hartzailea bereiztean ez bada.

Jaulkipen monetarioa ondoko kateak errepresentatzen du:



Bistan dago, moneta sortzean jendeak irekitzen duela kreditua, moneta jaulkiaren bidez ordainketa egin deneko gizakiak, hain zuzen ere. *X* mailegu-hartzaileak ordaindua, banku jaulkitzaileari kreditua ematen diona da *Y* emisioaren azken onuraduna, *berak jasotako moneta bertan gordailatzen baitu*.

Hortaz, *jendeari* dagokio, eta ez *bankuei,* moneta sortzean edozein eragiketaren irekitzea.

Edozein moneta-sortzek —zentralak zein bigarrendarrak— banku jaulkitzaileak jendearen zordun eta *hartzekodun* bilakatzen ditu bat-batean. Horrela, edozein jaulkipen monetario *banku-bitartekaritza* da, kreditua jendeak irekitzen diolarik —*Y* 'ordainduarengan'— jendearen onurarako, hau da, *X* 'ordaintzaile'aren onurarako.

Moneta sortzearen kontzeptu erratua —kuantitatibista edo monetarista— oztoporik handiena da edozein nazioarteko moneta (europar edo mundu mailakoa izanik) sortzeko.

6.5. 'EUROA', EUROPA-MAILAN, ETA 'BANCORRA', MUNDU-MAILAN, EZIN IZANGO DIRA JAIO, EMISIO MONETARIOAREN KONTZEPZIO ZUZENAREN BIDEZ EZ BADA

Europa bere monetaren bila dabil, eta mundu-mailan nazioarteko moneta berriaren beharrez mintzatzen da gero eta gehiago.

Moneta 'nazional' guztiak bankukoak direnez, euroa eta bancorra, beraiek ere, banku-monetak izanen dira. Hortaz, hona hemen zailtasuna: euroaren eta bancorraren sortzeak egungo emisio monetarioaren kontzepzio erratuaren menpe daude. Teorialariek, eta politikariek, uste dute, moneta ez-materiala izanik, bankuek moneta sortzeko ahalmena daukatela, ekonomian maileguz emateko.

Alta, errealitatea ez da horrelakoa: bankuek ezin dute ez monetarik ez krediturik sortu; emisioa 'sortze/deusezte' bat da eta ez monetaren sortze *netoa*; izan ere, beraren banku jaulkitzailean gordailatutako moneta etorkizuneko ordainketarako *titulua* baino ez da. Eta kreditu sortzailea jendartean adosten da eta ez banku jaulkitzaileen artean.

(Edozein zientzi arlotan, paradigma berrira igarotzea zaila da. Gure kasuan, Europa- eta mundu-mailako ekonomian, zailtasunak areagotu egiten dira, ortodoxia oso finkatuta dagoelako.)

Emisio monetarioen analisian sakonduz, 'nazio monetario' baten barruko ordainketen ordenaz eta dolarraren menpe dagoen nazioarteko kanpo-ordainketen desordenaz arituko gara orain.

('Euroari' eta 'bancorrari' buruz zerbait gehiago esanen dugu 10. kapituluan.)

6.6. ORDAINKETA NAZIONALEN ORDENA

6. 1. *Banku-monetaren jaulkipenaren baldintza logikoak*

Nola jaulki dezake bankuak? Zenbat pertsona inplikatzen ditu eragiketa horrek, bat, bi ala hiru?

Jaulkipenik sinpleenak pertsona bakarra inplikatuko luke, bankuak moneta bere gain sortuz, bere konturako.

(i) *Monetaren jaulkipena, bankuek egina eta bankuentzat.*

Baldintza hauetan ezin idatz daiteke eragiketa, jaulkipena kontu biko kontabilitatearen menpe baitago.

Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
bankuaren beraren gaineko kreditua	*x*	bankuaren berareranzko zorra	*x*

Berehala ohartzen da eragiketa hori zuria dela (esan beharko litzateke kontraesankorra dela), eragiketak bankuari ematen dion objektua bankuari berari dagokion kreditua eta zorra baita, biak batera.

Hortaz, jaulkipena ezin gauza daiteke, gutxienez bi pertsona desberdin inplikaturik ez badaude, alegia, banku jaulkitzailea eta beraren bezeroa.

(ii) *Monetaren jaulkipena edozein bezeroren onurarako*.

Jaulkipena ez da jadanik kontraesankorra, baina zuria izaten segitzen du, zeren, emisioaren ikuspuntutik, *X* bezero onuraduna banku jaulkitzailearen hartzekodun eta zordun baita, biak batera, kopuru berbererako.

Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
X bezeroarenganako kreditua	*x*	*X* bezeroarenganazko zorra	*x*

Eragiketaren baliogabetasuna ezin albora daiteke, bankuaren aktiboaren heldutasuna luzatuz ez bada: bankuaren pasiboa berehala —jaulkipenaren *t* aldiunetik— ‘galdagarri’ (‘exijigarri’) izanen litzateke *X* bezeroaren ikuspuntutik, banku jaulkitzaileak bere aktiboa soilik geroxeago ‘gauzatu’ dezakeen bitartean, kredituaren epe-mugaren aldiunean (t+ denboran) hain zuzen.

Errepresenta dezagun banku jaulkitzailaren kreditu eta zorraren arteko heldutasun-denboraren desbideratze hori.

Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
t+ aldiunean, kreditu galdagarria	*x*	*t* aldiunetik, zor galdagarria	*x*

Kontu horren arabera, emisioaren bezero onuradunak x moneta-unitateko gordailua dauka, t aldiunetik, berak aukeratzen duenean 'bistan' atera dezakeena.

Bankuari dagokionez, $t+$ geroko aldiunetik aurrera baino ezin du 'diru-itzulketa' exijitu. Honela, bezeroak emisioaren ondoko onuradunek sorturiko x moneta-unitateak libreki 'zirkularazten' dituzte, t aldiunetik $t+$ aldiunera doan tartean.

Hala ere, *bankuan ez da legitimoa ondoriozko zor eta jaulkipen monetarioaren kredituaren heldutasunak bereiztea*.

Eragiketaren irekieran, t aldiunean, banku jaulkitzailea *zordun netoa* izanen litzateke.

Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
eginiko kreditua	0	eginiko zorra	$x\ (>0)$

Eragiketaren epemuga-egunean, $t+$ aldiunean, banku jaulkitzailea *hartzekodun netoa* izanen litzateke.

Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
eginiko kreditua	x	harturiko zorra	0

Kasu bietan, kontu biko kontabilitatearen araua hausten da; arau hori errespetatu ahal izateko, beharrezkoa da edozein idazpen pasibo *aldiberean* idazpen aktiboa izatea; eta alderantziz. Beharrezkoa da, hortaz, banku jaulkitzaileak bere kreditua 'gaurkotzea', t aldiunean sorturiko zorrarekin bateratzeko.

Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
t aldiunean		t aldiunetik dagoen	
gaurkoturiko kreditua	x	zor galdagarria	x


Nola gaurkotu dezake bere aktiboa banku jaulkitzaileak? Berak Y-ri saldu behar dio kreditua, $t+$ aldiuneko epemuga-eguneko kreditu baliokidea dena, hots, t aldiunean lorturiko heldutasuneko kredituaren kontra. *Jaulkipenak ezin du arrakasta lortu, banku jaulkitzaileaz eta beraren bezeroaz (X) gain hirugarren pertsona bat (Y) inplikatzen ez badu*.

(iii) *Moneta-jaulkipena edozein bezeroren hartzekodunaren onurarako*.

Balio ahal izateko, jaulkipenak hiru pertsona *desberdinen* arteko multzoa behar du. Jaulkipenaren hiru poloak hauexek dira:

(a) Banku jaulkitzailea;
(b) banku jaulkitzailearen *X* bezeroa, edo 'ordaintzailea'; eta
(c) *X* bezeroaren korrespontsala, edo 'ordaindua'.

t aldiuneko jaulkipena



t aldiunean, bankuak *x* moneta-unitate jaulkitzen ditu (*x* delakoa zenbaki positiboa izanik) ordainduaren gainean, ordaintzailearen bitartez. Eragiketa bat-batean ordainduarengana iritsiko ez balitz, 'libratze-lerro' soilaren eratzea esan nahiko luke; ordaintzaileak, berak nahiko lukeenean, bankuaren *x* moneta unitateraino atera lezake, beraren hartzekodunei ordaintzeko. Jaulkipena *efektiboa* da *t* aldiunetik aurrera, *x* moneta-unitateak aterata baitaude aldiune horretan ordainduaren onurarako. Beste era batera esanda, jaulkipena gauzatua da eta ez soilik iragarria, *bankuak bere bezeroaren hartzekodunen ordainketa jaulkitzen dueneko sine qua non* motako arrazoia dela bide.

Ordainketa *t* aldiunean jaulkia izanik, aldiune horretan banku jaulkitzailea ordaintzailearen hartzekodun eta ordainduaren zordun bihurtzen da, *x* moneta--unitateren kopururako.

Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
t aldiunean ordaintzailearengan sorturiko kreditua	*x*	*t* aldiunean ordainduarengantz sorturiko zorra	*x*

Kreditua eta zorra banku jaulkitzailearen kontabilitatean *aldiune berean* sortzen direla egiaztatzen da.

Jaulkipena dela bide, egia da ordainduak bankuaren gainean *bistako kreditua* edukitzen duela; *t* aldiunetik aurrera, berak nahi duenean, *x* moneta-unitatetaraino atera ditzake bere ordainketak gauzatzeko. Ordaintzailea ez dago beharturik banku jaulkitzailearen *bat-bateko* diru-itzulketa egiteko; behartua izanen balitz, eragiketa osoak ez luke zentzurik izango, bankuak ezingo bailuke ordaindu bere bezeroen konturako: jaulkipena positiboa da, hain zuzen ere, ordaintzaileak bankuaren gainean ordainketaren zama igor dezakeelako, *ez-nulua* den tarterako; banku jaulkitzaileari diru-itzulia bat-batean iritsiko balitzaio, emisioa *zero*ra murriztua izanen litzateke.

Ematen du, hortaz, aurkezturiko arazoa bazterrezinezkoa dela: biak jaulkipenean sortuak izan arren, banku jaulkitzailearen pasiboa bat-batean galdagarria da, *t* aldiunetik bertatik, bankuaren aktiboa geroxeago gauzatu ahal izango den

bitartean, *t*+ aldiunean hasieran jaulkitako ordainketa bezeroak bere kontuan berrartzen duenean.

Beraz, jaulkipenak banku jaulkitzaileari sinkroniko ez diren aktiboa eta pasiboa ekarriko dizkio.

Bankua	
Aktiboa	Pasiboa
kreditu geroratua	zor oraindiarra

Banku jaulkitzailearen aktiboa eta pasiboa pertsona bakar eta soil baten aurrean definituak balira, arazoa konponezinezkoa litzateke; izan ere, bezeroak ezin izango luke jaulkipenetik onurarik atera oraingoan, geroxeago, *t*+ aldiunean, berak itzuliko lituzkeen *x* moneta-unitateak *t* aldiunean aterako ez balitu: banku jaulkitzailearen aktiboa eta pasiboa *ezin izango lirateke sinkronizatuak izan*.

Beste aldetik, jaulkipena hiru parteko eragiketa izanik, arazoa erabat ebazten da.

Logikoki ezinezkoa da ordainduak *t* aldiunetik aurrera aldiune honetan sorturiko bere gordailua ateratzea; bat-bateko diru-ateratzea (aldez aurretiko) edozein objektutatik gabetua izanen litzateke; *izatez*, ordainduaren gordailua banku jaulkitzailean *instantzian* dago; *hortaz, honela pasiboa t aldiunearen geroko datara da igorria*.


Ziurtaturik al dago jaulkitzailearen aktiboaren eta pasiboaren arteko sinkronia bere horretan? Pentsaezinezkoa al da, beste aldetik, bankuaren pasiboa *t*+ aldiunean baino *lehenago* —nahiz eta *t* baino *geroago* izan— galdatua izatea?


Erantzun zehatza emisio monetarioak logikoki izan behar dueneko atari estuan idazten da; kontu biko kontabilitateak banku jaulkitzailearen aktiboaren eta pasiboaren arteko sinkronismo perfektua eskatzen du. Beraz, formalki, beharrezko da ordainduaren gordailuaren diru-ateratzeak *ipso facto* esatea banku jaulkitzailearen kredituaren berreskuratzea, ordaintzailearen aldetik. *Lehenengo baldintza hau betetzen da ordaintzailearen ordainketaren bidez diru-ateratzea gauzatua denean.* Izan bedi *t*+ delakoa diru-ateratzearen aldiunea; *t*+ delakoan, ordainduak bere gordailua ateratzen du, hasierako ordaintzailearen onurarako: *orduan banku jaulkitzailearen aktiboa eta pasiboa sinkronikoak dira erabat*.

Bankua	
Aktiboa	Pasiboa
eragiketaren irekiera	
t: ordaintzailea *x*	ordaindua *x*
eragiketaren itxiera	
t+:	ordaindua $-x$
	ordaintzailea $+x$


Ongi ulertzen dugu ordaintzailearen azken ordainketaren baldintza, *t+* aldiunean, ordainduaren partetik —edo beraren eskubidedunen aldetik— ezin dela *zorian* utzi; alderantziz, beharrezko da banku jaulkitzailearen aktibo eta pasiboa asinkroniko bilaka ez daitekeela inongo kasuan.

Honela emisio monetarioa ongi mugaturik dago: bankuak bere bezeroari korrespontsalaren ordainketa aurreratzen dioneko eragiketa da, nahiz eta azkenean bezero berberak ordainduko duen.





Orain soluzioaren atarian gaude: emisioa hiru pertsonen artean elkarri egindako ordainketa osatuen eragiketa da.




Falta dena hauxe da, alegia, logikoki bere ordainketa elkarkaria inplikatzen duen ordainketaren *izaera konkretua* determinatzea.

Schmitt-ek esaten duenez, eragiketa soil batek erantzuten dio baldintza horri, 'produkzio-faktoreen' ordainketak hain zuzen.

6.6. 1. 1. *Emisio monetarioak produkzio faktoreen ordainketa definitzen du*

Azal dezagun lehendabizi ezen ordainketa moneta sortzean aurretik *existitzen den* produkturako jaulkia izango balitz, halabeharrez baliogabekoa izanen litzatekeela.



(aurretik existitzen den produktuaren salerosketa)

Eskemaren arabera, banku jaulkitzaileak 1. fluxuaren aurretik existitzen den produktuaren ordainketa aurreratzen du; saltzailea, 2. fluxuaren bidez ordaindua, 3. fluxuan jatorrizko bankuan berak jasotako moneta berehala gordailatzen du, definizioaz moneta banku-moneta baita.

Beraz, errealitatean *oraingoz ordaindua ez dela* egiaztatzen da, delako ordainketak bankuaren gaineko *kreditu-eskubidea* besterik ez baitio eman; salmenta ez da benetan ordaindua izan, bere erosketak ordaintzeko saltzaileak gordailua aterako duen aldiunean ez bada.

Hau da, *aurretik existitzen den* produktu baten ordainketa, *erreala* baino ezin da izan, saltzaileak bere erosketetan ordaindua izanik, eta ez monetan.

Emisio monetarioa ez litzateke ordainketa efektiboa izanen, beraren helburua aurretik existitzen den produktuaren erosketa finantzatzeko izango balitz.

Alda dezagun hipotesia: emisio monetarioaren bidez ordainduriko saltzaileak ez du ematen jadanik existitzen den produtua, 'eratzen ari den' produktua baizik. Zer uler daiteke horrekin? Erantzuna laua da oso: produktua hasieratik saltzailearen hartzekoan badago, aldez aurretik existitzen den produktua da; *saltzaileak eroslearen hartzekoan zuzenki eratzen badu*, aldiz, eratzen ari da, prestakuntzan dago.

Moneta prestakuntzan dagoen produktuaren ordainketarako sortzen denetik, emisioa zuzenki dago definiturik, jadanik ezagunak diren bi irizpide hauexen bidez egiaztatzen denez:

(i) Jaulkiriko ordainketa efektiboa da (eta ez soilik prometatua).
(ii) Eragiketan sortuak, banku jaulkitzailearen aktiboa eta pasiboa sinkronikoak dira erabat.

Aipaturiko bi irizpide horiek ongi beteak direla egiaztatu baino lehen, izenda ditzagun konkretuki prestakuntzan dagoen produktuaren saltzailea eta eroslea.


Hauexek dira: enpresak eta beraiek enplegaturiko produktugileak (edo 'produkzio-faktoreak').

Demagun *E* delakoa enpresa bat dela, eta *L* ('langileak') delakoa beraren enplegatuen multzoa. *L*-ren produktua *E*-k erostea, prestakuntzan dagoen produktuaz jabetzea da, zeren langileen produktu berriaren lehen jabea, epealdi bakoitzean, enpresa baita, eta ez beraren enplegatuak.

Orain, *E* enpresaz eta beraren L langileriaz arrazoituz, emisio monetarioa osatzen duten bi irizpideak beteak direla egiaztatzen da.

(I) *Jaulkitako ordainketa bat-batean da efektiboa*


Analiza dezagun zehazki *E*-ren eta L-ren arteko eragiketa



E enpresako langileek lagatzen dutena, ez da produktua (zeina, gogora dezagun, ez den zuzenki eratzen beraien hartzekodunean), *produkzioa* baizik, hau da, produzitzeko ekintza: ekintza eta ez berorren emaitza. Beren aldetik, langileek sorturiko moneta lortzen dute.

Aldez aurretik existitzen den produktua trukearen alde bat izango balitz, beste aldea aldez aurretik existitzen den moneta izanen litzateke; alde erreala produkzio--fluxua izanez, eta ez jadanik produzitutako produktua, dagokion beste aldea sortze monetarioko fluxua da, eta ez jadanik existitzen den monetaren gastua.


Dagokigun kasuan, moneta bankukoa da; beraz, moneta sortzen duena bankua da, eta ez entrepresa. *Hortik ondorioztatzen da, entrepresaren bitartekaritzaz, produkzio-fluxua banku jaulkitzailera iristen dela*.



Absurdua litzateke bankuaren produkzio errealaren fluxua langileenganaino luzatzea, zeintzuek, alokairu-sisteman, berentzat produzitzen ez duten *zuzenki*.

Hortik ondorioztatzen da, alokairu-sisteman eta epealdi bakoitzean, langileen produktu berria alokairuen banku jaulkitzaileetan gordailaturik dagoela.

Errepresenta dezagun banku jaulkitzailean produktu berria gordailatzeko eragiketa.




Produktu sortu berria banku jaulkitzailean gordailatuta egoteko gertakariak kuriosoa dela ematen du: ez al dago fisikoki enpresan gordeta? Izan ere, egokia da kokatze fisikoa (edo 'geografikoa') jabego ekonomikotik bereiztea. Produktu berria bankuak emisio dela kausa jasotako kredituaren objektua da; logikoa da

honela izatea, zeren, definizioz, jaulkipen monetarioa produktugileen ordainketa baita, enpresen konturako bankuek egina.

Interesgarri da ohartzea banku jaulkitzailean produktu berriaren gordailua —enpresarekiko kredituaren objektu gisa— emisio monetarioaren gertakariaren baieztapena dela eta, beraz, bankuen enpresaren kontuaren hasierako egoera edozein izanik ere. Araua salbuespenik gabekoa da: alokairu eta moneta ez-materialeko sisteman, banku jaulkitzaileek produkzio-faktoreei ordaintzen diete enpresen bidez (zeintzuen bankuko kontuak positiboa izaten segitzen duen, edo negatibo bihurtu, beraren hasierako egoeraren arabera); banku jaulkitzailearen kreditu korrelatiboak objektu erreala dauka, zeinaren definizioa unibokoa den, alegia, produktua berria, hots, 'faktoreen' lanak ekartzen duen objektu berbera.

Hortaz, badaukagu jaulkiriko ordainketaren ezaugarri efektibo eta finalaren froga. Izan ere, 3. fluxua 1. fluxuaren erabat simetrikoa da.



Bankuan gordailatua, 1' delakoan, produktu berria berehala igortzen zaie *era monetarioaren menpe*, 3' delakoa, beraren 'egileei'. Hortik ondorioztatzen da, produkzio-faktoreen ordainketa emisio monetarioan efektiboa dela, *erreala* delako.

Laburbil dezagun prozesu osoa.

(i) *t* aldiunean, emisioa dela eta, produktugileek *x* moneta-unitate jasotzen dituzte beren jardueraren ordainketan.


(ii) Aldiune berean, produktugileek berriki sorturiko *x* moneta-unitateak banku jaulkitzailean gordailatzen dituzte, eta honela banku jaulkitzailearen hartzekodun bilakatzen dira.

(iii) Kontrapartidan, produktugileek berehala —beraz *t* aldiunean— beren produktua, jaulkitako monetaren eran, ez era fisikoan, lortzen dute (banku jaulkitzaileari dagokionez, produktugileek lorturiko *x* moneta-unitateen kredituaren objetu erreala ez baita produktu berria, bera baizik).

Agian jaulkipenaren izaera hobeto uler daiteke analogiaren bidez: banku jaulkitzailea produktu berria maleta-gordelekuan bezala dago ('kontsignan'), eta

kontrapartidan, bankuak produktugileei edozein unetan beren ondasuna erretiratzen utziko dieten 'tiketak' jaulkitzen ditu. Emisioa ez da eragiketa monetario hutsa. Monetarioa edo *nominala* da bat-bateko 'sorturiko/deuseztaturiko' *x* moneta-unitateei dagokienez; eta *erreala* da, produktugileek lorturiko kreditu monetarioak beren produktua objektutzat daukan heinean, kreditu hori maleta-gordelekuko tiket modura erabakitzeko, utzitako objektua erretiratzearren, eramaleak aukeratzen duen unean.

t aldiunean, emisioaren eite nominala




———: fluxu monetarioa

.....: fluxu erreala

Bankuak *x* moneta-unitate sortzen ditu *E* enpresaren gainean, eta mugimendu berean, kopuru hori kreditutan ematen die *L* langileei. Hala ere, *jaulkitako x moneta-unitateak bat-batean berrartzen zaizkie produktugileei*. Zioa erabatekoa da; jendeak ezin du banku-monetarik 'eduki', bera etortzen deneko bankuaren gaineko kreditu-eskubidearen eraren menpe ez bada: *hortaz, produktugileek ezin dituzte sorturiko x moneta-unitateak gorde, bankuan gordailatuz ez bada*. Moneta material bat —urrea edo zilarra— bere tituludunen hartzekoan 'bat-batean' gordea izan liteke; banku-moneta ezin da gordea izan, 'bitartekaritzan' ez bada, hau da, bankuan gordailua eratzearen bidez.

Hortik aurrera, dena da erraza. *x* moneta-unitateak beren jatorrizko bankuan gordailatuak diren unetik —beren jaulkipenaren aldiunean bertan— *deuseztuak* dira; izan ere, banku jaulkitzailea ezingo litzateke positiboki bere buruaren hartzekodun izan; beraz, emisioa monetaren bat-bateko sortze/deuseztatze bat da. Bankuan deuseztuak, *x* moneta-unitateek berehala produktugileen kreditu netoa definitzen dute banku jaulkitzaileari dagokionez, *x* moneta-unitateren kopururako.

Zein da, zehazki, kreditu horren objektua? Argi dago *errala* dela.



Badakigu ongi, produktugile alokatuek ez dutela produktua ematen, beren *ekintza* edo bere *jarduera produktiboa* baizik: hortaz, enpresa produktugileen eta banku jaulkitzaileen artean tartekaturiko instantzia da, alokairuen ordainketa *nominalaren* iturria; ondorioz, produktu berria bankuetan gordailatua da, maleta-gordelekuan bezala; azkenean, dirua ateratzeko eskubideen tituludunak produktugileak dira, produktu berria, bankuei begira, beraien kredituaren objektu zehatza baita errenten ordainketan, jaulkitako moneta-unitateen bat-bateko deuseztapenetik sortua.

Lehen aldiz idatzi dugu *errenta* hitza: izan ere, berorrek badauka, zentzu zehatza, orain arte ezagut ez dezakeguna; emisio monetarioaren *t* aldiunean definitua, *errenta, era nominalean, produkzio-faktoreen produktuaren irabazia da*.

Errentaren analisiari jarraituz, eta *kapital*arekin konparatu baino lehen, proposa dezagun bilaturiko bigarren froga: errenten eratzea, banku jaulkitzaileari aktibo eta pasibo erabat sinkronikoak ekartzen dizkion eragiketa da.

(II) *Errenten emisiotik sortuak, banku jaulkitzailearen aktiboa eta pasiboa erabat sinkronikoak dira*

Berrar dezagun maleta-gordelekuaren analogia; beraren pasiboan, utzitako objektua dago; beraren aktiboan, jaulkitako tiketaren jabearekiko 'zor erreala' dago.

Gerta al liteke maleta-gordailuaren aktiboa eta pasiboa bata bestearekiko denboralki 'desfasatuta' egotea?

Demagun t_x edozein aldiunetan maleta-gordelekuaren pasiboa osaturik dagoela, baina beraren aktiboa oraingoz ez egotea edo inoiz ere ez egotea; baldintza horietan, tiketa eskuragarri da bere eramalearengan maleta-gordailutik, berari dagokion objektua ez dagoen bitartean; galtze edo lapurketa baztertzen badira, des-kribaturiko egoera, ezinezkoa da; edozein hipotesitan ezinezkoa da, maleta-gordele-kuko arduraduna gordailuen erantzulea baita.

Alderantzizko desbideraketa ere ezin da gertatu: objektua maleta-gordelekuan gordailatua denetik, bera jasotzeko eskubidea 'presentekoa' da eta osorik dago, arazo ireki bakarra tiketaren existentziaren froga izanez (zeina, laburbilduz, egiazkoa ere baden banku-bileteen kasuan).

Paraleloki, produktugileen ordainketak*, elkarri notifikatzen dioten* aktiboa eta pasiboa ematen dizkio banku jaulkitzaileari, *aldiune guztietan*, errentaren titulu-dunek produzitu berriaren azken ateratzea gertatu arte.


Izatez:

(i) Banku jaulkitzailearen aktiboa eta pasiboa adosturiko mugimendu berean sortzen dira; *t* aldiunean produktua gordailua da, produktugileek aldiune horretan banku jaulkitzailearen gainean kreditu baliokidea eskuratzen dutelako.
(ii) Banku jaulkitzailearen aktiboa gordailatutako produktua ateratzen den aldiunean desagertzen da.
(iii) Halaber, bankuaren pasiboa gordailatutako produktua ateratzen denean desagertzen da.
(iv) Beraz, banku jaulkitzailearen aktiboa eta pasiboa denbora berean desagertzen dira, etengabeki elkarrekin bizi izan eta gero, errenten emisioaren aldiunetik epealdi bakoitzeko produktu berriaren azken erosketetan beraren deuseztapena gertatu arte.

Emisio eta jaulkipen monetarioaren izaera zehaztuaren ezaguerak hiru banku-moneta desberdin aurkitzera eramaten du.

6.6.2. Hiru banku-moneta: ibilgailua, errenta eta kapitala

Errepresenta dezagun produktugileen ordainketarako banku-jaulkipen bakoitzean logikoki inplikaturiko fluxu guztien —monetario zein erreal izan— multzoa.



Fluxu monetarioak eta errealak 'bi aurpegiko' eragiketa soil eta bakar baten bi eite osagarri eta *bananezinezkoak* dira.

Jaulkipen *nominala x* moneta-unitateren bat bat-bateko sormen/deuseztapenak definitzen du.

Jaulkipen *erreala* banku jaulkitzailean produktu berriaren gordailuaren eta korrelatibo diren errenten —bankuaren gaineko kreditu errealak— eratzea da.

Ordutik aurrera, bi moneta bereizten dira berehala:

Moneta *nominala* edo *ibilgailuzkoa* —beronen fluxua marra osoaz errepresentatua— jaulkipenaren aldiunean sortu/deuseztatua da.

Moneta *erreala* —beronen fluxua puntuzko marraz errepresentatua— produktugileek beren errentak (hau da, *beren produktua era monetarioan*) eskuratzen dituzten aldiunean eratzen da.

Hirugarren banku-moneta *kapital* monetarioa da, *kapital* 'finantzarioa' deitzen dena.

Oraingo helburua kapitalaren analisia egitea ez denez, adierazpena sinplifika dezakegu, berorren funtsa galdu gabe.

Kapitalera iristeko, bi eraldaketa behar dira:

(i) Ibilgailuzko moneta lehendabizi errenta bihurtu beharra dago, eta hori emisioan bertan gertatzen den aldaketa da.
(ii) Geroago errentaren zati bat aurreztua da eta, honela, kapitalean eratua.

Kapitala bankuetan besterik ezingo dugu kokatu. Bankuetan produktu berriaren gordailuak epealdiko errentaren eratzea definitzen du. Orain arte, bankuek eragiketa *monetarioak* edo emisioak berezko zentzuan besterik ez dituzte egin. Beraiek eragiketa *finantzarioan* sartzen dira, *Z* delakoari produktua (zeina denbora batez, beraren tituludunek instantzian utzia den) maileguz ematen dutenetik: kapitala bankuek gordailatutako produktua finantza-merkatuan maileguz ematen duten aldiunetik sortzen da.

Berrar ditzagun hiru banku-eragiketak.

6.6.3. Hiru banku-eragiketa: errentaren eraketa, aurrezkien transmisioa eta errentaren gastua

Lehen bi banku-eragiketak —errenten eratzea eta aurrezkien transmisioa— hertsiki loturik daude bere artean. Hala ere, logikak ezin ditu biak nahasi.

6.6.3.1. Errentaren eratzeen eta aurrezkiaren transmisioen nahastea okerkuntza da

Errenta-monetak ez dauka ezelako balio propiorik: errenta monetarioa, bere *erretiratzea* gertatu arte, epealdi bakoitzeko produktu berria eduki duen banku-era baino ez da.

Errentaren eratzea monetan gertatzen den produktuaren integrazioa da.

Edozein errenta *bikartekaritza monetariotik* sortzen da, banku jaulkitzaileek alokairuen ordainketa beren gain hartzen baitute enpresen konturako.

Produkzio berria bankuetan gordailuan eratzen denetik, zatiren bat maileguz ematen dute, tituludunek aurrezturiko errenten arabera.

Mailegu hartzaileari —enpresa edo familia— gordailua edo aurrezkia *transmitituz*, bankuek *bitartekaritza finantzarioa* gauzatzen dute.

Bi motatako banku-bitartekaritza bereiztea errotikoa da, inolako bitartekaritza monetarioa ez baita finantzarioa, ezta alderantziz ere. Logikak ez du uzten bankuek transmitituz sor dezaten, ezta sortuz transmiti dezaten ere.

Ikusiko dugunez, bi banku-eragiketen —bitartekaritza monetarioa eta bitartekaritza finantzarioa— nahasketa intelektuala europar moneta (edota mundu mailako moneta) jaulkitzeko oztoporik handiena da.

Europako Bankua eratua balitz, ez al lituzke berak 'euroak' sortuko, bere preferentziako herrialdeei maileguz emanez? Ongi ezagutzen dugu galdera eta berorrek dakarren erantzun logikoa. Izan ere, Europako Bankua euroen *jaulkipenaz* arduratuko da: hori eginez, berak ez dio inolako hartzeko finantzariorik inori transmitituko, beraren eragiketa bitartekaritza *monetario* hutsa izanen baita (Schmitt 1988a). Euroak *ibilgailuzko* funtzioa edukiko du eta ez funtzio *finantzarioa*.

Bi banku-eragiketen bereizketa maleta-gordelekuaren analogiak argitzen du, dudarik gabe.

Baldin eta, errealitatean bistako den moduan, arduradunak gordetako objektuak mailagatzeko eskubidea ez badauka, tiketen tituludunek ez dituzte inoiz 'aurrezten': soilik berek 'kontsumitzea' itxarongo dute, hau da, berek tituluak aurkeztuko dituzte objektuak ateratzeko.

Hala ere, gordetako objektuak maileguz eman badaitezke, arduraduna logikoki mailegari izanen litzateke objektu bakoitzaren gordailutik eta berorren ateratzea gertatu arte; korrelatiboki, tiketen jabeak mailegu-emaileak edo aurrezkigileak izanen lirateke beren ondasuna erretiratu arte.

Gordailuak jasotzeko eta itzultzeko murrizten den edozein maleta-gordeleku, errealitatean gertatzen den moduan, 'bitartekaritza monetarioak' baino ez ditu gauzatzen, gordetako produktuei (zeintzuk, tarte baterako, jaulkitako tiketen objektuak diren) 'era nominala' emateko mugatzen baita.

Baina baldin eta maleta-gordelekuak bertan gordetako objektuak mailega baditzake, bi eragiketa desberdin egingo lituzke: berak gordailuak jaso eta itzuliko lituzke, baina, gainera, instantziatan objektuak 'lotan' utzi beharrean, ondasun gordailatuen 'mailegu-emaileengana' eta 'mailegu-hartzaile' potentzialengana hurbilduko lituzke, beren jabeek une batez 'aurrezturiko' ondasunak denbora batez transferitzearren.

Analiza dezagun xehetasunez bitartekaritza finantzarioa edo, identikoa dena, aurrezkien transmisioa.


6.6.3.2. Aurrezkien transmisioa

Gordailu-bankuak ez dira bitartekaritza finantzarioa bere gain daukaten erakunde bakarrak; beste batzuk ere badaude: aurrezki-kutxak, inbertitzeko elkarteak, negozio-bankuak, aseguru-konpainiak. Hala ere, gordailu-bankuak dira bitartekari finantzario pribilegiatuak, edozein aurrezki-transmisioren objektua bankuetan gordailaturiko moneta baita.

Badago beste arrazoi bat erakunde finantzarioen artean gordailu-bankuek analizatzeko; irakurleak jadanik ezaguna du: bi banku-eragiketaren arteko lotura estua da; izan ere, beraien ahaidetasuna hain estua da non, jadanik XIX. mendearen hasieran David Ricardo-ren lanak egon arren, oraindik ere zientziak beraien bereizketa aintzakotzat gaizki hartzen dituela.

Dena den, guztia argi dago, behin arazoa errenten emisioaren gainean oinarritzen bada, hots, epealdi bakoitzean, produktu korrontearen era monetarioaren sortze/deuseztapenaren gainean.

Errepresenta dezagun bitartekaritza monetario bat, *z* dena, *x* berdintzen duen bitartekaritza monetario baten eranskin soilean.



Banku berbera da lehendabizi jaulkitzailea eta gero bitartekaria; bitartekaritza monetarioak *x* moneta-unitateko errentak sortzen ditu eta bitartekaritza finantzarioak *z* moneta-unitateko aurrezkia transmititzen du.

Banku jaulkitzaileak berak aurrezkiaren transmisioaren parte hartuko ez balu, bitartekaritza finantzarioak ez luke izango inolako zailtasun analitikorik: mailegu-hartzaileak errentaren lehen jabeek soilik ordeztatuko lituzkete banku jaulkitzailearen kontuetan.

	Bankua			
	Aktiboa		Pasiboa	
1.	*E*	*x*	*L*	*x*
2.			*L* mailegu--hartzailea	*–z* *+z*

1. eragiketa produktu korrontearen 'monetizazioa' da, bankuaren aktiboa gordailatua, zeina produktua gordatzaileen onurarako gastatzen arduratzen den bere pasiboan. 2. eragiketa aurrezturiko errentaren mailegu-hartzaileei (zeintzuk merkatu finantzarioaren erakunde bereziak izan daitezkeen) egindako transmisioa da, errenta *z* izanik.

Banku soil eta bakar baten bi eragiketak gertatzen direnetik, bi eragiketa horien —errenten sortzea eta aurrezkien transmisioa— nahasketa intelektuala azaltzen da. Beraren kontuak irakurriz, bankuak errentak transmititzeko eta sortzeko jaulkitzen dituela ematen du: okerki deduzitzen da bankuek, moneta sortzeko ahalmena daukatela, berek adosten dituzten kredituen bidez. Lehen baztertu dugu okerra.

Errepresenta ditzagun banku-kontuak, banku berberak produktua monetizatzen eta errenta transmititzen dueneko kasuan.

	Bankua			
	Aktiboa		Pasiboa	
1.	*E*	*x*	*L*	*x*
2.	*Z*	*z*	*Z*	*z*
3.			*Z*	*–z*
			E	*z*

Kasu honetan, 2. eragiketa Z-ri egindako *z* moneta-unitateko mailegua da; mailegu-hartzaileak jasotako moneta berehala gastatzen ez badu, bankuan gordailatuta gelditu ko da, non berak 'libratze-lerroa' osatzen duen. 3. eragiketan, mailegu-hartzaileak 'lerroaren gainean libratzen du', produktua erretiratzearren, *z* moneta-unitateko konkurrentzian. Ondorioz, bankuaren balantzean entrepresak (x – z) moneta-unitate besterik ez duela zordundu, produkzio-faktoreen kredituak —beti *x* izanik— bere kontrapartida batera oraingoz saldu ez duen (x-z) produktuan, eta mailegu hartzailearen *z* zorretan edukiz.

Lehen begiradan ez dago inolako ezberdintasunik 1. eta 2. eragiketen artean: bi kasuetan moneta-sortzearen kontua dela dirudi.

Hala ere, bere baitan gordailatutako produktuaren zati erabilgarria maileguz emanez, bankuak ez du ezelako produkturik monetizatzen: *jadanik gordailaturiko* produktuaren berehalako disposizioan, errentaren lehen jabeen ordez mailegu-hartzaileak ordezkatzera murrizten da.

Hirugarren banku-eragiketa errenten deuseztapena da.

6.6.3.3. Emisioa errenten deuseztapenean

Errenten eratzea positiboa dei daitekeen eragiketa da; errenten deuseztapena, eragiketari dagokion emisio *negatiboa* da.

Egiazkoa al da, edozein epealditarako produkturako banku-emisioen —positiboak eta negatiboak— berdintasuna gauzatzen dela?

Izan ere, froga objektibo batek elkarren kontrakoak diren emisioen beharrezko berdintasuna edo baliokidetza ezartzen du; bankuen pasiboan gordailaturiko edozein errenta, bitartekaritza *finantzarioen* elikadura da. Hala ere, ez al da *kontingentea* gordailuen eta maileguen arteko harremana? Argi dagoenez, lotura beharrezkoa izan behar da, bestela kontrakoak diren bi emisioen erabateko simetria ez litzateke gauzatuko. Produktugileek edo beraien eskubidedunek (beraz, mailegu-hartzaileak) erosiko ez luketen edozein produktu, enpresek berek *ordaindua* izanen litzateke: hortaz, egiazkoa da, alokairuen kostuen ordainketa itzulezinezkoa baita. Ordaintzea erostea da. Hortik ondorioztatzen da, errenten deuseztapenari dagokion emisioak maila guztietan errenten eratzean gertatzen den emisioa berdintzen duela.

Hirugarren banku-eragiketa produktuaren ‘monetizazioaren’ errepikapena da, jadanik zeinuan ez bada; literalki, produktua orain ‘desmonetizatua’ da: lehen berak monetan aurkitu zuen babesa, azken erosketek definitiboki ateratzen dute bertatik. Produktua gastatua da, monetatik eta, denbora berean, bera gordeta zegoen bankuetatik irteten baita.

Bankuen *abaleko* ordainketak ikusi ditugu; baina zer gertatzen da bankuen arteko ordainketetan?

6.6.4. Bankuen aniztasuna eta bankuen arteko ordainketen logika

Nazioarteko ordainketak bankuen arteko ordainketak dira; horrexegatik, herrialdearen beraren barneko bankuen arteko harremanen estudioa, nazioarteko monetaren edozein analisiren oinarria da.

Bankuen arteko ordainketen printzipioaren aztertzeak garrantzi handiko legea argitzen du: ezein bankuk ezin ditu bere monetan ordaindu beste bankuekin dituen zorrak.

Are gehiago; herrialdeen barnean monetaren eratze konkretuak ez du inoiz aipatu dugun araua eten. Bankuen artean sorturiko zorren eta kredituen *konpentsazioak* 'bankuz gaindikoa' den monetaren bidezko ordainketa definitzen du, hau da, moneta *zentralean*.

Herrialde bakoitzean, Banku Zentrala 'banku-sistemaren' piramide-erpina da; hau da, ekonomia nazionalaren barruan, maila bereko kideari aurre egiten ez dion *banku bakarra*.

6.6.4.1. Banku bigarrendarren arteko ordainketak

Oinarrizko printzipioa hauxe da: banku batetik beste baterako edozein ordainketa Banku Zentralaren bitartez gauzatzen da.

Nola bilaka daiteke *A* bankua *B* bankuaren zordun? Nahikoa da *A* bankuaren bezeroren batek bere gordailu osoa edo zati bat beste bankuaren bezeroren baten onurarako ateratzea.

Lehen mementuan, *A* bankuaren kanpo-arlora transferitutako monetak bankuan bertan gordailaturik irauten du: bera bere 'zirkuituan' behin-behinekotasunez geratzen dela esaten da .

A Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
EA	*x*	*LA*	*x*
		LA	*–x'*
		B bankuaren bezeroa	*x'*

A monetako *x*' unitateak orain *A* bankuan beste bankuaren bezeroak gordailatuak dira: gordailu berbera tituludunez aldatu da.

Baina gauzak ez dira hor gelditzen zeren, hipotesiz, *x*' transferitzearen onuraduna ez baita aurrerantzean *A* bankuaren bezeroa; berak *A* monetako *x*' unitateak bere bankura eramaten ditu, zeinak *B* monetako *x*' unitate kreditatzen dituen, bi monetak parekotasunean daudela ulertuz.

B Bankua

Aktiboa		Pasiboa	
A bankuaren gaineko kreditua	*x'*	bezeroarekiko zorra	*x'*

Alda ditzagun *A* bankuaren erregistroak:


A Bankua

Aktiboa	Pasiboa	
aldatugabea	*B* bankuaren bezeroa	$-x'$
	B bankua	x'

A bankuaren hartzekodun izanik, nola izan liteke ordaindua B bankua?

Goazen zuzenki erantzunera: bankuen arteko ordainketa moneta zentralean egiten da.

Interesgarria da Banku Zentralaren eskuhartzean inplikaturiko fluxuei segitzea:



(a) *A* bankuak bere moneta berrartzen du moneta zentralaren kopuru baliokidearen kontra (1).

(b) *B* bankuari ordaindutako moneta zentrala *A* bankuaren mailegu-hartzetik dator (2).

(c) *B* bankuak jasotako moneta zentrala berak Banku Zentralean gordailatzen du, gordailu hori mailegua izanik (3).

Ikusten denez, *A* bankuan ezarritako produktuaren x' zatia Banku Zentralean *B* bankuaren gordailu hartzekodun bilakatu da.

Formula dezagun lege orokorra: Banku Zentralak banku zordunaren produktu gordailatua —oraingoz ez erretiratua— banku hartzekodunera ibilgailuan eramatearren eskuhartzen du, bankuen *arteko kreditu zehatzaren kopururako*.

Honela, ba, Banku Zentralak moneta bigarrendarra deuseztatzeko ahalmena daukala egiaztatzen da.

6.6.4.2. Moneta zentrala berak deuseztatzen duen moneta bigarrendarren ordez jartzen da

Ideia soila dago arazoaren gainean: bankuen arteko ordainketaren neurrian, Banku Zentralak banku zordunaren moneta deuseztatzen du eta bere monetaren bidez ordezkatzen du, banku hartzekodunaren gainean jaulkia eta bertan gordailatua izanik.

Aplikazioa bikoitza da:

(i) Bankuen arteko ordainketa *konpentsatuen* kasuan, Banku Zentralaren eskusartze inplizituak edozein banku hartzekoduni berorren kideen moneta ematen dio bere monetan aldatua, moneta zentralaren bitartekaritza dela bide.
(ii) Bankuen arteko ordainketa *netoen* kasuan, Banku Zentralaren eskusartze esplizituak, gordailatutako produktua transmititzen du ibilgailuzko moneta zentralaren bidez banku zordunetik banku hartzekodunera.

Honela, orokorra den ondoriora iristen da analisia: edozein herrialdetan, moneta zentrala era komuna da, non moneta bigarrendarrak ‘isuriak’ eta, horrela, beren artean homogeneo bihurtuak diren.

6.6.5. Moneta zentrala, moneta bigarrendarren ordainketa guztietako era komuna

Ordena monetario nazionalean, bi baliokidetza aurkitu ditugu.

(a) *Errenta-monetaren eta produktuaren baliokidetza*.

Edozein banku bigarrendarrek une berean, bere aktiboan produktu netoaren zatia gordailuan eta, pasiboan berari dagokion errenta berdina jasotzen ditu. Produktuaren eta errentaren berdintasunak identitate baten indarra dauka, produktu *erreala* gordailu *monetarioaren* objektua (eta objektu bakarra) baita.

(b) *Edozein moneta bigarrendarren eta moneta zentralaren baliokidetza*.

Bigarren baliokidetza hau lehengoaren mota berekoa da. Izan ere, kasu bietan, berdintasunaren bigarren terminoan lehenaren ‘aldaketa’ da. Oraingoz gastatua ez den produktua monetan ‘estaltzen’ da, eta, beraz, berak objektua definitzen du; hortaz, ez da oraingoz existitzen, bere era monetarioan ez bada, eta beraren existentzia fisikoak azken erosketen unera arte itxaron behar du: familietan eta entreprestan produktu *gastatu* soila dago presente. Paraleloki, *A* moneta ezin daiteke beste moneta bigarrendar batetan trukatu, beraren lehengo egoeran *deuseztatua* ez bada: elkarrekin trukaturiko bi monetak ez dira denbora berean bizi. Moneta-trukearen deuseztapena moneta zentraleko beraren aldakuntzan dago jadanik egiaztaturik: *A* bankuak *B* bankuari egindako ordainketak *A* moneta deuseztatzen

du moneta zentralean bera *sorraraztearren*, zeinaren objektua *B* bankuak —eta hortaz, berorren bezeroak— gordailatutako produktua den.

Truke batean, truke horren terminoetatik bat deusezten denean eta termino hori bestean aldatzen denean, trukeari *absolutua* deritzo.

6.6.5.1. Edozein herrialderen barruan, moneta bigarrendarrak moneta zentralean gauzatzen diren truke absolutuen sarean hartuak dira

Azter dezagun berriro *A* bankuak *B* bankuari egindako ordainketa. Ordainketa hori egin baino lehen, *A* bankuak produktuaren *x* unitate eduki ditu bere aktiboan, unitatetan gordailatua; baina geroago, berak produktuaren ($x - x'$) unitate besterik ez dauka: *A* monetak bere objektua x'/x proportzioan galdu du. Gauza bera da, monetak bere objektua galdu duela eta bera *deuseztatua* izan dela esatea. Izan ere, *A* monetako *x*' unitate *B* bankuak gordailaturiko moneta zentraleko *x* unitate bihurtu dira. Bankuen arteko ordainketan, *A* monetako *x*' unitate desagertzen direla egiaztatzen da, moneta zentraleko *x*' unitate eran berragertzeko eta, horrexegatik, *B* monetako *x*' unitateren eran.

Moneta zentralean *A* eta *B* moneten truke absolutuak errepresenta daitezke, 'gurutzearen' bidez:

x' BM

x' AM *x' M* zentrala *x' AM*

x' BM


Errepresentaturiko eragiketa, *bakarra* da: mugimendu berean, *A* monetako *x'* unitate unitate beretan trukatuak dira (truke absolutuak) moneta zentralaren bidez, zeinak aldiberean *B* monetako *x*' unitate unitate beretako trukean ziurtatzen duen.

Bi truke absolutuak erraz adierazten dira.

Zordun izanik, lehendabizi *A* bankuak Banku Zentralari ordaintzen dio, zeinak horrela *A* monetako *x*' unitateak jasotzen dituen; hala ere, Banku Zentralak ez du onartzen inolako azken ordainketarik, bere monetan ez bada: ondorioz, *A* monetako *x*' unitateak berehala *A* bankura itzultzen dira, eta hor deuseztatuak dira, orduan *A* bankua beren buruaren hartzekodun izanik.

A bankua —ordainketa = x'AM→ Banku Zentrala
A bankua ←berehalako itzulketa = x'AM— Banku Zentrala

Argi dago *A* bankua ez dagoela oraingoz zorretik aske: bere monetaren kontra, zeina berari itzulia den, *A* bankuak mailegu-hartzeko titulua saltzen du, moneta zentralean betea. Eragiketa osoak, *A* bankuaren eta Banku Zentralaren artean, moneta zentraleko x' unitateren bat-bateko joan-etorria inplikatzen du.



A bankuak *x*' AM, x' AM delakoan elkartrukatu duela egiaztatzen da, moneta zentraleko *x*' unitateren bitartekaritza dela bide.

Adierazpena gauza bera da *B* bankuarentzat, zeinak moneta zentraleko *x*' unitateko ordainketa ezin dezakeen jaso, Banku Zentralean berehala gordailatzen ez badu.

Adierazi berri duguna *A* eta *B* moneten murrizte soila 'denominadore' edo 'izendatzaile' berberera pasatzea besterik ez da: edozein herrialderen barruan, banku bigarrendarrek 'sistema' osatzen dute, hain zuzen ere, moneta zentralarekin elkar-trukagarri direlako.

6.6.5.2. Moneta zentrala moneta bigarrendarren era komuna da

Edozein nazioren barruan dagoen ordena monetarioaren errepresentazio zehatza edukitzen da esanez, epealdi bakoitzean, produktu nazional 'monetizatua' moneta zentralean gordailatua dela edo, askotan, moneta bigarrendarretan, hauek moneta zentralaren era bakarrean gordailatuak edo isuriak izanik.

Hau guztia Banku Zentrala 'Maleta-Gordeleku Handia' balitz bezala gertatzen da, periodikoki produktuaren kontrapartidan isuritako baliodun tiket soilen jaulkitzailea eta 'tiket bigarrendarrak' 'tiket zentralen' 'irudi' egokiak izanik.

6.7. NAZIOARTEKO ORDAINKETEN DESORDENA

6.7.1. Nazio bakoitzaren moneta heterogeneoa da beste monetekiko

Ameriketako Estatu Batuetan, Banku Zentral batzuek elkarrekin lan egiten dute, 'Erreserba Federala' deritzon sisteman bilduta.

Dena den, herrialde gehienetan Banku Zentrala erakunde soila da, zeinaren 'bulegoak' lurralde nazionalean zehar hedatuta dauden.


Barneko ordena monetarioaren analisiak erakutsi du, Banku Zentralaren presentziak —'buru-anizkuna' izanik ere— herrialde bakoitzean moneta nazionalaren batasuna ziurtatzen duela.

Barneko moneten batasuna perfektua da, zeren banku bidarrendarrek jaulkitako edozein moneta moneta zentralaren 'molde' uniformean gordailatua baita.

Gaurko munduan ez dago inolako Banku Zentralen Bankurik. Horretatik moneta nazional desberdinek berain artean *heterogenoak* izaten irauten dutela ondorioztatzen da.


6.7.1.1. Banku Zentralen Bankuaren ezak moneta nazionalak heterogeneoak izatera kondenatzen ditu

Demagun herrialde berberaren moneta guztien baliokidetza-erlazioen ondoko piramidezko errepresentazioa.




b baliokidetza-erlazioak, moneta bigarrendar ezberdinen (1, 2, 3, ...) artean definituak eta gordailu-banku autonomoek jaulkiak, *a* baliokidetza-erlazioetatik ateratzen dira, *a* horiek moneta bigarrendar bakoitzaren eta moneta zentralaren artean ezarriak direlarik.

Munduak Banku Zentralen Bankua edukiko balu, mundu banku-sistema egonen litzateke, zeinaren planeta-bankua piramidezko erpina izango litzatekeen. Erakuts dezagun hori bi herrialdetarako.



Planeta-Bankutik herrialdeen gainera separatuki joaten diren baliokidetza--erlazioak baino ez ditugu oraindik errepresentatzen; Banku Zentralen Bankuaren moneta herrialde guztietan berbera izanik, baliokidetzen kategoria berria agertzen da, *kide diren herrialdeen moneta nazionalen artean* ezarria orain.

1 monetaren eta *B* herrialdearen moneten arteko baliokidetzak baino ez ditugu errepresentatuko.



Herrialde desberdinen moneten arteko *j* baliokidetzek zentzu sakona daukate; ezarriak direnetik, ez dago logikazko ezelako bereizketa egiterik barneko ordainketen eta nazioarteko ordainketen artean: orduan ordena monetario kanpo--ordainketetara hedatzen da.

Har dezagun kontuan moneten arteko baliokidetzaren definizio zehatza: esaterako m_1 delakoa m'_1-en baliokidea da, baldin eta soilik baldin bi monetetatik moneta baten edozein tituludunek beraren *deuseztapena* lor badezake eta *bestearen ordez jar*; zentzu hertsian, *bihurtzea* edo *konbertsioa* da, Moneten Etxean, lingote baten urre-txanponatuaren bihurtzea bezalaxe: metala funditu egiten da, beraren lehen forman desagertuz, txanponetan agertzeko.

Gogoratu dugunez, esanahi zehatzean, moneten balikokidetzak moneta konparatuen era komuna aurresuposatzen du. Banku Zentralen Bankua faltan egonik, moneta nazionalek beren artean heterogeneoak izaten irauten dute, denominadore komunaren faltan. Hortaz, erregimen monetarioen kontrakotasuna hautsita dago: ekonomien barnean uniformetasuna, kanpoan heterogeneotasuna.

6.7.1.2. Gaurko munduan, eta jasotako hiztegiak bestela esan arren, moneta nazional guztiak hertsiki ez-bihurgarriak dira

Herrialde bakoitzean, printzipioz desberdinak diren monetak —erabat autonomo diren erakundeek jaulkiak— moneta zentralean truke absolutuen sare orokorrari dagozkio, eragileen arabera moneta bakoitza libreki beste edozein moneta bihur daitekeeneko aukeran.

Nazioarteko transakzioetan monetak ez-bihurgarriak dira gaur egun.

Baina hiztegiaren eragina hain handia izanik, jende guztiak uste du moneta handiak bihurgarriak direla; diotenez, beraiek bihurgarri dira, trukeen merkatua baitago eta markoa (edo yena), kasurako, dolarretan libreki trukatua izan baitaiteke.

Baina izenaz mesfidati gara, baita ohiko definizioez ere. Zientzia zehatzetan, zer esan nahi du moneten bihurgarritasunak nazioarteko ordainketen esparruan?

Urre-patroiaren sistemak aparteko irizpidea ematen dio arazo honi. Ekonomia nazionalean zirkulatzen duten txanponak urrezkoak balira, epealdi bakoitzeko produktua bertan gordailatua izanen litzateke, 'edalontzi bitxi' batean gordea balitz bezala. Bereizi beharra dago ibilgailuzko moneta beraren zamatik, baita substantzia pribilegiatuak funtzio monetarioa egiten duenean ere. Produktuarekiko urre--monetak ez dauka moneta ez-materialduak baino ordainketa-ahalmen handiagoa; urre hutsezko metalezko gordailu-fitxa batek ez luke edukiko paperezko tiket batek baino ateratze-ahalmen handiago.

Hiru mende igaro ondoren, pentsalari onek ez dituzte monetaren bi balioak nahasten, hots, balio 'substantziala' eta kanpo-balioa. Bere funtzioaren praktikan, mone-tak, metalikoa zein bankukoa izanik, balio bakarra dauka 'ekintzan', bere erosteko ahalmenak osotua dena.

Hortaz, urre-patroiaren sistema ez da bere koalitateez moneta eskuratu nahiko litzatekeeneko sistema; are gehiago, moneta bitxiak moneta berak bere jabeei ematen dien ateratze-eskubidearengatik zirkulatzen du. Jardueran dagoen edozein monetaren balioa kanpokoa da soilik.

Orduan, esan al daiteke metal preziatua monetarekin lotzea soberan dagoen gertakaria dela? Ez; hipotesitan bederen, errenta eta kapital monetarioek erosteko ahalmenean egonkortasun handiagoa daukate txanponak urrearekin lotzen direnean. Monetari urre-edukia ematen dion legea *barne-bihurgarritasunetik* aterea izan daiteke.

Produkzioan jaulkia, produkzio-faktoreen ordainketan, monetak produkzio korrontea hartzen du zamatzat: ordutik aurrera, berak produktua *dauka*. Baina metal-urrea besteen artean produktua da. Honela, produktuarekiko monetaren balio egonkorra ote den jakiteko irizpide objektiboa lortzen da; nahikoa da, horre-tarako, unitate monetarioa daukan urre-kantitatea (fisikoki edo legearen arabera) merkatuetan unitate monetarioak aldiberekoki eros dezakeen urre-kantitatearekin konparatzea. Konparaketaren lehen aldea *monetarioa* da; bigarren terminoa *erreala* da, monetaren *produktu-edukia*. Irudi zuzena 'edalontziarena' eta berorren edukiarena da: ibilgailuzko moneta, produktu salgarria gordailatuta dagoen era da. Urre-patroiaren sisteman, moneta beraren eran urrezkoa da; eta, bestetik, beste edozein moneta bezala, produktu korronteen artean urrea dauka.

Baldin eta moneta-unitatea urrezko *gramo* batek osatzen badu, eta beraren erosteko ahalmena —eta beraren edukia— soilik 0,9 gramo urrek definitzen badu, herrialdean zirkulazioan dagoen monetaren jabeei *barne-bihurgarritasunak*, eskari soilean, 0,9 urre-gramo urre-gramo batean trukatzeko ahalmena ematen die.

Urre-patroiaren *banku*-sisteman (banku-monetak eduki legala metal preziatuan edukiz), argi dago bankuak direla aipaturiko bihurketaren gastuak gauzatzen dituztenak. Bankuak arriskuan jartzen dituenagatik, sistemak jaulkitzaileei zuhurtasuna derrigortzen die; ondorioz, monetaren balioari eusten ahalegintzen dira, hau da, beraren edukia eta proportzioaren berdintasuna mantentzera, merkataritzak, nekazariak eta industriak ekarritako ondasun errealei txanponen sortzea emanez.

Bihurgarritasunaren zentzua zehaztua da horrela: bihurtzeak ez du soilik erostea esan nahi. Izango al da marko alemana bihurgarri, beraren jabeek beren aukerarako dibisak erosteko aske direlako argudioa dela bide? Zientzia ekonomikoa hori baino sakonagoa da. Urre-monetaren bihurketa metal-urrean buruturiko truke *absolutua* da: urre-moneta metal-urrean aldatua da.

Baina urre-patroiaren sistema desagerturik dagoenez, zein zentzutan dira moneta nazionalak oraingoz bihurgarri? Tentaturik egon daiteke bihurgarritasunak azaleko zentzurik besterik ez duela esatera, trukeen merkatuetan libreki eskatuak eta eskainiak diren monetei leporatutako zentzua hain zuzen.

Nolanahi dela, zientzia ez da inoiz gauzen azaletan geratzen. Moneta nazionalak truke-merkatuetan soilik kontrastatuak eta ‘gurutzatuak’ badira, truke *erlatiboen* objektuak —eta ez benetako bihurketen objektuak— direlako gertatzen da hori.

Arazoa ez da semantika hutsezkoa: erabat ekonomikoa da. Marko alemana ez litzateke bihurgarri izanen dolarretan, kasurako, nazioarteko ordainketen sistemak truketako markoen *deuseztapena* eta beraien *birdefinizioa* dolarretan segurtatuko ez balu: orduan ‘alor homogeneo’ berberean egonen lirateke bi monetak, trukatutako eta deusezturiko markoen edukia produktu baliokidean eraldatua izanez, produktu berori ordezkatzearen bidez sorturiko dolarretako edukia izanik.

Beste era batera esanda, banku-moneta nazionalen kanpo-bihurgarritasuna, Banku Zentralen Bankuak herrialde kideen moneta guztiei bere monetaren uniformetasuna emanen liekeen egunetik aurrera soilik existituko litzateke. Bien bitartean, trukeek *erlatiboak* izaten segituko lukete.

Eta, oraintsu egiaztatu dugun moduan, truke *erlatiboetatik* truke *absolutuetara* igarotzeak nazioarteko ordainketen desordenatik ordenara igarotzea besterik ez du esan nahi.


Moneta nazionalen arteko heterogeneotasunak herrialdeetan desordena ikaragarria sortzen du, nazioarteko ordainketek aparteko 'substantzia-galtzeak' ekartzen baitituzte, 12. kapituluan ikusiko den bezala.

6.7.2. Dolar-patroiaren sistemak aurrezki exogenoen (herrialdeen ordainketa--balantzen desorekak sortuak) eraldaketa derrigortzen du euromonetetan

Kontrasta dezagun lehendabizi, zirriborro soil batez, kanpo-ordainketak moneten truke erlatiboen menpearen arabera —gaur egunean gertatzen den bezala— ala truke atsolutuen sistema berriaren menpearen arabera izango diren.

6.7.2.1. Truke absolutuak

Bi herrialde —*A* eta *B* (gainontzeko Mundua)— beren artean ari dira merkataritzan. Errepresenta ditzagun, epealdi konkretu baterako, bi herrialdeetan ekoitziriko errentak sinboloen bidez.



Zirkuluek eta karratuek gurutzeen bitartez irudikaturiko produktuen era monetarioa errepresentatzen dute.

Banku Zentralen Bankuak moneta nazionalen uniformatzea du helburu nagusi, bere monetaren era bakarra emanez.

Demagun nazioarteko monetaren sinboloa hauxe dela: 

Idatz ditzagun, nazioarteko monetari dagokionez moneta nazional bakoitzaren baliokidetza-erlazioak, etsenplu numerariorik sinpleenak aukeratuz.


(1) 1  = 1 

(2) 1  = 1 

Hirugarren baliokidetza induzitzen da.

(3) 1  = 1 


Herrialdeetan oraingoz saldu gabe dauden produktuak 'masa monetario' soil eta bakarrean daude edukirik.



Analiza ditzagun orain posible diren hiru irudi-kasuen inplikazioak, *A* herrialdea inportatzaile netoa, esportatzaile netoa edo beraren *merkataritza-balantza* —ekoitziriko ondasunen eta zerbitzuen erosketa eta salmentak— orekaturik izanik.

(a) *A herrialdearen inportazio netoak*.

A herrialdeak *B* herrialdearen aurrean bere inportazio netoen objektua den (+') produktuaren kontra mailegu-hartzeko titulua elkartrukatzen du.




Horrela, *A* herrialdeak nahikoa erosteko ahalmena dauka bere produktua, eta gainera *B* herrialdetik mailegaturiko produktua saltzearren.

(b) *Esportazio netoak*.

Aurreko kasuaren errepikapena da, *A* eta *B* herrialdeak aldatuz.

(c) *Merkataritza-balantza orekatua*.

A herrialdeak (+) produktua ematen du, eta (+') produktua lehengoaren ordez jartzen du (eta hori *n* aldiz) bere barneko errentaren edukian; demagun, $n = 1$ hartuz, azken egoera hauxe dela:




A herrialdearen errenta-monetan, (+') produktuak (+) produktuaren lekua hartu du; eta alderantziz *B* herrialdeari dagokionez.

Hiru kasuetan (inportazio netoak, esportazio netoak, eta kanpo-merkataritza orekatua) bi herrialdeen produktuak molde monetario berean isurtzen dira, alegia,

nazioarteko monetan; hortik ondorioztatzen denez, kanpo-merkataritzak, ezin du inoiz sortu desoreka ñimiñorik ere monetaren eta berak edukitzen duen produktuaren artean. Logikoki, argi dago horrela dela; baina, laster ikusiko dugun legez, dolar-patroiaren sistemak ez du errespetatzen oinarrizko logika hori.

6.7.2.2. Truke erlatiboak

Oraingo honetan, moneta 'nazionalek' beren artean heterogeneoak izaten segitzen dute, beren era komuna —beste modu batera esanda, nazioarteko moneta— faltan dagoela. Ulertu behar da hemen *A* monetaren era ('zirkulua') eta *B* monetaren forma ('karratua') *ez dagozkiela geometria berberari: beren artean ez dago inolako neurgarritasunik*.




Erakuts dezagun dolar-patroiak moneta nazional ezberdinak utzi ditueneko heterogeneotasunak edozein herrialdetarako hiru oinarrizko desordena ekartzen dituela, inportazioak edo esportazioak netoak diren ala kanpo-transakzioak orekatzen dituen arabera.

(a) *Dibisa-patroiak sorturiko desoreka herrialde inportatzaile netoan*.

Arrazoitu baino lehen, erakuts dezagun inportazio netoen emaitza *A* herrialderako, inportazioek errenta nazionalaren unitate bat berdintzen dutela suposatuz.

Baldin eta inportatzaile *netoek barneko* produktuaren azken erosketetan *A* monetako unitate bateko errenta gastatuko balute, errenta *deuseztatua* izanen litzateke, produktua errenta-jabeen hartzekoan monetatik gastatua izanik: bi errenta-unitatek besterik ez lukete iraunen, zirkulu (era monetarioak) bakoitza bere gurutzea (oraingoz salgarri diren ondasun eta zerbitzuak) edukiz.

Hala ere, inportatzaileek *kanpo*-ondasunak erosten dituztenez, horien errenta ez da eragiketan deuseztatua: jabeez aldatzen da soilik, aurrerantzean ez-egoiliarren (*B* herrialdeko esportatzaileak) eskuetan baitago. Hitz batez, horrek esan nahi du, *B* herrialdeko esportatzaileek *A* herrialdeko bankuetan inportatzaileek gastaturiko errentaren ainako gordailua ezarri dutela *A* monetan.



Ez-egoiliarren gordailua, beste edozein gordailu bezalaxe, herrialde onuradunaren merkatu finantzarioan mailegaturiko erabilgarria da:

A herrialdea
A errentako unitate bat
barneko mailegu-hartzaileak ◄——— kanpoko mailegu-emaileak

Orain arrazoiketa gara dezakegu; zenbait etapatan eginen dugu.

(i) *A* herrialdearen inportazioen ordainketa bere egoiliarrei dagokie, ordainketa horren banku-kontua kanpo-esportatzaileen onurarako kargatua delarik.
(ii) Inportatzaileek barne-merkatuan beren errenta gastaturik baleukate, *A* herrialdeko bankuek ateratze bakoitza erregistraturik edukiko lukete, aktibotik produktu gastatua aterata egonik, eta berorri dagokion errenta pasibotik.
(iii) Errepika dezagun aurreko proposizioa: inportazioen ordainketa ez-egoiliarren eskuetan gauzatua denez, ez zaio egozten ez *A* herrialdeko bankuen pasiboari ez aktiboari.
(iv) Honela truke erlatiboen oinarrizko biziora iristen da: nahiz eta inportatzaileek *gastaturik* eduki, beraien errentak osoki *etxeko bankuetan gordailatua izaten* segitzen du.
(v) Ez-egoiliarrei igorritako errenta *atzerrira transferitutako aurrezkia* da. Izan ere, inportatzaileen errenta transmititua da eta ez deuseztatua; *aurreratua* da berezko zentzuan: beraren bizitzak iraun egiten du, ez baita deuseztatua.
Produktu nazionala saltzearren, zeinaren inportatzaileek kanpo-ondasunak nahiago dituzten, *A* herrialdea beharturik dago atzerriari berak bere monetan osatu duen aurrezkia maileguz hartzeko, ez-egoiliarren gordailutzat eraturiko mailegua hain zuzen.
(vi) Bizioa larria da, herrialde inportatzailea zordundu egiten baita atzerrian, ez-egoiliarren hartzekoan, bere monetan osaturiko aurrezkia maileguz.

Ondorioa: Nazioarteko ordainketen gaurko sisteman, inportazio netoek aurrezkia definitzen dute herrialde inportatzailean; eta atzerrian bera maileguz hartzearren, aurrezki hori esportatzera behartzen dute.

Konpara dezagun salatu berri dugun oinarrizko desordena truke absolutuen sisteman egonen litzatekeen ordenarekin.

Truke erlatiboen sisteman, nazioarteko ordainketen desordena, inportazio netoen ordainketan jaulkituriko errentak *aurreztua* deneko jarduerak karakterizatzen du. Ondorioa berez dator: errenta ez-egoiliarren onurarako da aurreztua, zeintzuek kapital finantzario hori herrialde inportatzailearen bankuei maileguz ematen dioten.

Truke absolutuen sisteman, *ezein errenta ezin daiteke batera gastatua eta aurreztua izan*.

Inportazio netoen ordainketan jaulkitako errenta, bankuen arteko *konpentsazioen* menpe dago: beraz, beraren jatorrizko bankutik banku hartzekodunetara transferitua da. Etsenpluan, *A* herrialdeak bere errentaren unitate bat *B* herrialdera igortzen du, non bera deuseztua baita erosketa *B*-ren ekonomia barruan gertatu izan balitz bezala.

Azken egoera oso sinplea da:

(i) A herrialdeak errentaren bi unitate besterik ez du; logikoa da, inportatzaileek hirutatik bat gastatu baitute.
(ii) Beste aldetik, *B* herrialdeak errentaren lau unitate dauzka, *A* herrialdearen inportazioetatik etorritako errenta, mugimendu berean, berari dagokion produktuaren gastuetan deuseztua baita; berriro, logika errespetatu egiten da, herrialde esportatzailearen ekonomian moneta/produktua delakoaren egokitasuna afektaturik ez egonez.

Dibisa-patroiak, edo truke erlatiboen sistemak, logika eta ordena ezabatzen ditu, zeren, inportazio (netoen) ordainketan jaulkitako errentak, nahiz eta gastatua izan, iraun egiten baitu, horrela herrialde inportatzailearen bankuek beren barne-merkatuan adosturiko maileguen elikadura ilizitua osatzen dutelarik.

Kaltea nahiko handia izango dela pentsa daiteke; gainera, herrialde superabitdunen ekonomiara hedatzen da.

(b) *Herrialde esportatzaile netoen dibisa-patroiak sorturiko desoreka*.

Dolar-patroiaren menpe dagoen *B* herrialdeari buruz arituko gara orain.


Gogora dezagun ondoko sinboloaren esanahia:

$$\boxed{+'}$$


Sinbolo horrek *B* ekonomiaren (+') produktu-unitatea *B* moneta-unitatean ($\boxed{\ }$) gordailatua dela esan nahi du, hau da, *B* monetako unitate batean gordailuaren objektua den produktua *B* bankuetan.

Lehendabizi hauxe erabaki behar da: ea esportazio netoak, *B* monetan produktuko unitate bat berdintzen dutela suposaturik, produktuari eta berau edukita dagoen era monetarioari batera ($\boxed{+'}$) dagozkien, ala soilik produktuari (+').

Kanpo-ordainketen sistema ordenari balegokio, esportazio netoak *errentarekin* erlazionatuko lirateke eta ez soilik *produktu fisikoarekin*. Orduan, eragiketak ondoko eskemaren bidez garatuko lirateke:



Gauzen izaeraren arabera, eragiketaren bi aspekturen banaketak, bai mailegu finantzarioan (*B*tik *A*ra) eta bai ordainketa monetarioan ere (*A*tik *B*ra), Banku Zentralen Bankuaren eskusartzea behar du. Modu honetan adieraz dezakegu behar den emisioa.



———: fluxu monetarioa
.....: fluxu finantzarioa

Nazioarteko monetaren edo moneta internazionalaren (IM) emisioak, *B* herrialdeko monetako (BM) unitate baten baliokidea denak, ondoko egoera bikoitza sortzen du:

(i) *B* herrialdeko monetako unitatea, *B* herrialdeak —superabitdunak— nazioarteko monetan osaturiko gordailuaren objektua da.
(ii) Koerlatiboki, *A* herrialdea —defizitduna— *B* herrialdeko monetako unitate baten objektua den zorra hartzen du nazioarteko monetan.

Baldintza horietan, *B* herrialdearen esportazio netoen ordainketa *erreala* dela egiaztatzen da, eta ez *nominal* hutsa: *B* herrialdeari ordaintzen zaio, *bere errenta nazionalaren* bidez.

Banku Zentralen Bankua oraingoz eraturik ez dagoenez, nazioarteko ordainketen egungo sistemak jadanik herrialde inportatzaileari ezartzen dion akats berbera inposatzen dio herrialde esportatzaileari. Eman ditzagun zenbait baieztapen jarraian:

Lehen baieztapena. *Ekonomiaren barruan, produktu gastatuak ez bezala, esportaturiko produktuak ez ditu ordaintzen barneko errenta nazionalaren gaineko deskontuak*.

Froga berehalakoa da: *B* herrialdeari *A* herrialdeko monetan ordaintzen zaizkio bere esportazioak, eta ez bere barneko errentari dagokion zatiaren gastuaren bidez.

Egiazko da esportatzaileek, *A* herrialdeko monetan irabazitakoa utziz beren bankuetatik *B* herrialdeko moneta lor dezaketela, baina orduan *ad hoc* sorturiko *B*-ko moneta izanen da eta ez, inolaz ere ez, *B*-ko errenten gainean deskontatua.

Bigarren baieztapena. Errenten gainean ordaindua ez izanik, herrialde superabitdunak bere produktu fisikoa (+') esportatzen du eta ez bere errentaren zati bat ([+']).

Aipaturiko gertakaria lehengo baieztapenetik dator zuzen. Herrialde superabitdunak bere errenta —maileguz emanez— esportatuko balu, bere monetan izanen litzateke ordaindua; 'dibisatan' ordaindua denez, berak esportatzen duena 'objektu kontsignatua da, eta ez dagozkion kontsigna-tiketak'.

Hirugarren baieztapena. B bankuetan gordailaturiko produktua esportatua izanik, eta berari dagokion errenta esportatua ez izanik, B herrialdearen ekonomiak objekturik gabeko errentak ezagutuko ditu.

Aipaturiko sinboloen bidez azal daiteke desoreka hori:

	B herrialdea			
esportazio netoak baino lehen:	[+']	[+']	[+']	[+']
esportazio netoak eta gero:	[+']	[+']	[+']	[ ] (desoreka)

Desoreka *B* herrialdeko bankuetan irauten duen gordailu monetario batek karakterizatzen du, berorren objektua esportazio netoetan desagertu den bitartean.

Azken baieztapena. Errenta errealaren (3 [+']) gaineko errenta nominalaren soberakinak (4 [ ]) aurrezki bortxatua definitzen du, esportazio netoek sortua.

Dolar-patroiaren sisteman, urre-patroia baztertu ondorengo gaurko sisteman alegia, herrialde superabitdunak bere errenta *nominalak* ez ditu mozten bere esportazio netoak direla kausa; hala ere, barneko errenta *erreala* gutxitua da, ekonomia nazionalak ezin baitu bere produktuaren osotasuna kontsumitu. Horrela sorturiko desbideraketa, aurrezki bortxatua da: atzerrira (bera ordezkatu barik) ondasun bat emanez, *B* herrialdeko errentaren jabeek *errenta nominaleko* 4 unitate gastatu behar dituzte *produktuko* 3 unitate besterik ez jasotzeko.

Kaltea arina izanen litzateke, esportazio netoek induzituriko aurrezkiak hazkunde ekonomikorako baliabideak sortuko balitu; izan ere, irabazitako dibisei kontrapartidarako besterik ez die balio.

B herrialdeko bankua


Aktiboa	Pasiboa
dibisak 1 BM	aurrezki bortxatua 1 BM

Dibisetan ezarria, aurrezki exogenoa *esportatua* da: berak euromonetak sortzen ditu, hots, kapital antzuak, zeintzuen helburu bakarra interesak produzitzea den, paraleloki produkzio-arloa garatu gabe.

Ordainketen balantzaren oreka arakatu baino lehenago, atera dezagun lehengo kasuen irakaspen komuna, herrialdeen merkataritza-balantza positiboa izan zein negatiboa izan.

Inork ez du dudatan jartzen *B* herrialdeko ekonomian bere kanpo-merkataritzak sorrarazitako aurrezkia positiboa denik. Esportazio netorako zuzendurik, argi dago, barne-kontsumotik kendua dela, zeina ordutik produkzio osoarekiko murriztua den. Errentaren eta kontsumoaren arteko diferentziak aurrezki positiboa definitzen du.

Zailtasuna herrialde defizitdunaren aldetik agertzen da. Logikoa izanen litzateke, herri defizitdunean sorturiko aurrezkia *negatiboa* izatea. Orduan, *A* herrialdeak bere superabiteko erosketak *B* herrialdeak aurrezturiko errentaren bidez ordainduko lituzke.



Ordainketen ordena egokiaren arabera, aurreko eskema errespetatua izanen litzateke Banku Zentralen Bakuan jaulkiriko nazioarteko monetaren sisteman. Baina gaur egungo munduan, eskema horrek ez du irudikatzen gertakarien errealitatea. Defizitdun herrialdeko egoiliarrek *beren errenta monetarioak* beren inportazio netoen ordainketan igortzen dituzte. Kanpoan honela gastaturiko *A* herrialdeko errentek, bistan denez, ez dute edukitzen defizit-herrialdearen barne-produktuaren gastua: *hau da, beraiek ez dira kontsumigarri eta, beraz, beraiek ez dira kontsumituak izan*. Hemendik honako bi erlazio hauek atera daitezke:

Inportazio netoetan igorritako errenta = Errenta osoa – Barneko kontsumoa
= *aurrezki* ***positiboa***

Absurdua hortxe agertzen da: bi aurrezkiek —bata herrialde soberakindunean, (*B*), eratua eta bestea herrialde defizitdunean, (*A*)— *zeinu berbera dute*.

Aurkako zeinukoak balira, egoera orekatua izanen litzateke nonahi:

(i) Bi desoreka kontrakoen berdintasuna dela bide, eta hortaz, beraien sumaren nulutasuna;
(ii) herrialde soberakindunaren aurrezki positiboa herrialde defizitdunaren ekonomian *inbertitua* izanen litzaketelako gertakaria dela eta.

Dibisa-patroiaren sisteman, herrialde defizitdunaren aurrezkia *positiboa* denez, logikoki berak *negatiboa* izan beharko lukeen bitartean, bi desorekak *metagarriak* dira eta, batak bestea berrindartzen du, desagertu barik.

Desordenaren larritasuna apartekoa da, euromoneten masa kontrolaezin izugarria baitago jokoan.

Herrialde defizitdunak bere errenten zatia —positiboki aurreztua dena— igortzen du, atzerrian bere banku-sistemaren gaineko kredituaren eratzean: euromoneten kopuru baten lehen sortzea da, *kapitalean*.

Bere aldetik, herrialde soberakindunak bere produktu nazionalaren zati esportatua aurrezten du, zeina berak mailegu bihurtzen duen kanpo-merkatu finantzarioan: euromoneten kopuru baten bigarren sortzea da, *interesetan*.

Garrantzi handikoa da ulertzea zertan diren kritikagarri, zehazki, euromonetak; jadanik esan dugun bezala, *aurrezki antzuen* metapenetik datoz.

Ordena monetarioan, familietan ez bereganatzeko edozein aurrezki produkzio-arloan da *inbertitua*, berori, 'modernizatzeko'. Dibisa-patroiaren sisteman, herrialde superabitdun eta defizitdunetan kanpo-merkataritzari dagozkion aurrezkiak ez dira makina bihurtu, kapital baizik, zeinaren izaera pobretua den, *finantzario* hutsa baita.

Dibisa-patroiaren sistemaren desordena kanpo-merkataritza orekatu duten herrialdeetan hedatzen dela frogatzea falta zaigu.

(c) *Dibisa-patroiak sorturiko desoreka, beren merkataritza-balantza orekatzen duten herrialdeetan.*

Hemen, arazoa pixka bat zailagoa da; azal dezagun soluzioa.

A-ren eta *B*-ren arteko merkataritzaren orekak beren Banku Zentralen elkarrekiko zorpetzea dakar edo, are okerrago, beren banku-sistemena. Gaurko munduan, Banku Zentralen Bankua ez dagoenez, banku-sistemen artean eraturiko zorrak ezin dira ezabatuak izan, *ez-ordainketen* konpentsazioaren bidez ez bada.

Arrazoitu dezagun, urratsez urrats, gertakari horretatik abiatuz.

Elkarri aurkezturiko zorrak soilik dira ezabatuak, zein bere aldetik: beraz, *prozesuan ez da inolako monetarik deusezten*.

Hala ere, ondasun eta zerbitzu —inportatuak eta esportatuak— errealen elkartrukea efektiboa da:

\+ +’

A eta *B* herrialdeen elkarrekiko zorren konpentsazioa ordainketen bidez gauzatuko balitz, *A*-ren eta *B*-ren errentak trukatuak izanen lirateke, bata bestean, herrialde bakoitzaren esportazio-inportazioen neurrian; konpentsazioa baliogabetze soilaren bidez gauzatzen denez gero, herrialdeen errentek beren artean heterogeneoak izaten irauten dute; hots, *A*-k inportaturiko ondasunak ez dira sartzen *A* herrialdeko monetan, ezta *B*-k inportatutako ondasunak *B* herrialdeko monetan ere. Ondorioz, aipatutako egoerara iristen da, elkarrekiko esportazioak eta ez-ordainketen konpentsazioa kontuan edukiz:

A herrialdea		B herrialdea		
\+	\+	+’	+’	+’

Elkarrekiko berdinak izanik ere, herrialde bakoitzaren esportazioek beren ekonomian oraingoz erabilgarri diren errenta nominalen eta banatzeko gelditzen diren ondasun errealen desoreka positiboa sortzen dute: horrela, errentaren jabeek beren erosteko ahalmenaren zati bat galtzen dute:

(i) A herrialdean, errenta nominaleko 3 unitate behar dira 2 ondasun erosteko;
(ii) B herrialdean, errenta nominaleko 4 unitate gastatu behar dira 3 ondasun eskuratzeko.

Ondorioa hauxe da: dibisa-patroiaren sistemak, kanpo-merkataritza orekatua deneko herrialdearen moneta/produktu erlazioa perturbatzen du bere ekonomiaren barnean. Esan daiteke, herrialde orekatuetan errenta nominalen eta errenta errealen artean sorturiko desbideraketak ‘barneko eurokapitalak’ sorrarazten dituela —hau da, kapital finantzario hutsen metaketa ez-inbertituak eta, beraz, antzuak— esportazio konpentsatuen kopuru osorako.

Truke erlatiboek induzituriko desoreka inongo ekonomiak ezin du alboratu, ezinezkoa baita herrialde baten merkataritza-balantza ez izatea ez orekatua, ez positiboa, ez negatiboa: kasu guztietan, kanpo-ordainketan netoak —positiboak edo negatiboak— edo konpentsatuak izanik, dolar-patroiaren sistemak inbertsioari ihes egiten dion aurrezkiaren eratzea derrigortzen du.

Eurokapitalen eratzearen printzipioari dagokionez herrialde guztiak berdinak badira ere, truke erlatiboen sistemari dagokion beste desorekaren arabera erabat bereizten dira.

6.7.3. Dolar-patroiak moneta nazionalen kanpo-statusaren asimetria derrigortzen du, monetak 'erreserba-monetan' izatearen ala ez izatearen arabera

Baldin eta, Banku Zentralen Bankuaren ezean, moneta nazional desberdinak oinarrizko berdintasunean egonen balira, nazioarteko ordainketen desordena berdinkideki banatua izanen litzateke, beraren ekonomia orokorrerako desordena herrialde bakoitzaren kanpo-transakzioen garrantziari dagokion araberakoa izanez.

Ongi ulertzen da, esate baterako, Estatu Batuetako dolarra eta Italiako lira ez direla inoiz izango bi 'moneta berdin'. Hortaz, moneten berdintasunak zentzu zehatza du, ekonomia nazionalen garrantzi konparatutik at.

Moneten statusa nonahi da berbera, baldin eta kanpo-ordainketak, netoak eta konpentsatuak, arau bakarraren menpekoak badira, arau hori mundu-merkaritzaren kide guztiei, bereizketarik gabe, aplikagarria izanik.

Ekonomia nazional baten barruan, ba al daude aberatsak eta txiroak ordainketa-arau desberdinen menpe?

Hain zuzen ere, dolar-patroiaren sisteman, desordenak ez dauka eraginik bere moneta 'erreserba-aktibo'-tzat kontsideratua daukan *herrialdean*. Asimetria erabatekoa da: alde batetik salbuespena, bestetik, ordainketa-zordunen zama bikoitza.

Muga gaitezen merkataritza-balantza defizitdunen kasuaren asimetria salatzera.

Jakina denez, Estatu Batuek nazioarteko erreserba-moneta jaulkitzen dute.

Aurrean, beste herrialde defizitdunak daude, nazioartean zeinek bere moneta nazionala derrigortu ezinean; okerrago oraindik, nazioartean ez *erreserba ofizialetan* —Banku Zentralen edoAltxor Publikoen dibisetan kobratuak— ez *erreserba pribatuetan* —entrepresa handien, multinazionalen altxortegiak— ez da jazotzen iraunkorki inolako moneta nazionalik.

Ongi ikusten da desordena larriago bihurtzen dela dolar-patroiaren sisteman, Estatu Batuak gainontzeko beste herrialdeekiko beren kanpo-defizitetik 'garbi' agertzen baitira.

6.7.3.1. Urtero-urtero, Estatu Batuek gainontzeko munduari maileguz hartzen diete beren kapitalen balantzaren defizita eta, gainera, beren merkataritza--balantzaren defizita ere

Kapitalen mugimenduari dagokionez, nahikoa ezaguna da bere kanpo-mailegu netoak dituen herrialdeak bere barne-ekonomiaren finantzaketa hornitzen duela, baita bere aurrekontu-defizita ere, egiazko atzerritar laguntzaren bidez.


Harrigarria da munduko herrialderik aberatsena esportatzen duena baino kapital finantzario gehiago inportzeko murrizturik egotea. Kapitalen balantzaren konturako, Estatu Batuak eskatzaile superabitdun bihurtu dira; baina logikaz, aurreratuen dagoen kapitalismoak, kapitalak esportatu beharko lituzke.

Hala ere, anomalia ez da hor gelditzen; bigarren faktorea gehitzen zaio, gutiago azpimarratua izan ohi dena, baina kezkagarriagoa dena: *halaber, Estatu Batuak kapital finantzarioen mailegu-hartzaile netoak dira beren Merkataritza-Balantzaren konturako*.

Bigarren finantza-defizit hau (1985ean kasu, 2.10^{11} dolar urteko izatera ailegatu zena) ez da kontuan hartzen ohiko analisian, zeinak, sinestezinezko sinplekerian, baieztatzen baitu edozein ordainketa dolarretan eginez ordainketa betea eta egokia dela, amerikar moneta 'dibisa sendoa' izanik.

Baina, arazoa ez datza, beste moneten artean, moneta nazional baten barneko kualitateen estiman; zentzuzko erregela herrialde guztientzako berbera da, aberatsak izan zein txiroak izan: inongo herrialdek ezin ditu logikoki zorrak garbitu *bere banku-monetan*.

Estatu Batuetan inportazio netoen 'ordainketak' gainontzeko herrialdeei dolarrak iritsarazi dizkie, zeintzuek, banku-monetaren definizioarengatik berarengatik, beren jatorrizko bankuetan gordailaturik irauten segitzen duten halabeharrez.



Edozein moneta, bere azken deuseztapena iritsi arte, bere banku jaulkitzailean gordailaturik egotearen legeak *ez du ezelako salbuespenik onartzen*.

Estatu Batuen aurrean, dolar baten jabe den edozein ez-egoiliarrek dolar hori 'irten' deneko bankuan mantentzen du. Lotura zeharkakoa izan daiteke, ez-egoiliarren kreditua 'banku txandakariek' (edo 'eurobankuek') induzitua izan daiteke; kasu horretan, jatorrizko bankuaren zorrak txandakarien *txandako* katea zeharkatzen du azken jabea den ez-egoiliarrarengana iritsi arte.

Errepika dezagun oinarrizko argudioa: dolarra moneta materiala izanen balitz, beraren onuradunengana —batez ere atzerritarrak— iritsiko litzateke, eta *beraien ondaretan gordailatua* izanen litzateke, saltzailea bere aldetik erosle bihurtuko den unera arte. Moneta *desmaterialdua* beste logika bati jarraitzen zaio: bankuen edo agenteen borondatea edo nahi ona edozein delarik ere, banku-moneta ezin daiteke beraiengana irits, *berehala erretiratua* izateko ez bada.

Banku-moneta izanik, analisiak distantzia bera eduki behar du ondoko bi baieztapen okerretatik:

(i) Jasotako monetak onuradunen hartzekoan iraun dezake;
(ii) baina egiazkoa balitz bera gai ez dela, orduan ordainketak zuzenki *titulutan* eginak izanen lirateke eta ez monetatan.

Bi proposizioak zuzendu behar dira; izan ere:

(a) Edozein bankuk bat-batean gordailutan berrartzen du berak ekonomian jaulkitzen duen moneta;

(b) dena den, *ibilgailuzko* monetaren existentzia ordainketaren *sine qua non* motako baldintza da, hartzekodunak jasotako titulua moneta kobratu eta gordailatuaren 'kontramarka' besterik ez izanik.

Honela, bankukoa izanik, amerikar egoiliarrek beren atzerritar kideei emandako edozein dolar amerikar bankuetan bat-batean *itzulia* da, bera bertan gordailatua baita.

Dei dezagun 'gordailua*' amerikar bankuetan Estatu Batuetako ez-egoiliarrek gordailaturiko dolarren multzoa. Gordailu soilak osatzen dituzten dolarrak egoiliarren arazo dira. Bi oinarrizko ezaugarri bereizten dira 'gordailuak*' gordailu soiletatik.

(a) *Lehen desberdintasuna*.

(i) Egoiliarren gordailuek objektutzat amerikar produktu nazionala daukate, eta produktuaren ateratzean edo gastatzean desagertzen dira, periodikoki berragertzeko produkzio berri bakoitzeko unean.
(ii) Ez-egoiliarren gordailuak, edo 'gordailuak*', *ez dira atereak amerikar produktuaren gasturako*, zeren, definizioz, Estatu Batuen merkataritza-balantzen metaturiko defizitei baitagozkie.

(b) *Bigarren desberdintasuna*.

(i) Egoiliarrek gordailuak maileguz ematen dituzten neurrian, gordailu-bankuak *bitartekari finantzarioak* dira eta, hortaz, interesak zor dituzte.

(ii) Ez-egoiliarren euromoneten merkatuan ‘gordailatuak*’ maileguz ematen dituzte eta ez etxeko amerikar bankuei, zeintzuk, *de facto*, interesen ordainketatik deskargatuak diren.

Laburbilduz, dolar-patroiak Estatu Batuei beren egoiliarren kanpo erosketa netoak finantzatzen uzten die, gainontzeko munduaren kalterako amerikar bankuek kausarik gabe gauzatzen dituzten irabazien bidez. ‘Gordailutan*’ osaturiko dolarrak *ez ditu galtzen amerikar banku-sistemak* eta gainontzeko munduari bere esportazio netoengatik soilik interesetan ordaintzen zaio; are gehiago: *interes horiek ez dira kargatzen etxeko amerikar bankuetan, gainontzeko Munduaren mailegu hartzaileetan baizik.*

Erakutsi berri dugunez, dolar-patroiaren aparteko pribilegioa gozatuz, Estatu Batuek ez dituzte beren merkataritza-defizitak ordaintzen, *beren bankuei* baizik, ez-egoiliar kreditatuen bitartekaritzaren bidez; *gainera beste herrialdeek* ***bi aldiz*** *ordaintzen dituzte beren merkataritza-defizitak.*

Ez da hau lekua dolar-patroiaren sistemak gaur egunean herrialde zorpetuetan sarrarazten dituen zailtasunak, eta zenbait okasiotan miseria ere, aztertzeko. (Ikus, dena den, Schmitt 1973;1975a;1977a;1984b; 1985c;1987a,b,c; 1988b; 1989; Schmitt eta Cencini 1991.)

Muga gaitezen kaltea bere sustraian salatzera.

Nahiz eta moneta nazionala nazioarteko elkarte ekonomikoak estima txikian eduki, zorpetze-bidean dagoen herrialdeak epealdi osoan bere barneko errenta sakrifikatzen du, bere kanpo-defizitaren maila zehatzean.

Zorpeturiko herrialdearen monetak erreserba-monetaren statusa ez duenean, kanpora *isuritako* errenta *erabat galdua* da: berak herrialdea *zeharkatzen* du, Estatu Batuen defizitaren ordainketan isuritako errentak amerikar bankuen gordailuetan —zehazki ‘gordailuetan*’— osorik berraurkitzen diren bitartean.

Egia da, zorpeturiko herrialdeen errentak, beraiek ere, bat-batean itzultzen direla beren jatorrizko bankuetara. Baina injustizia baieztatzen da, dolarren birfluxua ez baita truke-eragiketa, zeren, ‘gordailuen*’ eraren azpian, dolarrak erreserba ofizialetan eta pribatuetan finkaturik gelditzen baitira, beste herrialdeak *truke-merkatuan berriz monetak berrerosteko beharturik baitaude, hori halabeharrez zorpeturiko moneta nazionalaren depreziazioa dakarren eragiketa izanik.*

Honela, ba, Nazioarteko Komunitatearen erreserbetan onartzen ez den monetari dagokion edozein herrialderen kanpo-zorpetzea bikoitza da:

(i) *Egoiliarrek* inportazio netoen ordainketari dagozkion beren errenten zatiaren sakrifizioa egiten dute, truke-merkatuen 'herriratu'riko errentak deuseztatuak izanik;
(ii) *Herrialdeak*, bere aldetik, bere moneta nazionalaren debaluazioa jasaten du.

Errepika dezagun terapeutikaren printzipioa:

Nazioarteko ibilgailuzko monetaren emisioa berbera izanik, Banku Zentralen Bankuak herrialde guztiak, apal izanik ere, beste edozeinek daukan maila berean jartzen ditu, kanpo-ordainketen arauketari dagokionez.

Ekonomia nazionalaren barruan, izango al dute erregio 'aberatsek' gainontzeko herrialdeetatik datozen beren 'inportazioen' ordainketa egiteko salbuespenik? Eta, izango al dira behartuak gutxien garaturiko erregioek beren kanpo-erosketak birritan ordaintzera?

Sinetsarazi egingo digute aberatsek eta txiroek ezin dutela moneta berbera erabili. Baina, moneta bat ibilgailua —neutroa definizioz— besterik ez da, zeinak eragile bakoitzari berak monetari ematen dion emariaren kontrapartida zehatza itzultzen dion. Amerikar moneta ez da beste edozein moneta baino 'ibilgailuzkoagoa'. Banku-moneta guztiak edo moneta ez-materialak berdinak dira, eta ahalik eta arinen bukatu beharra dago, Estatu Batuen dolarra —eta, maila tipiagoan, beste zenbait moneta pribilegiatu— beste monetak baino 'berdinago' deneko sistemarekin.

Kanpo-ordainketen ordenari dagokionez, herrialde bakoitzak bere moneta nazionala jaulkiko du *bere esportazio-inportazio elkartuen ordainketan*. (Itzuliko gara aurrerantzean arazo horretara.)

Argi dago Estatu Batuen kanpo-merkataritza herrialde txiki baten merkataritza baino handiagoa dela; beraz, herri txikiaren moneta mundu-merkataritzan era ahulean egonen da errepresentaturik.

Hala ere, erregela berbera izanen da herrialde guztientzat: moneta nazional bakoitzak 'moneten saskian' hertsiki bere emisioaren herrialdearen kanpo-merkataritzaren garrantzi erlatiboaren arabera daukan lekua.

Ikus dezagun dolar-patroiaren azken oinarrizko bizioa.

6.7.4. Dolar-patroia truke erlatiboen eta erratikoen sistema da

Paradoxikoki, trukearen eta berorren fluktuazioen arazoa jendeak ongi ezagutzen duen arazoa da, eta, hala ere, ulertzeko duen zailtasuna —ez teknikoa, kontzeptuala baizik— dela eta, teorialariak ez dira gai arazo horren izaera ongi argitzeko.

Lan-egun guztietan, urteak direla, edozein herrialde handik, Italia zein Austria, dolarraren osasunezko buletina ikusten du egunkari, irrati eta telebistetan, mundu osoko finantza-merkatuetatik datorrena, Zurichetik New Yorkera, Tokyotik Hong Kongera. Hauxe da amerikar monetarekiko gure menpekotasunaren froga.

Jendearen kontzientziarantz ondoko bi egiak beren bidea topatu beharko lukete: dolarrak ez direla bileteak, ezta berdeak ere; beste aldetik, beste edozein banku-moneta bezalaxe, dolarrak ez-material hutsak direla, nahiz eta beraien kanpo balioa truke *absolutuek* (eta ez truke erlatiboek) gidatzen duten: dolarraren eguneroko balioa ez da interesgarria bat ere, nazioarteko gaur egungo sistemaren gaixotasun kronikoaren adierazgarri modura ez bada.

6.7.4.1. Dolarrak ez dira bileteak, ezta berdeak ere

Inork ez luke baztertu behar dolarraren kolorea; jende guztiak uste du paper berdezko moneta dela, zeinaren 'haginak' izugarrizkoak diren.

Izatez, 'bilete berdeek' bereziki nazioarteko espazioan, zirkulazioan dagoen dolarren masaren zati ia mesprezagarria osatzen dute. Edozein banku-moneta bezala, dolarra kolorerik gabekoa da, bera moneta 'desmaterialdua' baita. Edozein 'bilete berde' bere jatorrizko bankuan egoitza duen 'egiazko dolarra' izendatzen duen ziurtagiria da.

6.7.4.2. Logikoki, moneten trukea ez da trukeko eragiketa soila

Dolarra moneta nagusia, inperiala, da gaurko mundua truke erlatiboen menpe dagoelako soilik, hots, monetak truke-merkatuetan azken ondasunak balira bezala erabiliak direlako.

Gogora dezagun urre-patroia truke *absolutu*en sistema dela.

Nazioarteko ordena monetarioa berrezar dadinetik, dolarra ibilgailua besterik ez da izanen, beste edozein banku-moneta legez, eta beraren kanpo-'balioa' *finkoa* izanen da.

Ez ditugu truke absolutuak eta finkoak nahasten. Izan ere:

(i) Gaurko munduan truke *erlatiboak* ezin daitezke finkoak izan eta, izango balira ere, biziozkoak izanen lirateke, ilogikoa baita ibilgailuzko monetak truke-merkatuetan azken ondasunak balira bezala kotizatuak izatea.
(ii) Truke absolutuen sistema, *euroari* esker, berraurkituriko finkotasunarena izanen da.

(Europako moneta komuna —euroa— eta kanpo-zorra analizatzean itzuliko gara nazioarteko moneten desordena aztertzera.)

7. Analisi ekonomiko berria eta Keynes-en irakaspenak

> "*Human effort and human consumption are the ultimate matters from which alone economic transactions are capable of deriving any significance; and all other forms of expenditure only acquire importance from their having some relationship, sooner or later, to the effort of the producers or to the expenditure of the consumers*."
>
> John Maynard Keynes, *A Treatise on Money*

Demagun *p* eskaintza osoa eta *q* eskari osoa direla, produkzio-epealdi berberako. Ikusiko dugunez, *p*-ren eta *q*-ren arteko erlazioa *identitatea* da, Keynes-en *Treatise* eta *General Theory* liburuetan ikus daitekeen bezala. Identitatea ez da tautologia; aitzitik, jadanik Keynes-en lanetan, eskaintza eta eskari osoen identitatea informazio positiboa eta garrantzitsua dela ikusten da.

Nahiz eta *p* eta *q* identitate baten terminoak izan denbora osoan, 'identitatearen barruan' *q p* baino handiagoa izan daiteke (inflazioa) edo *q p* baino handiagoa (langabezia, deflazioa). Are gehiago, aurreko desoreka biak batera egon daitezke (stagflazioa).

Makroekonomia kuantikoak (Schmitt 1984a) produkzioaren kostu sozialen ordainketa eskaintza osoa dela erakusten du, eta 'beranduago' gastatuko diren errentak ordainketa horrek definitzen dituela. Errenta horien gastuak ekonomia osoak eskaintzen duen outputa ematen die tituludunei. Honela egiaztatzen da eskaintza osoa bat-batean eskari osoa dela, errentaren tituludunek berehala output berriaren osotasuna bereganatzen baitute. Eskaintza osoak, produkzio-kostu nazionalen ordainketa modura definitua, berriki produzituriko output fisikoaren jabetza monetatan ematen die eragileei. Eskaintza osoa aldiune berean eskari osoa dela ikus daiteke, errenta tituludunek produktu berri osoa bat-batean eskuratzen baitute, inolako denbora-luzapenik gabe. Errenta monetarioen *sormena* output berriaren lehen eskaria da; errenta monetarioen *gastatzea* output berriaren bigarren eskaria da. Identitatearen arabera, ekonomiaren output osoa birritan eskatzen da —lehendabizi monetatan bigarrenean naturan— outputaren termino errealetan.

Errenta berriek output berria berdintzen dute; eskaria positiboa da, output berria jadanik presente baitago produkzio-faktoreek irabazitako monetan. *p*-ren eta *q*-ren identitateak esan nahi duenez, eragileak outputa dute hasiera-hasieratik era monetarioan. Errentak azken erosketetan gastatuak izanen ez diren bitartean, eskari

eta eskaintza osoek lotuta irauten dute. Hau da, eskaintza eta eskari osoen identitate iraunkorrak denboran zehar segitzen du. Identitate horren garrantzia apartekoa da, berak baldintzatzen baitu zientzia ekonomikoaren gorputz osoa.

Treatise on Money delakoan honelaxe dio Keynes-ek:

"*Errenta. Ondoko hiru adierazpenek gauza bera esan dezaten proposatzen dugu: (1)* ***gizartearen errenta monetarioa;*** *(2)* ***produkzio-faktoreen irabaziak;*** *eta (3)* ***produkzioaren kostua****; eta* ***mozkinak*** *terminoaz, output korrontearen produkzio-kostuaren eta beronen benetako salmentaren arteko diferentzia adierazi nahi dugu, honela definiturik mozkinak gizartearen errentaren parte ez direlarik*" (1930, I. lib., 111 or.).

Are gehiago,

"*Berezikiago honakoak sartzen ditugu errentan:*

(a) Alokatuei ordainduriko alokairuak eta soldatak, barne-langabetuei, partzialki enplegatuei edo alokatu pentsiodunei (hauek industrian epe luzean zama izanik, produkzio-faktoreei ordaintzeko beste gastu batzuk bezalakoak dira) egindako edozein ordainketa.

(b) Entrepresariei ordain normala.

(c) Kapitalaren gaineko interesa (barne- eta kanpo-inbertsioetatiko interesa).

(d) Monopolio-irabaziak, errenta eta antzekoak" (ibid. 111 or.).

Hau da, alokairu zuzen eta zeharkakoak, entrepresarien ordainsariak, interesak eta monopolio-irabaziak dira produkzio-kostu osoa definitzeko erabiltzen diren errenta objektiboaren osagarriak.

Bere *General Theory* delakoan, bi ekonomialari handirekin —F. A. Hayeck eta D. H. Robertson— izandako eztabaida sakona eta gero, errenta nazio-nalean mozkinak sartu zituen Keynes-ek.

Kontua da, 'mozkinak' terminoa bi adiera desberdinetan dela erabilia *Treatise*-n eta *General Theory*-n.

Treatise-n agertzen direnek —'*windfall profits*', hots, uste gabekoak— erosteko ahalmenean eginkizun garrantzitsua jokatzen dute. Izan ere, erosteko ahalmenaren egonkortasuna uste gabeko mozkinen baliogabetasunean datza (Keynes, 1930, I. lib., 141 or.). Alegia, *Treatise*-n definituriko mozkinak gastu inflazio-eragileei dagozkie: "*Qren gehitze edo murriztea izan dezakegu, mozkin osoa zeroren gainean*

edo azpian, inbertsioaren balioaren eta aurrezkien arteko desberdintasuna dela-eta. ***Mozkin*** *horri inflazioa (edo deflazioa) deritzogu*". (ibid. 140 or.).

Mozkinen eite inflazio-eragile hori errenta nazionalaren Keynes-en definizioan zegoen jadanik. Produkzio-kostutik mozkinak kenduz, Keynes-ek ez-errentatzat hartzen ditu esplizituki. Errentaren parte ez direlako, mozkin positiboak edo negatiboak desoreka monetarioaren kausa dira. Beraiek produzitutako edozein errentarekin inolako harremanik ez duen diru-kopurua dira, beraien existentziak berak diruaren erosteko ahalmenerako beharrezko ondorioa edukirik, erosteko ahalmenaren oreka diru eta errentaren erabateko korrespondentziari dagokiolarik. Are gehiago, errenta faltsu horren gastuak errenta bera deuseztatu barik, bere iraupenak ziurtatzen du: horrelako mozkinen bat gastatzen den bakoitzean, kopuru bereko mozkina sortzen da. Prozesu horrek amaigabe segitzen du, etengabeko katean, Keynes-ek deituriko 'alarguntsaren pegarra' —'*widow's cruise*'— delakoan (ibid. 125 or.).

Azpimarratu behar da, beraz, Keynes bere *Treatise*-n mozkinen mota berezi batez arduratu zela, zeintzuen existentzia desoreka monetarioaren sintoma den, hots, sistemaren egoera patologikoarena. Inflazioa eta deflazioa, mozkin eta galera, horien existentziari dagozkio. Schmitt-ek *kanpoko* mozkinak izenaz deritze mozkin-mota hauei (Schmitt eta Cencini 1982).

Kanpoko mozkinak definitu eta gero, Keynes-ek aparteko erasoa jaso zuen, Hayeck eta Robertson-engandik bereziki. Egoera hori gainditu nahirik, errentaren analisia lerro berrietatik adierazi zuen, *Treatise*-n ukitu ez zituen beste mozkin mota batzuk ikertuz, Schmitt-ek *barneko* mozkinak deiturikoak (Schmitt eta Cencini 1982).

Schmitt-en *barneko* mozkinak errentak, dibidendoak eta monopolio-irabaziak osatzen dituzte, zeintzuk ez dagozkion inolako produkzio-kostu zuzenari. Kanpoko mozkinak ez bezala, barneko profitak errentaren parte dira eta beraien existentziak ez dakar ekonomiaren ezelako egoera patologikorik. Horiexek dira Keynes-ek *General Theory* delakoan arakatu zituen mozkinak. Beraz, bi lan erraldoi horietan, errenta definitzean, lanak ez dagozkio objektu berberari. Izan ere, *Treatise*-k desoreka patologikoak (inflazioa eta deflazioa) dituen sistema analizatzen du, *kanpoko* mozkinak ikertuz, zeintzuk errentaren definizioan sartzen ez diren. Beste aldetik, *General Theory*-k estudiatzen duen sisteman ez dago inolako desorekarik, errentak *barneko* mozkinen balioa integratzen baitu.

Ondoko errentaren bi definizioak, (1) eta (2), ez dira kontraesankorrak:

(1) $E = K + I$ delakoak (non E, errenta osoa; K, kontsumorako ondasunak egitean eskuratzeko errenta; eta I, inbertsio-ondasunak egitean eskuratzeko errenta diren) errenta neurtzen du inflazio-eragile edo deflazio-eragile tartekorik ez dagonean;

(2) $E = K + A$ (non A aurrezkia den; $A = I - Q$ izanik; I inbertsioa eta Q mozkinak), alegia, E = K + A = K + I – Q delakoak errentaren balioa errepresentatzen du, desoreka batek, Q = I – A, diruaren erosteko ahalmenari eragiten dionean.

Nahiz eta desberdin izan adierazpen sinbolikoetan, bi neurriek emaitza numeriko berbera ematen dute.

7.1. KEYNES-EZ GEROZTIK, ESKAINTZAK p ETA ESKARIAK q EZ DIRA INOIZ ELKARREKIN EGOKITZEN

Keynes-en testuak aipatuz, erakutsiko dugu eskaintza eta eskari osoen arteko inolako desberdintasunik ez dela gertatzen, ezta ezelako aldiunean ere, hots, ez dagoela inolako egokitzerik bien artean.

Demagun *N* dela outputaren prezioaren maila orokorra; "*bera hiru faktorek determinatzen dute erabat: (i) E, produkzio-faktoreen irabazi monetarioek, (ii) O, output korrontearen bolumenak, eta (iii) I - S, aurrezki-kopuruaren eta inbertsio-kopuruaren arteko erlazioak*" (*Treatise* I, *Collected Writings*, V, 231 or.).

Beraz, output osoaren prezioa hauxe dela idatz daiteke:

$N = E + I - S$.

Produkzioa bere faktoreei ordaindu zaien bezain laster, output osoaren prezioa ezaguna da: *E* da, faktoreei ordainduriko kopurua. Egia da, *Treatise* liburuaren autoreak dioenez, *I*-ren eta *S*-ren arteko diferentzia kontuan eduki behar dela; baina ez inbertsioa (*I*), ezta aurrezkia (*S*) ere, ez datoz inongo aldiunean inolako egokitzearen emaitzatik.

Hiru magnitudeak (*E*, *I* eta *S*) ondoko hiru faktoreek besterik ezin dituzte eragin: 'faktore monetarioak', 'inbertsioari dagozkion faktoreak' eta 'faktore industrialak' (*Treatise*, I, 231 or.).

Faktore monetarioek parte hartzen dute monetaren eskaintza enpresen finantzaketa-beharrak betetzeko egokia ez denean: "*enpresariek erabilgarri duten moneta-eskaintza ez dago orekan berek behar duten kopuruarekin*" (ibid. 232 or.). Kasu honetan, kontua ez da monetaren eskaintza eta eskaria parekatzea; aitzitik, enpresek eskaintza onartzen dute eta beren gastuak 'egokitzen' dituzte, inbertsioaren gainekoak batez ere. "*Orduan aldaketa eta egokitze batzuk gauzatzeko joera bat egongo da, zeinaren lehen etapa seguraski inbertsio-tasaren perturbazioa izanen den*" (ibid. 232 or.). Inongo kasutan monetaren eskaintzak ez du parekatzen monetaren eskaria; inolako kasutan inbertsioak ez du aurrezkia parekatzen: eskaintza eta eskariaren arteko egokitzeak ez dira existitzen.

Inbertsioari dagozkion faktoreak interesaren 'merkatuaren tasa' eta interesaren 'tasa naturala' desberdinak direnean gauzatzen dira (ibid. 232 or.). Tasa horien diferentzia ez dagokie eskaintzaileen eta eskatzaileen arteko jarrerei, eta eskaintzen eta eskarien interakzioa ez da gai desberdintasuna murrizteko. Izan ere, merkatuaren tasa aldatu egiten da faktore monetarioek fondo mailegagarrien merkatuan sorturiko baldintza berrien arabera (ibid. 232 or.). Tasa naturalari dagokionez, tasa hori sentikorra da inbertsio-erakarpenari eta aurrezkiari eragiten dien aldaketen arabera (ibid. 232 or.). Hitz batez, bi tasak faktore objektiboen arabera aldatzen dira, eragileek eta horien jarrerak baldintzatzen dituzten datu exogenoen arabera; berriro, logikak eskaintzen eta eskarien arteko egokitze-idea guztiak baztertzen ditu.

Faktore industrialei dagokienez, faktore horiek ez dute sortzen beste bi faktoreen ondorioetara murrizten ez den ezelako desorekaren garapenik (ibid. 234 or.).

General Theory liburuan, eskaintza/eskariaren egokitzeak indar berberaz dira baztertuak. Honela, 19. kapituluan, Keynes-ek ukatu egiten du, kurba partikularretatik abiatuz eskari osoaren kurbarik eraiki daitekeenik, nahiz eta azken hauek marraztea posible izan, industriaz industria, "*zeren industria ezberdinei dagozkien eskari-kurbek beste industrien eskaintza- eta eskari-kurbeei buruzko hipotesietan oinarritzen baitira, bai eta eskari efektibo osoaren kopuruari buruzkoan ere. Formalki debekaturik dago, hortaz, argudioa industriari bere osotasunean aplikatzea, une berean eskari efektibo osoa konstantea delako hipotesia aplikatzen ez bada. Hipotesi honek argumentua* ***ignoratio elenchi*** *delakora murriztuko luke*" (*Collected Writings*, VII, 259 or.).

General Theory-ren 21. kapituluan, Keynes ekonomian eskaintzaren eta eskariaren arteko interakzioari dagokion leku zehatza argitzen saiatzen da. "*Ekonomialariak Balioaren Teoriari lotzen zaizkion bitartean, prezioak eskaintza eta eskariaren egoerak determinatzen dituela erakutsi ohi dute; (...) Baina II. bolumen batean edo, maizago beste* ***Tratatu*** *separatu batean, Monetaren eta Prezioen Teoria estudiatzera, iragaten direnean, ez dute gehiagorik hitz egiten kontzeptu familiar eta ulergarri horiez, eta mundu batean sartzen dira, non prezioak moneta--kantitateak, diruaren errenta-abiadurak, transakzio bolumenarekiko monetaren zirkulazio-abiadurak, altxorgintzak, inposaturiko aurrizkiak, inflazioak eta deflazioak eta* ***hoc genus homne*** *delakoak agintzen duten*". (ibid. 292 or.).

Keynes-ek ez die aurpegiratzen teorialariei balioaren arazora hurbiltzeko eskaintza eta eskariaren bidea erabiltzea; berak ez du gehiagorik kritikatzen erabat desberdin den monetaren arloan, —non eskaintza eta eskaria kontzeptu egokiak ez diren— erabilitako metodoa. Keynes-en ustez, sormena fenomeno ekonomikoak adierazpen orokorra ematen ahalbidetzen dion bidea aukeratzean datza: bide hori monetaren azterketa zuzena da, ondasun eta titulu desberdinen eskaintza eta eskarien kontsiderazio guztiak baztertuz.

Ekonomia monetarioa egokia izateko, analisiak ondasun errealen eta monetaren arteko elkartrukeetatik abiatu behar du. Honela, 21. kapituluan, *General Theory* delakoaren benetako ondorioa dena, Keynes-ek ekonomiaren banaketa arbuiatzen du, Balio eta Banaketaren Teorian alde batetik eta Moneta-Teorian bestetik. "*Uste dut dikotomia zehatza Enpresa Indibidualaren Teoriaren (...) osotasun modura harturiko Outputaren eta Enpleguaren Teoriaren artekoa dela*" (ibid. 293 or.).

Produkzio-faktore ezberdinen ordainketa-tasak proportzio berean aldatzen direla suposatzen badugu, "*hortik ondorioztatzen da (ekipamendu eta teknika konstanteetarako) prezioen maila orokorra alokairuen unitateari dagokiola alde batez eta enplegu-bolumeari beste batez*" (ibid. 295 or.). Eta enpleguaren maila ez dagokie ez eskaintzari ezta eskariari ere, monetaren kantitateari baizik. "*Langabezia dagoen bitartean, enplegua moneta-kantitatearen proportzio berean aldatuko da; eta enplegu osoa dagoenean, prezioak moneta-kantitatearekin batera aldatuko dira*" (ibid. 296 or.).

Keynes-ek argi eta garbi alboratzen ditu eskaintza eta eskari indibidualen bidez eraturiko eraikuntza teorikoak. Zaila da ulertzea, zer dela-eta ari diren argudiatzen keynestar omen direnak oraindik *IS* eta *LM* kurbekin. Nola sar dezake monetaren eta balioaren teoria bateratu batek eskaintzaren eta eskarien inolako egokitzerik? Inola ere ez, aldiune guztietan eskaintza eta eskari osoak *identitate* baten terminoak baitira.

7.2. IDENTITATEA IRAUNKORRA DA DENBORAN ZEHAR

Horretaz jabetzeko, nahikoa da *General Theory* delakoaren 3. kapitulua irakurtzea, eraikuntza guztiaren harri nagusia dena: 'eskari efektiboaren printzipioa'.

Ekonomialariak eskari efektiboaz mintzatzen segitzen dute, espreski 'eskaintza/eskari' modura definitua balitz bezala. Teoriak errebisatu beharko lirateke, nonahi eskari efektiboaren ordez eskaintza efektiboa jartzeko. Identitateak ez du dudarik utziko.

Demagun *N* dela enplegu nazionala, *Z* output osoaren prezioa eta *D*, *N* langileren outputaren salmentan enpresek espero duten sarrera. "*Eskari osoaren funtzioaren eta eskaintza osoaren funtzioaren arteko ebakidura-puntua D da, eskari efektiboa*" (ibid. 25 or.). Keynes-ek berehala gehitzen du horixe dela "*Enpleguaren Teoria Orokorraren muina*". Eskari efektiboa bi kurben ebakidura-puntua da; beraz, eskaria eta eskaintza *identikoak* dira.

Identitatea *General Theory*-ren 6. eta 7. kapituluen muina da. Errenta nazionala eskainia da eta identikoki eskatua, bera eskaintza eta eskari osoen batze-puntuan

gauzatzen baita. Teoria keynestarrean pentsaezinezkoa da eskainitako outputa osoki eskatua ez izatea.

Teoria neoklasikoan, aldiz, errenta gastatua izan gabe ere existi daiteke eta, are arraroagoa dena, gastuak errenta erabilgarriak baino handiagoak izan daitezke.

Schmitt-en teoria berria logikoagoa da. Existitzen den edozein errentak gastu berdina dakar —nondik aterako litzateke, bestela, errenta?— eta edozein gastu errenta erabilgarriak elikatzen du —bestela, zerk eratuko luke bera?—. Eskaintzaren eta eskariaren oreka-puntuan errenta nazionalaren determinazioa ez da soilik formulazio kaskarra; berak Keynes-en pentsamendurik sakonena adierazten du. Are gehiago, eskaintza/eskariaren egokitzea ez da existitzen, ez eskaintzarik ezta eskaririk ere ez baitira, beraien ebakidura-puntuan magnitude neugarririk ez bada.

Honela, teoria keynestarrak ez du aukera edo bazter dezakeen beste biderik. Berak eskaintza eta eskaria, bata bestearekiko independenteki, hartzen dituen edozein analisiren bizio sakona erakusten du. Teoria ekonomikoak ez du inolako zentzurik, *identitatearen* hertsitasuna onartzen ez badu; ez da koherentea eskaintza/eskaria gauza soiltzat hartzen ez badu, hots, errealitate bakartzat, aurpegi biko objektu soil eta bakartzat.

Zergatik da ezezaguna gaur egun identitatea? Arrazoia laua da: teorialariek uste dute identitateak definizio tautologikoak direla. Hola, definizio batek ezin dezeke inolako eduki errealik bereganatu. Ezer ez da faltsuagoa. *p*-ren eta *q*-ren identitatea legea da. *p*-ren eta *q*-ren arteko identitatetik ateratako informazioa ez da soilik positiboa; oinarrizkoa da, zientzia ekonomikoaren gorputz osoa determinatzen baitu.

7.3. ESKAINTZA ETA ESKARI OSOEN IDENTITATEA EKONOMI ZIENTZIAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOA DA

Eskaintza eta eskaria une guztietan banaturik egonen balira, ez lirateke neurgarriak izanen. Errealitatean, eskaintza eta eskaria magnitude erabat definituak dira aldiune oro: bistakoa da, beraz, analisi neoklasikoak gertaerek batasunean ezagutzen dutena separatzen duela. Teoriak bere balioa aurkituko du, eskaintza eta eskari osoen identitatea bere barneko koherentzia errespetatzen hasiko denetik.

Keynes-ek ongi zioenez, teoria ekonomikoa *moneta*-teoria da bereziki. Zein da *p*-ren eta *q*-ren arteko identitatearen zentzua? Hiru puntutan adieraz daiteke:

(i) Monetarioa da eskaintza, produkzio-faktoreen ordainketak definitzen baitu.
(ii) Monetarioa da eskaria, produkzio-faktoreek ez baitute bereganatzen zuzenki outputa beronen era fisikoan; outputa monetatan jasotzen dute, errenta gisa.

(iii) Eskaintza bat-batean eskaria da, errenten ordainketak eragileei output berriaren jabetza ematen baitie. Errenten tituludunak outputaren jabeak izateak egiaztatzen du identitatea.

Ohiko monetaren kontzepzioa goitik behera aldatzen da. Teoria neoklasikoak moneta eta outputaren bereizketa postulatzen du; zerbitzu outputgileek, produktugileek, output errealetik ezberdin den objektua bereganatzen dute. Ikuspuntu horretatik porrota alboraezinezkoa da; bata bestetik separaturik, eskaintza eta eskaria ezin daitezke gehiagorik definituak —edo neurtuak— izan, printzipio-eskaera baten bidez ez bada.

Keynes-ek eman du soluzioa. Moneta eta output fisikoa ez dira ondasun desberdinak. Aitzitik, moneta eta outputa batera sortzen dira produkzioan. Produkzio-faktoreek bereganatzen dute outputa monetaren bidez; moneta, forma edo edukitzailea da, outputa bat-batean beraren edukia izanik. Errentaren tituluduna da, beraz, output fisikoaren jabea. Eskaintza, errentaren eraketa, eskaria da, outputaren bereganatzea errenta eran.

Izan ere, moneta outputari lotzen zaion zenbaki hutsa da. Moneta eta outputaren identitatea produkzio-prozesuaren ondorioa da, edo hobeki esanda, produkzio-faktoreen ordainketaren gertaera. Errentak eratuak direnetik, output fisikoa moneta-zenbakiari lotzen zaio, eta errenta monetarioen tituludunak dira output berriaren jabe bakarrak. Outputa saltzea ez da bera eskatzea lehen aldiz; saltzean zenbakiaren eta outputaren arteko lotura deuseztea da, eta output-zenbakiaren ordez output erabat fisikoa jartzen da; outputa orain era fisikoan eskatzen da, nahiz eta lehen monetatan eskatua izan.

Output fisikoaren eta zenbakien eratze, elkartze eta elkartze koherentearen deuseztapenaren teoria berriaren aurrean gaude. Teoria horretan, ez dago inongo aldiunetan ezelako eskaintzaren eta eskariren arteko desberdintasunik. Monetak parte hartzen ez duenean, eskainitako output guztia bat-batean bere produktugileek eskatua da *output fisiko* bezala. Monetak parte hartzen duenean, outputa bat-batean bere produktugileek eskatua da *monetatan*. Ez da inoiz gertatzen eskatu gabe eskainitako outputa izatea. Ezinezkoa da, halaber, eskainitako ondasuna eskatua ez izatea. Izan ere, eskatzeak monetaren kopururen bat edukitzea esan nahi du, eta moneta guztia da, elkartzearen bidez, outputa: erosleak output bat —bere moneta *erreala*— ematen du output fisiko baten ordez.

Eskaintza/eskari bikoteaz egindako analisi berriak ez luke nahasi beharko ikasle berria. Litekeen zailatasuna, ematen duena baino txikiagoa da. Eskari osoaren eta eskaintza osoaren identitatearen iraupenak ‘identitatearen barruan’ lagatzen ditu egokitzeak. Ekonomiak merkatuaren logikaren bidez funtzionatzen du, nahiz eta identitateak iraun.

Gogora dezagun identitatearen esanahi zehatza:

(i) p eskaintza outputa monetatan produkzio-faktorei ematen zaieneko eragiketa da; eta
(ii) q eskaria eragiketa berbera da, outputa bat-batean monetatan faktoreengana iristen baita.

Honela p-ren eta q-ren arteko identitateak denboran zehar irauten du, outputa saldu arte; orduan eskaintza eta eskaria aldiune berean desagertzen dira; outputa kontsumitu egiten da —edo inbertitua da; baina inbertsioa kontsumo-era bat da—, ez da gehiagorik eskainia; eta ez da gehiagorik eskatua ere, aurrerantzean era fisikoan banatua baita.

$p \equiv q$ identitateak zentzu bakarra du: errenten tituludunak outputera iristen dira, beraiek bera, monetatan, jadanik edukitzen baitute. Monetaren eta outputaren arteko elkartrukea, azkenean ondasunetik ondasunetarako trukea da.

Moneta/output identitatea ezarria du bi gertakariren identitateak: errenta nazionalaren sormenaren eta deuseztapenaren arteko identitateak. Outputak errenta *sortzen* du eta eskariak *deuseztatu*. Hala ere, output indibidual bakoitzerako, eskaria eskaintzatik desberdina izan daiteke. Logikak ez du behartzen n outputaren produkzioak sorturiko errenta familiek osorik gastatua izatea, soberakinik eta hutsunerik gabe, n outputaren salmentan: q_n delakoa p_n baino txikiago edo handiagoa izan daiteke, edo biak berdinak izan. q_n delakoa p_n baino txikiago bada, diferentzia enpresek galduriko errenta da, familien alde. Alderantzizko kasua maizago gertatzen da: entrepresetarako mozkina ($q_n - p_n$) diferentzia positiboak definitzen du. Monetatan n outputa jaso duten familiek, era fisikoan erosten dute p_n baino handiago den q_n moneta-kopuruan. Mozkina entrepresei transferituriko familien errenta da. Keynes-ek analisi hori hartzen du bere *Treatise* liburuan, non mozkina "*kontsumitzailearen bizkarretiko irabazia*" baita (I, *Collected Writings*, V, 270, 281 eta 284 orr.).

Eskaintzen eta eskarien arteko diferentzia horiek logikoki esplikatu behar dira. p_n eskaintza t aldiunean gauzatzen da. Output fisikoaren eskaria $t+$ aldiunetik da gauzatzen. Nola da posible, output berberari dagozkion bi eskariak berdinak ez izatea? Izatez, biak erabat berdinak dira. Eskaria era *fisikoan* eta eskaria *monetatan* desberdinak diren bezain laster, n-ren eskaintzak p_n delakoak diferentziak bereganatzen du. t aldiunetik familiek monetatan n outputa, era *fisikoan*, erosteko gastatzen duten diru-kopurua soilik bereganatzen dute. Izan ere, Keynes-en teoriak —$t+$ aldiunean gauzaturiko— eskariaren atzeratzea suposatzen du —lehengo t aldiunean gertaturiko— eskaintzaren gainean. Honela da, errenten eratzea eta deuseztatzea eragiketa soil eta bakar baten elementu osagarriak baitira.

7.4. MOZKINAK, INFLAZIOA, LANGABEZIA ETA STAGFLAZIOA

Keynes-i jarrituz, nahiz eta eskaintza osoaren baliokide izan etengabeki, eskari osoa eskaintza osoa baino handiagoa izan daiteke (inflazioa), edo txikiagoa (deflazioa edo langabezia); bi desberdintasunak batera ere koexisti daitezke (stagflazioa, gaur egungo egoera).

$p \equiv q$ identitatea tautologia balitz, *p*-ren eta *q*-ren arteko edozein desberdintasun absurdua litzateke. Baina identitate horrek oinarrizko informazioa ematen du, zeinaren arabera errenta monetarioek output fisikoa, monetan sartua, definitzen duten.

$p \equiv q$ identitateak ikuspuntu berritik erakusten du errealitatea: produkzio-faktoreen ordainketa gauzatzen den bezain laster, output fisikoa jadanik familietara iritsi da; izan ere, output fisikoa errenta gisa ordainduriko monetan da edukia: hertsiki elkartuta, errentek —alokairuen unitateetan— eta output fisikoak identitatea edo edukitzaile-formaren —sorturiko alokairu monetarioak— eta eduki-fondoaren —output fisikoa— batasuna osatzen dute.

Zergatik permititzen ditu era/eduki identitateak desberdintasun horiek? Ematen du, alderantziz, ezen, bi magnitudeak —nominala eta erreala— eragiketa berean, produkzio-faktoreen ordainketan, definituak izanik era nominala eta eduki erreala identitatetzat koexisti daitezkeela denboran zehar. Pentsaezinezkoa da eskaintza eta eskari osoak konstanteki berdinak ez izatea, beraien sortzetik beraien bat-bateko deusteztapenera bitartean. Horixe da hemen aipatu duguna.

Erantzuna Keynes-en *Treatise*-n dago jadanik. Testuan dagoena ikusi baino lehen, ikus dezagun nola adieraz daitekeen kontua logikoki.

Ekonomia monetarioan, produkzio-faktoreen ordainketak monetan sartzen du outputa. Enpresek output berriaren zati bat bereganatuko ez balute, sorturiko errentek familietan iraunen lukete azken kontsumo-ondasunen salmenta eta erosketa gauzatu arte. Izatez, hala ere, entrepresek output korrontearen zati positibo bat 'irabazten' dute. Outputaren zati hori familiei tautologikoki kentzen zaie; are gehiago, *monetatan* kentzen da. Arrazoiketak ondorio hori behartzen du: zein ote da output fisikoa bereganatzeko eragiketa? Moneta errenta, output erabat fisiko bilakatzea da, hots, errenta monetarioaren azken gastua. Enpresek irabazitako outputaren zatia (p_r), beraiek *erosia* da: (p_r), beraz, errenta monetarioko gastu baten bidez lortua da. Zailtasun bakarra gastu hori gauzaturiko errenta fluxuen artean 'isolatzea' da. Arazoa hauxe da: enpresek *familien* errentak sortzen dituzte eta zaila da adieraztea nola beraiek sorturiko errenten zati bat beraiek gasta dezaketen. Egia esan, dena den, errenten ordainketak output korrontearen zati baten azken erosketa *eduki* dezakeela pentsa daiteke. Kasu, enpresek, beren erabilerarako, output fisikoaren bi herenen salmentan errenta gisa ordainduriko moneta guztia birbereganatzen badute, orduan faktorei egindako errenta-ordainketak output korrontearen heren osagarria erostea dakar.

Enpresetara itzultzen den output berriaren zatia enpresek erosten dute familiei egindako errenta ordainketaren bidez. Honela, p_r zatia gutitu zaionez gero, p eskaintza, q eskariarekin parekatzen da, zeina p bezalakoa den, eta ez q-p_r bezalakoa.

Hortaz, p-p_r, q delakoa desberdintasuna da.

Laburbilduz, Keynes-ek esplizituki bereizten ditu faktore-merkatuak eta ondasun-merkatua. Faktore-merkatuetan, bere kostu osoak, mozkinak barne, neurtzen du produkzioa. Keynes-ek produkzio-faktore soil eta bakarra onartzen du: lan-indarra (Keynes 1936, 213-214 orr.). Hortaz, berak alokairu-unitatetan neurtzen du errenta, mozkinen eta alokairuen osagarritasuna gezurtatuz. Mozkinak, jatorriz, alokairuak besterik ez dira. Mozkinetan alokairuen eraldaketa adierazteko, ondasun-merkatua kontuan eduki behar da. Mozkinak berehala ulertzen dira, bi merkatuen —ondasun-merkatua eta faktore-merkatuak— batasun organikoan kontuan hartzen direnean. Honek ondasun-merkatuko gastuak faktore-merkatuetako gastuei loturik daudela esan nahi du. Ondasun-merkatuak ahalbidetzen du alokairuen eta mozkinen arteko outputaren banaketa, eta banaketa hori gauzatzen den bezain laster, faktore-merkatuetan egindako transakzioei interpretazio berria ematera behartzen die. Horrela, bada, ondasun-merkatuko gastuak ez dira soilik faktore-merkatuetan oinarrituak; horrez gain, bertako gastuei ere eragiten diete. Horixe gertatzen da beren alokairuen truke langileek output fisikoaren parte bat besterik bereganatzen ez dutenean. Mozkinek —alokairu guztien kopuruaren eta langileen output erosgarriaren diferentzia— faktore-merkatuetako lehen emisioa eraldatzen dute. Alokairuen ordainketa, eite nominalean, azken erosketa partziala da.

Schmitt-en teoriaren arabera, alokairuen emisioak outputa bere osotasunean definitzen du. Beraren banaketa alokairuen eta mozkinen artean ondasun-merkatuan gauzatzen den jarraiko eragiketaren ondorioa da, beraz. Hala ere, ondasun-merkatuan langileen azken gastuek alokairuen *atzeranzko* emisioa eragiten dute. Zehatzago, mozkin positiboaren eratzeak faktore-merkatuetako gastuaren *barnean* ondasun-merkatuan gastu positiboaren sartzea dakar. Hortaz, mozkinak outputen erosketa positibo modura definituak dira, zeina alokairuen ordainketan sartua den. Beste hitzetan esanda, enpresen aldeko langileen errentaren azken transferentziak mozkina definitzen du, zeina jadanik gastatu izan den alokairuen emisioaren barruan (Schmitt 1984a). Mozkinen eta alokairuen osagarritasuna soilik maila errealetan baieztatzen da, outputaren balioak beti alokairu nominalak berdintzen dituelarik. Honela, (outputa = alokairu nominalak), eta (outputa = alokairu errealak + mozkin errealak) direlako berdintzak aldiberean eta kontraesanik gabe baieztatuak dira edozein produkzio mailatarako. (Alokairu nominalak produkzio-faktoreei ordaindutako alokairuak dira.)

Bi merkatuetako erosketak prezio eta balioaren identitarearekiko gauzatzen dira, eta, hala ere, mozkinak positiboak dira.

Agian, etsenplu numeriko soila agian adierazgarri izan daiteke. Demagun *E* enpresek *L* langileei 100 alokairu-unitate ordaintzen dizkietela eta outputa azkenean alokairuen eta mozkinen arteko 4:1 proportzioan banatua izanen dela.

Hortaz, langileek soilik outputaren 80 unitate jasotzen dituzte beren gastuetatik, gainontzeko 20 unitate *E*-k jasoak direlarik. Mozkinaren 20 unitate horiek alokairuen ordainketan ezkutatzen den azken gastua adierazten dute.

Nola izan daitezke mozkinak positibo, baldin eta alokairuen emisioak outputa zerbait osotzat definitzen badu?

Erantzuna hauxe da: alokairu eta mozkinen arteko outputaren banaketa ondasun-merkatuan jarraian gauzatzen den eragiketa da. Izan ere, baldin eta enpresek outputa 125 unitatetan saltzen badute —ez da nahasi behar saltzeko prezio hori prezio makroekonomikoekin, zeintzuek outputaren azken erosketarako gastaturiko errentaren kopuruak definitzen dituzten—, langileek, gehienez, outputaren 80 unitate eros dezakete; horrek esan nahi du *L*-k gastaturiko errentaren 100 unitateetatik soilik 80 unitateak dagozkiola azken erosketari. Gainontzeko 20 unitateak *L*-tik *E*-ra transferituak izan dira, eta *E*-k oraingoz saltzeko daukan outputa definitzen dute. Enpresen 'barne-mozkina', beraz, ondasun-merkatuan *L*-tik kentzen duten errentaren 20 unitatekoa da.


Baina ohar hori ebazpenerako lehen urratsa besterik ez da. Izan ere, ondasun-merkatuan langileen azken gastuak *atzerantz* eragiten dio alokairuen emisioari. Zehazkiago esanez, (barneko) mozkin positiboaren gauzatzeak adierazten du ondasun-merkatuko gastu positiboa sartzea faktore-merkatuetako gastuaren *barnean*. Mozkinak outputen erosketa positibo modura definitzen dira, zeina alokairuen ordainketan sarturik dagoen. Beste era batera esanda, enpresen aldeko langileen azken transferentziak mozkina definitzen du, zeina jadanik alokairuen hasierako emisioan gastatua izan den.

Gure etsenpluan:

(i) Ondasun-merkatuan, langileen errentaren 100 unitateen gastua, izatez, 80 unitateko azken erosketa da, saltzeko prezioa 125 baita; entrepresek 20 unitateko errenta jasotzen dute, hots, gainontzeko outputari dagokion unitateen kopurua;
(ii) ondasun-merkatuan entrepresek jasotako 20 unitateko mozkina ondasunen azken erosketari dagokio, zeina jadanik faktore-merkatuetan gauzatua izan den.

Azkenik,
(iii) langileen gastua ondasun-merkatuan alokairuen emisioan sarturiko azken erosketaren *atzeranzko* beharrezko zigorra da. Hemendik aurrera, prezioa eta balioa halabeharrez berdinak dira: balioa —hots, alokairuen kopurua— 100 da

eta 100 da, halaber, prezioa, hau da, output osoaren azken erosketan gastaturiko errentaren kopurua —80 ondasun-merkatuan eta 20 faktore-merkatuetan—.



Prozesu horren ondorioz, outputa banatua da alokairu-ondasunen eta mozkin-ondasunen artean. Emaitza hori erabat kontraesanik gabekoa da alokairuen eta outputaren identitatearekin. Izan ere, alokairuen eta mozkinen osagarritasuna soilik baieztatzen da termino errealetan, outputaren balioak beti alokairu nominalak berdintzen dituelarik.

Honela, ondoko bi identitate hauek, (i) *outputa = alokairu nominalak*, eta (ii) *outputa = alokairu errealak + mozkin errealak,* produkzioaren edozein mailatan daude baieztaturik.

Ikus dezagun aipatutakoa Keynes-en testuan.

Demagun *S* dela aurrezkiaren kopurua, hau da, kontsumitu ez den familien errenta. *I* delakoa denboraldian eraturiko inbertsioaren balioa da. Azkenik, *Q* delakoa mozkin osoa da, herrialdearen industrian, multzo modura hartuta, gauzatua.

Treatise liburuan (I, *Collected Writings*, V, 124. or.) agertzen den moduan:

$$Q = I - S$$

"*Honela, kontsumo ondasunen produkzio eta salmentaren gainean gauzaturiko mozkinek inbertsio berriaren eta aurrezkiaren* ***balioaren*** *arteko diferentzia berdintzen dute*" (ibid. 124. or.).

I – S diferentzia nulua balitz, familien onerako sorturiko errenta guztiak beraiek gastatuak izanen lirateke eta output korronte osoa kontsumitua. Baina *I*-ren

eta *S*-ren arteko edozein diferentzia positibok familien errentaren gutxitzea eta enpresen mozkinetan handitze baliokidea inplikatzen ditu. Ordainketen fluxua hirukoitza da, hortaz:

(1) Familiek *E* bereganatzen dute, herrialdearen errenta monetarioaren kopuru osoa;

(2) familiek beren errenten $I - S$ galtzen dute; eta $E - (I - S)$ balioa gordetzen dute;

(3) enpresek, $I - S$ balioa irabazi dutenek, ez dute inoiz kopuru hori gastatzen ondasunen merkatuan, eta hauxe da *Treatise*-ren oinarria, 'zerutik eroritako' mozkina —'*windfall profit*'— ez baita output nazionalaren parte.

Logikoki ohartzen gara, mozkina *jadanik gastaturik* dagoela familien esku dauden errenten balioaren gutxitzean. Familiek $E - Q$ balioa besterik ez dute edukitzen, $I - S$ balioa galdu baitute. Hau da, *Q* mozkina *E* fluxuaren barnean da gastatua, alegia, familien errentaren eratzean eta ez errenta horren gastuan.

Nahiz eta *p* eskaintza —*E*, Keynes-en sinbologian— eta *q* eskaria —*E*-ren gastua— identitatearen terminoak izan, *p*-ren $I - S$ zatia enpresek metaturiko *kapital finko* berriaren eratzeak zuzenki bereganatzen du. Familietan, *E* moneta kopurua uzten da, zeinaren balioa $I - S$ balioan gutxitua izan den. Honela, $I - S$ diferentzia, mozkinaren definizioa, inflazioaren definizioa bera da, faktorei egindako ordainketaren kopuru numerikoa E baita eta beraren *balioa* $E - (I - S)$. "*Q, mozkin osoaren, gehitzea edo gutxitzea izan dezakegu, zeroaren gainetik edo azpitik, inbertsioaren eta aurrezkiaren balioaren desberdintasuna dela kausa. Diferentzia horri* ***inflazio-mozkina*** *(edo* ***deflazio-mozkina****) deritzogu*" (ibid. 140. or.).

Orain dela hirugei urte baino gehiago idatziriko *Treatise*-ren irakurketa sakona ez da oraindik bukatu. 'Oinarrizko ekuazioetan' adituek matematikazko ariketak besterik ez dituzte ikusi, erlazio erabat kontzeptualak diren arren. *General Theory* liburua ez da bestea baino sakonagoa. Bi lan erraldoi horietan, Keynes-ek zientzia ekonomikoaren multzoari fluxu monetarioen estudiotik datorren metodoa ezartzen dio. 'Sektore errealean' eskaintza/eskaria egokierek eraturiko orekak beren egiazko perspektiban daude jarrita; alegia, kontsistentzia logikorik gabekoak dira, bizi gareneko mundurako ezelako aplikaziorik ez daukatenak.

Garaia da Keynes serioski hartzeko. Horretarako, beharrezko eta nahikoa den baldintza soila hauxe da: zailtasun intelektuala edozein delarik ere, pentsamendu ortodoxoak eskaintza eta eskari osoen *identitate* iraunkorra onartu behar du azkenean.

(Keynes-en irakurketa sakona egiten hasteko, ikus Bradley, Friboulet eta Gnos 1996; Friboulet 1985, 1988a; Schmitt 1960, 1971, 1972, 1985b, 1986, 1987a.)

Itzul gaitezen lehengo harira.

Ikusi dugun bezala, bai argudioan eta bai Keynes-en testuan ere, q eskari osoa p eskaintza osoa baino handiagoa baldin bada, bi ohar garrantzitsu nahikoak dira adierazteko ezen, nahiz eta diferentzia egon, identitateak faktoreen ordainketen fluxuan irauten duela eta etengabeki dirauela output nazionalaren azken erosketa arte.

(1) Faktore-ordainketen sormenak bat-batean p-ren —ekonomiaren sektore guztietan eskainitako outputa— eta q-ren —ekonomiaren sektore guztietatik datorren output eskatua— identitatea definitzen du. Identitateak adierazten du outputaren osotasunak produkzio-faktoreen ordainketa monetarioa kausatzen duela, faktoreek outputa monetatan edukiz, hau da, errenta nazionala errepresentatuz.

(2) Output korrontearen zati bat monetatik kentzen da enpresek metaturiko kapital finkoari gehitzeko. Honela, q-ren *balioa* gutxitzen da, baina, *moneta unitateetan* definitua izanik, q osorik dago. Zehazki, q delakoa p baino handiagoa da, baina soilik p-ren zati kontsumigarriaren kopuruan. Baturaren orokortasuna, q, beharrezkoa da familiek bereganatzen duten p-ren zatirako.

Ondorioz, inflazioa eskari osoaren balio numerikoaren eta beraren balio errealaren —beraren erosteko ahalmena— arteko diferentzia positiboa da. Familiek, q edukiz, q-ren zati bat $p - p_r$ soilik beregana dezakete. 'Inflazio-mozkina' nulua denean, inflazioa desagertu egiten da, eta familiek output nazionalaren osotasuna eskuratzen dute, aurrezturiko eta, azkenik, inbertituriko partea barne. Baina inflazio positiboa edo nulua izanik, eskari osoak beti berdintzen du eskaintza osoa. Bi kasuen diferentzia hauxe da: familiek erosten dute (inflazioa) edo ez dute erosten (oreka) outputaren parte bat, enpresen mozkinak errepresentatzen duena, hain zuzen.

Ikus dezagun alderantzizko desoreka, eskaintza eskaria baino handiago denean. Ohar gaitezen 'krisiak' ez duela $p \equiv q$ identitatea deusezten. Eskaintza eta eskari osoen identitatea zientzia ekonomikoaren eta errealitate ekonomikoaren alfa eta omega da. Gerta daiteke, hala ere (eta herrialdeek esperientzia triste hori ezagutzen dute), eskaintza osoa eskari osoa baino handiagoa izatea: salmentaren krisia da. Nola esplika daiteke? Hori $p \equiv q$ identitateari hertsiki dagozkion baldintzetan ikusi behar da. Krisiak inflazioa dakar: errenta nazionalaren partea, p_r, enpresek zuzenki metatzen dute. Metapena makinetan eta beste ekipamenduetan gauzatzen bada, orduan inflazioa agertzen da soilik. Baina langabezia inflazioari gehituko zaio, p_r delakoa familientzako kontsumo-ondasunek osatzen dutenetik.

Keynes-en arrazoiketa sakonari jarraituko gatzaizkio. Outputaren p_r partea, errenta nazionalaren edozein gastu baino lehenago saltzen da. Hortaz, familiek, p_r delakoan metaturik ez dauden ondasunak erosteko ahalmena besterik ez daukate. Orain, enpresek outputaren osotasuna saldu nahi dutenean, metaturiko p_r partea barne, familiek ez daukate nahiko errentarik. Ekonomiak erosteko ahalmen nahikoa ekoizten du, baina p_r-ren metapenak parte bat kentzen dio. Galerak ez dakar inolako langabeziarik, p_r ekipamendu-ondasunek, kapital-ondasunek, osatzen duteneko heinean; baina p_r delakoaren zati bat kontsumo-ondasunek osatzen badute, langabezia edo desenplegua egonen da, kasu horietan, output nazionalaren $p - p_r$ partea erosteko ahalmena besterik ez baitute familiek (Schmitt 1984a,1996; krisia nola gertatzen den, hurrengo kapituluan ikusiko dugu).

Keynes-en mezua ulertuko balitz —ohiko politika fiskal eta moneta-politika arruntetatik urrun dagoena—, gizarteek beren esku edukiko lukete inflazio eta langabeziaren kontrola. Eskaintza eta eskari osoen identitateak desoreka orokor guztiak baztertuko ditu 'inflazio-mozkina' desagertua izanen den egunetik. Erremedioa eskura dago, diagnostikoa zuzena da-eta. Inflaziorik gabe, langabezia ere nulua izanen da. Erreforma Monetarioaren bidez, Keynes-en mezuak 'Say-ren araua' lege positibo bilaka lezake. (Aipatutakoa sakontzeko eta bankugintzaren erreformak analizatzeko, ikus Schmitt 1984a eta liburu honetako 8. kapitulua).

8. Ekonomia nazionala. Inflazioaren eta langabeziaren etiologia

> "*The Keynesian revolution has destroyed the old soporific doctrines, and its own metaphysics is thin and easy to see through. We are left in the uncomfortable situation of having to think for ourselves*."
>
> Joan Robinson, *Economic Philosophy*

Aipatu bezala, errenta guztiak, alokairuak barne, alokairuen sormen/deuseztapenean sortu eta deuseztatu egiten dira. Baina errenten deuseztapena kontsumoa da, edo kapital baten eratzea.

Kapitala bi eratan ager daiteke. Lehengoan, kapitala oraingo errenten eta etorkizunekoen arteko zubia da: denbora-kapitala da. Bigarrenean, kapitala oraingoz denbora da, baina orain kapitalean finkatua da.

8.1. DENBORA-KAPITALA

Kontsumoa bezala, kapitalaren eratzea errentaren deuseztapenetik sortzen da. Kontsumituriko errenta definitiboki deuseztatzen da. Kapitalizaturiko errenta aurreztu egiten da: gaur deusezten da, denboran zehar igorria ahal izateko. Kapitalaren eratzea, gaur egungo errenta etorkizuneko errenta bilakatzea da.

Produkzioa batera positiboa eta negatiboa den mugimendu batean agertzen da, zeinaren emaitza —errenta— den. Errenta, hortaz, denbora kronologikoan aldiune batean, gertatzen da puntu batean soilik. Errentaren sormenaren ondoko aldiunean errenta deuseztaturik dago.

Beraz, errentaren aurrezkia, kontsumoaren kasuan bezalaxe, errenta desagertzen deneko eragiketa da. Errentak denbora kronologikoan irauten duela dirudi; baina ez da horrela. Aurrezkiak oraingo errenta deuseztatzen du. Hala ere, errentak irauten du, aurrezkia eragiketa bikoitza baita, gaur negatiboa edo deuseztatzailea, eta bihar positiboa edo sortzailea: gaurko errenta deusezten duen ekintzak berak birsortzen du bihar. Errentaren existentzia nulua da, aurrezten den epealdi osoan; hala ere, gaurko aurrezkitik sortua, biharko errenta birsormen soila da: aurrezkia etorkizuneko egunen batean errenta birsortzea ahalbidetzen duen eragiketa da.

(i) *Aurrezkiaren lehen mota: bi pertsona desberdinen arteko permutazioa*.

Baldin eta *A*-k oraingo errenta badauka eta *B*-k etorkizuneko errenta lortzeko bermea badauka, bi errentak elkarri emanak izan daitezke, tituludunen borondatearen arabera. Gauzaturiko eragiketak esan nahi du *A*-ren oraingo errenta *B*-ren oraingo errenta izatera eraldatzen dela, eta *B*-ren etorkizuneko errenta *A*-ren etorkizuneko errenta izatera. Honela egiaztatzen da mailegu-emaileak denboran zehar bere errenta kontserbatzen duela, *B*-k bere errenta, oraingoan eraldatua, itzultzen dion egun arte. Gaurko errenta kontserbatzen da, bera biharko beste errenta izatera eraldatu baita.

Bistakoa da gaurko eta etorkizuneko errenten permutazioa gizarte multzorako batura nuluko eragiketa dela. *A*-rentzako positiboa, eragiketa negatiboa da *B*-rentzat, mailegu-hartzea mailegu negatiboa izanik. Aurrezki globala nulua da, oraingo errenta *B*-rengan deuseztatzen baita, *A*-rengan barik: errenta definitiboki desagertzen da, mailegu-emailea ordaindua izanen baita maileguaren epealdiaren epemugan errenta sortu berri baten bidez.

(ii) *Aurrezkiaren adierazpen garrantzitsua: titular berberaren errentaren eraldaketa*.

Badago beste aurrezki-mota interesgarriago bat, netoa baita ekonomia nazionalaren multzorako. Errentaren titularrak bere buruaren gainean sortzen duena da. *A* mailegu-emailearen eta *B* mailegu-hartzailearen artean gauzaturiko aurrezkia ez bezala, *T*-k (errenta-titularren multzoa) *T*-ren gainean sorturikoak errenta nazionalaren parte baliokidea kontserbatzen du.

Errenta *T*-k *T*-ren gaineko eragiketa batean sortzen da: langileek errenta--titularren multzoaren zatia osatzen dute.

Kreditu-eragiketa *T*-ren multzoaren arteko elementuen artean baldin bada, mailagatutako errenta mailegu-hartzaileak deuseztua izango da. Eragiketa, alderantziz, *T*-tik *T*-rakoa denean, errenta *T*-n deuseztatzen da, mailegu-emailearengan. Mailegu-emaileek definitiboki beren errenta galtzen dute, beren errenta aurreztuaren birsormenean berenagatzen ez badute.

Zein baldintzatan betetzen da aukeraren bigarren termino hori? Nahikoa eta beharrezkoa da, *T*-tik *T*-ra mailegaturiko errenta aurrezturiko produktuaren salmentan berreskuratu izatea.

Demagun kredituaren epemugaren epealdia p_e dela eta beraren irekieraren epealdia, p. *B* mailegu-hartzaileak etorkizuneko epealdi bateko bere errenten zati bat sakrifikatzen du; horrexegatik, *A*-k *B*-ri emandako kreditua batura nulukoa da; *T*-tik *T*-rako eragiketa netoa izan dadin, beharrezkoa da errenten titularren multzoak, epemugan, p epealdiko aurrezturik dituen errentak sakrifika ditzan, p_e epealdiko errenta ez baitago inplikaturik, inola ere ez.

A-ren eta *B*-ren artean kreditua dagoenean, gizartearen multzoan ez da ezelako produkturik aurrezten, *B* delakoak *A*-k aurrezturiko errenta gastatzen baitu. Mailegua multzoak bere buruari egiten dionean —eta ez bere elementuen artean—, produktua aurrezki monetarioaren neurri osoan aurrezten da. Hots, *p* epealdian aurreztua izanik, produktua p_e epealdian banatzen da: p_e epealdian mailegaturiko errenta *p* epealdiko, eta ez p_e epealdiko, produktuaren salmentan berreskuratzen da.

Ondorioz, edozein aurrezki monetario ekonomia nazionalean nulua da, batera aurrezki erreala definitzen duen eragiketa batean sortzen ez bada.

Aurrezki bien —monetario eta erreala— koexistentziak denbora-kapitala definitzen du.

Aurrezki monetarioa tituluen erosketa eta salmentaren berdintasunaren tautologiaren menpe dago: mailegu-hartzailearen kapital negatiboak mailegu-emailearen kapital positiboa deuseztatzen du. Aurrezki monetarioa aurrezki errealarekin lotzen denean, kapitala netoa da. Izan ere, aurrezki erreala etorkizuneko salmentara dedikatzen da; bere eratze-aldiunean, aurrezkia errenta bihurtuz eraldatzen da: bera etortzen deneko errenta berberak sortzen du.

Beraz, ekonomia nazionalaren kapitala eragiketa soil batetik dator, zeinaren natura batera bi aurrezkiak —monetarioa eta erreala— sortzea den. Kapital 'netoa' ekonomia osoaren 'itxarotea' da; aurrezki monetarioan desagertua, errenta beranduago agertuko da soilik, produktuaren azken salmentan, produktua bera aurrezki errealean desagertua izanik. Ez produktuak, ezta monetan desagerturiko produktuak ere, ez daukate denbora kronologikoan irauteko ahalmenik; kapital netoa nolabait produktu eta errentaren mutantea da: kapitalean eraldatuak, produktua eta errenta denbora kronologikoan ezartzen dira. Epemugan, alderantzizko mutazioa gauzatzen da; kapitala errenta bilakatzen da, hau da, denbora kronologikoan erabat dimentsio nulua daukan magnitude.

Errenta denbora kuantikoan definitzen da; kapitala denbora kronologikoan existitzen da. Kapitala zehazki errentaren 'transkripzioa' da, denbora kuantikotik kronologikora. Honela, kapitala errentaren dimentsioa da denbora kronologikoan; dimentsio hori eskuratzeko, errenta deuseztapen —orain— eta sormen edo berreratzearen —etorkizunean— eragiketaren menpe jarri behar da; kapitala aurkako norantzako bi mutazioak banatzen dituen denbora (kronologikoa) da; horrexegatik, denbora-kapitala dei dakioke.

Analisiak frogatzen du, logikaren arabera, kapital netoa, denbora-kapitala, soilik existi daitekeela, banku-monetan daukaten ekonomietan. Moneta materiala daukan edozein ekonomia 'aurre-kapitalista' da: bertan edozein kapital halabeharrez batura nulukoa da. Kapitalismoa deritzon sistema, banku-monetaren funtzionamenduarekin identifikatzen da.

Ezin da inolako kapitalik eratu moneta materialetan. Kapital neto guztia banku monetatan eratzen da.

Ekonomia bere bi azpimultzotan banatuta egonik, *E* enpresak eta *T* errenten titularrak, *T*-k *E*-ri mailegaturiko errentak aurrezten ditu. Finantza-merkatuan, errenten edozein titular aritzen da beste titular edo enpresa batekin. Lehen kasuan, kapitala deuseztatzen da T multzoan. Bigarrenean, positiboa da errenten titularren multzorako, baina nulua ekonomia globalean, negatiboa baita enpresen multzorako. Kapitala soilik positiboa izanen litzateke, baldin eta *T*-ren maileguak —*E*-ri emandakoa— enpresen multzoaren mailegu-hartze nulua definituko balu. Argi denez, hori ezinezkoa da. Kapital netoaren eratzeak maileguen eta mailegu hartzeen berdintasunaren tautologiarekin egiten du topo. Moneta materialaren ordez banku-moneta erabiltzeak ez du baztertzen tautologia. Baina, banku-monetaren sisteman, badaude mailegu-hartzaileak baino harantzago doazen maileguak, errentak, 'enpresen bitartez' produktuari berari mailegatzean. Maileguak pertsonen arteko eragiketak ez direnean, ekonomia global eta produktuaren artekoak eginak baizik, gizartean duten emaitza kapital neto bakarra da.

Banku-monetaren erabiltzeak ahalbidetzen du kapital netoaren sorrera. Ikus dezagun prozesua etapatan:

(i) Lehendabizi errenta sortzen da, moneta materialetan sortuko litzatekeen bezalaxe. Bi erdi-emisioen bateratzea, lehengoan bigarrenaren atzerantzearen bidez, bi kasuetan egiaztatzen da. Beraz, ez da banku-monetaren erabiltzea, produktuaren banaketa —alokairutan eta mozkinetan— sortzen duena.
(ii) Errenta kontsumitzen den aldiunean, moneta materialetan gertatuko litzatekeen moduan, banatu egiten da; banku-monetako errentaren deuseztapena bat-batekoa dela egiaztatzen da, moneta errentarekin batera edo produktu-monetarekin batera deuseztatzen baita. Produktuaren azken salmentak bat-bateko bi deuseztapen daudela esan nahi du: produktuaren eraldaketa erabil-balioan, eta hasierako alokairu-ordainketan sorturiko banku-monetaren deuseztapena.
(iii) Hirugarren eragiketa batek egiaztatzen du bi moneten —material eta banku-koaren— arteko berdintasuna. Beste titular bati edo enpresa bati mailegaturiko edozein errentak batura nuluko kapitala definitzen du, mailegu-hartzea eta mailegua berdinak direlako. Honela, banku-moneta erabil daiteke bi epealdi desberdineko errenta berriak erabiltzen dituzten terminoen elkartrukeetarako. Denborazko tarteen elkartrukea errenten titularren artekoa edo ekonomiaren bi parteen —*T* eta *E*— artekoa izanik, gizartearen kapitalak nulua izaten segitzen du. Ez dago inolako kapital erreal positiborik.

Monetatik aske den edozein produktu erabil-balio bihurtuz eraldatzen da, eragiketa berezi baten bidez 'askaturik' ez badago, zeinaren emaitza monetan epetan birsartzea den; eragiketa horrek aurrezki monetarioa du izena. Kapital monetarioa —edo finantzarioa— nulua denean, kapital erreala nulua da halabeharrez. Ekono-

miak ezin izango luke produzitu ezelako kapitalik, ez monetariorik ez errealik, baldin eta eragiketa berezi bat inkludituko ez balu: beharrezkoa da ekonomiaren parte batek —edo azpimultzo batek— mailegua egitea, mailegatzen den kopurua beste parte batek mailegu hartu barik.

(iv) Banku-monetaren emisioak 'mailegu absolutuak' gauzatzea ahalbidetzen du, errenten titularren multzoaren aurrezkia prezeski *T*-tik *T*-rako mailegua baita. Mailegu absolutuekin aritu baino lehen, ikus dezagun nola *T* multzoa gai den enpresei errentak mailegatzeko: horrelako maileguak 'erlatiboak' dira, eta beraietatik sorturiko kapitala nulua da gizartean. Mailegu absolutuei dagokienez, bankuak finantza-merkatuan daude; hortik induzitzen da banku-eragiketak aurpegi bikoak direla: monetarioak dira eta, mugimendu berean, finantzarioak. Bankuek moneta jaulkiko ez balute, errenten emisioa eragiketa soilik monetarioa izanen litzateke. Banku-monetaren emisioa eragiketa bikoitza da: monetarioa da, baina baita finantzarioa ere, *t* aldiunean emitituriko errentak beranduago berreskuratzen baitira, geroko aldiune batean. Denbora kronologikoaren inplikazioak eragiketaren jite finantzarioa egiaztatzen du.

(v) Analiza dezagun erenten sormenetik zuzenki datorren aurrezkia. Mailegu-emailea ezaguna da: errenten titularren multzoa da, are zehazkiago, emisio berrien pertsona onuradunen multzoa.
Zeintzuk dira mailegu-hartzaileak? Ez daude errenta titularren artean, zeren, errenta eratzearen aldiunean, ezein titularrek ez baitu izan denborarik bere 'auzokideei' bere irabazien zatirik ñimiñorik ere mailegatzeko; arrazoiketa berak debekatzen du mailegu-hartzaileak beste multzoan topatzea: alokairu-ordainketaren eragiketan T-tik ezein enpresak ez du inolako krediturik jaso, *T*-ren onurarako ez bada.

(vi) Heren exklusoaren printzipioak ez du balio. Alokairu-ordainketa ez da mailegua, ez *T*-rentzat, ezta *E*-rentzar ere; *T* eta *E* ekonomiaren bi parteak dira. Ez-eraginkorra da hirugarren multzora joatea, *S* banku-sistemara: *T*-tik *S*-rako mailegua emanen balitz, *E*-ren onurarako izanen litzateke, beren eragiketa guztietan bankuak bitartekari finantzarioak baitira.

(vii) Alokairuen emisioa mailegu positiboa da soilik heren exklusoaren printzipioak ez duelako balio analisi kuantikoan, zeinak hirugarren aukera bat irekitzen duen, alegia, *T*-tik *T*-rako mailegua, edo zehatzago esanez, errenta berriaren titular bakoitzak bere buruari egiten dion mailegua. Horrelako eragiketak absolutuak dira, beraien eredurik garrantzitsuena ezaguna dugularik: emisio errealean, langileak bere produktua jasotzen du monetan. Honela *T*-k eman eta berreskuratu egiten du produktu berbera mugimendu berean.

Produktua truke absolutuan —*T*-tik *T*-ra— sortuko ez balitz, ez litzateke izanen netoa ekonomian, enpresek langileen ordainketa monetarioa galduko bailukete. Badago beste mota bateko eragiketa absolutua ere: gizartearen kapital netoaren sormena. Bankuak, eragiketa bakoitzean, finantza-merkatuan egonik, alokairuen ordainketa banku-monetan eginiko eragiketa monetario-finantzario bat

da. Eragiketa finantzarioa denez, alokairuen emisioa mailegua da eta, zehazki, errenta titularrek beren buruei egindako mailegua. Mailegua absolutua izanen ez balitz, ez litzateke netoa izanen ekonomian, enpresetan kapital negatiboa sortuko bailuke. Mailegu absolutuek ez dute inor zorpetzen, zeren, errenta norberak bere buruari mailegatzean, titularrak bera deuseztatzen baitu beranduago osorik berreskuratzeko, maileguaren epemugan, errenta birproduzitzean, bat-batean deuseztatuz.

(viii) Mailegu absolutuek izaera bikoitza dute; mailegaturiko objektuan bereizi behar dira: moneta hutsa eta produktua monetan —'forma' eta 'edukia'—. Mailegu absolutuan, errenten titularrek forma-moneta (bankuen bitartez) mailegatzen diete enpresei; hortaz, mailegu absolutua 'arrunta' da, hots, mailegu-emaileengandik mailegu-hartzaileengana igortzen du objektua; izan ere, aurrerantzean, enpresak errenten titularren aurrean zorpetzen dira, bankuen bidez, eta ez bankuen aitzinean. Hala ere, mailegu absolutu berean, errenten titularrek fondo-moneta —produktua monetan— mailegatzen diete beren buruei; bigarren eite horri dagokionez, mailegua 'kuantikoa' da, alegia, mailegu-emaileen eskutan kontserbatzen du objektua; produktua ez da lekualdatu; eragiketaren sarreran, errenta-titularrek produktua monetan daukate eta, eragiketaren irteeran, produktu berbera tituluetan daukate, tituluak kapital finantzarioaren definizioa izanez: produktuaren gaineko jabego eskubideak.

(ix) Honela egiaztapen bikoitza lortzen da. Ekonomiak inolako moneta-motarik, —moneta materiala barne— edukiko ez balu, ekonomiak ez luke produktu netoaren inolako mozkinik aterako inongo unetan. Baina ekonomiak banku-moneta edukiko ez balu, ez litzateke inolako kapitalik eratuko, ez finantzariorik ez errealik. Monetak produktua gauzatzen du; banku-monetak kapitala gauzatzen du.

(x) Banku-monetatan eginiko alokairuen edozein emisio, ekonomia globalean denbora-kapital berri baten eratzea da. Nahiz eta produktuaren banaketa familiei 'beranduago' gertatu, bat-batean tituluen eran gauzatzen da; errenta monetarioa bere sortzetik deusezten da, berehala bera kapital finantziarioak —produktuaren gaineko tituluak direlarik— ordezkatzen baitu. Tituluak, eta, identikoki, kapital finantzarioa, beren aldetik deuseztuak dira, aurrezkia kontsumorako erabiltzen denean: produktua familietara 'espezietan' iristen da, zeintzuek titulutan eduki duten.

(xi) Kapital finantzarioaren bizitza osoan zehar, produktua bera kapitala da; kapital erreala, kapital finantzarioaren —logikoki beharrezkoa dena— 'ordezkoa' da: bi kapitalak dira bata bestearen existentziaren baldintza. Tituluen aurrean, produktua 'gordailatuta' edo erreserbaturik dago. Produktuaren aurrezki erreala soilik deusezten da, aurrezki monetarioa errenta bihurtuz eraldatzen den aldiunean bertan; orduan, produktua monetan birsartzen da, zeinaren gorputza den berriro; mugimendu berean, produktuak definitiboki moneta askatzen du, kontsumitzen delako.

(xii) Banku-monetarik gabeko edozein ekonomiatan, errentak sortzen eta deuseztatzen dira, kapitalaren egoeratik igaro barik, mailegu absolutuak oraingoz ezin baitira existitzen. Garatu gabeko ekonomian, edozein mailegu erlatiboa da: langileek beren errenten osotasuna edo parte bat mailega dezakete, baina soilik beste langile batzuk edo enpresak izan daitezke maileguen onuradunak. Beraz, metaturiko errentak bezala, mailegaturiko errentak batura nuluko kapitalak dira, mailegu-hartzeak maileguen konpentsazio zehatza izanik.

(xiii) Banku-moneta daukan edozein ekonomiatan, errentak beren sortzean deuseztatzen dira, bat-batean kapital netoan eraldatuak ahal izateko; koerlatiboki, produktuak monetatik berehala askatzen dira eta gordailatzen dira. Arrazoia hauxe da, alegia, alokairuen sormena batera monetario eta finantzarioa den eragiketa dela; hortaz, errentaren aurrezkia errentaren eratzearen aldiunera bertara iristen da: ez dago ezelako aldiunerik non aurrezturik ez dagoen errenta positibo baten existentzia konstata daitekeenik. Bitartekari finantzarioak izanik, bankuek, nolabait, denboraren kudeaketa edukitzen dute; errenten sormen eta deuseztapenaren artean dagoen denbora neurtzen dute; hau da, errenta bat-batean (inolako luzapenik gabe) kapital bihurtzen da, denbora-kapital hain zuzen ere. Arrazoi berberagatik, produktua fondo kategorian sartzen da berehala.

(xiv) Errenta bere eratzearen aldiunean deuseztua izan arren, errealitateak produkzio netoa hartzen du kontuan, errentak deuseztatuak baitira soilik epe baterako; errenten berehalako deuseztapena, beranduago beraiek birsortzeko bidea da, kontsumoaren aldiunean hain zuzen. Banku-monetan eraturiko edozein errentaren behin-behineko forma, denbora-kapitala oraingo errentaren eta etorkizunean berorren birprodukzioaren arteko erlazio objektiboa edo zubia da.

(xv) Egiaztatu dugu banku-emisioek bat-batean moneta hornitzen dutela beronen bi eraldaketa 'jarraietan' —jarraipena soilik logikoa da, ez kronologikoa—: moneta errentan eratzen da, eta errenta kapital bilakatzen da.

Honela, kapitalaren sakoneko izaera ezagutzen da; bankuen aurrean kobratzeko eskubidea da. Soilik mailegu-hartzaileen aitzinean kobratzeko eskubidea den edozein kapital, batura nulukoa da ekonomia globalean. Alderantziz, bankuen aurreko kobratzeko eskubidea netoa da, banku-sistema 'zeharkatuz', gordailaturiko produktuaren gaineko jabego-eskubidea adierazten duen neurrian. Honela, 'azken mailegu-hartzailea' ez da pertsona bat, produktua bera baizik. Galdutako erren-ta, berorren titularren ondarean, askaturiko produktuaren gaineko tituluak ordezkatzen du. Kapitalaren —edo aurrezkiaren— eratze netoa tituluetan produktua eskuratzea da, kontsumoa produktua eskuratzea, produktuan bertan, den bitartean.

Moneta materialetan egindako errenta baten mailegu-emaileak, lehendabizi bere produktuaren gaineko titulua lortzen du; hala ere, mailegu-hartzaileak produktua bereganatzen du; hortik ateratzen da mailegu-emaileak mailegu-hartzailearen etorkizuneko errentaren titulua daukala soilik: ez da jadanik bere oraingo produktuaren jabea, zeina ez den denboran zehar igortzen.

Banku-monetak soilik ahalbidetzen gizartearen du oraingo produktua igortzea, etorkizuneko epealdian birsortzeko. Moneta materialak ez du inolako zubirik eraikitzen orainaren eta etorkizunaren artean; baldintza horietan, etorkizuneko errentaren gaineko edozein tituluk sortzeko dagoen produktua dauka objektutzat eta ez, kapital global netoaren definizioak eskatzen duenez, oraingo produktua biharko produktuan eraldatua.

Banku-monetarik ezean, pentsaezinezkoa da errenta deusestatzea, produktuaren eskuratzea —espezietan— ez den beste gauza baten eran agertzeko: mailegu-hartzaileak produktua kontsumitu edo deuseztu egiten du. Moneta materialetan definitua, produktuak bere horretan irauten du ala gastatu egiten da; eta, baldin eta gastatzen bada, kontsumitu egiten da halabeharrez. Produktua lehendabizi monetan dago; errentaren existentzia-denbora da; gero, errenta gastatu egiten da; orduan produktua bat-batean kontsumitu egiten da, erabil-balioan eraldatua izanik, nahiz eta makinak edo beste edozein produkzio-medio izan. Moneta materialaren sisteman, produkzio-ondasunak besteak bezalako kontsumo-ondasunak dira; hori horrelaxe da, kontsumoak definizio unibokoa daukalako: utilitate-formatik materia ateratzen duen eragiketa da.

Produkzio-ondasunak kategoria bereziak dira kapitalaren kategorian sartzen direnean; eta kapitala moneta-formatik aske den produktua da eta, hala ere, kontsumitu gabeko produktua, biak batera: bi eskakizunak adosten dira, mailegu absolutuaren epemugan gordailaturiko produktua, moneta-forman —zeina definitikoki utziko duen, produktuaren azken kontsumoan— birsartzea izanen den gertakarian.

Bere izaera bikoitzean —fondoa eta titulua— denbora-kapitala banku-monetan existitzen da soilik.

8.2. KAPITAL FINKOA

Egiazkoa da kapital finkoa produkzioan kontsumitzen dela, edo zehazkiago esanda, produkzioaren ‘prozesuan’. Hala ere, zergatik dagozkio produkzio-tresnak kapitalaren kategoriari?

Erantzuna zuzena izan daiteke, baldin eta kapitalaren esanahia errespetatzen bada: oraingo truke-balioa etorkizuneko truke-balio bihurtuz eraldatzea da. Mutazioaren terminoak zehatzak dira: oraingo produktua desagertu egiten da monetatik ateratzen delako —errenta deuseztatu egiten da—; kapitaletik etorria, etorkizuneko produktua monetan hasieran ‘kapitalizaturiko’ produktuaren birsartzea da.

Ez al dira produkzio-medioak (tautologikoki) produktiboak? Zergatik sartzen dira kapitalaren kategorian?

Ez al dira produkzio-medioak kapitala, produktibitate fisikoa daukatelako? Industrien ekipamenduaren hobekuntza progresiboak produzituriko ondasunen gehitzea —kopuru eta kalitatetan— bermatzen du. Ekipamendu-ondasunetarako dedikaturiko edozein errenta kapital bihurtuz eraldatzen da, beraren titularrak produktibitatearen irabazien parte bat, gutxienez, eskuratzeko asmoa eduki baitezake.


Erantzun hori makala da, produktibitatearen irabaziak erabil-baliotan definitzen baitira eta ez truke-baliotan. Produkzio-medioak baliotan produktiboak izanen dira, baldin eta soilik baldin etorkizuneko produktuen parte bat beraiei eslei badakieke, 'ondorioak' 'kausei' esleitzen zaizkien antzera. Produktuak onartzen du definizio zientifiko bat soilik: utilitate-formarekin kontaktuan dagoen materia da produktua. 'Kausa' bakar batek materia bere forma proiektatuan isurtzen du: giza-lana deritzon forman. Honela, nahiz eta makinak 'lagundua' izan, produktuaren autore bakarra gizakia da, bera baita emisiogile bakarra.

Dudarik gabe egiazkoa da ekipamenduen hobekuntzak ekonomia nazionalari permititzen diola utilitate-forman ondasun gehiago sartzea, baina produktuak neurria hartzen du formatik, eta ez alderantziz; horretatik ondorioztatzen da aurrerapen teknikoa eta produkzio-medioen metaketa ez-gai direla produktuak beren zentzu zehatzean biderkatzeko: ondasun gehiago eta aniztasun handiagoa daude sarturik produktu ez-aldatu batean. Keynes-ek proposaturiko 'unitateen aukeratik' egindako neurketan —bere *General Theory*-n— arazoa argi dago: produktua alokairu-unitatetan neurtzen da. Produkzio-medioen hobekuntza eta biderketa-eragiketa neutroak dira alokairuen emisioarekiko. Gizakiek emititzen dituzte alokairuak; makinek ez dituzte emititzen. Nahikoa da: makinak produktu erabat nulua dauka balioan, —produktua zentzu hertsian hartuta—.


Hortaz, ekipamenduak ezin dira logikoki klasifikatu kapitalaren kategorian, beste modu berri baten bidez produkzio-medioek lanaren produktuei beren produktua eranstea nola lortzen duten ezplikatzen ez bada, behintzat.

Kapital finkoak hasieran (inbertsioan) bereganaturiko balioa birproduzitzen du. Banku-moneta daukaten ekonomietan, kapital finkoa alokairuen emisio berrietan aurrezturiko errenten sartzeak produzitzen du.

Kapital finkoa denbora-kapitalaren mutazioaren bidez lortzen da. Izan ere, begira diezaiogun denbora-kapitalaren deuseztapenari. Baldin eta, epemugan, kapitaletik sortutiko errenta kontsumitzen bada, kapitala deuseztatu egiten da; litekeena da denbora-kapitala bere epemugara iristea produktu askatua kontsumitu barik; kasu honetan ondoko kateak



hirugarren terminotzat birproduzitutako eta ez kontsumituriko errenta dauka: (a) mugimenduan eratua, kapitala (b) mugimenduan deusezten da, baina birsorturiko errentak aurrezki berria definitzen du, hots, kapital berria. Beraz, katea ondoko modura osatu behar da:



Lehen mutazioa, (a), oso ezaguna da; eragiketa bakarra da eta beronen emaitza bikoitza: produktua monetatik askatzen da eta gordailatu egiten da; errenta monetarioa deuseztatzen da, gordailaturiko produktuaren gaineko tituluak ordeztatua ahal izateko.

Beste bi mutazioak, (b) eta (c), mugimendu berean gauzatzen dira, denbora-kapitala kapital finko bihurtzean.

(i) (b) mutazioak esan nahi du, aurrezturiko errenta produktu baliokidearen erosketan gastatzen dela;
(ii) (c) mutazioak esan nahi du, aurrezturiko errenta, ez dela gastatzen gordailaturiko ondasunaren erosketan, produktu berrien bereganatzean baizik, produkzio-medioak bereganatzean alegia.

Bi mugimenduen —(b) eta (c)— lotzea produkzio-medioen produktugileek irabazitako alokairu berrien emisioan aurrezturiko errenten gastuak lortzen du. Honela egiaztatzen da errenta deuseztatzen dela, eta deuseztaturiko aurrezkia batbatean ordezkatzen dela: ondasun instrumentalen —jadanik erosiak denbora-kapitalaren gastuan— erosketarako ezin direnez destinatuak izan, ondasun horien produkzioan sorturiko alokairuak definitiboki aurrezten dira.

Dei diezaiogun hasierako emisioa, aurrezki monetario nuluari dagokion alokairuen ordainketari; emisio induzituak dira, aitzitik, aldez aurreko aurrezkitik egindako alokairuen ordainketak. Orduan *alokairu-ondasunak* izena esan dezakete hasierako emisioen produktuek, eta *kapital-ondasunak* emisio induzituen produktuek. Kapital-ondasun guztiak alokairu-ondasunen kopuru baliokidearen eraldatzearen bidez lortzen dira.

Denbora-kapitalaren eratzeak, aurrez aurre, alokairu-ondasunen stocka eta stock horren gaineko tituluak sortzen ditu, hau da, kapital erreala eta kapital finantzarioa. Denbora-kapitalaren parte bat gordailutariko ondasunen azken erosketan berreskuratzen da soilik. Denbora-kapitalaren parte osagarriak emisio induzituak elikatzen ditu eta, honela, kapital finko bihurtzen da.

Klasikoak ‘kontsumo produktiboaz’ mintzatu ziren. Kontzeptua ona da analisi modernoan ere. Kapital finkoan eratzen den denbora-kapitalaren partea beste

partea bezalaxe kontsumitzen da, baina era original batez; emisio induzituan sarturik egonik, kapitalaren deuseztapenak 'fondo' berri bat sortzen du: definizioz, kapital-ondasunak aurrezten dira. Alokairu-ondasunak ez bezala, zeintzuek stockak eratzen baitituzte 'esperoan' daudelako, kapital-ondasunak, gordailuak dira gordailuak; berez dira gordailuak, hortaz, erredundantea da kapital-ondasunen stockaz mintzatzea.

Kapital instrumentalean finkatua, ba al dagokio denbora-kapitala edozein kapitalen definizioari, alegia, ba al da etorkizunera igorritako oraingo errenta?

Berrar dezagun mugimenduen katea: (a) mugimendua (1) errentaren eraldatzea da (2) denbora-kapital bihurtuz, (b) mugimenduak hasierako errenta (3an) birproduzitzen baitu. Arau berberaren arabera, (c) mugimendua benetan kapitala (4an) den magnitude batera iristen da, baldin eta soilik baldin analisi induktiboak aurkitzen ahalbidetzen badu, ekonomiaren funtzionamenduan, kapital finkoaren deuseztapena defini dezakeen eragiketaren bat, eta, honela, hasierako errentaren birprodukzioa. Eragiketa hori badago, egon, eta gure zientziaren hasieratik bertatik ezaguna da: kapital finkoaren *amortizazioa* da. Kontzeptua adierazgarria da; kapital finkoa hil egiten da, deuseztatu egiten da. Kapital finkoaren deuseztapena, denbora-kapitalaren deuseztapena legez, hasierako errentaren birprodukzioa da, kapital bihurtuz eraldatu zen errenta berbera.

Egia da amortizazioak ez duela segitzen logika berbera, beraren objektua denbora-kapitala edo kapital finkoa izatearen arabera. Gogora dezagun klasifikazioaren irizpidea. Denbora-kapitala produktuen merkatuan gauzatuko errenten deuseztapenetik dator: beren ordainketen aldiunean, (banku-monetako) errenten titularrek kontsumitu egiten dituzte eta alokairu-ondasunen —koerlatiboki aurreztuak eta gordailatuak— gaineko tituluak jartzen dituzte haien ordez.


Kapital finkoa, aldiz, zerbitzu produktiboen merkatuan egindako errenten deuseztapenetik dator: aldez aurretik eraturiko denbora-kapitala alokairu berrien emisiora jaurkititzen da, kapital-ondasunen produktugileen ordainketa modura. Denbora-kapitala errenten eraldaketa zuzenaren bidez lortzen da, kapital finkoa denbora-kapital baten eraldaketa den bitartean. Langileek kapital finkoa produzitzen dute beren alokairuek denbora-kapital batetik datozen neurri zehatzean.

Bi kapitalen bereizketak amortizazioen bereizketa inplikatzen du. Denbora-kapitalaren amortizazioa deuseztapen netoa da: kapitala errenta bihurtzen da, eta honelaxe birsorturiko errenta kontsumitu egiten da. Kapital finkoaren amortizazioa, aitzitik, deuseztapen/sormen bat da: amortizazioak birsorturiko errenta bat-batean kapital birbilakatzen da. Legitimoa da kapital horri finkoa deitzea, ez baitu askatzen errentarik, berriro bera finkatuz ez bada. Denbora-kapitalean harrapaturik, errenta askatu egiten da azkenik; baina kapital-ondasunetan harturik, betiko dago 'preso'. Kapitalak errentatik bere 'iraupena' maileguz hartzen du, betiko harrapatzen duelarik. Denbora-kapitala errentaren eraldaketa ez-egonkorra da; kapital finkoa inbertitu-

riko errentaren behin-betiko eraldaketa da. Hortik ondorioztatzen da kapital finkoaren amortizazioa eragiketa bikoitza dela, esan bezala, deuseztapen/sormen bat: inbertituriko errenta askatu egiten da, baina bat-batean berrartu egiten da, eta honela, kapitalean irauten du, bere 'etxe finkoan'.

Kapital-ondasun guztiak beren materia edo erabil-balioaren hondatzearen menpe daude, zeina aurrerapen teknikoak zenbat eta produkzio-medioak garatuagoak hornitu, hainbat eta lasterrago desagertzen den. Horrela arau logiko elementalaren formulaziora iristen da: kapital instrumental agortuaren edo zaharkitu bihurtuaren ordezkatzea, mozkin netoen eratzea gutxitzen duen errenta baten gastua da.

Izan bedi *p* errenta monetarioen eratze-gastuaren epealdi bakar bat. Demagun arazoa ebatzita dagoela, eta, zentzu hertsian, alokairu-ondasunen produkzioan errenten *x* unitateko emisioa erabiltzen dela, eta amortizazio-ondasunen produkzioan errenten *y* unitate.



Ekonomia nazionalaren ikuspuntutik, errenten errefluxua alokairu-ondasun hertsien erosketan $x - y$ unitatekoa da, eta *p* epealdian, kapital finko galduaren ordezkatzean, epealdiaren amortizazioa, *y* unitateakoa.

Errenten titularren ikuspuntutik, alokairu-ondasunen ordainketan errenten $[(x - y) + y]$ unitateko gastua egiaztatzen da, zentzu hertsian; honela ikusten da errenten *x* unitateko gastuak titularrei alokairuen $(x - y)$ unitateko neurriaren produktua ematen diela soilik: $x - (x - y) = y$ diferentzia, mozkina da, enpresek berreskuraturiko errenta. Mozkin hori ez da netoa; alderantziz, mozkin gordinaren partea da, amortizazio-ondasunen ordainketan desagertzen dena. Honela, *y* mugimendua, batera da, alde batetik, kapitalean hasieran inbertituriko errentaren (*y* unitateko neurriko) birprodukzioa —(1) fluxua— eta, bestetik, errenta (kapitalean bat-batean birsartuta dagoena) horren berrorren deuseztapena —(2) errefluxua—. Fluxu/errefluxuaren —(1) eta (2)— lotzeak kapital finkoaren amortizazioa definitzen du, beronen bi aurkako formetan, hautsezinki loturik.

Geratzen dena honako hau da, alegia, alokairu-ondasun hertsien eta amortizazio-ondasunen epealdiko mozkinaren banaketa definitzea. Araua erabat logikoa da:

mozkin gordina hartzen da, ikusteko, ea produktuen merkatuan —hortaz enpresen artean— gastatzen den ala zerbitzu produktiboen merkatuan —mozkinaren enpresek, titular moduan, eginda— gastatzen den. Lehen kasuan, mozkina soilik gordina da, eta erositako produktuak ez dira inbertsio-ondasun netoak; bigarrenean, mozkina netoa da eta beraren gastuan erositako produktua kapital finko metatuaren gehitze bat da. Baldin eta *y* bada —ondainketa konkretuen fluxuen kontabilitate-kontuen arabera—, industrien arteko erosketarako zuzentzen den epealdian gauzaturiko mozkin gordinaren partea, *p* epealdiko errentaren banaketa bere bi partetan, *x* eta *y*, ez da arbitrarioa, ezarria baizik. Orduan ezagutzen da *y* fluxua kapital finkoaren mantenimendu edo kontserbazio soila dela, kapital finkoak epealdian *x* alokairu unitateko deuseztapen/sormen —amortizazioa— bat esperimentatzen duelarik.

Kapital finkoak tradizionalki ‘kapital zirkulatzailea’ deituriko parte bat dauka. Zein ote da kapital finkoaren parte zirkulatzailearen amortizazioaren araua?

Orokorrean, kapital zirkulatzailearen amortizazioa kapital finkoaren amortizazioaren arau berberaren menpe dago.

Analiza dezagun nola eratzen den *p* epealdiko kapital finkoaren parte zirkulatzailea. Lehendabizi nulua da, epealdiak soilik hartzen baitu ‘heredentzian’ kapital finkoaren parte ez-zirkulatzailea, hots, makinak eta era guztiko ekipamenduak. Enpresak erosle-bitartekariak dira; beren forma gordinetik beren forma bukatura igarotzean, baliabide naturalak berdinki (gutxienez parte batean) enpresa batetik beste batera igarotzen dira. Honela, ezinbestekoa da ‘ibaian gora’ emitituriko errentak ‘ibaian behera’ emitituriko errenten laguntzarekin gastatzea: jantziaren erosketak oihalaren, eta lehenago hariaren, ordainketa barneratzen du. Beraz, produktu bukatuaren saltzaileak produkzio ‘bertikaleko’ maila guztietan emitituriko errenten batura bereganatzen du. Honela eraturiko mozkinek kapital zirkulatzailea definitzen dute. Mozkin horiek enpresak bere hornikuntzetan gastatzen dituenean amortizatzen dira. Hortaz, kapital zirkulatzailearen amortizazioa errenten deuseztapen/sormen bat da, kapital finkoaren beste partearen amortizazioa bezalaxe. Diferentzia bakarra ondokoa da, hots, kapital zirkulatzailea lehendabiziz nulua dela: zentzu hertsian, kapital zirkulatzailearen amortizazioa zerotik zerora doan sormen/deuseztapen bat da, kapital instrumentalaren amortizazioa deuseztapen/ /sormen bat den bitartean.

Amortizazioaren eragiketari, —neutroa dena—, zeinu bat ematea baztertzen bada, arau orokorraren formulaziora iristen da: edozein kapital finko, errenta baten deuseztapenetik dator, zeina, aurrerantzean, fluxu/errefluxuen menpe dagoen: kapital zirkulatzaileak, hasieran nulua zena, nulua irauten du fluxu/errefluxu soil baten emaitzaren bidez; kapital finkoaren beste parteak, epealdiaren hasieratik positiboa zena, epealdian zehar, fluxu/errefluxuen jarraipen indefinituan, ondorengo epealdi guztietan positibo izaten irauten du.

Beraz, kapital finkoaren araua orokorra da eta teoriari dagokiona: kapitala epeka askatzen den errenta baten deuseztapenetik dator.

Kapital finkoa denbora-kapitalaren eraldaketa soila da eta enpresan eraturiko edozein kapital, baita kapital finkoaren kapital zirkulatzailea ere, fluxu/errefluxuaren arauaren menpe dago. Errenta hasieran kapital bihurtuz eraldatua, epeka berorrek askatua da kontsumitua izateko —zirkulatzailea baldin bada— edo berrinbertitua izateko, zeren, gizakiaren borondatetik at, kapital finkoaren kontserbazio edo mantenimendua logikaren legea baita, eta ez eragileen portaeraren emaitza.


Kapitalaren ezaguerak inflazioaren sakoneko izaera aurkitzeko bidea zabaltzen du, ikusiko den bezala.

8.3. KAPITALAREN JATORRIA ALOKAIRUEN EMISIO DA

Atal honetan banku-monetaren gainean argudiatuko dugu. Produktu guztia alokairuen emi-sioan agertzen da. Errentak bat-bateko existentzia dauka. Errentak sortzen direnetik, titularrek maileguz ematen dituzte, 'berrartzearen' aldiunera arte. Hau da, errentak bat-batean *aurrezki*, edo identikoki *kapital*, bilakatzen dira.

Oraingoz gastaturik gabeko errentak kapital dira, bankuaren gainean titulu edo kreditu-eskubide modukoak.

Enpresetan, 'kontsignan' bezala, gordailaturiko ondasunak errenta-titularren jabego ekonomikoa dira. Enpresak bankuari stockak 'zor' dizkio, eta bankuak stock horiek errenta-titularrei 'zor' dizkie.



Enpresetan gordailaturiko ondasunen benetako jabeak titularrak dira, hots, tituludunak (tituluak bankuei erosiak), aurreztaileak.

Edozein kapital errenta-titularrei dagokie, ez enpresei. Kapitala titularren etorkizuneko errenta da. Ezein titularrek ez du astirik errenta gastatzeko beronen eraketa-aldiunean; titular bakoitzak bere errenta aurrezten du, berak produktuen merkatuan (nahi duenean) gastatzen duen aldiunera arte. Aurrezkia ez da errenta, kapitala baizik.

Aurrezturiko alokairuak, alde batetik, enpresan gordailaturiko produktuak dira eta, bestetik, produktu horren gaineko eskubide erreala errenta-titularren hartzekoan.

Bankuen aurrean errenta-titularrek daukaten eskubide erreala produktu fisikoaren neurri zehatza da, kapital materialean (stockak) eratua eta enpresan gordea. Produktua monetatan sortzen da; gero, alde batetik, titulua dago (aurrezkia), eta bestetik, tituluaren objektua (stocka).

Ez titulua (kapital finantzarioa) ezta berorren objektua ere (kapital materiala) ezin existi daitezke bata bestea gabe.

8.4. AURREZTURIKO ERRENTAREN ZATI BAT ENPRESA-KAPITALEAN ERATZEN DA

Egia da, produktu-merkatuan azkenik gastaturiko edozein aurrezki, kapital ezabatua dela: produktua gordelekuetatik erretiratzen da, eta koerlatiboki, bankuen gainean familiek dituzten eskubide errealak desagertu egiten dira.

Beraz, existi daitekeen kapital bakarra, enpresen mozkinerako alokairuen zati baten transferentziatik dator. Tranferentzia hau produktuen merkatuan eta zerbitzu produktiboen merkatuan batera dagoen fluxua da.

Bere eraketatik, edozein mozkin kapitala da. *Finantza*-magnitudea: mozkina bankuen gaineko kobrantza-eskubidea erreala da; magnitude *materiala*: mozkina eskubide erreala da.

Alokairu-ondasun gordailatuetatik kanpo, mozkin monetarioak daude, alokairuzko errentak enpresei transferitzen zaizkien neurri zehatzean.

8.5. KAPITAL-MOZKINAREN ZATI BAT AZKENIK DEUSEZTATU EGITEN DA, STOCK KORRESPONDENTEAREN IRTEERAN

Ez-alokairuzko errentatan banaturiko edozein mozkin deuseztu egiten da bere bi eitetan: familiek kontsumitu egiten dute (kapital finantzarioaren deuseztapena) eta, hori egitean, stocken neurri bera erretiratzen dute.

8.6. KAPITAL-MOZKINAREN ZATI OSAGARRIA, INBERTITURIKO MOZKINA, FISIKOA DA; MATERIAN SARTURIK, AURREZKI FINANTZARIOAK BERTAN DIRAU

Mozkina eragiketa uniboko batean inbertitzen da, alokairu berrien ordainketan enpresek eskuraturiko aurreko alokairuen bidez. Horregatik, inbertsio-ondasunak, hasieran errenta-titularren aurrezkiak gordailaturiko alokairu-ondasunen era berri eta azkena dira.

Epealdi berriaren produkzioak, kapital-ondasunak sortzen dituenak, alokairu-ondasunak jaulkitzen ditu eta horien bidez, bat-batean, kapital instrumentalak,

aldatu gabeko ‘stockean’. Azkenik, erremintak, makinak eta ekipamenduak alokairu-ondasunak dira, zeintzuen aurrezkiak erabat ihes egiten dion familia-kontsumoari.

Oraingoz, kapital finantzarioaren eta kapital materialaren erlazio biunibokoa errespetatzen da. Egiaztatzen da aurrezkiaren (kapital finantzarioa, alokairu eskuratuak eta inbertituak berdintzen dituena) eta ‘stockaren’ (kapital materiala, mozkinetatik alokairuen emisoaren produktua espezietan) koexistentzia. Esan daiteke kapital finantzarioa inbertsio-ondasunean ‘sarturik’ (‘*embodied*’) dagoela.

8.7. KAPITAL FINKOAREN ERAKETA

Esaten denez, kapital finkoaren gehiketak, inbertsio netoak, bi iturri desberdin ditu: mozkina (edo autofinantzaketa) eta obligazio-merkatuetako mailegua.

Lehendabizi bi iturriak, errealitatean, bat besterik ez direla frogatuko dugu: kasu bietan, enpresaren mozkinaren gastuak inbertsioa definitzen du. Honela, kapital finkoaren analisia mozkinaren analisian kokatzen da.

Inbertsioaren eragiketari atzerantz begiratzen bazaio, mozkin monetarioa lehendabizi, bere lehen egoeran, *aurrezkia* dela ikusten da. Kapital-ondasuna aurrezki monetarioaren aurrean alokairu-ondasunek osaturikoa da. Honela, bere sorreran, kapital finkoa, alokairu-ondasun aurreztuen eran agertzen dena, denbora-kapitala besterik ez da.

Gero, mozkin monetarioaren gastua esplikatu beharra dago, hots, beraren eraldaketa ondasun fisikoetan.

Edozein delarik bere helburua, mozkinak beti zerbitzu produktiboen merkatuan gastatzen dira, produktuen merkatuan alokairuak gasta baitaitezke soilik. Ondorioa argi dago. Mozkin monetarioen eraldaketak inbertsio-ondasunetan, batera dakar ez soilik mozkina zerbitzu produktiboen merkatuan gastatzen dela — zeina egiazkoa den mozkinaren edozein gastutarako—, baizik eta mozkina produkzio *berri* batean gastatzen dela, mozkina sortu zeneko alokairuen produkzioaren ondokoa.

Azkenik, inbertsioa egiten da bere osotasunean: alokairu-ondasuneko stockaren eraldaketa, kapital-ondasunen ‘stockean’ edo kapital instrumentaletan gertatzen dena besterik ez da. Honela, egiaztatuko da kapital finkoa denbora-kapital hutsaren eraldaketa dela.

8.7.1. Edozein inbertsiok bere iturria enpresaren mozkinean dauka

Finantzaketa maileguz hartzen denean, enpresak bere buruari mozkina aurreratzen dio. Era horretan, inbertsioa jadanik gauzaturiko mozkinaren gastua da edo

gauzatua izanen den mozkinarena. (Geroxeago gauzatuko dena, baina jadanik erabilgarria, zeren mailegu-emaileak dagoeneko egindako errentaren trukean aldatzen baita.)

8.7.2. Mozkinaren inbertsioak alokairu-emisio berri bat inplikatzen du

Mozkinaren inbertsioa zerbitzu produktiboen merkatuan gastatzen da, alokairuen emisioan. Beharrezkoa da, hortaz, bi epealdi desberdin kontuan hartzea: batean mozkina eratzen da, eta bestean mozkina gastatzen da eta inbertsio-ondasunetan eraldatzen da.

Kapital-ondasunak, edo inbertsio-ondasunak, ez dira kapital finkoaren era primitiboa, beraren bigarren forma baizik, mozkin monetarioaren eraketan aurrezturiko alokairu-ondasunen 'kontsumo produktiboak' lortua, hain zuzen.

8.7.3. Kapital finkoaren garapena

Kapital finkoa mozkin monetarioen eraldaketak aurrezturiko alokairu-ondasunen azken forma da: kapital finkoa denbora-kapital hutsaren eraldaketa da.

Ikus dezagun mozkinaren eraketa/gastua inbertsio kasuan:

(i) Mozkinaren eraketak alokairu-ondasunen stockaren baliokidea determinatzen du. Stock hori kapital finkoaren lehen definizioa da. Izan ere, kapital finkoak mozkin monetarioaren eraketan du bere jatorria, zeinaren 'eraldaketa' besterik ez den.
(ii) Mozkinaren gastuak kapital finkoaren barne-eraldaketa definitzen du, beraren edukia, alokairu-ondasunetan lehendabizi eratua, kapital-ondasunetan edo kapital instrumentalean eraldatzen delarik. Mozkinaren gastua eta gero, kapital finkoa oraingoz denbora-kapitala da, baina aldi honetan denbora definitiboki 'produktuan sarturik' dago, zeinaren era instrumentalak kontsumotik ihes egin duen etengabeki. Kapital finkoa alokairu-ondasun eraldatuen stocka da —kontsumo produktibo eraldatuak—; beraz, beraren familien arteko banaketa egun batetik bestera luzatzen da: edozein kapital finko 'bihar' kontsumituko da, bihar hori etengabeki luzatuz.

Alokairu-ondasun ez-eraldatuak (soilik aurreztuak) goiz edo berandu saldu egiten dira; kapital finkoan eraldaturiko alokairu-ondasunak aurrezki finko dira, zeinaren banaketa etengabeki luzaten den, egunetik egunera. Dena den, kapital instrumentalean finkatzen dena, denbora besterik ez da.

Ikus dezagun analisi bera zirkuituaren bidez.

8.8. ZIRKUITUA, ERRENTEN FLUXU ETA ERREFLUXUAREN IDENTITATEA

Ekonomia politikoaren helburua produkzio-modua aldatzea da. Hori, banku-kontabilitatearen berregituraketaren bidez lortzen da (Schmitt 1984a).

Inflazioari eta langabeziari aurre eginen zaie, emisio monetarioak moneten sormen-arau logikoak segituko dituenean. Alegia:

(i) Moneta alokairuen ordainketan sortzen da. Alokairuen ordainketaren sarreran, sortzear dagoen moneta dago, sortu gabekoa. Alokairuen ordainketaren irteeran, familien aktiboan existitzen da moneta.
(ii) Jasotako alokairu monetarioak 'era' eta 'edukia' dira. Alokairuen era (monetarioa) bankuak sortzen du; alokairuen edukia langileen produktuak definitzen du. Beraz, azala bankutik 'irten' den bitartean, beraren edukiaren iturri bakarra giza-lana dela ikusten da. Moneta errealak bankua zeharkatzen du: produktua enpresan eraturiko moneta negatiboan proiektatzen da; eta produktua bera errenta-titularren jabegoan monetak ordezten du.
(iii) Moneta erreala (produktua bere azal monetarioan) eratzen den aldiunean, berak errenta definitzen du. Errenta berehala kapital bihurtzen da. Honela, alokairuen emisioan loturiko benetako finantza-bitartekaritza agertzen da. Orain errenta-titularrak aurreztaileak dira; aurrezkia mailegatu egiten da edo bankuan gordailatu; azkenik, bankuak enpresei aurrezkia maileguz ematen die. Oraingo errenta bat-batean baliokide den etorkizuneko errenta bihurtuz eraldatzen da, kapital finantzario eta erreala. Kapital finantzarioa familien hartzekoan eratzen da; dagokion kapital erreala enpresetan, stocken forman, ezartzen da. Beraz, alokairuak 'sortu' dituen bankua azkenik finantza-bitartekaria da, enpresei familien aurrezkia transmititzen baitie.

(i), (ii) eta (iii) puntuek eragiketa soil eta bakarra osatzen dute, hots, alokairuen ordainketa edo emisioa. Eragiketa sormen monetarioa (i) izan ez balitz, ez litzateke posiblea izango langileei banku-monetaz ordaintzea. Beste aldetik, errentak bankutik 'irtengo' balira, langileek ez liekete beren buruei ordainduko, beren lanaren gastuaren bidez. Alokairuen era, ez edukia, bankuak sortzen du (ii). Azkenik, errentak sortzen direnean, aurrezkia eratzen dute; bankuak aurrezkia bereganatzen du, enpresei maileguz emanez (iii).

Bere sorreran, moneta jadanik aurrezkia da; gero bat-batean mailegatua da (langileek enpresei). Eragiketaren finantzaketa, bitartekaritza da eta ez sormena: enpresek produktua —gordailatua— maileguz hartzen dute bankuan, zeinak familiengandik maileguz hartu duen. Enpresen aurreko bankuaren kobrantza-eskubidea konpentsatzen du bankuaren aurreko familien kobrantza-eskubideak.

Alokairuen ordainketak errenta-titularren aurrean (ez bankuen aurrean) enpresak zorpetzen ditu

Alokairuen emisioa banku-monetan, bankuetan batera positibo eta negatibo den eragiketa da. Alokairu baten sormenean, bankuak enpresaren —'ordaintzailea'— aurreko kobrantza-eskubidea bereganatzen du eta langilearen —'ordaindua'— aurreko zorra. Horretatik ondorioztatzen da, eragiketak ez diela inolako kobrantza netoko eskubiderik eman bankuei.

Alokairuen ordainketak ekonomia osoaren —alokairuzko errentak eta ez-alokairuzkoak— kobrantza netoko eskubideak sortzen ditu. Zein zentzutan esan daiteke errenta-titularrak hartzekodunak direla?

(a) Sormen gisa, alokairuen ordainketak ez du ezelako kobrantza-eskubidea ezartzen ekonomian;

(b) banku-bitartekaritza gisa, alokairuen ordainketak langileen kobrantza-eskubidea sortzen du enpresaren zorraren aurrean.

Hortaz, ikusten da, alokairuen ordainketak ez dituela enpresak zorduntzen bankuen aurrean, baizik eta, bankuetan zehar, errenta-titularren aurrean.

Ekonomia konkretuan, enpresak gutxitan ordaintzen ditu bere alokairuak banku-aurrezkien bidez; horretarako, bere fondoak dauzka, normalki.

Kasu bietan, bere fondoetatik edo banku-aurrezkietatik ordaindu, alokairuen ordainketak errenta-titularren eta enpresen arteko erlazioa ezartzen du.

Erlazioa honelaxe adierazten da: sortzen direnetik, errentak denbora kronologikoan ezartzen dira. Errenta denbora kronologikoan ezartzeak, errentak aurrezki bihurtzen direla esan nahi du: beraz, errenten titularrak aurrezki berriaren titularrak dira. Aurrezturiko errentak *ipso facto* mailagatzen zaizkie enpresei bankuen bidez (zeintzuek produktu berriaren era monetarioa emititzen duten). Koerlatiboki, enpresek banatu gabeko produktua, stocketan daukate. Familien aurrezkiek, honela, enpresen aurreko kobrantza-eskubidea definitzen dute, eta enpresetan zehar, stocken aurrekoa.

Alokairuak aurrezki bihurtzen direnean, alokairuen zirkuitua itxi egiten da, alokairu monetarioak finantzario bilakatzen baitira: harrez geroztik produktu gordailatuen gaineko kokrantza-eskubide dira. Horrela, bada, enpresak errenta aurreztuak dauzkaten familien aurrean (bankuetan zehar) zordundurik daudela induzitzen da.

Existitzen den bitartean, familien aurrezkia logikoki (beraz, halabeharrez) maileguz emango zaio enpresen multzoari. Edozein aurrezki (familetan eratua) ondasun gordailatuak dauzkaten enpresen multzoari mailegatzen zaio.

Logikak eskatzen duenez aurrezkia stockak dauzkaten enpresetara iristen denean desagertzen da soilik. Egia da enpresa batek beti ezin dituela gordailatutako

ondasun guztiak saldu, ondasunak jendearen gustukoak izaten ez direnean edo izateari uzten diotenean. Baina aurrezkiaren eratzea edo helburua ez dira inoiz eztabaidatzen. Saldu gabeko ondasunen baturak kobrantza finantzarioko eskubide aurreztuen batura baliokidea definitzen du. Beraz, aurrezkiak erabilgarri izaten segitzen du, mobilizatzeko prest egonik, enpresak daukan gainontzeko zorra elikatzeko.

Are gehiago, edozein delarik salmenta txarrarren egiazko kausa, nabaria da beti —are enpresak porrot egingo balu ere— eragile batek saldu gabeko ondasunen erosketa behartua suposatzen duela, eragile horren identitatea erregulazio juridikoei dagokienez. Eragile hori beharturik dago 'esperoan' dagoen aurrezkia eskuratzera, saldurik gabeko ondasunen ordainketan deuseztatzeko.

Existitzen den bitartean, ezin litekeena da ezein aurrezki gordailaturiko ondasunak dauzkaten enpresek maileguz hartua ez izatea.

Ezein aurrezki ezin da galdu. Aurrezkia ez da putzu batean desagertzen, baldin eta azkenik eragileek ondasun bat edo ondasun-multzo bat erosten ez badute; hori ez da gertatzen aurrezkia kontsumoa baino nahiago dutelako, ondasun horiek nahi ez dituztelako baizik. Hitz batez, aurrezturiko monetak ez du baztertzen kontsumo-ondasunen salmenta, zeren, monetaren izaera bikoitza dela bide, aurrezkia ezin baita inoiz desagertu, ez bada, prezeski, gordailaturiko ondasunen salmentan.

Izan ere, azkenik edozein aurrezki gastatu egiten da eta edozein aurrezkiren gastua kontsumo-ondasunen erosketa da.

Zirkuituaren logikak eskatzen duenez, espekulazio-aurrezkia bera ere kontsumora dago murrizturik, erabat. Gure ekonomiaren edozein aurrezki diferitutako kontsumoa da.

Nori ematen diote maileguz aurrezkia familiek? Logikak esanen du. Zirkuitua hiru erpinen artean definiturik dagoenez —bankua, enpresak eta familiak—, familien multzoaren aurrezki netoaren helburua, halabeharrez, enpresen multzoa da.

Prekauzio-trantsazio motako aurrezkia dei dakioke familien multzoaren barnean mailagaturiko aurrezkiari, multzoaren aurrezki netoa espekulatzailea baita. Edozein delarik beraren izena, familien aurrezki netoaren helburua argi dago: urrearen, dibisen, koadroen, lur-arloen zein etxeen mota guztiko saltzaileen artean ibiltzen bada ere, ondoko bi aukeratako bat gerta daiteke soilik: familietara itzultzen da ala familien multzoak mailegatzen du. Bigarren kasua da interesgarriena, zeren, familietan irauten duen edo familietara itzultzen den aurrezkia kontsumo diferitua besterik ez baita.

Aurrezkia enpresek bereganatzen dute. Enpresek ez dute bilatzen familien aurrezkia beren stockak finantzatzeko. Gordailaturiko ondasunak jadanik erabat finantzaturik daude familiek kontserbaturiko errenten bidez: enpresek ezin izango dituzte finantzatu bigarren aldiz.

Zergatik, orduan, aritzen dira enpresak familien aurrezki netoaren eratzearen eragiketan? Moneta aurreztua edukitzeko nahi handia daukatenak, bankuen aurrean enpresa zorpetuen enpresa lehiakideak direla dirudi. Argudioa hauxe litzateke: aurrezkia bereganatzen duen enpresa beste enpresa guztiak baino hobeki egonen litzateke. Horixe litzateke, hain zuen ere, gero eta esku gutxiagotan agertzen den kapitalaren kontzentrazioaren kausarik garrantzitsuena, gaizki aritzen diren enpresen ondareak bereganatuz.

Errorea —Keynes-engan ere aurki daitekeena— ondokoa pentsatzea da: familien multzoaren aurrezkia, hortaz, enpresek efektiboki eskuraturiko aurrezkia, ondasunen merkatuan familien gastuei definitiboki kentzen zaie. Ekonomialari gehienek holaxe uste dute. Zirkuituaren logikak, alta, alderantzizko emaitza ematen du; familiek, produzituriko ondasunen azken erosketetan, multzoaren aurrezki netoa gastatzen dute.

Familiek sorturiko errenta guztiak eskuratuko balituzte —honela inolako errentarik ez litzateke izanen enpresei transferitua—, gastu guztiak erosketa hutsak izanen lirateke produktuen merkatuan (behar izatekotan, merkatu finantzarioaren bidez, familien arteko maileguetarako).

Errealitatean, kontuan eduki behar dira mozkinak. Alokairuzko eta ez-alokairuzko errenten gastuak errenten deuseztapena izaten segitzen du; baina mozkinaren —eskuraturiko errentaren— gastua beste izaera batekoa da. Kasu, entrepresak bere mozkina inbertitzen badu, produkzio *berri* batean egiten duelarik, mozkinaz baliatzen da hurrengo epealdian alokairuak elikatzeko. Inbertsioa familien errenta bat erabiltzea da. Alokairuen ordainketa izanik, mozkin inbertituak alokairu berriak produzitzen ditu, zeintzuen gastuak familien azken aurrezkiaren lehengo epealdiko azken kontsumoa (familien aldetik) definitzen duen. Beraz, azken aurrezkiak ez dira betiko desagertzen produktuen merkatuan. Beste aldetik, enpresak, epealdi berrian, inbertsio-ondasunak berreskuratzen ditu.

p+ epealdian aurreko *p* epealdiko aurrezki eskuratua (enpresaren mozkina, alegia) inbertitzen da, alokairuen ordainketa berrian jaulkitzen delarik. Hasierako errentetatik lortua, aurrezkia errenta berrietan dago sarturik. *p* epealdiko aurrezkia *p*+ epealdiko produktuaren zati bat da: errenta berrietan eraldatua, aurrezki inbertitua *p* epealdiko gainontzeko produktuak erosteko erabiltzen da. Hauxe da aurrezkiaren fluxu osoa: *p* epealdiko produktuaren gainean sortua, *p*+ epealdiko produktua bihurtuz eraldatzen da eta, azkenik, *p* epealdiko produktua erosteko erabiltzen da.

Aurrezkiaren inbertsioa, *p+* epealdiko produkzioan egindako gastua, produktu-merkatuan azken erosketa da.

Harturiko aurrezkia inbertitzen duen enpresak *p+* epealdiko produktua erosten du. Honela, enpresak *p* epealdiko alokairu-ondasun gordailatuak — kapital finkoaren lehen forma— kapital instrumentalean —*p+* epealdian ekoitzitako inbertsio-ondasunak, zeintzuk kapital finkoaren azken forma diren— eraldatzen ditu.

Beraz, *p* epealdiko produktuaren aurrezkiak definitzen du bere sorreratik —hots, aurrezkia eratu denetik— kapital finkoaren eraketa, alokairu-ondasun gordailatuen forman: hau da, aurrezkia bat-batean inbertitzen da. *p* epealdiko produktuaren gainean eratua, aurrezkia *p* epealdi bereko produktuaren gainean deusezten da. Horrela, zirkuituak bat-batean ixten dira.

Ekonomiaren funtzionamendua ordenaturik legoke, baldin eta edozein emisio monetariok moneta erreala sortuko balu. Gaur egun produkzio-moduan bi zirkuitu daude:

(i) Moneta errealaren zirkuitua, alokairuen sormen/deuseztapenak eta beste gainontzeko errenta, dibidendo eta interesen deseuseztapen/sormenak definitzen dute.
(ii) Moneta nominalen zirkuitua zentzu hertsiko mozkinen sormen/deuseztapenak definitzen du, alegia, enpresen —hots, ez-pertsonen— errenten sormen/ /deuseztapenak.

Hala ere, erabat nominal den monetaren zirkuituak errenta nazionalaren parte diren eta ez diren errentak sortzen ditu:

(a) Mozkin errealak errenta nazionalaren parte bat dira, zeren, beste gainontzeko ondasunak bezelaxe, langileek sorturik baitaude.

(b) Mozkin monetarioak ez dira errenta nazionalaren ezelako parte, beren ‘substantzia-produktua’ berehala galtzen baitute gain-metaketaren onurarako.

Erabat huts den monetaren zirkuituak desoreka handien —inflazioa eta langabezia— etiologia direla ulertuko denean, konponduko da arazoa: banku-sistema aldatuz, emisio huts guztiak ‘iragaziak’ eta beren sorreran deuseztatuak izan daitezen. Zirkuituaren teoria ontzat hartuko denean, ekonomia politikoak, azkenik, ekonomiaren ‘erregulazioa’ proposatu ahalko die politikoei. Desoreka guztiak emisio hutsetik datoz. Benetako erregulazioa banku-kontabilitatearekin dago loturik: hiru departamenturen erabiltzearekin (Schmitt 1984a).

Schmitt-ek dioenez, banku-erreforma garapen intelektualetik etorriko da soilik.

8.9. KAPITAL FINKOAREN AMORTIZAZIOA DA GAKOA INFLAZIOA ETA LANGABEZIA ADIERAZTEKO

Erreminta, makineria, eta ekipamendu guztiak, kapital finko guztia alegia, 'produkzio-medio' guztiak, ez dagozkie familiei, errenta-titularrei. Hortaz, errenta-titularrek produkzio-medioen jabego ekonomikoa galtzen dute. Orain arte, produkzio-medioen jabego pribatua termino juridikoetan (Marx) adierazi da. Orain ekonomikoki aztertu da, zeren nahiz eta maila juridikoan produkzio-medioak sozialki jabeturik egon, inflazioak eta langabeziak iraunen baitute, ohiko sozialismoan ikusi den bezala.

Inflazioa eta langabezia kapital finkoaren amortizazioari dagozkio, Schmitt-ek maisuki frogatu duen moduan (1984a): ekonomia politikoaren helburua produkzio-moduaren aldaketan datza; helburu hori lortzeko banku-kontabilitatea erabat aldatu beharra dago. Banku-kontabilitatearen aldaketak produkzio-medioak anonimo diren familien multzoak eskuratzea bermatzen du. Honela, produkzio-medioen jabego pribatuaren 'desjabetzeak' bere zentzu ekonomikoa lortzen du, orain arte termino juridikoetan soilik formulatu zena. Jabego-eskubideak soilik maila juridikoan eusten badira, ekonomia patologiarekin biziko da.

8.9.1. INFLAZIOA

Demagun, epealdi konkretu batean banku-sarrerak ondokoak direla:

Banku-sistema

Aktiboa			Pasiboa	
(1)	Enpresak	100	Langileak	100
(2)	Langileak	30	Estatua	30
(3)	Langileak	70	Errenta-titularrak	70
(4)	Estatuak	30	Errenta-titularrak	30
(5)	Errenta- titularrak	100	Enpresak	100
(6)	Enpresak	20	Langileak	20

1. taula

(1) izendapena produkzioaren menetizazioari dagokio. Bankuek eginik dago, enpresen onurarako, eta errenta positibo bat sortzera darama, zeinaren eduki erreala produktu korrontea den.

(2), (3) eta (4) idazpenak alokairu (zuzen eta ez-zuzenen) ordainketaren bidez lorturiko errentaren transferentzia desberdinei dagozkie eta errenta hori eragile ekonomiko (enpresak barne, beraiek mozkina lortzen duten heinean, zeina geroxeago errenta, interes, eta dibidendoetan birbanatua den) ezberdinen arteko birbanaketa ahalbidetzen du.

(5) idazpenak erakusten du nola errenta azkenik deuseztatua den, produktu korrontearen erosketan bere azken titularrek gastatzen dutenean.

Produkzio berria, (6) idazpena, alokairuen ordainketa berri batek soilik finantza dezake, zeinak langileei (edo, birbanaketaren ondoren, errenta-titularrei) berriki produzitutako produktu berriaren gainean erosteko ahalmena ematen dien.

Zer gertatuko litzateke, baldin eta alokairuen ordainketa berria bankuen bidez egin barik, bera finantzatuko luketen enpresek edukitako errenta baten bidez egingo balitz?

Erakuts dezagun egoera hori, suposatuz ezen produkzioa bi enpresaren artean, E1 eta E2, eta 20 unitateko mozkina lorturik, E1-ek bere bankuari eskatzen diola 20 unitateko ordainketa berria egin dezan bere langileen onurarako (2. taula):

Banku-sistema

	Aktiboa		Pasiboa	
(1)	E1	100	Langileak	100
(2)	E2	20	Langileak	20
(3)	Langileak	120	E1	120
(4)	E1	20	Langileak	20
(5)	E2	20	Langileak	20

2. taula

Lehengo bi idazpenak, (1) eta (2), 120 unitateko produkzioari dagozkio. (3) idazpena, soilik E1-etik erosiz langileek beren errenta, gastatzeko erabakiari dagokio. (4) izendapenak alokairuen ordainketa berria errepresentatzen du, banku-sistemak egina E1-en eskarian.

Konpentsazioaren ondoren, kontabilitate-sarrerak erakusten dute E2 oraingoz 20 unitatetan zordundurik dagoela eta langileek neurri bereko gordailu positiboaren jabe direla, (5).

Globalki, produkzioa 140 unitatekoa da, zeina 120 langileek erosiko duten eta 20 E1-ek eskuratuko duen.


Monetaren eta produktuaren arteko erlazioari dagokionez, 1. taularen eta 2. taularen artean desberdintasun handirik ez dagoela dirudi. Kasu bietan banku-gordailuko 20 unitate azkenik produktu errealeko 20 unitaterekin daude aurrez aurre, eta irudi du ezen, mozkin positiboarekin finantzatua, alokairuen ordainketak ez duela inolako anomaliarik sortu sisteman. Hala ere, ongi begiratuz geroz, gauzak erabat ezberdin direla erakusten du, alokairuak moneta nominalaren bidez ala mozkin positiboaren bitartez ordaintzearen arabera.

Lehengo kasuan, moneta produktu errealarekin lotuta dago eta eragiketa errenta-kantitate berri baten sormenera darama, zeinaren lehen jabeak langileak diren.

Bigarren kasuan, mozkin bat gastatzen da alokairuen ondainketaren barruan; honek esan nahi du ezen, monetaren kopuruaren eduki erreala langileei kreditatua izan barik, output korrontea azkenik E1-ek erosten duela, horrela langileei efektiboki moneta 'huts', ez-bete, bat kreditatuz. Egia da, moneta huts hori ez dela oraingoz monetaren eta produktuaren arteko tarte inflaziogilearen zeinua, zeren langileei E2-ren produktuaren gaineko eskaria ematen baitzaie; baina honek ez du ezkutatu behar ezen, E1-ek zerbitzu produktiboaren merkatuan gauzatutako erosketa dela emaitza, eta E1-en produktu errealaren zati bat kapital finko patologikoan eraldatzen dela; hau da, horretaz enpresak berak, eta ez langileek, jabeturiko kapitala. Enpresak, honela, mozkinaren inbertsio netoa dela bide, beren langileen produktuaz jabetzen dira. Azken erosketak ez ditu moneta-alokairuak aldatzen, baina beraien eduki erreala gutxitzen du. Monetatik kenduriko produktua ez-pertsona batek eskuratzen du definitiboki, hots, herrialdeko enpresen multzoak (Schmitt 1984a, 208 or.).

Mozkin-inbertsio netoaren emaitza dela-eta, ondasun-merkatuaren gaineko eskari gehigarria alokairuen ordainketaren bidez erabiltzen da. Gure etsenpluan, langileen azken gastua 120 + 20 = 140 unitatekoa da, E1-ek 20 unitateko azken eskaria egiten duen bitartean, kapital-ondasunen (zerbitzu produktiboen merkatuan gauzatua) bere erosketa dela-eta. 20 unitateko eskari gehigarria mozkin-inbertsioari dagokio, hau da, E1-ek egindako alokairuen ordainketari; bere mozkinaren gastua dela bide, ondasun-merkatuko gastuen batura zerbitzu produktiboen merkatukoena baino handiagoa izanik, eskari gehigarria moneta ez-beteak finantzatzen du. Kapital finkoaren eratzea patologikoa da, zeren aurrezkiaren bidez finantzatua izan barik, inbertsioa moneta ez-betearen emisioak finantzatzen baitu.

Errepresenta ditzagun, aurrez aurre, alokairuen ordainketa zuzena eta ordainketa anomaloa, produkzioak sorturiko errentaren gastuarekin batera (1. irudia).



1. irudia

Alokairuen ordainketa moneta nominalen bidez egiten denean (a), langileek produktu korrontearen gaineko erosteko ahalmenarekin dira kreditatuak. Beraien errenta moneta betearen kopuru positibo bati dagokio; horrela, beraiek dira enpresetan stockaturiko produktu fisikoaren lehen jabeak. Eragile ekonomiko desberdinen artean izandako transferentzia guztiak behin kontuan hartu eta gero, errentaren jabetza azken errenta-titularrei dagokie, ET delakoei. Geroko errentaren gastuak produzitutako ondasun eta zerbitzu guztiak erostea ahalbidetzen die errenta--titularrei.

Alderantziz, alokairuen ordainketa mozkin-inbertsio netoari dagokionean, honek kapital finko patologiko baten eratzera darama. Mozkin positibo baten gastuaren bidez gauzatua izanik, alokairuen ordainketak enpresari berak produktu korrontearen erosketa egin dezan ahalbidetzen dio. (b) eragiketa izaera bikoitzekoa da, zeren produktuaren erosketa batera gauzatzen baita alokairuen ordainketarekin. Langileei beren alokairuen eduki erreala kentzen zaie, edukia enpresek eskuratzen dutelarik. Mozkin-inbertsio netoari dagozkion ondasunak ez dira gehiago errentatitularren ondare ekonomikoan egoten. Kapital finkoa ez-pertsona diren enpresen jabetza da, eta beraren izaera patologikoak —zeina moneta ez-betearen presentziak markatzen duen— bere emaitzarik okerrena dauka kapital hori amortizatzen denean.

Kapital finkoaren amortizazioaren analisiak ematen dio erantzuna egungo krisiari, stagflazioari alegia.

8.9.2. Inflazioa eta produkzio duala

Kapital finkoaren amortizazioak mozkin extratara darama, zeintzuen inbertsioa moneta hutsaren emisio baliokide baten kausa den. Prozesua kapital finkoaren eratzean ikusi dugunaren antzekoa da. Hala ere, honetan, mozkin-ondasunak produzitzen dituzten langileei moneta ez-betearekin ordaintzen zaie, zeinak ezin duen, inolaz ere, beste ondasun eta zerbitzuen produkzioaren gainean ezelako eskaririk errepresentatu. Moneta ez-betearen emisioa erabat patologikoa da eta itzulezinezko tarte inflaziogilearen sormena dakar. Alokairuen ordainketan mozkinak erabiltzen direnean, produzitako ondasunak alokairuen ordainketaren barruan dira erosiak. Erosketa anomalo horretatik inflazioa dator, ondasun-merkatuan gauzatu barik zerbitzu produktiboen merkatuan gertatzen delako. Beren produktuak jadanik enpresen multzoak erosita daudelarik, langileei inolako erosteko ahalmenik ez daukan moneta ez-betea ematen zaie, moneta-eskaintza patologikoki gehitzen delarik. Mozkin-inbertsio netotik datorren moneta ez-beteak kapital finkoaren sorrera markatzen du, eta kapital horren amortizazioa, epealdi soil batean orain, gehitze inflaziogilearen iturria da.

Kasu honetan patologia epealdi konkretu batean gertatzen da. Enpresen jabetza izanik, amortizazio-ondasun berriak kapital finkoari gehitzen zaizkio, enpresaren eskurapen berri baten bidez.

8.9.2.a. Produkzio duala

Amortizazio-ondasunen produkzioak mozkin netoak sortzen ditu enpresen multzorako. Demagun *Pa* amortizazio-ondasunak direla (epealdian produzituak) eta *Sa* beraiei dagozkien alokairuak. Epealdiko alokairuak *S* dira, *P* produktuari, alokairu-ondasunei alegia, dagozkionak.

Sa transferituak izanen ez balira, ondasun-merkatuan gastatuko lirateke, inolako arazorik sortu barik. Baina *Sa* mozkin neto bihurtuak dira, enpresaren alokairu 'bereganatuak' dira.

Amortizazio-ondasunak ezin dituzte zuzenki erosi errenta-titularrek. Hori honela da, zeren amortizazio-ondasunak jadanik metaturiko kapital instrumentalarekin batzen baitira, eta, kapital hori ez baita, inolaz ere, errenta-titularren multzoaren jabetza.

P produktu nazionala izanik (eta *S* delako alokairuak), $(P - Pa)$ produktuaren zatiaren salmentak S osoa bereganatzen du, zeren *Sa* ez baita *Pa* produktuaren gainean zuzenki itzulia. Honela, enpresen multzoa, $(P - Pa)$ produktuaren azken salmentan, amortizazio-ondasunen produkzioan emitituriko alokairuen baliokidea den mozkin netoa lortzen duela ikusten dugu.

Amortizazio-ondasunen produkzioak sortu duen mozkina ezin da errenta-titularren artean banatua izan. Mozkinaren zati banatuak (*x* delakoak) amortizazio-ondasunen ordainketarako azkenik dauden errenta erabilgarriak beste honenbestetan gutxitzen ditu; epealdiko amortizazio-ondasunen produkzioan (*x*) mozkin banatuen zatia bera gutxitzen dela ondorioztatzen da.

Amortizazio-ondasunen produkzioan, logikoki egiazko errenta 'libreen' (*Sa*) gastuak sortzen dituen mozkin netoen osotasunak ihes egiten dio banaketari.

Azkenik, *Sa* mozkinen gastua analizatzea falta da (*Sa*, alokairu bereganatuak).

Sa alokairuak transferituak izan ez balira, beraiek gastatuko ziratekeen —$(S - Sa)$ alokairuak bezalaxe— produktuen merkatuan. Baina, *Sa* alokairuak mozkin netoetan eraldatuak direnez, jadanik produktuen merkatuan gastatuak dira, $(S - Sa)$ alokairuen eratzean gastatu direlako.

Ondoko emaitzara iristen da: mozkin neto modura eratuak, *Sa* alokairuak zerbitzu produktiboen merkatuan gastatzen dira halabeharrez.

Uste daiteke *Sa* mozkina *Pa* amortizazio-ondasunen gainean 'jaulkia' dela: honela, dena ongi egonen zatekeen. Baina ustea okerra da. Logikak ez du

permititzen, zeren, *Pa* produktuaren erosketa *Sa* mozkinaren gastua dela medio, arazoaren muina bera kontraesaten baita: mozkina ez litzateke netoa izanen, *Sa* alokairuak ez lirateke bereganatuak izanen eta errenta-titularrek amortizazio-ondasunen eskuratze zuzena edukiko lukete (enpresen bidez, eta ez produkzio dualaren bitartez).

Beraz, analisi zuzenak halabeharrez dio *Sa* mozkinaren gastua zerbitzu produktiboen merkatuan gertatzen dela, hots, produkzio batean eta ez produktu baten gainean. Badakigu amortizazio-ondasunen produkzioan irabazitako alokairuak *bigarren* emisio baten barruan daudela; *Sa* eskuratzen duten enpresek, mozkin hori alokairuen emision gastatzen dute. Hau da, *Sa* mozkina —gutxienez tarte baterako— 'alokairuen fondoa' da: epealdiko *S* emisioa elikatzen du *Sa* kopuruan.

Arauak ez du salbuespenik: enpresek alokairuen emisioa 'fondoarekin' elikatzen dutenean, emitituriko alokairuetatik berehala erretiratzen diren ondasunak produzitzen dituzte (denbora kronologikoan ezarriak ez direnak); *Sa* -ren bigarren emisioan —*produkzio duala*— produzituriko ondasunak enpresen jabetza dira berehala (eta azkenik, berorien eskubidedunak): *Sa* mozkinaren gastuak sorturiko produktuaren ezein zati ez du epealdiko produkzioak ezarri errenta-titularren multzoaren hartzekoan.

8.9.2.b. Epealdiko fluxuak

Analisi kuantikoak atzeranzko jarduerak hartzen ditu kontuan. *Sa* mozkina *S*-tik dator. *S* epealdiko alokairuen emisio guztien batuketa da.

Sa-k alokairuen emisioak elikatzen dituenez, badirudi beste epealdi baten produkzioa beharrezkoa izan behar dela: *Sa* mozkina *px* geroko epealdi batean erabiliko litzateke, *px* epealdia *Sa* mozkinaren eratzearen *p* epealdia baino gerokoagoa izanik. Hori ez da horrela, inondik inora. Izatez, Sa mozkinaren gastua *p* epealdiko fluxuen zirkuituan dago sarturik. Arrazoia ondokoa da: beren alokairu 'libreen' (alokairu 'libreak', hots, amortizazio-ondasunen erosketan zuzenki bereganatzen ez diren errentak), *Sa*, gastuan errenta-titularrek ez dute inolako kapital errealik sortzen, zeren ezin baitituzte amortizazio-ondasunak aurreztu, hasieratik ihes egiten dietelako. Aurrezki behartua alokairu-ondasunei dagokie soilik, errenta-titularren hartzekoan emitituriko ondasunak izanik.

Amortizazio-ondasunak errenta-titularren ondarean emituak direnez, ezin dira sartu aurrezki behartuetan. Aurrezki erreala nulua izanik, aurrezki monetarioa simetrikoki nulua da, edozein aurrezki batera baita monetarioa eta erreala. Horretatik induzitzen da ezen *Sa* mozkina *Sa* alokairuen *kategoria duala* dela, eta ez kapital monetarioa. Beraz, *Sa* alokairuak, mozkinak bezala bereganatuak, presente daude *S* alokairuen hasierako emisioan.

Hortaz, *p* epealdiko fluxuak hauexek dira:

(i) 'lehen denboraldi batean', *S* alokairuak emititzen dira, epealdiko produktu osoari dagozkiolarik.
(ii) 'Bigarren denboraldian', alokairuen zati 'librea', *Sa*, enpresek eskuratzen dute.
(iii) ' Hirugarren denboraldian', enpresek *Sa* alokairuak emititzen dituzte alokairuen emisioetan.

Hirugarren 'denboraldia' lehengoarekin bat dator. Beraz, ondorioztatu behar da ezen, *S* alokairuen emisioa gertatu denetik, errenta-titularrek *S*-n zati bete bat (*S* – *Sa*) lortzen dutela eta zati ez-bete bat, *Sa*. *Sa*-ri dagokion produktua, irteeratik, enpresen multzoan bereganatzen da.

S hasierako emisioan sartua, *Sa*-ren *bigarren* emisioak errenta-titularrei amortizazio-ondasunek osatzen duten kapital errealari dagokion kapital monetarioa ematen die. Izan ere, ondasun horiek orain kapital bat dira, zeren produkzio *dualak* sortzen duen produktuaren lekua hartzen baitute. Azkenik, *Sa* kapital monetarioa *Pa* kapital errealaren erosketan gastatzen da; bat-batean errenta bihurtuta eta kontsumituta. Amortizazio-ondasunak, orain, kontsumo-ondasunak dira edo besteak bezalako alokairu-ondasunak dira, baina produkzio dualari esker.

Are gehiago, jarraian ikusiko dugunez, kapital finkoaren amortizazioa ere langabeziaren iturri nagusia da.

Moneta ez-betera daraman anomalia ez dago, berez, lotuta enpresen mozkin-inbertsioarekin. Hurrengo 10. atalean erakutsiko dugu, Schmitt-i jarraituz, nola baztertzen diren emisio hutsak edo ez-beteak.

8.9.3. Langabezia (edo deflazioa)

Ekonomia itxi bat izango dugu kontuan. Proposaturiko tesia hauxe da: ekonomia barruan kasu bakar bat da langabezia sortzen duena, alegia eskaintza osoaren eta eskari osoaren desberdintasunari dagokiona, eskari osoa 'ez-nahikoa' delako.

Enplegu osoko mailan (demagun 200 balio-unitateko produkzioa), eskaria ez-nahikoa dela esateak, eskari guztien batuketa 200 balio-unitate baino gutxiagokoa dela esan nahi du.

Eskaintza osoa izenaz, epealdian berriki produzitutako mota guztietato ondasunak adierazi ohi dira. Bestalde, eskari osoa, hots, epealdian familiek eta enpresek duten 'erosteko ahalmena', balio-unitatetan neurtzen da.

Ondoko puntuak ukituko dira:

(i) Errenta guztiak familiei dagokieneko ekonomian, eskari guztiak eskaintza osoa berdintzen du halabeharrez; hortaz, horrelako ekonomian ezinezkoa da inolako langabezia-tasarik. Gauza bera gertatzen da mozkin-inbertituak positiboak direnean, baldin eta beraren errentak konsumo-ondasunen, *K*, produkzioan eratzen badira, edo inbertsio-ondasunen, *I*, produkzioan.
Monetaren kontzepzio berria sortzen denean (Schmitt 1984a,1996), argi dago ekonomiak beste azken ondasunen kategoria-mota bat produzitzen duela.

(ii) Errenta nazionalaren definizio osoa hauxe da:
$Y = K + I + U$,
eta ez ekonomilariek uste duten $Y = K + I$, non U delakoa 'ordezkatze-ondasunak' diren. Epealdi bakoitzean kapital finkoak bere balioaren zati bat aldatzen du, zeina ordezkatua edo birproduzitua izan behar den, mozkin netoak sortu baino lehen. Bi faktore desberdin dira kapital finkoak jasaten dituen galtze horren kausa: '*user cost*' edo erabilera-kostua eta ekipamendu-mota guztiak zaharkitu bilakatzen duen garapen teknikoa. (Gauzak errazteko, zaharkitze-efektua erabilera-kostuan sartuko dugu.)

Epealdi bakoitzean erabilera-kostu osoak U-ren balioa determinatzen du. Kontsumo- eta inbertsio-ondasunak bezalaxe, 'ordezkatze-ondasunen' produkzioak, epealdi bakoitzean dibidendo nazionalari balio berri bat gehitzen dio, ondasun horien produkzio-kostuak neurtzen dituena. Beraz, aparteko hutsune logikoa da errenta nazionaletik U baztertzea edo kontuan ez edukitzea. Izan ere, epealdian galtzen den kapital finkoaren zatia ordezkatzen duen ondasunen produkzioak *azkenak* diren ondasunak ekoizten ditu eta ez, uste ohi denez, *bitartekoak*. Ikusiko dugunez, 'ordezkatze-ondasunak' bi definiziotan existitzen dira: hortaz, ondasun horiek batera bi kategoriari dagozkie: azken ondasunei eta bitarteko ondasunei, alegia, kontsumo-ondasun gehigarrian kopuru bat, eta, gainera, 'ordezkatze-ondasun' korronteak.

(iii) Ordezkatze-ondasunak kontuan hartzen direnean, ondoko ekuazioa,
$Y = K + I + U$ (1),
ez da baliokidetza, zeren eskaintza osoaren, Y, eta eskari osoaren, $(K + I + U)$, berdintasuna ez baitu inolako legeak eman.

Baldin eta U logikoki, edo halabeharrez, nulua balitz, (1) ekuazioa baliokidetza edo berdintasuna izanen litzateke, lege ekonomiko batek behartuta, Say-ren legeak alegia. Baina edozein epealditan U magnitude positiboa da. Beraz, oro har onartzen den errenta nazionalaren definizioari, $Y = K + I$, U delakoa gehitzen zaionean, ez da gehiagorik Say-ren legea betetzen —legearen statusa galduz, orduan eskari osoa lokikoki (edo posibleki) eskaintza osoa baino gutxiagokoa izan baitaiteke—. Desberdintasun horren kausa ordezkatze-ondasunen eskarian datza.

Ondorioz, ikusiko dugunez, langabezia-tasa positiboa ager daiteke.

Langabeziari aurre egiteko, bide bat proposatuko da, banku-kontabilitatearen bitartez. Soluzioa hauxe da: kapital finkoaren ordezkatzearen 'emaitza' ('*by-product*') modura, enpresen onurarako eratzen diren errenta netoen gainean moneta-fluxuen kontrol bat ezartzea, kontsumo-ondasunen erosketan gastatzea ezinezkoa izan dadin. Moneta-erreforma martxan jarri ondoren, Say-ren legea indarrean egonen da, eskari osoa eskaintza osoa baino txikiagoa izatea, mekanikoki eta logikoki ezinezkoa eginez, baita enplegu osoko mailan ere. Honela langabeziaren kausa nagusia edo etiologia baztertuko da, ekonomiaren funtzionamendu txarra alboratuz.

8.9.3.a. Ordezkatze-ondasunak izaera bikoitzekoak dira: alde batetik, bistakoa denez, bitarteko-ondasunen kategoriari dagozkio, baina (ez hain argi) baita azken ondasunen kategoriari ere

Ordezkatze-ondasunak, edo R-ondasunak, beren kapital finkoari eusteko, enpresek egiten dituzten kostuek osaturik daude. Keynes-i jarraituz, kostu horiek erabilera-kostuen ('*user costs*') gastuetan sortzen diren errenten batura dira.

Nahikoa argi dago R-ondasunak bitarteko ondasunak direla. Baina azken ondasunak ere badira.

Schmitt-ekin batera (1996), edozein nazioren barne-errentaren definizio zuzen bakarra hauxe dela esan behar da:

$$Y = K + I + U.$$

Ekonomia nazionala hiru sektore desberdinetan bana daitezke: (1) sektorean kontsumo-ondasunak produzitzen dira; (2) sektorean inbertsio-ondasunak; azkenik, (3) sektorean *R*-ondasunak, zeintzuek erabilera-gastuak gutxitzen duen kapital finkoaren balioa birbetetzen duten. Zaharkitzea eta erabiltzea direla-eta, ekoizten den kapital finkoaren balioa ordezkatzen duen kapital-ondasunen balioak erabilera-kostuaren balioa, *U*, berdintzen du.

Demagun x delakoak sektore bakoitzean irabazitako alokairuak adierazten dituela (lan-indarra hiru sektoreetan kopuru berean enplegaturik dagoela suposatuz). Produktu berria alokairu-unitatetan neurtzen badugu, beraren balioa $3x$ da. Hola, berriki produzitutako R-ondasunak produktu korrontearen herena da. Errenta nazionala hiru sektoreetan eraturiko errenten batura dira: $Y = K$ [(1) sektorearen produkzioa] + I [(2) sektorearen produkzioa] + U [(3) sektorearen produkzioa].

(3) sektorearen produkzioa kontuan ez hartzeak inbertsio-ondasun berrien gain-balioztatzera darama. Inbertsio berriaren balio netoa kapital-ondasunen

produkzio osoa, (2*x*), *minus* *R*-ondasunen balioa, (*x*), da. *R*-ondasunen balioa ez balitz kontuan hartuko, inbertsio-netoaren balioa okerki 2*x* izanen litzateke, berorien egiazko balioa soilik *x* izanik, ilogikoa baita *R*-ondasunak kapital-ondasun metatuaren gehitze positibotzat kontsideratzea.

Ekonomialarien artean, *R*-ondasunak ez dira kontuan hartzen nazioaren produkzio netoan. Ekonomialariek uste dute, aurretik metaturiko kapital finkoak epealdi korrontean produzitzen duen balioa magnitude banagarria dela, zeren, uste dutenez, berak makineriaren laguntzaz ekoizten diren kontsumo-ondasunen balioa gehitzen baitu. Kapital finkoaren *raison d'être* bakarra —izateko arrazoia, alegia— kontsumo-ondasunen produkzioa gehitzea izanik, naturala da (honela argudiatzen dute), bere erabileraren prozesuan kapitalak galtzen duen balio osoa, hortik jaulkitzen diren ondasunek birlortzea.

Pixka bat pentsatuz gero, argi dago kapital-ondasunetik balio-kopuru batek 'salto' egitea kontsumo-ondasunetara edo kontsumo-ondasunetan metafisikoa izatea. Balioak ezin du horrelako jauzirik egin. Mundu errealean, edozein ondasunen balioa, erabat banaezina da balio hori daukan ondasunetik. Egia da kapital finkoek etengabeki beren balioa galtzen dutela, amortizazioa deitzen den prozesuan. Pentsaezinezkoa da kapital-ondasun baten, edo edozein ondasunen, balioak bizirik irautea, kasuari dagokion ekipamendua hilik egon ondoren. Kapital-ondasunak eta beraien balioa batera desagertzen dira, bat-batean, prozesu berean eta denbora berean.

Ordezkatze-kapitala epealdi bakoitzean berriki produzitu behar da; ez dago ezberdinatasunik R-ondasunen eta kontsumorako edo inbertsiorako ekoizturiko beste azken ondasunen artean.

Alde batetik, logikoki, R-ondasunak azken ondasunen beste kategoriei gehitu behar zaizkie; baina, bestetik, R-ondasunen produkzio-kostuak ordainduz, familiek ez dute inolako azken ondasunik erosten; alderantziz, soilik baliabideak hornitzen dizkiete enpresei, berauen erabilera-kostuak estaltzeko.

Dilema honi Schmitt-ek (1996) eman dio erantzuna, bere moneta-teoria berrian.

8.9.3.b. (1) eta (2) sektoreetan ekonomiak moneta errealeko unitateak sortzen ditu; (3) sektorean moneta nominalekoak

Produkzio berri batek, edo, identikoki, epealdi berri bakoitzean, produkzioak moneta-kopuru baliokide baten sormena ekoizten du. Produkzio errealak eta sormen nominalak transakzio soil baten barruan nahasten dira, zeinaren emaitza edozein epealditan, *p*, epealdi horren produktu nazional korrontea den, *Pp*, *Pp*-ren zerbitzu produktiboen, faktoreen edo produktugileen ondainketarako sortua den 3x moneta unitateetan ezarria.

Horrela, *p* epealdiko errenta nazionala, *Y*, epealdi bereko nazioaren produktu netoaren baliokidea da: *Yp* = *Pp*.

Baldin eta *Ym* = 3*x*, *p* epealdiko produkziorako, produktugileen ordainketak eratzen duen moneta netoa bada, ohar gaitezke ezen *Pp* *Ym*-ren barruan sarturik dagoela; hain zuzen ere, era/eduki identitatea da, zeinak *Ym*-ren forma numeriko edo nominala eta *Pp* eduki erreala osaten dituen errenta nazionala, *Yp*, definitzen duen.

Litekeena da, orain, moneta errealaren definizio zuzena *versus* moneta nominala ematea.

Pp, produktuak *p* epealdian berriki produzituriko ondasun guztien bilduma da; *Pp*, hortaz, magnitude *erreala* da; beharrezkoa ondorio gisa, *Yp* magnitudea moneta *errealaren* kopurua da. Okerkuntza litzateke *Yp* ondasunen gaineko erosteko ahalmen modura definitzea; izan ere, *Yp* ondasunen bilduma bat *da*, hau da, *Pp* bilduma; izan ere, *Yp*-ren eta *Pp*-ren arteko ezberdintasuna honako hau da, alegia, *Pp* kantitate fisiko heretogenoen bilduma dela, *Yp* delakoak bilduma berbera definitzen duen bitartean, baina forma berri eta neurgarri batean; laburbilduz, *Yp* delakoa *Pp*-ren era monetarioa da. Produktu fisiko huts bat monetatan neurtzeak ez dauka inolako zailtasunik, zeren monetaren kopuru bat, Walras-en geroztik, zenbakien kopuru bat besterik ez baita. Hain zuzen ere, moneta-kopuru bat zenbakien kopurua denez, produktu nazionalaren neurri zientifikoa kontabilitate nazionalak ematen du.

Orain arte definituriko magnitude guztiak *errealak* dira, zeren errenta nazionalak produktu nazionala esan nahi baitu, berau moneta-kopuru batean sartua deneko aldiune zehatzean.

Nola definitzen dira, bada, magnitude *nominalak*?

Izatez, ekonomia nazionalaren (3) sektoretik datozen errenta guztiak magnitude erabat nominalak dira, beraiek ez baitute inolako produkturik edukitzen.

Ekonomiaren (2) sektoreak errenta *errealak* produzitzen ditu. (3) sektorerako gauza bera egia balitz, eskari osoa ezin izango litzateke eskaintza osoa baino gutxiagokoa izan; beste era batera esanda, langabezia nulua izanen litzateke. Alta, mundu errealean, gertatzen dena besterik da: (3) sektorean sortzen diren errenta guztiek eskari *nulua* elikatzen dute, errenta horiek erabat nominalak direlako.

p epealdiko produktu osoa 3*x* izanik, ekonomia nazionalaren hiru sektoretan berdinki banatua, langabezia teorikoki gara daiteke, bera lan-indarraren herenera iritsi arte. Muga horretan, eskaintza osoa hiru sektoreetara zabaltzen da, eskaria (1) eta (2) sektoreetan produzitutako errenten neurria den bitartean.

Errenta nazionalaren definizio osagabeak, $Y = K + I$, ekonomialariek orokorki proposatzen dutenez, magnitude errealak soilik hartzen ditu kontuan; ondorio logiko gisa, langabezia ez da ulergarria. Definizio osatuak, $Y = K + I + U$, magnitude nominal hutsak ditu kontuan; *R*-ondasunen produkzioak (= *U*) errenta nominal huts bat ekoizten du zeinak, bere izaeraz, inolako eskari positibori ezin dion aurre egin. Hortik ondorioztatzen da ezen *Y*, erabat erreal den magnitude bat, erabat nominal den eskariarekin topatzen dela: horrela, *U* uler daitekeen langabezia-'desoreka' soilaren neurria da.

8.9.3.c. (3) sektorearen produkzioa: errenta nominala


(3) sektorean egindako produkzioak, indukzioaz, (1) sektorean produkzio baliokidea sorrarazten du, termino fisikoetan eta balio terminoetan.

Produkzio berria, *p* epealdian, unitate monetarioetan neurtua denean, era numeriko huts batean —3*x* moneta-unitate— sarturik dagoenean alegia, ondasun *fisikoko* unitateetan neur daiteke, honelako unitate bat moneta-unitate batetan ezarririko output zehatza izanik. Beraz, oso logikoa da suposatzea, *p* epealdian 30 ondasun produzitu direla ekonomiaren hiru sektoreetako bakoitzean. Inbertsio-ondasunen produkzioak, (2) sektoreari dagokiona, ez du garrantzirik frogatu nahi denerako. Beste bi sektoreetan, ekonomia nazionalaren output korronteak 60 ondasun berdintzen ditu —edo honela dela ematen du—.

Baina, argudiatzeko modu hori okerra da, ez baitu kontuan hartzen kapital finkoaren produktibitatea. (Interesak ez dira kontuan hartzekoak, honetan.) Baina kapital finkoari eusteko kostuak langabeziaren arazoaren muinean daude.

Nola berrar ditzakete enpresek R-ondasunen produkzio-kostuak? Bide bakarra dago: R-ondasunen kostua kontsumo-ondasunen saltze-prozesuan sarturik egotea. Horrekin esan nahi ote da (1) sektorean produzituriko ondasunak salduak direla beraien balioa baino handiago den prezioan (R-ondasunen produkzio-kostuaren gehitzeaz)? Inola ere ez. Mundu errealean ondasunen balioa beren prezioen (edo produkzio-kostuen) batura da, edozein desberdintasun metafisikoa delarik.

R-ondasunen balioa kontsumo-ondasunen balioari etengabeki gehitzen zaiolako gertaerak ondokoa esan nahi du: kapital finkoaren ordezkatze-kostuak direla kausa, kontsumo-ondasunen kopuru gehigarria, termino *fisikoetan* definituta, produkzio-prozesuaren barruan ekoizten da; honela, (3) sektorean gauzaturiko jarduera ekonomikoaren ondorio zuzen modura, (1) sektorearen outputa automatikoki gehitzen da, ondasun *fisikoaren* kopuru batez, R-ondasunetan output korrontearen produkzio-kostuak gehitze horren balioak berdintzen dituen kopuru zehatzeraino.




2. irudia

30 R-ondasunen produkzioa dela-kausa, (1) sektorearen produkzioa 30 ondasun fisikotan gehitu da, *p* epealdiko kapital finkoaren produktibitate fisikoaren neurria, interesak barne), horrela *p* epealdian (1) sektorearen produkzio osoa 60 (kontsumo)-ondasunekoa delarik. Arraroa bada ere, horrelakoxea da.

Gaur gun badakigu ondasunen bilduma baten balioa neurri *numerikoa* besterik ez dela; are prezeskiago, ondasunen balioa beren neurri monetarioa da. Gainera, orain ongi konturatzen gara ondasunen neurri monetarioa beren produkzio-kostuak ematen duela. Puntu honetan, John Maynard Keynes erabat zuzen zegoen, *The General Theory* delakoan, berak idatzi zuenean alokairu-unitatea (hau da, alokairu nominalak eta alokairu ez-zuzenak sartzen dituen moneta-unitatea) ekonomi zientzian eta ekonomia nazional konkretuan neurri unibertsal bakarra dela. Moneta-alokairuek lan-indarraren produkzioa neurtzen dute; halaber, kapital finkoari dagokion moneta-interesarekin batera, kapital finkoaren ordezkatze-kostuek, termino monetarioetan neurturik, *kapitalari* dagokion produkzioa neurtzen dute.

Interesak kontuan hartzen ez badira, egiaztatzen da ezen, *p* epealdian, 60 ondasun fisiko heterogeno (1) sektorean direla produzituak, 2. irudian erakusten den bezala.

Orain, (1) eta (3) sektoreetan familiek irabazitako errenta errealen kopuru osoaren gastua errepresenta daiteke, *Yp* (1+3). Errenta horiek guztiak (1) sektorean produzitutako 60 kontsumo-ondasunen azken erosketan dira gastatuak (3. irudia).



3. irudia

3. irudiak erakusten duenez, argi dago familiek beren errenta guztiak gastatzen dituztela, (1) *eta* (3) sektoreetan irabaziak, soilik (1) sektorean produzituriko 60 ondasunen erosketarako.

Hiru inferentzia egin daitezke:

(i) 60 kontsumo-ondasun —zeintzuen produkzio-kostua 30 moneta-unitatekoa den— erosteko 60 moneta-unitate gastatuz, familiek R-ondasunen produkzio-kostua estaltzen dute. Kasu honetan, R-ondasunak *bitarteko* ondasunak dira, kontsumo-ondasunen erosketan ordainduak direlako.
(ii) (3) sektorean produzitutako output erreal osoa, 30 unitateko balioan, enpresarien eskuetara doa zuzen (produkzio) *kostu nuluan*. Baldintza honetan, R-ondasunak *azken* ondasunak dira, zeren azkenean, (3) sektorean *kapital-ondasun netoko* output baliokidea produzitzen baita. Dei diezaiegun kapital ondasun horiei 'kapital duala'. R-ondasunak (kontsumo-ondasun gehigarri gisa) familiek ordaintzen dituztenez, kapital dualaren ondasunak, epaldi bakoitzean R-ondasun baliokide direnak, (2) sektorean produzituriko kapital-ondasunei automatikoki gehituak dira.
(iii) (3) sektorean familiek irabazten dituzten errentak *nominal hutsak* dira, ez baitute inolako produktu erreala edukitzen. (3) sektorearen output osoa berehala bere era monetarioaz gabetu egiten da, enpresek eskuratu ahal izateko, ezerezaren truke, kapital *fisiko* dualaren eran.


Hirugarren inferentzia hori beste era batera esplika daiteke:

(1) sektorean, 30 moneta-unitateko (zeintzuek haiek irabaz ditzaketen, beren kontsumo-ondasunen produkziorako ordainketan) errenta errealak gastatzen dituzten familiek 30 ondasun erosten dituzte. (2) sektorean errenta erreala —30 unitatekoa, zeina haiek lortzen duten familiengandik— gastatzen dute (zeintzuek inbertsio-ondasunen produkzioan beraiek eratzen dituzten errenta errealak abandonatzen dituzten, enpresaren onurarako). Orain, (3) sektorean gertaerak erabat desberdinak dira. (3) sektorean produzitutako errenta errealak, sektore horretan enplegaturik dauden produkzio-faktoreek (familiek) irabaziak, ez dira, inolaz ere, (3) sektorean produzitutako ondasunen erosketan gastatuak izan. Alderantziz, familiek (1) sektorean gastatzen dituzte (3) sektorean produzitutako moneta-unitate errealak.

Kostu positiboan produzitutako ondasunei dagokienez, (1) sektorean enplegaturiko familiek, (3) sektorean lan egiten duten familiekin batera, termino errealetan, (1) sektorean enplegaturik dauden produkzio-faktoreen output soilari mugaturik dagoen ordainketa total bat lortzen dute. Familien erosteko ahalmenean sarturik dauden kontsumo-ondasunen gehigarriek produkzio-kostu *nulua* dute.

Hortaz, honela laburbil daiteke prozesua: (3) sektorean enplegaturiko produkzio-faktoreek, beren lana dela-eta, nominal hutseko x moneta-unitate eskuratzen dituzte, zeintzuk, enpresek eskuraten dituzten aldiunetik, ez baitute inolako erosteko ahalmenik, hau da, ez daukate ezelako outputik.

Enpresek (3) sektorean amankomunean dauzkaten alokairu-unitateak (30 moneta-unitateak) beren erosteko ahalmena nola galtzen duten oso argi dago: enpresen multzoa —hemen fenomeno makroekonomiko baten aurrean baikaude— automatikoki, *kostu nuluan*, (3) sektorean gauzaturiko output netoaren jabe bihurtzen da, produkzio-faktore guztien multzoak (3) sektorean egindako jardueratik ez baitu ordainketa errealeko inolako kopuru positiborik jasotzen (4. irudia).



4. irudia

Kapital fisiko duala, *x* moneta-unitatek neurtua, R-ondasunen definizioa da, ondasun horiek azken ondasunak diren heinean (gure kasuan den bezalaxe). Hortaz, ((1) sektorean) kostu nuluan produzituriko 30 kontsumo-ondasunak R-ondasunen *alter idem* motakoak dira, beraiei halabeharrez eta aldi berean aplikatzen zaien beste definizioari dagokionez, R-ondasunak dudarik gabe *bitarteko* ondasunak baitira. R-ondasunak, izaera bikoitzekoak dira.

(3) sektorean sorturiko errenta nominalak, eta sektore berean produzituriko kapital dualak (ikus 4. irudia) dira langabezia gobernatzen duten bi giltza-magnitude.

8.9.3.d. Errenta erabat nominalen sormena da langabeziaren kausa nagusia

$Y = K + I + U$ definizioan, *K* delakoak beren *bitarteko* ondasunen kalitatean dauzka R-ondasunak eta *U* da *R*-ondasunen neurria, *azken* ondasunei dagokienez.

Orain *K* (kapital finkoak produzitutako ondasunak barne) eta *I* eskari osoaren —*termino errealetan* neurtua— osagai bakarrak dira; *U* ez da eskariaren inolako osagarri. Argi dago, beste aldetik, eskaintza osoa berriki produzitutako ondasun guztiei zabaltzen zaiela; *p* epealdian produkzio nazionala $3x$ moneta-unitatek neurtzen dute, hiru sektoreen bakoitzean eskaintzaren balioa *x* moneta-unitate izanik; eta *Yp*-ren neurria $3x$ moneta-unitatekoa da. Dagokion eskari osoaren neurria, *Dp*, $2x$ da. Hemen daukagu, beraz, eskaintzaren eta eskariaren arteko ezberdintasun positibo bat, *x* moneta-unitatekoa berdintzen duena.

Eskaintza osoaren eta eskari osoaren arteko desberdintasunaren eratzea langabeziaren kausa da. Hortik ondorioztatzen da, *R*-ondasunen (azken ondasun gisa) produkzioa langabeziaren kausa nagusia dela.

Baldin eta *p* epealdian, Y_{200} bada ekonomian enplegu osoko maila, orduan $Y_{2/3\ 200}$ izan daiteke enpresek sektore industrialean jasan dezaketen enplegu-maila, alokairu errealen fakturaren maila edozein delarik, alokairu ez-zuzenak (edo sozialak) barne.

Arazoa ez da, ekonomialariek diotenez, enplegatu potentzialen borondate libreari omen dagokiona, alegia, alokairuak ez direla nahiko erakargarri, edo eta, alderantziz, enpresei alokairuen faktura gehiegizkoa izatea.

Alokairuen faktura oso txikia zein oso handia izatea, logikoki, mikroekonomiaren arloari dagokio, edo, nahi bada, *banaketari* dagokion arazoa da (garrantzi handikoa, dudarik ez), ez *produkzioari* dagokiona.

Kontua beste bat da, alegia, *produkzio-prozesuaren* barruan, *errenta nominal hutsen* neurri positibo baten sormena gertatzen dela, hots, oraingoz berria den makroekonomiaren diziplinari dagokion gertaera.

8.9.4. Langabeziaren neurria ez da, halabeharrez, (3) sektorean gauzatzen den produkzioaren balio osoa

John Maynard Keynes-en langabeziaren teoria ontzat berrartu behar da, ekonomiaren (3) sektorean gauzatzen den produkzioan kontuan edukiz.

Produkziotik datozen errenta guztiak berriki produzitutako produktu errealaren zati bat edukiko balute, kapital finkoaren efikazia marginala ez litzateke inoiz jaitsiko interes-tasa korrontearen azpitik. Lehen esan dugunez, errenta nominal hutsen produkzioa da langabeziaren kausa erreala. (1) sektorean, enpresek kontsumo-ondasunak produzitzen dituzte soilik, familiei saltzeko. (2) sektorean, enpresek inbertsio-ondasunak ekoizten dituzte. Bi sektore horietako produkzioa gidatzen duen araua —benetako araua— eraturiko errenten kopuruaren eta gastaturiko errenten kopuruaren arteko baliokidetza da. Beraz, (3) sektorean inolako produkziorik gertatu ez balitz, logikoki ez zatekeen ezelako langabeziaren neurririk agertuko; orduan, kapital finkoaren *produktibitatea*, enpresek espero duten bezala, alegia, kapitalaren *efikazia*, inbertsio berriak (edo 'marginalak') barne, ezin zatekeen jaitsi interesaren azpitik. *Prima facie*, (3) sektoreko errenta/gastu erlazioa beste bi sektoreetan bezalakoxea da. Errealitatean, alta, (3) sektorean gauzatzen den produkzioak askatasun-gradu bat dauka. *p* epealdian, (3) sektoreko outputaren balioa *x* moneta-unitatekoa da. Ondorioz, *x* moneta-unitateak dira *kapital fisiko dualaren* neurria, zeina *p* epealdian enpresa guztien multzoari dagokion. (1) eta (2) sektoreetan errenta errealak *lehendabizi* dira produzituak, *geroago* gastatuak

izateko. Baina, erakutsi den legez, (3) sektorean produkzio-faktoreen ordainketa errenta *nominal* hutsen kopurua da, beraiek eratu diren aldiunetik.

Bi aukera daude: kapital fisiko duala inbertsio-ondasunek osaturik badago, enplegu-mailari ez zaio egiten inolako kalterik; baina baldin eta kapital duala kontsumo-ondasunen bilduma bada, ekonomia nazionalaren barruan ez dago familiek gasta dezaketen ezelako errentarik ondasun horiek erosteko.

Keynes-ek adierazi zuenez, langabezia kapitalaren efikazia marginala interestasa baino txikiago denean gertatzen da, edo biak berdin direnean; kasu horietan, enpresek ez dute beste aukerarik, kontsumo-ondasunen eran kapital fisiko duala metatzea ez bada. (3) sektoreko produkzioa, p epealdian, x moneta-unitateko balioa izanik, $(x - x')$ da inbertsio-ondasun berriak osatzen dituen kapital dualaren neurria; beraz, x' da, p epealdian, kontsumo-ondasunen forman metatzeko enpresek erabakitzen duten berriki produzitutako kapital dualaren neurria. Industrian, langabezia bere mugan dagoenean, x'-k x berdintzen du. Argi dagoenez, ekonomian x'-ren beste balio asko egon daitezke, zeroren eta x-ren artean.

8.10. MONETA-ERREFORMA BATEK LANGABEZIAREN KAUSA NAGUSIA BAZTERTUKO DU

Konputagailu-programa bat garatu behar da, nazioaren banku-sisteman aplikatzean errenta nominal huts guztien sormen positiboak baztertzeko. (Bide batez, horrela inflazioa ere desagertuko da.)

Behar den erreforma gordailu-banku guztietan hirugarren departamentu bat eratzean datza, zeinak mozkinei dagozkien errenta/gastu fluxu guztiak kontrolatuko dituen, ondoko eran: aurrerantzean, enpresek produkzio-faktoreei banaturiko ordainketa guztiak errenta *errealak* izanen dira. Orduan, ezinezkoa izango da eskari osoa eskaintza osoa baino txikiagoa izatea.

8.10.1. Emisio ez-bete edo hutsak baztertzeko bankuen jarduera hiru departamentutan banatu behar da

Labur dezagun hiruko banaketaren printzipioa:

(i) Emisio-departamentuak monetaren sorrera eta deuseztapena erregistratzen ditu, produktuaren eraketan, produktuaren transferentzietan edo produktuaren azken salmentan definitua izanda ere.
(ii) Aurrezki-departamentuak —edo denbora-kapitalarenak— bankuetan eraturiko gordailu arrunt guztiak bereganatzen ditu, finantza-merkatuan 'birziklatzeko', gordatzaileen edo azken mailegu-emaileen onurarako.
(iii) Kapital finkoaren departamentua, —edo denbora-kapitalaren era garatuarena—, lehendabizi II. departamentuan eraturiko eta erretiratua —hain zuzen ere, kapital instrumentalean inbertitzen delako— izan behar duen aurrezki guztiaz

arduratzen da: aurrezki hau II. departamentuaren esku utziko balitz, eskari gehigarria elikatuko luke eta emisio ez-beteak sortuko lituzke.
Ikus dezagun, III. departamentuaren funtzionamendua.

8.10.1.a. Enpresa batek bankuan kobrantza-eskubide neto lortzen duenean, III departamentuan abonatzen da

Argi dago enpresak produkzio-prozesuan kobrantza-eskubide askorekin aurkitzen direla, bereziki tarteko erosketetan, eta kobrantza netoko eskubide guztiak ez direla, halabeharrez, mozkinak.

Hala ere, argi dago mozkin monetarioak bankuan enpresaren abonu netoak direla. Beraz, arazoa honetan datza, kobrantza-eskubide guztiak 'tratatzea' ahalbidetuko duen automatismoa eratzean, azkenik soilik mozkin netoak gordetzeko, beroriek inbertitzen diren heinean. Bien bitartean, III. departamentuari enpresaren egoera hartzekodun guztien hasierako kontrola eman behar zaio.

Demagun edozein kontsideraturiko *E* enpresa. Kontsideraturiko epealdian *x* unitateko kobrantza netoko eskubidea hartzen du bere bankuan; berehala, kobrantza-eskubidea II. departamentuaren pasiboan idazten da.

	III
II x	E x

E-ren mozkina II. departamentuan idatziko balitz, bertan aurrezki bat definituko luke. Baina ilogikoa da horrela izatea, zeren mozkinak jadanik egindako azken gastu baten emaitza baitira. Mozkinen eraketan gastaturiko alokairuek ezin dute finantza-merkatuan oraingoz erabilgarri den aurrezki monetariorik definitu: mozkinetan eraldaturiko finantza-merkatuan (II. departamentuak errepresentatua) erretiratzen ez badira, fondo mailegugarria osatuko dute, zeinak azken gastuen bigarren neurria elikatuko duen. Mailegariek mozkinen eraketa-jardueran jadanik familiek gastaturiko errentak gastatuko lituzkete. Errenta berberaren bigarren gastu emisio ez-betea da, desordenaren, hots inflazioaren eta langabeziaren, erroa.

Mozkin monetarioen bat-bateko erretiratzeak garantizatzen du ez direla inoiz eskainiak izan finantza-merkatuan. Hori ordenari eusten zaio, zeren ez-banaturiko mozkinak kapital instrumentalean inbertitzen baitira: makinerian 'sarturik', bigarren aldiz erabiliko lirateke, baldin eta finantza-merkatuan erabilgarri izaten segituko balute, bertan azken erosketa berriak elikatzeko.

Beren eraketan, mozkin monetarioak erretiratzean, II. departamentuaren funtzionamendua analizatu behar da.

8.10.1.b. Alokairuen ordainketa ez zaie inoiz inputatzen eraturiko mozkinei

Demagun enpresak *y* unitateko alokairi berriak emititzean, berak bere bankuan *x* unitateko kobrantza netoko eskubidea daukala.

Idatz ditzagun *E*-ren zorra I. departamentuan eta *E*-ren kobrantza-eskubidea II. departamentuan aurrez aurre:

I		III	
E	*y*	*II*	*x*
II	*y*	*E*	*x*

Honela eginik ezinezkoa da inoiz mozkin bat zerbitzu produktiboen merkatuan gastatzea. Beharrezkoa da hola izatea, zeren alokairuen emisioan mozkin baten edozein gastuk emisio ez-betea definitzen baitu.

y alokairu berrien emisioaren ondoren, enpresa oraingoz bere mozkinaren osotasuna dauka, zeren kapital finkoaren departamentuak, III. delakoak, bere eskura baitauka erabat.

Beti ez da egia mozkina jadanik gastaturik dagoela; soilik gastaturik dago kapital finkoan jadanik inbertiturik dagoenean. Nola ziurtatu hori?

8.10.1.c. Epealdi bakoitzean, bankuak mozkinak (III. departamentuan idatzia) murrizten ditu, produktu eta tituluen merkatuan enpresen erosketak salmentak baino handiagoak diren neurri zehatzean

Demagun, epealdi konkretu batean, produktu eta tituluen merkatuan, *E*-ren erosketa netoen kopurua *x*' dela. III. departamentuan, *E*-ren mozkina (*x* – *x*') besterik ez da:

III	
II (x-x')	E (x-x')

Produktu eta tituluen merkatuan *E*-ren erosketa netoetan azkenik gastatzen ez den edozein mozkin halabeharrez inbertitzen da.

8.10.1.d. Inbertituriko mozkinak II. departamentuaren aktiboan eta III. departamentuaren pasiboan idazpen bikoitz eta ezabaezin batean islatzen dira

Produktu eta tituluen merkatuan *E*-ren erosketa netoen kopurua *x*' baldin bada, inbertituriko mozkina (*x* – *x*') da:

II		III
$E\ (x - x')$ III $(x - x')$		II $(x - x')$ $E\ (x - x')$

Metodoak *E*-k inbertituriko mozkin guztiak erregistratzen ditu; batuketa bat besterik ez da behar.

8.10.1.e. Epealdien segidan, enpresaren inbertsio netoak gordailu-bankuen multzoan III. departamentuekiko kobrantza-eskubide definitiboen batura metatua berdintzen du

Argi dagoenez, enpresa berberak banku batzuetan meta dezake bere kapitala. Nahikoa da arau berbera leku guztietan aplikatzea: epealdi bakoitzean enpresaren inbertsio netoa bankuen II. eta III. departamentuen multzoaren aktiboan eta pasiboan bere izenean agertzen diren idazpen bikoitzen batura da.

8.11. BANKU-ORDAINKETEN SISTEMA BERRIKO FUNTZIONAMENDU ERABAT ORDENATUA

Aurrerantzean, azken erosketak errenta-titularrengandik edo familiengandik datoz.

Herrialde barruan, errenta guztiak errenta-titularrek gauzatuak dira; ez da gehiagorik existituko ‘ez-pertsona’ denarengandik eginiko inolako erosketarik. Enpresak ez dira afektaturik egongo, pertsona fisiko edo juridikoak baitira, beraien akzionisten multzoari murrizgarri izanik. Erreforma baino lehen, enpresak gehiago ziren, zeren emisio ez-beteen bidez erosteko gai zen erosleen kategoria bakarra baitziren.

Errenta-titularren multzoak, aldiune guztietan, bere irabaziak gastatzeko aukeratzen du, kontsumituz ala aurreztuz. Egia da aukeraketa hori mozkinen eraketak mugatzen duela, mozkinak, aurrezkiak izanik noski. Baina mozkinak kapital finko metatuak saritzen dituen interesak baino txikiagoak badira, alokairuen birbanaketa laua besterik ez dira; errenta-titularrak berek berraurkitzen dituzte, aurreztearren ala kontsumitzearren, beren nahien arabera erabiltzeko.

Are gehiago, mozkin gehigarriak familietara birbana daitezke. Soilik mozkin inbertituek gutxitzen dute errenta-titularren aukera, halabeharrez aurrezten direlako.

III. departamentuak II. departamentuko fondo mailegagarrietan egindako eragiketa, ondasunen merkatuan gauzaturiko azken erosketa baten emaitza besterik ez da; beste era batera esanda, kontsumo bat. Errenta-titularren multzoak gaur kontsumitzen du, enpresen benetako mozkinaren eraketa permititzen duena; errenta-titularren multzoak bere irabaziak aurreztuko balitu (eta maileguz emango), beraiek kontsumitu egin ordez, enpresek (zeintzuek maileguz hartuko dituzten errenta-titularren multzoaren kide bakarrak diren) beren etorkizuneko mozkinak,

oraingoz ez gauzatuak, 'aurreratuko' lituzkete. Beraz, egia da, azken analisian, errenta-titularrek askatasun osoa daukatela beren alokairuzko eta ez-alokairuzko errentak bideratzeko, beren nahien arabera, kontsumorako ala aurrezkirako.

Beren aldetik, enpresek antzeko askatasuna dute: eskainitako aurrezkia onartzea ala ez. Eztabaida aske horrek interesen tasak determinatzen ditu.

Bere aukera eta erabaki askean, gizarteak (monetaren interes-tasaren aldaketa dela-eta) aurrezkirako eta inbertsiorako zuzenduriko errenta korrontearen partea, epealdiz epealdi, murriztu nahi badu, aukera hori dela kausa, inork ezingo du inolako kalterik jaso, egungo kontsumoari mesede egiten zaiolako. Alderantzizko aukera ere neutroa da: edozein errenta aurreztuz, definizioz, inbertitu egiten da.

Kapital finkoaren amortizazioei dagokienez, ez dute inolako arazorik sortuko. Inbertsio netoen maila berean 'iragaziak', emisio hutsak erabat desagertuko dira ekonomia nazionaletik. Kapital instrumentalaren metaketarako jarritako erritmoa edozein delarik ere, bere gastatzea eta zaharkitzea dela-eta, amortizazio-ondasunen erosketarako zuzenduriko edozein errenta, ondasun horien berorien produkzio beretik etorriko da.

Gordailu-bankuen hiru departamentuek ekonomian ondasunak produzitzeko eta saltzeko beharrezko den monetaren neurri zehatzean emititzen dute. I. departamentuak bere baliabideak ukatuko dizkie solbentziagabekoak diren bezeroei. Beraz, ezin da gertatu 'salgarri' diren enpresa baten ondasunak produzitzeko behar duen moneta enpresak ez eskuratzea. Alderantzizko arriskua, gehiegizko emisio batena, III. eta II. departamentuen elkar-eragiketak baztertzen du. Orain, mozkinen inbertsioa bere horretan hartzea —gastu bikoitza (produktuen merkatuan erosketa bat alokairuen emisio baten barruan ezkutatzea)—, neutralizatu egiten da bere emaitza kaltegarrian: 'bigarren gastua' (eskari gehigarrien definizioa) deusezten du aurrezki baliokideak, III. departamentuarena II. departamenduan. Azken batean, inbertsioa aurrezkiak finantzatuko du, eta ez emisio hutsak.

Aurrerantzean, inbertsio berriak errenta-titularren edo familien multzoaren jabetza izango dira.

Ikus dezagun mozkinen inbertsio/amortizazio bikotea, egungo produkzio-moduan eta etorkizuneko ordena ekonomikoan.

Mozkinetan eskuratuak, inbertituriko alokairuak langileengana 'itzultzen' dira alokairu-ondasun aurreztuen gaineko titulu gisako era desnaturalduan. Desordena guztien iturria, eskari gehigarria inbertsio-ondasunen produkzioaren ordainketa dela kausa jasotako kapital monetarioen familien gastua da. Beraz, erremedioa argi dago: 'alokairu faltsuak' erretiratu, deuseztu egin behar dira. III. departamentuak II. departamentutik lorturiko aurrezkia horretarako da; aske egonen litzatekeen

errenta bat deuseztatzean, eragileek soilik kontsumorako ala aurrezkirako zuzendu ahal izango dute: definitiboki aurrezkian eraldaturiko errentak deusezten ditu soilik, eta ilogikoa da produzituriko ondasunei oraingoz zuzenduak izatea

II. departamentuan egindako eragiketa, itzulezinezkoa den gertaera baten onarpena da: inbertituriko mozkinak familien aurrezki ezabaezina dira. Hala ere, kapital instrumentalaren produkzioak sorturiko errentak familien esku uztea, desordena onartzea da; hola elikatua, eskari gehigarria produkzio-modu kapitalistaren iturri bakarra den jarduera zehatza da: alokairu faltsuen gastuak kapital instrumentala enpresen ondarera erakarri eta bertan finkatzen du. Errenta desnaturalduak efektiboki erretiratu eta deusezten direnean, kapital instrumentala alokairuen hasierarako gastuan eratzen dela dirudi, beranduago inbertitutako mozkin monetarioen eraketaren aldiunean. Hori dela-eta, orain errenta-titularren multzoan finkatutako kapital instrumentalaren jabe bakarrak, familiak dira.

Arraroa irudituko luke alokairuen parte bat erretiratzeak errenta-titularrei ongizate handiago bat ematea. Banku-kontabilitatearen aldaketak, eraturiko errenta eta mozkin guztiaz errespetatuz, inflazioa eta langabezia edukitzetik askatzen du nazioa.

Har ditzagun mozkinetan eskuraturiko alokairuak, inbertsio-ondasunen produkzioan enplegaturiko langileen ordainketan emititzen direneko aldiunean.

Demagun *AD* ('alokairu desnaturalduak') dela bigarren ordainketa horren emaitza. *AD*-ko unitateak bi kapital errealen aurrean daude: mozkin monetarioen —orain inbertituak— eratzean familiek 'galduriko' alakairu-ondasunak, eta inbertsio-ondasunak, berriki produzituak. Kapital errealen bikoiztasun hau kapitalismoaren definizio sakona da. Gain-metaketa guztien iturria da. III. departamentua sartzen denean, alokairu desnaturalduak erretiratu eta desegiten dira.

Bat-batean, produkzio-modua oinarrian zuzentzen da: orain, aurrez aurre daude, soilik hasieran aurrezturiko alokairu-unitateak (mozkin monetarioen eratzean) eta, alokairu-unitatetan kopuru berean, hasieran alokairu-ondasunek osaturiko eta, orain, kapital instrumentalean eraldaturiko kapital erreala.

Atzeranzki, mozkin inbertituaren eratzea, bera den modukoa agertzen da: alokairu-ondasunen aurreztu gisa hasieran sorturiko kapital finkoaren familien (alokairuzko eta ez-alokairuzko errenta-titularren) erosketa.

Honela, langileen, eta are orokorkiago, errenta-titularren 'desjabetze'aren ideia uler daiteke bere zentzu sakonean. Alokairu desnaturalduen existentziak, produkzio-medio jabetzan familien ordez enpresen ordezkatzea esan nahi du. Beren iturrian, *AD*-ko unitateak deusezten direnean, kapital finkoak familien errentei eskuragarri zaizkie, produkzio-modu berrian errenta guztiak egiazkoak

direlarik. (Enpresen nazionaltzeak, hots estatalizatzeak, ez du lortzen benetako helburua.)

Ekonomiak alokairu desnaturalduan (orain, nonahi; eta lehen, ezagutu zen 'sozialismoan' ere) produzitzen segitzen duen bitartean, pertsona guztiek, epealdi guztietan, desjabetuak izaten segituko dute, produkzioa 'alokairu-fondo' baten gastuarekin finantzatzen deneko ondasun korrontearen partetik.

Soilik banku-kontabilitatearen aldaketak eratuko du ekonomia-mota bat, non, epealdi guztietan, alokairu guztiak lan-indar biziaren arabera ordainduko diren.

Kontsidera ditzagun, berriro, *AD*-ko unitateak bi kapital errealen aurrean: III. departamentuak alokairu faltsu horiek atera eta deusezten ditu. Familiek ez daukate gehiagorik alokairu-ondasun aurreztuak erosteko ahalmenik. Dena den, lortua dute, hain zuzen ere, aurrezki monetarioen bidez. Familien multzo ez-diferentziatua da III. departamentuan ezarritako aurrezki monetarioen jabe bakarra, eta, horrela, kapital finkoaren jabe bakarra,

Inbertsioari dagokionez, arazoa bazterturik egonik, amortizazioari dagokionez, arazoak zutik iraungo lukeela uste daiteke. Produkzio 'duala' inbertsio netoaren kasu berezi bat da: gain-metaketak inbertsioa dira. Beraz, III. departamentuaren presentziak nahi den bermea ematen du: ez du gehiagorik inolako errentarik erabiltzen errenta (berrien) ordainketarako, eta amortizazio-ondasunak epealdi bakoitzean beren produkzioan berriki sorturiko errentatik erosiko dira. Ekonomia nazionalak ez ditu amortizazio-ondasunak birritan produzituko: familietan eta enpresetan (gain-metaketa gisa).

Produkzio duala, inflazioaren eta langabeziaren desordenaren iturria dena, desagertu egingo da.

Kapitulu hau Schmitt-en lanik garrantzitzuenari (1984a) dagokio. Analisia sakontzeko, hona hemen beste lan batzuk: Bradley, Friboulet eta Gnos 1996; Bradley eta Gnos 1991; Friboulet 1985a,b;1988; Frieden 1987; Gnos 1992; Gnos eta Rasera 1985; Rohland 1983; Sadigh 1981; Schmitt 1988c,1996; Schmitt (ed.) 1985; Schmitt eta Cencini 1982; Schmitt eta Gnos 1992.

9. Interesaren arazoa

"*My principal object in this long discussion has been to show that the value of money, so far as it is decided by intrinsic causes, does not depend* ***permanently*** *on the quantity of it possessed by a given community, or on the rapidity of its circulation, or on the prevalence of exchages, or on the use of barter or credit, or in short, on any cause whatever,* ***excepting the cost of its production***."

N. W. Senior, *Three Lectures on the Value of Money*

(a) Aurrezkiak, inbertsioak eta interes-tasak

Denbora kuantiko berbera definitzen duten bat-bateko gertakarien identitateak —errentaren sormena eta deuseztapena— ondorio berezia du denbora-dimentsioan: alegia, gertakari baten emaitzak bestearen emaitza alda dezake. Aldaketa horrek gertakari bakoitzaren osagaiei eragin diezaieke, eta ez gertakarien magnitude berari. Kasurako, 8. kapituluan ikusi den bezala, errenta konkretu baten azken gastuak bere hasierako banaketa —alokairu errealetan eta mozkinetan— modifika dezake. Sorturiko eta deuseztatutako errentaren oso-tasun berbera izanik, soilik beraren banaketa —alokairu-ondasunetan eta mozkin-ondasunetan— alda daiteke.


Denbora kuantikoaren berezitasun hori ez da gertatzen denbora kronologikoan. Jarraiko bi gertakari ez dira inoiz aldiberekoak denbora kronologikoan. Ikusi dugunez, emisioa eta denbora kuantikoa loturik daude teoria makroekonomiko berrian.

Aurrezki eta inbertsioaren analisia bat-bateko '*feed-back*' (atzera-elikadura edo berrelikadura) delakoaren identitate kuantikoaren beste etsenplu bat da.


Alta, errenta konkretu baterako, denbora kronologikoan aurrezkia eta inbertsioa ez dira identikoak. Denbora kronologikoan, aurrezkia eta inbertsioa elkarri eragiten dioten magnitudeak dira, autonomoki erabiliak direnak.

Kapital-ondasunak produzitzea enpresei dagokie, aurrezteko erabakia kontsumitzaileei dagokien bitartean. Aurrezkia eta inbertsioa bereizirik determinatuta daude, eta azken berdintasunak ez du inplikatzen identitatea. Hala ere, nahiz eta jarraiko denboran autonomoki determinatuak izan, biak berdinak dira denbora kuantikoan.

Lehen emisioak errenta bat sortzen du, zeina halabeharrez bigarren emisioak deuseztatutakoa bera den, eta identitate hori aplikatzen zaio errenta bakoitzari.



Identitate hori edozein errentari dagokio. Ezinezkoa da, beraz, errenta konkretu baten bi eraren artean inolako ezberdintasunik aurkitzea. Eskaria (lehen emisioa) eta eskaintza (bigarren emisioa) berberak dira, bai jarraiko denboran eta bai denbora kuantikoan ere.



Beltzez margozturiko bi errektanguluek errentaren emisioa errepresentatzen dute. Ez dira soilik berdinak, identikoak baizik, errealitate soil eta bakar baten bi era baitira. Are gehiago, zeina bat-batean lehengo emisioarekin erlazionatzen den azken aurrezkia (A), I inbertsioari dagokio halabeharrez. Beste aldetik, t_0 eta t_1 aldiuneen artean, aurrezkia eta inbertsioa maila desberdinetan finka daitezke. Hala ere, aldaketa horiek lehen emisioan behin eta betiko sorturiko errentaren barruan gauzatzen dira.

Produktuak eta zerbitzuak denbora kuantikoan dira sortuak eta deuseztatuak. Bi gertakari horien artean, *jarraiko denboran*, aurreztuak edo inbertituak izan daitezke proportzio ezberdinetan. Dena den, denbora kuantikoan aurrezkiaren eta inbertsioaren halabeharrezko berdintasuna izanik, badakigu azkenean bien arteko desberdintasuna desagertu egin behar dela. Hortik ondorioztatzen da, denbora kronologikoan ere, aurrezkiak eta inbertsioak azkenik elkar orekatu behar dutela.

Frogatu behar da magnitude bat bestera murriz daitekeela.

(i) Aurrezkia inbertsioa baino handiagoa bada, gehitze hori inbertsioa handituz edo aurrezkia gutxituz murriz daiteke. Inbertsioaren gehitzeak ez dakar inolako zailtasun analitikorik. Aurrezkiaren gutxitzeari dagokionez, beraren posibletasun logikoa erraz ezar daiteke. Izan ere, inbertsioaren gaineko aurrezkiaren gehitzeak bonu eta aktibo zaharren erosketa positiboa definitzen du, zeinak aurrezki netoaren kopurua inbertsioaren kopurura murrizten duen. Horrek eroslearentzat aurrezki positiboa eta saltzailearentzat kopuru bereko aurrezki negatiboa dakartzanez, bonu eta aktibo zaharren erosketa ez da aurrezki netoa. Honela, aurrezki netoaren kopuru osoa soilik partzialki dagokio kontsumitzaileek determinaturiko hasierako aurrezkiaren kopuruari.

Aurrezki netoa soilik bonu eta aktibo berrien erosketa da, eta erosketa horrek, bistan denez, inbertsioa berdintzen du. Gainontzeko aurrezkia bonu eta aktibo zaharren saltzaileen 'des-aurrezkiak' orekatzen du.

(ii) Inbertsioa aurrezkia baino handiagoa bada, diferentzia hori aurrezkien gehitzeak edo inbertsioaren gutxitzeak desagertarazten du.

Inbertsioa kapital-ondasunen outputa denez, behin produkzioa efektiboki gauzatu denetik, inbertsioa murriztea ezinezkoa dela ematen du. Baina ezintasun hori azalekoa besterik ez da. Behin ulertuz gero, produktuak (eta zerbitzuak) kontsumo- eta inbertsio-ondasunetan ez direla banatuak beren era fisikoei dagokienez, beren azken erosleen identitateari dagokienez baizik, bistako bihurtzen da kapital ekipamenduaren parte bat, izatez, kontsumo-ondasunen kategoriari dagokiola parte bat. Kapitalaren parte bat kontsumo-ondasunen eran sortua izan daitekeen bezala, inbertsio-ondasunen beste parte bat ere kontsumo-ondasunen hasierako forman sor daiteke. Inbertsio-ondasunen parte bat efektiboki erosia da kontsumitzaileen onurarako, eta enpresek egindako inbertsio-kopurua halabeharrez murriztua da ekonomiarako, osotasunean.

Azkenik biak, aurrezkia eta inbertsioa, gehituak edo gutxituak dira bien arteko edozein diferentzia beti deuseztatua izan baitaiteke nola edo hala.

Zein da denbora kronologikoan aurrezkia eta inbertsioa berdintzen dituen bitartekaria? Beste era batera esanda, zein da aurrezkia eta inbertsioa egokitzeko prezioa?

Schmitt-ek dioenez, egokitasun hori *interes-tasaren* aldaketaren bidez gauzatzen da.

Finantza-merkatuan, kontsumitzaileek beren errentaren parte bat eskaintzen dute, eta enpresek aurrezkiaren parte bat eskatzen dute beren inbertsioa finantzatzeko. Aurrezkia produkziorako eta kapital-ondasunen azken erosketarako enpresei eginiko mailegua denez, inbertsioa aurrezteko eskari bati dagokio. Honela, finantza-merkatuan aurrezteko eskariak eta eskaintzak interes-tasa determinatzen dute, zeinaren existentziaren azken jatorria produkzio-prozesuari dagokion. Beste hitzez

esanda, interes-tasa finantzarioa determina daiteke, kontsumitzaileek aurrezturiko eta enpresek inbertituriko errentaren zatia produkziogileei mailegua baita, eta ez, Keynes-ek uste zuen moduan, kontsumitzaileei egindako mailegu soila. Interes--tasa finantzarioa inbertsio-ondasunen produzioak sorturiko jatorrizko interesetan oinarrituko ez balitz, Keynes-en interes-tasaren analisia zuzena izanen litzateke. Kasu horretan, aurrezkia eta inbertsioa beti berdin izanen lirateke, ez beren identitate kuantikoa dela kausa, tautologikoki baizik.

Keynes-ek interes-tasaren teoria klasikoa baztertu zuen, errenta enplegu osotik independenteki determinatu nahi baitzuen. Bai aurrezkiaren eta inbertsioaren arteko identitatea, bai errentaren determinazioa enplegu osotik independenteki egitea, aurrezkiaren eta inbertsioaren arteko elkarren egokitzearekin kontsistente dira erabat. Izan ere, analisi kuantikoak aurrezkiaren eta inbertsioaren identitatea ezartzen du (denbora kuantikoan) sorturiko errenta bakoitzeko, eta baieztatzen du ezen, eskari efektiboak determinatua izanda, errenta enpleguaren mailatik independenteki aldatzen dela. Are gehiago, analisi berri hau ez dago denbora jarraiko aurrezkiaren eta inbertsioaren egokitzearen kontra. Egokitze hori, zeina interes-tasaren aldaketaren bidez gauzatzen den, kontsumitzaileen aurrezkiaren determinazioaren eta enpresen inbertsioaren determinazioaren arteko bereizketaren ondorio logikoa da.

Analisi kuantikoaren arabera, interes-tasaren aldaketaren bidez aurrekiaren eta inbertsioaren arteko egokitzea ez da ez-kontsistentea Keynes-en emaitzarik garrantzitsuenekin —hots, eskaintza osoaren eta eskari osoaren identitatea, eta errentaren determinazioa eskari efektiboaren bidez—. Horrek ere esan nahi du, interes-tasaren aldaketak ez duela halabeharrez errenta eraman enplegu osoko mailara.

Analisi kuantikoan, denbora kuantikoan aurrezkia eta inbertsioa identikoak direla behin frogatuz gero, litekeena da denbora jarraian biak elkarri egokitzen uztea. Denbora kuantikoan biak identiko direla-eta, denbora jarraian aurrezkia eta inbertsioa egokitu daitezke. Interes-tasaren aldaketa dela-eta, ez da egokitze hori bukatzen aurrezkiaren eta inbertsioaren arteko beharrezko baliokidetzan. Nahiz eta interes-tasa ez izan gai denbora kronologikoan biak berdintzeko, bigarren emisioak eginkizun hori beteko du.

$t_0 - t_1$ tartean, aurrezkiaren eta inbertsioaren arteko diferentzia interes-tasaren aldaketaren bidez murriz daiteke. Hala ere, egokitze hori arraskatatsu izan zein izan ez, t_1 aldiunean bigarren emisioan gertatzen denean, erabat betetzen da. Denbora jarraian beti da posible aurrezkiaren eta inbertsioaren arteko diferentziaren bat, interes-tasaren aldaketatik at, denbora kuantikoan ezinezkoa dena. Beraz, interes-tasaren aldaketa ez da baldintza nahikoa, ezta beharrezkoa ere, aurrezkiaren eta inbertsioaren arteko baliokidetzarako. Argi dago, denbora kronologikoan interes-tasa aurrezkiaren eta inbertsioaren egokitzearen prezioa dela.

Alokairuen ordainketak errenta determinatzen du, aurrezkiaren eta inbertsioaren egokitzeak interes-tasa eta kontsumo- eta inbertsio ondasunetan egiten den produktuaren banaketa determinatzen dituen bitartean.

Emisioen teoriak diruaren eta outputaren erabateko identitatea ezartzen du, inoiz ez daitekeelarik aurkitu eskari eta eskaintza osoen arteko inolako diferentziarik. Analisi kuantikoan errentaren determinazioa alokairuen emisioari dagokio. Alokairuak ordainduak diren bezain laster, langileen artean gordailu kuantiko positiboa sortzen da eta gordailu kuantiko negatiboa enpresen artean.

Produktu fisikoa enpresetan kokatzen da, eta gordailu kuantiko negatiboa betetzen du. Beste era batera esanda, langileek irabazitako errenta monetarioak produktu nazionala erabat definitzen du. Langileen gordailu kuantiko positiboa produktua da, eta ez beronen alde monetarioa, errenta eta produktua ez baitira elkarri konfrontatzen dioten bi objektu ezberdin, bat eta bakarra baizik. Alokairuen ordainketaren bidez, dirua eta produktua hain hertsuki integraturik daude, non batak bestearen definizio bihurtzen baitu.

Gauza bera gertatzen da bigarren emisioarekin. Errentaren azken gastuak langileen gordailu kuantiko positiboa enpresen gordailu kuantiko negatiboari lotzen zaio. Eragiketa honek ez du aldatzen, inola ere, errentaren eta produktuaren arteko erabateko korrespondentzia. Alderantziz, errenta bat azkenik gastatzen den bakoitzean, enpresen gordailu kuantiko negatibotik produktu fisikoaren parte baliokidea askatzen da; honek esan nahi du, errentaren definizioa produktuaren deuseztapen ekonomikoa dela. Produktuaren eta diruaren arteko identitate-erlazioa, produkzioak ezartzen duena, eskari eta eskaintza osoen arteko identitaterako argudio teorikorik nagusiena da. Eskari osoa eta eskaintza osoa identikoak izanik, denbora kronologikoan aurrezkiaren eta inbertsioaren egokitzeak ez dakar ezer, inondik inora, errentaren determinaziorako. Alokairuen ordainketak determinatzen du errenta, aurrezkiaren eta inbertsioaren egokitzeak interes-tasa eta kontsu-mo-eta inbertsio-ondasunen produktuaren banaketa determinatzen dituen bitartean.

Aurrezkia eta inbertsioa, normalki ezberdinak izanik denbora kronologikoan, beti berdinak dira denbora kuantikoan; eskari osoa eta eskaintza osoa, aldiz, denbora kronologikoan eta denbora kuantikoan beti berdinak dira.

(b) Errenta, kapitala eta interesa

8. kapituluan errenta edo denbora-kapitala aztertzean, kapital finkoaz, mozkinez, alokairu nominalaz eta alokairu errealaz aritu gara. Aurreko atalean, aurrezkiaz, inbertsioaz eta interes-tasaz jardun dugu. Orain kapitalaren interesa aztertuko dugu.

9.1. KAPITAL FINKOAREN ERATZEA

Kapitalaren existentziak produktuen (eta zerbitzuen) kontsumoa denboran luzatzea dakar. Definizioz, kapitala familiek kontsumitu gabeko produktua da, hots, zintzilik geraturiko errenta. Denbora-kapitala oraindik kontsumitu gabeko errenta korronteari dagokion bitartean, kapital finkoa enpresen konturako denbora-kapitalaren gastutik sortzen da. Hau da, produktu korrontearen zati bat produkzio-prozesuan integratzen da. Baina, egungo errenta kontsumo produktiboan definitiboki deuseztatzen bada, argi dago errenten titularrak 'azken kontsumoaren eskubide' baten jabe direla. Honela, kapital finkoa denbora-kapital baten eraldatzetik dator honako zentzu honetan, alegia, egungo errentaren azken kontsumoa etorkizuneko epealdi batera bidaltzen duen zentzuan, baina *produkzio berri batean errenta berri bat eratua izanen denean*.

Kapital finkoaren eratzeak eragiketa espezifikoa eskatzen du, denbora-kapitala kapital instrumental edo kapital zirkulatzaile bihurtzera jotzen duena. Eragiketa honi, enpresen ahalmen produktiboa gehitzeko helburu duena, inbertsioa deritzo.

Esan ohi denez, inbertsioak bi jatorri desberdin ditu: aurrezkia eta mozkina. Lehengo 'egoeran', aurrezki batek inbertsioa elikatzen du, mozkina bera alokairu-ondasunen aurrezki bat izanik. Beraz, azkenean entrepresek egindako mozkinaren gastua inbertsioaren zentzu sakona dela erakusten du analisiak.

9.1.1. Aurrezkiaren inbertsioa

Demagun bere produkzio-ahalmenak handitzeko, *A* enpresak *B* enpresaren $\underline{b}$ produktua bereganatzen duela. (*A* eta *B* dira gure ekonomiaren enpresa bakarrak.)

Oraingoz berdin dio akzio edo obligazioak emititzeko *A* enpresak finantza-merkatura jotzea, edo berak bere burua finantzatzea. Izan ere, kasu bietan, inbertituriko kopuruak aurrezki batean ateratzen dira. Benetako arazo analitikoa aurrezki horren —hortaz, denbora-kapital horren— eraldaketa kapital finkoan esplikatzean datza.

Bere inbertsioa finantzatzeko, egia da A enpresak ezin duela jo berak emandako alokairuen aurrezkira. Izan ere, berak ezin baitu ordaindu bere zor monetarioaren bidez. Baldin eta *A*-k mailegua hartu behar badu, berak familiengandik jaso dezake, zeintzuen errentak beste enpresa batzuetan eginak diren, gure kasuari dagokionez, *B* enpresatik datozen errenten titularrengandik.

Beste aldetik, *A*-k $\underline{b}$ produktua erosten duenez, *B*-k ekoitzitako ondasunak *A*-n daude transferiturik eta stockaturik. Horretatik inferitzen da, *A* *b*-ren gordatzailea izanik, *A*-k *B*-ri ordaindu diola; orduan, azken hau bankuekiko daukan zor finantzariotik desbahituta dago. Hala ere, eragiketa enpresen artean gauzatua izanez,

familien erosteko ahalmena ukitu gabea da. Azken hauek *b* erosteko ahalmenaren jabe izaten segitzen dute, zeina, orain, *A*-n dagoen stockaturik. Azkenik *A*-k *B* ordezkatu duela dirudi.

B-ren ordezko *A* jartzea, berremisio edo emisioaren berrartze baten bidez gauzatzen da. *B*-ri ordaintzeko, *A*-k finantza-merkatuan *b*-ren baliokidea mailegatu behar izan du, eta ordainketaren aldiunean, *b* produktua monetatik irten da, *B*-k bankuekiko zorra ordaintzen baitu, eta *A*-k produktua fisikoki edukitzen baitu. Hala ere, produktua ez da irten monetatik, 'entrepresen espazioan' ez bada, eta familiek *b*-ren gaineko eskubideen jabeak izaten segitzen dute. Gainera, produktua birsartua da monetan, *A*-ren gainean familiek kreditua lortzen dutelako gertaera dela kausa, beraiek *B*-ren gainean zeukaten kopuru berberaz. *A*, beraz, *b* produktua berak produzituko balu bezalako egoeran dago.

Honela, dena gertatzen da *b*-ren produkzioari dagozkion kantitateak *zerbitzu produktugileen merkatuen* gainean *A*-k gastatu izan balitu bezala. Ondorio hau dator hasieran *B*-n eraturiko errenten titularrekiko *B*-k daukan kontratu finantzarioa *A*-k berrartzen duen gertaeratik. Eragiketa perspektiban hartzen bada, inbertsioa izaeraz zerbitzu produktugileen merkatuaren gainean egindako gastua dela ikusten da.

Baina *A*-k *b* bere erabilpenerako eta ez berriro birsaltzeko erosten duenez, familien aurrezki monetarioak bere objektua galdu du. Kapital instrumentalean eraldatuak, ondasunak *A* entrepresan *finkatuak* dira, non produktiboki kontsumituak diren, eta, beraz, ezin dituzte azkenik familiek kontsumitu. Inbertsioa eginez, *A*-k familien errenta korrontea gastatzen du, zeintzuek trukean *etorkizuneko* errentaren gaineko titulua jasotzen duten. Gastua itzulezinekoa izanik, egiazkoa da errenten titularrek ez dutela bihar berraurkituko gaur aurrezturiko errenta. Produkzio berri batean eraturiko errenta berria berraurkituko dute. Honela, eraturiko kapital finkoa ekonomiaren osotasunerako netoa da, enpresen zorra kitatua den neurri berean. Baina, *A*-k ezin izango du familiekiko bere zorra errespetatu, geroko epealdietan errenta bat hornitzekoa, baldin eta mozkina lortzen ez badu.

9.1.2. Mozkinaren inbertsioa

Egia da, finantza-merkatuan egindako maileguek inbertsio batzuk finantzatzen dituztela; hala ere, mailegu horien ordainketa enpresen mozkinetik ateratzen da: "[Inbertsioaren] *finantzaketa, mailegatua baldin bada, entrepresaren mozkina 'aurreratua' delako da. Honela, inbertsioa mozkin gaurkotuaren gastua da, gauzatua izanen den mozkina eta jadanik prest dena, bera jadanik gauzatutako mailegu-emailearen errentaren kontra trukatua baita*" (Schmitt 1984a, 166 or.). Inbertitzeko gaur egun gastaturiko edozein moneta, gaur berton eskuragarri diren ondasunen stockaren erosketan besterik ezin da izan.

Komeni da banatu gabeko mozkinaren gastua analizatzea orain. Banatu gabeko mozkina ez-alokairuzko errenten titularrei ematen ez zaien mozkinaren zatia da. Beraz, ez da familiengana iristen eta entrepresen barne-espazioan geratzen da. Orduan, inbertsioa 'mozkin ondasunen' erosketan beren mozkin monetarioa enpresek gastatzen duteneko gertaera soila da. Baina banatutako mozkina bere eratze-epealdian bertan gastatua den bitartean, banatu gabeko mozkinak bigarren epealdi bat behar du inbertitua izan ahal izateko. Edozein mozkin zerbitzu produktugileen merkatuaren gainean halabeharrez gastatzen deneko arauak egiazko izaten segitzen du.

"*Irakurle ernea ondoko bi proposizioren identitateaz konturatuko da:*

(i) Produktuen merkatuaren gaineko mozkinaren gastua ez zaio gehitzen familien gastuari (...)
(ii) Enpresen inbertsioa egon ahal izateko, mozkinak zerbitzu produktugileen merkatuaren gainean gastatua izan beharko du" (Friboulet 1988, 93 or.)

Hala ere, inbertsioaren kasuan, gastua mozkin monetarioaren eraketaren geroko epealdi berri batean gauzatuko da.

Inbertsioa ezin da gauzatu industrien arteko trukeetetik. Entrepresek, beren artean, berek behar dituzten ekipamendu-ondasunak sal ditzakete, baina truke horiek baliorik gabekoak dira (Schmitt 1984a). Hau da, mozkinak ez dira gastatuak izan; hortaz, beraiek ezin dira inbertitu truke horien bidez. Izan ere, "*Mozkina eragiketa uniboko batean da inbertitua, alokairu berrien ordainketan enpresek bereganaturiko aurreko alokairuen laguntzaz*" (Schmitt 1984a, 175 or.). Alokairuak bereganatuak izanik, lehen epealdian, mozkin monetarioaren eraketa epealdian, stockaturiko alokairu-ondasunak ezin dira inoiz kontsumituak izanen.

Mozkina denbora-kapitala ekipamenduetan finkatua denean inbertitzen da egiazki, ekipamenduak kontsumo produktiboa ez den beste edozein kontsumotatik kanpo egonik.

Har ditzagun bi epealdi:

(i) Lehengoan, entrepresek mozkina eskuratzen dute, produktuaren zati bat bereganatzen dutenean bere produkzio-kostua baino handiago den prezio batetan. Gainontzeko zatia —mozkinaren baliokidea dena— jadanik dagoen kapital finkoaren stockean dago sarturik.
(ii) Bigarren epealdian, mozkina inbertitua da ondasun berrien produkziorako aritzen diren produktugileen ordainketaren aldiunean. Ondasunak ezin dituzte langileek kontsumitu, beraien produkzioak ez baitu inolako erosteko ahalmen berririk sorrarazten. Alokairuek ez dute errenta berririk osatzen, aurreko epealdiko errenta batetik eraturiko denbora-kapitaletik baitatoz. Bigarren

alokairuen gastua entrepresek eskuraturiko antzinako alokairuen 'birsortzea' besterik ez da.

Beren mozkin monetarioekin soldatapekoei ordainduz, enpresak berehala jabetzen dira produktu berriaz, produktuen merkatuaren bitartekaritzatik pasatu gabe.

Honela, lehenengo epealdiko 'mozkin-ondasunak' berehala produkzio-tresnetan eraldatuak dira eta produktiboki kontsumituak. Bigarren epealdian berehala ordezkatzen dituzte berriki produzituriko 'alokairu-ondasunen' stockak, alokairu-ondasunak berak ekipamendu bilakatuko direlarik, eta abar. "*Azkenik, tresnak, makinak eta ekipamenduak alokairu-ondasunak dira, zeintzuen aurrezkia halabeharrezkoa den, beraiek familien kontsumotik definitiboki aldentzen baitira*" (Schmitt 1984a, 175 or.). Itzulezinezko era horrek *kapital finkoaren* statusa ematen die.

Ondorioz esan daiteke, ezen inbertitua den edozein errenta —familiek maileguz emana izan ala ez— definitiboki denboran eramana dela. Eta, hain zuzen ere, denborazko eramate horrek interes positibo baten existentzia oinarritzen du.

9.2. INTERESA PRODUKZIO ERRENTA DA

Ikusi dugunez, aurrezkiaren inbertsioa —denbora-kapitala kapital finko bihurtzea alegia— itzulezinezkoa da. Hau da, kapital finko bihurtzen den denbora-kapitalaren zatia ezin da inoiz errenta berraldatua izan, eta, beraz, ezin dute familiek kontsumitu.

Halaber, ikusia dugu mozkinak alokairu nominalen kategoria prolifikotik datozela, baita mozkinen inbertsioa geroko epealdi batean gauzatzen dela ere.

Interesari lotuko gatzaizkio orain. Interesaren ohiko interpretazioan, errenta maileguz emana deneko aldiunetik mailegu-emaileak bere kapitala berrartzen dueneko aldiunera doan tarterako konpentsaziotzat hartzen da interesa.

Erakutsiko dugu interesa ez zaiola gehitzen kapitalari; eta, denbora bere definizioan sartzen bada, ez dela horren preziorik.

Interesa epealdiz epealdi sorturiko errenta da, eta, beraz, beraren iturria produktu korrontearen emisioan dago.

Interesaren adierazpenak hirugarren merkatua behar du, merkatu finantzarioa, zerbitzu produktugileen eta produktuen artean kokatzen dena. Bera, alde batetik, aurrezturiko errentek eta, bestetik, aurrezkigileei emandako errentek elikatzen dute.

Kapital finko bilakatua, aurrezkia definitiboa da. Hortaz, kontsumitzeko posibletasuna galtzen da. Interesa positiboa ez balitz, aurrezkigileek ez liekete

utziko enpresei beren aurrezkia inbertitzeko erabil dezaten. "*Enpresek kapital instrumentalean aurrezkia finkatu nahiko balute, beharrezkoa litzateke beraiek errenta-titularren multzoekin ados daitezen. Akordioa 'prezio' konkretu batean gauzatzen da, eta horrela aurrikusten da, aurrezkigileak adosturiko kapitalerako 'interesa' jasotzea*" (Schmitt 1984a, 559 or.).

Akordio horren izaeraz galdetu behar da orain.

9.2.1. Aurrezkia, kontsumoa eta interesa

Ekonomi zientziazko testuetan, interesa kapitalari gehitzen zaiola azaldu ohi da, aurrezkigilearen etorkizuneko erosteko ahalmena osatzeko.

Jadanik ikusia dugunez, *"Kapital instrumentalean finkaturiko edozein aurrezki* ***beti galdua da errenten titularren multzorako"*** (Schmitt 1984a, 558 or.). Ondorioz, interesa ez zaio gehitzen kapitalari, eta, beraz, ez da errenten titularrek inbertitzearren ez-kontzumitzeko sakrifizioa egiten dueneko denboraren prezioa. Baldin eta interesa konpentsazioa bada, ezin da izan, berak definitiboki inbertsioan deuseztatua den erosteko ahalmena aurrezkigileei ematen dien heinean ez bada.

Multzoa eta multzoaren elementuak bereizirik, ohiko interpretazioa eta berria batera daitezke.

Aurrezkia aurrezkigileentzat gauzatu gabeko kontsumoa da. Honela, mailegu-hartzailea mailegu-emailearekiko produktuak erosteko ahalmenaren zorduna da. Maileguen ordaintzeak aurrezkiak etendako produkzio/kontsumoaren mugimendu osoa epemugararte luzatzea permititu behar du. Pentsa daiteke mugimenduan kontsumoa falta dela, edo nahi bada, bigarren emisio-erdia, zeinak ondasunen azken eskurapena errentaren lehen titularren partetik —mailegu-emailearen partetik— esan nahi duen.

Azken baieztapen hau egia da gizabanako soil batentzat, isolaturik hartuta. Multzoarentzat, aldiz, azken eskurapena eginda dago; aurrezturiko errenta deuseztaturik egon da produkzio-ondasunen erosketan. Horretatik ondorioztatzen da, interesa soilik sor daitekeela errenta berri baten sormenean.

Baina egiazkoa da mailegu-emaileak produktu berriaren zati bat kontsumitzeko bat-bateko eskubidea daukala. Interesa, zentzu honetan, kontsumo-errenta bat da, eta horri dagokionez preziotan neurtua da, ez baliotan. Beraren tasak hauxe adierazten du, alegia, interes-titularrak interesa kobratzen dueneko epaldian *kontsumi dezakeen* errenta aurreztuaren kopuruaren portzentaia. Ondorioz, aurrezkigileak eskuratu ahalko duen produktu fisikoaren partean produktuen merkatuko prezioek ezartzen dute. Bestela esanda, interesa prezioa da eta, hortaz, produktu korronteen prezioen bilakaera segitzen du.

Adibide modura adierazita, interes-tasa %10koa eta prezioen gehitzearen tasa %3koa badira, interes errealaren tasa interes nominalaren tasaren eta prezioen gehitzearen tasaren arteko diferentzia dela esan ohi da. Hau da, etsenpluan %10 – %3 = %7. Baieztapen horretan errenta eta kapitala nahasten dira.

Arrazoitu dezagun:

%10eko tasan, 100 pezetako aurrezkiak, prezioen aldaketarik ezean, 10 pezetako errenta ematen du epealdi osoan.

Autore askoren ustez, aurrezkia gertatzen deneko aldiunetik eta interesa gastatua deneko aldiunerako epean %3ko prezioen gehitze batek, interes erreala 7 pezetakoa besterik ez dela adieraziko du, hau da, eraturiko kapitalaren %7. Pentsa daiteke monetaren erosteko ahalmenaren galtzeak kapitalaren gainean eragiten duela. Interesa ez da 'kapitalaren zati' bat. Interesa errenta da, beraz, 'fluxua', zeinaren balioa finantza-merkatuan ezarria den eta produkzio korronteak determinatua. Produktu berriaren zatia da. Prezioa izanik, prezioak bezalaxe, inflazioa jasaten du. Beste era batera esanda, enpresen eta aurrezkigileen artean adosturiko kontratuak aurrikusten du, kasu, 10 pezetako gastua urteko, eta kontratuaren sinaduraren datatik eta interesa emanda den aldiunera bitartean prezioen gehitzea %3koa baldin bada, interes erreala ondokoa izango da:

10 pezeta – %3 × 10 pezeta = 9,7 pezeta, eta ez 7 pezeta, beraz, interes errealaren tasa %9,7 da eta ez %7, hau da, %10 - %3 × %10 = %9,7.

Interesa epealdi bakoitzean erabat eraturiko magnitudea da, eta ez ditu stocken aldaketak kapitalean inkluditzen.

9.2.2. Kapitala eta interesa ez dira gehigarriak

Egia da edozein aurrezkigilek maileguaren epemugan bere kapitala eskuratzen duela; edo lehenago, bere titulua saltzen badu.

Ohiko interpretazioan, (ikus, adibidez, Knight 1936), aurrezkigileen multzoa hartzen bada, globalki aurrezkia berreskuratzen da eta interesak kapitalari gehitzen zaizkio, interesak mailegu-emaileek beren errenta erabili ezin duteneko denboraren prezioa izanik.

Arrazoiketa hori erratua da. Finantza-merkatuaren gaineko mailegu-hartzaile diren enpresek ezin dute inbertituriko aurrezkia ordaindu, beraiek lortzen dituzten mozkinen bidez ez bada. Ondorioa berehalakoa da: mailegu-emaileei ordainduz, enpresak azkenik bere kapital finkoa erosten du errenten bitartez. Honela, mailegu-emaileak bere kapitala berreskuratzen du, enpresak berak ordezkatzen duelako, berorren akziodunen konturako. Ordainketak, izan ere, gastaturiko dibidendoen kopurua murrizten du.

Gehitzearen ilusioa honetatik dator, alegia: gizabanako batek epealdi batean interesak jaso ditzake, eta berehala bere aurrezkia berreskuratu, bere jabego-titulua beste bati salduz. Gizabanako batentzat egia dena, ez da egia multzorako.

Eragileen *multzoa* hartzen bada, badirudi produkzio-tresna ezberdinak eta ekipamendua eta finkaturiko kapitala egiazki eta finantzarioki galdurik dagoela errenta-titularrentzat. Mailegu-emaileen ordainketa mozkinetik dator, mozkinak alokairu-ondasunen aurrezkia izanik. Ordainketa, beraz, aurrezki bat bestearen ordez gauzatzea da. Bere jabego-titulua saltzen duenak, aldez aurretik aurrezturiko kantitatea berraurkitzen du baldintza batean, alegia, beste aurrezkigileak (edo beste batzuek) kopuru berbera aurreztu du(t)eneko kondizioan. Baldintza horietan egiazkoa da, errenta titularren multzorako, inbertsioaren hasierako eragiketak aurrezturiko errenten galtze definitiboa esan nahi duela. "*Ikusten da, orain interesa ez zaiola kapitalari gehigarria; alderantziz, mailegu-emaileak eskuraturiko konpentsazioa da, emaile horrek definitiboki kapitalean finkaturiko errenta galdu duelarik*" (Schmitt 1984a, 560 or.). Azken mailegu-emailea beti errentaren titular bat da. Enpresek mozkinak banatzen ez dituztenez, azken mailegu-emaileak mozkinen titularrak dira, zeintzuentzat ordezkatzearen bidez inbertituriko errenta definitiboki galdua den.

Ez dago, beraz, inolako argudiorik interesak gauzatzen ez direla suposatzeko, enpresa bere kapital instrumentalaren azken jabe bilakatu delako. Errenta espezifikoa agertu barik, interesa dibidendoei gehitzen zaie. Honela, mailegu-emaileek halabeharrez gastatzen dute maileguz emandako errenta, baina beraiek ez dute definitiboki galdu, bera berraurkitzen baitute beraren 'errepikapenaren' aldiunean errenta berriaren sormenean. Interesa aurrezturiko errentaren errepikapena besterik ez da; hau da, maileguz emana eta gastatua.

9.3. INTERESA KOSTU MAKROEKONOMIKOA DA

Esan bezala, errentaren mailegatzeak denboran kontsumoa luzatzea inplikatzen du. Baina luzatzeari dagokionez, horrek esan nahi du kontsumoa gauzatu egingo dela, eta, beraz, mailegu-emaileak produktuak erosteko ahalmena berriro edukiko duela. Egia esan, maileguz ematearen aldiunetik eta mailegu-emaileak azkenik kontsumitu egin dezakeeneko aldiunera doan tarteak interesaren existentzia justifikatzen du. Hala ere, benetako arazoa ez da justifikazioarena. Arazoa hauxe da: epealdiz epealdi nola sartzen den interesa errenta nazionalean.

9.3.1. Kapitala ez da errenta-emisiogilea

Badakigu produktua emisio erreal baten eta emisio monetario baten aldiberekotasunak definitzen duela. Alokairu-errentak soilik existitzen dira langileen eta bankuen emisio bikoitz horrengatik. Hau da, alokairu-errenten eraketa-prozesuak ez du balio kapitalaren errentena adierazteko.

Ukaezinezkoa da ekipamenduek gizakien jarduera produktugilearen garapenari eragiten diotela. Ez da, beraz, desazeleratu behar kapital instrumentalaren partearen inolako sormen fisikorik.

Emisio erreala, alta, ez dagokio materia edo energia berrien sormenari, utilitate-forma berri baten sormenari baizik (Schmitt 1984a). Hola, produktua ez da materia berri bat, objektu berri bat baizik, hots, proiekzio intelektual baten emaitza, zeina beren beharrizanak betetzeko gizakien desioan sartzen den. Soilik utilitate-azalaren edukia da materiala. "*Objektuak bera sortu duen aldez aurretiko desioa materializatzen du eta beraren forma bera gauzatu baino lehen espero den funtzionamenduak esplikatzen du*" (Monod 1980, 19 or.). Egiazkoa da giza-lana dela produkzio-faktore bakarra, gizakia baita, izan ere, utilitate-azalaren forma eta aldez aurretik pentsaturiko forman sartzeko materiak nola konbina daitezkeen batera ulertzeko gai den bakarra.

Kapital-ondasunak sartzen dira produkzio-prozesuan, beraiek emisio erreal baten emaitza diren heinean. Hau da, aldez aurretik determinaturiko betekizuna gauzatzeko espazioan aurrepentsatuak ezarriak. Kapital-ondasunak kontsumituak izateko dira zuzenduak, eta honelakoak dira beraien sormenetik beretik, diren modukoak direlako. Beraz, ezin daitezke izan produktu berrien faktoreak, errenta baten objektua izateko gai izan daitezkeenak.

Objekturik gabe, interes-moneta baten sormena adierazezinezkoa da. Horren froga ondoko hau da.

Suposa dezagun interes monetario baten ordainketa. Errenta izanik, ezin da, inongo kasuan ere, aldez aurretik dagoen moneta batek elikatua izan. Beraz, interes monetarioa edozein moneta-emisiori dagozkion arauen bidez adierazi beharra dago.

Edozein moneta, bere sorreran, negatiboa eta positiboa da. Aipaturiko kasuan, moneta ez dagokio inolako emisio erreali. Esan nahi da moneta negatiboak ezin duela bereganatu ezelako produktu errealik, emisioaren bermetzat. Beraz, hutsik dago, objektu gabekoa da, berak ez baitu errepresentatzen ekonomian inoren ezelako zor errealik. Ondorioztatzen da, beste aldetik, moneta positiboa objekturik gabeko kreditua izanen litzatekeela. Baldintza horietan, suposaturiko interes-moneta ezin bilaka daiteke aktibo neto, bera existentzia gabekoa izanez.

Ondorioz, interesa ezin da eratu emisio erreal eta monetario batetatik at, hau da, alokairuen ordainketatik kanpo.

9.3.2. Interesa 'jatorrizko' errenta bat da

Errenta denbora kuantikoan definituriko magnitudea da, kapitala denbora jarraia den bitartean. Denbora kuantikoa ez zaio gehitzen denbora jarraiari; hortaz,

errentak ezin du kapitala ‘zeharkatu’. Esana dugu jadanik, aurrezkia itzulezinezkoa dela. Horrela, nahiz eta beraren eraketa kapitalaren existentziak justifikatu, interesa ez da kapitalaren emisioa.

Izan ere, kapital finkoa errentaren ezarpen definitiboa da denbora jarraian: “*literalki, magnitude baten* ***aldaketa*** *da, ‘espazio’ batetik beste batera*” (Schmitt 1984a, 560 or.). Aurrezturiko errenta halabeharrez denbora jarraian ezarria izanez, ‘kapitalaren errenta’, interesa alegia, denbora kuantikoan garatuko den birsormena dela ondorioztatzen da. Interesen eraketa ‘eragiketa-berrartze’ gisa agertzen da, berak sorrarazten baitu berriro jadanik gastaturik dagoen erosteko ahalmen bat, baina azkenik kontsumiturik gabe dagoena. Mugimendua osoa izan dadin, berriro produzitu behar da aurretik aurrezturiko errenta.

Aurrezkiaren inbertsioak produkzio-ahalmenak gehitzea ahalbidetzen du. Eraturiko kapital instrumentalak lanaren produktibitatearen gehitzea esan nahi du. Aurrezkiari esker, denbora-unitatean (kuantuan) langileek ekipamendurik gabe lortuko luketeena baino erabil-balioen kantitate handiagoa sortzen dute. Honela, maileguaren aldiunetik eta errenta birsortua deneko aldiunera pasatzen den denbora materializatzen dute maileguak produzitzea ahalbidetzen duten erabil-ondasunek. Ekipamenduei esker lorturiko ondasunen biderketa, aurrezkigileen parte-hartze modura interpreta daiteke produkzio korrontean. Baina honek ez du dudatan jartzen alokairuen eta produktuaren baliobidetza-printzipioa; interesa ez da alokairuei gehi dakiekeen errenta-mota bat.

Araua hertsia da: lan-denbora ezin da logikoki des-osatua izan. Produktua bere osotasunean eta kolpe soil batez neurturik dago alokairu-unitatetan. Hau da, interesa logikoki produktu korrontearen —identikoki erreal eta nominala— barnean hartzen da. Ez dago inolako misteriorik: interesa alokairuen kategoria ‘prolifikoa’ da. Interesa ‘jatorrizko errenta’tzat edo produkzio-errenta legez agertzen da, eta horrela izanik, enpresentzako kostu bat errepresentatzen du.

Baina, nolabait alokairuetan kokaturik, interesa ez da inputatzen langileen errentaren gainean. Kapital instrumentala dela kausa produzituriko utilitateek, dudarik gabe, moneta emitituaren zati baten objektua osatzen dute. Hau da, kapitalari esker produzituriko ondasunak lan korrontearen produktuak balioztatzen diren moduan dira balioztatuak. Baina interesa prezio bat izanik, interes-ondasunen eta alokairu-ondasunen arteko bereizketa produktuen merkatuaren gainean egingo da. “*Interesak positiboak direla emanda, x unitateko alokairu-emisioak interes--ondasunen erosketa, y berdintzen duena, edukitzen du, berorien titularren konturako, hots, aurrezkigileen konturako*” (Schmitt 1984a, 563 or.). Mozkinen kategoria izanik, zentzu zabalean, interesa bereganatua da, Schmitt-ek frogatu duen bezala (1984a).

Behar den bezala hitz eginez, langileei emandako errenten gainean bera inputatzen ez den arren (berak ez baitu behar bere partetik inolako lan osagarririk

edo dohainekorik), interes hori, orokorki, familien multzoak epealdiz epealdi jasaniko kostua da. Produktu korrontean ingurugiro ekonomikoari dagozkion gastuak barneratzen ditu. Ingurugiro hori, epealdiz epealdi, eraiki, hobetu eta mantentzen du familien aurrezkiak. Eta, aurrezki horrek lanaren *produktibitate fisikoaren* gehitzeari eragiten diolako, askotan kapitalak berak interesa produzitzen duelako ustea sor daiteke.

Izatez, ez-alokairuzko errentak produktu-kostu korronteetan sartzen dira. Lana produkzio-faktore bakarra izanik, edozein errentak bere jatorria dauka alokairuen emisioan. Denak alokairuen kategoria 'prolifikoak' dira. Hortik ondorioztatzen da, ez-alokairuzko errentak ez zaizkiela gehigarri alokairuei, termino errealetan ez bada.

Orain ondoko berdinketak idatz ditzakegu:
Produktua = Alokairu nominalak = Errenta nominalak (eraketa)
Produktua = Alokairu erreala + Mozkin erreala.

Aurreko berdinketek ez dute ondoko identitatea kontraesaten:
Errenta erreala = Errenta nominala,
zeren honako hau deduzi baitezakegu:
Errenta nominala = Produktua = Alokairu erreala + Mozkin erreala =
Errenta erreala.
Edo,
Errenta nominala = Alokairu erreala + *Interesa* + Mozkin erreala.

Schmitt-ek, ez-alokairuzko errenten eraketa *erretroaktiboaren* printzipioa garatuz, emisio-teoria berriak ekonomialari klasikoek buruturiko printzipioa errespetatzen du, alegia, banaketaren gaineko produkzioaren lehentasun logikoa, produktuen merkatuaren gaineko errenta indibidualen determinazioaren kontzepzio neoklasikoa bereganatuz.

10. Nazioarteko monetaren jaulkipena: euroa eta bancorra

> "*It is clear that a solution of the international payments problem by the introduction of a common currency, or by some sort of advanced clearing system, is the only real and final answer"*
>
> Erik Ambjörn, *International Payments and the I.M.F.*

(a) Euroa

Monetak eta produktuak errealitate soil eta bakar bat osatzen dute; honela, monetak produktua 'ibilgailu' modura daramala esan daiteke. Euroa jailkitzea da eredurik politena banku-moneta zer den ulertzeko.

10.1. JAULKIPEN MONETARIOAREN TEORIA OROKORRA

Duela denbora askotxo frogaturik geratu da bankuaren eginkizun bikoitzaren garrantzia: finantza-eginkizunarena eta ordainketa-bitartekariarena. Bankuek bietan, hots finantzaketan eta ordainketan, parte hartzeak horien arteko harreman anitzak erakusten ditu.

Keynes-en emaitzarik garrantzitsuenetarikoa moneta-arazoa aintzakotzat hartzean zetzan (Keynes 1930; Friboulet 1985a,b;1988; Bradley, Friboulet eta Gnos 1996). Harrigarri eta hondamendi hutsa da ikustea nola ekonomialari marxistek produkzio-modua eta moneta-teoria baliokide orokortzat onartu dituzten —oraingoz ere?—, banku-praktikari, finantza-eragiketei eta kreditu-monetaren zirkulazio bereziari kasu handirik egin gabe.

Ikus dezagun ekonomia nazionaletan jaulkipen monetarioak nola gauzatzen diren. ('Nazioa' hitza zentzu monetarioan hartua da hemen, hots, banku zentralaren ingurukoa dena, moneta soil eta bakar bat erabiltzen deneko esparrua.)

Hiru ondorio aterako ditugu:

(i) Ezein bankuk ezin du *ex nihilo* aktiborik sortu, ezta aktibo finantzariorik ere; beraz, ezein bankuk ez du erosteko ahalmenik sortzen;
(ii) edozein jaulkipen, aldaketa *absolutua* da: monetan produktu errealaren aldaketa —zerbitzu produktiboen merkatua—; ondasun errealetan moneta

aldaketa —produktuen merkatua—; edo tituluetan produktuaren aldaketa —finantza-merkatua—;

(iii) monetaren jaulkipenak banku jaulkitzailearen aldetik jaurgo-eskubidea erabat nulua izatea behartzen du.

Hortaz, euroen jaulkipen-arazoari irtenbidea emateko, erizpide hauek erabiliko dira:

(a) Europako Bankuak ez du ezelako (eurotan) erosteko ahalmenik sortuko;

(b) Europako Bankuaren edozein jaulkipenek eurotan europar moneta baten truke *absolutua* definituko du;

(c) Europako Bankuak ez du inolako jaurgo-eskubiderik euroen jaulkipenetatik.

Europako Bankua jaulkipen-teoria orokorrari egokitu behar zaio. Beraz, Europako Bankuak banku-monetak jaulkitzeko aspalditik erabili diren neurrien bidez sortuko du euroa.

Banku-monetaren edozein jaulkipen erabat hertsia den eragiketa da: bat-bateko monetaren *sormen/deuseztapen* bat da, eta ez inolako sormen *netoa*. Edozein banku-jaulkipenetan sorturiko moneta berehala deuseztatzen dela baieztatzeak hauxe esan nahi du: edozein bankuk sortzen duen moneta bat-batean errekuperatzen du, ezelako denboraren luzapenik gabe, gordailutan berrartzen baitu.

Banku jaulkitzailetik moneta ‘irten’ den aldiunean, moneta *sortu* egiten da. Simetriaz, moneta *deuseztu* egiten da, banku jaulkitzaileak berrartzen duenean. Hori onartuz, bat-bateko edozein banku-monetaren sormen/deuseztapena misteriorik gabeko eragiketa da, hauxe adierazi baitu, alegia, banku-monetako edozein unitate, ekonomian ‘injektatua’ izateko aldiunean, derrigorrez bere banku jaulkitzailean ezartzen dela, gordailu honek sorturiko monetaren bat-bateko deuseztapena adierazi duelarik.

Izatez, banku-moneta zerbait ez-materiala da, eta kontu korronte hartzekodun baten titularitateak bere titularrari uzten dio banku gordailuzainak bere izenean gordailutan dagoen ainakoa ordaintzea: hortaz, ezarririko moneta-kopurua ez da inongo unetan gordailugileen ondarera ‘itzultzen’. Honela, *ibilgailu-monetaren* ideia bereganatzen dugu: bankuek ordainketen ibilgailua jaulkitzen dute, eta edozein ordainketak objektu erreala dauka. Bankuek ordainketen saskia edo ibilgailua sortuz, ez dute ordainketen *objektua* sortzen, zeina industriak —hots, ekonomiaren jarduera produktiboak— erabat ekoizten duen.

Hortaz, lehen ondorioa hauxe da: ezein bankuk —komertzial, zentral edo ‘supranazional’ izan— ez du ezelako erosteko ahalmen monetariorik sortzen.

Ordainketen *era* edo *forma ex nihilo* sortzen da, *numerarioa* delako —jadanik Léon Walras-ek libera zenbaki hutsa zela adierazi zuen—. Baina ordainketen objektua ekoiztua izan behar da, materiala delako. Absurdua da, erosteko ahalmen positiboa —hau da, produktu positiboa, zeren erosteko edozein ahalmen, produktua edo ondasun erreala baita— sormen monetarioak ekartzen duela uste izatea.

Bankuek kudeatutako ordainketetan, saltzaileak harturiko moneta bat-batean banku jaulkitzaileari berreskuratzen dio; eta erosleak gastatzen duen moneta guztia hartzen du banku jaulkitzailetik, ordainketa-eragiketa berean. Honela, eroslea saltzaile da, banku jaulkitzaileari tituluak saltzen dizkiolako, zeinak beraren izenean *ordaindu* egiten dituen; halaber, saltzailea erosle da, banku horri berorri tituluak erosten dizkiolako, zeinak beraren izenean *kobratu* egiten dituen.

Laburbilduz, edozein ordainketa, elkartruke *absolutua* da, zeinaren objektuak ondasun erreal modura definitzen diren erabat, banku-moneta transakzioen era numerikoa besterik ez deneko elkartrukean, hain zuzen ere.

Bankuen jarduera hori garrantzi handikoa da, Europako Bankuaren kontzepzioa ulertu ahal izateko. Izan ere, Banku hori erakunde *monetarioa* izanen da, eta ez *finantzarioa*. Europako Bankuak euroaren eta europar moneten arteko elkartruke absolutuen sarea sortzea izanen du helburu.

Gaur egun, bi motatako ekonomien aurrean gaude: alde batetik ekonomia *erreala* daukagu, ondasun eta zerbitzuak —zentzu zabalean— ekoizten dituena. Beste aldetik, ekonomia *finantzarioa* dago, berau Naziorik Gabeko Kapital Finantzarioaren (NGKF aurrerantzean) menpekoa da, gehienetan dolarretan gauzatua dena (eurodolarrak, petrodolarrak,...), dolarra *erreserba*-moneta bihurtu delako, ohiko politika ekonomikoaren bidez kontrolaezinezkoa dena.

Kaos monetarioa kaos teorikotik dator; eta moneta ‘aktibo neto’tzat onartzen segituko dugun bitartean, noizean behin, ‘ekaitz monetarioak’ eta ‘moneten zorabioak’ pairatuko ditugu. Nahasketa monetarioa baztertzeko, *Nazioarteko Moneta Sistema* ***berria*** eraikitzea gero eta beharrezkoagoa da, euroa jaulkitzea (behar den moduan!) premiazkoa zaigun bezalaxe. Arazoa da, eta hemen dago beste gako bat, indar faktiko nagusiari (EEBBei) ez zaiola batere interesatzen sistema berria, nahiago baitu dolarretan oinarritzen den egungo sistema, nondik, gorabeherak eta tirabira izugarriez kanpo, beraiek mozkinak ateratzeko giltza daukaten. Nahiago dute EEBBek praktika gogor eta mingarriari —hots, monetarismoari— lehentasuna ematea. Are okerragoa dena, neoliberalismoa defendatzen duten guztiak, Nazioarteko Moneta Fondoa eta Mundu Bankua barne, ahalguztidun bihurtuko ditu indar faktiko horrek. Jainko berri horiek esango digute ekonomia nazional bakoitzean, zer nolako neurriak hartu behar diren (lan-indarraren merkatuaren malgutasuna, inflazioa kontrolatzeko moneta politika gogorra, eta irakurleak ezagutzen dituen aparteko arau kaltegarriak).

Schmitt-ekin batera esan beharra dago, kanpo-erosketak finantzatzeko erabilitako edozein kreditu-monetak, nazional edo internazional izanik, ez duela ezelako erosteko ahalmenik nazioarteko merkatuan. Alderantziz, nazioarteko transakzioetan edozein moneta nazional erabiltzeak ordainketa faltsuak erakartzen ditu (Schmitt eta Cencini 1991), zeintzuk mundu-mailako inflazioaren iturria diren. Beraz, azpimarratu egin behar da, ezen gaur egun ezagutzen ditugun arazoen konponbidea ez dela etorriko, ezta hurrik eman ere, moneta nazionalen bat (dolar, yen, marko zein suitzar frankoa edo dena delakoa) nazioarteko patroi edo erreferentziatzat hartzetik.

Bretton Woods-en eztabaidatu zena, berriro ere debatitu behar da. Nazioarteko Moneta-Fondo *berriak* nazioarteko moneta berria jaulki beharko du, Keynes-ek proposaturiko *'bancor'* haren ildotik. Soilik nazioarteko moneta berri horrek berma dezake moneta nazional ezberdinen balioa eta, hortaz, berorien nazioarteko erosteko ahalmena, zeren subiranotasun nazionalak hobekien gordeko dituen moneta, nazioarteko moneta izanen baita.

Nazioarteko Moneta-Fondo *berriak* banku jaulkitzailea behar du izan, inolako aktiborik sortuko ez duena, beraz. Kreditu-monetek beren pisua produktu nazionalari hartuko diote eta nazioarteko moneta berriak moneta nazionalei hartuko die mailegua. Honela ez dauka ezelako zentzurik nazio (monetario) batek (Estatu Batuek zein Alemaniak nahiz Japoniak) bere moneta nazionala nazioartean inposatzea.

Berriro Keynes-engana itzuli behar: nazioarteko moneta berriaren jaulkipenak, eragiketa zirkular batetan, kide diren herrialdeen erosketak eta *aldibereko* salmentak besterik ez ditu finantzatuko. Honela, nazioarteko moneta berri horretan neurturiko ordainketa-balantzen oreka automatikoak truke-neurri-tinkotasuna ahalbidetuko du, moneta nazionalak beren artean ezin elkartrukatuko direlarik. Modu honetan, gainera, nazioarteko moneta berriak subiranotasun nazionalak errespetatuko ditu.

10.2. EUROPAKO KONFEDERAKUNDE MONETARIOA: EUROA ETA EUROPAKO 'NAZIO MONETARIOEN' SUBIRANOTASUNA

'Nazio monetarioa' Banku Zentral bati dagokion esparru monetarioa da. Banku-moneta ibilgailua besterik ez da. Berez ez dauka ezelako barneko baliorik. Monetaren erosketa-ahalmena kanpokoa da. Banku-monetak produktua darama *ibilgailu* gisa. Ibilgailua den aldetik, banku-moneta 'saski' baten antzeko zerbait dela esan daiteke (Schmitt 1984a,1988a).

Saio honetan zientzia ekonomikoak, irudiz abstratua, errealitatera, bera eraldatzeko, iristen den helburu garrantzitsua duela erakusten saiatuko gara. Eredurik interesgarriena lehengo ECUa (*European Currency Unit*) eta oraingo 'euroa' dira; azken hau inoiz gauzatzen bada, berorren existentzia Fisiokratez geroztik eraikitako pentsamendu ekonomikoari lotuko zaio.

Baina teoriak hamaika oztopo topatu ditu, hein handi batetan *moneta paralelo* delakoaren aldekoek sortuak. Beraien iritziz, euroa moneta nazionalekin batera bidean egon beharko litzateke, hala transakzio nazionaletan nola nazioarteko transakzioetan. 'Paralelistek' agiri bat plazaratu zuten *The Economist* aldizkarian (Basevi *et al*. 1975). Bertan agerturiko ideiek jendea nahastu dute, eta ondorioz moneta europarraren sormena atzeratu da ulertezinezko modu batez.

Agian norberak uste dezake moneta europarra egon badagoela, edonon euroaz hitz egiten baita, dibisa-merkatuan kotizatuz (Jean 1990). Baina benetan, oraingoz, euroa *kontu-unitatea* da.

Oraingo nazio monetario bakoitzean, epe bakoitzeko produktu berriak herrialde horri, 'nazio' horri, dagokion monetan azaltzen dira. Izan ere, eskainitako eta eskaturiko ondasun eta zerbitzu guztiak moneta 'nazionalaren' bitartez monetizatzen dira.

'Konfederakunde monetarioa' definitu beharra dago, berak ez baitauka ezelako zerikusirik historian zehar ezagutu den konfederazio politikoarekin. Hortaz, lehendabizi, kontu-unitatea eta ordainketa-unitatea bereizi beharra dago. Gero, ordainketa-unitatea pagu-unitate nola bilaka daitekeen adieraziko dugu. Azkenik, euroak —Europako Batasunaren benetako monetak— gauzatuko dituen funtzioak erakutsiko dira.

10.3. KONTU-UNITATEA ETA ORDAINKETA-UNITATEA

Kontu-unitatea zenbakia da. Argi dago ezin dela zenbakien bidez ordaindu: zenbakien eginkizuna ordainketetan zorrak eta kredituak zenbatzea da, ez beraiek kitatzea. "*100 pezeta edo 4 libera zor dizut*" esaten da, 100 pezeta edo 4 libera emanen dizudala esateko: argi dago, eroslearengandik saltzailearengana honela iragaten diren 100 pezeta edo 4 libera ez direla kontu-unitateak, ordainketa-unitateak baizik. Pezetak edo liberak kontaturiko objektuak dira, eta ez soilik objektu horien zenbaketa.

Demagun abakoaren bitartez zenbatzen dela: bolak kontu-unitateak dira; zordunak ez du abakoa apurtzen ordaintzearren: berak bere zorra zenbatzen du abakoaren laguntzaz, eta bere hartzekodunari moneta-unitateak igorriz ordaintzen dio. 'Esperientzia' honetan, bolek kontu-unitateen eginkizuna besterik ez dute jokatu: hau da, agenteek dauzkaten ondasunen ondarearen zatirik ez dute osatzen, hots, ordainketatan ezin direla igorriak izan. Paraleloki, moneta konkretua zordunengandik hartzekodunenagana pasa daiteke, kontu-unitateak, zorrak eta kredituak determinatzeko erabiliz; 'abstraktuak' dira eta ez dituzte eragileen arteko fluxu ekonomikoak elikatzen.

Euroa moneta ‘paraleloa’ ulertzen deneko akatsa, kontu-unitatearen eta ordainketa-unitatearen arteko nahasketatik dator. Zenbait autorek uste bide dute nahikoa dela kontu-unitate berria definitzea, moneta berria jaioa izateko.

Badakigu euroa ‘moneten saskia’ dela. Sinplifika dezagun beraren osaketa eta onar dezagun, esate baterako, kontu-moneta hori, euroa alegia, libera batek eta 25 pezetak definitzen dutela. Bi moneten arteko trukearen arabera, liberak saskiaren barruan leku handi samarra edukiko du. Baldin eta, kasurako, 1 libera = 25 pezeta bada, saskiaren erdia beteko du libera batek eta beste erdia 25 pezetek. Euroak orduan 2 libera edo 50 pezeta balio du. Tentaturik egon daiteke esatera 3 moneta desberdin daudela inplikaturik, hots, libera, 25 pezeta eta euroa bera, hirugarren moneta alegia. Baina euroa ez da izanen inolako hirugarren moneta, eragileek ez baitute erabiltzen beren abonurako: orduan, libera, pezeta eta euroen arteko aukera edukiko lukete. Baina aukera hori ez da existitzen. Egiatan, eragileek ezin dute eurotan ordaindu arrazoi soil eta ezinbesteko batengatik: beren poltsikoetan eurorik ez dutelako.

Egia da, analisi hori pixka bat birfindu beharra dagoela: izatez, eragileek ez daukate liberarik edo pezetarik beren poltsikoetan. Moneta modernoa bankukoa da: bera halabeharrez bankuan dago gorderik. Ilogikoa litzateke bankuetan bera deuseztatu deneko unera arte etengabeki gorderik dagoen moneta (eragileen) poltsikoetan topatu nahi izatea. Banku-bileteak ‘jendeartean’ daude; hala ere, beraiek jaulkipen-institutuaren pasiboan gorderik dagoen monetaren ‘zeinuak’ besterik ez dira: moneta zentrala ere, izaeraz, eragileen hartzekotik apartaturik dago, banku-sisteman beren gordailuetan eduki besterik ez baitute agenteek.

Esandakotik ondorioztatzen da, euroa ez dela bankuetan gorderik dagoen moneta, ez baita inoiz jaulki.

Euroa ez da (oraingoz) moneta, benetako edozein moneta ordainketa-unitateen bilduma baita.

Orain, ‘etorkizuneko historia’ egin dezakegu. Etorkizunean ere, pentsamenduaren historia izanen da, euroa ez baita argitaraturik egonen, zientzia ekonomikoak intelektualki lehendabizi arrakastaz ‘jaulkitzen’ ez badu.

Politikariek ez dakite nola sor daitekeen europar moneta. Ekonomialariei dagokie bidea erakustea.

10.4. EUROAREN ERALDAKETA: KONTU-UNITATETIK ORDAINKETA-UNITATERA

Fisiokratez geroz, moneta produkzioari lotu zaio, 'zirkuitua' deitzen den eragiketan. Klasikoek moneta analizatu dute; gogora dezagun Adam Smith-en 'Zirkulazioaren Gurpil Handia'. Denbora modernoetan, John Maynard Keynes-ek ere analisi monetarioa eskudiruen zirkulazioan oinarritu du.

Teoria gero eta 'sutilagoa' bilakatu da (Schmitt 1984a): moneta desmaterialdu egin da. Beste aldetik, zirkuitua ez da ulertzen eragileen espazioan moneta-unitateen garraio zirkular modura; alderantziz, bere zirkuituan monetaren desplazamendua nulua da erabat, *edozein ordainketa zirkuitu bukatua baita*.

Euroa moneta izan dadin, beharrezkoa da edozein monetak zirkulatzen duen moduan 'zirkulatzea'. Irizpidea argi dago: monetaren zirkuitua banku jaulkitzailearen 'kreditu/zor' bikoteak eta koerlatibo diren bi eragiketak definitzen dute: (i) eragilearen zorra bankuak ordaintzen dueneko kontuarekiko, eta (ii) ordainduriko agentearen kreditua. Deskribaturiko eragiketa triangeluar horretan, euroa erabilia izanen denetik, moneta modura existituko da.

Printzipio handi bat berraurkitu dugu: ordainketa-moneta soilik ondainketan dago bertan, eta ez ordainketak egin baino lehenago. Beste era batera esanda, moneta-euroa sortzeko baldintza beharrezkoa eta nahikoa, erakunde bat bere bezeroen konturako eurotan ordaintzen arduratzea da.

Hortaz, europar monetaren atarian gaude. Euroa existituko da, bera ordainketan egonen deneko heinean; gaur, aldiz, euroa zenbait ordainketaren kontu-unitatea da, zeintzuk, beste ordainketak bezalaxe, moneta nazionaletan eginda dauden.

Honela adierazirik, zientzia ekonomikoaren ikasleak euroa egunen batetan jaulkia izateko lerro teoriko nagusiak ulertzeko gai dira. 'Adituak', aldiz, ez daude egoera horretan, beraien buruak adierazpen okerrez beterik baitaude, ekonomiaren errepresentazio dikotomikoan jarrita, moneta ondasun errealetik independenteki hartua izanik.

Beraz, ikus dezagun euroa jaulkitzeko analisia zenbait puntutan (Schmitt 1973;1975a,b;1977a,b;1984c,1985c,1988a; Schmitt eta Cencini 1992):

(A) *Beharrezkoa da Europako Bankua eraikitzea*.

Edozein banku, *bitartekaritza* besterik egiten ez duen erakundea da, eta edozein bitartekaritza, monetarioa edo finantzarioa, ekonomia errealarekiko *neutro* da; bereziki, ez da egia bankuek inflazioa sortzen dutenik (Schmitt 1984a).

Hortaz, bankuko moneta berorren egiazko izaeran ulertzen denetik, argi dago moneta-unitate bakoitza 'aktibo/pasibo' bat dela, eta ez aktibo netoa. Honela, Europako Bankuak ez du inolako aktiborik sortuko, ezta nominalik ere, eta, beraz, berak ez ditu finantzatuko edozein herrialderen erosketak edo inportazio--soberakinak, ezta Europako kideenak ere.

(B) *Bankuaren helburua euroa sortzea izanen da*. Agian uste daiteke, euroaren sormena "*berezko sortzapena dela*". Baina bankura itzultzen den edozein moneta, zeinetik bera jaulkia izan den, deuseztua da; izan ere, bere jatorrizko bankura itzulia, bankuak bere kontra egiten duen zorra besterik ez da moneta; honela ikusten da, ordainketan sorturiko monetan berehala deuseztua dela berorren azken onuradunarengan; azken honek kontu korronte hartzekoduna edukitzen du eta ez, zehazki hitz eginez, berak jaso duen moneta.

Hortaz, Europako Bankuak ezin beregana dezake 'moneta sortzeko' inolako pribilegiorik. Izan ere:

(i) Edozein ordainketa bat-bateko eragiketa da; banku-monetan ordaintzeak kargatua —zordundua— izatea esan nahi du; paperezko moneta objektu kontablea izanik, jaulkipen monetarioetan erabiltzen den kontu biko kontabilitatean, logikoki ezinezkoa da zorra —kargua— ezartzea, berorri dagokion krediturik ezarri gabe; hitz batez, edozein zor, kreditu berdinarekin batera doa. Beraz, ezinezkoa da kreditu nuluaren aurrean, *denboralki izanik ere*, ezarririk legokeen zorra sortzea. Ondorioz, zehatza da esatea, ordainketa *aldi berean* zo-rra eta kreditua dela. Lehen kreditaturiko pertsonari berari zuzenduriko ordainketaren azken onuraduna ez bada ere, egia da, ordainketa-denbora hertsiki nulua 'kontsumitu' duen eragiketa dela. Behin behineko onuradun baten tartekatzeak soilik esan gura du, eragiketa bigarren ordainketa batek osatuko duela, lehena bezain bat-batekoa.
(ii) Sorturiko edozein monetaren bat-bateko deuseztapenaren oinarrian, okerra litzateke banku-monetaren erabilgarritasunik eza ondorioztatzea; nahiz eta beraren existentzia aldiune batera mugatua izan, nahikoa da moneta ordainketan aktiboa izatea, ordainketek berek bat-bateko existentzia hutsa baitute.

(C) *Bankuari eginkizun zehatza emanen diogu*: kide diren herrialdeen konturako, eurotan ordaindu behar du, berau jaulkipen monetarioa edozein banku nazionalek egiten duen modu zehatzean praktikatuz. Hau da, bankuak moneta sortzen duen aldiunean bertan bere barruan gordailutan hartzea, alegia, bankuak herrialdearen hartzekodunengan jaulkitzen duen edozein moneta gordailatzea.

Argi dago, bankuak berrar ditzakeen ordainketa-zordunen 'eragileak' herrialde kideak direla. Baina, zein da herrialdeak beren kanpoko munduarekiko harrema-

netan ordezkatzen dituen erakundea? Altxor Publikoa da. Beraz, Finantza Publikoetara, Altxor Publikoetara, jo behar.

Honela, eta ez bestela, ulertu behar da 'konfederazioa'.

(Geroago ikusiko da Europako Bankua erakitzean Banku Zentralaren eta Altxor Publikoaren artean dagoen desberdintasuna.)

(D) Europako Bankuaren aurrean, *herrialde kideen nazioarteko ordainketak bi 'etapatan' gauzatuko dira*: egoiliarrek berei dagozkion atzerriko zorrak *beren moneta nazionaletan* ordainduko dituzte; herrialde zordunen Finantza Publikoak txanda hartuko du, nazioarteko espazioan ordainketa eramatearren: kasu honetan, beraz, ordainketa Komunitatearen Bankuak eurotan eginen du, zeinak herrialde ordaintzailearen Finantza Publikoa kargatu —zordundu— eginen duen, eta herrialde ordainduaren Finantza Publikoa kreditatu.

Hortaz, laburbilduz, *euroaren eginkizun garrantzitsua* hauxe da: nazioarteko ordainketen espazioan bera moneta nazionalen ibilgailu-moneta izatea.

(E) Hala ere, *ahal izango ote dituzte partikularrek euroak integratu beren ondareetan*?

Erantzuna eman baino lehen, gogora dezagun euroa erabil daitekeela ordainketan; euroa balio-ondare modura aurredefinitzea erabat baliagarria izan gabe, aktibo/pasiboek ederki 'zirkulatzen' dute ordainketan.

Baina galdera aipaturikoa baino sakonagoa da. Partikularrek, —familia eta entrepresek— balio finantziarioak, akzioak eta obligazioak, erabiltzen dituzte. Ezin al daiteke egon euroa aktibo neto horretan? Bai, egon daiteke. Hala eta guztiz ere, bi 'erreserba'-mota bereizi behar dira. Ingeles hizkuntza erabiliko dugu arazo horretarako, hizkuntza horrek oso egokiak diren bi adierazpen baitauzka helburu horretarako: '*owned reserves* eta *owed reserves*.'

Bera sortzen deneko aldiune berean deuseztatua izanik, euroa ezin daiteke izan inoiz '*owed reserve*' delakoa (erreserba zordundua); beti halabeharrez '*owned reserve*' izanen da (erreserba eskuratua).

Euroaren eskuratze-bideen zehaztapenak eman gabe, nahikoa da esatea, epealdiz epealdi merkataritza-balantzan superabita edukiko duten herrialdekideek euro hartzekodunen metapen jarraia ezagutuko dutela beren kontu korronteetan Bankuaren aurrean. Euro horiek herrialde kideen erreserba pribatuetan zein erreserba ofizialetan egon ahal izango dira: logikoa ere bada Finantza Publikoak beraiek 'saltzea' jendeartean.

10.5. EUROA MONETA 'NAZIONALEN' IZENDATZAILE KOMUNA


Delors-en komiteak proposaturiko, eta geroxeago Maastricht-eko Itunaren bidetik datorkigun Europa eraIkitzetik at, Schmitt-ek (1975etik) aurkeztutako lanek badaukate abantaila garrantzitsu bat, autoreak ez baititu herrialde kideak subiranotasun monetarioa uztera behartzen. Herrialde kideen produkzioa moneta nazionaletan monetizatzen jarraitzen da. Hori egiteko, esan bezala, Konpentsazio--Ganbara —'*Clearing Union*'— berria eraiki behar da Europa mailan.

Europan esparru monetario komuna eraikitzeko baldintzek herrialde kideen moneta-trukeak *absolutuak* izan daitezen bermatu behar dute; alegia, herrialde kide desberdinen subiranotasun monetarioa bermatu behar dute. Truke absolutuak esan nahi du ezein moneta ezin dela ez eskainia ez eskatua izan truke-merkatuan. Euroa moneta komunak izanik, moneta nazional guztiak berarekiko elkartrukatuko dira europar Konpentsazio-Ganbara baten gisako Europako Banku Zentralaren bidez.

10.6. HERRIALDE KIDEEN ARTEKO ORDAINKETEN EDUKI ERREALA

Badakigu euroa ezin dela jaulki aktibo finantzario modura. Demagun bi herrialde, Alemania eta Italia kasu. Suposa dezagun Italiak Alemaniatik 100 milioi euroko ondasunak inportatu dituela eta Italiatik Alemaniaren merkataritza-inportazioak, epealdi berean, 80 milioi eurokoa izan direla.

80 milioi euroetarako, italiar merkataritza-inportazioak merkataritza-esportazioek finantzatzen dituzte; eta, alderantziz, Alemaniaren merkataritza-inportazioak herrialde berberaren esportazioek estaltzen dituzte. Europako Banku Zentralak partehartzen du 80 milioi euro sortuz eta deuseztatuz, eta eragiketa horrek marko eta liraren arteko truke-tasa aldaezina uzten du.



Kontabilitatean, Europako Banku Zentralak ondoko eran idatziko ditu eragiketak:

Europako Banku Zentrala

Aktiboa		Pasiboa	
Italia	100 m. e.	Alemania	100 m. e.
Alemania	100 m. e.	Italia	100 m. e.

(m. e. = milioi euro)

Alemaniari eta Italiari dagokiena, beraien arteko transakzioen idazpenak beraien Banku Zentralen eskusartzea behar du, zeintzuk herrialde baten egoiliarren, Europako Banku Zentralaren eta beste herrialdearen egoiliarren arteko bitartekariak diren.

Eurotan egindako eragiketak, moneta nazionaletan egindakoetatik bereizten dira, idazpenak Banku Zentralen *bi departamendu* desberdini lotuz, barrukoa bata kanpokoa bestea.

Barneko departamenduak inportatzaileen ordainketa —moneta nazionalean— jasotzen du, eta esportatzaileei beti moneta nazionalean ordaintzen die.

Kanpoko departamendua kreditatua eta zordundua da eurotan Europako Banku Zentraletik, egoiliarren esportazioei eta inportazioei dagokienez.

Gure etsenpluan, markoaren trukea eurotan 1:1 dela suposatuz, eta lirarena 500:1 dela, honako kontabilitatezko idazpenak eginen dira:

Italiako Bankua

Barneko Departamendua

Aktiboa	Pasiboa
Inportazioak 40 miliardo lira	Esportazioak 40 miliardo lira (= 80 x 500)

Kanpoko Departamendua

Aktiboa	Pasiboa
Europako Bankua 80 milioi euro	Europako B. 80 m. e.

Alemaniako Bankua (Bundesbank)

Barneko Departamendua

Aktiboa	Pasiboa
Inportazioak 80 milioi marko	Esportazioak 80 m. m. (= 80 x 1)

Kanpoko Departamendua


Aktiboa	Pasiboa
Europako Bankua 80 milioi euro	Europako B. 80 m. e.

Esportazioek inportazioak estaltzen dituzten neurrian, herrialde baten merkataritza-erosketak bere merkataritza-salmentek finantzatzen dituzte. Italiar ordainketen edukia 40 miliardo lirako errenta nazionala da, zeinak Alemaniara esportaturiko ondasunen balioa definitzen duen, alemaniar inportazioen ordainketen edukia 80 milioi markoko errenta den bitartean, Italiara esportaturiko alemaniar ondasunei dagokiena. Euroa, horrela, 40 miliardo lira Alemaniara igorriak direneko ibilgailua da, Italian bat-batean birtransferitua eta hartua izan ahal izateko; eta, modu berean, ibilgailuaren bidez 80 milioi marko italiar inportazioen konturako Alemanian hartua da.

Merkataritza-inportazio *netoen* ordainketarako analisia soilik azalean da konplikatuagoa. Sistema monetario nazional bakoitzean ezarritako irizpidea erabiliz, berehala ikus daiteke herrialde baten merkataritza-inportazio netoen finantzaketa herrialde esportatzaileak egin behar duela. Merkataritza-balantza soberakina daukan herriak herrialde defizitdunari tituluak erosiz ordaintzen ditu bere esportazioak, hau da, bere errenta nazionalaren zati bat maileguz emanez. Europar sistemaren ordainketen oreka honela egin behar da: merkataritza-esportazio netoak beti finantza-tuak izan behar dira tituluen inportazio netoen bitartez.

Gure etsenpluan, Alemaniako merkataritza-esportazio netoak efektiboki ordainduak izan daitezke, baldin eta herrialde inportatzaileari mailegaturiko alemaniar kredituaren zati batek tituluen kopuru baliokidea tramitatzen badu. Alemaniako egoiliarrek italiar tituluak —pribatu zein publikoak— eskuratzen badituzte, beren onda-sun eta zerbitzuen esportazio netoen kopuru baliokideaz, hau da, gure etsenpluan, 20 milioi euroz, tituluek Italiak egindako ordainketaren eduki erreala definituko dute, europar ibilgailuzko moneta dela bide.

Eskematikoki ondoko irudia izanen litzateke:



Europako Banku Zentralari dagokionez, bistakoa da beraren egoera erabat ore-katurik dagoela. Zor eta kreditu monetarioek elkar deusezten dute Italia eta Ale-maniarako, zeintzuen ordainketak, euroaren ibilgailua dela kausa, substantzialki errealak diren.

Europar Banku Zentrala

Aktiboa		Pasiboa	
Italia	20 milioi euro	Alemania	20 milioi euro
Alemania	20 m. e.	Italia	20 m. e.

Europako Banku Zentralaren errola bitartekari monetarioarena da, euroa neutroa izanik. Izan ere, euroa ez da inolako aktibo finantzarioa, eta moneta nazional bakoitza —lira eta markoa— europar monetaren terminoetan da eskainia eta eskatua; honek beraien trukearen egonkortasuna bermatzen du, atsolutua (eurotan) eta erlatiboa (elkarren artekoa). Esate baterako, lira eskatua eta eskainia da modu berean. Markoaren alemaniar eskaintza, italiar tituluak eskuratzean behar diren lirak edukitzeko, erabat orekatzen du alemaniar ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko markoen italiar eskariak; eta, modu berean, italiar merkataritza-inportazioa finantzatzeko behar diren markoak eskuratzeko behar diren liren eskaintza orekatzen du italiar tituluen alemaniar inportatzaleek egindako liren eskariak.

Italiari emandako ondasunen ordez, Alemaniak italiar kapitalaren kuotari dagozkion tituluak eskuratzen ditu, akzioak, edo italiar etorkizuneko produkzioaren gaineko eskubidea, zein obligazioak nahiz antzeko tituluak izanik. Finantzarioki, Alemaniak Italiari bere errenta nazionalaren zati bat ematen dio maileguz —zeinaren bidez Italiak bere merkataritza-inportazio netoa ordaintzen duen—, kontrapartidan tituluak eskuratuz, interesak eta dibidendoak emateaz gain, Italiatik datozen merkataritza-inportazio neto baliokidea finantzatzea ahalbidetuko dio, alemaniar egoiliarrek nahi badute, permitituko dio.

Alemania eta Italia barnean egonen diren truke extra-nazionalei dagokienez, hona hemen bi herrialdeen Banku Zentralen barne-departamentuari eta kanpo-departamentuari dagozkien kontabilitatezko idazpenak:


Italiako Bankua

Barne-Departamentua		Kanpo-Departamentua	
Aktiboa	Pasiboa	Aktiboa	Pasiboa
Ondasunen Inport.	Kanpo-Depart.	Barne-Depart.	Europako Bank.
10 miliardo lira	10 miliardo lira (= 20 x 500)	20 milioi euro	20 m. e.
Kanpo-Depart.	Tituluen Inport.	Europako Bank.	Barne-Depart.
10 miliardo lira	10 miliardo lira	20 m. e.	20 m. e.

Bundesbank


Barne-Departamentua		Kanpo-Departamentua	
Aktiboa	Pasiboa	Aktiboa	Pasiboa
Kanpo-Depart.	Ondasunen Esport.	Europako Bankua	Barne-Depart.
20 milioi marko	20 m. m.	20 milioi euro	20 m. e.
	(= 20 x 1)		
Tituluen Inport.	Kanpo-Depart.	Barne-Depart.	Europako Bank.
20 m. m.	20 m. m.	20 m. e.	20 m. e.

Italian, Banku Zentralaren barne-departamentua 10 miliardo liratan da kreditatua merkataritza-inportatzaileen aldetik. Orain kopuru hori barne-departamentuak kobratzen du inportatzaileen banku bigarrendarrek osaturiko gordailu baliokidearen gaineko eskubidearen forman. Horrek esan nahi du, 10 miliardoak ez direla erabat kendu barneko zirkulaziotik; aitzitik, horiek errentaren titularren esku irauten dute, eta titular horiei Banku Zentralak errenta hori ematen die alemaniar egoiliarrei saldutako titulu (pribatu zein publikoen) trukean.



Moneta eta produktuaren arteko barne-erlazioa Banku Zentralaren kontabilitatezko idazpenetan dago babestutik, Banku horren barne-departamentu eta kanpo-departamentuaren arteko erlazioak adierazten du, bere funtzioa esentzialki egoiliar nazionalen —zeintzuen kontura eragiketa guztiak egiten dituen— eta europar Banku Zentralaren arteko bitartekaria izatea dela.

Alemanian, Bundesbank-ek barne-departamentuari emanikoa, kasu honetan, 10 milioi markoko kopurua esportatzaileei igortzea da. Banku honetan hasierako fondo baten osaketaren arazoa analizatuz, alemaniar Banku Zentralak errenta bat moneta nazionalean daukala ikus dezakegu, 20 milioi euroko baliokide den italiar tituluen inportazioa finantzatzeko alemaniar egoiliarrek ordainduriko kopuru nahikoa dena.



Gainera, nazioarteko eragiketek ez dute batere aldatzen Alemaniako barne--produktuaren eta moneta nazionalaren hasierako oreka. Alemaniar produkzio guztiaren azken eskuratzea —ondasunen esportazioak barne— alemaniar produkzio beretik sorturiko errentatik ateratzeko gauza da, merkataritza-espazio netoaren trukean Alemaniak italiar titulu baliokideak, bere egoiliarren kontura, eskuratzen dituen bitartean.


10.7. EUROPAR 'CLEARING' DELAKO ETSENPLU NUMERIKOA

Orain arte, eta gauzak errazteko, bi herrialde besterik ez ditugu kontuan hartu. Uste daiteke, okerki, *Clearing* delako europar sistemak partzialki murriztailea izan dadin, partikularki herrialde bati behartzen diolako —Alemaniari gure etsenpluan— bere merkataritza-esportazio netoaren ordainketa modura italiar tituluen kopuru baliokidea onartzea. Hori ez da horrela, Alemania eta Italia barik, europar herrialde guztiak kontuan hartzen badira.

Ikus dezagun truke multilateralean nola funtzionatzen duen europar *Clearing* delakoak.

Kontua errazteko, demagun hiru herrialde direla: Frantzia, Italia eta Alemania.

Suposa dezagun ondoko merkataritza-trukeak eta finantza-trukeak egiten direla: Alemaniak 100 milioi euroko ondasun eta zerbitzuak esportatzen dizkio Italiari, eta 150 milioi eurokoak Frantziari, bere tituluen esportazioak 5 milioi eurokoak Italiari eta beste honenbeste Frantziari izanik. Gainera, Italiak 20 milioi euroko tituluak esportatzen dizkio Alemaniari eta 10 milioi eurokoak Frantziari, merkataritza-esportazioa ondokoa delarik: 80 milioi eurokoa Alemaniari eta 90 milioi eurokoa Frantziari. Horrez gain, Frantziak ondasunak esportatzen dizkio Alemaniari —120 milio euroko balioan— eta Italiari —85 milioi euroko balioan—, beraren tituluen esportazioa honako hau izanik: Alemaniari 40 milioi eurokoa eta Italiari 10 milioi eurokoa.



Demagun hiru herrialde horien moneta nazionalen trukea honelakoa dela:
1 euro = 1 marko
1 euro = 500 lira
1 euro = 3 libera

Errepresenta ditzagun europar Banku Zentral eta hiru Banku Zentralen arteko kontabilitatezko idazpenak.

Alemaniako Banku Zentrala

(i) Barne-departamentua

Aktiboa		Pasiboa	
Kanpo- departamentua	250 m. m.	Ondasunen esportazioa	250 milioi marko
Ondasunen inportazioa	200 m. m.	Kanpo-departamentua	200 m. m.
Tituluen inportazioa	60 m. m.	Kanpo-departamentua	60 m. m.
Kanpo-departamentua	10 m. m.	Tituluen inportazioa	10 m. m.
Ondasunen inportazioa	200 m. m.	Ondasunen esportazioa	250 m. m.
Tituluen inportazioa	60 m. m.	Tituluen esportazioa	10 m. m.

(ii) Kanpo-departamentua

Aktiboa		Pasiboa	
Europako Bankua (merkataritza-mugimendua)	250 m. e.	Barne-departamentua	250 milioi euro
Barne-departamentua	200 m. e.	Europako Bankua (merkataritza-mugimendua)	200 m. e.
Barne-departamentua	60 m. e.	Europako Bankua (kapitalaren mugimendua)	60 m. e.
Europako Bankua	10 m.e.	Barne-departamentua (kapitalaren mugimendua)	10 m. e.

Merkataritza-esportazaile netoa izanik, Alemaniak 50 milioi euroko mozkina lortzen du, zeina erabat inbertitzen duen italiar eta frantses tituluak eskuratzeko. Bi herrialde horietan Alemaniar inbertsioa ez dagokio soilik merkataritza-esportazio netoari, Alemaniak berak 10 milioi euroko inbertsio baliokidea ere egina baitauka —5 milioi Frantzian eta beste 5 milioi Italian—. Hortaz, Alemaniak kanpoan egindako inbertsio globala 60 milioi eurokoa da, 50 merkataritza-esportazioen mozkinetatik eta 10 alemaniar tituluen salmentatik finantzatua.

Frantziako Banku Zentrala

(i) Barne-departamentua

Aktiboa	Pasiboa
Ondasunen inportazioa 720 m. libera Kanpo-departamentua 615 m. l. Kanpo-departamentua 150 m. l. Tituluen inportazioa 45 m. l.	Kanpo-departamentua 720 milioi libera (= 240 x 3) Ondasunen esportazioa 615 m. l. (= 205 x 3) Tituluen esportazioa 150 m. l. (= 50 x 3) Kanpo-departamentua 45 m. l. (= 15 x 3)
Ondasunen inportazioa 720 m. l. Tituluen inportazioa 45m. l.	Ondasunen esportazioa 615 m. l. Tituluen esportazioa 150 m. l.

(ii) Kanpo-departamentua

Aktiboa	Pasiboa
Barne-departamentua 240 m. l. Europako Bankua (m. m.) 205 m. l. Europako Bankua (m. m.) 50 m. l. Barne-departamentua 15 m. l.	Europako Bankua (merkataritza-mugimendua) 240 milioi libera (= 150 + 90) Barne-departamentua 205 m. l. Tituluen esportazioa 50 m. l. (= 40 + 10) Europako Bankua (merkataritza-mugimendua) 15 m. l. (= 10 + 5)

Nahiz eta merkataritza-balantza defiziduna izan, Frantziak ordainketen balantza orekatua dauka bere tituluen esportazio netoa dela kausa. Kanpo-inbertsioa 150 milioi liberakoa izanik —50 milioi euro—, bere merkataritza-inportazio netoa —35 milioi eurokoa— eta kanpo-tituluen eskuratzea —15 milioi eurokoa— finantzatzen ditu.

Italiako Banku Zentrala

(i) Barne-departamentua

Aktiboa	Pasiboa
Ondasunen inportazioa 92,5 miliardo l.	Kanpo-departamentua 92,5 miliardo lira (= 185 x 500)
Kanpo-departamentua 85 miliardo l.	Ondasunen esportazioa 85 miliardo l. (= 170 x 500)
Tituluen inportazioa 7,5 miliardo l.	Kanpo-departamentua 7,5 miliardo l. (= 15 x 500)
Kanpo-departamentua 15 miliardo l.	Tituluen inportazioa 15 miliardo l. (= 30 x 500)
Ondasunen inportazioa 92,5 miliardo l.	Ondasunen esportazioa 85 miliardo l.
Tituluen inportazioa 7,5 miliardo l.	Tituluen esportazioa 15 miliardo l.

(ii) Kanpo-departamentua

Aktiboa		Pasiboa	
Barne-departamentua	185 m. e.	Europako Bankua (merkataritzan 185 milioi euro mugimendua)	(= 100 +85)
Europako Bankua (merkataritza-mugimendua)	170 m. e. (= 90 + 80)	Barne-departamentua	170 m. e.
Barne-departamentua	15 m. e.	Europako Bankua (kapitalaren mugimendua)	15 m. e. (= 10 + 5)
Europako Bankua (kapitalaren mugimendua)	30 m. e.	Barne-departamentua	30 m. e.

Frantziaren kasuan bezalaxe, Italiak merkataritza-balantzaren desoreka osoki konpentsatzen du berak lortzen duen kapitalaren fluxu netoaren bidez —15 milioi eurokoa—. Italiak daukan kapitalaren sarreraren parte batek bere merkataritza--erosketa netoak finantzatzen ditu, eta gainontzekoa frantziar eta alemaniar tituluak eskuratzeko erabiltzen du. Ondasun eta tituluen inportazioaren ordainketari dagokion sarrera, ondasun eta tilutuen esportatzaileei Bankuak zor dieneko inportazio osoa estaltzeko, bistakoa da Bankuak ez daukala inolako zailtasunik egoiliarren (inportatzaile eta esportatzaile) eta Europako Banku Zentralaren arteko bere bitarteraritza-funtzioan gauzatzeko.

Europako Banku Zentrala

Aktiboa		Pasiboa	
Bundesbank (merkataritza-mugimendua)	200 m .e	Bundesbank (merkataritza-mugimendua)	250 milioi euro
Bundesbank (kapitalaren mugimendua)	60 m .e	Bundesbank (merkataritza-mugimendua)	10 m.e.
Frantziako Bankua (merkataritza-mugimendua)	240 m .e	Frantziako Bankua (merkataritza-mugimendua)	205 m.e.
Frantziako Bankua (kapitalaren mugimendua)	15 m .e	Frantziako Bankua (merkataritza-mugimendua)	50 m.e.
Italiako Bankua (merkataritza-mugimendua)	185 m .e	Italiako Bankua (merkataritza-mugimendua)	170 m.e.
Italiako Bankua (kapitalaren mugimendua)	15 m .e	Italiako Bankua (merkataritza-mugimendua)	30 m.e.

Kontabilitatezko idazpenetik ondorioztatzen den bezala, Europako Banku Zentralak egiten duen ibilgailu-monetaren emisioa erabat neutroa da. Etsenpluko hiru herrialde horien inolako moneta nazional ez da eskari edo eskaintza soberakinaren ezelako objektua eurotan; euroaren zirkulazioak inplikatzen du, definizioz, Europako Banku Zentralaren departamentu monetarioarekiko fluxu/ /errefluxu bat: Italian eta Frantzian inbertsioa eginik, bi herrialde horien merkataritza-inportazioen eta inbertsioaren pareko kopuruaz, Alemaniak bere defizita estaltzeko behar diren markoak hornitzen ditu, ordainketa-balantzaren orekatzea lortuz.

Europako Banku Zentralean '*Clearing*' multilaterala dela bide, herrialdez herrialde lortzen da oreka, parekatze bilateralera errekurritu gabe. Globalki (ondasun, zerbitzu eta tituluetan), Italiak Alemaniatik herrialde horrekiko esportazio globala baino handiago den kopurua inporta dezake, Frantziarekiko (edo, orokorrean, Europar Komunitateko beste herrialde guztiekiko) bere ordainketa-balantza orekatzeko behar duen soberakin baliokidea lortzeko baldintzapean. Horixe da, gure etsenpluan agertzen dena: Alemaniatik datorkion bere inportazio netoa —5 milioi euro— Frantziara ondasun eta zerbitzuen esportazioa dela bide lorturiko mozkinaren bidez finantzatzen du Italiak. Alderantziz, Alemaniak, Frantziarekiko trukean defizita dauka, Italiarekiko gauzaturiko soberakinaren parekoa, ondasun eta zerbitzuen salmenta netoa titulu netoen eskurapenarekin konpentsatuz. Frantzian 40 milioi euroko inbertsioa eginez, Alemaniak Alemanian bertan eta Italian frantziar merkataritza-erosketa finantzatzen du, Frantzian Italiaren merkataritza--salmenta netoak Alemaniarekiko italiar defizita konpentsatzen duen bitartean.

Ez da gogoratu behar merkataritza-trukea eta truke finantzarioa herrialde guztiaren garapenerako faktore garrantzitsuak direla. Gure etsenpluan, tituluen alemaniar erosketak ahalbidetzen die Frantziari eta Italiari beren merkataritza-

-defizitak finantzatzea eta, beraz, beren ekonomiaren geroko garapenerako behar diren ondasunak edukitzea.

Horixe zen, hain zuzen ere, Meade-k (1963) nahi zuen nazioarteko ordainketen sistemaren emaitza. Berorixe zen Keynes-ek nahi zuen erabat liberala zen sozialismo-mota. Hauxe da, hain zuzen ere, Schmitt-ek proposaturiko sozialismo--mota berria, barneko inflazio eta langabeziari aurre eginez, nazioarteko moneta--sistema berria martxan jarriz, europar mailako moneta —euroa— eta mundu mailakoa —bancor berria— erabiliz, nazio monetario bakoitzaren subiranotasun monetarioa errespetatuko duen eta kanpo-zorra ezabatuko duen sozialismoa.

10.8. EUROAREN GARRANTZIA

Banku-moneten izaeraren analisi zientifikoak bide argia eraskusten du: Europako Bankua, denbora luze batez, europar 'nazio monetarioen' bankua izanen da, bakoitzak bere subiranotasuna bere monetaren inguruan gordez. (Hortaz, Euskal Herriaren subiranotasuna bertan kokatu beharra dago autodeterminazio eskubidearen bidez, ikus Tobar-Arbulu, 1997.)

Ikus ditzagun Europar Komunitateko Banku zentralak jaulkiriko euroaren garrantzi handiko funtzioak.

Lehen funtzioa hauxe da: europar Komunitateko herrialde kideen atzerrirako ordainketak eurotan egingo direnetik, ezein aurrezkik ezingo du aldegin bera egin deneko herrialde kidetik. Hortik ondorioztatzen da Finantza Publikoak irabazi hutsetan aurkituko duela merkataritza-inportazio netoen kopurua edo, kasuari dagokionez, herrialdeen merkataritza-esportazio netoen kopurua.

Bigarren funtzioa garrantzi handikoa da, halaber: euroa Europaren babesa izanen da, Komunitatearen atzerrirako monetetan truke-neurri tinkoa izanen baitu. Dolar erratikoaren amaiera izanen da. Beren aldetik, kide diren monetak eurotan truke-neurri tinkoa izanen dute.

Herrialde bakoitza aske izanen da, patroi komunarekiko —euroarekiko— bere moneta nazionalaren truke-neurria determinatzeko bere ordainketa-balantzaren beharrizanen arabera (Schmitt 1984c). Truke-neurri hori *absolutua* izanen da, ez mugiezina. Herrialde bakoitzak bere kanpo-harremanetarako premien arabera ezarriko du euroaren eta bere monetaren arteko elkartrukea. Honela, orain nagusi den dolar-patroiaren kaos monetarioarekin bukatuko da.

Europar nazio monetario bakoitza aske izanen da bere moneta nazionalak patroi komunarekin —euroarekin— izanen duen truke-neurria determinatzeko, bere ordainketa-balantzaren beharrizanen arabera.

Kide diren moneten truke-neurri guztien ko-determinazioan, edozein nazio monetariok eurotan bere monetaren balioa ondoko mailan ezarriko du, alegia, epe ertainean, truke-neurrien europar erregimen berria sortu baino lehen metaturiko kanpo-zorra kitatzeko merkataritza-superabitak lortu ahal izateko mailan.

Alemania, kasu, era subiranoaz, eurotan bere monetaren —markoaren— truke-neurria ezarriko du epe ertainean, berak nahi dituen merkataritza-soberakinak lortzeko mailan.

Noski, truke-neurri *absolutuen* harremanak —euroarekiko moneta bakoitzarenak— truke *erlatiboak* determinatuko ditu —europar moneta 'nazional' desberdinen artekoak—.

Egoera honetan ez dago inolako arazorik Europar Konfederazioa edozein nazioren kopuruk osatzea, 4, 12, 28 zein 37 nazio 'monetario' desberdin izanik. Ez da behar 'abiadura' ezberdinik ere, ezta 'gune gogorrik' ere. Halaber, Erteuropara eta lehengo Sovietar Batasunaren menpe egon ziren nazio berrietara ere inolako arazorik gabe heda daiteke egitura konfederala.

Izan ere, Konfederazio horri edozein nazio monetario lot dakioke, bere subiranotasun politiko eta monetarioa gordez.

Esparru monetario komuna sortzea, ikusi den bezala, ez da arazo sozial edo politikoa, kontua ez baita Europako Estatu Batuak sortzea, beraiei moneta *bakarra* eman ahal izateko, baizik eta europar moneta *komuna* sortzea, moneta nazional desberdinak sistema komun supra-nazional batean sartuz, baina herrialde kideen barneko subiranotasuna gordez.

Gaur egun, lehen Delors-ek (1989an) eta gero Maastritcheko Itunaren bidetik (1992an) proposaturiko proiektuan partehartzeak subiranotasun politiko eta monetario galtzea dakar, baita langabezi tasa handitzea ere.

Dena den, Schmitt-i jarraituz, litekeena da partehartze hori, inolako arazo monetariorik gabe gauzatzea eta, batez ere langabeziarik eta inflaziorik handitu barik. Europar moneta komuna edukitzeak —hau da, euroaren bitartez lorturiko trukagarritasuna—, moneta nazional bakoitzaren truke absolutua inplikatzen du. Beste era batera esanda, europar esparruko nazioarteko transakzio bakoitzak eraldaketa bikoitza definitu behar du: moneta konkretu hori eurotan eta euroa moneta nazional horretan.

Europar Kondeferazio berritik kanpo dagoen herrialdearen kasua berrartuz, europar sistemari lotzeak ahalbidetu egingo dio bere kanpo-transakzio guztiak eurotan monetizatzea, bere moneta nazionala, truke absolutuen egituran sartzean, euroarekiko egonkortasuna bermatuz. Moneta nazional horren —demagun Suitza-

ko suitzar frankoa dela— eta euroaren arteko trukea behin determinatuz gero, europar moneta moneta nazional guztietatik independenteki emititzen da.

Inolako merkatu-indarrak ezingo du, kasu honetan, suitzar frankoaren trukea eurotan aldatu. Suitzari dagokio, soil-soilik eta era subiranoz, euroarekiko bere truke-tasa erabakitzea, bere kanpo-ordainketa balantzaren arabera egin dezakeena, lehentxoago ikusi den bezala.

Beste aldetik, truke absolutuen erregimenean, truke-neurri ez egokietatik sortzen den zigorra bere moneta azpibaloratuta edo gainbaloratuta daukan naziora doa soil-soilik:

(i) Eurotan bere monetaren balioa maila *txikiegian* ezarriko duen edozein naziok ondorioak ordainduko lituzke, euroen jaulkipen-mekanismoak bere esportazio soberakinen kontrabalioa kanpora mailegutan emateko bortxakuko bailuke; eta
(ii) alderantziz, euroen jaulkipen-mekanismoak eurotan bere monetaren balioa maila *garaiegian* ezarriko duen edozein nazio bere inportazio soberakinen balioaren kanpo mailegua egitera bortxatuta egongo litzateke.

Honela, edozein nazio monetario, bere helburuak erabakitzeko epaile bakarra izanik, eurotan bere moneta nazionalari dagokion neurriaren epaile bakarra ere bada.

Europatik kanpoko beste moneta desberdinekiko truke-neurriez, eta bereziki dolarrarekiko truke-neurriaz ondoko hau esan beharra dago: euroa, Europako Komunitatetik kanpo dagoen munduaren aurrean kide diren nazio monetarioek ordainketa hartzekodun eta zordunetarako jaulkiriko europar monetak kanalizatzen dituen dolarren ibilgailu numeriko hutsa besterik ez da.

Europako Bankuak, kide diren nazio monetario desberdinei kontsulta egin eta gero, euroaren balioa dolarretan era exklusiboaz determinatuko du, eta, beraz, dolarraren balioa eurotan. Hau da, jaulkitako euroaren truke-neurria ez da inoiz egonen 'merkatuaren legearen' menpe, euroaren erregimena *truke-neurri absolutuarena* baita.

Zein izanen da, bada, Europak dolarraren aurrean euroari ezarriko dion truke-neurria?

Irizpidea hauxe da: euroaren barneko truke-neurri absolutuen sarea, hau da Europar Konfederazio monetarioaren barrukoena, eta europar Komunitatetik kanpoko moneta ezberdinen arteko truke-neurri erlatiboen sarea kontuan edukiz, euroaren balioak dolarretan, epe ertainean, hauxe bete behar du: Europar Konfederazioak bere kanpo-merkataritzan superabita lortu behar du, zeinak kide diren nazio monetarioei Konfederakundetik kanpoarekiko metatutako zorra kitatzea ahalbidetuko duen.

Honela bi ondorio izango dira: (i) kide den edozein monetak euroaren aurrean bere truke-neurri absolutua determinatuko du; eta (ii) euroak dolarraren aurrean duen truke-neurri absolutua determinatuko du.

Orduan, eta soilik orduan, jendeak egunero 'bilete berdeek' lortzen duten kotizazioaz arduratzeari uko eginen lioke.

Gauzak ezin dira atzekoz aurrera egin. Euroaren arazoa ezin da utzi politikarien esku, ez baitute ezagutzen zertan datzan. Europak, lehendabizi, bere 'unitate monetarioa' ezarri beharra dauka, Jean Monnet-ek esan zuenez: "*Monetarioa izanen da Europa, ala ez da izanen*" (Brinkley eta Hackett 1991, Duchêne 1995).

(b) Bancor delakoa. Keynes-en ondarea: Bretton Woods-eko konferentzia *berri* baterantz. Nazioarteko Moneta-Fondo *berria* eta 'bancorra'

10.9. KEYNES-EN PLANA

Keynes-en plana nazioarteko arazo monetarioei buruzko sakoneko burutazio baten emaitza da. Plana 1943an argitaratu zen —'Nazioarteko Konpentsazio--Ganbararako plana'—, barruan Konpentsazio-Ganbararen —*Clearing Union*— sormenaren proiektua zuela. Konpentsazio-Ganbararen arabera, "*kide diren herrialdeek beren kanpo-kontuak Ganbarari eman behar dizkiote, bancor izeneko nazioarteko kontu-unitate berrian eragiketak libreki eginez*".

Honek nazioen arteko ordainketak, soilik nazioarteko espazioan, ibilgailuzko moneta berria sortzea esan nahi du. Keynes-ek proposaturiko nazioarteko moneta ez zen moneta paraleloa. Beraren eginkizuna, moneta nazionalen soilik nazioarteko esparruan ordezkatzea zen, eta ez beraien espazio nazional desberdinetan. Maila garaiagoko moneta mota bat zen, nazioarteko banku batek jaulkia. Beraren helburua erabat argi zegoen: "*Zirkulazio-tresna baten beharra dugu, nazioek orokorki onartua izanen dena, hemendik aurrera alde biko konpentsazioak, edo fondoen blokea erabiltzea alferrekoa izan dadin*" (Keynes 1980a, 168 or.).

Keynes-en planaren oinarrian 'konpentsazio'-printzipioa zegoen, planaren izenean bertan agertzen den terminoa. 1943ko maiatzaren 3an Lord-en Ganbaran bere plana adierazi zuenean, Keynes-ek honela aurkeztu zuen nazioarteko moneta-unitate berriaren betekizuna: "*Helburu nagusia esaldi soil batetan adieraz daiteke: herrialdeei beren inportazioak ordaintzen ahalbidetzea, beren esportazioetan irabazitako monetaren bidez. Hori da, argotean, alde askotako konpentsazio-sistema; hizkera arruntean, munduan gauzatzen diren transakzio guztien ordainketarako balio duen mundu-moneta. Beste guztia horren menpe dago*" (Keynes 1980a, 270 or.).

Moneta-unitate berria ordaintzeko tresna soila besterik ez zen izan behar, esportazio eta inportazioen artean jarria. Zenbait baieztapen direla eta, plana nahiko hurbil zegoen gaur egun planteatu diren plan batzuetatik (ikus, kasu, Schmitt 1988a, lehengo europar ecua eta oraingo euroa jaulki ahal izateko). Keynes-en aholku gehienak, hala ere, ez ziren onartuak izan. Ukaezinezkoa da Keynes-en hitzak aitzindari batenak direla. Baina Keynes-en plana ez zegoen behar zen hainbeste garatuta, era efikaz eta neutro batez funtzionamenduan jartzeko moduan.

Konkretuan eta esentzialki, White-ren plana onartu zen II Mundu Gerraren osteko Nazioarteko Moneta-Sistema (NMS) eraikitzeko oinarritzat. NMS hori 1971tik geroztik ez da gehiagorik existitzen, 'parekotasun flotatzaileko' sistema bati lekua utzirik. Ofizialki NMSren krisiaren egoera 1971ko abuztuaren 15ean argitaratu zuen Nixon presidenteak, urrearekiko dolarraren bihurgarritasun-mota guztiak eten zituenean. Ondorioa hauxe izan zen: moneta desberdinen flotazioa konsagratzea, moneta dominatzailearekin, dolarrekin, hasiz. Aplikazio orokor horren helburua Friedman-en printzipioen erabilpen zuzena zen, truke egonkorreko tasak izanik, "*herrialde bakoitzari monetaren egonkortasuna berak nahi duen moduan bilatzen uzteko bidea, bere erroreen ondorioak bere auzokideei sofrieraztera be-harturik egon barik*" (Friedman 1953). Egiaztaturiko efektu praktikoak Chicago-ko ekonomialari eta beronen dizipuluek aurrikusitakoen kontrakoak dira. Moneten ez-egonkortasuna gehitu besterik ez da egin, beraren mailarik garaienera, dibisarik garrantzitsuenei dagokienez, 1980ko hamarkadan iritsirik.

Artifizio tekniko batzuk ezagutu dira truke-balioen fluktuazioen mugaren baztertzeak sortu dituen sinestezinezko desordenak balaztatzeko. Hala ere, interesgarrienak hauexek dira: europar monetari buruzko eztabaida (Connolly 1995; Crawford 1992; Dashwood 1995; Dehousse 1994; Emerson eta Huhne 1991; Fratianni eta Peeters (ed.) 1978; Fratianni eta von Hagen 1992; Gross eta Thygesen 1992; Jean 1990; Molle 1990; Soichor eta Descamps 1979; Steinherr 1994; Triffin 1966 eta Schmitt-en lanak) eta kanpo-zorraren gainean hasitako debatea —ikus hurrengo kapitulua—, baita nazioarteko moneten desordena egokitzeko jadanik plazaraturiko zenbait neurri (Ambjörn 1961; Barre *et al.* 1987; Cencini 1995; Descamps 1980; Hamouda *et al*. 1989; Meade 1963; Schmitt 1973, 1975a, 1977a, 1984c, 1985b, 1987a, 1987c; Tobin 1978; Triffin 1987).

10.10. KEYNES-EN PLANAREN BERRAURKITZEA

'Bancorraren' sortzeak moneta nazionalak jadanik existitzen direneko mundua aurresuposatzen du. Beraz, kontua ez datza produkzio nazionalak 'monetizatzeko' helburutzat edukiko lukeen 'tresna' bat asmatzean. Jadanik eraturiko moneta nazionalen sistema desberdinek funtzio hori aspalditik betetzen dute.

Bancorrak ez dauka helburutzat moneta nazionalekin bat 'paraleloki' zirkulatzea: moneta nazional bakoitza nahikoa da eta gai da bere esparruan hori

egiteko. Nazio desberdinek eta beren moneta-sistemek ez daukate inolako oztoporik beren barneko ekonomietarako behar diren zirkulazio-medio guztiak, *ex nihilo* sortzeko, bakoitza bere monetan.

Beste aldetik, bancorra ez zegoen zuzenduta, inondik inora, Keynes-en planaren arabera, moneta nazionalak ordezkatzeko; aitzitik, 'moneta nazionalen moneta' edo berorien 'patroia' izan behar zen. Herrialdeen barruan, moneta nazionalek produkzioak monetizatzen dituzte: epealdi bakoitzeko produktu berriak moneta nazionaleko unitateetan isuriak dira, molde unitario bakoitzean isuriak izanen balira bezala. Paraleloki, bancorra 'molde unitarioen' bilduma izan beharko litzateke, non moneta nazionalek beren uniformetasuna, homogenotasuna, aurki dezaketen. Bancorra moneta nazional desberdin batzuen 'saskia' izan daiteke. Baina 'saskia' nazioarteko banku berri batek jaulki behar du (Schmitt 1988b).

Bancorra medio instrumental modura izan da pentsatua: tresna edo bitarteka-ritza-tresna hutsa izanik, monetak, eta bancorrak partikularki, definizioz, ez dauka inolako erosteko ahalmenik. (Hortaz, existitzen ez den erosteko ahalmenaren egonkortasunaren arazoa, funtsik gabekoa da.)

Keynes-en planean, bancorrak erosteko ahalmen hertsiki nulua dauka, beraren jaulkipena 'Banking School' delakoaren tesien aplikazioa izanik. Nazioarteko moneta baten emisioa soilik aintzakotzat hartzen hasten da, bera den moduan — hau da, banku-moneta bat— pentsatzen denean. Zailtasun guztia bankuen emisio--ekintzaren zehatzera iristean datza, moneta-esparru nazionaletan zein nazioarteko espazioan, definizio.

Prezeski, Keynes-ek bide egokia erakutsi du: 'Konpentsazio-Ganbara' ez da aritzen hutsune zientifikoari —arau zehatzari, xehetasunez adierazita— jarraitzen baizik.

Azter dezagun, beraz, nazioarteko monetaren emisioa, Keynes-ek testualki (1980a,b) proposatu zuen moduan.

Nazioarteko edozein monetaren lehen printzipioa nazioarteko transakzioen esparruan egiazki definitua izatea da. Beraz, Nazioarteko Moneta-Fondo (NMF) *berriak* bere moneta jaulkiko du, bancorra, eta kide diren herrialdeen kanpo--transakzioetan besterik ez da erabiltzen.

Keynes-ek bere plana garatu zuen nazioen arteko erlazioen esparruan bancorra erabiltzeko, are konkretuki, beraien Banku Zentralen edo Altxor Publikoen artean. "*Behar duguna ordaintze-tresna bat da, nazioek onartua izan dadin, hau da, beste nazioekiko transakzioetan nazio bakoitzak erabilitako tresna monetario bat, (...), agente partikularrek, entrepresek eta bankuek (banku zentralek salbu), lehen bezalaxe, beren transakzioak beren moneta nazionalean gauzatzen segitzen dute*" (Keynes 1980a, 168 or.).

Nazioarteko espazioan, bancorra banku-moneta nazionalen eredu zehatzaren bitartez emititua izan beharko litzateke. Hortaz, lehendabizi oinarrizko printzipioa erakutsi behar da, zeinaren bidez NMF *berriak* emitituriko edozein bancor izanen den, definizioz, emititutako beste edozein moneta bezala, erosteko ahalmen positiborik gabea (11. atala). Gero, moneta baten emisioa erakutsi behar da, bereziki nazioartekoa, aurredefinituriko kontu-unitateen eraldatze soila ordainketa-unitateetan. Kontu-unitateak azken ondasunen bilduman ez dira sartzen, ezta ordainketa-unitateak ere (12. atala). Azkenik, arazo orokorra berrartuko dugu, hots, Keynes-en asmoa egungo munduan erabiltzen saituko gara (13. atala).

10.11. BANCORRA: EROSTEKO AHALMEN HERTSIKI NULUA DUEN NAZIOARTEKO MONETA BATEN EMISIOA

Keynes-en *Activities 1940-1944* delakoan nazioarteko etorkizuneko edozein monetaren sarrera aurkitzen da.

Nazioarteko monetaren teoria keynestarraren printzipiorik garrantzitsuena banku-monetaren emisioen teoria orokorraren aplikazioa besterik ez da. Nazioarteko bankuak, NMF *berriak*, bere moneta jaulkiko du, beste edozein bankuk berea emititzen duen legez, hau da, kreditu positiboa eta berdinkide den kreditu negatiboa batera sortuz. Inolako kreditu netorik ez emanez, Banku jaulkitzaileak ez du gordailatzen, ezta denboralki ere, ezein aktibo finantzariorik inoren ondarean.

"*Ganbara monetarioa sortzeko, neure proposizioak oinarritzen ditudaneko ideia laua da; banku-funtzioaren printzipio esentzialaren orokortzea da, edozein ekonomia itxitan agertzen den antzera eta, helburu honekin, Konpentsazioen Nazioarteko bankua ezartzea. Printzipio hori* ***kredituen eta zorren arteko beharrezko berdintasuna da****"* (Keynes 1980a, 44 or.).

Keynes-en arabera, bankuek, beren emisioetan, ekonomietan hertsiki nulua den 'masa monetario' bat jaulkitzen dute. Edozein banku-monetak banku jaulkitzailearenganako jendearen zor bat definitzen du; honek ez du ukatzen edozein moneta-emisio emaitza nuluko eragiketa izan dela, alde batetik positiboa eta bestetik negatiboa. Hori honela da, banku jaulkitzaileak 'irekitako' edozein krediuk aldiune berean definitzen baitu elkarrekiko kreditu baliokidea, jendeak 'irekia' eta jaulkitzailearen onurarako. Hortaz, jaulkitako edozein moneta bat-batean berrartua da, deuseztatua.

Laburbilduz, edozein moneta-emisio ekonomiari banku jaulkitzaileak kreditu hertsiki nulua ematen dioneko eragiketa da, eta hori Keynes-ek azpimarraturiko printzipioa dela kausa, hots, "*kredituen eta zorren arteko beharrezko berdintasuna"*.

Emisioen helburua argi dago: transakzioak 'monetizatzea'. Banku-emisioek ez diete ematen inolako baliabide monetario netorik produkzio errealen ekono-

mietan kanalizaturiko aktiboei. Emitituriko moneta ez dago elkartrukeen terminoetan. Bitartekari soilaren errola jokatzen du: ordainketa baten tresna ez da, inongo kasuan, ordainketaren objektua.

Ondasunen iturri bakarra, baita monetarioak ere, produkzio errealean dago. Aktibo errealak bezala, aktibo monetarioak produkzio nazionaletatik etor daitezke soilik.


Keynes-ek espreski azaldu zuenez, beste edozein moneta-emisio bezalaxe, Konpentsazio-Ganbararen bankuaren emisioak transakzioen espazioan diru nuluko sumak sartzeko dira zuzenduak. Emaitza hori babesten duen mekanismoa bat-bateko zorpetze automatikoa da, bancorretan ordainduriko herrialdeen banku jaulkitzailearen onurarako: "*Baldin eta kredituak soilik banku-sistemaren barruan transferi badaitezke, bera uzteko ez gai izanik, Bankua ezin da egon egoera txarrean. Segurtasun osoz, bere bezeroei aurrerakinak eman diezazkieke, berak nahi duen kopururako, zeren, edozein kasutan, aurreraturiko moneta beste bezero batzuen kontu korrontean egonen baita*" (Keynes 1980a, 44 or.).

Bancorraren emisioa eragiketa neutroa da: bere eragiketa bakoitzean, bankuak herrialde berbera ordaindu eta zorpetu egiten du.

Keynes-en planaren aginduen arabera, Konpentsazio-Ganbararen helburua herrialdeen arteko nazioarteko ordainketen 'tresna' sortzea da; beraz, arazoa ez da banku berriak dirua sor dezan. Bancorrak monetak dira, eta ez dirua.

Keynes-en arabera, Konpentsazio-Ganbararen Bankuak *A* herrialdeari ez dio mailegatzen, inori maileguz hartzen ez dion inolako diru-kopururik; alderantziz, Bankuak *B* herrialdetik herrialde honek bere esportazioen ordainketa dela kausa irabazten dituen bancorren kopuru osoa maileguz hartzen du. Eta *B* herrialdeak onarturiko mailegua Konpentsazio-Ganbararen Bankuak *A* herrialdearen ordainketa zorduna emititzen dueneko aldiune berean gauzatzen da. Berriki emituriko bancorrekin ordaindua izaten den aldiune berean, *B* herrialdeak bancor horiek guztiak gastatzen ditu nazioarteko Bankuan gordailu baliokidea erosteko, zeinak, ondorioz, segurtasun osoz bere bezeroei mailega diezaiekeen, berak erabakitzen duen kopururako, edozein kasutan aurreraturiko moneta soilik beste bezero baten kontu korrontean egon baitaiteke.

Azkenik, A herrialdearen inportazioak ordaindu ahal izateko, emituriko *x* bancorrek objektu konplexua definitzen dute:



(i) Ordainketa-tresna huts modura kontsideraturik, *moneta nominalaren kopurua*, bancor horiek *ex nihilo* dira emitituak;
(ii) dirua legez kontsideraturik, bancor horiek beroriek gordailatuak dira eta *B* herrialdetik *A* herrialdera *mailegatuak*, Ganbararen Bankuaren bitartekaritza dela bide.

Ondoko ondorio garrantzitsuak atera daitezke:

(a) Bancor *nominalek* —moneta zentzu hertsian— nazioarteko bankuan daukate beren lehen iturria; bancor *errealek* —diruaren kopurua— bancorretan ordainduriko herrialdeen esportazioetan.

(b) Bancor *nominalak elkarrekiko* kredituen —hots kreditu erreziprokoen— eragiketetan dira emitituak, Ganbararen Bankuaren eta nazio kideen artean gauzatuak; bancor *errealak alde bakarreko* kredituen eragiketan dira mailegatuak, herrialde ordainduek irekiak, herrialde zordunduen onurarako.

(c) *Elkarrekiko* kredituek bancorren Banku jaulkitzailean daukate beren iturria; *alde bakarreko* kredituek herrialde kideen ekonomietan, ondasun esportatuen produkzioan prezeski.

(d) Bancor *nominalak* eta bancor *errealak* ezin dira inoiz nahasi, ezta lotu ere. Keynes-ek arazo horrekiko edozein duda ezabatzen du: bankuaren herrialde hartzekodunei ez zaie inoiz ordainduko bancor nominaletan, edozein mementutan beren gordailuak ateratzeko libre baitaude. Baina ateratako kopuruak lehen esportatzaileak ziren herrialdeen inportazioen ordainketan halabeharrez jaulkiak izanen dira. Beraz, nahitaez, egiazki ordainduriko herrialdea da eragiketa finantzatuko duena, diruaren gordailuaren bidez, zeina jasotzen duen aldiune berean gauzatu besterik ezin duen egin: Ganbararen Bankuak jaulkiriko moneta soilik gordailatu izan daiteke Ganbararen Bankuan bertan.

Moneta-emisio bakoitza ekonomiaren eta bankuen arteko bitartekaritza da: ekonomiak produktua hornitzen du eta bankuek produktua kobratzeko eskubide errealetan, ondasun-eskubideetan, eraldatzen dute; bigarren denbora-tarte batetan, bankuek produktua banatzen dute eta ekonomiak kobratzeko eskubide errealak itzultzen ditu, zeintzuen deuseztapena aldiune horretan gauzatzen den. Aktibo/pasiboak emititzen dituzten bankuek ekonomiei ez diete inolako aktibo netorik hornitzen, ezta monetariorik ere, ekonomiek, bankuen 'irteeran' hasieran bertan gordailaturiko produktu berbera besterik aurkitzen ez dutelarik.

Erreforma monetario baterako, Keynes-en planaren filosofia erabat ongi oinarriturik dago, hortaz; etsenpluan, bancorren emisioak (*B*) herrialde esportatzaileari ordainketa erreala ematen dio, zeina ez datorren inondik inora nazioarteko Bankutik. Alderantziz, Ganbararen Bankuak bancor neutroak edo nominalak sortzen ditu soilik, hots, produktu esportatuaren estalki numerikoa: *B* herrialdeari ongi ordaintzen zaio, gordailatzeko jasotzen duen monetak dirua balio baitu, hau da, diru-sarrera, zeinaren objektua produktu esportatua den.

Keynes-ek segituriko metodoa ongi adierazita dago: "*Banku-funtzioaren printzipioa orokortzea da, edozein ekonomia itxitan agertzen den moduan*". Printzipio horrek ez dauka inolako salbuespenik; ordainketa (monetario) bakoitzean ordainduriko eragileak, berak uzten duen produktu berbera jasotzen du monetatan; jasotako dirua ez da ondasun salduaren —moneta emitituan gordailaturik berraurkitua— kontrapartida, beraren 'birdefinizioa' baizik. Produkzio-faktoreek honela beren produktua eskuratzen dute forma monetarioaren menpe edo estalki monetarioarekin: halaber, errenten titularren multzoak jadanik bankuan gordailaturik —beren kontu korronte hartzekodunetan— zegoen produktua ondasun banatuetan berraurkitzen du.

Beraz, beti da saltzailea, partikularzki herrialde esportatzailea, bere buruari ordaintzen diona.

Zein ote da herrialde esportatzailearen ordainketaren errealitatea? Nazioarteko monetatan, bancorretan, egindako ordainketa, ez al da azkenik nominal hutsa? Ordainketaren errealitatea ongi babesturik dago: herrialde hartzekodunak jasotzen duena bere produktu esportatuaren baliokide errealarena da, herrialde inportatzaileak emitituriko titulu baten formaren menpe. Herrialde ordaindua, *B*, nazioarteko Bankuaren mailegu-emaile bihurtzen da; bere aldetik, herrialde ordaintzailea, *A*, Bankuaren zordundu bilakatu da. Nazioarteko bankuaren bidez, herrialde hartzekodunak produktu esportatuaren gaineko titulua dauka, edo herrialde inportatzailearen produktuetan baliokidea denaren gainekoa.

Honela, moneta nazionalek segitzen dute izaten barneko transakzioetan konpetente diren bakarrak; emitituriko bancorrek ibilgailuzko moneta definitzen dute; azkenik, ordainketa-tresna berria Ganbararen Bankuaren eta herrialde kideen Banku Zentral desberdinen edo Altxor Publiko ezberdinen artean da emititua.

Keynes-en mezu nagusia, kontu-unitateko moneta ordainketa-unitateko monetan eraldatzean datza. Cambridge-ko pentsalariak erakutsi du bancorrak ezin zuela ezer kontatu, aldez aurretik banku-emisioaren objektua ez bazen.

Soilik NMF *berri* batek bilaka dezake bancorra benetako ordainketa-unitate autonomo, argudioan oraindik soilik kontu-unitate den bitartean. Gai honetan, Keynes-en planak bidea erakusten du.

10.12. NAZIOARTEKO KONTU-UNITATEAREN ERALDATZEA NAZIOARTEKO ORDAINKETA-UNITATEAN

Kontu-unitatea neurri ekonomikoen patroia da. Nazioarteko esparruan, bancor bezalako kontu-unitate bakoitza —numerarioa— unitate *numeriko hutsa* da.

Kontu-unitateak ez-ondasunak dira. Soilik ordainketa-unitateak merkatuetan eskatuak eta eskainiak izan daitezke.

Kontu-unitateak ordainketa-unitateetan eraldatzeko eragiketa bakarra, noski, emisio monetarioa da. Edozein monetaren emisioa, emitituriko moneta bertan gordailaturiko ondasunen forma numerikoan eraldatzen duen eragiketa da. Nazioarteko ordainketetara printzipio hori aplikatuz, bancorra moneta nazionalen patroi numeriko hutsa dela esan nahi du.

Bretton Woods-en Keynes bereziki burrukatu zen nazioarteko patroi monetarioaren definizo zientifikoa adierazteko.

10.12.1. 'Numerarioa' ekonomia nazionaletan

Gaur egunean moneta nazional bakoitza ondasunen zenbaki hutsa edo forma numerikoa da. Monetaren bi funtzioak bereizi behar dira, kontu-unitate gisa eta ordainketa-unitate gisa: moneta kontu-unitatea da, ekonomia nazionaletan ekoizturiko ondasun konkretuen neurria soilik eman dezakeena.

Ordainketa-moneta bakoitza ondasuna da, eta, are hertsikiago, produktu bat; ordainketa-moneta produktu baten eta kontu-unitate —zenbaki-moneta— baten loturak definitua da. Hau da, ordainketa-moneta kontu-unitate huts bat da bere forman, ordainketa-unitatea baita soilik, edukitzen edo 'bereganatzen' duen produktu erreala dela kausa. 'Monetizaturiko' elkartruke guztiak errealak dira, monetak kontu-unitate modura eta medio instrumental legez soilik hartzen du parte; baldintza horietan nabaritzen da bi eragiketa erabat bereziren existentzia: elkartrukaturiko objektuen *trukea* eta *neurria*. Bistakoa da objektuak ez direla elkartrukatzen beren neurrien kontra, beren artean elkartrukatuak baitira.

Zein ote da ondasun errealak kontu-unitateko monetan edukitako objektuetan eraldatzen dituen eragiketaren izaera zehatza? Kontu-unitateen emisioak produkzioa edo produkzio-ekintza aldatzen du; ondasunak eta zerbitzu errealak berehala ekoitzi barik, ekonomia nazionalak lehendabizi, epealdi bakoitzean, 'masa monetarioa' produzitzen du, hau da, produktu korronteak definitzen duen errenta monetarioen 'masa', zeina bankuetan gordailaturik dagoen, eta, beraz, banku monetan, entrepresa eta familien onurarako azken banaketa arte.

Honela, errenta objektu bat da, zeinaren definizioa bikoitza den. Nominala bere forma numerikoaren aldetik, eta erreala bere edukiaren aldetik. Monetak pro-

duktu berria 'bereganatuko' ez balu, ez litzateke deus izanen, eta ezin izango litzateke izan inolako ondasunaren kontu-unitatea. Bere emisio monetario guztietan, banku-moneta batera sortzen da kontu-unitateko eta ordainketa-unitateko bere bi kantitateekin. Produktua monetan sartzen den aldiune berean, moneta produktuaren estalki numerikotzat definitzen da. Zentzu honetan, moneta kontu-moneten bilduma bat da, eta produktuaren ispilu legez, monetan eraldatua, denboralki monetak bereganaturik baitago, kontu korronte hartzekodunetan gauzaturiko gordailuak aterako diren arte. Bigarren ezaugarri hau dela eta, gordailu-bankuen aurrean kobratzeko eskubide erreala, bere 'gorputza' den produktuarekin identifikatzen da moneta.

Kontu-unitate den monetako produktua unitate monetarioaren *produktu--edukia* da. Honela definitzen da, hain zuzen ere, patroia edo numerarioa. Ez da berezko balioa, numerarioa zenbakia baita; hortaz, aldaezinezko patroia bilatzea absurdua da.

Edozein moneta nazional legez, nazioarteko patroia, bancorra, dimentsiorik gabeko zenbakia da.

10.12.2. Numerarioa nazioarteko ekonomian

Nola lortuko du bancorrak bere produktu-edukia? Keynes-ek berak eman zuen soluzioa: beharrezko eta nahikoa da nazioarteko moneta edozein emisio monetarioren arabera emititua izatea. Hau da, banku jaulkitzaileak bere monetaren, bancorraren, erosketa eta salmenta batera gauzatu behar du fluxu/errefluxu mugimendu berean, mugimendu zirkularrean.

Gertakarien ordena logikoa ondokoa da: behin emisioaren objektua izango den kontu-unitatearen lehen eragiketa definitu eta gero, nazioarteko Bankuak, NMF *berriak*, herrialde kideen inportazioen —ondasun eta tituluetan— ordainketa nominala —kontu unitate, bancor, horretan hedatua— bereganatzen du. Hori egitean, Bankua herrialde hartzekodunen zordun bilakatzen da, aldez aurretik definituriko kontu-unitateek *numerikoki* neurturiko kopuru batez. Simetrikoki, Bankuak bere kontrako herrialde zordunduen zorpetze baliokidea sorraratzen du. Nazioarteko monetaren, bancorraren, emisioak gauzatzen ez diren artean, objektu hori soilik magnitude hertsiki numerikoa izanen da, produktu errealetik berezia (hau da, ondasun errealen 'zenbaketa-neurketa'-rako ez-gai diren zenbakiak).

Bancorren emisioa herrialdeetarako, moneta nazionalaren emisioa barneko enpresetarako dena izanen da. Moneta berriak kontu-unitate bakar batean herrialde kideen kanpo transakzio guztiak 'monetizatzea' edukiko du helburu, barneko banku emisioek, edozein herritan eta epealditan, produktu korrontea moneta nazional konkretuaren molde unitarioan 'sartzeko' helburua duten antzera. Honela, bancorra moneta nazional asoziatuen patroi hertsiki numerarioa izanen da.

Keynes-en mezua ulertzea premiazkoa da. Keynes-en pentsamendua banku-monetaren definizio zientifikora iritsi da, aktibo/pasibo denaren definiziora, erosteko ahalmen nuluarekin.

10.13. KEYNES-EN PLAN HOBETUAREN BIDEZ JAULKIRIKO BANCORRA

Bancorra hertsiki ibilgailuzko moneta bezala jaulkiko da. Egia da Keynes-en plana hobetu egin behar dela garrantzitsu den puntu batean, Keynes-ek proposaturiko bancorra 'produktu finantzarioa' baitzen, oraindik dirua zen nazioarteko moneta, ibilgailuzkoa besterik izan behar ez den bitartean.

Egin daitekeen nahasketarik handiena honako hau da, hots, ibilgailuzko moneta bere zamarekin parekatzea. Ibilgailuzko monetaren zama, nahitaez, gizakiaren emaitza da; ez dator inoiz sormen monetariotik.

Ibilgailua forma bat da. Beraren zama bere edukia da. Moneta —*currency*—, *stricto sensu*, forma bat da. Moneta erreala edo dirua —*money*— beraren forma monetarioan eskuratutako produktua da. Moneta 'ibilgailu' gisa, berak 'monetizatzen' dituen transakzio errealetan presente egonik, daramatzan produktuei forma ematen dien aldiunean existitzen da. Dirua denboran gordailatzen da, bankuetan gauzaturiko gordailuen eran.

Ekonomia nazional guztietan, bankuek lehendabizi produktu korronte berria 'monetizatzen' dute. Hauxe da bankuen bitartekaritza monetarioaren funtzioa. Gehigarri gisa, bankuek (berberek) aurrezturiko errentak gordailutan jasotzen dituzte, merkatu finantzarioan maileguz eman ahal izateko helburuarekin. Eragiketa ezberdin horretan, bankuek —beste erakundeekin batera— bitartekaritza *finantzarioaren* funtzioa hartzen dute.

Bitartekaritza finantzarioa zein bitartekaritza monetarioa izanik, egiaztatzen da bankuetatik ez dela sortzen ezelako erosteko ahalmenik, ekonomiatik hartu ez dutenik.

NMF *berriak* erosteko ahalmen nulua besterik ez du sortuko, beraren eginkizuna ibilgailuzko moneta, bancorra, jaulkitzera murriztuz.

Herrialde bakoitzean, moneta, ibilgailu-tresna uniformea besterik ez da, monetizaturiko transakzio guztietan, produkziotik enpresatan eta familietan egiten den azken banaketa arte.

Gauza bera gertatzen da bancorrarekin. Emitituriko edozein bancor forma hutsa besterik ezin da izan, 'aktibo/pasiboa', magnitude numeriko eta nominala, emisio bakoitzeko aldiunean soilik existitzen dena, hau da, bere bitartekaritza dela bide gauzaturiko ordainketa bakoitzean.

Bitartekaritza-tresnak ez dira ondasunak. Bitartekaritzaren tresna ez da elkartrukaturiko ondasuna. NMF *berriaren* herrialde kideek ezingo dituzte beren inportazioak ordaindu, ondasun erreal —merkataritza-produktuak edo titulu finantzarioak— baliokideak esportatzen ez badituzte. Bancorraren emisioak haien kanpo-transakzioen 'monetizazioa' ekarriko du.

Onar dezagun, bere termino zehatzetan, Keynes-en planak ez ziola erabat erantzun nazioarteko monetaren sormenaren proiektuari. Izan ere, Keynes-en bancorra, guztiarekin ere, produktu *finantzarioa* zen. Analisi keynestarrak ez zuen lortu bancor monetarioa eta bancor finantzarioa erabat bereiztea. (Argiago, Keynes-en Ganbarareren Bankuak ezin bazter zezakeen bancor emitituen luzapen ez-nuluko gordailuak jasotzea. Bere sormenaren aldiunetik baino gehiago irauten duen edozein monetak, logikoki, aktibo netoa definitzen du, produktu *finantzarioa,* eta ez aktibo/pasibo bat, magnitude hertsiki *monetarioa*.)

NMF *berriak* aktibo/pasiboak emitituko ditu, hots, erosteko ahalmen nuluko bancorren kopuru positiboa.

Keynes-en planak nazioarteko monetaren edozein emisioren printzipio zuzena azpimarratu zuen: moneta berrian aktibo/pasibotan eraturiko herrialdeen kanpo-transakzioak 'monetizatu' behar zituen bancorrak. Beraz, arazoa ez zen soilik herrialdeen aldian aldiko kanpo-defizitak bancorretan finantzatzea. Aitzitik, Ganbarareren Bankuaren emisioek herrialde kide bakoitzaren ordainketa-balantza globalaren bi alde baliokideak eduki behar zituen kontuan, bere inportazio eta esportazioei lotuz. Eragiketa positibo eta negatibo horien saldoa nulua zen epealdi guztietan.

Defizitdun herrialdeen finantzaketak berenganako *diruaren* mailegua inplikatzen duen artean, herrialde bakoitzaren —merkataritza-ondasun eta titulu finantzarioen— inportazio-esportazioen monetizazioak *moneta* baten emisioa besterik ez du inplikatzen, beraren esportazioen elkartrukean dagoen tresna (eta inportazioena ere).

Beraren helburua zuzenki definituta, Keynes-en planak eskasia ezkutatu zuen, bera martxan jartzeari zegokiona (Schmitt 1988a,c), hain zuzen ere. Arazoa zen Ganbarareren Bankuak sorturiko bancorrak herrialde esportatzaileen hartzekoetan eta erreserbetan gordailatuta irauten zuela, behin-behineko eran gutxienez. Horretan, bancorrak 'erreserba moneta' —zeina *aktibo finantzariotan* nagusia den— baten emisioari zegozkion. Akatsa larria zen, horrek esan nahi baitzuen nazioarteko Institutuak erosteko ahalmen positiboa fiktziozkoa besterik ezin izango zuela izan, eta inflazioa sortzekoa zela, diru-kopurua sortzen zuelarik. (Hori dela eta, EEBBetako Altxor Publikoko funtzionarioek ikusi zuten bezala, bancorra ez zen onartu: ez zen bideragarria.)

NFM *berrirako* bancor *berriaren* plana erabat zehatz eta egokia da (Schmitt 1988a,c). Izan ere, NFM *berriak* ez du dirurik emitituko, moneta baizik. Hau da, ezein bancor ezin izango da gordailatu hartzekoetan, ezta ofizialetan ere, nahiz eta oso epealdi labur batez izan. Emitituriko bancorra ez da izanen erreserba-moneta, *ordainketa-tresna* soil bat baizik.

Erabat ez-funtsezkoa da nazioarteko esparruan herrialde desberdinetako barnean jadanik monetizaturik dauden produktuak 'monetizatzea'. NFM *berriak*, hortaz, helburu hertsiki monetarioa behar du izan. NFM *berriak* ez du gauzatuko inolako bancorren sormen netoa. Bancorren edozein emisio, definizioz, emitituriko monetaren, sormen eta deuseztapen bat da, *batera*.

Keynes-en planak (1980a) nazioarteko ibilgailuzko monetaren beharra planteatzen du soilik. Keynes-en arabera nazioarteko Ganbararen Bankua herrialde kideen Banku Zentralen artean ezarri behar zen, jendeak ezelako partehartze zuzenik ez izan gabe.

Keynes-en asmoa argi dago: moneta nazionalek beren zirkulazio-esparrua kontserbatu behar dute, nazioarteko unitate monetarioak Banku Zentralen arteko erreglamendu-mailan soilik parte hartzen duen artean. Ekonomia bakoitzaren barruan, ordainketa guztietan, are *kanpo-ordainketan* ere, konpetente den moneta bakarra, moneta nazionala da. Honela, moneta nazionalak gainontzeko munduarekiko egoiliarrek irabazi eta gastaturiko produktuen ibilgailu dira. Keynes-en plana herrialde kideen subiranotasunaren galtzearen kontra dago.

Hala ere, Keynes-en argudioak akats garrantzitsua dauka. Izan ere, beharrezkoa eta nahikoa da nazioarteko Bankua *egoiliarren multzoaren* erakunde errepresentatiboekin besterik ez aritzea. Nazioarteko esparru monetarioan herrialdea ordezkatzen duen erakundea Altxor Publikoa da, kanpora begirako ikuspuntuari dagokionez. Herrialde bakoitzaren Altxor Publikoa erakunde bikoitza da, barruko harremanen —bAP izendatua— edo kanpoko harremanen —kAP— arabera.

Herrialdearen ordainketak (kAP) moduan soilik igorri eta jasotzen ditu, nazioarteko Konpentsazio Ganbararekiko, zeinak nazioarteko monetan, bancorretan, monetizatzen dituen. Barruko elkarrekiko ordainketei (ordainketa erreziprokoei) dagokienez, inportazioetan eta esportazioetan ere, horiek guztiok bAP delakoak jasoak eta gauzatuak dira, herrialdearen moneta nazionala erabiliz.

Keynes-ek ez zituen bereizi egoiliarrak eta berauen multzoa. Keynes-en ustez, Konpentsazio-Ganbarak Banku Zentralekin *edo* Altxor Publikoekin ezberdinki lan egin zezakeen. Baina, aukera ez da berdina: Banku Zentral batean bukatzen den edozein eragiketa herrialdearen *barruko* ekonomiari dagokio. Bancorren zirkulazioa (nazioarteko moneta) herrialde kideen nazioarteko harremanetan soilik eduki ahal izateko, beharrezkoa da Nazioarteko Ganbararen emisioak herrialde

kideen kanpoko Altxor Publikoei (kAP delakoei) lotzea. Honela, nazioarteko monetaren zirkuitua autonomoa izanen da, moneta nazionaletan definituriko barneko zirkuituen autonomiarekiko, baldin eta soilik baldin herrialde kide batetik datorren, edo herrialde kide batera doan, nazioarteko edozein ordainketa, bi ordainketaren gainezartzeak gauzatzen badu, moneta nazionalean eta nazioarteko monetan: kAP delakoak inportatzaileen ordainketa jasotzen du eta, fluxu hori nazioarteko esparrura igorri barik, berak bere *alter ego* delakoari, bAP delakoari, igortzen dio, zeinak *herrialde bereko* esportatzaileei ordaintzeko zuzentzen duen; kanpotik herrialde kide baten kreditura igorritako edozein ordainketa, kAP delakoak geldierazten du bancorretan, kAP horrek Konpentsazio-Ganbaran produktua ezarriz. Honela, kanpo eta barruko ordainketak zirkuitu ezberdinei dagozkie, moneta nazionalen eta nazioarteko monetaren koexistentziarako, zirkuitu desberdinetan, *sine qua non* motako baldintza izanik.

Nazioarteko Ganbara herrialde kideen Banku Zentralekin zuzenki arituko balitz, moneta nazionalen 'bereizgarritasuna' nazioarteko monetaren aurrean ez litzateke izanen segurtatua, eta herrialde kideek beren subiranotasun monetario eta ekonomikoa galduko lukete.

Beharrezkoa da, hortaz, Ganbara *bi departamentutan banatzea*. Horrela, departamentu monetarioak departamentu finantzariotik, bere eratzearen aldiunean, herrialde soberakindunek gordailaturiko bancor-kopuru osoa jasoko du. Honela, epealdi bakoitzean eratzen diren kanpo-ordainketen hondar netoak ere —herrialde soberakindunentzako positiboak eta negatiboak herrialde defizitdunentzat— bat-bateko deuseztapenaren legearen menpe daudela ikusten da. Departamentu finantzarioak automatikoki departamentu monetariora herrialde superabitdunek gordailu berrietan eraturiko bancorrak igorriko ditu; bancor horiek herrialde defizitdunen gastu netoen 'elikadura finantzarioa' definitzen dute; zirkuitu finantzarioa itxita dago, eta zirkuitu monetarioa ere bai, bere aldetik, Ganbarak bancorrak sortu *eta* deuseztu egiten ditu, mugimendu berean, bere bat-bateko eragiketetan.

Hau da, nazioarteko moneta, bitartekari monetarioa modura, eta ez bitartekari finantzario legez —alegia, ibilgailuzko moneta modura— existituko da, baldin eta soilik baldin bancorren edozein sormenek eta edozein deuseztapenek munduko ekonomiei inolako erosteko ahalmenik ematen ez badiete, ezta kendu ere.

10.14. NMF BERRIAREN MONETA KIDEEN TRUKE ABSOLUTUAREN SISTEMA

Truke absolutuko tasen sistemaren benetako emaitza ondoko proposizioan laburbil daiteke: emitituriko bancorraren sisteman, truke erlatiboen tasak truke absolutuen tasek definituko dituzte. Beste era batera esanda, *n* moneta kide desberdinetarako, bancor emitituarekiko independente diren *n* truke-tasa existituko dira.

(Egungo sisteman, dolarra patroitzat harturik, dolarrarekiko $n-1$ moneta nazional desberdin besterik ez daude, berarekin truke-erlazioa gauzatu dezaketenak.)

Egungo truke-merkatuaren eratzean, kasu, dolarretan yenaren truke-tasa definitzen da, eta, alderantziz, yenetan dolarraren truke-tasa. Horregatik, bere herrialdeak erabakitako yenaren truke-tasaren edozein aldaketak bere kideekin kontsentsuaturik egon behar du.

Bancor emitituaren sisteman, moneta kide biak moneta emitituarekin aurrez aurre jarriko dira, nazioarteko transakzioen esparruan beren ibilgailu komunarekin alegia. Aldiune horretatik, lehengo etsenpluan, yenaren eta dolarraren truke-tasak bata bestearekiko independenteak izanen dira, bere moneta nazionalaren herrialde kide subirano bakoitzak bancorretan erabakia (Schmitt 1984c). Bancorra beste moneta gehigarri bat ez izanez, herrialde kideen kanpo ordainketan moneta nazionalen ibilgailua baizik, bancorretan truke-tasen sareak bi moneta kide ezberdinetarako, bancorrarekiko bi erlazio desberdin edukiko du, n erlazio n monetatarako, eta ez $n-1$ erlazio n moneta kidetarako.

Hortik ondorioztatzen da, aurrerantzean, herrialde bakoitzak patroi komunarekiko, bancorrarekiko, bere moneta nazionalaren truke-tasa determinatzeko askatasuna edukiko duela, bere ordainketa-balantzaren beharrizan espezifikoei dagokienez.

Moneta komuneko kideen truke-tasa guztien ko-determinazioan, *A* herrialdeak bancorretan bere monetaren balioa ondoko mailan ezarriko du, alegia, epe ertainean truke-neurrien erregimen berria sortu baino lehen metaturiko kanpo-zorra kitatzeko merkataritza-superabitak lortu ahal izateko mailan. Bere aldetik, *B* herrialdeak determinatuko du, era subiranoaz, bancorretan bere monetaren truke-neurria, hots, epe ertainean berak nahi dituen merkataritza-soberakinak lortzeko mailan ezarriko du.

Zer esanik ez, truke-neurri *absolutuen* harremanak —bancorrarekiko moneta bakoitzarenak— truke *erlatiboak* determinatuko ditu —moneta 'nazional' desberdinen artekoak—.

Esan bezala, herrialde bakoitza, patroi komunarekiko —bancorrarekiko— bere moneta nazionalaren truke-neurria determinatzeko aske izanen da, bere ordainketa-balantzaren beharrizanen arabera (Schmitt 1984c). Truke-neurri hori *absolutua* izanen da, baina ez mugiezina. Herrialde bakoitzak bere kanpo-harremanetarako premien arabera ezarriko du bancorraren eta bere monetaren arteko elkartrukea, Ganbararen Bankuaren onarpena eskatu gabe, ezta beste herrialde kideen baimena ere. Honela, orain nagusi den dolar-patroiaren kaos monetarioarekin bukatuko da.

Beste aldetik, truke absolutuen erregimenean, truke-neurri ez egokietatik sortzen den zigorra bere moneta azpibaloratuta edo gainbaloratuta daukan naziora doa soil-soilik:

(i) Bancorretan bere monetaren balioa maila *txikiegian* ezarriko duen edozein herrialde kidek ondorioak ordainduko lituzke, bancorren jaulkipen-mekanismoak bere esportazio soberakinen kontrabalioa kanpora mailegutan ematera bortxakuko bailuke; eta
(ii) alderantziz, bancorren jaulkipen-mekanismoak bancorretan bere monetaren balioa maila *garaiegian* ezarriko duen edozein herrialde kide bere inportazio soberakinen balioaren kanpo-mailegua egitera bortxatuko luke.

Honela, edozein herrialde kide, *bere helburuen epaile bakarra izanik*, bancorretan bere moneta nazionalari dagokion neurriaren epaile bakarra ere bada.

10.15. INTERES-TASAREN POLITIKAREN AUTONOMIA

Dibisen patroiaren gaur egungo erregimenean (mundu guztian indarrean dagoena) truke-tasak erlatiboak dira. Horrek esan nahi du trukeen terminoak moneta errealak direla —produktuei loturiko monetak— eta ez ibilgailuzko monetak. Truke-merkatuan, herrialde bakoitzak bere 'banku-diru' nazionalaren balioa determinatzen du.

Ondorioz, Japoniako yenak, kasu, dibisen merkatuan bere garapena sostengatzeko gai den interes-tasa erantsi behar du. Nola esan, baldintza horretan, Japonia benetako herrialde subiranoa denik? Munduko herrialde handietan definituriko interesak yenari egokitzen ez bazaizkio, bere moneta sostengatzeko, Japoniak japoniar enpresei, beren hazkundeari mesede egingo ez dien interes-tasa bat ezarriko die.

Truke absolutuen izaera ulertuz, NFM *berriaren* jarduerak herrialde kide guztiei emango dien abantaila handia berehala bereganatzen da: truke absolutuek soilik *stricto sensuko monetei* afektatzen diete, hots, trukerako *bitartekari* hutsei. Diruarekin —finantza-entitatearekin— gertatzen ez den bezala, bitartekari-tresnak —magnitude *nominalak*— dibisen merkatuan ez dira inoiz eskari edo eskaintza baten objektua —ezin dira izan, beren izaera dela kausa—.

Hitz batez, bancorretan ezarria, herrialde kideen erabaki subiranoa dela bide, bancor-esparruko moneta nazionalak ez dira batere sentikor izanen'interes-diferentzialekiko'.

Bancor emitituaren erregimenean, herrialde kide bakoitza bere inteses-tasen 'egitura' ezartzeko aske izanen da, bere industriaren beharrizanen arabera. Bancor emitituaren sistemak, ondorio bezala, herrialde kideei beren zirkuitu monetarioen bereizketa, barnekoa eta kanpokoa, emanen die.

11. Kanpo-zorra: nazioarteko ordainketen patologia

"*... the process of paying the debt has the effect of causing the money in which the debt is expressed to be worth a larger quantity of German-produced goods than it was before or would have been apart from the payment of the debt; so that the population of the debtor State suffers a loss of purchasing power greater than the original equivalent of the amount of the debt*."

John Maynard Keynes, *A Reply by Mr. Keynes*

11.1. MONETA-EMISIOA

Bankuen moneta-eragiketen estudio metodikoak, Ricardo-rekin hasia eta Keynes-ekin jarraitua, *A Treatise on Money* liburuan eta batez ere '*Clearing Union*' delakoari buruzko izkribuetan (Keynes 1980a,b), Schmitt-ekin ezagutu du bere gailurra.

John Maynard Keynes-ek nazioarteko banku-sistema erreformatzeko planaren intuizioa zeukan, herrialdeen finantza-erakundeak eta nazioen garapena hobetzeko. Hala ere, beraren desfuntzionaltasun monetarioaren diagnostikoak zenbait akats zeukan (Schmitt 1985c,1987a).

Schmitt-en teoriak erakusten du, alde batetik, produkzio-mailaren eta, bestetik, unitate monetarioaren erosteko ahalmenaren desoreka, edozein inbertsiotatik separaezina den mozkinaren *errepikapen* monetario hutsetik datorrela, baina kapital errealen amortizazioen erritmoan. Mekanismo hori banku-konpentsazioen barneko automatismo monetariotik dator, zeinak prezioen inflazioa (Schmitt1984a,1985b), familien eta herrien zorpetzea (Schmitt 1984b,c;1987b,c;1988b,c,d;1988b;1989; Schmitt eta Cencini 1991) eta, azkenik, langabezia (Schmitt 1984a,1996) dakartzan. Gaur egungo banku-sistemen eratzeak ez ditu mozkinak separatzen, zeintzuk maileguz emateko fondoekin nahasten diren. Ondorioz, kapitalismoak kapitalen gainmetapena edo familien zorpetzea ekartzen du (1984a,1996).

Enpresa-hornidurak ez dira ibilgetuak. Beraiek bankuan gordailutako fondo mailegagarri likidoekin batzen dira, alokairuen finantzaketa automatikoak periodikoki injektatuak direlarik. Kontsumo-prezioen garestitzearen ondorioz, (amortizazioa ordainduz, eta, gainera, faktoreen merkatuaren gainean) unitate monetarioaren

erosteko ahalmenak jaispena jasaten du, errenta erabilgarriaren depreziazioa ekarriz. Mozkin gordinaren gainmetaketak neurtzen du enpresatan kontsumo-prezioen igoera inflaziogileari loturiko aberastasunaren transferentzia.

Emisioen logika ulertzeak banku-emisio ez-patologikoen funtzionamenduaren arauak definitzen ditu, zeintzuen arabera kapital erreal guztiak finantza-merkatutik lehen momentutik ibiltzen diren. Gauzatuak izan ondoren, enpresen berezko fondoak zirkulatzaileak izanen dira eta inbertsioetan erabiliak izan daitezke. Ez dira, hala ere, bankuek mailegatuak izanen. Inbertsioen amortizazioak askaturiko kapital monetariotik liberaturik, finantza-merkatuak enplegu osoko ekonomian kontsumoa eta aurrezkia kontziliatzea ahalbidetuko die enpresei. Mundu-ekonomiak epe luzeko maila garatua lor dezake, alokairutan eraturiko produktibitate-irabaziak denborarekin *metagarriak* baitira.

Gogora dezagun ordainketako ordena. Monetaren erosteko ahalmena ordainketaren objektutik ezin separa daiteke, berriki ekoitziriko produktu ekonomikotik alegia (Schmitt 1984a). Banku-gordailu baten edozein tituludunek erosteko ahalmena dauka, eta erosteko ahalmenaren edozein gastu ondasunen baliokideen isurketa da.

Teorialariak nahasi egiten dira, monetaren teoriarako ondasunen eskaria eta eskaintzaz baliatuz. Nahaste-borrastea erabatekoa da, gaur egungo bankuko aktiboak mailegu guztien eta mozkinen diru-itzulketa metatuen emaitza baitira. Beste aldetik, *Inflation, chômage eta malformations du capital* izeneko liburuan proposaturiko banku-kontabilitatearen erreformak monetaren hiru maila definitzen ditu, eta patologiak bukatzeko bidea seinalatzen. Izan ere, monetaren teoria modernoak monetaren hiru funtzio desberdin hartzen ditu kontuan, alegia, kontu-unitate, ordainketa-tresna eta balio-erreserbarena. Teoriaren arabera, hiru funtzio horiek ez dagozkio edozein moneta-unitateri, 'hiru unitate desberdinei' baizik, alegia, kontu-moneta (M), ordainketa-moneta (M') eta balio-erreserbako monetari (M''), ondorioz bankuaren hiru departamentu ezberdineko banaketa ekartzen dutelarik (Schmitt 1984a).

Kontu-unitatea den aldetik, moneta zenbaki hutsa da, Walras-en numerarioa. Nozio horrek zenbakia eta zenbaki honek neurtzen duen patroi-ondasuna izendatzen ditu batera, zenbaki horretaz neurtuta. Beraz, kontu-moneta, (M), magnitute nominala da. *Ordainketa-unitateari* dagokionez, nominal huts den monetak produkzioari lotuz objektua —giza-lanaren emaitza— bereganatzen du. Honela, bi monetek —(M) eta (M'), kontu-unitateak eta ordainketa-unitateak— forma 'hutsa' eta forma 'betea' designatzen dituzte.

Beste era batera esanda, elkartruke ekonomikoa ez du monetak apurtzen. Aitzitik, moneta-ordainketak produktugileari truke absolutua lotzen dio. Produktua errenta bezala ekarriz, moneta fluxu bat da, zeinak ondasunen gaineko jabetza igortzen duen; monetak ez du zirkulatzen ondasunen kontra. Produkzio-faktoreei

egindako ordainketak produktu fisikoaren ordez, kreditaturiko moneta-kopurua ekartzen dio produktugileari; beste aldetik, produktuaren erosketaren ordainketa alderantziko konbertsio-eragiketa da, eta ez, monetaristek uste duten moduan, monetaren mugimendu autonomoa.

M' moneta, bankuaren bidez, agenteen bat-bateko kreditu/zorreko ibilgailu-moneta da. *Erreserba-moneta*, *M",* aldiz, stockeko formaren gainean, banku-gordailuen gainean existitzen da. *M"* erosteko ahalmen erabilgarria da, *M'* ondasunak zenbakietan edo zenbakiak ondasunetan bat-bateko aldaketa den bitartean, eta *M* zenbaki baten izena. Gordailu-formapean, moneta aurrezki monetarioa da. Laburbilduz, *M* moneta da zentzu hertsian, *M'* errenta monetarioa, eta *M"* kapital finantzarioa.

Hiru funtzio desberdin horiek moneta-emisioaren analisi modernotik datoz. Produktu eta errentaren *identitatea* ez da inolako akordioa, errealitate ekonomikoaren erarik funtsezkoena baizik. Beste aldetik, bankuko gordailu guztien iturria produkzio-faktoreei egindako ordainketak sortzen duen produkzioaren monetizazioa da.

Adam Smith-ek erakusten zuen moduan, bankuetako aktiboetan efektuek —'*real bills*' direlakoek— gordatzaileei dagokien produktu berria errepresentatzen dute. Zor monetario baliokidea enpresetako stocketan ezarritako ondasunei dagokie, hots, bankuetako aktiboaren finantzaketa esan nahi du. Gordailu-bankuek jaulkia, moneta, egunero ekonomia nazionalaren ordainketa guztien konpentsazioa dela bide, banku zentralaren moneta bilakatzen da.

Nazioarteko merkatu eta finantzaketarako, eta elkartruketarako, beste patroi bat behar da (Schmitt 1988b), ibilgailu-moneta izanen dena eta moneta nazional bakoitzari bere esparru nazionalean produkzioa neurtzeko monopolioa gordeko diona (Schmitt eta Cencini 1992).

11.2. KANPO-ONDAINKETAK OHIKO TEORIAREN ARABERA

Kanpo-ordainketen balantzaren desorekak (Frenkel *et al*. 1989, Frieden 1983,1985,1987), Chicago-ko eskolakoen arabera, nazioaren errenten eta gastuen desoreka adierazten du identikoki. Kanpo-defizita daukan herrialdea bere maila baino gorago bizi omen da. Hortaz, herrialdeak 'behi argalen' epealdia jasan beharra dauka. Honela, elkartrukeko merkatuetan moneta nazionalaren desbaliotzea zigortzat ikusten da, prezioen egoerari dagokiona, zeina soilik deflazio batek konpon dezakeen.

Hala ere, kanpo-defizita orekatzeko ez da behar inolako deflaziorik. Identitate keynestarrak kontuan ez hartuz, kanpo-ordainketen balantzaren teoria monetaristak munstro teorikoa sortu du: kanpo-defizita esplikatzeko, herrialde defizitdunean *aurrezki negatiboa* suposatzea. Aberrazio horretara daraman oinarrizko errorea, herrialde baten monetak atzerrian produktuak eros ditzakeelako aurreritzian datza.

Ricardo eta Keynes-en ildotik, hau da, moneta nazionalen esportazioa ezinezkoa dela dioen bidetik, Schmitt-ek erakutsi du, herrialde bat beste (defizitdun) batekiko soberakinduna bada, herrialde bietan merkataritza-saldoaren hertsiki baliokidea den aurrezkia eratzen dela. Hau da, ohiko analisiaren kontra, zeinaren arabera herrialde batek irabazten duena beste batek galtzen duen, Schmitt-ek dioenez, defizitaren neurri zehatzean, herrialde inportatzaile netoak bere barne-errentatik aurrezkia gauzatzen du; eta, era berean, herrialde esportatzaile netoak beste aurrezki bat dauka, bere barne-errentaren oinarrian gauzatua.

Aipatutakoak berrikuntza teorikoa dakar, nahiz eta eskari efektiboaren teoria keynestarrean inplizituki egon. Teoria berri horren hedakuntza garrantzi handikoa da: defizitdun diren herrialdeen esku dago, eta defizitaren neurri zehatzean, aparatu produktiboa modernizatzeko inbertsioak ahalbideratzen dituzten kapital monetarioak bereganatzea. Ez du ezerk justifikatzen langileria, eta herria oro har, pobretzea adierazten duten ohiko deflazio politikak eralbiltzen segitzea, alferkeria intelektuala ez bada. Schmitt-ek egungo nazioarteko ordainketen patologia erakutsi, eta sistemaren funtzionamendu ordenatua proposatu du.

Azalduko diren tesiak moneta nazionalen esportazioaren ezineztasunetik datoz (Schmitt eta Cencini 1991).

Barneko eta kanpoko ordainketen banatze absolutuak aurrezki nazionala babesten du. Ordainketen sistemaren ordena banku-automatismotik etorriko da, ekonomia nazionalean *iragazkia* sartuz, zeinak esportazio guztiak herrialde bereko inportazio baliokide bilakatzen dituen bat-batean, fluxu/errefluxu legez. Honela, pentsa daitekeen merkataritza-liberalismorik handienean ere, herrialdea kanpotik erabat mozturik egonen da.

11.3. NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia nazionala produkzio-ekonomia da, nazioarteko ekonomia elkartruke-ekonomia den bitartean (Schmitt 1984c;1988a,b; Schmitt eta Cencini 1992). Produkzio guztia ekonomia nazional desberdinetan ekoitzi eta bertan monetizatzen da.

Edozein nazio monetario *multzoa* da. Egun ekonomia nazionalak irekiak direnez gero, nazio bakoitzak *bi multzo ezberdin* osatzen ditu, beraien agenteak barrura ala kanpora begira dauden arabera. Izenda ditzagun bi multzo horiek E eta E^*.

E: barrura begira dauden agenteen multzoa.
E^*: kanpora begira dauden agenteen multzoa.

Bi definizioak unibokoak dira, eragile edo agente batek ezin baitu, eragiketa berean, barnerako eta kanporako ekin. E multzoari dagokio, baldin eta eragiketako

bere kidea herrialde berekoa bada, *egoiliarra* bada alegia. Alderantziz, eragilea kanpora dago begira, baldin eta bere kidea beste herrialde baten eragilea bada, alegia *ez-egoliarra* bada.

Beraz,

E multzoa *produkzio-ekonomia* da.
*E** multzoa *elkartruke-ekonomia* da.
*E*** multzoa *E** multzoen multzoa da, elkartrukeko mundu-ekonomia. Argi denez, *E* eta *E*** multzoen intersekzioa multzo hutsa da.

E multzoetako ordainketak moneta nazionaletan egiten dira. Gaur egungo sasi-sisteman, *E** multzoetako ordaiketak *ere* moneta nazionaletan egiten dira (dolarretan, kasu askotan). Hori ilogikoa da, gaur monetak bankukoak direnez, moneta eta produktuaren arteko beharrezko *identitatea* soilik *produkzio-ekonomiek* sortzen baitute. Hortaz, *E** multzoetan banku-moneta nominal hutsa da.

11.4. BANKU-MONETA NAZIONALETAN EGINDAKO NAZIOARTEKO ORDAINKETAK IRREGULARRAK DIRA

Demagun *E* eta *E** eta ondoko etsenplua (maiz gertatzen dena): *E*-n dagoen enpresa batek kanpoko kreditu-emaileei aurre egin behar die, eta enpresa dagoeneko herrialdeak ezin du ordainketa egin dibisarik ez daukalako.

Etsenpluan argi ikusten da, agentearen —hots, enpresaren— ordainketa eta herrialdearena bi gauza desberdin direla. Agentea gai da Estatuari —Altxor Publikoari— ordaintzeko, eta berau ez da gai kanpoari pagatzeko.


Ikus dezagun egoera hori bi multzoetan, *E* eta *E**.

E multzo barruan —produkzio-ekonomian— edozein ordainketa bi agente *egoiliarren* arteko fluxua da. Esan daiteke *E*-ren gaineko *E*-ren ordainketa dela: kreditatua den agentea eta zordundua dena *E* multzoari dagozkio.

Nazioarteko ekonomian, *E*-ren edozein ordainketak disjunktua den *E** multzoa inplikatzen du. Honela, logikoki, ezinezkoa da agentearen inportazioak edo esportazioak agentea dagokion E-ren gaineko *E*-ren fluxura murriztea. Bi fluxu desberdinen aurrean gaude, Estatuari edo Estatutik —*E* multzoa 'pertsonifikatzen' duenari edo duenetik— egindako agentearen ordainketa eta Estatuak gainontzeko munduari egiten dion ordainketa.

Errepresenta dezagun *inportazio* baten ordainketa:

Agenteak Estatuari —kanpo-ordainketak Altxor Publikoak bereganatzen baititu—, eta horrek kanpoko munduari ordaintzen dio.



Inportazioaren ordainketa ez da *E*-ren gaineko *E*-ren gastua, *E**-ren gaineko *E*-rena baizik. Beste aldetik, agentearen ordainketa ez da *E**-ren gaineko gastua, *E*-ren gainekoa baizik. Beraz, ordainketa *bikoitza* da, lehen ordainketa eta bigarren ordainketa elkarren artean murriztezinak izanik.

Inportazioen ordainketa bikoitza izatea irregularra da jadanik; elkartrukeko ekonomietan —*E** eta *E***— ordainketak *bakunak* izan beharko lirateke, *E* produkzio-ekonomietan diren antzera.

Nazioarteko ordainketak bakunak ziren urre-patroiko sisteman; bikoitz (eta anormal) bihurtu ziren 1922an Genevan urre-elkartrukeko sistemarekin.

Urre-patroiko sisteman ordainketak bakunak ziren ondoko arrazoiarengatik: edozein inportazio fluxu erreala da, positibo eta negatiboa batera; positiboa bereganaturiko objektuarekiko eta negatiboa urrearekiko beraren kontrapartidan. Baldintza horietan, inportazioa *E* multzotik *E* multzora gauzaturiko eragiketa da, *E** multzoaren bitartez.

Nazioarteko ordainketen gaurko sasisisteman bizio sakona agertzen da. Moneta nazionaletan ordainduak izanik, inportazioak eta esportazioak ez dira *E*-ren gaineko *E*-ren erlazioak; aitzitik, *inportazioek E multzoak zorpetzen dituzte E** multzoarekiko*.

Egia da desordenaren errealitateaz oraindik duda daitekeela; hau da, zer dela-eta ordaintzen dira inportazioak birritan, baldin eta herrialde esportatzaileei behin soilik ordaintzen bazaie?

Eragozpena ez da zuzena. Herrialdeak behin bakarrik kreditatuak dira, baina badago inportazioen bigarren ordainketa: berak herrialdeetatik kanpoko *nazioga-beko kapitala* elikatzen du, '*offshore*' delakoa. Kapital *espekulatzaile* horrek bere burua elikatzen du. (Ikus 14. atala.)

Ordenak eskatzen du, nazioarteko espazioan, herrialde barruan bezalaxe, ordainketa guztiak *E* multzotik *E* multzora egitea.

Galde daiteke ea desordena benetan kaltekorra ote den. Eta izatez bada, batez ere bi arrazoirengatik. Bi kategoria hauetako herrialdeei egiten die kaltea —herrialde berberak injustiziazko bi era jasan ditzake jarraian—:

(i) Zorpetze bidean dauden herrialdeei; eta
(ii) zorpetzetik atera nahi dutenei.

Analisiak, ondorio gisa, bi emaitza kezkagarri azaltzen ditu, kasu bietan:

(a) Inportazio netoen ordainketa monetarioa *birritan* gauzatzen dute zorpetze bideko herrialdeek; eta

(b) lehen metaturiko zorren edozein ordainketa, interesetan edo zuzenean, *birritan* eskatzen da, alegia, *E* multzoak ordaindu behar du, nahiz eta zordunduriko agenteek jadanik ordaindua izan.

11.5. NOLA BERREZAR DEZAKEEN HERRIALDE BAKOITZAK BERE NAZIOARTEKO ORDAINKETEN ORDENA

Ez da behar inolako itzultzerik urre-patroira. Utopia litzateke hori egin nahi izatea. Moneta nazional guztiak aske daude urretik, eta historiaren kontra jotzea ezinezkoa da. Okerrago oraindik, urre-patroiaren aldeko den oro, gaur, nahitaez, *statu quo*-aren defendatzailea da. Munduak bere merkataritza banku-monetatan ordaintzen segituko luke —dolarretan batez ere—, urre-definizioa tramankulu juridikoa besterik ez izanez. Beste aldetik, urrea benetan inposatua izateko mehatxaturik balego, finantza-botere handiek debekatuko lukete; esperientziak horixe frogatzen du.

Esperantza beste leku batean dago. Behar diren neurriak errazak dira, herrialde bakoitzaren subiranotasunari dagozkiolarik.

Formula dezagun soluzioa. Herrialde batek bere kanpo-ordainketen ordena berrezartzeko, nahikoa eta beharrezkoa da bere egoiliarren edozein nazioarteko ordainketa, hartzekodun nahiz zordun, *E* multzotik *E* multzorako fluxu bihurtzea. Beste era batera esanda, kanpoko ordainketak ‘barneratuak’ izan behar dira, *barneko* eragiketen multzoan kokatuak.

Schmitt-en teoriari jarraikiz, lau ataletan banatuko dugu geure eginkizuna, honako gai hauek aztertuz: lehendabizi, herrialde batek bere zorra estaltzeko eduki dezakeen kopurik handiena berorren merkatal soberakina da; bigarrenik, zorra ordaintzean ordainketa bikoitza egiten da moneta sendo eta ahulen arabera; hirugarrenik, irtenbiderako proposamena; laugarrenik, proposamenaren mekanismoak, zordunen ordainketa bikoitzik gabe.

11.6. MERKATAL SOBERAKINA MUGA BEZALA


Harreman nazionaletan produktu eta zerbitzuen merkatuan mailegu-emailearen salmentak erosketak baino handiagoak dira. Mailegu-hartzaileak bere zorra betetzeko, interes eta amortizazioetan gastatzen duena baino gehiago irabazi behar du.

Nazioarteko harremanetan beste baldintza bat bete behar da. Izan ere, ez da nahikoa zordunak bere irabazien parte bat aurreztea; gainera beharrezko da zorduna bizi deneko herrialdeak irabazi netoa edukitzea.

Herrialde baten kanpo-irabaziek iturri bakarra dute, alegia, beren merkatal esportazioen soberakina.

Erabat ilogikoa da batera kanpo-zorraren ordainketak zordunen —publiko zein pribatuak izanik— eta beraiek bizi direneko herrialdearen solbentzia behar izatea. Zordunen irabaziak eta herrialdearenak ez daude nahasirik, nahiz eta zorraren tituluduna Estatua bera izan.

Keynes-en arabera (1980a,b), 'bancor' delakoaren emisioa nazioarteko ordainketen benetako sistema zen, horrela herrialdeak ez baitziren inoiz zorpeturik egonen. Keynes-ek ongi adierazi zuenez, kanpo merkataritza positibo zeukaten herrialdeetan sorturiko bancorrak bat-batean deuseztatu egiten ziren, inolako luzamendurik gabe nazioarteko bankuan baitziren ezarriak.



Soberakindun herrialdeek ez dute inolako kalterik jasotzen, edozein momentutan, 'beren gordailuak erretira baititzakete', bancor berrien sormena inplikatzen duen eragiketaren bidez. Jarduera-mota hori herrialdearen barne-ordainketa monetarioen antzekoa da. Gordailu-ezarleak ez dauka inolako eskubiderik bankuaren zordunengan; beraren eskubide bakarra etorkizuneko ordainketa lortzea da, eta bankuak helburu horretarako moneta sortzen du.

Kanpo-ordainketak bancorren bidez gauzatuko balira, defizitdun herrialdeek ez zuketen ezelako zorrik soberakindun herrialdeekiko. Nazioarteko Bankuarekiko ere ez zuketen edukiko inolako zorrik, ez baitziratekeen beharturik egonen merkataritza-esportazio soberakindunak egitera etorkizun hurbil edo urrunean.

'Bancor'-sisteman, mailegu-hartzaileak —sektore pribatu zein publikoan egonik— herrialdearen barnean bere erosketa netoen finantzaketa hartu balute bezala dira tratatuak. Bancor-sisteman herrialdeak ez daude zigorturik: kanpo-zorra soilik eta erabat zordunei dagokie, berauek egoiliarrak edo Estatua bera —egoiliar bezala— izanik.

Nazioarteko ordainketen egungo sasisistema ilogikoa da, kanpo-zorraren zama *birritan* ezartzen delako; zordun pribatu edo publikoek erabat jasotzen dute kanpo-zorra, eta, hala ere, beraiek bizi direneko herrialdea kopuru berberaz da zordundua. Kanpo-zorpetze bikoitz horrek hartzekodunei zorra ordaintzeko posibletasuna murrizten du erabat.

Bere merkataritza-soberakin normaletatik baino areagoko konpromisoak bete nahiko lituzkeen edozein herrialdek porrotera joko luke.

Demagun herrialde batek, epealdi kontretuan, 3.000 milioi dolarreko kanpo-zorra duela, eta une berean beraren merkataritza-balantzaren soberakina 500 milioi dolarrekoa dela. Litekeena da kanpo-zorraren ordaintzea zordunek babestea —hau da, 3.000 milioi dolar ordain dezakete beren moneta nazionalean—, baina formalki ezinezkoa da herrialdea bera askatzea, beraren kanpo-salmenta netoen muga zehatzetan ez bada —hortaz, 500 milioi dolarreko mailaraino—.

Suposa dezagun, beraren konpromisoei aurre egiteko, herrialdeak erabakitzen duela bere kanpo-zorraren amortizazioa eta interesak ordaintzea, 3.000 milioi dolarreko mailaraino. Herrialdeak, hortaz, truke-merkatuan 3.000 milioi dolar eskatzen du bere monetan —mexikar pesotan, adibidez—. Eskari horrek bi alde du:

(i) 500 milioi dolar pesotan eskatzen dira, dolarretan pesoen eskaintza baliokidearen kontra. Izan ere, gainontzeko munduak 500 milioi dolarreko baliozko pesoak eskatzen ditu, herrialdearen esportazio netoak ordaintzearren.
(ii) 2.500 milioi dolar pesotan eskatzen dira, gainontzeko munduak dolarretan inolako pesoen eskaririk egin barik.

500 milioi dolarreko eskariak, beste eskari baten aurrean adierazia denez, ez du desbalioztatzen herrialde zordunaren moneta. Baina beste eskariarekin, 2.500 milioi dolarrena, aldrebes gertatzen da: kasu honetan, dolarrak pesotan eskatzen dira, pesoa dolarretan eskatu barik. Ondorioa ezaguna da teoria ekonomikoen mota guztietan: ondasun baten gehiegizko eskariak bere prezioa altxarazten du, kasuan dolarra desegokiro gainbalioztatuz. Herrialdeak ezin dio bere monetaren kanpo-balioari eutsi, bere merkataritza-irabazietatik baino harantzago, bere kanpo-zorra ordaintzeari uko egiten ez badio.

Logikak ezarririko muga hori igarotzerakoan, herrialdeak bere etorkizuneko trukeetan bigarrenez jasaten du bere kanpo-zorraren ordainketaren sakrifizioa —'trukearen terminoen' gaizkotzeagatik, zeinak monetaren gainbalioztatzea induzitu duen—. Barneko urritasuna dela eta, bere kanpo-zorra ordaindu nahi duen herrialdeak —etsenpluko 3.000 milioi dolarreko mailaraino, berak 500 milioi besterik irabazten ez duenean—, bere etorkizuneko trukeetan *berriro* galdu eginen du, ganoragabeki ordainduriko 2.500 milioi dolarreko kopuru zehatza.

Kanpo-zorrari buruzko nazioarteko akordioetan, herrialdeek ordainketen epeak errespetatzeari uko egin beharko liokete: izan ere, inor ez dago beharturik ezinezkoa egitera. Logikak permititzen duen konpromezu bakarra hauxe da, alegia, merkataritza-soberakin normalen kopuru osoa erabiltzea kanpo-zorra ordaintzeko.

Honela, argi ikusten da herrialde zordunak zer-nolako iruzurretan aurkitzen diren; beraien barne-ekonomiaren garapenaren erritmoa edozein delarik ere, kanporako ordainketak gauzatzeko formalki murrizturik daude. Gehienez, beren esportazioak areagotu ditzakete eta inportazioak gutxitu. Hartzekodun herrialdeetan ere langabeziarekin bukatzeko ez dago ezelako politika ekonomiko ezagunik. Eta kanpo-ordainketen erreformaren ezean, eta herrialdeen zor-'barkamena' gertatu ezean, gobernuak daukan neurri bakarra barne-eskaria murriztea da, ekonomia nazionalak soberakin esportagarria izan dezan. Baina, bestalde, nola segurtatu soberakina benetan esportatua izanen denik? Alderantzizko kasuan, agintariek langabezia gehitu besterik ez lukete eginen. Kanpo-zorra ezin du inoiz urritasun batek garbitu, baldin eta azken honek enpleguen galera badakar.

11.7. MONETA SENDO ETA AHULEN BORROKA DESBERDINA

Dibisen eskaria ondasun eta zerbitzu errealen eskaintzan oinarritzen ez bada, 'alde batekoa' da, epealdi berean dibisen jabeek moneta nazionalaren baliokide den kopurua eskatu ez badute. Hola, 'alde bateko' edozein eskari, izatez, edozein ekonomi eskolak soberakin-eskaria deritzotena da.

Teorialari guztiak batera datoz ondoko puntuan: soberakin-eskaria eskaturiko ondasunaren prezioaren igoerak deuseztatzen du. Dibisak, kasu, pesotan eskatuak direnez, pesoak dibisatan eskatu barik, dibisen prezioa —hots, truke-ganbioa— handitu egiten da pesoekiko konparazioan.

Ondorioz, pesoak beheranzko presioa jasotzen du, dibisen eskaria —pesotan— pesoen eskariaren kontrapartida —dibisatan— ez bada, edo ekonomiak produzituriko ondasun eta zerbitzuen eskaintzaren kontrapartida ez bada. *Bistakoa da pesoak ezin diola eutsi bere kanpo-balioari*, agenteen bi kategoria horiek —pesotan dibisen erosleak eta saltzaileak— simetrikoki truke-merkatuan aurkitzen ez badira. Nahi diren dibisen salmentak nahi diren dibisen erosketak baino handiagoak badira, pesoa gainbalioz-tatu egiten da; alderantzizko kasuan, pesoa debaluatu egiten da. Trukeen kontrolak egokitzea beranduago gertatzea besterik ez luke eginen.

Trukeen legea, mota guztietako monetetarako berbera izanik, zergatik dira zorpeko herrialdeen monetak dibisak baino ahulagoak? Lehen zioa hauxe da: zorpeko herrialdearen moneta, pesoa kasu, indar zentrifugoaren menpe dago, kapitalen ihesa 'alde bateko' fenomenoa izanik erabat. Bigarren zioa hauxe da: zorpeko herrialdeek beren monetaren eskaria gauzatu ahal izateko, bide bakarra dute, alegia, herrialdeak eskatzen duen kanpo-ondasuna baino ondasun nazional gehiago eskaintzea.

Estatu Batuak ez daude behar horren menpe: beren merkataritza-balantzaren ikaragarrizko defizita —1985ean, gutxi gorabehera, 150.000 milioi dolar— jasan dezakete, beren monetaren kanpo-balioari eragin barik. Dolarra 'sendoa' da, beren balioa estatubatuar esportazioetatik at baitago. *Par excellence*-ko erreserba-moneta horren aurrean, zorpeko herrialdeen moneta ezin da babestua izan, ez badu populazioak itzelezko esfortzua egiten ez badu, gogorki lan eginez merkataritza--soberakina lortu ahal izateko, zeinaren portzentaia handi bat —batzuetan %50 baino gehiago— soilik kanpo-zorraren interesak ordaintzeko zuzendurik dagoen.

Badago larriagoa den beste gauza bat: kanpo-zorra kitatzeak zorpeko herrialdearen monetaren debaluazioa dakar, nahiz eta dibisen eskaria esportazio netoak babesten duen.

Maila nazionalean berdin dio edozein moneta erabiltzea, enpresek sortzen baitute moneta (langileek alegia). Kontua da bankugintzaren kontabilitatea *ongi* eramatea.

(Hortaz, Euskal Herriari dagokionez, Hego *eta* Ipar Euskal Herrian bi moneta desberdin, pezeta eta libera, erabiltzeak ez du, berez, kalterik egiten. Arazoa agertzen da Iparraldeak Hegoaldeari, edo alderantziz, zerbait saltzen edo erosten dioenean, nazioarteko sasi-ordainketak baitira. Beste aldetik, esportatzen den Hegoaldekoaren produkzioa, eta bertara inportatzen dena, Hegoaldetik baino harantzago doan pezetaren menpe dago. Beraz, ez dago gure beharrizanen menpe neurtuta Hego Euskal Herriaren kanpo ordainketen balantza. Arazo bera Iparraldean liberarekin.)


Zorpeko herrialdearen monetak esportazio netoen emaitzak deuseztatzen dituen ondorio txarra jasaten du. Hemen agertu den argudioa ez du 'zientzialarien komunitateak' onartu, eta kanpoari egiten zaizkien ordainketen erreforma sakona eskatzen du.

Argudioa honelakoxea da:

(i) Demagun, harturiko epealdian, zorpeko herrialdearen merkataritza-esportazio netoa 500 milioi dolarrekoa dela. Orduan herrialdeak kopuru horretarako banku-gordailuak dolarretan eskatzen ditu (barnean edo atzerrian).
(ii) Merkataritza-esportazio netoen irabazia moneta materialetan izanen balitz, herrialdearen agintari monetarioen esku egonen litzateke, zeintzuek bera (sektore pribatu edo publikoko) agente zordunei utz diezaieketen, dagokien ordainketa dela bide.
(iii) Baina, urre-patroia dolar-patroi bilakatu den heinean, merkataritza-esportazio netoen ordainketa (beste ordainketa guztiak bezalaxe) banku-monetatan gauzatzen da, eta ez moneta materialetan. Bere esportazio netoetatik, herrialdeak dibisatan osaturiko gordailua eskuratzen du orduan, hots, kreditua dibisatan, eta ez kreditu horren objektu diren dibisak berak.

(iv) Aurreko puntutik ondorioztatzen da, bere merkataritza-esportazio netoak direla kausa, herrialdeak dibisak irabazten dituela, baina ezin diezaizkiekeela eman kanpo-zorraren eramaileei (pribatu zein publikoei), transakzio tripolar baten bidez ez bada, dolarrez gordailua osaturik egoten direneko bankuak eragiketa horretan halabeharrez inplikaturik egonez, gordailua herrialde berean edo atzerrian egonik.

(v) Konturatzen gara herrialdeak ez dituela dibisak irabazten, dibisetako gordailuak baizik. Herrialdeak dibisak irabaziko balitu —egoera hori soilik urre-patroi sisteman gauzatzen da—, kanpo-zorraren eramaileei zuzenki salduko lizkieke. Dibisak banku-monetak izanik, herrialdeak, bere izaeraz, berehala beren jatorrizko bankuetan berrezarriak diren dibisak irabaz ditzake soilik. Ondorioz, bankua ezin da izan berak irabazitako dibisen jatorrizko saltzailea; kanpo-zorraren kitatzaileen eta dibisen banku gordatzaileen arteko transakzioan, bitartekaria besterik ezin da izan herrialdea.



A eragiketan, kanpo-zorraren eramaileak dibisak erosten ditu pesoen bidez. *B* eragiketan, zorpeko herrialdeak bere gordailuak dibisatan berreskuratzen ditu. Dibisak banku-monetak izanik, *B* eragiketa halabeharrezkoa da, eta jadanik esportazio netoetan irabazitako dibisen erreskatea eta erosketa esan nahi du, zorpeko herrialdearen partetik.

(vi) Ondorioa garrantzitsua da oso: dolar-patroi sisteman, zorpeko herrialdeak ezin du bere kanpo-zorra —amortizazioetan eta interesetan— kitatu, zorraren agente eramaileei, nahiz eta Estatua izan, uzten kanpo-merkataritzaren soberakinean irabazitako dibisatako gordailuak berreskuratzen uzten ez badie. Erreskate hori erosketa izanik, pesotan dibisen eskari netoa da. Beraz, nahiz eta harturiko epealdian herrialdeak bere kanpo-merkataritzan 500 milioi dolar irabazi, ezin du kopuru hori erabili bere kanpo-zorra ordaintzeko, agente zordunak gordailuetako dibisak erostera behartzen ez baditu. Dolar-patroi sisteman, interesak —eta azkenik amortizazioak— kitatzeko, egoiliarrak beharturik daude herrialdeak jadanik ondasunetan merkataritza-esportazioetan ordainduriko dibisatako gordailuak erostera.

'Zorraren kitatze bikoitzak' —ondasunetan eta gainera monetatan— kanpo-zorra *betiko* zor bihurtzen du.

11.8. GAIZKOTZEA ELKARTRUKEAN

Segi dezagun etsenpluarekin: zorpeko herrialdeak 500 milioi dolarreko merkataritza-superabita lortu du; kopuru hori bere kanpo hartzekodunei transferitu ahal izateko, zorraren zerbitzuek pesotan kopuru baliokidea gastatu behar dute. Arazo guztia baliokidetza horren determinazioan datza: pesotan dolarren gehiegizko eskaria, kanpo-zorraren ordainketatik sortua, gutxitzeko beharrezko den dolarraren truke-tasaren gehitzetik dator.

Kanpo-zorra ordaindu bezain laster, eta elkartrukearen baldintzen gaizkotzea dela kausa, zorpeko herrialdeak bere etorkizuneko elkartrukeak kargatzen ditu zehazki zorra kitatzeko neurri berean. Hau da, kanpoari egiten zaizkien ordainketek honelaxe funtzionatzen dute: bere zordunengandik ordainketa jasotzen duten unean, herrialde hartzekodunek osoki pasatzen diete zor bera herrialde zordunei, elkartrukea dela bide.

Nola apur daiteke gurpil-zoro hori, kanpo-zorra, interesak edo amortizazioa ordaintzen direnean birsortzen denekoa? Irtenbidea funtsezko erreforman datza.

11.9. IRTENBIDERAKO PROPOSAMENA: SUBIRANOTASUNA

Gainontzeko munduarekiko bere harreman ekonomikoetan, edozein herrialdek subiranoki bere barnean ordena jar dezake. Helburua hauxe da, kanpo-zorrari egindako ordainketek ordainduriko zorraez sorraraztea.

Egiazkoa ote da zorpeko herrialdeak bere zorra berrezarrita eta irauneraziita ikusten duela merkataritza-soberakina (sakrifizio handiez) lortzen ahalegintzen den bakoitzean? Izan ere, halaxe da. Egia esan, ez dira hartzekodunak ‘engainatzen’ dutenak. Desordena desordena monetariotik dator, zeina, nazioarteko mailan kaltegarri den oso. Interesen edo kapitalaren ordainketen epemuga bakoitzean, herrialdea berriro dago zorretan murgilduta, ez hartzekodun indibidualen mesederako, beraren monetaren kanpo-balioaren kalterako baizik (beronek dakartzan barneko eraginekin).

Non daude kanpo-merkataritzan debaluazioaren abantailak, baldin eta beraren ondorioak barne-prezioen gehitzeak (etengabeki berritua berau) eskuratzen baditu?

Dolar-patroi sisteman, zorpeko herrialdearen monetak etengabeki elikatzen du dolarra. Izan ere, aurreko kasuan, herrialdearen merkataritza-esportazioan irabazitako dolarrek pesoak sortzen dituzte, pesoek inolako dolarrik sortzen duten bitartean ez herrialdearen barnean ez kanpoan.

Demagun merkataritza-esportazio netoak ditugula soilik: horrela irabazitako dolarrek ez dute pesoaren gaineko ezelako eskaririk sortzen, peso baliokideak *ex-nihilo*, ezerezetik sortuak baitira, aurre-determinatutako elkartruke-tasan.

Trukean, kanpo-zorrerako zuzendurik egon behar diren dolarrak ordainketa baino lehenago existitzen dira. Zorraren eramaileak askatu egiten dira, jadanik existitzen diren dolarren kontrako pesoak eramanez: honek, zorraren zerbitzuak pesotan dolarren eskari netoa inplikatzen duela esan nahi du.

Ondorioa hauxe da: sartzen diren dolarrak ez diote pesoari on egiten, zeinaren balioa ez den gehitzen truke-merkatuan. Irteten diren dolarrak pesoaren kontra aritzen dira, zeinaren barneko eta kanpoko balioa horrenbeste gutxitzen den.

Arazoaren irtenbidea patologiaren kontzientzia hartzean datza. Irtenbidea erraza da: zorra behin eta berriz ez birpiztearren, nahikoa litzateke kanpo-ordainketak kontrola ditzakeen arau berri bat martxan jartzea, ordainketa horiek barneko ordainketei gehi ez dakizkien, eta soilik nazioarteko espazioan erabil daitezen.

Kanpo-ordainketen logika berri bat erabil daiteke: barne- eta kanpo-ordainketak elkarri gehitu barik, gaur egun gertatzen den moduan, zirkuituak erabat bereiz daitezen lortu behar da: kanpo-ordainketak —hartzekodun eta zordunenak— dagozkien barne-ordainketekin ez daitezen izan inolako kontaktutan egon.

Dolar-patroi sisteman, berori ekonomia nazionalean sartzen da, Mexikorenean kasu, peso gehigarriak sorreraztea bultzatuz. Bere aldetik, pesoa gai da bere herrialdetik at irteteko, gainontzeko munduaren monetetan efektu bera produzitzeko gaitasunik izan gabe. Asimetria hori kaltegarria da, eta saihets daiteke baldin eta, sistema berriaren arabera, pesoa ezin badaiteke Mexikotik irten, ezta dolarra —edo beste edozein dibisa— Mexikon sartu ere. Egiaz, helburu bikoitz hori ezin lor liteke banku-bileteei zuzendurik egonen balitz. Baina soilik merkataritza-bankuetan ezarrita dagoen monetari zuzenduta dago, eta horrekin nahikoa da.

11.10. EGOILIARREK SOILIK BEREN MONETA NAZIONALA ERABILIKO LUKETE

Gaur egungo ez-sisteman edo sasi-sisteman, egoiliar batek pesotan zordunketa-eragiketa batean —eta korrelatiboki dibisatan kreditu-eragiketan— atzerrira ordaintzen du. Alderantziz, atzerrian saltzaile diren egoiliarrei pesotan beren kontuen kredituaren bidez ordaintzen zaie, eta dibisatan ez-egoiliarren kontuaren zordunketaren bitartez. Kasu bietan, pesoak eta dolarrak topo egiten dute, are gehiago, elkarren aurka daude, ikusi dugun moduan, dolarra irabazlea izanik beti, zeren dibisek pesoak sortzen baitituzte esportazio netoen ordainketarako, zorraren ordainketa dela kausa, ordainduriko pesoak aurretik irabazitako dolarretan eramaten diren bitartean.

Irtenbidearen printzipioa hauxe da: atzerritik datozen eta atzerrira doazen ordainketak besterik ez ditugu kontuan hartu behar:

(a) Irabazitako pesoak barne-merkatu finantzarioan gutxituak dira (maileguaren bidez).

(b) Gastaturiko pesoak barne-merkatu finantzarioan dira ezarriak.

(c) Irabazitako dibisak kanpo-merkatu finantzarioan dira ezarriak.

(d) Gastaturiko dibisak kanpo-merkatu finantzariotik dira maileguz hartuak.

Baldintza horietan, esportatzaileei ezin dakieke ordain dibisatan, pesotan baizik, eta inportatzaileek ez lukete dibisatan ordainduko, pesotan baizik. Izan ere, atzerrirako ordainketak *nazioartekoak* dira; sistema berrian, ordainketak *barneratuak* izanen lirateke. Inportazio eta esportazioen ordainketak pesotan soilik gauzatuko dira, dibisak barne-zirkuitu monetarioan sartu gabe.

Errepika dezagun: 'benetako dibisak' dira, hots, banku-sistema estatubatuarrean ezarritako dolarrak, eta ez 'bilete berdeak', zeintzuk gordailu-zertifikatuak besterik ez diren. Plana banku-monetari dagokio —'*book-entry money*' deitzen denari—, hau da, gordailu-bankuak erabiltzen dituen kontu normaletan idatzirik dauden kreditu eta zordunketa guztiei.

Askotan moneta 'substantzia' batekin nahasten da; izatez, moneta erabat ez-materiala da, monetak eta bileteak banku-monetaren lekukoak besterik ez dira, zeina, bere izaeraz, emititu duten bankuetatik ezin den irten.

Atzerrirako ordainketak barneraturik egonik, zorpeko herrialdeek beren zorra kitatuko lukete merkataritza-balantza positiboa izanen litzaketeen epealdietan.

Gaur egungo sasi-sisteman, herrialdearen merkataritzan irabazitako dolarrak ezin dakizkie transferitu atzerritar hartzekodunei, zorpeko egoiliarrek dolarren kontrako pesoak gastatzen ez badituzte. Hori egiazkoa da, baita zorpeko enpresak beren esportazioetan dolarrak irabazten dituen kasuan ere: eragiketa bankuen bidez doa, eta enpresak pesotan dauzka zordunketa eta kreditua. Beraren azken jasotzaileei —atzerritar hartzekodunei— irabazitako dolarren transferentzia dela kausa, gastaturiko peso guztiek moneta mexikarra 'hondoratzen' dute.

Sistema berrian, zordunduek pesoak transferituz ordaintzen dute, zeintzuk ez diren eskaintzen dolarraren kontra truke-merkatuan; aitzitik, barne-merkatu finantzarioan dira ezarriak. Fluxuak jarraikoak dira:



Kanpo- eta barneko-ordainketan erabateko bereizketak Ministerioari barnean pesotan des-zorpetzea ahalbidetzen dio, dibisatan herrialdeak atzerriari zorpetzen dion neurri zehatzean.

Atzerrirako ordainketen sistema berriak, bere diru-sarrera nazionalean, sektore pribatu edo publikoko egoiliarrek ordainduriko kanpo-zorraren baliokide zehatza ematen dio Finantza-Ministerioari, interesetan eta kapitalean.

Bereiz ditzagun kanpo-zorraren —interesa eta kapitala— ordainketen urte-ondainsaria. Lehen urte-sariaren unean, herrialdearen banku-sistemaren bitartez, esportazio netoak ordaintzeko behar diren pesoak sortzen ditu Finantza-Ministerioak.

Harturiko epealdian, kanpo-merkataritzak herrialdeari *z* dolarreko irabazi netoa ematen dio. Indarrean dagoen truke-tasaren arabera —sistema berrian ez litzateke behar bikoitza izan—, *z* dolarrek *x* peso berdintzen dute. Kanpo-soberakinak egoiliarrei, sektore pribatu zein publikokoak izan, kopuru honetarako kanpo-zorrari beren ordainketak gauzatzea ahalbidetzen die, moneta nazionala arriskuan jarri barik. Izan ere, bankuen bidez kreditatu barik, egun egiten den moduan, egoiliarrek beren herrialdeko Finantza-Ministerioari kreditatzen diote pesotan. Ez litzateke ezer aldatuko, egoiliarraren ordez, Finantza-Ministerioak banku-eragiketa egingo balu: kasu honetan *x* pesoak era guztietan truke-merkatura eramango lirateke, non atzerritar hartzekodunei *z* dolar baino kopuru gutxiagoaren —dolarren gehiegizko eskariak pesoaren balioa murriztuko bailuke— transferentziaren kontra utziak izanen liratekeen.

11.11. HERRIALDEAK BERE ZORRA ORDAIN DEZAKE

Sistema berrian Finantza-Ministerioak ez ditu gastatzen *x* pesoak truke-merkatuan: horren ordez, barne-merkatu finantzarioan berehala jartzen ditu; horrek esan nahi du, herrialdeko bankuetan gordailutan uzten dituela, esportatzaileei ordaintzeko erabili behar dituen unea iritsi arte. Pesoak dolarretan ez trukatzean, kanpo-zorraren zerbitzuak ez dakar pesoaren inolako debaluaziorik, eta logika berrezartzen da.

Nola ordaintzen zaie atzerritar hartzekodunei? Erantzuna erraza da: Finantza-Ministerioak herrialdearen merkataritza-soberakinekin irabazitako *z* dolarrak transferitzen dizkie.

Ematen du ez dela ezer aldatu ordainketen egungo sasi-sistemarekiko, baina, izatez, dena aldatu da: gaur *z* dolarrak ezin dira transferitu atzerritar hartzekodunen alde, *x* pesoak truke-merkatuan dolarren truke uzten ez badira. Plan berriaren arabera, herrialdeak *z* dolarrak transferitzen ditu, truke-merkatuan inork erosi barik, kanpo-merkataritzan jadanik eskuratuak izan baitira. Honela, herrialdea gaur egun aurkitzen den larrialditik irteten da; hortik aurrera, bere zorra ordain dezake —kapitalean eta interesetan— bere monetaren balio justuari eutsiz. Dolar-patroi sistemak, alta, zorpeko herrialdearen monetari, merkataritza-soberakinak lortzeko, bere zorra gutxitzearren edo gutxienez ez gehitzearren, eginen duen edozein esfortzu ordainarazten dio, moneta debaluatuz.

11.12. EZETZA ZORDUNKETEN ORDAINKETA BIKOITZARI

Garaia da herrialdeen kanpo-zorraren ordainketak sistema berri baten menpe egon daitezen, banku hartzekodunen interesei kalte egin barik. Ordainketen barneko eta kanpoko fluxuen erabateko bereizketak, Finantza-Ministerioaren eskutik lortua, herrialde bakoitzean ordena monetarioa berrezarriko du.

Derragun, hasteko, ordainketen fluxuen bereizketa hori ez dagoela inon. Beraz, lehendabizi, aurre egin behar diogu ortodoxiari.

Dolar-patroi sistemaren desfuntzionaltasunaren izaera zehatza zein den ez dago argi. Hala ere, arazoaren argitzea erraza da: zorpeko egoiliarrek ezin dute beren atzerritar hartzekodunen aldeko transferentzia lortu herrialdearen esportazio soberakinaz irabazitako dolarrekin, truke-merkatura beren pesoak 'alde bateko' dolarren truke eramaten ez badituzte. Herrialdeak, orduan, bere monetan, bere egoiliarren des-zorpetzearen edozein onura galtzen du. Azkenik, kanpo-zorrak zutik dirau bere osotasunean, nahiz eta herrialdeak, gainontzeko munduaren onurarako, bere barneko produktu errealaren sakrifizioa jasan, bere merkataritza-balantzaren soberakinaren neurrian.

Hori absurdua eta eskandalagarria da. Gaixotasuna zehazki ezaguturik, erremedioa bistakoa da: beharrezkoa eta nahikoa da merkataritzan irabazitako dolarrak atzerritar hartzekodunei transferituak izatea, eragiketa truke-merkatuan gauzatu barik. Horretarako, zorpeko egoiliarrek Finantza-Ministerioari ordaintzen diote, zeinak, honela lorturiko pesoak truke-merkatura eraman barik, barne-merka-tu finantzarioan ezartzen dituen, esate baterako, Altxor Publikoaren bonuak erosiz. Barnean ezarrita egonik, pesoak ez dira moneten merkatuan dolarrarekin 'neurtuko'. Hala ere, atzerritar hartzekodunek beren ordainketa jasotzen dute, Finantza-Ministerioak herrialdearen merkataritza-soberakinean irabazitako dolarrak zehazki transferitzen baititu. Ordena monetarioa berrezartzen da, herrialdeak irabazitako dolarrak zuzenki kanpo-zorraren zerbitzura zuzentzen baitira, zorpeko egoiliarrek helburu horretarako pesorik gastatu gabe.

Erakuts dezagun, laburki, ordainketen sistema berriaren funtzionamendua bi epealdi interesgarritan: (i) zorpetze bidean dagoen herrialdean —merkataritza--balantzaren defiziteko epealdiak—, eta (ii) des-zorpetze bidean dagoenean, gutxienez interesetan —merkataritza-balantzaren soberakineko epealdiak—.

11.12.1. Inportazioen ordainketa

Gaur gungo dibisa-patroiaren arabera, agente inportatzaileak Estatuari —Altxor Publikoak errepresentatua— ordaintze dio, zeinak, bere aldetik, ordainketa igortzen dion hartzekodun ez-egoliarrari.

Agente inportatzailea ⟶ Estatua (Altxor Publikoa) ⟶ Gainontzeko mundua

E eta *E** terminoetan,

Agente inportatzailea ⟶ *E* ⟶ *E**

Nahiz eta *E*-tik *E**-rako ordainketa igorri, birritan gauzatu da; izan ere, agente inportatzaileak bere errentaren parte bat gastatu du, baina herrialdeak *E* zordun izaten segitzen du, gainontzeko munduak *E*-tik *E*-ren gaineko kreditua bereganatzen baitu (bere borondatez bihur dezakeen kreditua).

Herrialdearen kanpo-ordainketen sistema berriaren arabera, agente inportatzaileak Estatuari ordaintzen dio, eta ez gehiagorik gainontzeko munduari Estatuaren bitartez: *E*-ren moneta nazionala ezin da gehiago *E**-ra iritsi.

Agente inportatzailea ⟶ Altxor Publikoa ⟶ Egoiliarra (titulu finantzarioen saltzailea)

Inportatzaileak Altxor Publikoari ordaintzen dio, zeinak gainontzeko munduari ordainketa igorri barik, *barneko* merkatu finantzarioaren gainean gastua gauzatzen duen. Honela, nazioarteko gastua 'barneratu' egiten da: bera egoiliarren artean definituriko fluxua da, beraz, *E*-ren gaineko *E*-ren gastua.

Agente inportatzailea ⟶ *E* ⟶ Egoiliarra

Edozein inportazioren ordainketa *E* multzora iristen da behin bakarrik positiboki eta negatiboki: gastua *E*-tik *E*-ren gainean ongi definitua da.

Kanpo-ordainketen sistema berrian, merkataritza-inportazio soberakinak direla kausa herrialdeak, jasaten duen zorpetzearen baliokide zehatza, bere moneta nazionalean ematen dio Finantza-Ministerioari.

Baldin eta, harturiko epealdian, herrialdearen egoiliarrek epealdi bereko esportazioak baino 1.000 milioi dolarretan handiago den kopuruko ondasun eta zerbitzuak inportatzen badituzte, ordainketen egungo sasi-sistemak Finantza-Ministerioari onura nulua ematen dio. Inportazio soberakinen ordainketen pesotan gastaturiko diru-sarreraren partea truke-merkatuan deuseztatzen da, herrialdearen erreserben erosketa dela kausa —inportazioak murriztea onartzen badu—, edo mailegu ofizial edo pribatuetan lorturiko dolarren erosketa dela bide. Plan berrian Finantza-Ministerioak dibisak galtzen ditu (bere Banku zentralean), edo bere akordioak gehitzen ditu —bere konturako edo egoiliar pribatu zein publikoen konturako—, baina, horien ordez, inportazio netoak ordaintzeko zuzentzen diren diru-sarreren kopuru osoa irabazten dute pesotan.

11.12.2. Esportazioen ordainketa

Soluzioa emanen dugu.

Egoliarra ⟶ Estatua ⟶ Agente esportatzailea
(tituluen eroslea)

Ez-egoiliarrak ordaindua izan barik, agente esportatzaleari Altxor Publikoak ordaintzen dio, zeinak, bere aldetik, errenta korrespontsala lortzen duen merkatu finantzario nazionalen gaineko maileguaren bidez.

Baina, nola saihets daiteke oinarrizkoa den ondoko galdera hau? Ordainketak 'barneraturik' egonik, zeintzuk izanen dira aurrerantzean, herrialdearen eta gainontzeko munduaren arteko erlazioak, hau da, *E*-ren eta *E**-ren artekoak?

Erantzuna argia eta zuzena da: herrialdeak *kanpo*-merkatu finantzarioaren bidez ordaintzen du eta ordaindua da. Honela, inportazioen ordainketak kanpoan harturiko mailegua esan nahi du; eta esportazioen ordainketak, kanpoari emandako kreditua. Egiaztatzen da, orduan, *E*-tik gainontzeko munduarekiko edozein ordainketa, hartzekodun edo zordun, *E*-tik *E*-ren gaineko erlazioa dela *E**-ren bidez eta, ondorioz, *E**-tik *E**-ren gaineko erlazioa.

Bi galderak segitzen dute irekita:

Lehena hauxe da: Gai al da herrialdea oraingoz bere inportazioen ordainketa atzerriari maileguz emateko?

Erantzuna: herrialdeak berak bere maileguak —inportazioak— elikatu egiten ditu bere kredituen —esportazioen— bidez eta, beraren inportazioak garrantzi handiagokoak badira, mailegatu beharko du edozein sistematan, erreformatuan edo gaur egungoan.

Bigarren galdera hauxe da: egokia al da kanpo-ordainketak 'barneratzea'?

Erantzuna: *E* eta *E** multzoak disjunktuak dira, alde batetik produkzio-ekonomia, eta bestetik elkartruke-ekonomia; logika errespetatzearren, beharrezkoa da kanpo-ordainketa bakoitza eragiketa neutro bihurtzea, batera positibo eta negatiboa multzo bakoitzean, *E* eta *E** multzoetan alegia.

Beste galdera bat ere egin daiteke: zer dela-eta errespetatu behar da logika?

Geroxeago erakutsiko da, irabazi monetario konkretuetan, ordena mespreziatzeak zenbat kostatzen duen.


Esportazio guztiak moneta-sormenaren bidez ordaintzen dira; ez soilik merkataritza-esportazio netoak. Sistema berrian soilik merkataritza-esportazio netoak produzitzen dute moneta-sormena. Eta sormen hori soilik lehen urteko esportazio soberakinen ordainketarako gauzatzen da. Jarraiko urteetan merkataritza-esportazio netoak 'zirkulazio-fondoaren' laguntzaz ordaintzen dira, lehen urtetik eratua izan denaren bidez, eta, beraz, inolako moneta-sormen gehigarririk gabe. Orduan herrialdean inflazioa gutxituko da, edozein esportazio ordaindua izanen baita moneta-sormenaren bidez, gaur egungo sisteman epealdi bakoitzean esportazioen kopuru osoa monetak sortuz ordaintzen den bitartean.

Adieraz dezagun laburki 'zirkulazio-fondoaren' funtzionamendua kanpo-merkataritzarako.


Lehen epealdian, Banku Zentralak merkataritza-bankuetatik merkataritza-esportazio soberakinen ordainketarako sorturiko moneta-kopurua kentzen du, beharrezko gordailuetan. Honela eraturiko fondoa 'izoztu' egiten da, harik eta bigarren epealdiko esportazioak ordaintzeko momentura iritsi arte, eta honela jarraian.

n epealditarako, non *n* urte askotako kopurua izan daitekeen, moneta-sormen soil batek urte soil baten —esportazio netoak handienak direneko epealdiaren— esportazioak ordainduko ditu esportazio errealen mailan.

n epalditarako, $(n-1)$ epealditan ez da egongo esportazio-soberakinen ordainketarako moneta-sormenik. Eta, hala ere, $(n-1)$ epealdi bakoitzean, Finantza-Ministerioak pesotan kanpo-zorra pagatzeko bere egoiliarrek zuzentzen duten diru-sorrera osoa irabaziko du.



Eta *(q)* epealdiari —$(n-1)$-an dagoena— dagokiona honako hau da:



(q) epealdian, herrialdearen merkataritza-soberakinak 1.000 milioi dolarretan kanpo-zorraren zerbitzua ahalbidetzen badu, Finantza-Ministerioak, pesotan, kopuru horren baliokide osoa irabazten du.

Finantza-Ministerioak epealdi guztietan ere kanpo-zorraren zerbitzurako zuzenduriko diru-sarrera nazionalaren zatia irabaziko du —deszorpetzerako edo inbertitzeko, bi bideek paraleloki ekonomia nazionalaren garapenera eramaten baitute—.

Herrialdearen ekonomia zuzpertzeko, beste neurri batzuez pentsa daiteke. Ezagunak dira, agian ezagunena gastu publikoaren murrizte drastikoa izanik, eta horien efektuak kaltegarri diren oso.

Planak helburu zehatza dauka, alegia, egoiliarrek, —publiko zein pribatu izan— ordainduriko zorra herrialdearen gainean ezartzea baztertzea. 'Bigarren ordainketa' hori —erabat justifikaezin eta absurdua— saihestua izanen denez, barnean eta inflazioa gutxitzean, pesotan, Finantza-Ministerioak bere kanpo-zamaren gutxitzearen baliokidea irabaziko du.

11.13. MARTXAN EZARRIKO DUEN EDOZEIN HERRIALDERI ERREFORMAK MOZKIN HANDIAK EKARRIKO DIZKIO

Ikus ditzagun kontrakoak diren bi kasu: demagun herrialdearen (ondasun eta zerbitzuen) merkataritza-inportazioak edo esportazioak soberakinak direla harturiko epealdian.

11.13.1. Altxor Publikoaren irabaziak merkataritza-inportazio netoen kasuan

Gaur egungo sasi-sisteman, inportazio netoen ordainketa ez-egoiliarren eskuetara iristen da, ordainketa horrek aberastasun nazionalaren parte bat kanpo-espaziorako esportatzea berdintzen du.

Sistema erreformatuan, inportazio netoen ordainketak Altxor Publikoaren kreditu eta maileguen arteko diferentzia positiboa definitzen du. Merkataritza-inportazio netoek osatzen duten aberastasun nazionala ez da gehiago herrialdetik irteten: alderantziz, bera da Altxorraren irabazi netoa.

Egia da zaila dela merkataritza-inportazio netoen kasuan aberastasun positiboaz hitzegitea. Hala ere, gertaera logikoa da. Errentaren tituludunek halabeharrez aurrezten dute *barneko* ondasunak erosteko erabiltzen ez duten moneta. Emaitza hori erraz argudia daiteke. Egungo sasi-sisteman, herrialde defizitdunak birritan ordaintzen du: bere barneko errentaren parte bat atzerrira igortzen du eta dibisatan zordundu egiten da —Estatu Batuetako dolarra beraren moneta ez baldin bada—. Sistema erreformatuan, herrialde defizitdunak dibisak maileguz hartzen ditu, baina, kontrapartidan, beraren Altxor Publikoa aberastu egiten da inportazio netoen produktu monetarioarekin. Honela Altxor Publikoaren eskuetan aberastasuna eratzen da.

11.13.2. Altxor Publikoaren irabazia merkataritza-esportazio netoen kasuan

Ikus dezagun bere kanpo-zorra ordaintzeko bere merkataritza-soberakinak erabiltzen dituen herrialde zordunduaren kasua.

Nazioarteko ordainketen gaurko sasi-sistemaren arabera, esportazio netoetan irabazitako dibisek ez dute herrialde esportatzaileen moneta nazionalaren kanpo-baliorik gehitzen; horrela, irabazitako dibisek moneta nazional gehigarrien batura baliokidea ekartzen dute. Hala ere, zorraren zerbitzurako zuzenduriko dibisak zordunek —entrepresa publiko edo pribatuak— erosi behar dituzte: erosketa hori dibisen eskari netoa da herrialde zordunaren moneta nazionalaren terminoetan. Honela, ondorioz, herrialdeak bere monetaren kanpo-balioa gutxitzen du bere zorraren —kapital eta interesak— ordainketaren proportzio berean. Desordena agerikoa da.

Egiazko logika errespetatuko da esportazio netoak ordainketen —barneko edo *kanpokoak*— eskema orokorraren arabera izango direnean, edozein erosketa eta edozein salmenta *E*-ren gaineko *E*-ren erlazioa izanik. Honela, erreforma eta gero, herrialde zorpetuen Altxor Publikoak bereganatuko du, irabazi netotan eta edozein epealditan, kanpo-zorraren zerbitzurako zuzendutako merkataritza-esportazio netoen produktu monetarioa.

Merkataritza-esportazio netoetan eratua, herrialdearen aurrezkia Altxor Publikoak irabazia izanen da, moneta nazionaletan. Gainontzeko munduak oraingoz osoki bereganatzen du bere ordainketa, Estatuak kanpora (hartzekodunen onurarako) merkataritza-esportazio netoetan irabazitako dibisak atzera bidaliko baititu.

11.14. NAZIOARTEKO KAPITAL ESPEKULATZAILEA ETA KANPO-ZORRA

Dolar-trukearen sistemak —edo kasurako, beste edozein dibisa-trukerena—, eurodolarren —xenodolarrak nahi bada— izaera patologikoa sorrarazten du. Eurodolarren sormenaren prozesua dolarraren erabiltzeari —erreserba-moneta bezala— eta amerikar kanpo-defizitari lotuta dago. Estatu Batuek beren inportazioak ordaintzen dituzten bakoitzean, kanpoko banku bat kreditatua da, eta berorren balantze-orriaren aktiboaren aldean idatzitako dolarren kopuruak eurodolarren batura definitzen du. Eurodolarren gordailua dolarretan egindako gordailua denez, bistakoa da eurodolarren —xenodolarren— merkatua Estatu Batuen defizita handitzen den arabera hedatzen dela. Izan ere, amerikar defizitaren existentzia kanpoko dolarren gordailu positiboak egiaztatzen du.

Estatu Batuek gainontzeko munduari ordaintzen diotenean, beren monetan egiten dute, hau da, kanpora bidaltzen dutena beren zorraren onarpena da. Kanpoko bankuetan aktibo modura kontsideratua denez, amerikar moneta bere jatorrizko banku-sisteman dago oraindik gordailatuta.

Arazoa da, nazioarteko amerikar eragiketen gauzatzeak amerikar monetaren bikoizketa inplikatzen duela: amerikar banku-sisteman gelditzen den bitartean, kanpoko bankuetan sartua da berezko gordailu gisa. Euromoneten merkatuan eskura dauden dolarrak ez dira Estatu Batuetan dauden dolarretatik deberdin. Nazioarteko merkatuaren eragina dela kausa, edozein truke-tasaren aldaketa automatikoki pasatzen da etxeko monetara. Alta, eurodolarrak ez daude Estatu Batuetako agintari monetarioen menpe. Beraien mugimenduak espekulazioen arau aldakorren menpekoak dira. Dolarren bikoizketak —edo beste edozein dibisarena— erreserba moneta erabiltzerakoan, eurodolarrak sortuz —edo xenomonetak kasu orokorrean—, kapital espekulatzailea sorrarazten du, zeinaren izaera patologikoa moneten merkatuetan agertzen diren efektu desorekatzaileek behin eta berriz egiaztatzen duten.

Egungo sasi-sisteman kapital espekulatzailearen hazkundea garatu gabeko herriek (GGH) beren inportazioak handitzeko behar duten kanpo-moneta erostearen emaitza da. Herrialde horiek ondasunak soilik dolarretan —edo beste erreserba--monetatan— eros ditzaketenez gero, amerikar dolarrak lortu behar dituzte.

Bi aukera daude: dolarrak finantza-aktiboak salduz eskura ditzakete edo dolarrak maileguz har ditzakete euromoneta-merkatuan.

Bigarren kasuan, GGHek beren merkataritza-inportazioak gehi ditzakete, baina zorpetzeko baldintzapean soilik. Kanpo-baliabideak edukitzeko abantaila desagertuko lukete beren kanpo-zorren handitzeek, eta eragiketa guztiak herrialde horiek zeuden egoera baino are egoera txarrago batean jar ditzake.

Lehen aukerak hobea dela ematen du. Dolarrak kanpoko egoiliarrek inbertituko lituzkete eta, honela, GGHek eskuratuko lituzkete, beren finantza-balantzaren superabita dela kausa. Hala ere, aktibo finantzarioak amerikar egoiliarrek erosiko balituzte, kanpoan eraturiko dolar-gordailuetako gehitze batek berorien erosketa finantzatuko luke, beste edozein amerikar erosketa bezalaxe. Ondorioak ezagunak dira: eurodolarren masa gehituko litzateke eta kanpoan dagoen kapital espekulatzailea are gehiago handituko litzateke. Egia da, kapital patologiko horren parte bat GGHek eskuratuko luketela, baldin eta herrialde horiek Estatu Batuetatik beren inportazioak drastikoki handituko balituzte. Dena den, egiazkoa da halaber, herrialde horietan inbertituriko dolarren parte bat beste nonbait gastatua izanen litzatekeela; eta kasu honetan kanpo-aktiboen amerikar erosketak sorturiko eurodolarren kopurua ez litzateke gehitua izanen. Honela, egungo nazioarteko ordainketen sasi-sisteman zaila da ikustea nola, kontzilia daitezkeen herrialde aberats eta txiroen beharrizan osagarriak, kapital espekulatzailearen gehitze kaltegarriaren kontra borroka egiteko beharrizanarekin.

Gaur egungo sistemak GGHen gainean jartzen duen presioa eta kapital espekulatzailearen hazkundean daukan eragina beste anomalia garrantzitsu batek areagotzen ditu, alegia, kanpo-zorraren ordainketa bikoitzak.

GGHen kanpo-zorra gehituz joan da urtez urte azken hamarkadetan, esate baterako, 1988an 1.300 miliar dolarreko kopurura iritsiz, Estatu Batuen ordainketa--balantzaren defizita azken hogei urteetan gauzatu den bitartean.

Mekanismoa jadanik ezaguna da: beren kanpo-zorrak zerbitzatu behar dituztenez, kanpoko (erreserba)-moneta baten bidez, GGHek dolarren eskari behartua gauzatu behar dute, horrela beren etxeko moneta presio debaluatzailearen menpe ezarriz, zeina kanpo-mailegu hartzaile berri batek soilik neutralizatzen duen. Beren egoiliarrek ordaindua, kanpo-zorra bigarrenez ordaintzen du herrialdeak berak, eta bigarren ordainketa hau da, hain zuzen ere, nazioarteko ordainketen egungo erregimena karakterizatzen duena. Kanpo-zorraren emaitza gisa, dolar-trukeko erregimenean, zorpeko herrialdeak ondoko egoera paradoxikoaren aurrean aurkitzen dira: alegia, are zorpetzeago egoten dira beren kanpo-ordainketa gauzatu baino lehen. Egungo sistemarekin, GGHek beren kanpo-zorra zerbitzatzeko ordaindu behar duten prezioa hain da handia, non kanpo-zorra 'betiko zorrarekin' parekatzen baita. GGHek ezin dute beren zorra ordaindu, berek esportatzen dituzten produktuak edozein direlarik ere, eta erabiltzen duten moneta-politika nazionaletik independenteki.

Nazioarteko ordainketen sistema aldatu ezik, GGHen kanpo-zorra ezingo da ordaindu inolako baldintzatan; hori honela da, ordainketa-sistemak berak horrelako egoera sortzen duelako.

Kanpo-zorraren ordainketa bikoitzak badauka beste ondorio negatibo bat metaturiko euromoneten kopuruan. Izan ere, dolarren nazioarteko eskaria handituz, GGHen kanpo-zorraren zerbitzuak eurodolarren masan edo dentsitatean gehitze baliokidea ekartzen du, beraien emisio berria dela bide —dolarrak amerikar banku sistematik badatoz—, edo eurobankuen maileguen bitartez —GGHei egindako mailegua eurobankuek gauzatzen badute—. Kanpoan gordailaturiko dolarren gordailu-gehitze horrek nazioarteko kapital espekulatzailearen garrantzia areagotzen du, eta prezeski, kanpo-zorraren zerbitzu bikoitzaren onuraduna kapital patologiko hori dela erakusten du.

Nazioak ez dira mundu-sistemaren elementu bakarrak. Nazioarteko kapitala errealitatea da, dolar-trukeko erregimenaren funtzionamendutik zuzenki datorrena, eta erregimen horrek segituko duen artean, herrialdeak kapital espekulatzaile horren ondorio kaltegarriak jasaten jarraituko dute. Honela, kapital espekulatzailea zorren ordainketak direla kausa gehitzen den bitartean, gehitze horren ondorioak ez dituzte zorra zerbitzatzen duten herrialdeek soilik jasaten.

Estatu Batuen etxeko monetaren balioaren handitzearen ohiko kausei gehitu behar zaizkie, kapital espekulatzailearen mugimendu erratikoek truke-tasetan daukaten efektu aztoratzaileak. Azken urteotan ikusi diren dolarraren gorabeherako epealdi ez-kontrolatuak efektu horien etsenplu bat besterik ez dira, monetaren

egonkortasunaren eta espekulazio-interesen arteko egokiera iraunkorra lortzea ezinezkoa delarik.

Nazioarteko kapital espekulatzailearen iturria eta hazkundea, erreserba-moneta modura erabiltzen den moneta nazionalaren kanpo-gordailuei loturik daude, baita kanpo-zorraren ordainketa bikoitzari ere. Kasu bietan prozesu bikoitza jarri da martxan: Estatu Batuen ordainketa-balantzaren defizitak dolarren bikoizketa definitzen du —dolarrak batera aurki daitezkeen amerikar banku sisteman eta eurobankuetan—, eurodolarren masaren edo dentsitatearen gehitzea kanpo-zorraren zerbitzuari dagokion bigarren ordainketaren ezaugarria den bitartean.

12. Nazio monetarioaren subiranotasuna

"*This is how the gold exchange standard brought about an immense revolution and produced the secret of a deficit without tears, to the countries in possession of a currency benefiting from international prestige allowing them to give without taking, to lend without borrowing, and to get without paying*."

Jacques Rueff, *Gold exchange standard a danger to the West*

Pellokeria batez has gaitezke: munduko produktu guztiak ekonomia nazionaletan ekoizten dira. Nazio bakoitzaren aberastasun guztia nazio horren produkziotik dator. Entrepresa multinazionalen produktua ez da salbuespena; beste era batera esanda, transakzio internazionalen espazioak ez du ezagutzen inolako produkziorik.

Jacques Rueff ekonomialariak David Ricardo-ren emaitza sakondu zuen, aldarrikatuz ezen, nazioek ezin dutela monetatan ordaindu, ondasun errealetan baizik. Izan ere, elkartrukeak ez dira egiten monetatik ondasun errealetara, ondasun errealetatik ondasun errealetara baizik —alegia, *edukitik edukira*—, nahiz eta ekonomia erabat monetizaturik egon. Beraz, monetak nazioarteko esparruan duen zeregina aztertu beharra dago.

Schmitt-ekin batera (1984c), esan beharra dago ezen, bankuaren zereginak bereizteko, bankua bera *bi departamentutan* banatu behar dela. Honela, kanpo-departamentua Banku Zentralaren departamentua da, Altxor Publikoaren konturako funtzionatzen duena; departamentu horrek gainontzeko munduarekiko edozein naziok, multzo gisa harturik, dituen ordainketa hartzekodun eta zordunak gauzatzen ditu.

Nazioarteko ordainketaz arduratzen gara. Moneta 'nazionalek' ez daukate inolako konpententzia logikorik nazioarteko ordainketetan. Bretton Woods-en egondako eztabaida bertsua eztabaidatzeko, beste konferentziaren antzekoren bat antolatu beharra dago; honela, moneta berria agertuko da, saski-modukoa (Schmitt 1988b), zeinak soilik nazioarteko espazioan 'zirkulatuko' duen. Bien bitartean nazio monetarioek ezin dute itxaron.

12.1. NAZIO BATEN SUBIRANOTASUN MONETARIOA

Hemen azalduko diren neurriek, Schmitt-en liburutik harturikoak (1984c), edozein nazio monetariotarako balio dute. Demagun edozein nazio, *N* izenekoa,

(Euskal Herri independentea izan litekeena). Bi moneta bereiziko dugu: ***m*** moneta txikia, egoiliarren arteko ordainketa nazionaletarako; eta ***M*** moneta handia, gainontzeko munduarekiko *N* nazioaren ordainketa hartzekodun eta zordunak definituko dituena.

N nazioak ezin du itxaron, Europan euroa behar den moduan jaulki arte, edo eta, mundu mailan benetako nazioarteko moneta, bancorra edo antzekoren bat emititu arte, bere kanpo-eragiketak orekatu ahal izateko; eta, bere eskalan, ordena monetario berria sortu behar du.

Ikus ditzagun urratsak: suposa dezagun *N*-ren moneta 'nazionala' ***m*** moneta dela —esan den bezala, ***m*** barne-moneta, edo moneta 'txikia', eta ***M*** kanpo-moneta, edo moneta 'handia' bereiziko dira—.

N nazioak bere subiranotasuna berreskuratu beharra dauka, alegia, ***m*** monetak dolarren menpekotasunetik aske geratu behar du.

Aipatuko diren neurriak hartuko direnean, hots, Bankuaren erreforma eginda egonen denean, ***m*** moneta txikiak ez du edukiko inolako bermerik moneta atzerritarrean; beraren bermea *N* nazioaren produktu nazionala izanen da. Moneta txikia, ***m***, ez da *N* naziotik irtenen. Egia da inportatzaileak zordunduak eta esportatzaileak kreditatuak izaten direla ***m*** monetatan. Hala ere, bi ordainketek —hartzekodunak eta zordunak— zirkulua osatzen dute *N* nazioaren barruan: kanpo-departamentuak *barne*-merkatu finantzarioan inportatzaileengandik jasotako ***m*** monetak ezartzen ditu, eta esportatzaileei emandako ***m*** monetak ateratzen. Honela ***m*** moneta ez da inoiz eskatzen ez eskaintzen atzerrian, berorren zirkulazioa transakzio nazionaletan, egoiliarren artean eginda, mugaturik egonik.

Moneta handia, ***M***, *N* nazioaren —multzo modura hartuta— moneta da, ez egoiliarrena. Moneta handia, ***M***, gainontzeko munduarekiko *N* nazioaren, bere osotasunean, ordainketa hartzekodun eta zordun guztien erreminta da. ***M*** moneta handiak ez du N nazioaren produktu nazionalaren ezelako parterik jasoko, produktua erabat edukita baitago epe bakoitzean jaukiriko ***m*** moneta txikietan (Schmitt 1984a).

M moneta handiak bermea dauka moneta atzerritar batean. Logikoa da honela izatea, oraingoz dibisen patroiaren erregimen orokorrean bizi baikara.

Nazioarteko Moneta-Fondo *berriak* jaulkiko duen moneta *berria* (agian 'bancor' izan litekeena) —zeina 'saskia' izanen den— sortu baino lehen, *N* nazioak oraindik erreferentzia den dolarra besterik ezin du erreferentziatzat eduki, edo beste kontu-moneta bat, euroa existituko denean adibidez.

12.2. INPORTAZIO ETA ESPORTAZIOEN ORDAINKETAK N NAZIOAREN BARNEAN

i) *N* nazioaren barruan, egoiliarren arteko transakzioak ***m*** monetan barnetrukatzen dira.
ii) Egoiliar inportatzaileek (eta esportatzaileei) ***m*** monetan ordaintzen dute (eta ordaintzen zaie).
iii) Inportatzaileek gastutako ***m*** monetak *N* nazioaren Banku Zentralaren kanpo-departamentura iristen dira, Bankuak barneko finantza-merkatuan ezartzen dituelarik.
iv) Esportatzaileek eskuraturiko ***m*** monetak *N* nazioaren Banku Zentralaren kanpo-departamentutik datoz, Bankuak barneko finantza-merkatuan maileguz hartzen dituelarik.
v) *N* nazioaren kanpo-departamentuak Altxor Publikoaren konturako funtzionatzen du. (Kanpo-departamentua Banku Zentralaren departamentua da, Altxor Publikoaren konturako lan eginez.)
vi) Inportatzaileek gastatutako eta kanpo-departamentuak irabazitako errentak Altxor Publikoaren bonutan ezartzen dira.
vii) Kanpo-departamentuak gastaturiko eta esportatzaileek irabazitako errentak Altxor Publikoaren bonu-salmentatik datoz.
viii) Ordainketa konpentsazioaren bidez egin daiteke, eta inportatzaileek esportatzaileei kanpo-departamentuaren bitartez ordaintzen diete, Altxor Publikoaren bonuko suma bera, transakzio berean salduz eta erosiz.

12.3. N NAZIOAREN BANKU ZENTRALAREN KANPO-DEPARTAMENTUAK M TITULU-MONETAK JAULKITZEN DITU GAINONTZEKO MUNDUAN

i) Bankuen funtzionamendu berria martxan jarri baino lehenagoko lehen fase batean, kanpo-departamentuak ***M*** titulu-monetak jaulkitzen ditu finantzario huts den eragiketa batean. Neurri hau aukerabidekoa da.
(***M*** titulu-monetak kanpo-departamentuaren obligazioak dira. Zehaztasun zientifikoak ***M*** moneta handia ***M*** titulu-monetatik bereiztera darama. *x* ***M*** titulu-moneta emititzeak ***M*** monetako *x* sormen/deuseztapena esan nahi du. Arrazoia argi dago: 1 ***M*** titulu-moneta emititzeak 1 ***M*** moneta maileguz ematea esan nahi du; alderantziz, 1 ***M*** titulu-moneta deusezteak mailegaturiko 1 ***M*** moneta 'berrartzea' esan nahi du. ***M*** monetak, nazioarteko esparruan *N* nazioaren monetak alegia, soilik ***M*** titulu-moneten sormen eta deuseztapenean existitzen dira, bereziki *N* nazioaren esportazio eta inportazioak ordaintzeko. Beraien sormen/deuseztapenean ***M*** monetak beren edukia —beste monetatan, dolarretan, eurotan, edo dena delakoan— askatzen dute, herrialde bati bere zorra ordaintzea ahalbidetuz eta beste bati bere hartzekoa jasotzea.)
ii) ***M*** titulu-monetak dolarretan edo eurotan —euroa jadanik ordainketa-moneta baldin izanen bada—, bermeaz jaulkitzen dira, eta beste edozein kontu-monetari, soil edo konposatuari, era berean atxiki dakizkioke.

iii) Demagun kanpo-departamentuak ***M*** titulu-monetak euro baterako ***M*** titulu--moneta baten parekotasunean jaulkitzea erabakitzen duela. ***M*** titulu-moneta baten jabeak kanpo-departamentutik euro baten kontrabalioa lor dezake, berak nahi duen monetan.

iv) ***M*** titulu-moneten hasierako jaulkipenak obligazio berria ezagutaraztea du helburu, eta ***m*** monetako zenbait hamar milioitakoa izan daiteke.

v) Jaulkitako ***M*** titulu-monetak erabat 'likido' dira: kanpo-departamentuak berrartzen ditu, beren balio nominalean, beren jabeen eskari soilaren arabera.

vi) ***M*** titulu-moneten balioa eurotan —edo aukeratutako kontu-monetan— bermea da batezbesteko iraupenerako, esate baterako 3tik 5erako urteko epealdirako. Data-mugan, ***M*** titulu-monetak berrartzen dira, beraien jaulkipenean ezarririko balioan.

vii) ***M*** moneta-tiluluek indize konkretu bateko interesa daramate, zeina aldakorra izan daitekeen; moneta-tituluak nazioarteko finantza-merkatuan eskatzeko mailan determinatuak izan daitezke.

viii) ***M*** titulu-moneten jaulkipena soilik inplizitua baldin bada, ***M*** *moneta handiak* batezbesteko epealdirako zuzenki dolarretan bermaturiko balioa dauka.

12.4. N NAZIOAREN ORDAINKETA HARTZEKODUNAK ETA ZORDUNAK GAINONTZEKO MUNDUARI BEGIRA

i) Berari dagokion atzerritarraren aurrean edozein egoiliar zordunek kanpo-departamentura itzultzen du bere zorra.

ii) Berari dagokion atzerritarrak kreditatutako edozein egoiliar kanpo-departamentuaren hartzekoduna da.

iii) Atzerriarekiko kreditu eta zor *guztiak* kanpo-departamentuak hartzen ditu kontuan. Honela, *ordainketen balantza orokorrak* kontaturiko fluxu guztiak kanpo-departamentuan zehar ibiltzen dira.

iv) Kanpo-departamentuak ***M*** titulu-monetak jaulkiz ordaintzen ditu bere kanpo--zorrak. Bi era dira posible: kanpo-departamentuak herrialde hartzekodunen Banku Zentralei ***M*** titulu-monetak dohainik transferitzen dizkie, edo nazioarteko finantza-merkatuan ***M*** titulu-monetak saltzen ditu, eta herrialde hartzekodunari, berorrek aukeraturiko monetan, produktua ematen.
Lehen kasuan, berak erosi nahi ez dituen ***M*** titulu-moneten salmenta egiten du herrialde hartzekodunaren Banku Zentralak.

v) Kanpo-departamentuari ***M*** titulu-moneten bidez bere kanpo-kredituak ordaintzen zaizkio. Berriz ere, bi moduk ondorio berberera eramaten dute. Banku Zentral atzerritarrak nazioarteko finantza-merkatuan ***M*** titulu-monetak erosten ditu eta kanpo-departamentuari dohainik ematen; edo Banku Zentralak dibisa trukagarri batean beroni dagozkion ***M*** titulu-moneten kontrabalioa ematen du: orduan kanpo-departamentuak berak nazioarteko finantza-merkatuan ***M*** titulu--monetak erosten ditu.

vi) Epealdi bakoitzean *N* nazioaren ordainketa hartzekodunen eta zordunen fluxuan eta birfluxuan erabilitako ***M*** titulu-moneten kopurua, oso kalkulu erraz

batek determinatzen du: ordainketaren aldiunean, adibidez euroarekiko monetek duten truke-neurria ezagutzen da eta eurotan ***M*** titulu-moneten balio aurredeterminatuarekin konparatzen da.

Eredua. Demagun *N* nazioa *x* dolarren zorduna (edo hartzekoduna) dela; berak ***M*** titulu-monetako *y* kopurua eman behar du (edo eskuratu) baldin eta, ordainketaren momentuan trukeen merkatuan *x* dolarrek *y* euroen balioa badute, —ulertzen da euro baterako ***M*** titulu-moneta baten parekotasuna ezarri dela—.

vii) ***M*** titulu-monetak *konpentsazio hutsez* jaulkiak eta berratuak izan daitezke. *Kasu honetan, jaulkipena soilik inplizitua da*, ordainketak bat-batean ***M*** moneta handian eginak izanik.

12.5. M MONETA HANDIAREN ETA M MONETA TXIKIAREN HARREMANEN DEFINIZIOAK

M moneta handia, ***M*** titulu-moneten izendapen-moneta da; ***m*** moneta txikia egoiliarren artean egindako transakzio guztien moneta da.

i) ***m*** moneta txikia gaur egunean edozein herrialdetan erabiltzen den monetaren antzekoa da: bera *N* nazioaren 'Banku-sistemak' sortzen du produkzio nazionalaren, kapitalaren eratzearen, epealdi bakoitzeko produktuaren banaketaren eta salmentaren finantzaketarako.

'***m*** moneta fiduziarioaren' —moneta zentrala— eta '***m*** moneta eskripturalaren' —bankuetan ezarria— jaulkipenaren arauak ez dira aldatzen. *Hala ere, ez da ezelako* ***m*** *monetarik sortzen dibisa atzerritarren kontrapartidan*. Izan ere, atzerriaren kontrako egoiliar baten edozein kreditu automatikoki kanpo-departamentuaren gaineko kreditu bilakatzen da. Ezein egoiliarrek, beraz, ezin du ***m*** monetatan dibisen bihurtzerik eskatu. Egiazkoa da, atzerriaren kontra, egoiliarren ordez, kanpo-departamentua dela hartzekoduna. Baina *N* nazioaren Banku Zentralaren kanpo-departamentua ordezkari *finantzario* hutsa da: barnean, eskuraturiko ***m*** monetak ezartzen ditu eta berak atzerriari zor dizkion ***m*** monetak maileguz hartzen; kanpoan, ***M*** titulu-monetak esplizituki edo inplizituki jaulki eta berrartzen ditu. Transakzio horietan guztietan, kanpo-departamentuak ez ditu dibisa atzerritarrak ***m*** monetatan aldatzen.

ii) ***M*** moneta handia '*N* etxearen' edo '*N* multzoaren' moneta da. *N* nazioaren (bere osotasunean hartua) zorrak eta kredituak definizioz *kanpokoak* dira. Beste aldetik, 'zor publikoa' deitzen dena, *N* multzoaren zor nulua da, bera, egoiliar hartzekodunen eta zordunen arteko *barneko* harremana baita. Logikoa da, hortaz, egoiliarren moneta eta, bere osotasunean, *N* nazioaren moneta desberdinak izatea.

Ongi ordenaturiko ordainketen sistema batetan, ezein egoiliar ez da ez hartzekodun ez zordun, ***m*** monetatan ez bada; alderantziz, *N* nazioa, bere osotasu-

nean, ezin daiteke ez kreditatu ez zordundu ***m*** monetatan, transakzioaren jatorria edo bukaera atzerrian baitago. '*N* etxearen' kredituak eta zorrak ***M*** monetatan definituak dira, ***M*** titulu-moneten fluxuan eta birfluxuan sortu eta desagerturiko monetan alegia.

iii) ***m*** moneta txikia nazioarteko toki guztietatik, *N* nazioan ere, elkartruke erlatiboen merkatutik kentzen da. Atzerria helburu duen egoiliar baten edozein ordainketa kanpo-departamentuak geldiarazten du; alderantziz, egoiliar bati atzerritik emandako edozein ***m*** moneta *N* nazioaren finantza-merkatutik dator, non bera kanpo-departamentuak maileguz hartua duen.

Egoiliarrek *N* nazioaren Bankuaren bileteen eskuzko elkartrukea praktikatzen segi dezakete, turismoaren beharrak direla kausa bereziki. Baina kasu horretan ere, truke-eragiketa kanpo-departamentuak egiten du, bilete bihurtuen saldo guztiak hartzean eta dolarretan beraien kontrabalio zehatza jaulkitzean, *N* nazioaren egoiliarren edozein inportazioren ordainketaren antzera. Simetrikoki, *N* nazioan turistek aldaturiko bilete atzerritarren saldoa kanpo-departamentura ailegatzen da, zeinak nazioarteko merkatu finantzarioan dolarretan erosteko gastatzen duen. Beraz, kanpo-departamentuak ***m*** monetaren trukearen monopolio absolutua du. Are gehiago, ***m*** monetaren trukea birdefiniturik dago erabat.

Nazioarteko gaur egungo sisteman, truke-neurriak 'erlatiboak' dira, moneta nazional batzuk besteren kontra eskainiak eta eskatuak izanik. *N* nazioaren monetaren sistema *berrian*, ***m*** monetak truke-neurri '*absolutua*' besterik ez du ezagutzen: bera soilik dago eskainita eta eskatuta *bere kontra*. Hori honela dela ongi ikusten da, kanpo-departamentuak *barnean* hartu edo ematen baititu egoiliarren nazioarteko transakzioetan eskuratutako edo gastaturiko ***m*** moneta guztiak.

iv) ***m*** moneta txikiaren antzera, ***M*** moneta handia ere truke-neurri *absolutuaren* menpe dago:

(a) *N* nazioaren edozein ordainketa zordun, nazioarteko finantza-merkatuan ***M*** titulu-monetaren salmentaren bidez egiten da. Honela irabazitako (mailegaturiko) ***M*** monetak, berehala moneta atzerritar dira bihurtuak. Hala ere, eragiketa ez da hor gelditzen: ***M*** titulu-monetek des-bahituriko dibisak zorraren ordainketan gastatuak izaten dira. ***M*** moneta handiaren truke-neurria absolutua dela egiaztatzen da, dibisak eskuratuak edo gastatuak baitira eragiketa berean. Kanpo-departamentuak eskuratzen duen edozein dibisa, ***M*** moneten eskaintza da eta kanpo-departamentuak gastutako edozein dibisa ***M*** moneten eskaria da. N nazioaren edozein zorren ordainketak —kanpo-departamentuak egina—, ***M*** moneten eskari eta eskaintza *baliokideak* definitzen ditu, hortaz; eskaturik gabe inoiz eskainirik ez izanda, ***M*** moneta handia truke-neurri *absolutuaren* menpe dago.

(b) *N* nazioaren edozein ordainketa hartzekodun, ***M*** titulu-moneten eroskетaren bidez gauzatzen da. Gastatutako —itzulitako edo berreskuraturiko— ***M*** monetak moneta atzerritar bihurtzen dira eragiketa berean. *N* nazioaren edozein kredi-

turen ordainketak dibisen eskari eta eskaintza baliokideak definitzen ditu; eta eskainirik gabe, eskaturik ez izanda, ***M*** moneta handia ere truke-neurri *absolutuaren* menpe dago.

v) Monetak beren artean elkartrukatzen direneko merkatu guztietatik erretitatuak izanik ere, ***m*** moneta txikia egunero 'kotizatzen' da. Arrazoia soila da: *N* nazioak Europar Moneta-Sistemaren parte izaten segitzen du. Alegia, ***m*** moneta txikiak euroarekiko definitua izaten segitzen du.
vi) ***M*** moneta handiaren balioa batezbesteko epealdi osorako finkatzen da; bera aukeraturiko kontu-monetan definitzen da, eurotan kasu.
vii) 'Bi monetak' —***m*** eta ***M***— ebaluatzeko aukeraturiko kontu-moneta euroa baldin bada, erreferentzia-epealdi osoan zehar, eurotan ***m*** moneta txikiak eta ***M*** moneta handiak duten balio erlatiboa konstantea da.
Etsenplua. Demagun euro baterako ***M*** moneta baten parekotasuna finkatzen dela, eta ***m*** monetaren parekotasuna 1/6 eurokoa dela. Orduan, epealdi osoan zehar ***M*** moneta baten eta 6 ***m*** moneten parekotasuna egiaztatuko da. Baldin eta, ordainketa-egunean eta moneten merkatuaren arabera, euro batek 2,3 marko balio badu, kanpo-departamentuak ***M*** moneta bat jaulki (edo hartzen) du 2,3 markoko kopurukoa den *N* nazioaren edozein ordainketa zordunetarako (edo hartzekodunetarako): orduan egoiliarrei dagokien ordainketa, negatiboa edo positiboa, 6 ***m*** monetakoa da.

12.6. N NAZIOAREN ABANTAILAK, KANPO-ORDAINKETEN ERREGIMEN BERRIA DELA KAUSA

1973tik 1982ra garapenean zeuden herrien kanpo-zorra, petrolio esportatzaile diren herriak kontuan hartu gabe, 130 miliar dolarrekoa izatetik 500 miliar dolarrekoa izatera igo zen. Herri garatuena ere erritmo handian hazi zen.

Kanpo-zorra dela kausa, nazio monetarioen subiranotasuna eta independentzia kolokan daude. Nazioarteko Moneta-Sistema, beste aldetik, ez dago krisian: bera ez da gehiagorik existitzen, 1971ko abuztuaren 15ean hil baitzen, eta geroago lurperatua izan baitzen Nazioarteko Fondo-Monetak Jamaikan 1976an egindako erakunde horren estatutuen errebisioarekin.

Argi geratu da Bretton Woods-eko Konferentzia *berria* gero eta premiazkoagoa dela. Gaur egunekoa, dolar-patroiaren nazioarteko ordainketen 'ez-sistemaren' era garatua da. Estatu Batuen egoera pribilegiatua izan arren, herrialdeen defiziten ordainketa bikoitza nonahira hedatzen da, Naziorik Gabeko Kapital Finantzarioa handituz doan heinean.

1983ko abenduan, adibidez, Estatu Batuen merkataritza-defizita 70 miliar dolarrekoa zen; azken suberabita, txikia izanik ere, 1975ekoa izan zen. Jacques

Rueff-ek salaturiko eskandalua gero eta nabarmenagoa da. Munduko herrialderik aberatsena —honela izendatzen baitu bere burua— besteen kontura bizi da.

Meade-k (1963) nahi zuen moduan, ireki diezaizkiogun mugak mundu-merkataritzari, guztion ongizatea irekiera horretan oinarritzen da-eta. Arazoa ez datza fluxu errealari mugak irekitzean, ordainketa monetario faltsuei mugak ixtean baizik.

12.6.1. Inflazio inportatuaren amaiera

Hauxe da lehen abantaila garrantzitsua. Jadanik Rueff ohartu zen horretaz: egungo ordainketen erregimenean, esportazioek egoiliarrei dibisak ematen dizkiete eta, honela, moneta nazionala sorrarazten dute, atzerritar monetak ***m*** moneta txikian eraldatzen direnetik. Ez da nahikoa, bestela uste daitekeen arren, inportazioek esportazioek sorrarazitako moneta deuseztatzea; beharrezkoa da inportazioek moneta nazionalaren inolako sormena ez inplikatzea.

Demagun etsenplu erraza, *N* nazioaren kasuan. Epealdian, barneko produktua 100 ***m*** monetakoa da, esportazioen partea 25 ***m*** monetakoa; inportaturiko ondasunek 30 ***m*** moneta balio dute. Ematen du inflazio inportatua nulua dela edo negatiboa, esportazioaren ondasun guztiak inportaturiko ondasunek ordezkatzen dituztelako. Prezioak are beheragoko maila batean egon beharko lirateke, ondasunen inportazioak netoak baitira, 5 ***m*** monetako kopururako (= 30 – 25).

Esportazioek 25 ***m*** monetako balioa ematen dute dibisatan; inportazioek honela sorturiko 25 ***m***koak hartzen dituzte; hala ere, esportazioen eta *inportazioen* ordainketa eta gero, errenten titularrek (gutxienez) 95 ***m*** dauzkate, zeren 30 ***m***ko gastua, ondasun inportatuak ordaintzeko, konpentsaturik baitago, 25 ***m***ko kopururako, aipaturiko ondasunen ordainketaren kontrapartidan 25 ***m***ko sormena baitago dibisatan. Azken analisian, kanpo ordainketek —positiboak eta negatiboak izanik— ekonomia nazionalaren barnean desoreka monetarioa kontserbatzen dute, eta produktu globala, 100 ***m***ko balio errealekoa delarik, banatua dute 125 ***m***ko kopuru osoaren azken erosketek.

Moneta eta produktuaren oreka kontserbatua izanen litzateke, baldin eta esportazioen ordainketak ekonomia nazionalaren barruan inolako ***m*** monetaren gehitzea ekarriko ez balu soilik. Orduan fluxuak honelakoak izanen lirateke:

(i) Epealdiko produktuak 100 ***m***ko errenta netoa sortzen du;
(ii) esportatzaileei ordainduriko ***m*** monetak produkzio nazionalak sorturiko ***m***koen gainean gutxituak dira;
(iii) inportatzaileek gastaturiko ***m*** monetan, barne produktua erosteko, eskura geratzen dira, beraiek barne-merkatu finantzarioan baitira ezarriak.

Laburbilduz, logikak kanpo-ordainketen bi modu bereiz daitezen exijitzen du: beraiek masa gehigarria jartzen dute martxan, edo errenta nazionalen sormenaren eta gastuaren barnean sartzen dira.

(a) *Lehen kasuan*, barne produktuaren azken erosketan gastaturiko 100 ***m***tik 125 ***m***ra igarotzen da, atzerriak dibisatan barne-produktuak erosteko 25 ***m***ko kontrabalioa gastatzen baitu; inportatzaileek gastaturiko ***m*** monetak ez dira oztopo 'puzte' horretarako; dudarik gabe, masa monetarioa 125 ***m***tik 100 ***m***ra murriztua da, baina produktu nazionalari begira *esportaturiko ondasunen balioan gutxitu egiten da*.

Uste daiteke inportaturiko ondasunek esportaturiko ondasunen lekua hartzen dutela, eta moneta eta produktuaren oreka kontserbatzen dela. *Baina hori faltsua da*. Hori ikusten da, bi batura edo sumak aurrez aurre jarriz: (i) produktu nazionalaren balioa, eta (ii) produktu nazionalaren gainean eramandako mota guztiko gastuen suma.

(i) suma 100 ***m***koa da; (ii) suma 125 ***m***koa da. Oreka hautsi da. 30 ***m***ko gastuak, inportazioen ordainketarako, esportazioetan irabazitako dibisen kontrapartidan sorturiko monetan leporatzen du 25 ***m***koaren neurrian. Epealdiko produkzioak sorturiko 100 ***m*** oraindik ez dira ukituak izan, produktu nazional gutxituaren aurrean (esportazioen kopururako). Aldiberekotasunean arrazonatzen bada —kanpo-erosketek egoiliarren erosketekin bat egiten dute—, produktu nazionala, 100 ***m***ko balioa duena, 125 ***m***ko gastu totalak banatua dela ikusten da.

(b) *Bigarren kasuan*, produktu nazionalak, 100 ***m***ko balioa duena, eta barne-produkzioak sorturiko errenta zehatzaren kopuruak, 100 ***m***, aurrez aurre jarririk egoten segitzen dute. Arrazoia da, esportazioen ordainketak ez duela sorrarazten ***m***ko inolako sormenik. Esportatzaileek irabazitako ***m***ko unitate bakoitzeko (barne-departamentuak), barne-merkatu finantzarioaren gainean eskainitako errenta nazionalaren masatik deskontatua da.

Kasu honetan bankuek ez dute inolako ***m*** monetarik sortzen esportazioen kontrapartidan. Soilik orduan logikoa da esatea inportaturiko ondasunek esportaturiko ondasunak ordezkatzen dituztela: 100 ***m*** gastatuz, egoiliarrek 100 ***m***ko produktuak —nazionalak eta nazioartekoak— erosten dituzte. Inportazio-soberakinen ordainketak, 5 ***m***ko baliokoa denak, epealdiko produktu nazionalaren %5 gehitzea ahalbidetzen dio Altxor Publikoari.

Ez da gauza bera 100 ***m***ri 25 ***m*** gehitzea, gero 100 ***m***ra itzultzeko, edo 100 ***m***ri 25 ***m*** kentzea birgehitzeko. Lehen kasuan —denbora positibo batez—, 100 ***m***tik irteten da; bigarrenean, 100 ***m*** *kopuruaren barruan etengabeki egoten da: ez da inoiz gainditzen*.

Jacques Rueff-ek ikusia zeukan arazo hau. Gaur egun, kaltea handiagoa da. Esportazioen ordainketa guztiak —edozein dibisatan— dira desorekatuak. Orde-

nak exigitzen du ezein moneta nazionalik herrialdearen esportazioek ez sorreraztea. Esportazioak dibisatan ordainduak izanen diren neurrian, inflazio inportatua ekonomia nazionalaren barnean kontserbatuko da. Ordainketen erregimen berriak kanpo-iturri den edozein inflazio geldiaratzen du. *Aurrerantzean, esportazioen ordainketak ez du ezelako moneta nazionalik sorraraziko*.

12.6.2. M monetaren truke-tasaren finkatzea

Ikus dezagun abantaila.

Dolar-patroiaren 'logikaren' arabera, moneta nazionalak truke-objektu dira, moneta ondasun errealen —produktu eta tituluak— bildumaren parte izango balitz bezala. Hala ere, izaerari dagokionez, moneta truke-tresna hutsa da, bitartekaritzame-dioa: beraz, beraren presentziak transakzioetan ondasun errealak beren artean hurbiltzeko helburua soila dauka.

Gaur egungo munduan, moneta nazionalak aktibo netoak direlako gertaera —ondasun eta tituluei gehituak—, oinarrizko desordenaren zeinua da.

Badakigu dolarra bereziki bilaturiko moneta dela: Nazioarteko Kapital Finantzarioa 'dolarrean ezartzen da', titulu batean bezalaxe. Nahasketa kaltegarria da, dolarra banku-moneta da eta ezein bankuk ezin baitu titulurik sortu. Edozein titulu, —akzio edo obligazio— kapital (finantzarioa) da, etorkizuneko errentaren gaineko eskubidea. Bankuek ekonomia 'monetizatzen' dute; ordainketa —ondasun eta zerbitzuen erosketa eta salmenta— guztietarako beharrezko moneta sortzen dute. Moneta ez da produktu bat, ezta titulu bat ere; hau da, bera ez da ez egungo produktua ezta etorkizuneko produktua ere: produktuen eta *tituluen* salmenta guztien eta erosketa guztien ordainketa-tresna da.

Ez dira zenbatu behar kreditu eta monetaren arteko nahasketak sorturiko desoreka-mota guztiak. Har dezagun emaitza soila, edozein moneta ukitzen duena. Moneten gaineko nazioarteko espekulazioak (bereziki, arrazoi politikoak direla kausa) edozein moneta nazionala desbabesten edo zigortzen du, baina ez maila berean alemaniar markoa, frantziar libera edo eta espainiar pezeta. Hori nahikoa da Europar Moneta-Sistemaren barruan, euroarekiko moneta nazional horien balioak gutxitzeko. Banku Zentralek, bereziki Alemaniako Bundesbank ez direnak, orduan hartu behar dute parte, beren moneten debaluazioa —dibisen galtzea garrantzitsua izanik— saihestezina den eguna arte.

Nazioarteko ordainketen erregimen berriak herrialdeari aurrezten dizkio kreditu eta monetaren arteko nahasketa horren ondorio txar guztiak.

Aurrerantzean, ***m*** monetak onura atera dezake bere truke-tasaren finkatzeaz, *N* nazioa Bretton Woods-eko Konferentzia *berriaren* menpe egongo bailitzan.

Egiazko eztabaida teorikoa ez datza truke-tasa fluktuatzaileen eta finkoen arteko aukeran, desordenaren eta ordenaren artean baizik: truke flutuatzaileak zorigaiztokoak dira (*malgré* Friedman), *nazioarteko esparruan banku-moneta nazionalek, dolarra bereziki, tituluen edo aktibo netoen eginkizuna hartzen dutelako*.

M titulu-moneten bidez edo ***M*** moneta handien bitartez ordainduko duenetik, *N* nazioa mundu-desordena monetariotik babesturik egonen da, eta beraren ekonomiak moneta hutseko ordainketak —nazionalak eta nazioartekoak— besterik ez ditu ezagutuko. Moneta txikia, ***m***, egoiliarren jarduera produktiboa 'monetizatzeko' soilik izanen da sortua: ezein moneta atzerritar ezin izango da gehiago sartu, trukearen bidetik, nazioaren zirkulazio monetarioan.

Hori dela eta, 3 urtetik 5 urterako epealdiaren iraupen osorako ***m*** monetaren truke- -tasa erabat finkoari eutsi ahal izango da. Eta data-mugan truke-tasa aldatua baldin bada, ***M*** moneta handiak bere antzinako parekotasunean iraun ahal izango du, aukeraturiko erreferentzia monetarekiko —soila edo konposatua izanik— soilik ***m*** moneta txikia birdefinitua izanez.

Egokia litzateke bi monetak, ***M*** eta ***m***, eurotan definituak izatea.

Euroaren 'parekotasun zentralaren' mailan tasen finkotasunari eusteko, *beharrezkoa da europar moneten saskitik* ***m*** *moneta ateratzea*. Izan ere, ez-koherentea litzateke euroaren barnean ***m*** moneta mantentzea, bere truke-tasa eurotan finkatzean.

Aukera ez da, inondik inora, kaltegarria. Gaur egungo europar moneten saskitik ***m*** moneta txikia aterako balitz, bera ahulduko litzateke, etorkizunean gutxienez, isolaturik egonen bailitzateke, 'Dolar-Erregeren' aitzinean. Erregimen berrian dena da desberdina. Oinarrizkoa, euroarekiko ***m*** monetaren truke-tasa finkatzea da, eta orduan euroa saski gisa ***m*** monetarik gabe ederki defini daiteke. Ez soilik *N* nazioak Europar Moneta-Sistema ez du utziko, bere moneta ***m*** eurotik kenduz, baizik eta, alderantziz, *N* nazioak sistema hori sendotuko du, bere monetak euroaren balio bera edukiko baitu epealdi luzeetarako eta herrialdearen ordainketa —hartzekodun eta zordun— guztietan.

Argi dagoenez, Nazioarteko Moneta-Fondoaren funtzionamenduaren lehen araura itzuliz, truke-tasaren finkatzera alegia, *N* nazioak bere industriari ongi zerbitzatuko dio, ***m*** eta euroaren erabateko baliokidetzak esportazioei mesede handia eginen dielarik.

Ordainketen erregimen berriak *N* nazioaren subiranotasunari dagokion esparru monetarioaren 'hesitzea' egiaztatzen du. Berrarturiko subiranotasuna barneko merkatu finantzariora hedatzen da: ***m*** monetak definituriko interes-tasak ez dira gehiago egonen atzerritar kapital finantzarioaren menpe —horiek nazional edo

transnazionalak izanik—. Partikularki, amerikar banku handien gorabeherek ez dute izanen inolako ondoriorik *N* nazioan: ***m*** monetaren trukeak ezertan inolako eraginik eduki gabe, *N* nazioaren aurrezki eta inbertsioen beharrizanei dagozkien egokitzapenak egin ditzakete gobernari politikoek eta bankukoek, askatasun osoan.

12.6.3. N nazioa ez dago gehiago beharturik ondoko bi aukeren artean hautatzeko, alegia, monetaren truke-babesaren eta beraren industriaren hazkundeak behar duen interes-tasen mailan mantentzearen artean

Jakina denez, gaur egun Estatu Batuek, dolarraren jaurgoa dela bide, beren defizit erraldoia gainontzeko Munduari ezartzen diote. 'Marshall Plana' alderantziz dago ezarrita eta ordainduriko zergak Amerikaren hasierako eskuzabaltasuna gainditu du erabat.

Ordainketen erregimen berria bereganatuz, *N* nazioa esklabutzatik askatzen da.

'Interes-tasen mundu-amankomuntasuna' delakoa desordenaren ondorioa (zorigaiztokoa) da erabat, berak nazioarteko ordainketen moneta nazionalak, dolarra barne, erabiltzetik deduzitzen baita.

Ongi ordenaturiko erregimenean, aurrezki makroekonomikoa herrialde bakoitzari dagokio.

Bere subiranotasun *monetarioa* berreskuratzen duen heinean, *N* nazioak bere subiranotasun *finantzarioa* berraurkitzen du. Truke-merkatuan gehiagorik ez egonik, ***m*** moneta ez zaie gehiago atzerritar 'moneta errealei', edo 'titulu-monetei', aurrez aurre jarria izanen. Nazioarteko kapital finantzarioa —naziorik gabekoa deitua— ez da gehiago ez sartu ez irten ***m*** monetan: beraren mugimenduek ez diote ***m*** monetari eraginen. Nahiz eta *N* nazioan interes-tasak beste herrialdeetan baino apalagoak izan, bereziki Estatu Batuenak baino beheragokoak, ***m*** monetari ez zaio ezer gertatuko, zeren, ***M*** titulu-moneten bidez gauzaturiko erregimenean, kapital finantzarioaren edozein inportazio edo esportazio automatikoki itzultzen baita *produktuen esportazioaren edo inportazioaren fluxu batean. N* nazioak bere merkataritza-balantzaren soberakinak askatuko dituen kapital finantzarioak soilik esportatuko ditu. Honela *N* nazioaren merkataritza-ordainketek defizitdunak izaten segitzen duten denboran zehar, ***M*** *titulu moneten emisioak sorturiko fluxuen automatismoa dela kausa*, herrialdea atzerritar kapital netoen inportazioaz jabetuko da, ekonomia nazionalean inbertituakizanik, kanpo-departamentuaren eta Altxor Publikoaren parte hartzea dela bide. Moneta eta kredituaren arteko nahasketatik aske —*N* nazioa egiazko 'gerri monetario eta finantzario' batek babesturik egonik—, barneko merkatu finantzarioek industria nazionalaren hazkundea eta garapen egokiari dagokion interes-tasen maila aurkituko dituzte, askatasun eta independentzia osoz.

Orain, bistakoena den onura aipa daiteke: beraren ekonomiak ez du jasanen inolako ‘substantzia galtzerik’ gainontzeko munduaren konturako.

12.6.4. Dolar-patroiaren erregimenean, N nazioaren balantza globalaren defizitak gainontzeko Munduarekiko ekonomia nazionalak substantzia galtzea definitzen du. Kanpo-ordainketen erregimen berriaren arabera, N nazioak bere errenta nazionalaren osotasuna kontserbatzen du, bere inportazio soberakinen ordainketan gastaturiko errentak barne.

Moneta eta kredituaren, moneta eta tituluen oinarrizko ezberdintasuna kontutan hartzen ez bada, uste daiteke, jarraiko epealdietan, herrialde batek gehiago eros dezakeela berak saltzen duena baino, edo ‘salmentarik gabeko erosketak’ egin ditzakeela: logikoa izanen litzateke, orduan, desberdintasun guztia *monetatan* ordaindua izan ledin, herrialdeak dibisak galduz beren erosketa soberakinen neurri zehatzean. Horixe da, hain zuzen ere, edozein nazioren egoera. Ordainketen balantza globalaren edozein defizit, gaur egun, galdutako edo maileguz harturiko dibisatan ordaindua izan behar da. Baina, erosketa-soberakinen existentzia bera ‘ilogismoa’ da; paraleloli zentzugabekoa da, ‘salmentarik gabeko erosketak’ erreserba nazionaletan hartua edo atzerritar herrialdeetatik ekarria den moneta baten bidez ordaintzea.

Nazioarteko ordainketen analisi zuzenera iristeko, egoiliarren artean egindakoari begiratzea egokia da.

Ekonomia nazionalaren barnean, ezein agentek ezin du inoiz jasan monetan galtze ñimiñorik ere (beste agente baten onurarako).

Ematen du, beraz, harturiko epealdian edozein agente *(X)* bere salmenta korronteetatik erosketen ordainketa osoa egiteko gai ez dela; orduan berak beste agente batengandik erosteko bide osagarriak lortu behar ditu, edo bere erreserbetatik hartu. *X*-k 10ekoa saltzen badu eta 15ekoa erosi, ez al da egia beraren erreserba monetarioak 5 unitatetan gutxitzen direna, edo beraren zorpetze monetarioa 5 unitateetan gehitzen dena?

Bestela badirudi ere, erantzun zuzena negatiboa da, dudarik gabe; *X*-k bere erosketak ordaintzeko behar duen moneta *guztia* dauka: bestela, beraren erosketa ‘soberakinak’ nuluak izanen lirateke, edozein erosketa izanik, definizioz, moneta-kopuru baten gastua. Nahiz eta beraren erosketen kopurua izan (hipotesiz) epealdiko salmenta osoa baino handiagoa, *X*-k 15ekoa erosten du eta *15ekoa saltzen du*; berak ez du soilik 10ekoa saldu, formalki ezinezkoa baita beraren erosketen eta salmenten desberdintasuna, *monetatan neurtua*, positiboa izatea. *X*-k erosketa-soberakinak, 5ekoak direnak, gauzatzen dituela esateak, logikoki izan litekeen adierazpen bakarra dauka: *berak tituluak saltzen ditu 5 moneta-unitaterako*.

Herrialdeak murrizketa berberaren menpe daude: ondasun eta tituluen erosketa ordaintzeko formalki ez-gai dira, ondasun eta tituluen salmente-tan (aldiberean, hau da, epealdi berean hartuak) ez bada, behintzat.

Logika nonahi da murriztailea: baldin eta, egungo erregimenean, herrialdeek moneta batean beren erosketa-soberakinak 'ordaintzen' badituzte —beren erreserbetan hartuz edo atzerritik ekarriz—, zentzugabeko eragiketa egiten dute, hori dolar-patroiaren munduan dagoen desordena ikaragarriaren zeinu akusatzailea izanik.

N nazioak araura itzultzea besterik ez du egiten: ***M*** moneta handiaren emisioa dela kausa, berak bere erosketa-soberakinak *monetatan* ordaintzen segituko balu, beragandik irtengo liratekeen ordainketa faltsu guztiak geldieraziko lituzke. Bere kanpo-ordainketen erregimen berriaren arabera, *N* nazioak ez du gehiagorik emititzen inolako 'eskubide faltsurik' (Rueff-en terminologian) gainontzeko Munduan.

Eskubide faltsuak dohainekoak direla imajina daiteke, eta banku-moneten bidez ordainduz, zeintzuen balioa logikoki nulua den nazioarteko esparruan, *N* nazioak —beste herrialdeek bezala— galtze nulua jasanen lukeela. Hori ere faltsua da, *N* nazioak ezin baititu 'sortu' kanpo-ordainketarako behar dituen dibisak: salmentak nahikoak diren neurrian, berak mailegu-hartze berrietan dibisak *irabazi* behar ditu, edo produktuen eta tituluen aurreko salmentak direla kausa lorturiko erreserbetatik *hartu*. Puntu honetan, herrialde konkretu batzuen pribilegioa besteen miseriaren aurrean lehertzen da. Bistakoa da Estatu Batuek *dolarrak 'manufakturatzen' dituztela inolako penarik gabe, gutxienez bere inguruko Munduan emititzeko*. Egoiliarrek emitituriko edozein dolar, amerikar barne-produkzioari loturik dago; beraz kostukoa da. Desoreka inflaziogilea izan ezik, monetako dolar bat produktuko dolar bati dagokio. Estatu Batuen barnean, dolarrak kostu positiboan dira emitituak, beraien sormena produkzio nazionalarekin bat eginez. Dena da erabat desberdina, dolarrak Estatu Batuen esparru ekonomiko eta monetarioen mugak gainditzen dituenetik. Orduan, dolarra amerikar produktu errealetik askaturik dago: bera magnitude *nominala* besterik ez da, estalki hutsa, eskubide faltsua. Hala ere, 'Amerikar Etxeak' ez du dohanik ematen dolar nominala; nahiz eta, harentzat, beraren bankuen idazpen soila besterik ez izan, berari ordaintzen zaio, produktuetan eta tituluetan, beraren *aurpegiko balioaren arabera*, antzinean moneta metalikoa zela-eta 'jaunei' egiten zitzaien moduan, aleakzio merkean txanponatua eta bere eduki teorikoan edo 'legalean' emana.

Orain dela zenbait urte —1961ean hain zuzen ere—, Jacques Rueff-ek salatu zituen 'malkorik gabeko defizit' horiek.

Estatu Batuek, erreserba-monetako herrialdea izanik, mundu-moneta manufakturatzen segitzen dute, hain epe luzean non beraien kideek mantsoki pribilegio anakroniko eta erraldoi hori onartzen zietela, beren kanpo-zorrak direla bide ordainduz. Jaurgoa ez da bukatuko, Bretton Woods-eko Konferentzia *berri* baten aplikazioarekin ez bada; Naziorik Gabeko Kapital Finantzarioaren interes itsuek bera menderatuko ez dutelako baldintzapean, teoria berri batek haurgo faltsu hori argituko du.

Bitartean, premiazkoa da *N* nazioak (edozein delarik) bere borondate subiranoa erabiliz, dolar-patroia baztertzea. *Truke absolutuaren erregimenak 'Dolar-*

Erregeren' menperakuntzatik N nazioa aterako du, dolarrak beraren ekonomia nazionalaren gainean ezein jaurgorik ezin izango duelarik behartu.

Behar den arreta hartuko denean, gutxitze induzituak agertuko dira ez soilik esportazio *netoetan*, esportazio *guztietan* baizik. Dolar-patroiaren erregimenean, *N* nazio baten esportazioak *N nazioak* ordaintzen ditu, non halabeharrez diferentzia inflaziogilea —atzerrira saldutako produktuaren balio osoa berdintzen duena— sortzen den. Diferentziaz ohartzen ez bada, beraren gehitzea prezioen maila orokorraren gehitzean bistakoa delako da.

Sarturik gaudeneko 'Ez-Sisteman' *inportazioen ordainketek desordena elikatzen dute*. 'Erreserba-moneta' emititzen duen herrialdeak dohainik ordaintzen du; beste herrialdeek, produktuetan eta tituluetan baliokide zehatza kostatu zaiena bezainbat dibisa jaulki behar dute beren inportazioen ordainketetan.

Uste da, inportazioak ordaintzea arau ona dela. Baina, orduan, guztientzako arau orokorra izan behar da, Estatu Batuei ere aplikagarria.

Hala ere, eta are kaltegarriago dena, dolar-patroiaren erregimenean, herrialdeek beren inportazio netoen ordainketan substantzia-galtze induzitua jasaten dute.

Gutxitze kaltegarriaren errealitateak ez luke inor harritu behar; erreserba-monetak sortzean dira biziatuak, beren sortze-herrialdearen inportazioen ordainketa *hutsean* emitituak izanik, dibisek —banku-moneta nazionalak— nazioarteko esparruan balio ez dutelako. Logikoa da, dibisatan 'sortzeko' pribilegiorik gabeko herrialde guztiei ezarririk, ordainketa netoek ekonomia nazionaletan 'zauriak' induzitzea. Erraza da nazio batek jasandako kaltearen existentzia eta neurria egiaztatzea, epealdi bakoitzean. Nahikoa da nazio horren ordainketa *guztien*, —hartzekodun eta zordun— balantzak analizatzea, jarraiko hilabeteetan. Nazioari ezarririko ordainketen eta epealdi berean berak onura ateratzen dueneko ordainketen arteko edozein diferentzia netok, bere egoiliarren multzoari beharturiko substantzia-galtze bat definitzen du.

Nazioaren Multzoa eta beronen egoiliarren —Estatua barne, zeren, adibidez, frantziar Estatua Frantzian 'baitago'— arteko diferentzia argi dago.

Ordenak erosketa *guztien* ordainketa behartzen du, inportazio netoak barne, bistakoa denez. Egiazkoa da, bada, *egoiliarrek **m** monetatan* ondasun inportatuen —produktu eta tituluak— osotasuna ordaindu behar dutela. *Baina egoiliarren batuketak ez du haien multzoa definitzen*. Erabat ilogikoa da, esate baterako, Frantzia multzoak *libera bihurtuetan —**m*** moneta bihurtuetan, alegia— gainontzeko Munduarekiko bere erlazioetan moneta-kopururik ñimiñoena galtzea. Hala ere, *N* nazioak, galtzen badu, bere ordainketaren balantza globalaren defizitaren

neurrian, logikariak desordena orokorraren egiaztatzea besterik ez du ikusten, egun bizi duguna, dolar-patroiaren erregimenaren menpe.

Nazioarteko ordainketen erregimen zentzudun batean, ezein herrialdek, bere *multzoan* harturik, ezin izango du jasan moneta-galtze ñimiñorik ere, kanpo--munduaren onurarako. Logika berbera da edozein agenterentzat, indibidual zein kolektiboa izan.

Nazioaren barruan egoiliarrak agenteak dira —fisikoak edo moralak—, hau da, *N* nazioaren multzoaren 'azpi-multzoak'. Baina, esan dugunez, ezein agentek ezin du galdu moneta-kopururik txikiena ere beste baten onurarako; *erosketa-soberakinen ordainketa tituluen salmenta da, moneta osagarria hornitzen duena*: azkenik, erosketa guztiak salmentetan dira ordainduak, *ez monetatan*.

Egiazko ordainketa guztiak *zirkuitu monetarioetan* dira gauzatuak. Honela, *N* nazioak bere erosketa-soberakinak finantzatzeko behar diren baliokideak aurkitu behar ditu, ez bere erreserbetan, *erosketa-soberakinek berek kanpoan eraturiko errenta netoetan baizik*.

Titulu-moneten emisioak, oinarrizko ondorio gisa, nazioa dolar-patroiaren ondorietatik babestea dakar. Demagun etsenplu soila: epealdian, egoiliarrak zordunduak dira 30 ***m*** monetatan. Beraien atzerritar korrespontsalen onurarako, denbora berean, egoiliarrek mota guztiko ondasunak esportatzen dituzte, 25 ***m*** monetako balio globalerako. Konparaketak ordainketa *guztiak* kontuan hartzen ditu, transferentzia finantzarioak, eta baita opariak ere barne hartuz. Egungo erregimenean, *N* nazioa beharturik dago bere balantza globalaren defizita monetatan ordaintzera. Berak oraingo eta etorkizuneko erreserben parte bat horretarako zuzendu behar du, eta honela bere monetaren debaluazio berrirako bidea hartzen du. Ordainketa netoak, *N* nazioak igorriak gainontzeko munduan, *errenta neto berdinkidea* sortzen dute, tautologikoki, iturria soilik *N* nazioa delarik. Injustua da *N* nazioari bere defizita birritan ordain dezan eskatzea: nahiz eta berak, gainontzeko Munduan, 5 ***m***ko errenta balio-kidea sorrarazi, gainera, 5 ***m***ko baliokidea bere erreserbatan kentzea eskatzen zaio. Logikak nahiko luke, hala ere, herrialde defizitdunek sorrarazitako errentak beren erosketa-soberakinen finantzaketa-elikadura soila izatea.

Etsenplu zifratu berberak *N* nazioaren ordainketen oinarrizko erreforma argitan jartzea ahalbidetzen du, baldin eta, dolar-patroia baztertuz, berak ***M*** moneta handiaren logika onartzen badu. Inportazio 'estalien' neurrian, *N* nazioaren Banku Zentralaren kanpo-departamentua ***M*** titulu-moneta handien kopuru berbera jaulki eta berrartzen du. Gainontzeko ordainketetarako, balantza globalaren defizit netoa, kanpo-departamentuak automatikoki ***M*** titulu-monetaren baliokideen salmenta netoa gauzatzen du nazioarteko merkatu finantzarioan: hau da, epealdiko ordainketei dagokienez, kanpo-departamentuak 30 ***m***ko baliorako ***M*** titulu-moneta handiak jaulkitzen ditu eta 25 ***m***ko konkurrentzian berrartzen ditu. Diferentziak defizitaren ordainketa perfektua balio du: *N nazioak ez du ezer zor*. Berak ez ditu kaltetzen ez

bere erreserbak —oraingo edo etorkizunekoak— ezta bere altxorgintza ofizialean osatzen duen urrea ere.

M titulu-monetaren salmenta netoak daukan ondorioa dibisatan egondako ordainketarena bera dela uste daiteke: *N* nazioa paraleloki bi kasutan pobretuko litzateke. Ikus ditzagun ondorioak honako bi kasu hauetan:

(i) Egungo dolar-patroiaren erregimenean, inportazio-soberakinak *N* nazioak eta egoiliarrek batera ordaindua da.
(ii) ***M*** moneta handien emisioaren erregimenean, soilik *N* nazioak ordaintzen ditu bere egoiliarren inportazio-soberakinak; hots, *egoiliarren ezein errentaren zatirik (**m** monetatan) ez dagokie atzerritar eskuei*.

Gaur egun, *N* nazioaren ***m*** monetak atzerritar monetekin jarraipen artifiziala osatzen du, egoiliarren inportazio netoak hasieran gastu nazionalak (***m*** monetan) dira, eta gero nazioarteko gastuak (dibisatan); inportazio netoen ordainketak *N* nazioaren esparru monetarioaren muga gainditzen du, eta honela ***m*** moneta beste moneten aurrean ahultzen du. Erregimen berriak justizia eta zuzentasuna berrezartzen ditu: inportazio netoen ordainketan jaulkiriko ***m*** monetek gastu nazional hutsa definitzen dute, eta kanpo-departamentuak gelditzen dira, Altxor Publikoen zerbitzura baitira jarriak osoki.

Beraz, aukera argi dago. Birritan ala behin ordaindu behar du *N* nazioak bere defizita? *N* nazioak dibisatan ordaintzen badu, bere egoiliarren konturako, zuzena al da egoiliarrek gastaturiko ***m*** monetek inportazio netoen ordainketan *N* nazioa gainditzea eta ***m*** moneta ahultzea? Bistakoa da ezetz.

Gaur egungo erregimena kaltegarria da; hain zuzen ere, herrialdetik inportazio-soberakinetan jaulkiriko 5 ***m*** 'irteten' dira, ez itzultzeko, ***m*** monetaren ahulezia dela kausa (dibisatan eraldatuta) ez bada.

N nazioaren erregimen *berria*, aldiz, justua da, egoiliarrek inportazio-soberakinen ordainketan *N* nazioari —Altxor Publikoari, kanpo-departamentuaren bidetik— soilik supernumerarioan gastaturiko 5 ***m*** ematen badiote. 5 ***m*** horiek ez dute gehiagorik 'ihes egiten' gainontzeko mundura, eta *N nazio-multzoak bere egoiliarren ordez ordaintzen du eta ez berekin batera*.

12.6.5. N nazioak ordainketen balantza globalaren defizita izan arren, ekonomia nazionalak nazioaren barnean ekoitziriko errenten mozkin osoa kontserbatzen du. Inportazio-soberakinen ordainketan gastaturiko errentak, automatikoki, nazioarteko kapital finantzarioak N nazioaren industrien garapen eta hazkundean inbertituak dira

Jaulkiriko eta ez-harturiko ***M*** titulu-monetek herrialdearen ordainketen balantza globalaren defizitaren osotasuna 'estaltzen' dute. Erregimen berrian, berehala

egiaztatzen da, egoiliarrek beren erlazioetan atzerriarekin gauzaturiko ordainketa--soberakinek *N* nazioaren Banku Zentralaren kanpo-departamentuari *produktu neto* bat ematen diotela.

Emate horretan egiaztatzen da, edozein dudatatik at, *N* nazioaren kanpo--ordainketen arautegi berriaren originaltasuna.

Epealdian herrialdearen ordainketa-zordunen kopurua 30 ***m***koa eta ordainketa--hartzekodunen kopurua 25 ***m***koa izanik, inportazioak konpentsatuak dira 25 ***m***tan. Inportazio konpentsatuen ordainketak kanpo-departamentuak 25 ***m***ko balioko Altxor Publikoaren bonuen erosketa eta salmenta gauzatzea inplikatzen du. Inportazio netoen ordainketak, kanpo-departamentuak Altxor Publikoaren bonu osagarriak erostea behartzen du, 5 ***m***ko balioan: bonu horiek ezin ditu kanpo-departamentuak saldu, beraien salmentak ordainketen balantza globalaren defizita desagertzea ekarriko bailuke. *N* nazioaren defizitak irauten duen bitartean, kanpo-departamentuak Altxor Publikoaren bonuen erosketa netoak metatzen ditu.

Honela ikusten da, kanpo-ordainketen erregimen berriak urre-patroiaren sisteman oinarrizko gomendioak praktikan jartzen dituela. Herrialde zordunduak automatikoki atzerritik bere erosketa-soberakinen baliokide zehatza jasotzen du: errenta monetario horri esker, berak bere jarduera produktiboa gara dezake, bere ordainketen —zordun eta hartzekodun— balantza berrezarrita egonen den egunera arte.

Dolar-patroiaren erregimenean, herrialde zordunduak errentak galtzen ditu, bere ekonomiak bera berreraikitzeko eta berrindartzeko beharko baditu ere. *N* nazioaren erosketen eta salmenten ordainketa, ***M*** titulu-moneten emisioa dela bide, erregimen logiko eta justua da: berorren bidez, *N* nazioak, epealdi guztietan, bere barneko produktuaren osotasuna gordetzen du, *ordainketen balantzaren defizitak errenta nuluak bereganatzen baititu*.

Panazea izango ote da? Ikus ditzagun desabantailak. Horrelakorik ez badago, gaixotasun baten desagertzea ez al da beti irabazi netoa?

12.7. ERREFORMAK EZ DU INOR KALTETZEN, EZ N NAZIOAREN INTERES PARTIKULAR EDO KOLEKTIBOAK, EZTA ATZERRITARREN INTERESAK ERE

(a) Egungo ordainketen erregimenean, Altxor Publikoak inportazio-soberakinak direla kausa, ez du inolako errentarik deskontatzen ekonomia nazionalean.

(b) Erregimen *berrian*, Altxor Publikoak, alderantziz, herrialdearen inportazio netoen ordainketarako gastaturiko errenta guztiak deskontatzen ditu, bere mozkin definitiboa egiteko.

(c) Aurreko bi puntuen ondorioa ondoko terminoetan ezarri behar da: *N* nazioaren kanpo-ordainketen sistema berriak egoiliarrengan zama berria osatzen du, Altxor Publikoak beraien errentetatik herrialdearen inportazio netoen kopuru zehatza deskontatzen baitu.

(d) Hala ere, egia da egoiliarrek ez dutela inongo kalterik jasotzen erregimen berrian, beraiek aurreko erregimenaren —dolar-patroi— arauen bidez ordainduko lituzketen kopuru berberak — ezer ez gehiagorik— ordaintzen baitituzte.

(e) 'Misterioa' argitzen da erregimenaren aldaketaren izaera ulertzen denetik.

(i) Gaur egun, inportazioen ordainketarako gastaturiko ***m*** monetak herrialdetik 'irteten' dira, ***m*** moneta atzerritar monetekin jarraipen erlazioan baitago. Gastaturiko ***m*** monetak esportazioen ordainketan berrartzen dira. Inportazio--soberakinetan emitituriko ***m*** monetek atzerriko irabazi netoa osatzen dute. Beraiek berrartzen dira, ***m*** moneta ez baita erreserba-moneta. Hala ere, ***m*** monetan irabazi netoen errefluxua zentzu bakarreko *truke-eragiketa bat da*. 'Esportaturiko' ***m*** monetak *N* nazioan edo atzerrian aldatuak izan, emaitza berbera da: ***m*** moneten aldaketak atzerritar monetan ***m*** moneta nazionala ahultzen du. Soluzio bakarra dago, nahiz eta ihesbidea izan: *N* nazioak —edo beraren egoiliar batzuk, erakunde nazionalizatuak edo kolektibitate lokalak, kasu— dibisak har ditzake maileguz; monetaren ahultzea oraindik luzatu egiten da.

(ii) Erregimen berrian, *ezein **m** moneta ez da herrialdetik irteten*. Honela, moneta nazionalaren eta atzerritar moneten artean ezin egiazta daiteke inolako aldaketa edo bihurtze-eragiketarik. Aurrerantzean, formalki ezinezkoa izanen da ***m*** moneta ahultzea *N* nazioaren inportazio-soberakinak direla kausa. Erregimen berriak ez du *N* nazioaren egoera, besteekiko, hobetzen, ordainketa *guztien* — nazionalak edo nazioartekoak— ordenak berekin baitakar erosketa netoek *moneta inoiz ez depreziatzea*.

Baldin eta ***m*** moneta gaur arriskuan badago, arrazoia nazioarteko ordainketen 'Ez-Sistemaren' funtzionamenduan datza. Logikak desordena ordezkatzen duenetik, ***m*** monetak bere kanpo-balioa kontserbatuko du, baita beraren ordainketen balantza defizitduna deneko epealditan ere.


Zein ote da defizitaren adierazpen sakona? Unibokoa da: *N* nazioaren ordainketa zordunduek beren ordainketa hartzekodunak gainditzen dituzten neurri zehatzean, atzerritar kapital finantzarioak N *nazioaren ekonomian inbertitzen du*. Nola izan liteke ***m*** moneta ahuldua? Ezinezkoa da, pentsaezinezkoa, zeren *N* nazioak atzerrira 'igortzen' dituen baliabide guztiak, bere esportazioetan baino harago, berak prezeski nazioarteko kapital finantzarioan ezartzen baititu, ez bere ekonomiaren barnean,

(f) Dolar-patroiaren erregimenean, moneta nazionalek beren ibilbidea luzatzen dute nazioarteko espazioan. Halaber, gutxi *preziaturiko* monetek ere esparru transnazional monetarioan parte hartzen dute, non, merkataritza-beharrak direla kausa, beraiek beste moneta batzuetan aldatuak diren —beraien herrialde barnean edo atzerrian—. *N* nazioaren ***M*** monetari dagokionez, adibidez, *N* Frantzia baldin bada, libera, moneta on modura harturik dago, nahiz eta espekulazio 'hutsa' oso gutxitan arduratu beraren helburuaz.

N nazioaren erregimen berriaren arabera, ***m*** moneta txikia, ekonomia nazionalean ez-aldatua, ezin izango da inoiz sartu nazioarteko esparru monetarioan. Zenbait urte barru, teoria monetarioa nahiko garatua egon dadinean, Bretton Woods-eko 'Konferentzia Berriak' *nazioarteko espaziotik moneta nazional guztiak* kenduko ditu: ordenak holaxe behartzen du, herrialde guztien monetak *soilik banku-monetak* baitira.

Baina ***m*** monetaren zirkuitua zehazki ekonomia nazionalean soilik izango denean, egoiliarrek ezin izango dute ***m*** monetako unitate soil bat ere ez 'igorri' kanpo-esparrura. Erregimen berrian, jasango ote dute egoiliarrek galtzeren bat Altxor Publikoaren onurarako? Erantzuna ezezkoa da.

(i) Gaur egun, egoiliarrek atzerria kreditatzen dute beren inportazioen baliorako, etsenpluan 30 ***m***koa dena. ***m*** moneta horiek aldatuak dira truke-merkatuan, *N* nazioan edo beste nonbait. ***m*** moneta horien trukeak edo aldaketak *N* nazioaren bankuetan duten errefluxua adierazten du.



(ii) Erregimen berrian, ***m*** monetak herrialdearen mugetan dira geldiaraziak, eta inolako kasutan ezin izango dituzte zeharkatu. *Herrialdeak 30* ***m****ko fluxu/ /errefluxuaren ekonomia gauzatzen du*. Errefluxuak *N* nazioaren inportazio--soberakinen neurri osoa ***m*** monetaren gainean apreziatzen du. Izan ere, soilik esportazioek ahalbidetzen die ***m*** monetei errefluxuan itzultzea, beste monetan *zentzu bakarrean* aldatzeko behartuak izan barik.

Soluzioa oso argia da. (i) kasuan, egoiliarrek 5 ***m***, —bere inportazio eta esportazioen diferentzia—, atzerrira transferitzen dituzte. (ii) kasuan, 5 ***m*** —diferentzia bera— *N* nazioaren Altxor Publikora transferitzen dituzte.

Erregimenaren aldaketek ez die inolako kalterik egin egoiliarrei; beraz, gastu netoak beti berdintzen du inportazio-soberakinen balioa; berritasun bakarra, har-

tzekodunen ordezkapena da: Altxor Publikoak 'Naziorik Gabeko Kapitalismoaren' lekua hartzen du.

Zergatik mintzatzen da hemen Nazioarteko Kapital Finantzarioaz? Bera oso nabaria da (i) kasuan, *N* nazioaren esportazioetan —inportazioak baino txikiagokoak— errefluxuan itzuli ezin diren ***m*** monetak, *N* nazioaren bankuen gaineko ez-egoiliarren kreditu-eskubide modura itzultzen dira: beraz, *N* nazioaren ekonomiari dagokionez, *ibilgetzeak* dira. Aldatuak badira, ondorioa berbera da, *N* nazioa beste hainbeste pobretzen baita dibisatan. (ii) kasuan, herrialdeen inportazio-soberakinetan gastaturiko ***m*** monetek ekonomia nazionalaren barnean eskuragarri segitzen dute, prezeskiago Altxor Publikoaren esku, zeinak esportazioen alde erabil ditzakeen, zuzenean, edo *N* nazioaren ahalmen industriala garatzeko.

(g) Ematen du, 'galtzaileak' inplizituki aurkitu ditugula. Herrialdearen mugen barruan ***m*** monetak egonik, ez-egoiliarrek *N* nazioaren bankuetan ezin dituzte gordailuak eduki. Ez al da ondorioztatu behar, beraiek kaltetuak direla *N* naziora zuzenduriko beraien esportazioen neurrian? Berriro ere, beldurrak ez dauka justifikaziorik. (ii) kasuan, (i) kasuan bezalaxe, gainontzeko Munduak ordainketa-tituluak jasotzen ditu, *N* naziora bidalitako esportazio netoen baliokideak direnak. Ikusten denez, ***M*** titulu-moneten salmentak nazioarteko merkatu finantzarioan, egoiliarren atzerritar hartzekodun guztiak konpentsatzeko behar den balio zehatza ematen du dibisatan.

(h) Laburbil dezagun bi kasuen bereizketa.

(i) kasuan, *N* nazioak birritan ordaintzen du bere inportazio-soberakinen zama.

(1) *N* nazioak atzerriaren onurarako (esportazioek) errefluxuan hartu ez dituen ***m*** moneta guztiak galtzen ditu; substantzia-galtze horrek ekonomia —etxean ***m*** moneta alienatuen inbertsioen behar handia edukirik— eta moneta —truke-merkatuan 'defentsarik gabe' eskainia, hau da, aurrean ***m*** moneten eskari bat sorrarazi barik, esportazioak ez-nahikoak baitira— ahultzen ditu; anemia biak gertatzen dira, bata bestearekin batera (eta ez alternatiboki), zeren, nahiz eta errefluxuan hartu ez diren ***m*** monetak aldatuak izan (beste monetatan), beraiek *N* nazioaren ekonomiatik definitiboki kenduak baitira, ezin baitira gehiago inbertituak izan.

(2) Beste aldetik, *N* nazioa zordundu egiten da atzerrira begira, bere dibisen erreserba murriztu ezean.

(ii) kasuan, *N* nazioak bere inportazio soberakinen zama *behin* soilik hartzen du.

Inor ez litzateke kexatu behar: are gehiago, gainontzeko Mundua pozik dago, *N* naziorako eginiko esportazio netoak ordainduak baitira: behin egiten da, eta

nahikoa da. Esportatzaileek ***M*** titulu-moneten salmenta netoak libraturiko dolar guztiak —edo beraiek aukeratutako moneta-unitateak— jasotzen dituzte, *N* nazioaren inportazio-soberakinen balio zehatzaren konkurrentzian.

Zein da inportazio-soberakinen esanahi zehatza?

Egoiliarrek ez dute lortzen kontsumo-ondasunetan beren gastuen kontrapartida osoa. Beren atzerriarekiko erlazioetan, egoiliarrek berek irabazten dutena baino errenta monetario gehiago gastatzen duten hipotesia bera da. Beste aldetik, egoiliarrek inportazio-produktua lortzen dute bi bide osagarriren bidez: inportazio 'estalien' neurrian, bereganatzea zuzenki gauzatzen da produktuen merkatuan; baina soberakinei dagokienez, ezaguna da *N* nazioa zorduntzen dutela, beraz, nazioaren egoiliarrak ere zordunduak dira: honela, inportazio-soberakinek atzerritar 'erosteko ahalmen' baten gastuaren bidez lortzen dira, *N* nazioak maileguz hartua dena bere egoiliarren konturako; hau da, inportazio-soberakinek *aurrezkia* definitzen dute.

Egungo dolar-patroiaren erregimenean, inportazio-soberakinek askaturiko aurrezkia nazioarteko kapital finantzarioan galtzen da, *N* nazioarentzako inolako onurarik gabe. Erregimen berrian, *N* nazioak ***M*** titulu-moneten bidez ordaintzen duenez, *N* nazioaren aurrezkia *N* nazioan mantentzen da: inportazio-soberakinen produktu monetario guztia eskura geratzen da, Altxor Publikoaren esku, *N* nazioaren ekonomiaren hazkunderako inbertsioetarako. Justua besterik ez da, herrialde baten aurrezkia berari baitagokio jabegoan; egoiliarren aurrezkiaren parte bat gastatzen bada, epealdiz epealdi, Naziorik Gabeko Kapital Finantzarioa puztean, horixe da, aspalditik dolarren erreinuak sortzen duen ondoriorik kezkagarriena.

13. Kanpo-zorra eta subiranotasun monetarioa

> "*It has been said that by financing its deficit through its own creation of international money, the United States obtains a kind of 'free' command over real resources, which can be used to enlarge its purchases of foreign goods, services, and assets (including interes-paying reserves) ... By running a cumulative deficit in is balance of payments, the United States can create internationally held dollars in a costless fashion and gain an increase in real national expenditure relative to national income."*
>
> G. M. Meier, *Problems of world monetary order*

Izen berbera daukaten moneta nazionalak, beren artean loturik daude *truke absolutu*aren bidez. Beraz, truke absolutua dela medio gauzaturiko transakzioen multzoa osa daiteke. Horrela, era horretako transakzioetan diharduten agenteek multzo erabat definitua eratzen dute, nazio monetarioa deritzona. Nazio monetarioen muga logikoa truke absolutuak marraztua da; trukea absolutua da transakzio nazionaletakoa; aitzitik, nazioarteko transakzioetako *trukea erlatiboa* da.

Izen desberdineko moneten arteko trukea erlatiboa da. Hauxe da, hain zuzen ere, urre-dibisen patroiaren erregimena. Nazioarteko transakzioak truke absolutuaren menpe ez egoteak ondorio dramatikora darama: nazio monetarioek ezin dute beren kanpo-zorra zerbitzatu, ikaragarrizko 'substantziazko galerak' jaso ezean.

Irtenbidea, nazio monetario soil bat hartzen kontuan badugu, nazio monetario horrek trukeen erregimenaren erreforma orokorraren parte hartzean datza: helburua nazioarteko transakzioak truke absolutuaren erregimenaren menpe jartzea da. Funtsezko erreforma hori gauzatuko denean, nazio monetario horrek bere kanpo-zorra zerbitza dezake, ordainketa horretan sorturiko aurrezki nazional osoa bere barnean gordez: hortaz, ezinezkoa izanen da edozein 'substantziazko galera'.

Egia esan, mundu mailako erreforma bat, oraingoz, pentsaezinezkoa da. Hala ere, argudio nagusia hauxe da, alegia, jendea oraindik ez dela konturatu nazioarteko egungo ordainketen sistemaren desfuntzionaltasunaren diagnostiko zuzenaz. Oztopoa, hortaz, ez dagokio maila politikoari; analitikoa izanik, goiz edo berandu, gainditua izanen da.

Baina nazioek ezin dute itxaron, are gutiago gurea bezain desartikulaturik dagoenak. Izan ere, litekeena da, edozein nazio monetarioren moneta truke absolu-

tuaren sisteman jartzea: jarraian helburu hori lortzeko eman behar diren urratsak azalduko dira.

Barneko transakzioetan erabiltzen den truke absolutuaren sistema, nazio monetario konkretu batek nazioarteko transakzioetara hedatuko duenetik, bere kanpo-zorra zerbitzatzeak ez dio gehiagorik ekarriko inolako 'substantziazko galera-rik'. Ondorioz, erakutsiko denez proposatuko den irtenbide orokorra Nazioarteko Moneta-Fondoko (NMF) herrialde guztietara hedatuz gero, harturiko nazio monetarioari beste mozkin gehigarri bat gehituko zaio: beste nazio monetario guztiek bezalaxe, berak bere zorra zerbitza dezake positiboki, bere merkataritza-balantza negatiboak kanpo-kapitalaren inportazio netoa ekarriko lukeen epealdietan ere.

13.1. KANPO-ZORRA ZERBITZATZEAK SUBSTANTZIAREN GALERA EKARTZEN DIE ZORPETURIKO HERRIALDEEI

Herrialdearen barnean banku-moneta guztiak erabat trukagarri dira elkarren artean. Demagun bi banku frantses —Crédit Lyonnais eta Banque Populaire izenekoak—, edo bi espainiar banku —BBV eta Banco de Santander direlakoak—. Bakoitzak bere moneta espezifikoa jaulkitzen du; hala ere, baten moneta-mota libreki, bestearen moneta-mota bihur daiteke: benetako bihurketa edo eraldaketa da, moneta baten urre-edukia beste baten urre-edukiaren bihurketa 'ricardotarraren' antzekoa. Urrea urre bihurtu zenez, trukea absolutua zen. Paraleloki, Crédit Lyonnaisko libera bat Banque Populaireko libera bihurtzen denean, trukea absolutua da. Truke absolutua ezagutzen da eragiketaren ondoren trukearen bi terminoak existitzen ez direlako: aipaturiko kasuan, Crédit Lyonnaisko libera desagertu egiten da, beraren ordez Banque Populairekoa agertuz. Ondorioz, berehala esan daiteke izen desberdineko bi monetak ez daukatela berezitasun hori. Bi izen ezberdineko bi monetaren arteko trukea, elkartruke-tasa edozein delarik, erlatiboa da, zentzu honetan, alegia, elkartrukearen bi terminoek eragiketa ondoren irauten dutela.

(Esan dezagun, berriro ere, gaur egungo Iparraldeko libera eta Hegoaldeko pezeta trukatzean, truke erlatiboak gauzaten direla Euskal Herriaren barnean, Euskal Herria ez baita nazio monetarioa.)

Bi trukeen bereizteak —absolutua eta erlatiboa— nazio monetarioen definizio logikora darama. Honela Frantzia ongi mugatzen du bere monetaren konpetentziak, eta Espainia bereak. Beste era batera esanda, liberaren definizioak Frantziaren definizioa inplikatzen du, beste edozein multzotatik erabat disjunktua dena. Beste edozein irizpide ez da zehatza. Moneten definizioa unibokoa da: Erreserba Federalaren dolarra objektu bakarra da, beste edozeinekiko ezberdina dena. Hortaz, nazio monetarioaren definiziora irits daiteke. Nazio monetario baten elementua nazio horren moneta konkretuan, *truke absolutua* inplikatzen duten transakzioak egiten dituen edozein agente da. Transakzio batek edozein moneta, moneta berbera bilakatzen baldin badu, transakzio hori agente 'nazional' bati dagokio, edozein delarik agente horren nazio-politikoa.

Erakuts dezagun gaur egungo kanpo-ordainketen sistema, truke erlatibokoa dela.

Truke erlatiboen froga Banku Zentralen aniztasunean datza. Zentzu honetan, nazio monetario bakoitza dagokion Banku Zentral bakarraren eraketatik sortzen dela esan daiteke. Banku Zentral bakoitzak 'izendapen' soila kontrolatzen du, moneta horrek berori emititzen duen nazioa bera 'izendatzen' duelarik. Honela, Frantziako Bankua 'Frantzia-nazioari' —nazioa monetarioari alegia— dagokiona da, eta berorren konturako funtzionatzen du. Eragiketa batek izendapen desberdineko bi moneta, *A* moneta eta *B* moneta, inplikatzen dituenetik, truke erlatiboa da, *A* eta *B* monetak murriztezinak baitira elkarrekiko. Bi truke-sistemak irizpide soil baten aplikazioak bereizten ditu erraz: baldin eta banku batek beste banku baten monetak osaturiko aktiboaren ordez bere monetaren unitateak sortzen baditu, elkartrukatzen diren bi monetak truke erlatiboko objektuak dira; alderantziz, banku batek beregan aturiko moneta deuseztua baldin bada, banku horren monetako kopuru baliokidea ordezkatua izatean, orduan trukea absolutua da.

Erakutsiko dugunez, gaur egungo bi truke-motaren existentziak —absolutua barnean eta erlatiboa kanpoan (nazioartean)— nazioarteko ordainketen sistema erabat nahasten du, zorpeko herrialdeen kalterako.

Horretarako, bi multzoren existentzia erabiliko dugu:

(i) Egoiliarren (edo 'nazionalen) multzoa —I multzoa— hots, transakzioetarako truke absolutuko sistema erabiltzen duten agenteak;
(ii) nazio-multzoa —II multzoa—, transakzioetarako truke erlatiboa erabiltzen dutenekoa.

I eta II multzoak erabat disjunktuak dira, zeren, elkarrekiko murriztezinak izanik, truke-sistema biek ez baitute onartzen inolako 'intersekziorik'.

Nazioarteko ordainketen egungo 'sistema' edo sasi-sistemaren desfuntzionaltasuna agerrarazteko, nahikoa da ikustea kanpo-zorra *birritan* ordaintzen dela, I multzoak eta, batera, II multzoak.

1) Egia da zorpeko agenteak eta beraiek osatzen duten nazio monetarioak desberdinak direla. Estatua kanporako zordun den kasuan ere, zorra egoiliar batena da, kasurako, frantziar Estatuak Frantzian baitauka bere egoitza. Egiazko da, hortaz, kanpo-zorra egoiliarrei dagokiela: hau da, zorra zerbitzatzea truke absolutuko sistemaren arabera gauzatzen dela. Beraz, kanpo-zorra lehendabizi*I multzoari dagokio*.

2) Hala ere, kanpo-zorra soilik *dibisatan* zerbitza daiteke, hau da, kanpoko monetatan. 'Erreserba-moneta' jaulkitzen duten herrialdearen kasuan, badirudi salbuespena dela. Erregela orokorra da, alta: edozein kanpo-zor azkenik zerbitzatua izateko, dibisatan egindako ordainketak behar dira. Hortik induzitzen da, kanpo-zorra zerbitzatzeak *II multzoa inplikatzen duela*.

Kanpo-zorraren edozein zerbitzutan, bi multzoen —I eta II— inplikatzeak badauka zentzu zehatza: *egoiliarrek egindako ordainketak herrialdearen kanpo--zor osoak irauten uzten du*.

Kanpo-ordainketen sistema ordenatua balitz, egoiliarrek eginiko kanpo-zorraren zerbitzatzea herrialdearen ordainagiri definitiboa izanen litzateke. Gaur egungo sis-temaren arabera, ordea, egoiliarrek bereganaturiko kanpo-zor osoa oraindik herrial-deak jasotzen du.

Anomalia hau denuntziatzeko biderik argiena merkataritza-esportazio netoen eta kanpo-zorra zerbitzatzearen etsamina paraleloa egitea dateke. Demagun, bere kanpo-zorraren zerbitzatze aurretik, 1996an Frantziaren transakzio korronteen balantzaren superabita (kasurako) 30 miliar liberakoa dela. Superabit hori zorra zerbitzatzera zuzentzen da. Baldintza horietan Frantziak *birritan* ordaintzen du, batera produktutan eta monetatan:

(i) Frantziak produktutan ordaintzen du, epealdi berean ondasun eta zerbitzu gehiago esportatzen baitu inportatu baino;
(ii) Frantziak monetatan ordaintzen du, berak kanpo-hartzekodunei bere kanpo--irabaziak transmititzen baitizkie.

Analisia zehatzagoa da bi ordainketetan Frantziari bere esanahia ematen bazaio:

a) Frantziako egoiliarrek aurreztu egiten dute —beren barneko errentetatik— eta aurrezkiak transakzio korronteen balantzaren soberakina berdintzen du, eta kanpo-hartzekodunei dedikatzen diete aurrezki hori; berau produktutan eginiko or+dainketa da, errenten tituludunek tituluak ondasun erreal ez baitituzte erabat bihurtzen;

b) 'Frantzia-nazio monetarioak' aurrezturiko errentak dibisatan trukatu behar ditu, eta eragiketa honek liberatan dibisen eskari *superabitduna* definitzen du: monetatan eginiko ordainketa da.

Irtenbidea naturalki diseinatzen da: bigarren ordainketa nulua izateko, eta Frantziak substantziaren inolako galerarik jaso ez dezan, beharrezkoa da egoiliarren aurrezkia herrialdeak bereganatzea eta ez dibisak erosteko erabilia izatea. Zehatz dezagun soluzioa xehekiago, egiaztatzeko ezen kanpo-zorra kitatzean I multzoaren inplikazioak —eta, beraz, II multzoaren parte ez hartzeak— kanpo--hartzekodunen interesei inolako kalterik eginen ez diela.

13.2. SUBSTANTZIAREN GALERAREN DEUSEZTAPENA

NMFren mailan erreforma eginen balitz, Frantziak, beste zorpeko edozein nazio monetariok bezalaxe, ondoko eran aterako luke onura:

1) Egoiliarrek beren kanpo-hartzekodunei, interes eta amortizazioetan, ordaintzen diete liberatan beren kontuen karguen bidez. Beraien bezeroek kreditaturiko bankuak Frantziako Bankuaren departamentu berezi batek liberatan zordunduak dira, Altxor Publikoaren konturako. Ordainketa honek egoliar zorpetuen aurrezkia Altxor Publikoari transferitzea esan nahi du.

2) Altxor Publikoak horrela eskuraturiko aurrezkia *ez da erabiltzen dibisen erosketa netoan*; aitzitik, soilik eta sinpleki Altxor Publikoari da lotua. Ondorio hori beste era batera adieraz dezakegu esanez, NMF erreformatua izan eta gero, dibisen erosketan erabilitako aurrezkia bat-batean Altxor Publikoari saria ematen zaiola NMFren onerako, frantziar Altxor Publikoak emitituriko obligazioen erosketan. Horrela ikusten da truke-merkatuan gastaturiko liberak 'joan-etorri'-ko mugimenduaren menpe daudela: kanpo-zorraren zerbitzuak lehendabizikoz barneko aurrezki korrelatiboa NMFri transferitua dela esan nahi du; hala ere, NMF aurrezki horretaz baliatzen da, Frantziak emitituriko tituluetan trukatzeko. Ikusten denez, libera truke absolutuaren sistemaren menpe dago, kanpo-zorraren ordainketan erabilitako liberak transakzio berean batera eskainiak eta eskatuak baitira trukeen merkatuan.

3) Kanpo-hartzekodunei ordaintzen zaie, nahiz eta Frantzian eraturiko aurrezki monetarioa Frantziara itzuli; izan ere, transakzio korrontearen balantzaren soberakin erreala monetizatua da; modu horretatik irabazitako dibisak, NMF dela bide, frantziar egoiliarren kanpo-hartzekodunei igorriak dira.

Dudatzekoa da, irtenbide hori berehala ulertua izan eta praktikan jarriko denik. Pentsa dezagun, beraz, zein izan daitekeen behin-behineko irtenbidea, Frantziarako —edo eta edozein nazio monetariotarako noski—.

13.3. BEHIN-BEHINEKO PROPOSAMENA

Transakzio guztietan eskaintza eta eskariaren arteko beharrezko berdintasuna da truke absolutuaren formulazioa. Frantziak frantziar liberaren truke absolutuaren sistema antola dezake, inolako botere atzerritarren erreferentziarik gabe. Horretarako, beharrezkoa da Frantziak bere Altxor Publikoari ahalbidetzea, eta soilik Frantziarako, NMFren erreformaren eginkizuna betetzea.

Erakuts dezagun Frantziaren kanpo-ordainketen ordena berria:

(i) Kanpo-zorraren zerbitzaileek —sektore publiko zein pribatuarenak izanik— liberatan zerbitzatzen dute; fondo hori azkenik Altxor Publikoaren kutxara iristen da.
(ii) Uste da diru hori ez dagokiola Altxor Publikoari. Baina logikak alderantzizko ikasketa ematen du: zorraren zerbitzaileek gastaturiko dirua Altxorrari zaio definitiboki lotua. Froga hauxe da: hartzekodun atzerritarrei osoki ordaindu zaie —ongi ulertu, kanpo-zorraren zerbitzatzearen neurrian— Frantziako transak-

zio korronteen balantzaren soberakinean irabazitako dibisen bidez. Ez-zilegizkoa litzateke bigarren aldiz ordaintzea, zorraren zerbitzaileek gastaturiko dirua abandonatuz. Beste hitzetan esanda, Frantziak jadanik ordaindu du bere esportazio netoen kopururako; nahikoa da, beraz. Ordainketa, dibisatan egina izanik, dena dago ordaindurik. Zorraren zerbitzaileek eskuraturiko aurrezkiak, frantziar liberatan izanik, Frantzian egon behar du, Altxor Publikoaren kutxan, —zeinak bi helburutarako erabil dezakeen, barne-zorra gutxitzeko edo inbertsio berriak gauzatzeko—.

(iii) Frantziar liberaren truke absolutua ondoko bi neurriren elkartzeak lortuko du:

a) Frantziaren edozein ordainketa hartzekodunek bere Altxor Publikoari dibisak ekartzen dizkio; dibisa horiek berehala banku atzerritarrei maileguz ematen zaizkie, baliokide diren gordailuak eratzeko;

b) Frantziaren edozein ordainketa zordunek frantziar Altxor Publikoak banku atzerritarretatik helburu horretarako eskuraturiko dibisak jartzen ditu martxan.

Argi dago ezen, Frantziak transakzio korronteen balantza-soberakina deneko edozein epealditan maileguz emaniko dibisak, Frantziak maileguz harturiko dibisak baino gehiago direla; hala ere, kanpo-zorraren zerbitzuak soberakin hori deuseztatzen du. Honela egiaztatzen da, Frantziaren edozein ordainketak —zordun zein hartzekodun izan—, berez, frantziar liberaren truke absolutua definitzen duela.

(1) Demagun lehendabizi ordainketa hartzekodunaren etsenplua. Dibisak Altxor Publikoak eskuratzen ditu: eragiketan inplikaturiko lehen mugimendua da; mugimendu honek dibisak liberatan trukatzea esan nahi du. Baina transakzioa ez da oraingoz erabat adierazia, Altxor Publikoak irabazitako dibisak berehala banku atzerritarretan gordailuetan eraldatzeko ematen baititu: eragiketan aldi berean inplikaturiko bigarren mugimendu horrek liberak dibisatan trukatzea esan nahi du.

(2) Ordainketa zordunaren etsenpluak ondorio berbera ematen du. Dena den, adieraz dezagun kanpo-zorraren zerbitzurako soluzioa. Zorraren zerbitzaileek dibisak liberatan eskatzen dituzte: transakzioaren lehen erdia da. Bere aldetik, Altxor Publikoak Frantziaren transakzio korrontearen balantzaren soberakinean irabazitako dibisak liberen kontra eskaintzen ditu: transakzio berberaren bigarren erdia da. Bi mugimendu horien osagarritasunak truke absolutua adierazten du.

Bukatzeko, azal dezagun zer-nolako onura lortuko lukeen Frantziak, aipaturiko irtenbidea NMF-ko kide diren herrialde guztietara luzatuko balitz.

Frantzia bakarra balitz, berak zorraren zerbitzu bikoitza saihestuko luke, berez nahikoa dena. Ikusi den bezala, helburua truke absolutua eratuz lortzen da, Bihurtze-Ganbararen eraketa soila baino harago doan neurria. ‘Frantzia Etxeak’ zorraren zerbitzuaren zama guztia ez luke gehiago eramanen, epealdi guztietan, frantziar

Altxor Publikoak barnean eta liberatan irabaziko bailuke bere transakzio korronteen balantzaren soberakin zehatzen baliokidea. Orduan, zorra zerbitzatua izanen litzateke kanpoan, merkataritza-irabazien eta hartzekodun atzerritarren ordainketen erabateko simetrian.

Hala ere, erabateko soluzioa ez litzateke oraingoz lortuko, frantziar libera bakarraren truke absolutuaren sisteman —beste monetetarako trukea erlatiboa izanik— Frantzia oraingoz beharturik egonen bailitzateke merkataritza-irabazi netoak eskuratzera bere zorra zerbitzatzeko; beste era batera esanda, Frantziak ezin izango lituzke une berean bere industriaren hazkundea areagotzeko kapital atzerritar berriak bereganatu eta, hala ere, hartzekodun atzerritarrei zerbitzatu.

NMFren erreformak irtenbidea orokortuko duenetik, Frantzia —beste edozein herrialde zordundu bezalaxe— merkataritza-soberakinen hertsiduratik aske izanen da: berak bere zorraren zerbitzatzeko esportazio gordinak erabil ditzake, eta ez gehiago netoak: horrela, beraren transakzio korronteen balantza negatiboa izan deneko epealdian ere, Frantziak positiboki zerbitza dezake bere zorra, bere hartzekodunei bere esportazioen zati bat transferituz, nahiz eta, derragun oraingoz berriz, esportazioen kopuru osoa bere inportazio korrelatiboen kopuruaren menpe egon.

Plan berriaren filosofia xehea laburtuko dugu jarraian.

Dibisa-patroiaren sisteman, moneta nazionalak beren artean heterogenoak dira. Nazio bakoitzak bere banku-moneta espezifikoa erabiltzen du, munduko beste edozein monetarekin nahasi ezin dena. Moneten espezifikotasunaren arrazoia Banku Zentral autonomoak ordainketak gidatzen ditueneko multzo bakoitzean sistema monetario bakarraren existentzian oinarritzen da. Mundu-moneta existituko litzateke, planetak Banku Zentralen Bankua edukiko balu soilik.

Helburu horretara noizbait jo behar da. Tartean, kontua apalagoa da, hots, moneta nazionalak izendatzaile edo denominadore komun batera murriztea. ‘Bateratasun’ hori nazioarteko transakzioen espazioan besterik ez da bilatu behar, nazio monetario bakoitzaren subiranotasuna errespetatuz eta babestuz. Horretarako, beharrezkoa da —eta neurria nahikoa da— barneko zirkuitu monetarioak kanpo-ordainketen zirkuitutik bereiztea. Soluzioa lortzen da, baldin eta nazioarteko ordainketen hasierako jatorri-puntua edo azken helburu-puntua kide diren herrialdeen Altxor Publikoetan badaude. Nazio bakoitzaren ordainketa hartzekodun edo zordunak izanik ere, bankuetatik at egon behar dira.

Nazioarteko transakzioen espazio soilean moneta nazionalen homogenotasuna eratuko denetik, *bere kanpo-ordainketak direla bide, nazio bakoitzean eratuko diren aurrezkiak nazioei dagozkien Altxor Publikoek definitiboki eskuratuko dituzte.*

13.4. ERREFORMAREN ARAUEN LABURPENA (herrialde soil baterako)

Meade-k aspaldian azpimarratu zuen nazioarteko sistemaren beharra. Beraren ustez, sistema horrek ondoko ezaugarriak eduki behar zituen (1963):

(a) Bai defizitdun bai superabitdun herrialdeei, beren moneta-politikak eta finantza-politikak bereziki enplegu osoari, prezioen egonkortasunari, eta garapen ekonomikoari eusten ahalbidetzea;

(b) inportazioen kontrako tarifak eta beste antzeko oztopoak kentzea baimentzea; hau da, ez dituzte inportazioak murriztu behar, beren nazioarteko balantzaren oreka birlortzeko helburuarekin soilik;

(c) garapen gabeko herrialdeei finantza-laguntza emateko programak gauzatzen ahalbidetzea; ez dute egon behar beren kanpo-laguntza mozteko inolako konpultsioaren menpe, edo beren kanpo-laguntza beren esportazio nazionalei soilik lotu beharrean, beren ordainketa-balantza orekan ezartzeko bide gisa.

Meade-ren eskaerak gaur egun ere badira nazioarteko ordainketen sistemak bete behar lituzkeenak. Orain arte, ezein moneta-teoriak ez ditu irizpide horiek bete. Hain zuzen ere, herrialde gehienek beren etxeko moneta-politika aldatu behar izan dute kanpoko faktoreen eragina dela kausa, eta faktore berberak dira zorpeko herrialdeek garapen ekonomikorako dituzten oztoporik handienak. Monetaren desegonkortasuna eta kanpo-zorraren krisia nazioarteko ekonomiaren errealitate mingarriak dira, herrialde askoren jendetza handiarengan eragin kaltegarriak dakartzatenak. Horri nazioarteko kapital espekulatzaileak —bere burua elikatzen duena— desengonkortasunerako daukan gero eta eragin handiagoa gehitzen bazaio, egungo nazioarteko ordainketen sasi-sistemaren arazoak beren krudeltasun gordinean agertzen dira.

Zorpetzea eta nazio monetarioaren subiranotasuna dauzkagu aztergai. Horretarako, ikusi den bezala, beharrezkoa eta nahikoa da, zorpekoa den herrialdeak, dibisatan eskuratzearren, bere irabazi netoak ez deuseztatzea. Hau da, nazioarteko transakzioetan erabilitako ‘ibilgailua’ neutro bihurtu behar da. Horretarako Schmitt-ek Keynes-en intuizioetan eta berorrek aurkituriko printzipioetan oinarrituz, horien interpretazio berri bat emanez, monetaren ibilgailuzko kontzepzioa eta partida biko kontabilitatea erabiliko ditu kanpo-zorraren arazoaren soluzio logikoa eman ahal izateko (Schmitt 1984c; 1985c;1987a,b,c.d;1988b;1989; Schmitt eta Cencini 1991).

Aipatuko diren arauak herrialde soil batenak (*H* izena emango diogu) izanen dira. Kontabilitate-kontuak Banku Zentralari dagozkio, nahiz eta beste edozein erakundek ere (Altxor Publikoa, Hazienda, eta abar) funtzio hori bete dezakeen.

Etsenplua errazteko, erreferentziazko atzerritar moneta modura dolarra hartzen da, dolarraren eta *H* herrialdearen monetaren *(M)* arteko truke-tasa ondokoa dela suposatuz: 1 M = 1 $.

Kanpo-zorra zerbitzatzeko irizpideak honako hauek dira:

(i) Banku Zentrala bi departamentutan banatzen da: barne-departamentua, (I), moneta nazionalean inportazio, esportazio, mailegu eta kanpo-zorraren zerbitzuaren ordainketa-mota guztiak jaso eta gauzatzen dituena; eta kanpo--departamentua, (II), gainontzeko Munduari dolarretan ordainketa-mota guztiak gauzatzen dituena.
(ii) Hasieran Banku Zentralaren bigarren departamentuak, (II), aurreko epealdietan metaturiko herrialdearen kanpo-zorra hartzen du eta bere kontua orekatzen du balantze-orriaren aktibo aldean erreserba eta inportazioen kopuru baliokideak sartuz.

Banku Zentrala
(II departamentua)

Aktiboa		Pasiboa	
Inportazioak	X - y	Kanpo-zorra	X
Erreserbak	y		

(iii) Bigarren departamentuak lorturiko irabazia, herriak metaturiko kanpo-zorraren gutxitzea dela kausa, lehen departamentura igortzen da, zeinak bera monetizatzen duen, herrialdearen moneta nazionalean eta bera erabiltzen duen esportatzaileei ordaintzeko.
(iv) Herrialdearen zorpeko egoiliarrek egiten duten ordainketa, moneta nazionalean, beren kanpo-zorra zerbitzatzearren, Banku Zentralaren lehen departamentuak jasotzen du Altxor Publikoaren izenean.

Hiru kasu desberdin bereiz daiteke:

A kasua. Inportazio eta esportazioen berdinketa.
Inportazioak: 10
Esportazioak: 10
Mailegu berria: 2
Kanpo-zorraren zerbitzua: 2

Kanpo-zorraren zerbitzuaren nazioartekotzeak Altxor Publikoari moneta nazionalean, *M*, irabazia dakarkio, mailegu berria soilik egoiliarrek jasaten dutelarik; eta herrialdearen kanpo-zorra gehitzen du soilik maileguak bere barneko kreditua gehitzen duen neurrian.


B kasua. Inportazio netoak.
Inportazioak: 10
Esportazioak: 8
Mailegu berria: 4
Kanpo-zorraren zerbitzua: 2

Nahiz eta mailegu berria 4 unitatekoa izan, *M* monetan, ondorioa lehengo kasuarena bera da: kanpo-zorraren zerbitzuak mozkina Altxor Publikoari ematen dio, zeinaren aktiboa moneta nazionaleko kopuru baliokidean gehitzen den.

C kasua. Esportazio netoak.
Inportazioak: 8
Esportazioak: 10
Kanpo-zorraren zerbitzua: 2

Kanpo-zorraren zerbitzutik datorren irabazia —Bankuaren bigarren departamentuak, herrialdearen izenean, gauzaturiko zorraren gutxitzea ekartzen duena— egoiliarren zorpetzearen gutxitzearekin batera doa. Herrialdearen esportazio netoak Banku Zentralaren lehen departamentuak ordaintzen ditu, zeinak mozkina lortzen duen, bigarren departamentura igortzetik. Herrialdeak ordaintzen duen diru-kopurua, zorpeko egoiliarren ordez, Altxor Publikora da igorria.

Kasu desberdinen analisia.
A kasua.



Kontabilitate analitikoa

Banku Zentrala
Kanpo-departamentua (II)

Aktiboa ($)		Pasiboa ($)	
Inportaturiko ondasunak Erreserbak	X - y y	Kanpo-zorra	X$
(1) Erreserbak	2	Kapitala	2
(2) Kapitala	2	Erreserbak	2
(3) Erreserbak	10	Kapitala	10
(4) Kapitala	8	Erreserbak	8
(5) Kapitala	2	Erreserbak	2
(6) Kanpo-zorra	2	I depart.	2

Banku Zentrala
Barne-departamentua (II)

Aktiboa (M)		Pasiboa (M)	
(7) II departamentua	2	Esportatzaileak	2
(8) Inportatzaileak	10	Esportatzaileak	8
		Mailegu--hartzaileak	2
(9) Zorpeko egoiliarrak	2	Altxor Publikoa	2

Sarrera bakoitzean definituriko eragiketak hauexek dira:

(Ohar bedi ezen, nahiz eta eragiketak ordena batean ezarri, *de facto* batera gauzatu daitezkeela; kasurako, *A* kasuan (1) eta (8) direlakoak eragiketa berberari dagozkio.)

(1) Gainontzeko Munduak emandako 2$ko mailegu berrian.

(2) 2$ko mailegua dela bide finantzaturiko inportazioak.

(3) 10$-ren baliokide diren esportazioak.

(4) 8$-ren baliokide diren inportazioak.

(5) 2$ delako kanpo-zorraren zerbitzua.

(6) Banku Zentralaren lehen departamentura herrialdeak kanpo-zorrean gutxitzea dela kausa daukan irabaziaren igortzea.

(7) Kanpo-zorraren zerbitzuari dagokion irabaziaren monetizazioa *M* monetan, eta herrialdearen esportatzaileen ordainketa partziala.

(8) Herrialdearen inportatzaileek ordainduriko *M* monetan, zeina partzialki mailegu berriaren onuradunei 2*M* moneta transferitzen zaien, eta partzialki, 8*M* moneta, esportatzaileei ordaintzeko erabilia den.

(9) Herrialdearen zorpeko egoiliarrek gauzatutako ordainketa *M* monetan, eta Altxor Publikoari transferitzea.

Herriaren kanpo-transakzioak gauzatuz, Banku Zentralaren bigarren departamentuari dolarretan ordaintzen dio gainontzeko Munduak, eta honela dolarretan ordaintzen die herrialdeak bere atzerritar hartzekodunei. Beraz, herrialdearen esportazioek eta berak atzerritik jasotzen dituen maileguek dolarren barne-fluxu positiboa ekartzen dute bigarren departamentura, herrialdearen inportazioak eta beraren kanpo-zorraren zerbitzua dolarren kanpo-fluxu positiboaren kausak diren bitartean. Ondasun, zerbitzu eta bonuen inportazio eta esportazioen orekarako

behar den 2$ko maileguak Banku Zentralaren erreserbei dolarrak gehitzen dizkie, eta herrialdearen inportazioak ordaintzeko erreserba horiek gastatuak izanen direnean, Bankuak galduko duen kapitala errepresentatzen du mailegu horrek; egoiliarren zorpetzea herriak beraien izenean hartu duen zor berriaren kontrapartida mailan geratzen da soilik. Gainera, herrialdearen esportazioak direla-eta, gainontzeko Munduak egindako ordainketek Banku Zentralaren erreserbak handitzen dituzte; beraiek jasoak dira kapital gisa. Bankuak herrialdearen inportazioengatik ordaintzen duenean, erreserbak gutxitu eta kapitala desagertu egiten dira. Geratzen dena 2$ko erreserba da, zeina Bankuak erabiltzen duen, herrialdearen kanpo-zorraren zerbitzuan. Eragiketa horien emaitza, beraz, herrialdeak metaturiko zorraren gutxitzea da, zeina bigarren departamentuak lehen departamentura igorritako irabazi baliokidea modura jasoa den. Hemen eragiketak etxeko monetan jasoak dira, eta zorpeko egoiliarrek eta inportatzaileek egindako ordainketei erlazionatuak, eta baita esportatzaileen eta mailegu-hartzaileen onurarako bankuak egindako ordainketei ere. Herrialdeen inportatzaileek mailegu hartzaileei eta esportatzaileen parte bati ordaintzen dietela dirudi; alta, kanpo-zorraren zerbitzuari degokionez, esportatzaileei zuzenki —moneta sormenaren bidez— ordaintzen diena Banku Zentrala da. Sormen horrek ez du eraginik truke-tasan eta ez da inflaziogilea, herrialdearen kanpo-irabaziaren etxeko monetizazioari baitagokio. Beste aldetik, beren zorra zerbitzatzearren zorpeko egoiliarrek ordainduriko kopurua, osoki bereganatzen du Bankuak, Altxor Publikoaren izenean. Kopuru hori da sistema berrian martxan jartzeari dagokion irabazia, eta herriak metaturiko kanpo-zorraren ordainketa positibotik dator zuzenean, kanpo-zorra dolarretan X-tik $(X-2)$-ra aldatzen delarik; hau da, interesen ordainketak kontuan hartuz gero, $(X+\mathrm{i})$-tik $[X+\mathrm{i}-\mathrm{i}-(2-\mathrm{i})]$-ra.

A kasuari dagozkion partidak hauexek dira:

Banku Zentrala
I Departamentua

II Depart. ($)	
Aktiboa	Pasiboa
(6) 2$	(7) 2$

II Departamentutiko transferentzia	
Aktiboa	Pasiboa
	(6) 2$

II Depart.	
Aktiboa	Pasiboa
(7) 2M	

Inportatzaileak	
Aktiboa	Pasiboa
(8) 10M	

Esportatzaileak	
Aktiboa	Pasiboa
	(8) 8M
	(7) 2M

Mailegu-hartzaileak	
Aktiboa	Pasiboa
	(8) 2M

Zorpeko egoiliarrak	
Aktiboa	Pasiboa
(9) 2M	

Altxor Publikoa	
Aktiboa	Pasiboa
	(9) 2M

Konpentsazioa

Aktiboa		Pasiboa	
$	M	$	M
(7) 2		(7)	2

Banku Zentrala
II Departamentua

Metatutako kanpo-zorra

Aktiboa	Pasiboa
	X$
	(X+i)$
(6) 2$	

Erreserbak

Aktiboa	Pasiboa
y$	
(1) 2$	(2) 2$
(3) 10$	(4) 8$
	(5) 2$

Inportazioak

Aktiboa	Pasiboa
X - y $	

Kapitala

Aktiboa		Pasiboa	
(2)	2$	(1)	2$
(4)	8$	(3)	10$
(5)	2$		

B. Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa
	(6) 2$

Mailegu-hartzaileak

Aktiboa		Pasiboa
(1)	2$	

Kanpo-zor berria

Aktiboa	Pasiboa
	(1) 2$

Altxor Publikoa

B.Z.tiko transferentzia

Aktiboa	Pasiboa
	(9) 2M

B.Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa
(9) 2M	

Zorpeko egoiliarrak

Kanpo-zorra

Aktiboa	Pasiboa
(9) 2 - i $	X$

B.Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa
	(9) 2M

Kanpo-zorraren interesak

Aktiboa	Pasiboa
(9) i$	i$

Konpentsazioa

Aktiboa		Pasiboa	
$	M	$	M
(9)	2-i	(9)	2-i
(9)	i	(9)	i

Inportatzaileak

B.Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa
	(8) 10M

Inportaturiko ondasunak

Aktiboa	Pasiboa
(8) 10$	

Konpentsazioa

Aktiboa		Pasiboa	
$	M	$	M
(8)	10	(8)	10

Esportatzaileak

B.Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa
(7) 2M	
(8) 8M	

Esportaturiko ondasunak

Aktiboa	Pasiboa
	(7) 2M
	(8) 8M

Mailegu-hartzaileak

B. Z.aren II Depart.

Kanpo-zorra

Aktiboa	Pasiboa
	(1) 2$


B.Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa
(8) 2M	

Konpentsazioa

Aktiboa		Pasiboa	
$	M	$	M
(1) 2		(8)	2

B kasua.



Kontabilitate analitikoa

Banku Zentrala
Kanpo-departamentua (II)

Aktiboa (M)		Pasiboa (M)	
Inportaturiko ondasunak Erreserbak	X - y y	Kanpo-zorra	X
(1) Erreserbak	4	Kapitala	4
(2) Kapitala	4	Erreserbak	4
(3) Erreserbak	8	Kapitala	8
(4) Kapitala	6	Erreserbak	6
(5) Kapitala	2	Erreserbak	2
(6) Kanpo-zorra	2	I depart.	2

Banku Zentrala
Barne-departamentua (II)

Aktiboa (M)		Pasiboa (M)	
(7) II departamentua	2	Esportatzaileak	2
(8) Inportatzaileak	10	Esportatzaileak	6
		Mailegu--hartzaileak	4
(9) Zorpeko egoiliarrak	2	Altxor Publikoa	2

Sarrera bakoitzean definituriko eragiketak hauexek dira:

(1) Gainontzeko Munduak emandako 4$ko mailegu berrian.

(2) 4$ko mailegua dela bide finantzaturiko inportazioak.

(3) 8$-ren baliokide diren merkataritza-esportazioak.

(4) 6$-ren baliokide diren merkataritza-inportazioak.

(5) 2$ko kanpo-zorraren zerbitzua.

(6) Banku Zentralaren lehen departamentura herrialdeak kanpo-zorrean gutxitzea dela kausa daukan irabaziaren igortzea.

(7) Kanpo-zorraren zerbitzuari dagokion irabaziaren monetizazioa *M* monetan, eta herrialdearen esportatzaileen ordainketa partziala.

(8) Herrialdearen inportatzaileek ordainduriko *M* monetan, zeina partzialki mailegu berriaren onuradunei 4M moneta transferitzen zaien, eta partzialki, 6*M* moneta, esportatzaileei ordaintzeko erabilia den.

(9) Herrialdearen zorpeko egoiliarrek gauzatutako ordainketa *M* monetan, eta Altxor Publikoari transferitzea.

A kasuarekin daukan ezberdintasun bakarra hauxe da, alegia, oraingo honetan kanpo-mailegua 4$koa dela. Ordainketa guztiak bide beretik daude gauzatuta eta kanpo-zorraren zerbitzuak Altxor Publikoari herrialdean metaturiko kanpo-zorraren gutxitzearen baliokidea irabazi modura ematen dio.

Partida biko idazpenak honelakoak dira:

Banku Zentrala
I Departamentua

II Depart. ($)

Aktiboa		Pasiboa	
(6)	2$	(7)	2$

II Departamentutiko transferentzia

Aktiboa	Pasiboa	
	(6)	2$

II Depart.

Aktiboa		Pasiboa	
(7)	2M		

Inportatzaileak

Aktiboa		Pasiboa	
(8)	10M		

Esportatzaileak

Aktiboa	Pasiboa	
	(8)	6M
	(7)	2M

Mailegu-hartzaileak

Aktiboa	Pasiboa	
	(8)	4M

Zorpeko egoiliarrak

Aktiboa		Pasiboa	
(9)	2M		

Altxor Publikoa

Aktiboa	Pasiboa	
	(9)	2M

Konpentsazioa

Aktiboa		Pasiboa	
$	M	$	M
(7) 2		(7)	2

Banku Zentrala
II Departamentua

Metatutako kanpo-zorra

Aktiboa		Pasiboa	
		X$	
		(X+i)$	
(6)	2$		

Erreserbak

Aktiboa		Pasiboa	
y$			
(1)	4$	(2)	4$
(3)	8$	(4)	6$
		(5)	2$

Inportazioak

Aktiboa		Pasiboa	
X - y $			

Kapitala

Aktiboa		Pasiboa	
(2)	4$	(1)	4$
(4)	6$	(3)	8$
(5)	2$		

B. Z.aren I depart.

Aktiboa	Pasiboa	
	(6)	2$

Mailegu hartzaileak

Aktiboa		Pasiboa
(1)	4$	

Kanpo-zor berria

Aktiboa	Pasiboa	
	(1)	4$

Altxor Publikoa

B.Z.tiko transferentzia

Aktiboa	Pasiboa	
	(9)	2M

B.Z.aren I Depart.

Aktiboa		Pasiboa
(9)	2M	

Zorpeko egoiliarrak

Kanpo-zorra

Aktiboa		Pasiboa
(9)	2 - i $	X$

B.Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa	
	(9)	2M

Kanpo-zorraren interesak

Aktiboa		Pasiboa	
(9)	i$		i$

Konpentsazioa

Aktiboa		Pasiboa	
$	M	$	M
(9)	2-i	(9)	2-i
(9)	i	(9)	i

Inportatzaileak

B.Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa
(8)	10M

Inportaturiko ondasunak

Aktiboa		Pasiboa
(8)	10$	

Konpentsazioa

Aktiboa		Pasiboa	
$	M	$	M
(8)	10	(8)	10

Esportatzaileak

B.Z.aren I Depart.

Aktiboa		Pasiboa
(7)	2M	
(8)	6M	

Esportaturiko ondasunak

Aktiboa	Pasiboa	
	(7)	2M
	(8)	6M

Mailegu-hartzaileak

B.Z.aren. II Depart.
Kanpo-zorra

Aktiboa	Pasiboa
	(1) 4$


B. Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa
(8) 4M	

Konpentsazioa

Aktiboa		Pasiboa	
$	M	$	M
(1) 4		(8)	4

C kasua.



Kontabilitate analitikoa

Banku Zentrala
Kanpo-departamentua (II)

Aktiboa ($)		Pasiboa ($)	
Inportaturiko ondasunak Erreserbak	X - y y	Kanpo-zorra	X$
(1) Erreserbak	10	Kapitala	10
(2) Kapitala	8	Erreserbak	8
(3) Kapitala	2	Erreserbak	2
(4) Kanpo-zorra	2	I depart.	2

Banku Zentrala
Barne-departamentua (II)

Aktiboa (M)		Pasiboa (M)	
(5) II departamentua	2	Esportatzaileak	2
(6) Inportatzaileak	8	Esportatzaileak	8
(7) Zorpeko egoiliarrak	2	Altxor Publikoa	2

Sarrera bakoitzean definituriko eragiketak hauexek dira:

(1) 10$-ren baliokide diren merkataritza-esportazioak.

(2) 8$-ren baliokide diren merkataritza-inportazioak.

(3) 2$ko kanpo-zorraren zerbitzua.

(4) Banku Zentralaren lehen departamentura herrialdeak kanpo-zorrean gutxitzea dela kausa daukan irabaziaren igortzea.

(5) Kanpo-zorraren zerbitzuari dagokion irabaziaren monetizazioa *M* monetan, eta herrialdearen esportatzaileen ordainketa partziala.

(6) Herrialdearen inportatzaileek egindako ordainketa *M* monetan, zeina transferitzen zaien, herrialdearen esportatzaileei.

(9) Herrialdearen zorpeko egoiliarrek gauzatutako ordainketa M monetan, eta Altxor Publikora kopuruarena igortzea.

Aurreko bi kasuetan ez bezala, hemen ez da behar inolako mailegurik, herriaren merkataritza-esportazio netoek beren inportazioak ordaintzeko eta beren kanpo-zorraren zerbitzua egiteko behar diren atzerritar moneten kopurua ematen baitute. Beste aldetik, herrialdearen kanpo-zorraren zorpetzearen gutxitzeak sortzen du Altxor Publikoan etxeko monetaren barne-fluxu baliokidea, zeina Altxor Publikoak erabil dezakeen, kasurako, herrialdearen zor publikoaren zama arintzeko.

C kasuari dagozkion partidak hauexek dira:

Banku Zentrala
I Departamentua

II Depart. ($)	
Aktiboa	Pasiboa
(4) 2$	(5) 2$

II Departamendutiko transferentzia	
Aktiboa	Pasiboa
	(4) 2$

II Depart.	
Aktiboa	Pasiboa
(5) 2M	

Inportatzaileak	
Aktiboa	Pasiboa
(6) 8M	

Esportatzaileak	
Aktiboa	Pasiboa
	(6) 8M
	(5) 2M

Zorpeko egoiliarrak	
Aktiboa	Pasiboa
(7) 2M	

Altxor Publikoa	
Aktiboa	Pasiboa
	(7) 2M

Konpentsazioa

Aktiboa		Pasiboa	
$	M	$	M
(5) 2		(5)	2

Banku Zentrala
II Departamentua

Metatutako kanpo-zorra

Aktiboa	Pasiboa
	X$
	(X+i)$
(4) 2$	

Erreserbak

Aktiboa	Pasiboa
y$	
(1) 10$	(2) 8$
	(3) 2$

Inportazioak

Aktiboa	Pasiboa
X - y $	

Kapitala

Aktiboa		Pasiboa
(2)	8$	(1) 10$
(3)	2$	

B. Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa
	(4) 2$

Altxor Publikoa

B.Z.tiko transferentzia

Aktiboa	Pasiboa
	(7) 2M

B.Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa
(7) 2M	

Zorpeko egoiliarrak

Kanpo-zorra

Aktiboa	Pasiboa
(7) 2 - i $	X$

B.Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa
	(7) 2M

Kanpo-zorraren interesak

Aktiboa	Pasiboa
(7) i$	i$

Konpentsazioa

Aktiboa		Pasiboa	
$	M	$	M
(7)	2-i	(7)	2-i
(7)	i	(7)	i

Inportatzaileak

B. Z.aren I Depart.

Aktiboa	Pasiboa
	(6) 8M

Inportaturiko ondasunak

Aktiboa	Pasiboa
(6) 8$	

Konpentsazioa

Aktiboa		Pasiboa	
$	M	$	M
(6)	8	(6) 8	

Esportatzaileak

B.Z.aren I Depart.

Aktiboa		Pasiboa
(5)	2M	
(6)	8M	

Esportaturiko ondasunak

Aktiboa	Pasiboa	
	(5)	2M
	(6)	8M

14. Euskal Herriaren subiranotasun monetarioa

"*To be, or not to be: that is the question*"

W. Shakespeare

14.1. HIRUTASUN SAINDUA: BANCORRA, EUROA ETA EUSKOA

Jainkoak balira bezala, hiru moneta bide daude gure zeru urdinaren gainean: mundu-mailan 'bancorra', eraikitzeko dagoen Europan 'euroa', eta sortzen eta eraikitzen ari garen Euskal Herrian 'euskoa' (edo beste edozein izenekin agertuko dena: 'hogerleko', 'laurleko', 'lizardi' edo besteren bat). "*Izena duen guztia omen da*" dio euskal esaera zaharrak. Alta, hiru moneta horiek izenak eduki arren ez dira, oraingoz, existitzen. Are gehiago, moneta-teoria berriak baldintza-tzen du beraien existentzia.

Bancorraz eta euroaz jadanik esanikoa laburbildu besterik ez dugu eginen hemen.

14.1.1. 'Bancor"delakoa

Dolarraren menpekotasunaren kontra, zorrak ongi neurtzeko, mundu-mailan behar-beharrezkoa da 'bancor' edo antzeko monetaren bat. Madrilen orain dela gutxi Nazioarteko Moneta-Fondoak egindako bilera, lotsagarri izan da erabat. Aukera galdua, 50. mendeurrena ospatzeko.

Arazoa, nazioarteko kontu-unitatea nazioarteko ordainketa-unitate bilakatzean datza. Kontu-unitatea neurri ekonomikoen patroia da. Nazioarteko arloan, 'bancor' bezalako kontu-unitate bakoitza unitate numeriko hutsa —*numéraire*— izanen da.

Kontu-unitateak ez-ondasunak dira. Ordainketa-unitateak eskain eta eska daitezke merkatuetan. Kontu-unitateak ordainketa-unitate bilakatzen dituen ekintza bakarra moneta-jaulkipena da. Edozein monetaren jaulkipena, jaulkitako moneta, monetan bertan gorderiko ondasun errealen era numeriko bilakatzen deneko eragiketa da. Nazioarteko ordainketei dagokienez, printzipio horrek esan nahi du, alegia, bancorra moneta nazionalen patroi numeriko hutsa dela, Keynes-ek Bretton Woods-en erakutsi zuen moduan. Beraz, nazioarteko banku batek nazioarteko moneta jaulkitzea da lehen premia. Agian Nazioarteko Moneta-Fondo **berriak** har dezake bere gain jaulkipen hori.

14.1.2. Euroa ez da jaulkiko inolako 'paralelismoren' bidez

Kontu-unitatea zenbaki hutsa da, abstraktua, 'numerarioa' alegia. Argi dago ezin dela zenbakien bidez ordaindu; zenbakien eginkizuna ordainketetan zorrak eta kredituak zenbatzea da, ez beraiek kitatzea.

Batzuek euroa moneta 'paralelotzat' ulertu dute. Akats hori kontu-unitatearen eta ordainketa-unitatearen arteko nahasketatik dator. Zenbait autorek uste dute nahikoa dela kontu-unitate berria definitzea moneta berria sortua izateko.

Badakigu euroa 'moneten saskia' dela. Euroa ez da (oraingoz) moneta, benetako edozein moneta ordainketa-unitateen bilduma baita. Euroa moneta izan dadin, beharrezkoa da edozein monetak zirkulatzen duen moduan berak ere 'zirkulatzea'. Irizpidea argi dago: monetaren zirkuitua banku jaulkitzailearen 'kreditu/zor' bikoteak eta korrelatibo diren bi eragiketa hauek definitzen dute:

(i) Agentearen zorra bankuak pagatzen dueneko kontuarekiko, eta
(ii) pagaturiko agentearen kreditua.

Deskribaturiko eragiketa triangeluar horretan, euroa erabilia izanen denetik, moneta modura existituko da.

Moneta-euroa sortzeko baldintza beharrezkoa eta nahikoa hauxe da, alegia, erakunde bat, Europako Banku Zentrala izanen dena, bere bezeroen konturako eurotan ordaintzen arduratzea.

Hortaz, europar monetaren atarian gaude. Euroa existituko da bera ordainketan egonen deneko heinean; gaur egun, aldiz, euroa zenbait ordainketaren kontu-unitatea da, zeintzuk, beste ordainketak bezalaxe, moneta nazionaletan eginda dauden.

Kaos intelektualak —paralelismo delakoak— kaos monetariora ez eramateko, euroari bere lekua eman behar zaio, moneta nazional desberdinek berena izaten segituko duten moduan (Schmitt 1988a).

14.1.3. Euskoa

'Absurdua' omen da euskal banku jaulkitzailea erakitzea. Ekonomialari gehienen ustez, 'ameskeria' da euskal moneta jaulkitzea.

Hala ere, 'nazio monetario', 'banku zentral' eta 'moneta' kontzeptuak argi edukiz, nazioarteko moneten arteko desorekarekin bukatzeko 'bancor' delakoa edo antzeko monetaren bat proposatuz, gaur egungo dolarren menpekotasunetik irteteko 'euro'-aren beharra gero eta nabarmenago izanez, biharko euroarekiko eta etziko bancorrekiko trukeak *absolutuak* izateko, eta gure ekonomia benetan babesteko, proposatzen dugun tesia argia da oso:

*Biharko **euroaren** aurrean eta etziko **bancor** edo antzeko nazioarteko moneta berriaren aitzinean, Euskal Herriak, bere osotasunean, euskararekin batera, bere moneta eduki behar du, **euskoa** alegia.*

Euskal Herriak XXI. mendearen erronkari eustearren, nahitaezko baldintzatzat, ez nahikoa alta, independentzia behar du, bere Banku Zentrala dela bide nazio 'monetario' bilaka dadin.

Izan ere, hiru zeregin nagusi dauzka Euskal Herriak arlo monetario eta ekonomikoan: (i) inflazioa eta langabezia konpontzea; (ii) Ipar eta Hegoaldekoaren arteko harreman ekonomikoak ongi neurtzeko behar den berezko moneta —edozein delarik beraren izena— jaulkitzea; eta (iii) Munduarekiko edo eta Europarekiko berezko monetaren eta nazioarteko moneta zein europar moneta komunaren arteko erlazioak zehaztea.

(a) *Ekonomia nazional* guztien gaitza dira langabezia eta inflazioa. Lan-indarra produkzio-faktore soila denez —zentzu zabalean, hots, alokairua jasotzen duten guztiak barne egonik— eta alokairuak Barne Produktu Gordina neurtzeko unitatetzat hartuz, banku-monetaren zeregina eta betebeharra analizatuz, monetaren emisioa (edo jaulkipena) eta kreditua bereizten dira. Horrek, ondorioz, banku-gintzaren funtsezko aldaketa dakar, banku-kontabilitaterako bi departamentu desberdin antolatuz.

Banku guztiek erreforma teoriko-praktikoa behar dute bankugintzan aurkitzen ditugun bi eragiketa-motak, eragiketa jaulkitzailea eta finantzarioa, bereizteko. Epealdi bakoitzean bankuek nazio monetarioan emitituriko moneta berria, produzituriko ondasun eta zerbitzu korronteen neurri zehatz eta zuzena da.

Horrela analizaturik, inflazioaren azken kausa produkzio-prozesuan erosteko ahalmenik ez daukaten moneta-unitateak sartzea dela konturatzen gara, alegia, mozkinak inbertsio bilakatzeari dagozkion desfuntzionamenduaren ondorioa. Are okerragoa dena, inflazioa eta langabezia banku-monetaren patologia berberari dagozkion bi ondorio dira.

Banku-monetaren bat-bateko 'zirkuituak' inflazio-desbideraketaren definizio zehatza ematen du. Honela, inflazioa den moduan agertzen da, alegia, desfuntziotzat. Alokairuen edozein emisio, erosteko ahalmenaren sormen netoa da. Produkzio-modu kapitalistak erosteko ahalmenaren zati bat definitiboki deusezten du, gain-metaketaren mesederako, emititua den une berean. Edozein erosteko ahalmenek, langileei bat-batean kenduta, inflazio-desbideraketa definitzen du, errenta monetario —ikuspuntu nominaletik aldaezina dena— ikuspuntu errealetik murriztua baita.

Beste aldetik, langabezia inflazioaren ondorio zuzena da. Aipatu bezala, alokairuen emisioaren unean bertan langileei eskuratzeko produktuaren zati bat

kentzen zaie, gain-metaketaren mesederako. Baldintza horietan ez da egia produkzio-ekonomiak familiei, epealdi osoan, ematen diela enplegu osoari dagokion produktua eskuratzeko erosteko ahalmen beharrezkoa. Aitzitik, enpresak familientzako ondasun-eratan gain-metaketa gauzatzen dueneko egoera konkretu bakoitzean, erosteko ahalmena ez da nahikoa hasiera-hasieratik. Beste aldetik, enpresak ezin ditu etengabe kapital-ondasunak metatu, kapitalaren gain-metaketak 'errentaren jaitsiera tendentziala' dakarren heinean. Ondorioz, arazoa langabezia sorraraziz 'soluzionatzen' da.

Hortaz, langabezia eta inflazioa gainditzeko, kapital finkoaren amortizazioa kontuan edukitzeko, berriro ere, banku-kontabilitatearen aldaketa behar-beharrezkoa da, hirugarren departamentu bat eratuz (Schmitt 1984a,1996).

(b) *Nazioarteko mailan*, euskaldunok ez gara gai gure inportazioak eta esportazioak ongi neurtzeko, Espainiaren pezetaren eta Frantziaren liberaren goraberaren menpe gaudelako. Inportazioek eta esportazioek aparteko garrantzia daukate nazioartean edozein monetaren trukeak nolako izan behar duen neurtzeko. Beraz, gure moneta nazionalik ez edukitzeak, kalterako baldintzaten du erabat Euskal Herriak ekoizten duena. Gauzak okertu egiten dira, baldin eta Euskal Herriaren ekonomia oso irekia dela kontuan edukitzen badugu.

Beste aldetik, Pirinioz beste aldeko moneta libera eta hemengoa pezeta izanik, bi moneta desberdin herri bat eta bakarrean, kaos monetarioa agertzen da bien arteko kanpo-transakzio ekonomikoetan (Schmitt eta Cencini 1991), kasu honetan bi nazio monetario desberdinen bi erregio ezberdin izanik, nazioartean agertzen den kaos berbera baitaukagu. Izan ere, Ipar eta Hegoaldekoaren arteko *de facto* 'kanpo'-ordainketak direnak ez dira zuzenak, sasi-ordainketak baizik. Ordainketen balantzen soberakinek eta defizitek, *biek*, Naziorik Gabeko Kapital Finantzario delakoa handitzen dute, euromoneten masa gehituz. Okerrago, ordainketen balantzak orekaturik egon arren, eurodibisak sortuko dira kanpo-transakzioak gauzatuko diren heinean.

Beste aldetik, inflazio 'inportatua' nazioarteko monetaren arazoari dagokionez, berau konponduz gero, arazoa ez litzateke gehiago plazaratuko (Schmitt 1984c).

(c) *Europa mailan*, bi herrialde ezberdinen arteko inportazioak eta esportazioak, —edota moneta desberdinak dituen herrialde soil eta bakar baten bi erregioren arteko transakzio ekonomikoak, kasu Euskal Herriaren Ipar eta Hegoaldekoen arteko harreman ekonomikoak— ongi bideratzeko, beste hirugarren moneta bat behar da, bi esparru monetario desberdin horiez gain, bien kanporako transakzioetarako, moneta nazionala ez dena. Horretarako, Europan moneta nazional ezberdinen gainean behar-beharrezkoa da moneta komuna, *euroa* alegia.

Balizko europar moneta ‘bakarra’, euroa, martxan jarriko balute, aparteko langabezia sorraraziz —egungo proiektuan inflaziori aurre egiteko politika nagusia monetarismoa izanik, monetarismoak dakarrena langabezia baita—, Europa benetako ‘nazio monetarioa’ izanen litzateke Ameriketako Estatu Batuen antzera, lehengo Banku Zentral ezberdin guztiak erregio-banku bilakatuz. Kontua beste bat da. Alegia, gaur egun nola jaulki daitekeen moneta *komuna* Europa osorako, gaurko moneta nazional desberdinak kontuan edukiz, eta subiranotasun monetarioa gordez.

‘Moneta bakarra’ eta ‘moneta komuna’ bereizi ditugu, ez baitira gauza bera. Azken arazo hau argitzeko, jadanik zenbait lan argitaraturik daude. Alde batetik, nolabaiteko bat-bateko moneta bakarra agertzearen kontrako argudioak emanez eta moneta komuna izan daitekeen euroa jaulkitzeko era egokiaren aldekoak, nazio monetario desberdinen subiranotasuna gordez (Schmitt 1988a, Schmitt eta Cencini 1992). Bi hitzetan esanda, euroa modu egokiaz jaulkitzeko, bi ‘zirkuitu’ monetario —nazioartekoa eta nazionala— bereizi behar dira, biak inondik ere nahastu gabe. Honela eginez, *konfederakunde monetariooaren* antzeko erakunde bat sortzea da gakoa, zeinak alde batetik europar Banku Zentral berria behar duen, eta bestetik, nazio berrien eta herrien Banku Zentral desberdinen zereginak kontutan hartuko dituen.

Nazio ezberdinen subiranotasuna da gakoa Europa berria eraikitzerakoan. Bertan dauden herri eta nazioak kontuan edukitzen ez badira, Europa berri hori herrien presondegia izanen litzateke, oraingo europar zenbait estatu diren bezalaxe. Hori dela kausa, Europa berrian herrien eta nazioen subiranotasun politikoa bermatu beharra dago, autodeterminazio-eskubidearen bidez, herri bakoitzak bere subiranotasun politikoa lortuz. Ekonomian, arazoa honetan datza, alegia, nola gorde daitekeen subiranotasun monetarioa esparru monetario handiago batean, Europa berrian alegia.

Euskal Herriak XXI. mendeko erronkari aurre egiteko, *nahitaez* independentzia politikoa behar du. Beste aldetik, gero eta argiago ikusten dugu independentzia politikoak ez dakarrela, halabeharrez, independentzia ekonomikoa. Estonia, Letonia, Lituanian agertu diren arazo ekonomikoak (Lieren 1993) edo Sobietar Batasun ohiaren menpe egon ziren gaurko zenbait errepublika independente berri jasaten ari diren arazo ekonomiko latz eta gogorrak lekuko. Jakina denez, kanpotik inflazioa sorraraz daiteke, batez ere nazioarteko moneta egon ez delako, eta zenbait moneta nazional —dolar, yen, marko, eta suitzar frankoa batez ere— nazioarteko moneta gisa elkartrukerako erabiltzen direlako. Horri kanpo-zorra ordaintzeko dagoen iruzurra eta barneko arazoak —inflazioa eta langabezia— gehitzen bazaizkio, argi dago, independentzia politikoa kolokan jar dezaketela arazo ekonomikoek, jendearen ilusio eta nahiak zapuztuz.

Autodeterminazio-eskubidea aipatzen denean, eskuarki, politika mailan ulertu izan da. Baina autodeterminazio politikoak autodeterminazio ekonomikoa eduki

behar du kontuan. Subiranotasun politikoa eta ekonomikoa elkartu behar dira. Hortaz, subiranotasun ekonomikoak zer esan nahi duen eta zer dakarren aztertu beharra dago. Halaber, nola koka daitekeen subiranotasuna gaur egun ezagutzen den mundu-mailako interdependentzia ekonomikoan, zer ulertu behar den independentzia ekonomikoaz eta beste edozein herrirekiko zer nolako harreman ekonomikoak eduki behar diren.

Hortaz, autodeterminazio politikoa eskatzen denean, batera euskal Banku Zentrala eskatu beharrean gaude, geure berezko moneta jaulki ahal izateko. Euskal Banku Zentrala da gure helburua, berorren bidez gai izanen garelako bertoko produkzioa geurez ongi 'neurtzeko' —beharrezko diren banku departamentuen aldaketak eginez—, eta kanpoko transakzioak geure kabuz ondo 'zehazteko' —behar den moduan moneta nazionala eta nazioarteko moneta erabiliz—.

Euskal Herriaren independentzia politikoa *ezinbestekoa* da. Alta, behin eta berriz errepikatu beharra dago, independentzia politikoa ez dela nahikoa. Beste ekonomia-mota bat beharrezkoa da dauzkagun arazoak konpontzeko, independentzia monetarioa eta ekonomikoa lortzeko. Inolako autarkiarik gabe, inflaziorik eta langabeziarik gabeko Euskal Herri askatua nahi dugunok badaukagu zeregin frankorik.

14.4. EUSKOA ETA EUROA

Mundu platonikoan bizi omen gara, nominalismo hutsean murgiltzen garen bitartean. Izan ere, monetari buruz, zenbait zozok 'euskoa' eta 'euroa' existituko balira bezala erabili dituzte berriki, lehian eta lasterkan ibiliko bailiren, batek (euroa) besteari (euskoari) aurrea harturik (sic). Baina ez bata ez bestea ez dira existitzen. Euskoa deritzoguna, zoritxarrez inolako subiranotasun politikorik ez daukan Euskal Herriak —gogoratu behar al da Aturritik Ebroraino doanik?— eduki lezakeen moneta nazionala izan liteke. Euroa, bere aldetik, oraingoz kontu-unitatea da eta ez inongo ordainketa-unitatea. (Baledi eta balizko kondizionaletan ibiltzen gara.)

Nahiko ezaguna da lehengo 'ecu' eta oraingo 'euro'ari buruzko eztabaida sakona eta oraindik amaigabea, nahiz eta Euskal Herriko leku askotan erabat ezezaguna izan. Arazoa honetan datza, alegia, ea nola pasatzen den moneta ezberdin batzuetatik moneta 'komun' batera (gure ustez) ala moneta 'bakarrera' (ortodoxoen ustez). Ez dago inolako esperientzia historikorik horrelakorik gauzatzeko. Orduan, estrategia desberdinak daude. Estrategia batean, eskuindar mota guztiek aldarrikatzen dutena, Maastricht-eko Itunaren bidez, 2002. urtean edo Europa osoan moneta 'bakarra' izanen dugu. Litekeena da. Kontua da, zein preziotan? Hori lortzeko, segituko al dute eskuindar horiek guztiek langabezia sorrarazten?

Beste estrategia bat hauxe da, moneta nazionalak produkzio nazionalari lotuta egoten jarraitzea, eta moneta komuna, euroa, nazioarteko, Europako nazio monetario desberdinen arteko, transakzioetarako soilik jaulkitzea.

Bigarren estrategia horretan Euskal Herri independente, aske eta subirano batek aukera eduki lezake, bere moneta propioaren bidez, edozein delarik beraren izena, beste edozein nazio monetariok bezalaxe, bere produkzio nazionala ongi neurtzeko, eta euroarekin beharko lukeen truke-tasa finkatzea Euskal Herriaren beharrrizanen arabera. (Baledi eta balizko baldintzak berriro ere.)

Euroa *bihar bertan* atera liteke, baldin eta era egokian egiten bada. Moneta-teoria ulertzen ez dutenek —eta asko dira— ekonomia zenbait parametroren arabera 'homogenizatu' nahi dute (Oh Maastricht!), langabeziari muzin eginez, geroago —2002. urtean edo eta beranduago, nork daki!— euroa martxan jartzeko.

Bigarren eszenatoki horretan Euskal Herriko herritarrok, zein aukera izanen dugu? Egia da zenbait abantaila izanen ditugula, aipatzen ez den bat ondokoa izanik, hots, Ipar eta Hegoaldearen arteko transakzioak moneta berean egotea, beraz, inolako biziorik gabekoak izatea. Baina zenbait akats ere agertuko dira: jende askotxo langabezian egoteko aukera; herri gisa zatiturik egoten segitzea, bi komunitate ezberdin izanez, eta ez dakigu nola geratuko den Iparraldea. Okerragorik? Ziur aski Euskal Herriko zenbait eskualde erabat txirotuko eta pobretuko dira politika ekonomikoa aldatzen ez den bitartean. Ez al dago nahiko argi, nahiz eta moneta soil eta bakarra izan, edozein estatu-motatan, ezberdintasun ikaragarriak daudela estatu horren barneko erregio desberdinen artean?

Zergatik ez dute onartzen europarzale eskuindarrek, onartu gutxienez, aparteko zulo teorikoa daukagula teoria-mailan, eta ez dakigula inflazioari eta langabeziari, stagflazioari, nola egin aurre? Noiz arte iraungo luke modu drastiko baten bidez eta langabezia sorraraziz lortu nahi den ekonomiaren 'homogenizazioak'? Alegia, inflazioa kontrolatzearren langabezia sortuz, segituko al dute gure europarzale eskuindarrek monetarismoa erabiltzen, euroa jaulki eta gero, moneta 'bakarra' eduki eta gero?

Kontua da, ekonomi zientzia ez dela batere neutroa, eta euroaren projek-tu ortodoxoaren atzean, Maastrichteko Itunaren ostean, aparteko indar ekonomikoak daudela. Indar horiei ez zaie batere interesatzen gurea bezalako herri txikiek subiranotasun politiko, *ekonomiko eta monetarioa* edukitzea.

Hemen ez dago inolako lasterketa motarik, baizik eta, gutxienez, bi proiektu desberdin: Maastricht-eko Itunaren ildotik eskuindar-mota guztiek bultzatzen duten Estatuen gaineko Europa eraikitzeko proiektua, eta estaturik gabeko nazioei, herri txikiei eta langileei begira egon litekeen beste bat. Argi dago, gero eta argiago, non kokatzen den norbera. XXI. mendeari begira gauden aro honetan, proiektuak plazaratzerakoan, norberaren baloreak —langabeziari buruzkoak, kasu— mahai gainean jartzea *sine qua non* motako baldintza da. Non ezartzen dute eskuindar horiek langabeziaren arazoa, Europa paradisiakoaren eraikitze horretan? Ba ote dauka euroaren jaulkitzeak inolako erlazioa langabeziarekin, ala ez? Zein? Lite-

keena ote da subiranotasun politikoa eta monetarioa lotzea? Nola? Euroa jaulkirik egonda, zeintzuk izan litezke euroaren, dolarraren eta yenaren arteko erlazioak? Beste aldetik, zer proposatu dute eskuindarrek Hirugarren Mundurako? Nola buka daiteke kapital espekulatzailearekin? Nola kanpo-zorrarekin?

Are gehiago, demagun geuk ere onartzen dugula bide ortodoxoa. Europako Banku Zentralean oraingo Banku Zentral ezberdinek parte hartuko (omen) dutenez, zer gertatuko zaio Euskal Herriari? Parte hartuko al du herri modura, 'nazio' gisa, ala Espaniaren eta Frantziaren menpe segitu behar al du?

Kontua da, euroa bihar (2002. urtean) egonen delakoan fedea ezarriz, eta gaur egungo egoerari muzin eginez, hemengo ekonomialariek ez dutela gaurko *euskoa* izan litekeen euskal monetan inolako sinesgarritasunik jartzen, oraingoz espainiar pezetatan sinesten baitute, iparraldekoek frantziar liberatan fedea daukaten bezala, hemengo eta hango politikari gehienek euskal independentzian sinesten ez duten legez.

Independentzia, alta, ez da fede-arazoa, eta benetakoa baldin bada, moneta--arazoari aurre egin behar dio, Quebec-en orain dela gutxi egin den moduan.

Europar moneta komunari buruz badago egon bibliografia asko euroa beste era batera jaulkitzeko, produkzio eta monetizazio nazionalak eta europar nazio monetarioen arteko transakzioak eta moneta komuna bereiziz. Zergatik ez dira eztabaidatzen gure artean estrategia desberdin horiek?

Esate baterako, Quebec-en subiranotasun monetarioaz eta ekonomiaz egindako eztabaidak izan dira sakonenak eta interesgarrienak. Lan askoren artean, hona hemen, tanta batzuk: Bougault 1991; Gagnon eta Rocher (ed.) 1992.

Separatismoaz mintzatzen dira quebectarrak, 'Sezesioaren Ekonomia' proposatuz. Independentzia aldarrikatzen dute beren manifestoan, sasi-argudioei arloz arloko erantzun zuzenak emanez. Zertan ari gara gu? Maastricht-eko Ituna jainkotu dugu, langabezia barra-barra zabaltzen den bitartean, eta politikoki separatismo eta sezesio hitzek bildurtzen bide gaituzte.

Ez al dugu behar euskaldunok, gaur egun inoiz baino beharrago, independentziaren aldeko eztabaida sendo eta garbia, zeinak Euskal Herriko arazo ekonomikoez gain beste hainbat arazori ere arreta handia egin behar baitie?

"*Balizko olak burdinarik ez*" dio bizkaitar esaera zaharra. Euskoa da hemen arazoa, zeren jakin baitakigu ziur euroa egongo dela, nahiz eta eurora iristeko aparteko arazoak egon.

Maastricht-eko ildotik euskoa ez da egonen. Baina *balizko* euskoa eta *balediko* euskoa ez dira gauza bera euskal gramatikan.

Balitz eta *baledi* bereizten ditugu. Batak irrealtasuna suposatzen duen bitartean besteak potentzialtasuna. *Balediko* euskoa Euskal Herri independenteari dagokio, potentzialtasuna erakusten baitu. Platonikoak ez garenez, aristoteliarrak baizik, potentzialtasun hori gauzatu ahal izateko, geure ekonomia ongi babesteko eta neurtzeko, egungo mundializazioa kontuan edukiz, ez daukagu inolako dudarik geure moneta behar dugula, euskara eta independentzia politikoa behar ditugun legez.

Balizko euskoaz mintza daitezke Euskal Herriaren independentzia politikoa (eta ekonomikoa) *de facto* onartzen ez dutenak. Balizko euskoak Espainiaren eta Frantziaren menpe uzten gaitu betiko.

Balediko euskoa Euskal Herri independenteari legokioke. Balediko euskoa balediko euskal Banku Zentralari legokiokeenez, Europako Banku Zentrala europar Banku Zentralen Bankua izanen denez gero, bide ortodoxotik joanda ere, gure balediko Banku Zentrala ere hortxe egon liteke.

Beraz, nahiz eta bide hiperortodoxoa erabili, litekeen potentzialtasuna irekita eduki behar dugu, geure ekonomia ongi babesteko. Hortaz, balediko euskoa balizko moneta guztiak baino erreferentzia zuzenago eta argiagoa da independentziazaleontzat.

Nolanahi dela, teori-mailan ez dago batere dudarik — ortodoxian zulo teorikoa apartekoa izanik—, norberaren moneta nazionala edukitzea behar-beharrezkoa dela norberaren ekonomia ongi neurtzeko eta babesteko (Schmitt 1984a,1996), bai eta nazio monetario desberdinen artean egon daitekeen moneta komuna behar den moduan jaulkitzeko ere (Schmitt 1988a, Schmitt eta Cencini 1992).

Dena den, bide ortodoxotik euroa Europan, eta guri dagokigunez, espainiar eta frantziar estatuetan, martxan jarriko balute —aparteko langabezia sorraraziz—, argi dago, Euskal Herriaren Ipar eta Hegoaldearen arteko harreman monetarioak ez liratekeela biziodunak izanen, gure herrian moneta soil eta bakar bat erabiliko litzatekeelako (Schmitt eta Cencini 1991).

Egoera horretan, kontua beste hau litzateke, langabeziari eta inflazioari aurre egiteko, Euskal Herriko banku guztietan bankugintzaren jarduera aldatu beharko litzatekeela, 8. kapituluan adierazi den ildotik, Europa osoan aldatu beharko den bezalaxe.

Beste aldetik, nazioarte-mailan, eta bancorra edo antzekoren bat jaulki ez dadin bitartean, euroa soilik Europatik kanporako harremanetan —dolar eta yenaren erlazioetan bereziki— eduki beharko litzateke kontuan, 10. kapituluan ikusi den moduan.

15. Hitzatzea

"*The difficulty lies, not in the new ideas, but in escaping from the old ones, which ramify, for those brought up as most of us have been, into every corner of our minds*."

John Maynard Keynes, *The General Theory*

Ekonomia eta ekonomia-zientzia krisian daude. Liburu honetan krisi sakon horri erantzuna ematen saiatu gara Bernard Schmitt-en eskutik.

Makroekonomia kuantikoa metodo berria da, gure zientziaren garapenean etapa berri bat ekarri duena. Analisi kuantikoaren arabera, gizakiaren lanak ez du ekoizten inolako materia 'axiologikorik', objektu material eta zerbitzuen *utilitatea* baizik. Zientzia ekonomikoaren sorreratik egon diren bi balio-motak —truke-balioa eta erabil-balioa—, birdefinituak dira orain. Soilik truke-balioa da neurgarri: gizakiaren lanak sorturiko moneta-kantitatea berdintzen du. Ekonomia monetarioa izanen ez balitz, ez luke edukiko ezelako balio neurgarririk, eta gertaera ekonomikoak ez lirateke izango zientziak aztertzeko modukoak.

Gure ekonomietan, alokairua da efektiboki lanak sorturiko moneta-kopurua; honela, banku-moneta ez dute finantza-erakundeek sortzen, langileen jarduerak baizik: (gordailu) bankuek lanaren produktua 'balioztatu' egiten dute, bera monetan sorraraziz.

Errenta monetarioak gastatzen direnean, produktu eta zerbitzuen azken erosketetan, truke-balioak lekua uzten dio erabil-balioari: produktua erabiltzeko materia besterik ez da. Ondasunen utilitatea ez da neurgarri. Hala ere, produktuak homogeneo dira: guztiok gizakiaren lanak sortu ditu eta 'zenbaki konkretuen' kategoriari dagozkio, epealdian sorturiko alokairuen unitateei hain zuzen ere.

Makroekonomia kuantikoak gertaerei dagokien krisia gainditzea ahalbidetzen du; ez da soilik metodo berria, berak gure zientziaren garapenaren etapa berria adierazten baitu.

Ikusi dugunez, alokairuen ordainketa edo emisioa da eragiketa ekonomiko bakarra maila nazionalean. Liburuan egiaztatu dugun bezala, emisio erreala ekonomiaren funtzionamendua esplikatzen duen jarduera da.

Banku-monetak kapitalaren metaketa ahalbidetu du. Baina ez hori bakarrik, kapitalismoa ere ekarri du, produkzio dualen edo gain-metaketaren sistema. Iraultza industrialaz geroztik, gain-metaturiko kapital instrumentalek gure gizarteen ongizate materiala ekarri dute. Gaur egun, dena den, gain-metaketak kostu gehiago ekartzen ditu abantailak baino. Kasurako, erabat gain-metaketari dagozkion langabezia eta inflazioa jasanezin bihurtu dira.

Schmitt-i jarraituz, bankuen birmoldaketa egin eta gero, inbertsioak familien aurrezkiek finantzatuko dituzte, ez banatutako mozkinek. Orduan, ekonomiak bi errenta-mota besterik ez ditu ezagutuko, alokairuak eta ez-alokairuzko errentak. Gaurko sisteman automatikoki eta bat-batean kapital (gain-metaketa) bihurtzen diren errenta guztiak desagertuko dira.

Nola esplika daiteke mozkin banatuen existentzia? Ricardo-k jadanik aipatzen zuenez, mozkin horiek interesei loturik daude. Esan nahi al da interesa kapitalaren aurretik dagoela? Inola ere ez. Kapitala errealitate konkretua da, banku-monetak agertu baino lehen ere: mailegu-hartzaileak errenta bat zor dio eramaleari.

Zerbitzu produktiboen, produktuen eta tituluen merkatuetan dauden jarduera guztiak emisioak dira. Emisio guztiak *beteak* izango balira, Say-ren legeak krisia baztertuko luke, inflazioa bera ezinezkoa izanik. Ekonomiaren patologia bakarra emisio ez-beteak dira. Emisio *ez-beteak* epealdietan zehar metaturiko kapital finkoaren amortizazioen mekanismo automatikotik datoz.

Inflazioa eta langabezia 'emisio ez-beteen' existentziari dagozkio, produkturik gabeko alokairu nominal hutsen sorrera dela-eta. Beraz, emisioak 'iragazi' egin behar dira, ekonomiak alokairu 'beteak' ekoitz ditzan. Emisio huts horiek jarraiko epealdietako kapital finkoaren amortizazioari dagozkio. Amortizazioak produzio bikoitza edo duala sortzen du, kapitalaren gain-metaketa alegia.

Inbertsio-ondasunen produkzioa, beraz, ez da kontsumo-ondasunen produkziotik bereizten den jarduera desberdina. Ekonomiak inolako patologiarik jasango ez balu, inbertsio-ondasunak kontsumo-ondasunen kategoria bat izanen lirateke.

Inflazioaren eta langabeziaren etiologia erakutsi dugu. Irteera bakarra banku-jardueraren banaketa hiru departamentutan datza. Erremedioa banku-jarduerari dagokio, bankugintza hiru departamentutan banatuz. Lehen bi departamentuek finantza-bitartekaritzan inolako moneta ezin dela sortu segurtatzen dute. Hirugarrenak kapital instrumentalaren gehitze guztiak kontuan hartzen ditu, berorien garapena hartzen du kontuan. Gordailu-bankuan finkatua, kapitala errenta-titular guztien jabetza da. Lehen aldiz, zientzia ekonomikoak arlo juridikoari dagokion kontzeptua hartzen dio maileguz; produkzio-medioen bereganatze edo jabetza kolektiboa, hau da, ohiko marxismoak aldarrikatu duena, kontzeptu hutsa eta ez-erabakiorra da batera. Kontzeptu horrek ez du balio ezertarako, ez bada, hemen ikusi

den bezala, berorrek koroa —emisio hutsei dagokiena— nukleoaren —emisio beteei dagokiena— mozkinera murriztea esan nahi izatea: nukleoan eratua, kapital instrumentala familia anonimoen multzoaren jabetza da.

Beste aldetik, ez-alokairuzko errenten zioa hauxe da: dibidendoak akzioen interesak dira, interesak zentzu hertsian obligazioen tituludunei zerbitzaturik egonez. Kasu bietan, entrepresek alokairu-ondasunen salmentan honako hau lortu behar dute, alegia, batera alokairu-ondasunen eta 'interes-ondasunen' produkzioaren finantzaketa. Denbora guztian, mozkinek, enpresek zor dituzten interesak berdintzera jotzen dute, denbora-kapital metatukoaren gainean. (Enpresek ez dute inolako interesik zor, inbertituriko kapitala dela kausa, hirugarren departamentuak kenduriko aurrezkiak mozkinetan eraturiko alokairuetan baitauka bere jatorria.)

Mozkinei interesen gaineko 'aurrerapena' emanen dietenak, enpresari-mota berrien sormena (enpresari politiko berriez, ikus Negri 1990), irudikapen-sortzailea eta abentura dira, diferentzia konstanteki egonez lehiaren lege gogorraren menpe, zeinaren efektua mozkina gutxitzea den,bera interesetara murriztu ahal izateko.

8. kapituluan ikerturiko gain-metapena bukatuko den egunean eta nazioarteko moneta-sistemak ongi funtzionatuko duenean, mozkinak produkzioaren legamia bezalakoa izanen dira, edozein mozkin neto —interesak gainditzen dituen edozein mozkin— enpresaren benetako arrakastaren zeinua izanik. Orduan, Schmitt-ek nahi duenez, gizartea sozialismo-mota berrian biziko da, ekonomia osoa bere lekuan jarriko duen sozialismo-motan hain zuzen ere.

16. Eranskinak

(a) Hiztegia

Herrialdea

Ekonomia itxian, egoiliarren multzoa.
Ekonomia irekian, kanpora begira, egoiliarren eta Estatuaren multzoa

Herrialdeko egoiliarrak

Herrialdean dauden pertsona fisiko eta moralen multzoa; Estatua bera, barnera begira, egoiliarren partea da.

Estatua

Barnera begira, herrialdeko egoiliarren multzoaren partea da.
Kanpora begira, munduaren beste herrialdeen aurrean bere herrialdea errepresentatzen du 'singleton' modura.

Merkatal balantza

Kanpo-merkatuetan egoiliarrek egindako ondasun eta zerbitzuen erosketak eta salmentak erregistratzen ditu; edozein epealditan balantza hau positibo, negatibo edo nulua da.

Kapitalen mugimenduen balantza (edo *balantza finantzarioa*)

Kanpo-merkatuetan egoiliarrek egindako tituluen erosketak eta salmentak erregistratzen ditu; edozein epealditan bera positibo, negatibo edo nulua da.
Gaurko sasi-sisteman balantza hori soilik egoiliarrei dagokie.
Hala ere, bera egoiliarren eta herrialdearen multzoan definitu beharko litzateke.

Ordainketen balantzak

Ordainketen balantzak ondoko multzoen gainean definitzen dira:
(i) Herrialdeko egoiliarren multzoa;

(ii) Estatua, kanpora begira, egoiliarrak errepresentatuz;
(iii) aurreko bi multzoen multzoa.

Finantza-balantza osoa (edo *Estatuarena kanpora begira*)

Erreserba ofizialen hazkunde positiboak eta negatiboak besterik ez ditu erregistratzen.

Nazioarteko ordainketetan *gaurko sasi-sisteman* balantza honek merkataritza-balantzaren eta balantza finantzarioaren batura orekatzen du, honela ordainketa guztien balantzaren oreka neurgarria sortuz. *Gaurko sasi-sisteman* oreka hori neurgarri hutsa da, 'nazioarteko ordainketak' gezurrezko monetatan —dibisatan, '*Special Drawing Rights*' direlakoetan— egiten baitira.

Sistema berrian balantza honek Estatuaren eta Nazioarteko Moneta-Fondo *berriaren* departamendu finantzarioaren artean gauzatutako erosketak eta salmentak erregistratuko ditu; honela, ordainketa guztien balantzaren oreka ez da soilik kontagarri izanen, erreala ere baizik, egoiliarren superabiteko erosketa eta salmentak Estatuaren superabiteko salmentek eta erosketek konpentsatuko baitituzte. *Ordainketak* defizit eta soberakinetara hedatuko dira.

Erreserba ofizialen hazkunde negatiboak eta positiboak kapitalen mugimenduak dira eta honelakotzat herrialdearen balantza finantzarioan sartzen dira.

Ordainketen balantza osoa (edo *ordainketa guztien balantza*)

Nazioarteko espazioan egoiliarrek eta herrialdeek, kanpora begira, egindako ordainketa hartzekodun eta zordun guztiak erregistratzen ditu; balantza osoa herrialde bakoitzean halabeharrez orekaturik dago.

Gaurko sasi-sistemak ez du betetzen logikaren arau hori, balantza osoaren oreka ez baita egiaztatua izaten, baldin eta finantza-balantza osoa bera orekaturik ez badago; gezurrezko erreserben hazkundea salmenta ez-ordainduen zigorra da; alderantziz, gezurrezko erreserben gutxitzeak erosketa ez-ordainduak esan nahi ditu.

Sistema berrian ordainketa guztien balantza efektiboki orekaturik egonen da, erreserba ofizialen aldaketak ordainduak egonen baitira, barnean moneta nazionaletan eta kanpoan nazioarteko monetatan.

Erreserbak (*ofizialak eta pribatuak*)

Gordailutako erosketa-ahalmena deskontatzeko eskubidea definitzen dute erreserbek; erreserbak tituluen merkatuaren gaineko errenta monetarioen gastutik datoz; beraz, aurrezki monetariotik sortzen dira.

Erreserba ofizialak nazioarteko aurrezkiak dira.

Nazioarteko ordainketen *gaurko sasi-sisteman*, erreserbak dibisen eta urrearen altxortzeak dira; hala ere, dibisak eta urrea nazioarteko gezurrezko monetak dira; erreserbak ere, hortaz, gezurrezkoak dira. Gezurrezko erreserben erabilpenak eskari soberakinduna elikatzen duenez, inflaziogilea da. Munduko produktuaren partea erosteko, urre edo dibisen edozein gastuk gezurrezko monetatan eskaria

gehitzen die, jadanik herrialdeen barnean egiazko monetatan eskuragarri den erosteko ahalmenei; moneta gain-numerario horrek tarte inflaziogilea sortzen du, nahiz eta bera erreserbatan deskontatua izan.

Nazioarteko ordainketen *sistema berrian*, moneta supranazionaleko erreserbak ez dira altxortzeak, Nazioarteko Moneta-Fondo *berriaren* departamentu finantzarioko gordailuak baizik; edozein gordailu berri bat-batean birziklatua da, hau da, Estatuari —'kanpora begira'— mailegatua edo defizitdun herrialdeen egoiliarrei.

Erreserba pribatuak —nazioarteko enpresenak barne— moneta nazionaletan definituriko aurrezkiak dira.

(b) Kapital finkoaren amortizazioa

16.1. INBERTSIO NETOA

Inbertsio netoak emisio hutsak sortzen ditu ekonomia nazionalaren funtzionamenduan.

Inbertsio netoak izaera bikoitza dauka. Alde batetik, denbora-kapitala eratzen du; bestetik, inbertsio netoak emisio hutsa sortzen du.

16.1.a. Denbora-kapitala

Denbora-kapitalaren metaketa laua —mozkinetan eraldatzen ez diren alokairuen aurrezkiari dagokiona— eragiketa (positibo, negatibo edo nulu) bat da, produkzio-epealdi bakoitzaren barnean kokatzen dena, alokairuen bi emisio jarraik definituriko mugen artean. Hau da, eragiketak epealdi soil bat inplikatzen du. Errenta-titularrek beren irabazi korronteen zati bat metatzen badute, denbora-kapitala metatzen dute; metaketa netoa da gizartean, aurrezki korronteak 'desaurrezki' korronteak baino handiagoak izaten direlako baldintzetan.

Inbertsio netoa, konplexuagoa den denbora-kapitalaren metaketa da. Kasu honetan, logikaz, bi epealdi desberdinetan arrazoitu behar da: mozkina epealdi bateko alokairuetatik eratzen da eta beste epealdi bateko alokairuen emisioan gastatzen da. Izan ere, pentsaezinezkoa da epealdi bateko alokairuetatik irtenda, mozkina epealdi bereko alokairuetan inbertitzea.

Demagun etsenplu bat.

(p) epealdian, ekonomia nazionalak 100 alokairu-unitate ekoizten ditu. Suposa dezagun 100 unitate horietatik 20 mozkinetan eratzen direla. Beraz, bi aukera daude:

(a) Baldin eta mozkinetan irabazitako 20 alokairu-unitateek dibidendoak (edo beste edozein ez-alokairuzko errenta bat) elikatzen badituzte, enpresetatik kanpo eratuak, dagozkien ondasun errealak —dibidendo-ondasunak— (p) epealdiko

produktuaren bostena dira. Izan ere, azkenik enpresek 100 moneta-unitateko existentziari aurre egiten diote, zeintzuetatik 20 birbanatzen diren, produktu erreala 100 moneta-unitateetan sarturik dagoela. Alokairuen gastuak, alde batetik 80 unitate eta bestetik 20, (p) epealdiko produktuaren alokairuzko eta ez-alokairuzko errenta-titularren multzoari eginiko azken salmenta definitzen du.


(b) Dena erabat ezberdina da, baldin eta mozkinetan irabazitako 20 alokairu-unitateek, birbanatuak izan barik, inbertsio netoak finantzatzen badituzte, hau da, enpresen mozkinerako gastuak. (Egoera berri horren analisia ez da aldatzen, baldin eta mozkinetan irabazitako alokairuak finantza-merkatutik badatoz; langileek erositako obligazioek enpresen mozkinak 'aitzinatu' egiten dituzte.)

Demagun eratzen direneko epealdi berean inbertitu nahi direla mozkinetan irabazitako alokairuak. Kondizio horietan, mozkinen baturak nulua behar du izan halabeharrez. (p) epealdiko produkzioak 100 alokairu-unitate ematen du; mozkinen 20 unitateen inbertsioak (p) epealdiko produkzioaren parte bat adierazten du; ikusten dugunez, produktu horren salmenten baturak bere produkzio-kostu osoa berdintzen du (alokairu-unitatetan). Horretatik mozkina nulua dela ondorioztatzen da. Errealitatean, bistakoa denez, mozkin inbertitua positiboa da: enpresek (p) epealdiko mozkinak jarraiko eta geroko epealdi bateko produkzioan inbertitzen dituzte.

Gehigarria izanik, epealdi baten mozkina jarraiko eta geroko epealdi batetan inbertitu ahal izango da soilik.

Beraz, aukerak honelakoxeak dira:

(i) Mozkin *birbanatuak* epealdi bereko produkzioan eratu eta gastaturiko errentak dira.
(ii) Mozkin *inbertituak* epaldi bateko produkzioan eratzen dira, eta beste epealdi bateko produkzioan gastatzen dira.




Kasu bietan, produkzioak 100 alokairu-unitate berdintzen du epealdi bakoitzean. Mozkina birbanatzen denean, (p) epealdiko mozkin erreala (p) produktuaren alde margoztua da. Honela, (p+) jarraiko produkzioak ez dauka alokairuen ordainketan aurreko inolako mozkinen gasturik. Aitzitik, mozkina inbertitzen denean, (p) epealdiko alokairuen ordainketek ez daukate (p) epealdiko inolako mozkinaren

gasturik: mozkinaren 20 unitateak (p+) epealdian ordaindurik 100 alokairu-unitateen partea dira (alde margoztua).

Egia da (p) eta (p+) epealdietako produktuak elkartrukagarriak direla; beraz, litekeena da enpresek inbertsio-ondasunak (beren kapital instrumentalaren gehitzea) (p) epealdiko produktuaren artean aukeratzea; hala ere, baldintza horretan ere, inbertsio-ondasunak dira; (p+) epealdian eraturiko kapitala trukatzen da, 'aldez aurretik' eta merkatu-prezioan, (p) epealdiko produktu baliokide baten bidez.

Mozkin *birbanatua* mozkinetan irabazitako alokairuen eratzea atzeranzko eran gastatzen da; aldiz, mozkin *inbertituak* itzulezinezkoa den denbora-kapitala definitzen du; mozkin inbertituaren aurrean, nahitaez, beharturik, (p) epealdiko 20 unitate aurrezten dira.



Mozkina lortzen duten enpresak *E'* dira; egiaztatzen da *E''*-n, alokairu-ondasunetan, 20 unitate berdintzen duen aurrezki korrelatibo baten eratzea. Mozkin inbertituetan eskuraturiko alokairuen baliokidea izanik, alokairu-ondasunen aurrezkia denbora-kapital definitiboa da; (p+) epealdiko produkzioa (20 unitate arte) ez da aurrezki horren deuseztapena, beraren objektuaren eraldatzea baizik: kapital finkoak leku hartzen die aurrezkian alokairu-ondasunei.

Beraz, beraren 'lehen izaeran', kaltegarri ez dena, inbertsio netoa denbora-kapitalaren metaketa konplexuagoa besterik ez da.

16.1.b. Emisio hutsa

Inbertsio netoaren 'bigarren izaera' emisio huts bat da.


Alokairu edo mozkin birbanatuak soilik kontuan hartzen direnean, zerbitzu produktiboen merkatuan eite bakarreko eragiketak besterik ezin dira ezagutu, baldintza horietan, alokairuen edozein emisio erosketa nulua izanik produktuen merkatuan. Mozkin birbanatuen gastua produktuen merkatutik ateratzen da zerbitzu produktiboen merkatuan.

Alokairuen gastuaren erretroakzioa ez da kontuan hartzen beren eratze-eragiketan, alokairuen deuseztapenaren erretroakzioak ez baitauka lekurik hemen. Hala ere, erretroakzio bat sartzen da, mozkinetan bereganaturiko alokairuen parteari dagokiona: izan ere, mozkinak kontuan hartzen direnean, beraien eratzeak

dakartzan alokairuen gastatuak eta deuseztatuak ezin daitezke bazter. Beraz, kasu guztietan, mozkin birbanatuetarako ere, mozkinen eratzeak alokairuen emisiotik erosketa bat ekartzen du, erosketa-produktuen merkatuan.

Dena den, baldin eta mozkinen eratzeak alokairuen ordainketan erosketa positiboak sortzen baditu, alokairuen azken gastua beste horrenbeste murrizten da. Zerbitzu produktiboen merkatuan gastaturiko alokairuak ezin dira gastatu produktuen merkatuan. Alokairuen ezein emisiok ez du erosketa gehigarririk definitzen produktuen merkatuan.

Itzul gaitezen etsenplura.



Margozturiko parteak hauexek dira, (a)-n alokairuen sormenean sarturiko mozkinen gastua, eta (b)-n mozkinen sormena alokairuen gastuan sartua. Konpentsazioa eta gero, egiaztatzen da alokairuak eratzen direla inolako errenta-deuseztapenik ez daukan mugimendu batean eta, simetrikoki, alokairuak gastatzen direla ezelako errenta-sormenik ez daukan mugimendu batean.

Mozkinen eratzea eta gastua alokairuen zirkuituaren barneko zirkuitu bat dira. Honela, 100 alokairu-unitateko emisoa eta gero, produktuen merkatuan 100 errenta-unitate daude erabilgarri; beste aldetik, errenta horien gastua eta gero, produktu-merkatuan azken erosketak 100 alokairu-unitateko baturara murrizten direla egiaztatzen da. Mozkin birbanatuen eratzeak eta gastuak ez diote ezer gehitzen produktu-merkatuan egiaztaturiko gastuen baturari.

Aitzitik, mozkinaren inbertsioa erosketa gehigarri bat da produktu-merkatuan. Froga dezagun hori bi partetan:

(i) Inbertsioari zuzenduta egonik, mozkinek lana erosteko ahalmena daukate. Ez alokairuek ezta mozkin birbanatuek ere ez diete ematen beren titularrei besteen lana beren onurarako jartzeko ahalmenik. Agenteek soilik produktua bereganatzeko posibletasuna daukate, ondasunak alegia, zeintzuen produkzioak errentak —alokairuzkoak eta besteak— sortu dituen jadanik.

Mozkina eragiketa oso berezi batean inbertitzen da; lana erosten du; beraren ordainketa da. Kasu honetan, lana bera merkantzia bat da; mozkinak alokairu berrietan eraldatzearen bidez erosten da. Baldin eta (p+) epealdian emitituriko 100

alokairu-unitatetatik, 20 unitate aurreko produktuan eraturiko mozkinetatik eratuak badira, mozkinak honela inbertituz, (p+) epealdiko lanaren zati bat erosten dute enpresek, (p+) epealdiko populazio aktiboaren bostena —alokairu unitatetan neurtua—, hain zuzen.

(ii) Lanaren erosketa, identikoki, lan-produktuaren erosketa da. Izan ere, langileen jarduera erostean, 20 alokairu-unitate arte, enpresek mugimendu berean jarduera horren produktua erosten dute: ondasun errealak 20 alokairu-unitateko neurrian. Langileen jardueraren erosketan eskuraturiko ondasunek *kapital finkoa* definitzen dute.

Bi parteetan dagoen informazioa batuz, bilatzen dena aurkitzen da. (p+) epealdian, alokairuen emisioa 100 unitatekoa da, dagokion azken erosketen suma 120 alokairu-unitatekoa den bitartean. Errenta-titularrek 100 alokairu-unitate edukitzen dituzte (partzialki birbanatuak, interes, errenta eta dibidendo modura); beren aldetik, enpresak jadanik 20 alokairu-unitate gastatu dituzte produktuen merkatuan, 100 alokairu-unitateetako emisioan sarturiko gastua.

Zein da erosketa gehigarria? Erantzuna bistakoa da: mozkinetatik eginiko alokairuen ordainketa da. (p+) epealdiko 100 alokairu-unitatetako emisioa betea da 80 unitateetarako soilik; gainontzerako, hutsa da, enplegaturiko langileen bosten produktua alokairuen emisioan bertan gastatua izan baita jadanik.

(p+) epealdian sorturiko (eta denboran ezarririko) 100 errenta-unitateko titularrek (p+) epealdiko produktuaren 80 unitate eros ditzakete soilik; diferentzia enpresek metaturiko kapital finkoa da. Horrela, emitituriko 100 alokairu-unitateetatik 20 (produktutik) hutsak direla egiaztatzen da.

Beste hitzez esanda, 100 alokairu-unitatetan emititua izan arren, (p+) epealdiko produktua 80 alokairu-unitatetan soilik ezartzen da, diferentzia enpresetan metaturiko kapital finkoaren berehalako gehiketa izanik.

Alokairuen emisio *betea* da alokairuen eratzea, mozkinen gastuarekin bat etortzen ez denean. Aitzitik, alokairuen emisio *hutsa* da, mozkinen gastuarekin identifikatzen den heinean, hots, mozkinen inbertsioan betetzen den baldintzan.

Ohar gaitezen ezen emisio hutsa ez dela sasi-lan baten ordainketa. (p+) epealdiko jarduerak 100 ondasun berriko neurria ekoizten du, zeintzuen langileek soilik 80 unitate jasotzen dituzten beren 100 moneta-unitateko alokairuetan. Kapital-ondasunak ez dira ezartzen ez alokairu monetarioetan, ezta denboran ere; aitzitik, enpresek zuzenki bereganatzen dituzte.

Froga dezagun ezen inbertsio netoak definitzen duen emisio hutsa kaltegarria ez dela.

Inbertsio netoa emisio huts *ez-kaltegarria* da, galdutako alokairuak konpentsatu egiten baitira; (p+) epealdiko produkzioak mozkina inbertitzen du; ikusten denez, honela konpentsatu egiten da alokairuetan produzitutako efektua.

(p+) epealdian emitituriko alokairuek ez dauzkate epealdi honetan produzitzen diren kapital-ondasunak. Hala ere, (p+) epealdian ordaindutako soldatapekoek (p) epealdiko produktutik aurrezturiko alokairu-ondasunak bereganatzen dituzte, mozkinaren eratze-denboran. Azkenik, (p+) epealdian emitituriko alokairuak 100 produktu-unitateei dagozkie, 100 alokairu-ondasunen unitate, zeintzuetatik 20 uni-tate (p) epealdiko aurreko produkziotik datozen.


Egia da (p+) epealdiko produkzioak emisio huts bat daukala, baina ez da kaltegarria, zeren kapital-ondasunak, alokairu errealetatik bat-batean erretiratuak izanik (100 alokairu-unitatek erosteko ahalmeneko 80 unitate besterik ez dauzkate), konpentsatu egiten baitira aurrezturiko alokairu-ondasunekin.

Azken analisian, 100 alokairu berriko unitateek erosteko ahalmeneko 100 unitate dauzkate. Inbertsioa emisio huts ez-kaltegarria bada ere, emisio kaltegarriak prestatzen ditu, kapital finkoaren amortizazioari dagozkionak.


16.2. INBERTSIO NETOAK DEFINITZEN DUEN EMISIO HUTSAK ONDORIO KALTEGARRIAK DITU, ERRENTA-TITULARREN 'DESJABETZA' SORTUZ: KAPITAL FINKOAK IHES EGITEN DIE

Kapital-ondasunen produkzioa emisio betea balitz, inbertsioari dagokion eskari gehigarria nulua litzateke. Baina errealitatean, eskari gehigarria positiboa da. Tentaturik egon daiteke lehendik aurrezturiko alokairu-ondasunen bidez finantzatuz, eskari gehigarria murrizteko. Prozedura desegokia litzateke, alokairu-ondasunen parte bat *birritan* erosiko delako, lehendabizi mozkinen eratzean —aurrezkijarduera erosketa bat da— eta gero beraien inbertsioan.

Alokairuak mozkin bilakatzen diren heinean, errenta-titularrei ihes egiten diete. Bi aukera daude: mozkinak banatzen badira, errenta-titularrek beren galera errekuperatzen dute, dibidendoek alokairu murriztuak konpentsatzen baitituzte. Alderantziz, mozkinak inbertitzen direnean, errenta-titularren desjabetza betikoa da.



Mozkinak inbertitzen diren heinean, dena bukatzen da beraien eratzetik. Emisio hutsa mozkinen eratzean datza. (p) epealdian, 100 alokairu-unitate lortu duten langileek, benetan, soilik 80 eskuratu dituzte, zeren, atzeranzko eran, egia baita mozkinetan desnaturaldutako 20 alokairu-unitate ez dituztela lortzen. (p+) epealdian mozkinen gastuan egiaztatzen den emisio hutsa, (p) epealdian gertatzen den hasierako emisio hutsaren errepikapena ez-metagarria besterik ez da.



Alokairuen emisioa 100 moneta-unitateren eratze/gastua bada ere, fluxu monetarioen bidez errenta-titularrengana 80 ondasun-errealeko unitate 'kanalizatzen' dira soilik. Langileek moneta betea (=80) eta moneta hutsa (=20) eskuratzen dituzte. Beraz, kontsumo-kategoriak ez du errenta nazionala osatzen, 100 alokairu--unitateko kontsumoak fluxu errealeko 80 unitate definitzen baititu soilik. Inbertsioa baturagarria da: $R = K + I = 100 + 20$. Inbertsioa emisio hutsa da, epealdiko produktu osoa 100 alokairu-unitaterekin neurtzen baita, eta ez 120rekin.

Inbertsio netoak esanahi unibokoa dauka. Produktu osoa produkzio nominalak aurretik sorturiko 100 alokairu beteko unitaterekin neurtzen da. Mozkin inbertitua 20 moneta-unitatekoa denez, enpresek berehala (alokairuen ordainketaren aldiunean) ondasun errealeko 20 unitateko neurria kentzen dute. Kentze horrek ez ditu ukitzen alokairu monetarioak; soilik produktua murrizten du alokairu monetarioetan. Monetatik ateratako produktua familiei kentzen zaie, 'ez-pertsona' den batek eskuratzeko, herrialdeko enpresen multzoak hain zuzen.

Errenta-titularrek galtzen duten neurrian, produktuak Kapitala elikatzen du.

Patologia batek sortzen du 'ez-pertsona' den kategoria, inbertsio netoa emisio faltsua delako. Errenta-titularren 'desjabetza' edo 'expropiazio' kontzeptuak, edo, identikoki, produkzio-medioen jabetza pribatuak, bere benetako adierazpen ekonomikoa lortzen du. Oraintsu arte, desfuntzionaltasuna termino juridikoetan formulaturik zegoen. Hemendik aurrera, argi dago ezen, emisio hutsek iraungo duten bitartean maila juridikoak ez duela ezer konponduko.

16.3. KAPITAL FINKOA EZ-PERTSONA (ENPRESEN MULTZOA) DEN BATEN JABETZA IZANIK, BERORREN AMORTIZAZIOAK EMISIO KALTEGARRIAK SORTZEN DITU

Errenta nazionala, *R*, kontsumoan edo kontsumo eta inbertsioan adieraz daiteke.

(1) $R = K$
(2) $R = K + I$

Autore askok lehen formula hobetsi dute, kontsumoan ondasunak bukaturik daudelako; inbertsio-ondasunak benetako ondasunen prestakuntzan daude sarturik, prozesu-fasean. Intuizio hori emisioen logikak baieztatzen du.

(2) definizioa ez da (1)-ren bariante soila. Errenta nazionalaren adierazpen nominala edo monetarioa ez da berdina bi ekuazioetan.

(1) $R = K = 100$
(2) $R = K + I = 120$

Inbertsio-gastua ez da kontsumoarekiko gehitze erreala. Alokairu-unitatetan neurtua, produktu osoa ez da aldatzen; beraz, honela idatz daiteke (2) ekuazioa,

$R = K + I = 120$ monetatan= 100 alokairu-unitatetan.

Inbertsioa gehitze erabat nominala da. Inbertsioa kontsumoari gehitzen zaio emisio hutsak emisio beteei gehigarri zaizkielako. Beraz, logikak inbertsioa kontsumoaren 'kategoria prolifikoa' izatea behartuko luke, mozkinak alokairuenak diren bezala.

Errenta-titular anonimoak kapital instrumentalaren jabeak dira, Kapitalaren ordez; hala ere, produkzio-erremintek ezin dute funtzionatu etxeetan. Magnitude nominalen (120) eta errealen (100) diferentziak ez du ematen arriskutsua denik. Azkenik, eskari gehigarriak mugimendu gehigarri hori esan nahi du soilik: Kapitalak eskuratzen duen mozkin inbertitua (20).

Arazoa hurrengo urratsean agertzen da —inflazioa eta langabezia sorrarazi—, kapital finkoaren amortizazioarekin.

16.4. KAPITAL FINKOAREN AMORTIZAZIOA

Desfuntzionaltasunaren jatorria mozkinaren inbertsioan dago. Banatzen ez den edozein mozkin, zerbitzu produktiboen merkatuan gastatzen da. Alokairuzko eta ez-alokairuzko errentak, aldiz, produktuen merkatuan gastatzen dira.

Horrela, bada, mozkin (ez-banatuen) enpresa-titularra ez da errenta-titular arrunta, ‘ez-pertsona’ baizik.

Inbertituak izanik, mozkinak halabeharrez zerbitzu produktiboen merkatuan gastatzen dira, non lana erosten duten: beraiek bihurtzen direneko ondasunak produzitzeko enplegaturiko langileen ordainketetan desagertzen dira, eta horrela, dudarik ez, kapital-ondasunen aldaketa librea ahalbidetzen da merkatu-prezioan, truke orokorrean.

Lege hori ikusi eta gero, alokairuen sormen eta deuseztapenaren zirkuitua eraikiko dugu, kapital finkoaren amortizazioa kontuan edukiz. Industri ekonomiaren banaketa bi sektoretan induzituko dugu: batak alokairu-ondasunak ekoizten ditu emisio beteetan, eta besteak mozkin-ondasunak, *strictu sensu*, emisio hutsetan.

Legea. Mozkinen gastua edozein mozkin banatutarako, logikoki produktuen merkatuko eragiketa bat da, eta, alderantziz, edozein mozkin inbertitutarako, zerbitzu produktiboen merkatuko eragiketa bat.

Mozkina gastatzen duen pertsonaren identitatean datza horren froga.

Edozein mozkin *banatutarak*o, berorren eratzea enpresek ‘luzaturiko’ gastua da. Baldintza horietan, mozkina, berorren titularren esku, moneta positibo bat da, enpresetan baliokide den moneta negatibo baten eratzeak sortua; prezeski, horrela eraturiko moneta negatiboak enpresen mozkina deuseztatzen du, bir-banatzeko helburuarekin. Horregatik, mozkin transferituaren gastua, edozein errentatarako bezalaxe, bi moneten —positiboa eta negatiboa— elkartzea da.

Interesen, dibidendoen eta errenten gastuak berei dagokien produktu erreala askatzen du, zeinak deuseztatzen den aldiunean bertan moneta lagatzen duen.

Mozkin *ez-banatuaren kasuan*, analisia ezberdina da. Banatzen ez den mozkinaren gastua dela-eta, enpresaren multzoa (*E*) batera da gastuaren ‘jaurtikitzailea’ eta ‘jasotzailea’. Beraz, *E*-ren gastua *E*-n adierazi behar da.

Horretarako, beharrezkoa eta nahikoa da mozkinaren gastua lanaren erosketa izatea. Zehaztu beharra dago ezen, zerbitzu produktiboen gastua, mozkinak honela finantzatua, netoa dela.

(i) Mozkin *banatuen* kasuan, produktuen merkatuan gastuen batura zerbitzu produktiboen merkatuan dagokien batura berdinkidea da.
(ii) Mozkin *inbertituen* kasuan, produktuen merkatuan gastuen batura zerbitzu produktiboen merkatuan dagokien gastua baino handiagoa da (inbertsio--kopuruan).

Beraz, honelako irizpidea formula daiteke. Ez-banaturiko mozkinen gastua eskariaren *gehitzea* da; mozkin banatuen gastua alokairuen gastuan *sarturik* dagoen eskaria da.

Edozein mozkin inbertitu *E*-ren gaineko *E*-ren gastu modura definitzen da, eta *E*-ren gaineko *E*-ren edozein gastu eskari gehigarria da produktuen merkatuan, zerbitzu produktiboen merkatuko gastuen bidez gauzatua.

16.5. ALOKAIRUEN ZIRKUITUA KAPITAL FINKOAREN AMORTIZAZIOAREKIN

16.5.1. Amortizazioa eragiketa konplexua da, inbertsio-ondasunak familiei ez dagozkielako

Demagun *A* dela epealdian amortizazio-ondasunen produkziorako emituriko alokairuen kopurua. Ezar dezagun zirkuitua, amortizazio-ondasunak zentzu hertsiko alokairu-ondasunak balira bezala kontsideraturik. *A* alokairuak (ez-alokairuzko errentatan partzialki banatuak) amortizazio-ondasunak erosteko gastatuko lirateke. Zirkuitua ‘smithtarra’ litzateke.

Egia da, aipaturiko soluzio lau horretan ere, amortizazio-ondasunen produkzioan irabazitako alokairuak alokairu-ondasunen —kapital finko amortizatuen laguntzaz produzituak— erosketan gastatzen direla. Honela, amortizazio-ondasunen erosketa zeharkakoa da: alokairu-ondasunen salmentan irabazitako mozkin gordinak enpresei amortizazio-ondasunak erostea ahalbidetzen die.

Zergatik ez du funtzionatzen ekonomiak aipaturiko eskemaren bidez? Arrazoia hauxe da: kapital finkoak ez dira familien jabetza ekonomikoa.

Gogora dezagun inbertsio netoa emisio hutsa dela, zeinaren emaitza errenta-titularren multzoari kapitalaren jabetza kentzea den. Kapital finkoaren amortizazioa Smith-en logikari jarraituko litzaioke, baldin eta familien ondarean kapitala finkoa balitz (geografikoki, enpresetan gordailatua egonik, noski, produkzio-medioa izateko).

Errealitateak beste adierazpen bat behar du. Amortizazio-ondasunen produkzioan irabaziak izanik, *A* alokairuak ezin dituzte beren titularrek gastatu ondasun horiek erosteko, familiek ezin baitizkiete lotu amortizazio-ondasunak edukitzen ez dituzten kapital finkoei.

Hala ere, argi dago ezen, amortizazio-ondasunen produkzioak sorturiko errenten zirkuitua, beste zirkuitu monetarioak bezain ‘perfektua’ dela. Beraz, *A* errentak amortizazio-ondasunen erosketan azkenean berrisurtzen direneko bidea aurkitu beharra dago.

16.6. KAPITAL FINKOAREN AMORTIZAZIOAK DAGOKION FAMILIA-ERRENTAREN PARTEA FINANTZA-TITULUETAN ERALDATZEA DAKAR

Errenta-titularrek ezin dituzte zuzenki amortizazio-ondasunak erosi, kapital finkoa ez dagokielako. Desagertuko ote litzateke oztopoa, baldin eta amortizazio-ondasunak azkenik finantza-tituluen eran lortuko balituzte?

Baietz dirudi. Baina hori egiaztatu baino lehen, gogora dezagun langileek tituluetan —eta ez monetatan— kobratzen duteneko kasu bakarra.

Inbertsio-netoaren kasua da. Mozkinekin ordainduak, langileek errenta hutsa jasotzen dute, eta, konpentsazioan, mozkinek alokairuen aurreko bereganatzean aurrezturiko alokairu-ondasunen gaineko titulu bat.

Langileek amortizazio-ondasunen gaineko tituluak berdinki lortuko balituzte, logikoa litzateke esatea, orokorrean, beraien jabeak izanen liratekeela. Tituluen ordez ondasunen trukeak ez luke edukiko inolako zailtasunik. Logikaz, amortizazio-ondasunei beren errentak zuzentzeko ez-gai izanik —berriro, kapital finkoen jabeak ez direlako— titularrak amortizazio-ondasunak erosteko baldintzetan egonen lirateke, ondasun horien gaineko tituluen konbertsioaren bidez.

Beraz, zailtasun bakarra hasierako adierazpenean datza: langileek, amortizazio-ondasunen produktugileek, errentak izan gabe, jasotzen ote dituzte azkenik efektiboki amortizazio-ondasunen gaineko tituluak diren alokairuak?

Analiza dezagun epealdiko produkzioa, alokairu-unitatetan neurtua, *A* eta *A'* banatuta, A amortizazio-ondasunen produktua izanik eta *A'* gainontzeko produktua.

Lehen denboraldi batetan, egia da *A* alokairuak *A'* alokairuak bezalako errentak direla. Izan ere, amortizazio-ondasunen produkzio korrontea ez da 'alokairuen fondo' baten bitartez finantzatzen, ezta mozkinek aurretik eskuraturiko alokairuen bidez ere.

Bigarren denboraldian (errefluxuan), *A* errentak ez dira erabiltzen amortizazio-ondasunak erosteko; ezinezkoa da, (ikus 4. puntua). Beraz, logikak honelako informazioa ematen du: *A* errenten gastuak *A'* produktua saltzen duten enpresetan mozkin monetarioa sortzen du. *A'* alokairuzko kostua daukaten produktuak (*A'*+*A*) errentekin elkartzen dira.

Hirugarren denboraldia bigarrenaren ondorioa da. Mozkinaren teoriak erakusten du *A'* produktuaren salmentan sorturiko A mozkinek produktu horren banaketa dakartela: *A'*-ren *A* partetik, langileek enpresaren onurarako produ-

zitzen dute, eta soilik parte osagarriak, $(A' - A)$, beren alokairu errealak definitzen ditu.

A alokairuek *A'* alokairuak gutxitzen dituzte. *A* produktua amortizazio-ondasunetan izanen ez balitz, *A'* produzitzeko enplegaturiko langileek *A'*-ren berdinkide diren alokairu errealak jasoko lituzkete. *A* produktua amortizazio-ondasunetan definitzen denez, *A'*-ren produktugileek *A'*-ren berdinkide diren alokairu monetarioak jasotzen dituzte, baina soilik $(A' - A)$-ren berdinkide diren alokairu errealak.

A'-ren produkzioan emitituriko alokairuen gutxitzea alboraezina da, amortizazio-ondasunak produzitzeko enplegaturiko langileek beste ondasunen produktugileekin batera beren errentak gastatzen dituztelako. Errentak gastatzen dira $(A' + A)$ alokairuzko unitateko kopuru totalean, *A'* produktuaren azken erosketetan: horretatik ondorioztatzen da, halabeharrez, *A'*-ren produktugileek ez dutela beren produktuaren osotasuna jasotzen alokairutan, $(A' - A)$ partea soilik baizik.

A alokairuak lehendabizi errentak dira. Gero, *A'* alokairuekin batera gastatzen dira, *A'* produktuaren erosketan. Horregatik, *A* alokairuak *A'* ondasunen produkzioan irabazitako errentetan identitate berri batekin agertzen dira.

A' produzitzen duten langileek berehala (beren alokairuen ordainketan bertan) beren produktuaren *A* partea galtzen dutenez, beraien *A'* alokairuak *A*-ren berdinkide den partean hutsik daude. *A'* alokairuen emisioa betea da $(A' - A)$ neurrian, eta hutsik A neurrian.

Bil ditzagun adierazpenaren 'denboraldi' ezberdinak. Berez, amortizazio-ondasunen produkzioak errentak ematen ditu, beste ondasunen produkzioak bezalaxe. Hala ere, *A* amortizazio-ondasunen produkzioan emitituriko errentak, (halabeharrez) *A'* gainontzeko ondasunen erosketan gastatzen dira. Bazterrezinezkoa da *A'* produkzioak ondorioa jasatea: *A'* produktuaren $(A' - A)$ partea saltzen da *A'* produkzioan emitituriko alokairuen $(A' - A)$ partetik eta, gainera, amortizazio-ondasunen produkzioan emitituriko A errenten osotasunetik ere.

Enpresek honela gauzaturiko mozkina zeragatik da, alegia amortizazio-ondasunen produkzioan irabazitako alokairuak *A'* produktuaren erosketan ere gastatzen direlako. Mozkina *A'* produktuaren *A* partea da. Honela, *A'* alokairuen *A* partea ez da errenta bat: langileek zuzenki jasotzen dute titulu baten forman.

Titulu horren objektua erabat ezaguna da: amortizazio-ondasunak dira, *A*. Dena bukatzen da tituluaren ordez objektua elkartrukatzean: familiek *A'*-ren *A* partea gastatzen dute amortizazio-ondasunen produkzioa finantzatzeko. Beren errenten ordainketan amortizazio-ondasunak erosteko ez-gai izanik, familiek ondasun horiek lehendabizi kapital finantzario modura (tituluak) eskuratzen dituzte: amortizazio-ondasunak ordaintzen dituzte titulu horien gastuarekin.

16.7. ZIRKUITU OSOA

Errepresenta dezagun *A* amortizazio-ondasunen eta *A'* gainontzeko ondasunen produkzioaren zirkuitu osoa. Fluxuak ondokoak dira:


(I) amortizazio-ondasunen produkzioan alokairuen emisioa.

(II) amortizazio-ondasunen produkzioan emitituriko alokairuen gastua; gastu hori *A'* produktuan ikusten da, zehazkiago (*A'* – *A*) partean.

(II') amortizazio-ondasunen produkzioan irabazitako alokairuen gastuan sorturiko mozkin monetarioa.

(II'') amortizazio-ondasunen produkzioan sorturiko alokairuen gastuan irabazitako mozkin monetarioa produktu bilakatzea.

(II''') familiek egindako amortizazio-ondasunen-ordainketa.




A errentaren (II) gastuak (II') mozkin monetarioa eratzen du; amortizazio--ondasunen produkzioari dagokionez, (II') mozkina (II'') gastuan produktu bilakatzen da: honela, (II'') gastuan, langileek produkturik gabeko alokairu hutsa lortzen dute, mozkin erreala enpresek berehala bereganatuz. Produkturik gabeko alokairu hutsak definizio zehatza dauka: ondasun kapitalizatuen gaineko titulu bat da. Konkretuan, ondasun kapitalizatuak amortizazio-ondasunak besterik ez dira. Zirkuitua (II''') gastuan bukatzen da, amortizazio-ondasunen trukea espezieetan ondasun horien berorien gaineko tituluen ordez.

(II'') fluxua (I) fluxuaren 'irudia' da; horregatik produkzio duala deritzogu. Amortizazio-ondasunen produkzioaren emaitza logikoa mozkin-ondasunen produkzioa da, epealdi berean eta neurri berean. Gogora dezagun ezen, mozkin--ondasunak, *stricto sensu*, emisio hutsaren (kaltegarria, beraz) emaitza direla.

16.8. EKONOMIA NAZIONALAREN BI SEKTOREAK

Mozkin-ondasunak, *stricto sensu*, emisio hutsetan produzitzen dira; honela, industri ekonomia bi sektoretan banatzen da. Emisio beteen sektoreak alokairu--ondasunen eta amortizazio-ondasunen produkzioa edukitzen du. Emisio hutsen sektoreak mozkin-ondasunak zentzu hertsian produzitzen ditu, amortizazio--ondasunen produkzioa automatikoki sortzen duen funtzionaketa dela bide.

Mozkin-ondasunen ezaugarri duala argi agertzen da, abiapuntu modura enpresek hasierako inbertsio-ondasunen berreskuratzea hartzen denean. Baldin eta, bere eratzearen aldiunean, kapital finkoaren 'zati' bakoitza errenta-titularren multzoaren jabetze ekonomikoa balitz, kapital finkoen amortizazioa zeharkako erosketara murriztu ahal izango litzateke, jantzi baten erosketan eskuratzen den oihala bezala: amortizazio-ondasunak familietara iritsiko lirateke, hasierako kapitalak bezalaxe. Errealitatean, badakigu enpresen multzoak parte hartzen duela; inbertsio--ondasunak enpresetan garatzen direnez, amortizazio-ondasunak ere bai. Beraiek familietara ailegarazteko —zeren azkenik familiek ordaintzen baitituzte—, amortizazio-ondasunen produkzioaren mugimendua bitan banatu behar da.



(2) mugimendua (1) mugimenduaren indukzioa da: kapitalari (hasieran X dena) gehituriko mozkin-ondasunek amortizazio-ondasunak familien ondareetatik botatzen dituzte.

Familiek amortizazio-ondasunak ordaintzen dituzte eta, zentzu honetan, berek eskuratzen dituzte; hala ere, kapitala *X* da enpresetan: mozkin-ondasunak kapitalaren gehitze netoa dira.

Ondorioz, esan behar da, kapital finkoaren amortizazioa ez dela kapitalaren birprodukzio soila, patologiarik ezean gertatuko litzatekeen moduan, baizik eta amortizazioa berdintzen duen gehitze bat sortzen duela, mozkin-ondasunak kapitalari gehitzean, $(X+A)$.

Kapital finkoaren amortizazioa mugimendu laua balitz (enpresek kapitalaren eskuratzea mantenduz), *X* kapitala amortizazioa eta gero ukitu gabe egonen litzateke, eta berorren *A* partea familietara igaroa izanen litzateke. 'Kapitalistak' deritzenak enpresen multzoa $(X-A)$ balioan izanen litzateke, eta errenta-titularrak *A* balioan. Hala ere, errealitatean, errenta-titularrei transferitzeko kapital finkoa mozkin-ondasunek ordezkatzen dute mugimendu berean. Amortizazioa dela-eta, kapitala gehitzen da $(+A)$ errenta-titularren ondarean, eta zero (ez $-A$) enpresetan: orokorrean *X*-tik $(X+A)$-ra igarotzen da.

Kapital finkoaren kontserbazioan ez da inolako emisio hutsik gauzatzen, *X*-tik $(X-A)$-ra igarotzen denean, eta gero $(X-A)$-tik *X*-ra. Halaber, ez dago ezelako emisio hutsik alokairu-ondasunen produkzioan. Baina mozkin-ondasunen emisioa, amortizazio-ondasunen produkzio duala dena, halabeharrez hutsa da. Halabeharrez esan beharra dago, zeren, inbertsio netoak definitzen duen emisio hutsean ez bezala, amortizazio-ondasunen produkzioak induzitzen duen emisio hutsak moneta hutsera baitarama, edukirik gabeko monetara; kasu honetan, ez dago inolako alokairu-ondasunik esperoan hutsunea betetzeko. Mozkin-ondasunak produzitzeko enplegaturiko langileek alokairu erabat hutsa eskuratzen dute, zeinaren gastuak ezin dien ezer eman errenta-titularrei, edozein direlarik hauek.

Epealdiko produktuaren etsenpluan, honela bana daiteke produkzioa:

(i) *A*, amortizazio-ondasunen produkzioa;
(ii) $(A'-A)$, alokairu-ondasunen produkzioa; eta
(iii) A, produkzio duala, mozkin-ondasunena.

A' produkzioan irabazitako *A* alokairuak 'gastatu' eta deuseztatu egiten dira langileek eskuratzen dituzteneko aldiune berean.

Soilik lehengo bi alokairuek, *A* eta $(A'-A)$, daukate produktua, amortizazio--ondasunen eta alokairu-ondasunen batura. Ez soilik hirugarren alokairuak (*A* berdintzen duena) ez dauka inolako produktu berririk, baizik eta, era berean, ez dauka aurreko inolako produkturik (alokairu-ondasunetan); soilik errenta-titularrei ahalbidetzen die amortizazio-ondasunak ordaintzea. Produkzio dualaren neurrian, langileek ez dute produzitzen errenta-titularrentzat, ez dute pertsonentzat ekoizten: Minotauraren, alegia, Kapitalaren menpeko dira.

(c) Bi nazio monetarioko bi egoiliarren nazioarteko transakzioa, euroaren bidez


Badago oinarrizko desberdintasun kontzeptuala herrialdearen eta egoiliarren baturaren artean. Hori dela-eta, moneta nazionala ezin daiteke erabil nazioarteko mailan.

Ekonomia nazionala produkzio-ekonomia da, non egoiliar-mota guztiek —Estatua bera egoiliartzat hartuta— ekoizten duten. Agente ekonomikoak, beraz, egoiliarrak dira.

Nazioarteko ekonomia truke-ekonomia da, agenteak herrialdeak —'nazio monetarioak'— izanez.

Subsidiaritate printzipioa erabil daiteke moneta-arloan ere, herrialde bateko egoiliar batengandik (Frantziako Jean, kasu) beste herrialde bateko beste egoiliar batenganako (Espainiako Juan) ordainketa egiterakoan.

Demagun 1000 pezeta = 40 libera = 5 euro.



Europar moneta komuna *neutroa* da, Europako Banku Zentralaren eragiketak *neutroak* diren heinean.

(i) Banku-sistema frantsesaren nazioarteko departamentuak, Frantzia 'multzoa' ordezkatzen du kanpora begira.
(ii) Espazio nazionalean, egoiliarrak dira agenteak. Inportatzaile frantsesak bere monetaren bidez pagatzen du (1). Halaber, espainiar agente esportatzailea bere monetan, pezetatan, jasotzen du ordainketa (5).

Identitatea. *x* frantziar libera = *y* espainiar pezeta (6)

(6) identitatea gauzatzen da, baldin eta soilik baldin moneta nazionalen bi kopuru euro-kopuru berberaz aldatzen badira.

x = z euro
y = z euro
beraz,
x = y.

Europar Bihurketa- edo Konpentsazio-Ganbararen bidez, 'ordaintzailearen' moneta —libera— literalki bere forman desagertu egiten da, 'ordainduaren' monetaren forman —pezeta— agertzeko.

Benetako bihurketa horrek truke *absolutua* definitzen du, ordainketaren ibilgailua metamorfosi baten bidez —lehendabizi liberarena, eta gero pezetarena— berbera bihurtzen baita.

Egun homogeneotasun monetarioa espazio nazionalera mugaturik dago.

Bi moneta nazional desberdinen arteko identitatea (edo baliokidetza) soilik da posible, baldin eta biak homogeneoak badira, alegia, biek nazioarteko monetaren balio berbera badute (etsenpluan, x = z euro, eta y = z euro, beraz, x = y.)

(d) Banku-Kontabilitatearen etsenplua: hiru departamenturen erabilera

Erakuts dezagun nola bazter daitekeen aurretik jasotako mozkinetatik alokairuak ordainduak izatea, bankuaren hiru departamenturen eragiketaren bidez.

Hiru departamentuak hauxek dira: departamentu monetarioa (I), finantza--departamentua (II), eta kapital finkoaren departamentua (III).

Ondokoa erakutsiko dugu:

(i) I eta II departamentuen funtzionamendu bateratua;
(ii) enpresen zor monetarioa zor finantzario nola 'bilaka' daitekeen;
(iii) enpresen kredituak bankuen gaineko kapital finkoaren departamentuaren (III) pasibora pasatzeko behar diren bi idazpenak; eta
(iv) nola kontabilizatu mozkinaren gastua.

(i) Hipotesiak: (a) produkzioaren monetizazioa 100 unitatekoa da; (b) errenta-titularrak beren errentaren erdia gastatzen dute.

Alokairuen lehen ordainketak bankuaren bi departamentuen, I eta II, parte-hartzea behar du: batetik departamentu monetarioa, I, transakzio bakoitza monetaren bidez egiten baita; eta bestetik, finantza-departamentua, II, alokairuen ordainketak errenta berria sortzen baitu.

	I		II		III
(1)	E 100	II 100	I 100	L 100	
(2)	II 50	E 50	L 50	I 50	
(3)	E 50	II 50	I 50	L 50	

Sorturiko errenta 100 unitate monetariokoa da (1). Errenta-titularrek gastaturiko 50 unitate-monetariokoak, (2), 50 unitate monetarioko errenta erabilgarria uzten du, (3).

(ii) Bitartekaritza monetarioa eta finantzarioa beti elkarrekin joaten direnez, hilabetearen bukaerarako (edo enpresaren produkzio-prozesuari dagokion beste edozein denbora-tartetarako) errenta-titularrek aurrezten dutena, enpresari mailegatzen zaio, enpresaren zor monetarioa finantza-zor bilakatzen delarik. Kasu honetan, sarrerak bi departamentuen balantze-orrietan ondoko eran idatzi behar dira.

	I		II		III
(4)	E 50	II 50	I 50	L 50	
(5)	II 50	E 50	E 50	I 50	
(6)	E 0	II 0	E 50	L 50	

Lehengo egoeratik, (4), abiatuz, familien aurrezkia II departamentuaren aktibora eramaten da, (6).

(5) eragiketa egin eta gero, errenta ez da gehiago erabilgarri etorkizuneko epealdi batean alokairuak elikatzeko. Errenta-titularren kreditua enpresen zorrak deusezten du, (6).

Lehen departamentuko sarreren kantzelazioa monetaren ibilgailuzko izaera hutsetik dator, monetaren 'marka' finantzarioa da eta bankuaren bigarren departamentuan aurki daiteke.

(iii-a) Enpresek lorturiko kredituak 100 moneta-unitatekoak dira. Aurreko inolako errentarik ez da idazten II departamentuaren aktiboan.

	I		II		III	
(7)	E 100	II 100	I 100	III 100	II 100	E 100

Aurretik ezelako errentarik ez zegoenez, III departamentuaren sartzeak bi hauexek lortzen ditu batera, alde batetik enpresen zorra I departamentuan agertzea, eta, bestetik, enpresa berberen kreditua III departamentuan.

(iii-b) Oraingoz erabilgarri den errentaren kopurua, II departamentuaren aktiboan idazten da, 50 unitate monetariokoa izanik, (8).

	I		II		III	
(8)	E 0	II 0	E 50	L 50		
(9)			III 50	E 50	II 50	E 50
(10)	E 0	II 0	III 50	L 50	II 50	E 50

(9) idazpenari esker, enpresek daukaten 50 unitate monetarioko kreditua III departamentuaren pasibora transferiturik dago, (10), non berak ezin duen inolako azken gasturik elikatu.

(iv) (11) idazpenak batera, enpresen zorra I departamentuaren aktiboan eta enpresa berberaren kreditua III departamentuaren pasiboan agerraraztea ahalbidetzen du, 10 unitate monetarioko kopururako.

Produktuen merkatuaren eta/edo tituluen merkatuaren gainean gastaturiko mozkinaren kopurua 5 unitate monetarikoa da.

	I		II		III	
(11)	E 10	II 10	I 10	III 10	II 10	E 10
(12)	II 0	E 10	E 10	I 10		
(13)			E 10	III 10	II 10	E 10
(14)			III 5	E 5	E 5	II 5
(15)			E 5	III 5	II 5	E 5

Emisioa bere elkartruke logikoari dagokionetik, oraingoz erabilgarria den errenta II departamentuaren aktiboan transferiturik dago, (12). (13) idazpenak eragiketen saldoa ematen du. (14) idazpenari esker, produktuen merkatuan edo/eta tituluen merkatuan gastaturiko mozkina III departamentutik erretiratzen da. Orduandanik, II departamentuaren aktiboan eta III departamentuaren pasiboan dagoen idazpenak aurrezki behartua den mozkina adierazten du, (15), etsenplu honetan 5 unitate monetarioko kopuruan.

(e) Kanpo-zorrari buruzko Keynes-en irakaspena

Demagun *A* herrialdea gainontzeko Munduarekiko, *B*-rekiko, zordun dela 100 milioi dolarreko kopuruan. Halaber, suposa dezagun dolarraren eta *A* herrialdearen moneta nazionalaren, *a*, arteko elkartruke-tasa 1:1 erlazioa dela (1 $ = 1 a).

Keynes-en arabera (1929 a,b,c), *A*-k bere kanpo-zorraren parte bat ordaintzen badu, adibidez 1 milioi dolar, dolarrerekiko bere moneta nazionala proportzionalki depreziatuko da.

Hori honela da, zeren, nahiz eta *A*-ko agente zordunek *a* monetan beren zorra ordaindu, gainontzeko Munduari dolarretan ordaindu behar baitzaio. Honek esan nahi du *A*-ko Banku Zentralak dolarrak erosi behar dituela, truke-merkatuan dolarren eskari netoaren bidez, dolarrekiko *a* monetaren depreziazioa sorraraziz. Baina *a* moneta zorraren ordainketaren neurri berean depreziatzen baldin bada, zorra bera ez da gutxitzen *a* monetaren terminoan. 1 milioi dolar ordaindurik edukita, *A*-k oraingoz *B*-ri 99 milioi dolar zor dizkio. Hala ere, dolarraren eta *a* monetaren truke-tasa ez da orain 1 $ = 1 *a*, 1 $ = 1,01 *a* baizik. Beraz, *a* monetan adierazirik, *A*-ren kanpo zorra oraindik 100 milioikoa da.

Bibliografia

Keynes, J. M. (1929a) The German transfer problem, *The Economic Journal*, March.

Keynes, J. M. (1929b) A rejoinder, *The Economic Journal*, June.

Keynes, J. M. (1929c) Mr. Keynes's views on the transfer problem: a reply by Mr. Keynes, *The Economic Journal*, September.

17. Bibliografia

Ambjörn, E. (1961) International payments and the I.M.F., *Skandinaviska Banker Quarterly Review*, **42**.

Arrow, K. J. eta G. Debreu (1954) Existence of an equilibrium for a competitive economy, *Econometrica*, **22**: 265-290.

Baranzini, M. (ed.) (1982) *Advances in Economic Theory*. Oxford: B. Blackwell.

Baranzini, M. eta A. Cencini (ed.) (1987) *Contributi di Analisi Economica*. Bellinzona: Ed. Casagrande.

Baranzini, M. eta A. Cencini (ed.) (1996) *Inflation and Unemployment. Contributions to a new Macroeconomic Approach*. New York: Routledge.

Baranzini, M. eta R. Scazzieri (ed.) (1986) *Foundations of Economics: Structures of Inquiry and Economic Theory*. Oxford: B. Blackwell.

Barre, R. *et al*. (1987) *Les Déséquilibres Monétaires et Financiers Internationaux*. Fribourg, Suisse: Editions Universitaires.

Barrère, A. (1990) Signification générale du circuit: une interprétation, *Economies et Societés*, **2**: 9-34.

Barrère, A. (ed.) (1985) *Keynes Aujoud'hui. Théories et Politiques*. Paris: Dunod.

Basevi, G. *et al*. (1975) The All Saints' day manifesto for European monetary union, *The Economist*, Nov. 33-38.

Bourgault, P. (1991) *Now or Never! Manifesto for an Independent Quebec*. Toronto: Key Porter Books.

Bradley, X. eta C. Gnos (1991) Définition de l'inflation: actualité de la problématique keynésienne des unites de salaire. *Economies et Sociétés*, **8** (11-12): 173-189.

Bradley, X. J. J. Friboulet, eta C. Gnos (1996) From Keynes to the modern analysis of inflation, in Baranzini eta Cencini (ed.).

Brinkley, D. eta C. P. Hackett (1991) *Jean Monnet: the Path to European Unity*. New York: St. Martin's Press.

Cencini, A. (1984) *Time and the Macroeconomic Analysis of Income*. London: Pinter.

Cencini, A. (1985) L'analyse de la production, in B. Schmitt (ed.).

Cencini, A. (1988) *Money, Income and Time: A Quantum Theoretical Approach*. London: Pinter.

Cencini, A. (1995) *Monetary Theory. National and International*. New York: Routledge.

Connolly, B. (1995) *The Rotten Heart of Europe. The Dirty War for Europe's Money.* London: Macmillan.

Crawford, M. (1993) *One Money for Europe? The Economics and Politics of Maastricht.* London: Macmillan.
Dashwood, A. (1995) *Reviewing Maastricht*. London: Sweet and Maxwell.
Davidson, P. (1978) Why money matters: lessons from a half-century of monetary theory, *Journal of Post-Keynesian Economics*, **1**: 1: 47-70.
Dehousse, R. (1994) *Europe after Maastricht: An Ever Closer Union?* Müchen: Beck.
Deleuze, G. (1988) Signes et événements, in *Magazine Littéraire*, **257**.
Delors Committee (1989) *Report on Economic and Monetary Union in the European Community*. Brussels: CEC.
Descamps, C. (1980) L'approche financière des marchés de changes, *Cahiers du Centre d'Etudes Monétarires et Financères*, Dijon, No. **3**.
Descamps, C. eta E. Sadigh (1985) Déséquilibre keynésien ou déséquilibre néoclassique?, in B. Schmitt (ed.).
Duchêne, F. (1995) *Jean Monnet. The First Statesman of Interdependence*. London: Norton.
Emerson, M. eta C. Huhne (1991) *The ECU Report*. London: Pan Books.
European Commission (1995) *One Currency for Europe. Green Paper on the Practical Arrangements for the Introduction of the Single Currency*. Luxembourg: Office for Official Publications of the European Communities.
Fratianni, M. (1992) *The European Monetary System and the European Monetary Union*. Colorado: Westview Press.
Fratianni, M. eta T. Peeters (ed.) (1978) *One Money for Europe*. London: Macmillan.
Fratianni, M. eta J. von Hagen (1992) *The European Monetary System and European Monetary Union*. Colorado: Westview Press.
Frenkel, J. A. *et al*. (1989) *Analytical Issues in Debt*. Washington: IMF.
Friboulet, J-J. (1985a) Une conception hétérodoxe des volumes. L'analyse de Keynes dans le *Traité sur la Monnaie*, in B. Schmitt (ed.).
Friboulet, J-J. (1985b) Le Traité de la monnaie et l'inflation d'équilibre, in F. Poulond (ed.).
Friboulet, J-J. (1988) *Profit, Investissement et Inflation*. New York: Peter Lang.
Friboulet, J-J. eta J. Soichot (1976) Les 'monnaies-paniers': unité de compte ou unité de paiement?, *Cahiers du Centre d'Etudes Monétarires et Financères*, Dijon, N. 1.
Frieden, J. (1983) *Le Tiers Monde entre la Dépendance et l'Indépendance Monétaire*. Fribourg, Suisse: Editions Universitaires.
Frieden, J. (1985) La révision du traité de paix, in F. Poulon (ed.).
Frieden, J. (1987) L'origine monetaria delle crisi di pagamento: alcune osservazioni sull'indebitamento esterno dei Paesi in via di sviluppo, in M. Baranzini eta A. Cencini (eds.).
Friedman, M. (1953) The case for flexible exchange rates, in *Essays in Positive Economics*. Chicago: University of Chicago Press.

Friedman, M. (1956) The Quantity theory of money: a restatement, in M. Friedman (ed.) *Studies in the Quantity Theory of Money*. Chicago: University of Chicago Press.

Friedman, M. eta R. V. Roosa (1967) *The Balance of Payments. Free versus Fixed Exchange Rates*. Washington: American Entreprise Institute.

Friedman, M. eta J. Tobin (1990) The competition of ideas, *Dialogue*, **4**: 19-25.

Gagnon, A. G. eta F. Rocher (ed.) (1992) *Répliques aux Détracteurs de la Souveraineté du Québec*. Montreal: VLB éd.

Geniere, R. de la (1978) Monnaie et contre-monnaie, *Banque*, **369**.

Gnos, C. (1992) *Production, Répartition et Monnaie*. Dijon: Editions Universitaires de Dijon.

Gnos, C. eta J-B. Rasera (1985) Circuit et circulation: une fausse analogie, in B. Schmitt (ed.).

Gordon, R. J. (ed.) (1974) *Milton Friedman's Monetary Framework. A Debate with his Critics*. Chicago: Chicago University Press.

Gross, D. eta N. Thygesen (1992) *European Monetary Integration*. London: Logman.

Guitton, H. eta G. Bramoullé (1983) *La Monnaie*. Paris: Dalloz.

Hamouda, O. F. *et al*. (1989) *The Future of the International Monetary System*. England: E. Elgard.

Harrod, R. F. (1935) Letter to J. M. Keynes, in *The Collected Writings of J. M. Keynes*, Vol. 13, 1973.

Harrod, R. F. (1951) *The Life of John Maynard Keynes*. London: Macmillan.

Jean, A. (1990) *L' Écu, le SME et les Marchés Financiers*. Paris: Les Éditions d'Organisation.

Keynes, J. M. (1929) A Reply by Mr. Keynes, *The Economic Journal*, September.

Keynes, J. M. (1930) *A Treatise on Money*. London: Macmillan. *The Collected Writings of J. M. Keynes*, Vol. V and VI. Macmillan.

Keynes, J. M. (1936) *The General Theory of Employment Interest and Money*. London: Macmillan. *The Collected Writings of J. M. Keynes*, Vol. VII. Macmillan.

Keynes, J. M. (1973) A monetary theory of production, in *The Collected Writings of John Maynard Keynes*, Vol. XIII, Cambridge: Cambridge University Press.

Keynes, J. M. (1980a) Activities 1940-44: Shaping the post-War World. The Clearing Union. *The Collected Writings of JMK*, vol. XXV. Cambridge: Cambridge University Press.

Keynes, J. M. (1980b) Activities 1943-46: Shaping the post-War World. Bretton Woods and reparations. *The Collected Writings of JMK*, vol. XXVI. Cambridge: Cambridge University Press.

Knight, F. H. (1936) The quantity of capital and the rate of interes, *Journal of Political Economy*, **44**, (4).

Lavoie, M. (1987) Monnaie et production: une synthèse de la théorie du circuit, *Economies et Societés*, **9**: 65-101.

Lieren, A. (1993) *The Baltic Revolution. Estonia, Latvia, Lithuania and the Path to Independence*. Yale: Yale University Press.
Marshall, A. (1950) *Principles of Economics*. London: Macmillan.
Meade, J. E. (1963) The future of international payments, in H. G. Grudel (ed.) *World Monetary Reform: Plans and Issues*. Stanford: Stanford University Press.
Meier, G. M. (1982) *Problems of World Monetary Order*. London: Oxford University Press.
Molle, W. (1990) *The Economics of European Integration. Theory, Practice, Policy*. England: Darmouth.
Monod, J. (1980) *Le Hasard et la Necessité*. Paris: Seuil.
Negri, T. (1990) Technopoles et métropoles, *Les Annales de la Recherche Urbaine*, **46**: 87-94.
Poulon, F. (ed.) (1985) *Les Écrits de Keynes*. Paris: Dunod.
Riboud, J. (1986) Controverse sur la Banque et la Monnaie, *Revue Politique et Parlamentaire*, Paris: PUF.
Ricardo, D. (1985) *Scritti Monetari*, B. Schmitt-en sarrera, Roma: Istituto della Enciclopedia Italiana.
Robinson. J. (1964) *Economic Philosophy*. Great Britain: Pelican.
Rohland, W. J. (1983) *Gelddefinition und Geldschöpfund*. New York: Peter Lang.
Rueff, J. (1963) Gold exchange standard a danger to the West, in H. G. Grubel (ed.) *World Monetary Reform: Plans and Issues*. Stanford, New Jersey: Stanford University Press.
Rueff, J. (1980) *Oeuvres Complètes*. Paris: Plon.
Sadigh, E. (1981) Le financement du développment dans l'equilibre monétaire, *Cahiers du Centre d'Etudes Monétarires et Financères*, Dijon, No. **5**.
Samuelson, P. (1992) My life philosophy: Policy credos and working ways, in M. Szenberg (ed.) *Eminents Economists. Their Life Philosophies*. Cambridge: Cambridge University Press.
Say, J-B. (1903) *Traité d'Économie Politique ou Simple Exposition de la Manière dont se Formen, se Distribuent et se Consomment les Richesses*. Paris: Renouard, (1972) *Traité d'Économie Politique*. Paris: Calmann-Lévy.
Sayers, R. S. (1958) *Modern Banking*. London: Oxford University Press.
Schmitt, B. (1960) *La Formation du Pouvoir d'Achat*. Paris: Sirey.
Schmitt, B. (1966) *Monnaie, Salaires et Profits*. Paris: PUF.
Schmitt, B. (1971) *L'Analyse Macroéconomique des Revenus*. Paris: Dalloz.
Schmitt, B. (1972) *Macroeconomic Theory: A Fundamental Revision*. Suisse: Castella.
Schmitt, B. (1973) *New Proposals for World Monetary Reform*. Suisse: Castella.
Schmitt, B. (1975a) *Théorie Unitaire de la Monnaie, Nationale et Internationale*. Suisse: Castella.
Schmitt, B. (1975b) *Génération de la Monnaie des Monnaies Européennes*. Suisse: Castella.

Schmitt, B. (1977a) *L'Or, le Dollar et la Monnaie Supranationale*. Paris: Calmann-Lévy.
Schmitt, B. (1977b) *La Monnaie Européenne*. Paris: PUF.
Schmitt, B. (1982) Time as Quantum, in M. Baranzini (ed.).
Schmitt, B. (1984a) *Inflation, Chômage et Malformations du Capital*. Suisse: Castella.
Schmitt, B. (1984b) *Les Pays au Régime du FMI*. Paris: Economica.
Schmitt, B. (1984c) *La France Souveraine de sa Monnaie*. Suisse: Castella.
Schmitt, B. (1985a) L'identité de l'offre et de la demande globales dans le temps, in A. Barrère (ed.).
Schmitt, B. (1985b) Un nouvel ordre monétaire international: le plan Keynes, in F. Poulond (ed.).
Schmitt, B. (1985c) Introduzione agli Scritti Monetari di Ricardo.
Schmitt, B. (1986) The process of formation of economics in relation to other sciences, in M. Baranzini eta R. Scazzieri (ed.).
Schmitt, B. (1987a) Le plan Keynes: vers la monnaie internationale purement véhiculaire, in M. Zerbato (ed.).
Schmitt, B. (1987b) Endettement des pays: produit de l'etalon change-or, in R. Barre *et al*.
Schmitt, B. (1987c) Comparaison du système et du non-système des paiements internationaux dans le cas du commerce extérieur équilibré, in M. Baranzini eta A. Cencini (eds.).
Schmitt, B. (1988a) *L'Ecu et les Souverainetés Nationales en Europe*. Paris: Dunod.
Schmitt, B. (1988b) The international debt problem and the 'Clearing Union', in O. Hamouda eta J. N. Smithin (ed.) *Keynes and the Public Policy after Fifty Years*, New York: Columbia University Press.
Schmitt, B. (1988c) Circuito economico e moneta bancaria, in A. Graziani eta M. Messori (eds.) *Moneta e Produzione*. Torino: Einaudi.
Schmitt, B. (1989) La France appauvrie par le service de sa dette extérieur, *Economies et Sociétés*, **32**: 91-100.
Schmitt, B. (1996) Unemployment: is there a principal cause?, In Barancini eta Cencini (ed.).
Schmitt, B. (ed.) (1985) Production et monnaie, *Cahiers de la Révue d'Économie Politique* delakoaren ale monografikoa.
Schmitt, B. eta A. Cencini (1976) *La Pensée de Karl Marx, Critique et Synthèse. La Valeur*. Suisse: Castella.
Schmitt, B. eta A. Cencini (1977) *La Pensée de Karl Marx, Critique et Synthèse. La Plusvalue*. Suisse: Castella.
Schmitt, B. eta A. Cencini (1982) Wages and profits in a theory of emisions, in M. Baranzini (ed.).
Schmitt, B. eta A. Cencini (1991) *External Debt Servicing. A Vicious Circle*. London: Pinter.

Schmitt, B. eta A. Cencini (1992) Per la creazione di uno spazio monetario europeo garante della sovranità di ogni singolo paese, in AA.VV. *Europa '93! E la Piazza Finanziaria Svizzera*? Lugano: Centro di Studi Bancari.

Schmitt, B. eta C. Gnos (1990) Le circuit, réalité exhaustive, *Économies et Sociétés*, **6**: 63-74.

Smith, A. (1985) *An Inquiry into the Nature and Causes of the Wealth of Nations* (1st edn 1776), Oxford: Clarendom.

Senior, N. W. (1931) *Three Lectures on the Value of Money*. London: London School of Economics and Political Science.

Socchi, G. (1977) *Monnaie, Taux de l'Intêret et Revenu*. Suisse: Castella.

Soichot, J. eta C. Descamps (1979) La construction monetaire de l'Europe, 1969-1979, *Cahiers du Centre d'Etudes Monétarires et Financères*, Dijon, N. **2**.

Steinherr, A. (ed.) (1994) *30 Years of European Monetary Integration*. London: Longman.

Tobar-Arbulu, J. (1997) *Marxez Haratago. Euskal Independentzia eta Subiranotasun Ekonomikoa*. Tafalla, Nafarroa: Txalaparta.

Tobin, J. (1978) A proposal for international monetary reform, *The Eastern Economic Journal*, reprinted in J. Tobin (1982) *Essays in Economics. Theory and Policy*. Cambridge, MA: MIT Press.

Triffin, R. (1960) *Europe and the Money Muddle. From Liberalism to Near-Convertivility*, 1947-56. Yale; Yale University Press.

Triffin, R. (1987) Le SMI (système ... scandale? monétaire international) et le SME (système monétaire européen), in R. Barre *et al*. (ed.).

Vanthoor, W. F. V. (1996) *European Monetary Union since 1848*. Brookfield, US: Elgar.

Villet, M. (1981) *Les Donneurs de Temps*. Suisse: Castella.

Walras, L. (1954) *Elements of Pure Economics* (1st edn 1874, *Eléments d'Économie Politique Pure*) London: Allen and Unwin.

Zerbato, M. (ed.) (1987) *Keynesianisme et Sortie de Crise. Keynes contre le Liberalisme*? Paris: Dunod.